

HOMERO

ODISEA

Itzultzaille:
AITA ONAINDIA

Begi-aurrean euki ditu:

- 1) Homeri Opara, David B. Manro et Th. Allen (Oxford)
- 2) Odyssée, Jean Bérard (Paris, 1960)
- 3) Odisea, Luis Segalá (Barzelona, 1961)

EUSKERAZAIN'TZA'ren Argitalpena

Bear diran baimenarekin

Azaleko marratza:
izontzia, Tunez'ko
bateko mosaikutik artuta

Depósito Legal: BI - 1.026 - 85

IGARRI, S. C. L. — Rafaela de Ybarra, 1 — Deusto-Bilbao

ITZAURREA

Aspalditik dabil mundua errien kultura, gogo-lantzea, jatorrizkoa ain zuzen he, aztertu, ikasi ta jagon nairik . Baita gu euskaldunok be. Edesti aurreko laiño artean galdurik daukagu kultura (Jai, dakigunez. Gu he erri bat gara, ta geure kultura daukagu, ez ain urria be; berau jaso, sailkatu ta gorde naiez dagiguzan alegiñak, nai onenak nai arenak, txalogarri dira zalantza-malantza barik.

Jakingo-edo dozunez, Grezia izan zan erri lez bere kultura-ren ederraz iñor baiño leen konturatu, kezkatu ta jabetu yakuna. Gurean lez an be, kultura mailla ta izkelgi ezbardiñak eza-gutzen ziran, oso antxiñatik; izkelgietan iru adarrok beintzat, joniar, doriar eta eoliar adarrok, ezagunak ziran. Dialektu oneitatik bakotxak eban bere kutsu ta tankera berezia, landu ebezan literatura gaietatik errez atara daikeguna. Oargarri dogu au he: izkelgi-diferentziok zelanbait erauzi fa danokaz hatasun bizi bat egiteko asmoz, koiné eritxon nas pilla sartu eben, eta orduantxe galdu ziran gerkarren izkelgiak oro. Begira, ta ikus!

Gerkar idazleak, izkelgi orreitzaz baliaturik, elertizko lan bikaiñak osotu ebezan. Joⁿiarrak Asia Txikian bizi izan ziran bereziki, alai ta asmatsu, eta euren olerki epikua eben, malgu ta leun adierazoa; Peloponeso'ko doriarrak lirika sortzen dabe, euren izkelgi ospetsuari egoki etorkona, ta Lesbos'ko eoliarrak, sentikor eta idurimentsu, euren olerki samur sendoa bizkortzen dabe. Gai bereziak berezia dau izkelgia he. Dialektu ta literatura gaiak ba-eben izan be kidetasun pizkat. Zertaz alakoxe izkelgia erabillen sarri gerkar idazleak. Trajerietan, adibidez, doriarren aditz-erak arta ni ebezan, kantua beteago gerfa zedin; Hesiodo'k, eoliar zala, eoliar-joniar izkelgia erabilli euskun bere epopeietan; eta Teokrito'k, sizi-tierra zalarik, eoliera darabil fiere maite-neurtitzetan.

Homero'ren lana. — Grezia'ko olerkari gaillen dozu Hornero. Kristoren aurreko IX fa VIIrgarren mende bitartean bizi

izan zan. Ipuin-ganduz estalia daukagu geien bat aren bizi-tza; ez dakigu nun jalo zan, Kio, Esmirna, Atenai, Sala mina, Rodas, Argos joten dabezan arren aren kumatzat; ez dakigu noiz bizi izan zan, eta ba-dira bizi izan zana duda-mudan ipin-ten dabenak be; iñoiz esan da bertsolari itsu bat izan zala. Orixegaitik, antxiñako erriak arat-onat ebillen bertso-esaletzat eukan Homero, eta jakintsu batzuen eritxiz, Homero'k, bere bertso-sorta biak, Iliasena ta Odisena, osotzean, bildumak egin zituan, aurreztik erriaren aotan zirauen olerkiz egiñak; Pisis-trato'ren garaian izan ei zan ori. Baiña ez dago orrela uste iza-teko benetako errazoirik.

Alan eta guzti be, aotik aorako jakintzak  zetxoegia da egi ziurraz jabetzeko— olerkizko lan bikain bion aitatzat dauka Homero. Grezia'n ezagunak ziran onen aurretik be olerkari batzuk, Lin, Orfeu, Museu ta Eumolpo, adibidez; eta Elade iparraldea zan baitik bat olerkiaren seaska. Homero'ren lan biok, baiña, gizaldiz gizaldi gerkar literatura-ren asikintzat euki izan dira, Beraz, bera dogu sarkaldeko poesiaren arbaso nausi.

«Epiku» deritxogun poesiaren sorleku Egeu ugarteak Asia Txikian izan ziran. Loratze bizi-bizia izan eban, toki oneitan, joniarrak eta eoliarrak, doriarrak mendietatik jatxi ondoren, eskualde oneitan bizi izaten jarri ziranean batez be: gogo-lan-tze errimea ezagutu eben Kristoren aurreko XII ta XI'garren gizaldietan. Ugarteetako zibilizaziño au guztiz nabarmendu zan, eta literaturari egokionez, poema sail ederrak ebiltzan esale, kantari ta olakoen aotan onduko gizuren eta argidoen egin-tza zurgarriak abestu eroiezan nun-nai, Troia menperatu ebene-koak-eta. Erriz-erri ta jauregiz jauregi joiazan bertsolariak euren bertsoak, kitara lagun, abestu ta aldarrikatzen. Homero be, esan dogu, orretaiko zala diñoenak ez dira gitxi. Grezia zaarrak beintzat erdi-jainko egin euskun.

Gerkar zaarrak Homero'renak lez eukezan, aitatu biez gai-ñera, ereserki ta ziri-bertso sail batzuk: Batrakomiomakia, au da, ugaraxo ta arratoien arteko burruka; Margites, gizuren barre garri bati buruzko poema, ta abar. Bailia Iliasena ta Odi-sena doguz eder eta ezagunenak.

Iliada edo Iliasena'k ogetalau kantu daukaz, amabost bat milla sei-oiñeko (hexametro) bertsogaz. Gaztetan egiña diru-di. Eta Akil'en asarrea abesten dau poemak, eta onen ondo-

rio doakabeak; bere mirabe Briseida ostu eutson gerkar gudarozteen buru Agamenon'ek, Menelau Esparta'ko erregearen emazte Elena atxillo egoana ber-erosteko Troia'ri moltzoa ipiñi eutsonak; ostutze au zala-ta, Akil, samindurik, bere etxolera baztertzen; bien bitartean, barriz, erasoaldi gordinak eta triskantza izugarriak jasan bear izan ebezan inguratzaileak.

Akil ondoren, suak artuta oraingoan be, barriro gudu-zelairatzen da, Patrokol, bere adiskiderik kutunena, Hektor troiar buruzagiak il eutsonean: ez da au zigor bage geldituko. Hektor, beraz, ezpataz il egiten dans Akil'ek. Poema troiar buruzagi ta Patrokol'en omenezko illetak ospatuz, amaitzen da.

Olerki nausi ontan goitarrak be esku artzen dabe, ots, Olinpokuak, burrukaldiko goraberak nastau ta odol-joku latzotan poza arturik. Aberri maitasunezko poema da. Odol-jario artean be, ba-ditu momentu ta jazokun samur-biozkorrak.

Odisena'ren gaia, barriz, au dozu: Troia'ko guda ostean, Odis'nn goraberak, itxasoz ta lurren izan zitunak, zeatz-meatz margoztu ta abesten ditu, sortaldeko ipuiñez eta batez be feniziarren alegin edertuta bear bada. Esango dogunez, lan bikaiña, ogetalau kantutan aragitua, amabi bat milla exametru-tan. Iliasena baleiteke irakurleari luze ta pizkat aspergarri iruditzea; Odisena, oster, errez ta aixa, atsegiñez be bai, irakurtzeko erara osotua dago. Iliasena Homero'k gaztetan idatzi ba'eban, au gizaseme eldu ta buru-soillarena dala esan gengike. Ona dalarik be, idatzi batetik bestera ba-dago alde, pentsamentuz, igikeraz eta eder-gaiez.

Odisena'ren muiña.—Liburuak ez dau beste xederik Odis gizurena noski zurtasun eta edertasunaren gandutan goi-goi jartea baiño. Olerkariak, egia esateko, aren biran beste zearmearka, gertakizun eta tarteko bereziak metatzen dauskuz eta ez da oneitatik gertatzen urriena aren emazte Penelope'ren inguruan, a lilluratu nairik, ibilli ziran senargaiei eriotza; jazokuntza onen mamiña ardatz dauala aragitzen dausku Homero'k Odis'i dagokiozan beste milla gorabera, guztien artean poema biribil, gotor eta bizia osoturik.

Jainkoen batzar batek damotso asiera: oneik, Posidon kanpotik dala, Odis etxera dedila erabagiten dabe. Atene'k Zeus'i eskatzen dautso, bial daila Hernzes mezularia Odis atxillo daukan Kalipso ninfaren ugartera, jainkoak artu daben ebatzia iragarri dagion. Atene bera be Itaka'ra doa, senargaiai

gogor egin daioela ta bere aitaren barri-billa Pilos eta Esparta'ra doala, Telemako'ri esaten. Mente'ren iduria arturik, adorea sartzen dautso Penelope'ren semeari ta onek urrengo egunean erria batzarrean batzen dau bere erabagia errikideai jakin-erazteko. Alperrik agiraka dagitse senargaiai, oneik euren jan-edate zaratatsu lotsagarrietan darraie-ta. Ogei arraunlarigaz ontzia artu ta lenengo Pilos'era ta Esparta'ra gero, Menelau'ren jau-regira zuzentzen da. Oni esker jakingo dau nun aurkitzen dan bere aira: Kalipso'k dauko katigu Ogigia ugartean.

Ur-lamiñak ez dautso Odis'i andik urteten itxi nai; baiña Zeus'ek aginduz amore-dagi ta Odis'ek etxerantzako bidea artzen dau baldusa baten. Posidon (Poseidon), oster, zur egoan eta etiopiar lurraldetik biurtzerakoan, itxasoan dakus onek Odis ur-gaiñean nare-nare dabillega bere baldusa barruan: ekaitz zakarra jagi-azten dautso eta onek arkaitz eskerga baten kontra jaurtzen dau Odis, ekarren baldusa be zati-zati egiñik. Egun bitan dabil gizurena ur-gaiñez ara ta ona, olatuen mende ta jostaillu; irugarrenean, barriz, lurra artzen dau, ta guztiz nakar ta zerbel, orbeltza baten loak artuta geratzen da.

Feaziarren erreñuan, Alkinoo ango agintariaren jauregian dago Odis'en laguntzaille bizkor Atene jainkosa. Ango neskatz eder Nausikaa'ri diñotsa doala urrengo egunean goiz-goiztik erropak garbitzera ibaira, laster ezkonduko dala-ta. Nausikaa, aitaren burdian, ara doa bere mirabeakaz, Odis lo dagoan erreka ondora. Erro pa garbiketa amaitutakoan, pelotan darragoioe neskatzak ekin eta ekin; alako baten uretara jausi yake pelotea; neskatzak garraxi, ta Odis esnatzen. Au agertzen yake, ta neskatzak iges astrapaladan: Nausikaa'k aditzen ditu arrotzaren itzak. Alkar-izketa zoragarri baten ostean, Odis, erregin-gaiaren esana betez, urira doa, Alkinoo'ren egoitza miretsi, bat-batean erregearenera jo ta Arete erregiñaren oiñetan auspezten da. Txeraz ta biotz-zabalez artua da jauregian; bertakoak oro eurekaz euki nai daben arren, Alkinoo'gandik ontzi bat lortzen dau bere sorterrira biurtzeko.

Andik alde egin aurretik apari bat eskintzen dautsoe ta apari bitartean, Demodoko bertsolariak Troia'ko zaldiaaren edestia ta ausiabartza abesten ditu, Odis barne-ikaturik geratzen dala. Ortaz oartu da Alkinoo, ta arrotzari eskatzen dau-soz orren zergaitia, bere izena ta barriak. Eta onegaz asten

da Odis bere ibilli, joan-etorri ta goraberak zeatz edesten, Troia suntsitua izan zanetik asita: zikondarrakaz izan eban burrukaldia; lotojaleen estualdiak; kiklopeen lurraldea, Politemo ta abar; Eoli izaroa, ta ango erregearenean zelan artua izan zan; lestrigondarren biotz etoi te jokabide ankerra; bai, Kirke sorgina bizi zan Eea ugartera bere lagunakaz batera eldu arteko guztia. Andik aztiaren aolkuari jarraituz, Sede'ko ateetara doa, en Tiresias aztruari itandu hear dautso, ba, etxerako bidea nundik artu bear dauan. Bere ama ta Troia'n jau si ziran akeutar illak aurkitzen ditu bertan; danakaz mintzatzzen da. Kirke'ren esanez itzuiian datorrela, sirenekandik iges dagi, baita Eskila ta Karibdis'eko arrisku ta jauspideetatik be. Oigia ugartera eltzen da, atzenez.

Alkinoo'ren jauregian eukitako kontaldi au buruturikoan, feaziarrek Odis'i lagun egitera dautsoe; Itaka'ra eltzen da ara ontzi baten, eta Eumeo, bere txerrizain zintzoaren bidez jakitun jarten da, bere jauregian jazoten danaren jakitun noski. Telemako bitartean Esparta'tik etxera dator, il naian ebilkiozan senargaien irusaku ta maltzurkerietatik iges egiñik; Odis ezagutu daroa Telemako'k Atene'k aoikatuta, eta biok, Odis'ek eta Telemako'k, aita-semeak erabagitzen dabe zelan jakitu bear daben senargeiai eriotza emoteko. Odis, eskeko jantzia, orrits-aretora doa, ta senargaiak burlaz ta irainlea artzen dabe, Penelope'k, izan dauan amesari iarraituki, uztaiaren saioa dakartse gogora: uztai ta tenkatzea lortu dagiana, axe artuko dau senartzat, Ez dau inok lortzen, Odis'ek ezik: onek erestun guztiak igaroten ditu gezi bategaz.

Apen (bengantz) unea. Odis'ek, bere seme Telemako ta Fumeo ta Fileti artzain zintzoak lagun ditula, emaztearen leia-kide guztiak menderatzea jaristen dau. Eurikle zerbitzari zarrak Penelope'ri dakartso orren albistea, ta Odis etxean damala dirautso. Penelope'k ezin dau ezagutu bere senarra, ain itxura txarreko dago: ezkontz-oiaren zeaztasunak, alan be, ezaugarri eder pakoz. Bai, bene-benetan bere senarra da.

Azkenengo kantuan Herrne.s'ek Hade'ra daroaz senargei illen arimak. Odis be ara dos, Leerte bere aita zarra ikustera. eta alkar ezagutu ondoren. iauregira datoz biak. Odis'ek oindiño be iazarraldi latza ikusi hear doi. illak diran senargaien senidartekoak emonda. Baiña, Atene lagun, azpiratzen ditu oneik be. Itaka'ko guztiak onezkoak egin eta alkar arturik, emaitzen da poema eder au.

Poemaren berezitasunak. Iliasena'k eta Odisena'k teknika ta egituraz biak antz aundia eukiagaitik, Homero'ren bigarren poemak, ots, Odisena lenengoa baiño gaillenago agiri yakur Bigarren onek ba-dau tankera barri berezia, kontatzean batez be ikuspegi apart samarra darabil idazleak; Odis itzuli aurreko gertaerak, Kalipso'r enak eta feaziarrenak, adibidez, nasai zabal adierazoak dagoz; itzuli ostekoak, barriz, aziagoz doaz, olatu indartsu baten pareko, biziagotuz, asperkunderako bideak bereziki kontuz ta zeatz ikasi ta loturik.

Errez jauzi dagi gai batetik bestera; gertaeretan trebetasun errimea erakusten dau, antzetsu ta bizkor jokatzuz. Askotan, esaterako, Odis'ek ezingo dau, bere emaztea arriskuan aurkitu arren, etxera biurtu; baiña aurrean jarri eragozpenak azkarki ta trebe gainditzen ditunak ezin ukatu, iñoiz be gogait egiteke aurrera doa-ta: ziñe-mintz bizkorrean lez, ikuspegi zoragarriak damoskuz, loto-jaleak, feaziarren ostatu edeitsua, emakume lilluragarriak, Kirke, Kalipso, Nausikaa...

Norki bakotxaren argidu, izaera ta senak ezin obeto bereiztuak daukazuz emen, baita oitura ta moral-gaiak be; Eumeo ta Fileti artzaiñen zintzotasuna, Eurikle etxeko andre maratza, Melanki auntz-zain lotsagaldua, senargeiak in galaikerietan ibillitako mirabe ausartak, eta besteak. Toki argi pres-tua dauko Odis'ek; noizik-bein maltzurkeri zurrean arrotu oi dalarik be, aren senar-zintzotasuna ta aberriagazko maitetasun sua ez dira ezestekoak. Penelope'k, bere aldetik, zintzo be zintzo erantzuten dautso gizonaren leialtasunari; ingumari, luzaro samarrean zirikalari setatiak euki arren, berean iraun eban Odis itzuli arte.

Poema liburu onek beste elburu au be gogoan izan ebala esan gengike: oitura ta moral-gaiari buruzko eziketak, ez gero oiñarri soillez, iduri ta antz-izaizun ederrez baiño, bizi ta txairo darabiltz, askotan nor bakotxari ezarritakoak. Oneik berezitzeko be esakun zorrotzak ugari samar gogora oi ditu idazleak: Eumeo'renak eta Penelope'renak zurrak diranik ezingo dau iñok ukatu.

Berein ertzez begiratuta, «Odisena» olerki-liburu bikaiña dozu. Jainkoak ez dira emen lege-zaintzaille zorrotz agertzen, ezta euren eskubideak austen dabezanen zigortzaille gogorre-gi be, gizarteko oitura, ekandu ta legezko baldintzak gorde ta zaintzea atsegin yakenak baiño. Eder yake giza-bizitza, ta gi-

zakumeen artean dabiltzala dirudi, euron artean zuzentasunaren arnasa emon eta zaintzen. Jainkoak, alan be, curen mailla dabe, ta gizasemeak euren: areik eta oneik alkarri lagunduz hira dira, zuzentasun txibitzaz alkar arturik. Ederra ziñez Homero'k bere XIV^{garren} (86 bertsoen) kantuan, Eumeo'ren agotan jarten dauana: «Goitar zoriontsuai ez yakez eder egiñen gaiztoak; zuzen bidea ta giza-egintza zentzunezkoak, barriz, ornengarritzat daukiez».

Itzulpenak. — Aitaturiko poema biok, «Odisena»-k batez be, eragin bizia izan dabe munduko literaturan. Au izan be, lenengo papiroetan eta gero irarkolaz irarria, eta eskuz ez gitxitan, izan da, ta gaur be bai, gerkarren liburuetan edatuena ta irakurriena. Egia autortzeko, asieran Iliasenak izan eban, gerkarren epopeia zalako, zelai zabalagoa, baiña gero, estoikarren garaitik, oneik Odis eredutzat artu ebenetik, au zabalago ta irakurriago gertatu zan.

Etzan orrela jazo Grezia'n bakarrik: andik kanpora be, argizpi antzo, beingoan zabaldu zan liburu bikain orren lillura. Erromarrak bereziki laster konturatu ziran altxor eder ortaz, eta euren lez artu eben; Libi Androniko'k, ain zuzen he, Kristoren aurreko III^{garrien} gizaldian Latiko izkuntzara biurtu eban Odisena. Eta Augusto¹ren egunetako olerkariak, Bergili'k-eta, maite eben Homero'ren lituratura. Bergili¹ren «Enearena», adibidez, lenengo zatia beintzat «Odisena»-ren antzera taiutua dago, emen edesten bait ditu Enea'ren neke-miñak. Ohidio'k eta Seneka'k be maite eben Hornero. Orrelaxe aurrerantzean he, mendez mende, Erdi-Aroan eta gero, Hornero beti izan da irakurria, ikasia ta aztertua; orrez gainera konta-ezin ala liburu ta lan eta txosten ondu dira Europa'ko izkuntzetan aspaldiko gerkar lan bikaiñaren oiñatzetatik ibilliz.

Garrantzizkoa zan egi-egiaz Homero'ren idaz-lana, merezi eban arrotz-izkuntzetara be blurtzea. Alantxe, literatur berbizkundeko garai-bete-beteen Lorentzi V alla¹k Frantzisko Aretino'k eta Poliziano¹k latíñera itzuli eben dalako Odis¹en liburua; XVI^{garren} mendean Ander Divo'k (1537) eta Jeronimo Bacelli (1582) italiarrak, eta Gontzal Perez (1550) espainarrak eta Salomon Certon prantsesak itzultzen dabe; XVII^{garren} mendean bardin egin eben Thomas Hohbes, Georges Chapman, John Dryden eta Alexander Pope ingelesak eta Kristobal Mesa espainarrak; XVIII^{garren} mendean aipagarriak dira Scipione

Maf fei italiarraren itzulpena, Ana Lefréve frantsesarena, johann jakoh Boomer eta Johann H. Voss doixtarrarena, W. Cowper ingelesarena, Meltxor Cesarotti italiarrarena; XIX'garrenean, Ipolito Pindemonte'rena ta abar. Espaiña'n, F. Baraibar, Luis Segalá Estalella te Fernando Gutierrez'enak dituzu ederrenak.

Eta Euskeraz? Oraindik ez da inor azartu, Odisena'z beintzat. Iliasena, alan be, itzulia daukagu, orain 23 urte egiña. Ba

Gaizka josulagunak osotu eban, «Iliasena» (Riada euskeraz), Gazteiz'en —1956, 338 or.—, argitaraturik. Itzultzaileak, beñola izan dan poemarik onena euskaldun be, euskeraz, eskuetan dogula-ta, zorionka diñosku: «Gaur, erabat, Eus berria jantzi du, ta zeinēn ederki dagokion gero! Euzkera, ba, Gerkerā bezain zaarra, Gerkerā bezain agur-garria duzu. Ta Euzkera ta biyek aldi antxiñakoak diranez, askotan asmo bateko ta gogo berdiñeko ageri dira».

Euskal lanari buruz, osterā, onan mintzatzen da: «Ba-dakit, euskerazko «Iliasena» askorendako zaila izango dala. Euskeraz, ha, beste erriek eren izkuntzetan aditzen ez dutena ere, norbaitzuek zearo aditu hear dutelahoan ari oi dira. Bestela, diñotenez, garbiegi ornen dago egiña. Alabañan, Euzkera'k ere, beste izkuntzak aña, ba-dauka elerti ederraren bearra. Ta olako elerti-lanak danentzako izaten ez diran ezkerō, garhi ezin daitezke, ikastunen taldiek Euzkeraz sakonago ikasten ari diralako, ortan gogoz ekingo diotelako» (Itzaurrean).

Irakurria dot itzulpena ta ez derist zahar egiña dagoanik, bere akatsak daukazan arren. L. Mitxelena'k bein, akatsok zira-ta, espantuka idatzi eban: «lijada», eder-edertzat daukat —diño—. Are geiago, eder ori gaurko zaar-gazteak.. prestaera herezirik gabe, dasta ta goza dezaketela hadakit. Euskeraren gai ezer. Ez ote zuen Orixe'k herherak esan ezzuela izkuntza egokiagorik ezagutzen poema en itzultzeko?». Baiña Gaizka itzultzaileari ez yako ain egokia gertatu. kritikalaria onela diñotse-te: «Itzulpen onetako izkerak leku malkarretan barrena, katazka bizian, ¿cbillen gurdi zaar nezartia haiño bu ta karraska geiago dario».

Ez, errenderiarrari ez vako eder arrasatearreren itzulpena. Nik egunotan, zerbaiten billa, leenaz gaiñ, barriro irakurri dot Gaizka'ren itzulpena te ez vat ain zatarra iruditū, gaurko idazle naasi ta illunzale askoren izkera haiño errez. crin, argiagora

iruditu yat, bai, arrasatearraren lana. Griegoak, izan be, latīnak eta latīnetiko izkerak baiño kide-tasun gei-ago dau gure euske-rarekin, joskera, itz-alkartu, itz-urren eta olako zeaztasunetaz batez be.

Azkenez bego dardar, guztiontzat mesedegarri, L. Mitxele-na'k diñona: «Euskera ezta nerea ez zurea: guztiok erdizka aurrekoengandik artu dugun ondasun ederra da. Eta eztu iñork bere-berea balu bezela nai duen gisara erabiltzeko —utendi et abutendi— eskubide osorik. Eta zorigaiztokoak euskera eta gu, beste uste badugu». (Egan, 1956, 102 orr.).

Idaztean, edo-ta itzulpenak egitean, bakotxak dau bere sena, bere kultura, bere euskal giroa, oldozkunak erabilli ta adieraz-teko. Beraz, oso zail yaku, idazlearen kultura ta barne-giro orre-tan sartu barik, nor beraren ikuspegi ze-aro estutik, gauzak ebaz-tea. Ots, kritika lana ez da aisa, ezpanak edegiz bakarrik egin daikeguna.

Nire itzulpen au, zelakoa ete? Irakurleak esango, berau bait da ebazlerik onena. Gaiak ba-dau bere zera; baita Homero'k gaiari ipiñi eutson gerkar-estaldiak be. Gaia, mamiña berbera da idazle biotan; estalkia ez. Arek griego-iz idatzi eban, nik eus-gaiari ipiñi eutson gerkar-estalkiak be. Gaia, mamiña berbera bai ete? Nik naia, prosaz, itz-lauz izanik be, orixe dozu. Naiak alan be, sarri, bide erdian geratzen.

Larrea, 1985-II-5'an
AITA ONAINDIA

1 KANTUA

Jainkoen batzarra. - Atene'k Telemako'ri burutara emona.

Mintza zakidaz, oi Musa!, era askotaz buru argiko gizaseme ari buruz; gogora eidazu Troia uri donea suntsitu ondoren, luzaro be luzaro, ainbat uri ikusi ta gizaseme askoren oiturak ikasiz, arat-onat ibilli yakuna; itxasoak eurrez zearkatu ta, bere bizia jagon nairik eta bere lagunak aberrira biurtu eitezan, ziriak eta miñak ikusi zituna. Baiña orrela be ezin gaizkatu izan eban, berak nai ebanez; eta danak ondatu ziran euren zorakeri bene-benetakoz. Burubakoak! Iperion'en seme Eguzki'ren beiak jan ebezan; eta oni ez yakon laket arei itzuli-egunik eltzea. Oi jainkosa, Zeus'en alaba!, esan eiguzu, arren, jazo orrein zati bat besterik ezpada be.

13 Garai aretan, jadanik, erio latz izugarritik iges-egin al izan ebenak euren etxeetan aurkitzen ziran, gudako ta itxasoko arriskuetatik urruti. Odis bakar-bakarrik, bere aberrira itzuli ta bere emaztea ikusteko irrits bizitan ebillena, Kalipso neskatx agurgarriak arpe arroan eukon giltzapean, onek, jainkoen artean jainkosak, bere senartzat artu nai eban eta. Urteak joan urteak etorri, jainkoak erabagi eben azkenez biurtu eitela Itaka bere sorterrira; aren neke-lorrak, baiña, etziran origaitik amaituko, ezta beretarrakin alkartuta gero be. Eta errukia eutsoen jainko guztiak, Posidon'ek ezik; au bada, asarrekor agertu zan beti Odis jainkotiaren aurka, gizurena bere lurraldera eldu zan arteño.

27 A alan be orduantxe zan joana etiopitarren urriñeko urira —oneik dira gizonetatik azkenak eta talde bi osotzen dabez, batzuk sartalderantz ta beste batzuk Iperion'en urteerantz bizi diranak—, zezen eta aarizko ilketa baten esku artzeko. A jan-edanean zan bitartean, beste jainkotasunak Olinpiar Zeus jauregian batu ziran. Eta lenen mintzazu zana gizonen eta jainkoen aita izan zan, Egisto argia eukan ba onek gogoan,

Agamenon'en seme ()restes leiñargiak erail ebana, ain zuzen be. Aregaz gomutaturik, itz oneik esan eutsezan illezkorrai:

38 Zeus.—O jainkoak! Ilkorrak bai goi-zaleai errua ezarri! Gauza txarrak gugandik doakioezala diñoe, ta eurak dira euren zorakeriz alanbearrak erabagi bako ezbearrak eurenganatzan dabezanak. Orrela jazo yakon Egisto'ri; aduaren naiaren aurka, Atrida'ren legezko emazteaz ezkondu zan, eta au il egin eban bere sorterrirantz etorrela, naiz-ta aurretiz jakin zelako eriotza jasan bearke eban gero. Geuk bialdu geuntson Hermes, begirale zurra, a ez ilteko ta aren emaztea emaztetzat ez artu nai izateko esanik; Oreste Atrida'k, bada, aregandik asarrekunde artu bearra eban gaztarora eldu ta bere lurraldera biurtunaia somatu baizen laster. Hermes'ek orrela azaldu eutson; baiña, onen onua ain argia ízan arren, ez eban jadetsi ari ori buruan sartzea, eta orain Egisto'k ordaindu dau dana batera.

52 Atene'k ontz-begidun jainkosak jardetsi eutson:

53 Atene.—Gure aita, Aldiaren seme, agintzen dabenetan bikaiñena! A obian datza, txit bidezko eriotza eroan ebalako. Bardintsu galdua beite antzean jokatzen dauana! Baiña biotza erdibitzen yat Odis zur eta doakabea dala-ta; luzaroan dago, ba, gorriak ikusten bereakandik urrun, olatuak gogor astinduriko ugarte baten, itxasoaren erdian; zugatzez beteriko ugar-tean, noski; jainkosa batek ementxe dauko bere bizilekua, Atlante izugarriaren alabak, ain zuzen be; Atlante'k, oster, itxasoaren ondar-bazter guztiak ezagunak ditu, eta lurra ta zerua banatzen dituen zutoin eskergak berak daukaz tinko. Jainko onen alabak dauko atxikia Odis doakabe mindua, Itaka aitzu dagian itz limur eta xarmagarritz a lilluratu naiean amor emon bagarik; Odis, oster, bere jaioterriko supazter-kea ikusi guratan, doi-doi eriotza opa dauala aurkitzen da. Eta zuri, Olinpiar Zeus orri, ez yatzu dardarazten biotza? Bear bada Odis ez yatzun begiko argibotarren ontzi ondoan opariak eskintzen eutzuzanean? Zergaitik orrela, o Zeus, sumindu zara aren aurka?

71 Odeiak moltzotzen dituan Zeus'ek erantzun eutson:

72 Zeus.—Ene alaba! Orrek itzak agin-uztaitik iges-egin dautsuenak! Zelan uste dozu nik Odis jainkotia aitzutzat íztea, bere adimen argiz beste ilkor guztien gaiñetik nabari dana ta ortzi zabalean bizi diran jainko illezkorrai beti ainbat eta ainbat oparigai eskiñia baldin bada? Baiña lurra gerriz estutzen dauan Posidon'ek dau gibelmin bizi ta iraunkorra, kiklopea, ots, jain-

ko-antzezko Polifemo itsutu ebalako; Polifemo da kiklopeetatik indartsuena, eta Toosa'gandik, itxaso antzuan agintea dauan Forzis'en alabagandik jaio zan, au arpe sakonean Posidon'ekin alkartua izan zanez gero. Ordutik lurra inarosten dauan Posidon'ek, naiz-ta Odis il-azteko ezer ez egin, beraren aberritik urrun alderrai darabil. Baiña, tira, dagigun guk guztioz zerbait aren itzulia errezteko, bere sorterrira eltzeo bideak atonduaz; eta Posidon'ek baretuko dau bere asarrea, ez bait dautso errez eutsiko bakarrik eta jainkoen naiaren aurka illezkor guztiekin.

89 Beingoan erantzun eutson Atene'k, ontz-begidun jainkosak:

91 A ene.—Gure aita, Aldiaren seme, agintea dauenetan bikaiñena! Jainko zoriontsuai atsegin ba'yake Odis zurra bere etxera biurtu dedilla, bial dagigun bertatik Hermes, Argifonte mezularia, Ogigi ugartera, ta iragar dagiola alik ariñen uledar ederdun neskaxari Odis'en itzultzeaz artu dogun egi-egiazko erabagia, gizurena etxera bidean jarri dakigun. Nik, bitartean, Italca'ra joanik, aren semearen barrua supiztuko dot zirriketan, aren bularrean kemena aizatuz, akeutar galpardunai zebatzarrera dei-egin dagitsen eta ainbat ardi ta adar-biurrizko idi zango-zauli etenbage sarraskitzen dituen gizongei guztiai galazo dagiocla aren etxean sartzea. Eta gero Esparta'ra eroango dot, eta Pilos aretsura, an itandu ta bere aitaren barririk lortu al ba'legi, deduzko aomena irabazi al izan dagian gizasetneen artean.

106 Au esanda, ur ta lur zabal aizea baizen azkar eroan oi eben jainkozko soiñeko luze dizditsuak jantzi zituan; eta eskuan artu eban aztamakil sendokote, borontzezko erpin zorrotzezko, astun, luze, giartsua; aita guztiz altsuaren alabak onekin suntsitzen zituan gizuren talde osoak, arein aurka asarretan jarten zan guztietan. Jatsi zan bizkor Olinpo gainetik beera, eta, Itaka'ra zuzendurik, Odis'en egoitz-atarian gelditu zan, etxe-barne aurreko ate-ondoan; borontzezko lantza eroian eskuan eta arrotz baten antza artua eban, tafitarren errege Mentese'na ain zuzen. An aurkitu zituan gizongai arroak, euren gogoak alaitzearren kartetan etxeko ate aurrean, eurak euren eskuz u ebezan idinarru gainean jarrita. Otsegille ta zerbitzari bizkor batzuk ardoa ta ura ix-urtzen eutsezan ontzi zabaletan; eta beste batzuk maiak garbitzen ebezan begi askodun belakiekaz, euren tokietan ipiñirik, eta aragia zeetzen eben ugari be ugari.

123 Jainko-antzeko Telemako izan zan jainkosaz lenen oartu zana, senargaien erdian biotz-samindua aurkitzen zan bada, ta bere aita adoretua ekarren gogotan, onek bear bada, itzulirik, uxatuko zituan etxetik areik, benetako duintasuna barriro be eskuratu ta leen ebazan ondasunak be bereturik. Gauza oneik ausnartzen egoan, senargaiekin ezarrita, Atene ikusi ebanean. Bertatik joan zan zuzen ataurrera, arrotz batek orren luzaro atean zain egon bearrak biotz-erdiratua, ta jainkosari eskutik oratuaz, borontzezko aztamakilla artu eutson eta, mintzaturik, itz arin oneik esan eutsozan:

134 Telemako.—Agur, arrotz! Arrera bioztia artuko dozu gure artean. Eta jan ostean, esango dauskuzu zeren bearizana ete dozun.

137 Onan itz-egiñik, ibilten asi zan eta Pala Atene'k atzetik zerraikion. Jauregi bestelangoaren barrura ziranean, Telemako'k, zutoin jaso baten ondoan aztamakilla tente jarririk, gero Odis eroapentsuaren aztamakil asko eukazan aztamakildegi dirdirazian sartu eban; katabera baten jarriazo eban jainkosa, bean oin-zamu polit azpatu bat luzatu ta oiñentzat lanka ipiñi ondoren, eta aulki ederto landu bat urreratu eban bereztat; banaiz jarri eban dana senargaien gandik, gizaseme arro arein istillu ta zalapartagaitik janariak gogait eragin ez egion, eta berak, beretik, urrun zan bere aitaz itandu al izan egitson. Jopu-eme batek emon eutsen esku-ura, urrezko txangil ederrean ekarria, ta zidarrezko ikuz-ontzian jario ta ondoren mai txit polito landutakoa jarri eutsoen aurrean. Jakizain agurgarriak ogia ekarri eutsoen, baita maian itxi eutsezan ainbat janarimota be, gordeta eukazan onenetatik eskiñiaz. Jaki-zatitzaileak era guztietako aragi-azpillak ekarri eutsezan aurrera, urrezko edontziak be inguruan jarririk. Eta otsegille bat urreratzen yaken sarri ardaoa ixuritzeko.

156 Onetan, senargai arroputzak sartu ziran. Aulki ta kataberetan eraz jarri ziranekeoxe, otsegilleak esku-ura ekarri eutsen, jopu-emeak ogia moltzotu eben zaretoetan, mutil gazteak edariz koroatu ebezan ardontziak, eta apaldar guztiak jaten asi ziran aurrean eukezan jatekoetatik. Jan eta edanez ondo ase ziranean, beste zer batzuetara jo eben: abesti ta dantzara, oneik bait dira oturuntza ta ase-aldiaren apaindura. Otsegille batek kitara eder-ederra ipiñi eban Femi-ren eskuetan, au beartzen eben ba senargaien aurrean kantatzen. Eta Femi-k

kantu eder bat kitara otsez asten eban bitartean, Telemako'k errazoiok esan eutsozan Atene'ri, ontz-begidunari, enparauak konturatu ez zeitezan jainkosagana bere burua urbil-azorik:

170 Telemako.—Arrotz maite! Asarratuko ete esango dautzudan augaitik? Oneik ez daukie beste ardurarik kitara ta kantua baiño; eta ez yake ezer kostatzen, beste baten ondasunak iruntsi daroez ba zigorrik bage; gizaseme leiñargi baten ondasunak, bai, aren azur zuriak euriaren euriz lur-gaiñean usteldu edo-ta itxasoaren erraietan uin naasiak firurikatzen dabezan artean. Itaka'ra biurtzen ikusiko ba'lebe, urrez ta jantziz aberats izan baiño naiago leukie guztiak oiñak bizkor euki. A, alan be, illa da, bere adu gaiztoak ala naita, eta ez dogu aren itxarokizunik, lurtar gizasemeen batzuk oindiño etorriko dala diñoskuen arren: aren itzuli-eguna ez da iñoiz be zabalduko. Baiña, tira, mintza zaite ta erantzun eidazu leialki: Nor zaitut eta zein lurraldetik zatoz? Nun aurkitzen dira. uria ta gurasoak? Zelako ontzitan eldu ziñan? Itxastarrak, zelan ekarri zinduezan Itaka'ra? Nortzuk dira eurak? Ez dot uste, ba, oiñez etorriko zúñanik. Au be esaidazu egiazki, jakin dagidan: Orain zatoz lenengoz ala nire aitaren etxe-lagun izan zara iñoiz? Askok dira ba gure etxea ezagutzen dabenak, Odis'ek beste gizasemeak be ikusi bat emotea ekandu eban eta.

190 Atene, ontz-begidun jainkosak erantzun eutson:

192 Atene.—Guzti ontaz barriak emongo dautzudaz zeatz ta meatz. Arrosko nagokizu Mente, Ankial burrukalariaren seme izanez, eta arraunak erabilten zaleak diran tafiarren artean aginpidea eukiaz. Neure ontzian eldu naz, neureakaz. itxaso apartsuan zear bide dagit ba beste izkuntza batez mintzatzen diran gizaseme batzuegana: Temesa'ra noa borontzea ekartera, burdin ditzikorra daroatsedalarik. Zelai ondoan lotu neban ontzia, urira eldu aurretik, Neio oiantsuaren oiñean datzan Erretor kaian. Dedu aundiz, gure gurasoak oso antxiñatik arrotztxera alkarri egin oi eutsoen, ortaz Laerte gizurenari itandu zeinkionez; au, esan daustienez, ez dator orain urira, landan da, larri-miñez abaildua; emakume zaar batek emoten dautso jaten eta edaten, masti jorian zear narras soin-atalak nekatzen yakozanean. Zure aita itzulita urian aurkitzen dala esan eustielako etorri naz, baiña zalantzarik bage jainkotasunak ez dabe ori nai, aren itzuliari zoztorrak jarririk; Odis jainkotia ez da, ez, oindiño lurretik ostendu, bizi da ba ta itxas zabalean

dago geldiazoa, olatuen artean jalkitzen dan ugarte baten, gogorrean daukien gizon odolzale ta basatien eskuetan jausi zaretik egon be. Orain gerta aurretik esango jazoko dana, jain'koak gogora dakartedan lez nunbait, eta nik jazoko dala uste dodan lez, ni ez nozu ba aztru ezta amets-adierazle trebe: «A ez da luzago egongo bere aberritik at, burdin-lokarriz lotuta egonda be; asmatuko dau bileren bat etxera biurtzeko, guztiz asmotsua da-ta». Baiña, tira, mintza ta esaidazu argiro Odis beraren seme zareanez. Aren antzeantzekoa zara bai buruan eta bai begi ederretan; eta ondo gogoratzen naz, sarri alkartzen giñan ba Troia-rako ontzia artu aurretik, ara bait ziran joan argibotar printzeak itxasontzi sakonetan. Ordutik, nik ez dot Odis ikusi ezta berak ni be.

226 Telemako zurrak jardetsi eutson:

227 **Telemako.**—Fede onez ta zintzoki mintzatuko naia-tzu, ene arrotz! Aren seme nazala diraust amak, eta ez dakit ezer geiago; iñok ez dau ba ezagutu al izan berez bere buruaren ondokoa. Aí ba'nintz ni, bere etxean, bere ondasunez inguratuta, zaartuz doan gizaseme doatsu baten kimu! Baiña orain diñoe, itaunka zaukadazan ezkerro, gizaseme ilkorren artean zori-bakoenetik natorrela.

234 Atene, ontz-begidun jainkosak biurtu eutson:

235 **Atene.**—Jainkoak ez dabe antza erabagi zu etorki illunekoia izaterik, Penelope'k zarean legez erdibitu zaituan ezkerro. Baiña, ots!, mintza zaitez eta esaidazu garbi ta zintzo: Zer jan-edan, zer batzar da au; eta zuk al dozu onakorik emon bearrik? Oturuntza ala ezkontza ospatzen da?, ez gara ba, agiri danez, nork beretik jateko jai-alaietan aurkitzen. Jauregian olako aundi-sundaz jaten dabenak norbaiti iraiña dagitsela, iruditzen yat; edozein gizaseme zentzunezko, bada, onein ainbesteko zozokeriak ikusita sumiñetan jarriko litzake.

244 Telemako zurrak jardetsi:

245 **Telemako.**—Arrotz! Onako gauzak itandu ta jakin nai dozuzan ezkerro, etxe au jakizu aberatsa izan zala, baita beroni lotsa aundia be izan eutsoen gizaseme a errian bizi izan zan artean. Gerora aldatu egin zan jainkoen naia, ta oneik, gaitzak pillatuz, Odis biurtu dabe gizon guztietatik aiztuena; ni ez nintzan ainbeste naibagetuko, ziur asko, aren lacunen artean Troia lurraldean edo-ta guda amaitzean aren adiskideen

besoetan bizia emon ba'neu, orduan bada akeutar danak illobi bat jasoko eutsoen, eta aintza azkenbagea itxiko eutson bere semeari. Alan be, ostendu zan entzuterik bage, Arpiak indarrez eroana; aren ariotza ixilla izan zan, ez eban iñok ezagutu; eta naigabeak, negarrak baiño ez eustazan itxi. Ta beragaitik soilki ez nago zotinka, ez diardut aika, jainkoak beste zoritxar baltzik be bialdu daustie-ta. Ugarteetan, Duliki'n, Same'n eta Zazinto basatsuan agintzen daben andi-mandiak, eta Itaka latzean nagusi diranak bardin, nire ama nai dabe danak emaztetzat, eta gure etxea urritu ta lur jo-erazten diardue. Nire amak ez ditu ezesten eztegu iguingarriak, ezta ez daki zelan atzena emon joko orrei be: eta besteok jan dagie ta nire etxaguntza urtu daroe, ta laster ni nerau be mirriztuko nabe.

266 Atene'k erantzun eutson, guztiz sumindua:

266 Atene.—O zuok, jainkuok! Zuk bai bear dozula emen Odis urrutiratua, eskuak jarri dagizan senargai lotsagalduetan! Etorri ba'letor eta etxe ontako atarian agertuko ba'litz, bere buru-oskol, bere ezkuta ta bere lantza biekaz, nik neurean lenengoz ikusi neban antzera, edale ta jostari, Efira'tik, Ilo Mermerida'ren jauregitik itzuli zanean (ara joan zan Odis bere itxasontzi ariñean pozoi ilkor baten billa, borontzezko geziak igurtziteko bear ebanaren billa nunbait; baiña Ilo'k, jainko betikorren bildur zan eta, ez eutson egokitu, nire aitag bai oster, maite-maite ebalako) ; orrela agertuko ba'litz, ba, Odis ta senargaiokaz aurkitu, laburra litzake onein bizia ta garratzak noski uste dabezan ezteguak. Baiña jainkoen eskutan egotzia dago itzuliko ete dan eta bere jauregian areikandik asarrekundea artuko dauan, eta nire onua auxa dozu: tartekorik bage begi emon eta ausnartu dagizula zelan bota emendik senargei zatarrok. Ia, entzuidazu, eder ba'yatzu, ta adi-adi zagokidaz diñotzudana jasoteko. Biar dei egin batzarrera akeu gizurenai, mintza zakioze danai, ta testigu beitez jainkoak eurak be. Senargaiai adierazo zemaiz banandu daitezala, euren etxeetara joanik; eta zure amari ezkontzeko gogoak bultz ba'daragoio, doala bere aita txit altsuaren jauregira, ta an eratuko yakoz ezteguak, alaba maitatu batek eroan bear dauan besteko ezkontz-sari joria antolaturik. Zuri be aolku zur bat emongo dautzut, berau aintzat artu ta bete nai ba'zendu: gertu egizu aurkitu daikezun ontzirik ederrena, ogei arraunlarigaz; zoaz ta itandu zeure aitaz, luzaroegi bait dabil onezkero ortik zear,

eta bear bada ilkorren bat aretzaz mintzatuko yatzu, edo-ta Zeus'egandiko aomena elduko da zure belarrietara, axe bai da gizonen aintza geien zabal-azten dauana. Zoaz lenengo Pilos' era, ta galdetu Nestor jainkotiari; zoaz andik Esparta'ra, borrontzezko bular-babeskidun argibotarretatik azken eldu dan Menelau ule-gorriarenera. Zure aita bizi dala ta itzuliko dala entzuten ba'dozu, naibagetuta zagozan arren, jasan egizu dana urtebete bat geiago; baiña il dala ta jadanik ez dala bizi esan ba'dagitze, biur zaitez bertatik aberrira, eraiki egiozu obi bat, egiozuz zor yakozan illetak, eta eukera egiozu zure amari senar bat. Eta gauza guztiak egin eta bete dagizuzanean, iraul zeure buruan eta biotzean zelan ilgo dozuzan senargaiak zeure jauregian: maltzulkeriz ala agirian; ez da egoki ba umeke-rietan ibilli zaitezarik, ortarako ez dozu onezkero adiñik eta. Ez dakizu bear bada zeinbesteko aintza irabazi dauan giza-au-rran Oreste jainkotiak, bere aitaren iltzaillea, bere aitalen argiari eriotza emon eutsan Egisto sabelzuria, galdu ebanetik? Zu be, lagun, galanta ta kaizu jasokoa zareala dakustan ezke-ro, zaitez kementsu, geroak txalotu zagizan. Eta ni ba-noa neu-re oial-ontzi ta lagunakana, nire zain onezkero gogait eginda dagoz apika ta. Egizu arretaz nik esandako guztia; oroi nire aolkuz.

315 Telemako zurrak biurtu eutson:

316 Telemako.—O arrotz! Gauza oneik, aitak bere se-meari lez, ain onbera ta biotz-samur diñostazuz, ezingo dodaz eurok sekula bizian aitzu al izango. Baiña, ea, joateko leiaz zabiltzan arren, itxaron apur baten; bustialdi bat artu ta bio-tza alaitu daizunean, biurtuko zara zeure ontzira pozez gai-ñezka, bezuza bikain bat, oso ederra, daroazula, neure esku-erakutsi lez gorde dagizun, oitura ori dogu guk ba arrotz mai-tatiakaz.

324 Atene, ontz-begidun jainkosak erantzun:

325 Atene.—Ez eidazu belu eragin, nire beingoan joateko gogoari zoztorrak jarriaz. Zure biotzak eskeiñi nai daustan be-zuza, itzultzean emongo deustazu neure etxera eroan dagidan: aukera egizu oso ederra, ta bidezko izango da nunbait beste an-tzeko bategaz nik zuri ordaintzea.

330 Orrela esanik, Atene, ontz-begiduna, joan zan: joan zan jainkosa, txori antzo egazka, Telemako'ren ezpirituan ke-mena ta ausarta ixuri ondoren, eta bere aitaren gomuta are

geiago biztu-azotakoan. Telemako, jazotakoa bere gogoan ausnartuz, sor ta lor gelditu zan, jainkotasun bategaz mintzatu zanaren susmoa eban eta. Gizon a, barriz, jainko itxura eukana, senargeiengana joan zan bertatik.

338 Jarrita ixillik entzuten eukazan onein aurrean aedo —bertsolari— argiak kantatzen eban Pala Atene'k Troia'tik urten ziranean akeutarrai gertatu eutsen itzuli negargarria. Ikari'ren alaba Penelope sotillak entzun eban etxe-gainditik arimaraiño sartu yakon jainkozko kantua; eta mailladi luzetik jaxi zan, baiña ez bakarrik, jopu-mirabe bik lagunduta baiño. Emakumeetan jainkozkoa senargaiak egozan lekura eldu zanean, sendoki eraikitako sapaia eutson zutoin ondoan gelditu zan, zapi ederrez matraillak estalduta, ezker-eskuma neskatz itzalgarri bana eukazalarik. Eta begiak malkotan blei-blei, onda itz-egin eutson bertsolari jainkotari:

350 Penelope.—Femi! Gizasemeen alaigarri, gizonen eta jainkoen beste egite guren asko, bertsolariak sarri ospatuak nunbait, zuk dakizuzan ezkeror, orreitako batzuk kanta egiezuz or, erdian, jarrita, guztiok ixilik eta ardoa edanik, adi-adi dagozan bitartean; itxi eizu beintzat biotza bularrean etenbage naigabetzen daustan kantu itun ori: orrek damost emon be aitzu ezin dodan samiñaldi izugarria. Aundia izan be gizaki orren urrun-miñak dakarstan bakartadea, beti gogotan bai dot Elade'n eta Argos erdian ospe aundia dauan gizakume aren gomuta!

360 Telemako zurrak jardetsi:

361 Telemake.—Ene ama! Zergaitik galazo nai dautsazu aedo maitagarriari, gogoak emoten dautson lez gu alaitzea? Bertsolariak ez dira errudun, Zeus baiño: gizaki asmotsuai onek bai dautsez bere doaiak banatzen atsegin yakon eraz. Femi ez da gogor artu bear danaotarren zori txarra kantatzen ba' dau be, gizakiak batez be goretsi oi dabe ba euren belarrietara eltzen dan kanturik barriena. Etsi zaitez zeure biotzean eta entzun eizu kantu au, Odis etzan izan Troia'n itzultzeko itxaropena galdu ebenetatik bakarra ta; beste asko be an galdu ziran. Baiña, biur zaitez zeure gelara, ta ekin zeure-zeureak diran lanai, anazka ta goruari, ta agindu jopu-mirabeai be lanari ekin dagioela; eta gizonok izango dogu izketaren ardura, eta nik batez be, etxe onetan neuk agintzen dot eta.

376 Joan zan Penelope, txit arrituta, bere gelara, bere semearen itz zurrak gogo-barnean erabilli ta gogoeta egiñik. Eta bere mirabeakaz etxe-gaindira igon zanean, Odis, bere senar laztana negartu eban, Atene'k, ontz-begidunak, betazaletan lo gozoa ixuri eutson arte.

381 Senargaiak ardailla errotzen eben areto illunean, eta dan-danak opa eben Penelope'gaz etzutea, berberaren ogean. Baiña Telemako zurra au esaten asi yaken:

384 Telemako.—Ene amaren senargeiok, arropuzkeri narmenez zabiltzenok! Orrits dagigun orain zeuon zaratok itxi-rik; eder baita au lako bertsolari bati entzutea, bere abotsez jainkoen antz-antzekoa danari nunbait. Eguna urratzean, batzar-tegian batuko gara, ta antxe esango dautzuet nik bete-betean zoazela jauregitik: eratu beste jan-edate batzuk eta jan zeuen ondasunak, zeuen etxeetara bein banan alkarri dei egiñik. Baiña oba ba'deritxazue ta egokiago gizon bat bakarraren onda'sunak ezeren kezka barik ondatzea, jarraitu oraiñarte ondasunok urtzen; nik jainko betikorrai ots-egingo dautset, Zeus'ek egunen baten zuen egitekoak zigortzea nai baldin ba'leu be, eta bear bada jauregi onetan ilgo zarie, iñok be zuen apendua artu bagarik.

397 Orrela esan eban; eta ezpanak aginkatu ebezan danak, Telemako'k orren bekoki ta azartasun aundiz itz-egiten eutselako, txundituta.

399 Baiña Antinoo'k Eupiterren semeak, erantzun eutson esanaz:

400 Antinoo.—Telemako! Jainkoak eurak dira egi-egitan itz-eder izaten eta ausartsu mintzatzen erakusten dautzuenak; baiña Kronion'ek ez dau gura zu itxasoz esitutako Itaka'n errege izaterik, zeure aitaren leiñuz dagokizunez.

405 Telemako zurrak erantzun eutson:

406 Telemako.—Antinoo! Gogait eragingo dautzu bear bada esango dautzudanak? Atsegin izango litzakit noski ango errege izatea, Zeus'ek ori nai ba'leu. Errege izatea dala uste dozu, ausaz, gizonentzat ezbearrik txarrena? Ez da txarra errege izatea, aren etxea bertatik aberats biurtzen dalako, ta olakoa itzal aundikoago agertzen. Baiña akeutar printze asko, gazte ta zaar, Itaka'n bizi dira, itxasoz esitutako urian: beite errege eurotatik edozein, Odis jainkotia il zan eta, eta ni onek

guda-ondakin lez irabazi eban neure etxe ta morroien jaun eta jabe izango naz.

416 Eurimako, Polibo'ren semeak erantzun eutson:

417 Eurimako.—Telemako! Jainkoen eskuetan dago akeuetatik zein izango dan itxasoak inguratzen dauan Itaka'ko errege; baiña zuk jarrai. atera kea zeure ondasunai, agindu zeure jauregian, eta egundo be, Itaka'n biztanleak diran bitartean, ezpei gizonik etorri zeure naiaren aurka zuri aberastasunak morriztera. Eta orain, Telemako ezin-obe orri, arrotzari buruz itandu nai dautzut. Nundik etorri zan gizaki ori? Nungoa dala-ta illaraintzen ete da? Zein eskualdetan aurkitzen dira bere sendia ta aberria? Zure aitaren itzuliaren albisterik ekarri al dautzu, ala zorren baten dirua jasoteko xedez izan da bakar-bakarrik? Zelan jagi ta joan egin zan orren bizkor, guk ezagutu gengian itxaron bage? Bere arpegi-itxuratik dakustanez, ez dau izan bear iñolaz be errukarri bat.

431 Telemako.—Eurimako! Urtua da onezkero nire aitaren itzultze-itxarokizuna; eta barriak, datozala datozan lekutik, ez dabe niretzat federik; ezta, ez nabe kezkatzen nire amak jauregira deitu ta itaunak dagitsozan aztruak egin leikezan iragarkiak be. Ene arrotz au nire aitarena be izana dozu, ta Tafos'tik etorri yat: Mente, Ankial burrukalariaren semetzat dauko bere burua, eta arraunak erabiltea eder yaken tafitarren errege da.

438 Orrela mintzatu zan Telemako, bere barman jainkosa ezilkorra ezagutu eban arren. Senargaiak biurtu ziran euren dantza ta kantu atsegiñetara, ta edu orretan egozan gau illunaren zain. Etorri zan au oraindik euren jolasean ebiltzala, ta joan ziran danak lotarako euren etxeetara. Telemako goiko etzangura igon, larraiñaren erdian, alderdi guztietatik ikusten zan tokian, berak beretzat eregi ebanera, ta ogera joan zan artez, bere gogoan gauzarik asko ausnartuz. Eurikle'k, Ops Pisenorida'en alaba gogai garbidunak, laguntzen eutson zuzi bizituakaz, neskatx au erosi bait eban beiñola Laerte'k bere ondasunakaz, gaztezarora a eldu-ala, ogei idiren truke; eta jauregian oorez artu eban emazte garbi bat bezela, baiña etzan beronegaz iñoiz be ogeratu, bere emaztea gorbiztu ez zekion. Arek, bada, Telemako'ri argi egion zuzi bizituakaz, mirabeetatik maiteena ebalako ta umetatik arek azia zalako; eta gelara eldurik, zabaldu eutson sendaro egiñiko atea. Ogean jarri zan

Telemako, erantzi eban soiñeko leuna ta andera zurrad. eskue-
tara emon eutsan; onek, tolosak eratu ondoren, oge zardai-
ñaren ondoan egoan untzetik esegi eban, eta beingoz etzangu-
tik urtenaz, zidarrezko elestunetik tiraka atea itxi ta ugel ba-
ten bitartez morroillatu eban. Eta Telemako'k, ardi-narruzko
estalki beroz ondo batua, gau osoa igaro eban Atene'k aolka-
tu eutson joan-etorriari bere buruan eragin eta eragin.

II KANTUA

Itakarren batzarra. Badoa Telemako

Goizaren alaba, larrosazko atzdun Argidiria agertu zanean, Odis'en seme kutuna ogetik jagi, jantzi, ezpata zorrotza besagaiñetik eskegi, bere oin gardenetan oiñetako dizditsuak lotu ta, arpegieraz jainko baten iduriko, gelatik urten zan. Aida baten agindu eban, abots zoliko otsegilleak akeutar uletsuai dei egin egioela batzarrera. Egin zan deia, ta beingoan asi ziran batzartzen. Eta deiari erantzunik alkartu ziranez, Telemako batzarrera joan zan borontzezko lantza eskuan eta txakur oin-arin bi jarraika zituala; Atene'k jainko-edertasunez apaindu bait eban, batzartokiratzen ikusi ebenean, erri osoa izu-larri eukan begira; zarrak lekua egin eutsoen, beraz, eta bere aitaren aulkian jezarri zan.

15 Egipti, zarrez makur eta gauza asko ekizana, izan zan aurrenik mintzatu yakena. Beronen seme maite-maite ebana, Antifo burruka-zalea joana zan Ilion, zaldi ederdunera, Odis jainkotiarekin ontzi konkiletan; eta Kiklope odolzaleak il eban artzulo sakonduan, eta aparti areitatik azkena egín eban aren aragiz. Beste iru eukazan agureak —bat, Eurinomo, senargaiakaz aurkitzen zan, eta besteak bere aitaren soloak zaintzen ebezan—, baiña etzan origaitik aitzu Antifo'kin, eta beraugaitik minduta egoan negarrez. Egipti, ba, mintzatu yaken, malko ixurika, onela iñotsela:

26 **Egipti.**—Entzun, itakarrok, esango dautzuedana. Odis jainkotia itxas-ontzi sakonetan joan zanetik, bein be ez dogu batzarrerako deirik izan, ezta batzarrik egin be. Nok batzartzen gaitu orain? Gazte ala zaar da alako estualdian aurkitzen dana? Gudaroztea itzuliz datorrenaren albistaren bat izan ete dau ta enparauak baiña leen jakin ebana agirian iragari nai ete dautzue? Ala erriari interesgarri yakon zerbait esan eta azaldu gura ete dau? Gizaseme deduzkoa ta oneratsua dala diru-

dit. Bete begio Zeus'ek, azken onera eroanik, bere biotzean darabillena.

37 Orrela mintzatu yaken. Asko poztu zan iragarri onekin Odis'en seme kutuna, ta ez eban luzaro iraun jarrita: jagi zan batzartoki erdian, batzarkideai itz-egin naiez, eta aolku zurrak emoten ekian Pisenor ots-egilleak jaur-makilla ipiñi eutson eskuan. Telemako'k batetik bat zaarragana zuzenduz, onela itz-egin eban:

43 Telemako.—O zaar! Ez daukazu urrin gizon ori, ta orain jakingo dozu erria batu dauana neu nazala, guztiz samin-duta aurkitzen nazan au. Ez dot gudaroztearen itzuli albistarik artu, enparauak baiño leen jakin eta zuoi agirian iragarteko, ezta ez dot ezer adierazo edo esan nai erriarentzat interesgarri danik: neuri dagokidan auzi bat besterik ez da, neure etxean sartu dan zorigatx bikotxa dozu. Bata neure aita bikaiña galdu nebala da, aita samur lez zuek zuzentzen zinduezana; bestea, oraingoa, garrantzi geiagokoa oraindik, laster nire etxea ondatu ta ondasun guztiak urtuko dauzana. Nire amaren senargaiak, lurralde ontako gizakume nabarmenen seme kutunak, nire ama bere gogoz bestera estutzen dabe, eta Ikari bere aita-ren etxera joaten ez dira ausartzen, ezkontz-saria gertatu ta arek nai dauanari ta amak gogokoen dauanari emon dagitson; alderantziz, egunero gurera etorririk, idiak, ardiak eta auntz lodiak lepo egiñik, jan-edanak ospatzen dabez, ardao gorria eroki zintzurretatuz, ta orrela iraungi ta txukatzen dabez milla gauza, Odis antzeko gizonik, gure etxaldea olako ondamenditik askatzeko gai danik, ez daukagulako. Ni ez nago gaur olakorik aurrera eroateko (aula naz antza aurrerantzean eta burrukarako kemena palta yat), bestela bai adorerik naiko ba' neu, laster uxatuko neuke zorigaizto au etxetik, egiteko ja san-eziñak burutu dira ba berton eta nire etxea galduaz doa erarik txarreanean. Erdikide zakidaze zuok be sumindura onetan, lotsa zaiteze ingurumari diran auzokoen aurrean, eta bil-dur izan jazartu oi daben jainkoen asarre gorriz, egitada gaiztoakaz suminduta. Olinpu'ko Zeuz eta Temis'gaitik eskatzen dautzuet, onek bai ditu gizonen batzarrak banatu ta batzen: ez egizue ortan jarraitu, adiskideak; itxi eidazue neure samin ituna bakarrik igaro daidan; nire aitak bear bada, Odis bikaiña, zango-babes ederdun akeutarrai txarto gura izanik kalte egin ez ba'eutsen eta zuok orain, kalte a nigan appendu nairik,

ni begitan artu ta, oneik zirikatuz, niri kalte egitea gogo ez baldin ba'dozue. Ortaz oba litzateke guztioz batera nire etxe-ondasunak eta artaldeak oro iruntsiko ba'zenduez; ori ba'zengie bear bada ordaiña artuko neuke egunen baten, urian zear joango nintzake ba arpegia emonez aldarrika ta ondasunak, danak barrero biurtzea lortu arte, zuoi gogor egin eta oiuka eskatuz, Baiña orain nire biotzari dagitsozuezan arrenkura ta miñak osatu eziñak dira.

82 Onela esan eban su bizitan; eta, maiko xurrutan, lurrera bota eban jaurmakila. Erri osoa errukitu zan, danak ixildurik; iñok ez eban bekokirik izan itz zakarrez Telemako'ri erantzuteko, Antinoo'k izan ezik; onek erantzun eutson esanez•

87 **Antinoo.**—Telemako iztun goratu, zeure indar zistuak neurtu-azteko gauza ez zareana! Zer esan dozu gu iraintzeko? Lotsa gaiztoz bete nai gaituzu. Baiña errua ez da zure amaren atzetik dabiltzan akeutarrena, berea baiño, berak bai daki amarru aundiz jokutzen. Irugarren urtean goaz, eta laster datorke laugarrena, akibutarrak euren barruan daben gogoa kezkarazten diarduala. Itxaropenez beteten ditu danak, eta bako-txari bereziz egintzak egin oi dautsoz, mandatuak eta igorriaz; baiña oso bestelakoak dira ak bere buruan darabiltzan gogamenak. Aren biotzak beste iruzur au be matazatu eban: eun aundi, me ta azkenbako bat iruten asi zan jauregian, eta andik laster gisa onetan itz egin euskun: «Gazteok, ene senargeiok! Odis jainkotia illa dan ezkerro, itxaroizue, nire ezteguak lei-erazteko, eun au amaitu dagidan (ariak alperrik galdu ez daidazan) , Laerte gizurenak, erio izugarriaren Parka gain datorkekekionean, il-jantzia euki dagian. Ez neuke nai erriko akeutar emakumeetatik bat bera be sumiñ-erazterik, ainbeste ondasunen jabe izandako gizaseme bat il-izara barik lur emoten ikusirik!» Orrela mintzatu zan, eta gure biotz zabalak etsita geratu ziran. Une atatik eguna emon oi eban eun aundia moldatzen, eta gabaz, argi-zuziakaz dizditu baizen laster, eundua barriz deusezten eban. Modu onetan lortu eban iruzurra gordetea ta iru urtez bere itzak akeutarrak siñesteraztea; baiña, laugarren urtean urte-aroak gertatu ziranean, jazoten zana ondo ekian emakumeetariko batek iragarri euskun, eta eun eder-ederra izpitu ta askatzen ziarduala gainera etorri gintzakion. Orrela, berak nai ez-ta be, lan ori amaitu bearrean

aurkitu zan. Entzun, ba, zer erantzuten dautzuen senargaiak, zure asmamenak artu dagian eta akeutar guztiak be jakin dagian. Bioa zure ama bere etxera, ta agindu eiozu bere aitat aolkatzen dautsona ta berari eder yakona artu dagiala senartzat. Eta akeutarrak luzaroan oiñazetuko ba'leuz, Atene'k ugari emon eutsozan bikaintasun eta doez entzindurik (esku-lan ederretan trebe izatea, zentzun oneko izan eta aurretiko emakumek, Tiro, Alkmena ta Mikene, buru-ailla bikaindunak, Penelope'k lako burukizunik batek berak be euki dabenak egundo entzun ez doguzan maiña ta kako-makoz baliatzea), etzan erabagiko egokienaren alde, zure onak eta aberastasunak bada iruntsiak izango dira, jainkoak biotzeratu dautsoezan igurdizi ta antze-airez jarraitzen dauan bitartean. Entzute zabala lortuko dau ziurki, baiña zuri euki dozuzan ondasun jorien kezka-miña geratuko yatzu bakar-bakarrik; eta gu ez gara biurtuko geure garatzetara, ezta beste ezertara ez iñora be, Penelope akeutarren batekin ezkondu daiten arte.

133 Telemako zurrak erantzun:

134 **Telemako.**—Antinoo! Ez da bidezko izatea emon eta azi ninduana, bere naiaren gaiñez, nik neure etxetik botatea. Nire aita bear bada bizirik dago beste lurralde baten, edo-ta bear bada illa da; baiña astun izango yat Ikari gauza asko be asko biurtu bearra, nire ama berariko bialtzen ba'dautsot, Eta orduan ez ditut ezbearrak nire aita urrin dala-ta bakarrik izango, jainkoak eurak be beste batzuk bialduko daustiez; nire amak bada, etxetik urtetean, Erini gorrotogarriak otoiztuko ditu ta gizasemeen asarrea gaiñ etorriko yat. Nik ez dot, beraz, iñoiz be olakorik aginduko. Jazoten dana iguingarri ba'yatzue, zoaze jauregitik, antola beste jaketa batzuk, eta iruntsi zeuen ondasunak, zeuen etxeetara bat-banaka alkarri dei-egiñik. Baiña oba ba'deritxazue, ta jasekoago, gizon baten ondasunak ezeren ardura barik ondatzea, jarrai aurrera olakoak txautzen; nik jainko betikorra dei egingo dautset, Zeus'ek apika egunen baten zuen egítadak zigortuak izatea emoten ba'dausku be, eta bear bada jauregi ontan ilgo zarie iñok be zuen apena artu bage.

152 Onan mintzatu zan Telemako; eta urriñera ikusi oi dauan Zeus'ek arrano bi bialdu eutsozan, mendi baten gandormuturretik egaz irristatu ziranak. Biak egaz egien bat-batera, ego-zabal, aizea baizen bizkor; eta batzarleku zaratatsuren gaiñera eldu ziranean, biraka ibilli ziran zailu, ego lodiak zarta-

turik; batzartutako guztiai burura begira, erio-zantzu lez, euren burua ta samea erpakaz urraturik, eta eskumarantza artu eben etheen gaiñez eta urian barrena. Arrituta gelditu ziran bertako guztiak esandako egaztiak euren begiz ikuskatuaz, eta euren barruetan iraulten eben zer izan zeitekean jazoteko zana; ontan, Aliterse Mastorida gizaguren zarrak, bere adiñekoen artean zoriak ezagutu ta gerta-gauzak adierazten nabari zan bakarrek, ondoguraz itz-egin eutsen, esanaz:

167 Aliterse.—Entzun, itakarrok, esaten noatzuena, senar-gaia batez be dagokiena dodan arren. Aundia da oneik zemaika daukien aldi ertuna, Odis ez da ba beretarrengandik urrun luzaro egongo, bear bada oster a ur dago ta eriotza ta alانبearra gertatzen dautse guztiai; eta okerra etorriko yake ausaz urrundik ikusten dan Itaka'n bizi diran askori be. Orrela jazo aurretik, zelan itxi-azo daik eguzan bere geiegikeriok gogora daigun, edo-ta eurak eurenez itxi dagiezala, eurentzat be oba litzateketa. Ez dot ba jakin bage iragarten, ondo jakiñaren gaiñean baiño; eta ziur diñotzuet, nik azaldu neutson guztia bete yako gizurenari, argibotarrak Ilion'erako ontziratu ta Odis asmotsuak be areikaz batera arako bidea artu ebanean. Orduan esan neutson, aunitz zoritxar eroan eta bere lagunak galdu ondoren, ogeigarren urtean bere jaioterrira itzuliko zala, iñok be ezagutzake; eta orain guztia doa bere betera.

184 Eurimako, Polipo'ren semeak erantzun eutson:

185 Eurirako.—O aiton! Biur zeure etxera, ta iragarri eiezu zeure semeai gura dozuna, ezeren kalterik izan ez dagien aurrerantzean; baiña gauza oneitan zuk baiño naikoa obeto dakit nik iragarten. Eguzki-izpien azpian ainbat egaztik zirkin dagie, danak alan be ez dira asmakari; gugandik urrun il zan Odis, eta zu be aregaz batera galdu ba'ziña oba, arela ez zeunke esango ainbeste iragarkizun, ezta Telemako sumindua zirikatu be, bezuzaren bat etxera bialduko dautzula-ta. Beteko da orain esango dodana: zuk, antxiñako gauza asko dazaguzun orrek, gizaseme gazteago ari zeure itzez atzipetu ta asarrean iraun daian su emon ba'dagiozu, batetik bat aundiagotu egingo da aren naigabea, aurre-esanakaitik ezingo dau ba era batera jokatu; eta zuri, o aiton!, isun edo diru-zigorra ipiñiko dautzugu ordaintzeak min emon dagitzun eta atsekabe astuna ekarri. Neuk neuronek, zuon guztion aurrean, aolku bat emongo dautsot Telemako'ri: aitaren etxera biurtzeko agindu daiola bere amari,

an atonduko dabez ezteguak, baita alaba maitatu batek eroan bear dauan aiñako ezkontz-saria gertatu be. Guk akeutar gazteok ez dot uste ordurarte geure leia neketsua lagako dogunik, ez bait gara bat bere iñoren bildur, ezta Telemako'renik be, azarritasun aundikoa dan arren; ezta ez dausku ardurarik dagiskuzun iragarpen maminbako origatik eta berori dala-ta oindiño gorrotogarriago izango zakiguzan arren. Oraiñarte lez, modurik txarrenean iruntsiak izango dira aren ondasunak, egiñiko kaltea egundo be kitutu bage, berak ezkontzea luzeraziz akeutarrai jost-erazten dautsen tartean. Eta gu, egunik egun zain, alkarregaz leiatuko gara aren doe bikaiñakaz jabetu nairik, eta ezkontzeko egoki litzakiguzan beste emakumeetara ez gara zuzenduko.

214 Telemako zurrak jardetsi:

215 **Telemako.**—Eurimako ta senargai argi zarienok! Oni buruz ez dautzuet geiago ezer eskatu ez esango, onezkero bada jainkoak eta akeutar danak ba-dabe onen barri. Tira, orraitino, antola eidazue ontzi zaillu bat eta ogei lagun, itxaso zear ezkereskoi bidea edegi dagisten. Esparta'ra ta Pilos ondartsura joango naz neure aitaren biurpenaz itaunka, ain luze egiten yat jadanik eta; bear bada ilkorren batek aretzaz itz-egingo daust, edo-ta belarrietaratu Zeus'engandiko ospea, gizasemeen aintza geien zabalazten dauna nunbait. Nire aita bizi dala ta biurtuko dala entzun ba'nengi, beste urte betean dana igaroko dot, atsekabetan egon arren; baiña il dala esango ba'leuste, gaur ez dala bizi, beingoan neure sorterrira itzuli ta obi bat eregiko dautsot, zor yakozan illetak ospaturik; eta senar bat billatuko dautsot neure amari.

230 Onetara itz-egin ondoren, jarri egin zan. Jagi zan orduan Mentor, Odis argiaren adiskidea —ak, itxasoratzean, anexen itxi eutson bere etxe osoaren ardurea, beretarrak aitonaren esana egin egien eta beronek dana gorde ta eraz zaindu egion—, onela mintzatu yaken, biotz onbera:

236 **Mentor.**—Entzun, itakarrok, esango dautzuedana. Aginte-makilla daroan erregerik ez bei izan onbera, ez legun, ez samur, ezta ez bei bere gogoa zer zuzenetan erabilli; ezpabere, anker jokatu bei beti ta burutu begiz egintza illun ta galgarriak; iñok ez dau ba gogoratzen Odis jainkotia errian, bertokoak aita-samurtasunez zuzentzen ebazana. Iguin ditut senargai arroputzak euren asmo txarrak eraginda darabillen gogor-

keriagaitik (Odis'en etxea zuzitzen ba'dabe, gizurena ez dala barriz biurtuko uste izanik, arriskuan jarten dabez euren bu-ruak), baiña iguin dodaz are geiago erriko enparauak, jarrita ixillik zagozela, ainbeste izan arren, zeuen itzez gitxi baiña ez diran senargaiak neurria jarten ez zariela saiatzen ikusirik.

250 Leokrit Ebenorida'k erantzun eutson:

251 Leokrit.—Mentor, gaizto ta zentzunbako ori! Zer esan zendun! Zirikatu gu daukagun asmotik aldentzeko! Gaitz izango yake, ta baita gizatalde aundiagoa aurkitzea be gugaz burruka egiteko guk jateketak itxi daiguzan. Itaka'ko Odis'ek berak, ona etorririk, senargai argiak idoroko ba'leuz jauregian jaten eta eurok etxetik botatea bere biotzean erabagi, aren emaztea, biziro gura daualarik be, ez litzake poztuko a itzuli dala-ta, an bertan artuko leuke ba gizurenak eriotz doillorra, ainbeste gi-zonekin burrukatzea otuko ba'litzakio beiñik-bein. Ez dozu bear bezela itz-egin, egiazki. Baiña, tira, alde egizu ta biur zaitez zeure arazoetara. Mentor eta Aliterse'k, aitagaitik Telemako'ren adiskide beti izan diranak, gogo berotuko dautsoe joan-etorria burutu dagian; baiña iruditzen yatanez, Itaka'n entzungo ditu letorkezan albistak eta ez dau olako osterarik iñoiz egingo.

267 Orrela mintzatu zan, eta iraiz batean barreatu eban batzarra. Danak banatu ziran euren etxeetara biurtzeko, senar-gaiak barriz Odis jainkotiaren egoitzerako bidea artu eban.

270 Telemako ondartzarantza joan zan eta, itxaso apar-tsuak eskuak ikuzi (garbitu) ondorean, Atene'ri otoi-egin eutson, esanez:

273 Telemako.—Entzun, arren, goitar orrek; neure etxean izan ziñan atzo ta agindu zeustan: joan nendilla ontzi baten itxaso baltzean zear neure aitaren itzuli-barri billa, aren urrin dea luzeegia zala onezkero ta! Onen aurka dagoz akeutarrak eta, batez be, senargai ordu gaiztoz arropuztuak.

279 Onan esan eban, arren. Urreratu yakon Atene, Mentor'en itxura ta abotsa arturik, eta solas ariñok egotzi eutsozan:

282 Atene.—Telemako! Gaurgero ez zara koldar izango, ezta zur-eza be, egintzak eta itzak burutzeko zure aitak eban gogo ona odolez jaso baldin ba'dozu beintzat; orrela ba'litz, oster ori ez dozu alperrik egingo, ez da geratuko egiteko be. Baiña, aren eta Penelope'ren seme ez ba'zara, ez dot uste opa

dozuna burutuko dozunik. Gitxi dira gurasoen antzeko seme-alabak, txarragoak dituzu geienak, eta batzuk dira bakarrik obeagoak. Baiña zu ez zara onik aurrera koldar izango, ezta zur-eza be, ez yatzu palta Odis'en adimena be, ta egiteko orreik ondo amaituko dozuzanaren itxarokizuna izan zeinke. Ez izan, beraz, senargai burubakoak erabagi naiz gogotan erabilli daikkeenaren ardurarik; oneik bada ez daukie zentzunik, ez zuzen jokatzen, eta ez dakie eriotza urreratuz doakiela, Parka baltza ur dabela danak egun bat-berean amaitu dagien. Gogo dozun osterari ez da askorik luzatuko: zure aitagaitik zure adiskide kutun bait naz, neuk eratuko dautzut ontzi bizkor bat eta zeugaz noakizu. Itzuli zaite zeure etxera, zabiltz an senargaiakaz batera ta agindu zuk eratu dagiezala emendio. Jaki ta bizkaiak ontzi egokietan, ardaux txanbilletan eta giza-elikatura dan uruna, zaragi sendoetan; nik bitartean, errian batuko dodaz, zuri berariko lagundu nai dautzuenak. Itaka, itxasoak esituan, berein ontzi dagoz, barri ta zaar; eurak arakatu ondoren, zeuretzat aukeratuko dot onena, ta, ondo ornidu ostean, itxaso zabalaren bizkar jarriko dogu.

308 Orrelaxe mintzatu zan Atene, Zeus'en alaba; eta Telemako'k, jainkotasunaren abotsa entzun ebanean, ez eban askorik luzatu. Joan zan bere etxera biotz-zauritua, ta an aurkitu ebazan senargai arroputzak auntsai narrua kentzen eta txarri gizenak erreten etxe-barruko larraiñean. Antinoo'k bertatik, barreka, Telemako'ri bidera urten, eskutik oratu ta itz oneik esan eutsozan:

315 Antinoo.—Telemako iztun goratu, biotz-zauskadak neurtzen ez dakizun ori! Ez egizuz irauli zeure gogoan egintza txarrak edo-ta itzak, jan eta edan eizu neugaz orain artean egin zenduan lez. Eta akeutarrak gertaiko dautzuez gauza guzti areik, ontzi bat eta arraunlari bana-banakoak, Pilos jainkozkora joan zaitezcan laster zure aita argiaren albista billa.

321 Telemako zurrak jardetsi:

322 Telemako.—Antinoo! Ez, eziña da ni zuon artean, arroputzon artean, ixillik egon eta nare-nare jan-edan eta pozari emotea. Naiko ez al da senargaiak, ni gazte nintzala, ainbeste gauza bikain niri ondatu izatea? Orain andiago nazala ta, besteak diñoena entzunik, zer jazoten dan be ba-dakidala, kemena aziagotuz doa nire bularrean, eta zuok Parka zorigaiztokoetara bialtzen saiatuko naz, bai Pilos'era jorik eta bai emen uri one-

tan. Bidazti joango naz (eta ez da utsa izango diñodan joan-
etorria), ez daukat ba ez ontzirik, ez arraunlaririk; egokiago
deritxazue, bear bada, olan jazotea.

333 Au esan eban, eta errez askatu eban eskua Antinoo'
renetik. Etxe barruan oturuntza gertetan ebiltzan senargaiak
iseka egiten eutsoen Telemako'ri, itzez be ziplaka. Eta gazte
arro arein arteko batek tankera ontan itz-egin eban:

338 Senargai bat.—Telemako zalantzarik bage gu zelan
garbitu pentsetan dabil: Filos ondartsutik edo Esparta'tik eka-
rriko ditu lagun indartsuak, orren usi ta naikari bizitan dauka-
gu!, edo-ta bear bada Efira'ko lur jorira joan naiko dau, erre-
kitu ertodunak egokitu ta gero edontzietan emonik, gu guztiok
itzali gaitezan.

344 Eta gazte arroetatik beste batek tarrapataka gainñera-
tu **eban**:

346 Beste senargai bat.—Nok daki, ontzi sakonean itxa-
soratuta, bereakandik urrin ilten bada, alderrai Odis bezela?
Gure lorra aundiagoa litzake orduan, bere ondasun guztiak
banatuko geunkez ba ta etxeak au bere amari ta onen senar
oiari emongo geunskio, biak alkarregaz kea atera dagioen.

352 Edu onetan ziarduen. Telemako bere aitaren etxari
zabal garatura jatsi zan: emen aurkitzen ziran urre ta borontze
metak, kutxetan gordetako soiñekoak eta orio usaintsu parrasta
aundia. An egozan ardao zaar gozozko tresnak, edari garbi jain-
kozkoz beterik, ta ormeari dautsela sailka jarririk; Odis
biurtuko ba'litzakcan bere etxcra, ainbat ok e ta elorrio jasan
ondoren. Ateak orri bi eukazan gogor aiutu ta giltzarrapoz lo-
turik; eta bere ondoan egoan gau ta egun, gogo ernaiz dana
jagoten, jaki-zaintzaille bat: Eurikle, Ops Pisenorida'ren alaba.
Telemako'k orduan oni, bere egotegira deituz, esan eutson:

364 Te/emako.—Etxandera! Ia, ipiñi eidazu suilletan ar-
dao gozoa, doakabe arentzat gordeten dozunaren urrengo goza-
tsuena dana, Zeus'en aziko dan Odis, eriotik eta Parketarik
aske, itzuliko danaren itxarokizunez beti, zaintzen dozunaren
urrengokoa nunbait. Bete amabi suil eta itxi egizuz euren perrol
edo estalkiz. Bcrezi egizuz baita ogei imillaun gari-urun, ta bota
ondo jositako narru-mintzetan. Zeuk bakarrik jakin daizula gero.
Eukizu dana baturik, eta gertu, illunabarrean natorke orren
nire ama berc bakarrera goian batu baizen laster. Es-

parta'ra egin nai dot osterata bat, eta Pilos ondartsura, nire aitaren biurtzeari buruz zer-edo-zer entzun edo-ta jakitea baldin eta lortzen ba'dot.

375 Onela mintzatu zan. Negarrari emon eutsan Eurikle bere etxeakoandreak eta, antziaka, itz ariñok ebagi ebazan:

377 **Eurikle.**—Seme maite! Zelan buruak emon dautzu olako egin-naia? Nora jo nai lurralde baztertuak zear, seme bakarra ta ain kutuna izanik? Odis, Zeus'en etorkikoa. il zan bere sorterritik urrun, erri ezézagun batean. Zu joanaz bat, oneik gauza biurriak asmatuko dabez iruzur eta trankartez zu ilteko ta zure ondasun guztiak euren artean banatzeko. Zagoz emen, zeure ondasunen aldamenean; ez zaitu ezek beartzen itxaso gozaketxean zear joanik ezbearrak igaroten, ezta emendik ara iperloka ibiltzen be.

386 Telemako'k erantzun:

387 **Telemako.**—Mana zaite, etxandera; erabagi au ez da artu, ba, jainko batek nai izan bage. Baiña zin egidazu, ez dau-tsazula nire amari ezer aitatuako amaika-amabi egun igaro arte, edo-ta ni ikusi-naia nekarazi edo alde egin dodala esaten berak entzun artean; au negarrik egin ez daian eta olan bere gorputz ederrari kaltea ekarri.

393 Au adierazo eban; eta andra zaartxoak jainkoen zin gurenari amor emon eutsan. Zin-egitea amaitu-ala, ak, amene-ko baten, suilletara aldatu eban ardaoa, uruna be narru-mintz ondo josietan ezarririk; Telemako gora igon zan barriro, se-nargaiakaz alkarturik.

398 Atene'k orduan, ontz-begidun jainkosak, beste zerbait agindu eban. Telemako'ren itxurea artuaz, uriko bazter guztiak urratu, bertako giza zur, gurgarri askorekin mintzatu ta illuntzean ontzi ondoan batu zeitezela eskatu eutsen. Eskatu eutson baita Frono'ren seme ospe aundikoari, ots, Noemon'i, itxas-ontzi bizkor bat, eta onek atsegin aundiz itxi eutson.

404 Eguzkia etzandakoan, bide guztietaz jabetu ziran illunpeak. Jainkosak une aretan itxasoratu eban ontzi ariña ta bertan jarri ebazan tosta askodun ontziak eroan oi daben apail-lu ta tresneri osoa. Kai mutur batera zuzendu eban gero, la-gun asko ta onak batu ziran, eta Atene'k gogo-berotu zituan danak.

410 Atene'k ordun, ontz-begidun jainkosak, beste zerbait agindu eban. Odis jainkotiaren jauregira jorik, lo gozotan jarri

ebazan senargaiak, edanari ziarduela astun, traskel gertatu ziran arein adimenak, eskuetan edontziak eurak be lurrera jausteraiño. Danak alkarren leian urian zear banatu ta lotara joan ziran, loa betazal gaiñetara jausi yakenetik ez ziran ba jarrita luzaro egon. Eta Atene'k, ontz begidunak, Mentor'en iduri ta abotsa artu zitunak, jauregi erosotik at dei egin ondoren, Telemako'ri esan eutson:

420 Atene.—Telemako! Zango-babes ederdun zure lagunak, tostetan jarri dira arraunerako; zure esana bear dabe bakar-bakarrik lanari ekiteko. Goazan, eta ez daigun luzatu are geiago joan-etorria.

424 Orrela mintzatu izan zanean, Palas Atene ibiltan asi zan bizkor, eta Telemako jainkosaren oiñatzen atzetik. Eldu ziran ontzira ta itxasora, ur-ertzean idoro ebezan lagun uletsuak. Eta Telemako zaintsu ta jainkotiak itz-egin eutsen, esanez:

429 Telemako.—Zatoze, adiskideak, eta dakarguzan jaiak; gerturik dagoz ba ta berezituta jauregian. Nire amak ez daki ezer, ezta neskameak be; batek ezik, auxe bait da esan dautsodan bakarra.

433 Onan erasiz, bidean jarri zan eta gaiñerako guztiak jarraitu eutsoen. Jesus amenean eroan eutsoen guztia ta tosta askodun ontzian jarri, Odis'en seme laztanak agindu eutsenez. Berealakoan ontziratu zan Telemako, Atene aurretik joakola; onek txopan, atzeko aldean, artu eban jarlekua eta arek beronen aldamenean, lagunak oraki ta loturak askatu ta tostetan egokitzen ziran artean. Atene ontz-begidunak rize biguna igorri eutsen: Zefir azkarra, kresal-gaiñ bitstsuan ots egiana. Telemako'k bere lagunak aolkatu zituan, berga ta abar egokitu egiezala esanez, eta beraren onua aintzat artua izan zan. Goratu eben izai-egurrezko masta, lataga edo aspean sartu ta sokakaz lotu eben, baita bertatik zabal-erazo be oial zuria ugel ondo biurriakaz. Aizean puztu eban oiala, eta purpur-olatuak ots egien aundikiro, karena biran, ontziak bide egiala egokion bandan zear. Ontzi baltz ariñari lotu eutsoezanean tresna ta apailuak, edontzi ardaoz beteak jaso ta eskintzak egin eutsezan jainko illezkor betikoai ta batez be Zeus'en alaba ontz-begidunari. Eta ontzia bere zuzenbideari lotua joan zan gau guztian, eta urrengo argi-azkorrian.

III KANTUA

Pilos'ekoa

Dagoneko eguzkia, ur-osin txit ederra lagarik, borontzezko zerura igonez joian jainko illezkorrai goian eta gizakume ilkorrai lur emokorrean argi egiteko, Telemako ta bereak Pilos, Neleu'ren uri ondo eregira eldu ziranean; itxas-egalean aurkitu ebezan ango biztanleak, ule baltzizkako zezenak lurra astintzen dauan jainko zeru-margozko ule-adatsdunari lepo-egin eta eskintzen. Bederatzi jarleku egozan bertan, eta bosteun gizon eurotan jarrita, bederatzi zezen eskintzen ziran bitartean. Pilitarrak, erraiak txastatu ondoren, izterrak jainkoarentzat erreten ziarduelarik, itakarrak kaira eldu ziran, ondo aiuturiko ontziaren oialak betu, ainguraz landatu ta lurreratu ziran. Telemako'k, Atene aurretik ebala. itxi eban ontzia. Eta jainkosa ontz-begidunak itz oneikaz urratu eban ixillaren miesa:

15 Atene.—Telemako! Ez daukazu onezkero ezeren lotsa zertan izanik, zeure barriak jakin-min itxasoa zearkatu dozu-ta: ze lurrek daukan a gordeta, zelako zoriak dantzarazi dauan. Ea, zoaz zuzen Nestor, zaldi-ezlearengana, eta jakin daigun zer gordeten dauan an bere kolko barruan. Eska egiozu zeuk, zero-rrek, egia esan daizula, ta ez dau guzurrik esango, guztiz zentzunduna dozu-ta.

22 Telemako zurrak jarduki:

23 Telemako.—Mentor! Zelan nai dozu ni arengana urreratzea, zelan joango naz ni ari agur egitera? Oindiño ez naz oitua zur ta senez itz egitera, ta gazteak zaarrari itandutea beti da lotsagarri.

27 Atene'k, ontz-begidun jainkosak:

28 Atene.—Telemako! Zenbait gauza darabilkeuz gogotan eta gaiñerakoak goi-argi batek bururatuko; ez dot uste, ba, zure jaiotza ta azkuntza jainkoen naiaren aurka gertatu diranik.

32 Olan mintzatuz gero, Palas Atene'k bide egian jasezko ibilliz, eta jainkosaren oiñatzen jarrai Telemako. Eldu zivan pilitar gizurenen jarlekuetaraiño, batzar tokiraiño: an egoan Nestor bere semeakaz jarrita, ta lagunak arein ingurumari gertetan eben oturuntza, bai aragia errez eta bai burruntzietan egokituz. Eta arrotzak ikusi orduko, danak batera aurreratu, eskuekin agur egin ta jarteko eskatu eutsien. Pisistrato Nestor'en semea izan zan lenengo aurreratu yakena, eta eskutik oraturik, oturuntzarako jarri-azo zituan narru bigunetan, itxasoko ondar gaiñean, bere anai Trasimedes eta berberaren aitaren ondoan. Berealaxe erraietatik zati bana emon eutsen, eta, urrezko ontzian ardaoa ixuri ta Palas Atene'ri babesa daroan Zeus' en alaban eskiñiaz, onan mintzazu zan:

47 Pisistrato.—Etorkin! Jaso zeure otoitzak Posidon nagusiari, ona ona eltzean aren omenez ospatzen dogun jai-alaiakin idoro zarielako. Baiña bidezko dan lez garbiketa ta otoitza burutu baizen laster, emoiozu orri be ardao gozozko ontzia eskiñi dagian, nik uste dot ba illezkorrai eskatzen dautsela erabat, gizakumeak oro bait dagoz jainkoen bear-izanez. Baiña gazteen dalako (neure urteak daukaz urrean) zeuri damoketzut lenengo urrezko txola.

56 Au esanaz, eskuan jarri eutson ardao gozozko txola. Atsegin aundiz ikusi eban Atene'k, Telemako'ri baiño leen urrezko txola berari emon eutsan giza gurenaren zurtasuna ta biotz-bera. Eta irri-arra batean berein eskari egin eutsozan Posidon gaiñ-gaiñekoari:

60 Atene.—Entzun naizu, lurra esitzen dozun Posidon orrek! Ez egizu, arren, burutu barik itxi orain eskatzen dautzuguna. Ezer baiño leen bete egizu aintzaz Nestor, eta beronen muskil-kimuak; emon pilitarrai saria ain ilketa ta sarraski aipagarriagaitik; egizu baita Telemako ta ni ez gaitezala joan ontzi baltz ariñean ekarri ginduzan elburua jadetsi bage.

66 Edu ontakoa izan zan aren erregua, ta berberak betetu eban eskatu-barri ebana. Itzetik ortzera eman eutsan Telemako'ri bere txol eder bikotxa, ta Odis'en seme kutunak be otoitz egin eban erabat. Aurre-aldeko laurenak erre ostean, sutatik atera ta zatitan banandurik, jan-edate bikain-bikaiña ospatu eben. Eta ase ziranean, Nestor, gerenitar zalduna, asi yaketen eleketan:

73 Nestor.—Ona abagunerik ederrena arrotzai itandu ta nortzuk diran jakin al izateko, jan-edanez bapo daukaguzan ez-kero: «Erbestetarrok! Nortzuk zarie? Nundik eldu zarie ona, bide ezoetan zear ibilli? Arazoren batek eraginda zatoze ala itxasoz zabiltze noraezean, zearka dabiltzan itxas-lapurrak iduri, bizitza arriskuan jarritz eta lur arrotzetako gizasemeai kaltea ekarriz?».

80 Telemako zurrak erantzun eutson, arnas aundiko, Ate-ne berak ixuri eutson ba biotzean ausardia urrun zan aitagai-tik itandu ta gizartean entzute aintzatsua lortu egian:

84 Telemako.—Nestor Nelída, akeutarren ospe bikaiñ! Nuntarrak garan itanduten dozu? Neuk esango dautzut ba. Itaka'tik gatoz, Neio'ren oiñetan dagonetik, eta gakarzan garatza ez da agirikoa, geure-geurea baiño. Neure aitaren entzute nabariaren atzetik nabil, Odis jainkoti eroapentsuaren izena adituko ete dodan; nire aitak, diñoenez, troiar uria zuzitu eban, zugaz batera burrukaturik. Teukrotarren aurka oldartu ziran guztietatik badakigu nun jasan eben eriotza negargarria; baiña arena ez jakitea nai izan dau Kronion'ek: iñok ezin daikegu nun jausi zan argi ta garbi adierazo, ez etsaien eskuz liorrean il zanik, edo-ta kresal-osiñean Anfitrite'ren ur-palasta artean. Origaitik etorri naz belaunak besarkatzen, aren eriotz goibela edestu nai baldin ba'daustazu, naiz zeure begiz ikusi dozula, naiz bidaztiren batek eralgi dautzula, bere amak doakabe munduratu eban ezkerro. Ez egizu ezertxo be gitxitu daustazun begirunez edo errukiz; jakitun ipiñi nagizu, osterá, ikusi izan dozun guztiaz. Bene-benetan eskatzen dautzut: nire aitak, Odis ospe aundikoak zuri emoniko itzik bete eutzunez: edo-ta agindu eutzun egintzaren bat, burutu ete ebana, an troiarren artean, biok ainbat zoritxar ikusi zenduen tokian; gogora eizu ori ta esaidazu itaun dagitzudanaren egia.

107 Nestor, gerenitar zaldunak darantzutso:

108 Nestor.—O adiskide! Errialde atan akeutarrok ikusi genduzan zoritxarrak dakarstazuz gomutara; eskura-eziñak giñan kemenez, batzutan alderrai ontzietan itxas baltzetan zear, Akile'k gudakin billa garoiazan tokietan barrena, eta beste batzutan Priamo erregeren uri aundi inguruan burruka egiñik. Gure buruzagirik onenak an atzemon zituan erioak: an datza Aiante burrukalaria; an, Akile; an, Patrokol, aolkulari jainkoben kideko; an, nire seme maite, Antiloko zangar argia, ko-

rrikalari errime ta gudari bikain. Orrez gain, ezbearrik asko iruntsi genduzan. Zein gizaki ilkorrek adierazo al leukez danak osorik? Emen bost edo sei urte bizi izanik, aleginduko ba'ziña be akeutar jainkotiaik an zelako neke-miñak jasan ebezan itaunka, eziña litzakizu danak jakitea; bestera, amaira orduko, nekatur jadanik. zeure gurasoengandiko lurrera joango zintzakez. Bederatzi urtez egon giñean arein aurka gauza txarrak asmetan eta arei ingurumari kide guztitako lakio ta irusakuk jarten, eta orduantxe burutu zituan ozta-oztan Kronion'ek gure nekelanak. An etzan iñor aurkitu Odis zure aita jainkotiaz zurtasunean bardindu nai izan ebanik; beste guztien artean axe zan nabari gisa guztitako antze ta amarruz, zu egiaz aren seme ba'zaitugu, sor ta lor bai-naz geratu zu ikustez. Antz-antzekoak dira, era berean, aren itzak eta zureak, eta ez da siñisgarri gizakume ain gazteak orren peto-petoko izkeraz mintzatu al izatea. Odis ta biok ez gintzazan iñoiz be beste eritxiko ibilli batzartegian naiz aolku-lekuan itz egitean; bestera, gogo bardiñeko izanik, zentzunez eta erabagi zurrez aolkatzen genduzan argibotarrak, geure egikizunak oro erarik onenean joan eitezan. Baiña gu, Priamo'ren uri garaia suntsitu ondoren, ontzietan itxasoratu ta jainkotasun batek akeutarrak sakabanatu ebanekoxe, Zeus'ek burutan artu eban argibotarren itzulia tamalgarri izan zedilla; ez bait ziran danak gurbil, zentzundun eta onak izan, eta arein erruz askori jausi yakon zoritxarra, aita altsuaren alaba ontz-begidun jainkosaren asarre gaizkiñak ekarri-azota, onek bada Atrida bien artean istillu-burruka galanta sortu eban. Batzarrera dei egin eutsen akeutarra, baiña ordu ezegoki ta ariñegian (eguzkia etzanda gero ta danak etorri ziran ardaaz astun), ta adierazo eutsen zegaitik erria batzartu eben. Menelau'k burutara emon eutsen akeutar guztiai itxasbizkar zabalez euren aberrira biurtzea aukeratu egiela; Agamenon'i au gaitz izan yakon zearoan, erria geldi-azo nai eban ba, ta ilketa sagaratuz Atene'ren asarre bizia naretu. O senbako! Ez eban ikusten ez ebala zurituko, jainko betikorren gogoa ez da-ta beingoan aldatzen! Orrela biak, itz gordinak alkarri esan ondoren, zutik zirauen; eta akeutarrak, zangobabes ederdunak, zutunik jarri ziran, abarrots ikaragarria sorturik, eritxi biak eukiezan ba euren alderdikoak. Gau a, batzuk beskeen kontrako egin-asmo zitalak ariltzen, emon genduan, Zeus'ek orduko bada ezbear negargarriak gertu eukazan guretzat. Eguantza agertzerakoan, itxas jainkotira bota genduzan geure

ontziak, eta geure ondasunak eta gerri meedun emakumak arturik, itxasoratu giñean. Erri erdia an geratu zan Atrida Agamenon, giza-artzaiñagaz; gaiñerako guztiok itxas-bizkarrean gintzazan, goi-arnas batek bada baketu eban iz-abere aunditan ugari dan kresal zabaldia. Tenedos'era eldu-ala, oparigaiak eskiñi geuntsezan jainkoai geure etxeetara biurtzeko gurari bizi-tan; Zeus'ek orraitio ez eukan gure itzulia erabagirik, eta, oi ankerkeri!, beste eztabaida kaltegarri bat sortu eban. Eta Odis, errege zur ta trebeari laguntzen eutsoenak, itzulia egin eben ontzi makurretan barrito be Agamenon Atrida'ri gogoko iza-tearren. Baiña nik, ondoz-ondo nebazan ontzi batuakin, igeska nerraiian, jainkotasunen bat gure kaltez ebillela, uste nebalako. Iges egin eban bereakaz Tideu'ren seme burrukalariak be, jarrai zitunai aurrera egiteko aolkatu ondoren; gugaz batu zan gerotxoago Menelau ule-gorria, Lesbosen aurkitu ginduzan onek egin bearra genduan itxasketa luzeari buruz erabagiten gengozala, au da, Kios malkartsu gaiñetik igaroko giñean, Psirria ugarterantza, au ezkerretara itxirik, edo-ta Kios'en azpikaldetik Mimante aízetsuan zear. Jainkotasunari eskatu geuntson erakuts egigula zantzuren bat eta emon euskun Eubea'ranta urbizkarra zearkatzeko agindurik, alik eta ariñen zain geunkan zoritxarretik iges egin gengian. Aize durundutsua asi zan puzka, ta ontziak, arraiñetan jori dan bidea abiada aundiz egiñik, Geresto'ra eldu ziran gabaz: Posidon'i eskiñi geuntsozan an zezen-azpi ugari, itxas edatuko txangoa onez egin gendulako. Laugarren eguna zan orduko Diomede Tidida, zaldi ezlearen lagunak Argos'en geratu ziranean euren ontzi txit egokituakin; baiña nik Pilos'erako bidea artu neban eta ez yatan iñoiz be aizerik palta izan, putz-egiñik ats emon eistan jainko batek bialdu abanetik. Orrelaxe etorri nintzan, seme maite, ezeren albiste barik, akeuetatik zeintzuk onez urten ziran eta zeintzuk ondatu ziran jakin gabe. Alan be, neure jau-regira biurto nintzanetik esaten entzun dodana oraintxe jakingo dozu, bidezko danez; ez dautzut, ba, ezertxo be ixildu bear. Ondo eldu dirala diño e akeu mirmidondar kementsuak, Akil biotz-aundikoaren seme argiak zuzentzen ebazanak; Filoktete, Peante leiñargiaren semea be, onik kairatu dala; eta Idomeneuk Kreta'ra eroan zitula burrukatik iges egin eben bere lagun guztiak, itxasoak bat-bera be ostu barik. Atrida'z zeuok dozue zer diñoen, ain urruti bizi zarien arren, zelan etorri zan eta Egisto'k zelako eriotza negargarria inguratu eutson. Baiña

modu errukagarritz ordaindu bearko eban. Ilten danarentzat eder baita seme bat iztea! Oreste orrela bere aita il ebanaren, ots, Egisto maltzuraren, guraso argiaz egin ebanaren apentzaille izan zan. Zu be, ene adiskide, ba-dakust galanta ta luze-betekoa zareala, izan zaitez kementsu etorteko diranak txalokatu zagiezan.

209 Telemako zurrak jardetsi:

210 Telemako.—Nestor Nelida, akeutarren egiazko aintza! Arek agandik asperkundera artu eban, eta ez gitxi, eta akeutarrak zabalaziko dabe aren aintza garaia, ondoren datozen gizasemeak be ezagutuko dabena. A!, niri be jainkoak oldar naiko biziak eman ba'leustez egintza gaiztoz itsu-itsuan iraintzen naberen senargaien arrokeri gogaikarria zigor-azteko! Baiña jainkoak ez euskuen olako zoririk ederretsi, ez nire aitari ta ez niri, ta orain naitaez danetik igaro bear gibel-aundiko.

219 Nestor, gereniar zaldunak erantzun:

220 Nestor.—O adiskide! Esan dozuna gogoratzen daustazun ezkeror, asko dirala diño, zure ama emaztetzat artu nairik, jauregian zu gorabera egikune lotsagarriak dagiezanak. Esaidazu zuk gurata ori dagien edo-ta bear bada erritarrak begitan zaituen, jainko batek iragarri dautzunagaitik. Nok daki egunen baten zure aitak, bakarrik naiz akeutar guztiakaz batera etoririk, geiegikeri orreik zigor-azten baldin ba'ditu? A, Atene'k, ontz-begidunak, maite ba'zinduz beiñola Odis aintzatsuz troiar lurraldean arduratu oi zan lez, guk akeutarrok aintbeste gaitz eta miñi arpegia emon bear izan geuntson lekuan (egundo ez neban entzun jainkoak ain agirian iñor maite izan ebenik Palas Atene'k ari laguntzen eutsen lez) ; edu aretan jainkosak maite ba'zinduz, ba, bere biotzean zure ardura izan, senargaietatik batzuk uxatuko leukie eurekandik eztegu-itxarokizuna.

235 Telemako zurrak:

236 Telemako.—O zaar! Onezkero ez dot uste gauza orreik beteko diranik. Aundia da esan zenduna ta arriturik naukazu, baiña ez dot uste egi biurtuko danik, jainkoak eurak orrela nai izanda be.

240 Atene'k, ontz-begidunak esan eutsan, itz-arturik:

241 Atene.—Telemako! Zelako itzak iges egin dautzuen agiñen biratik! Errez yako jainkotasun bati, gura dauanean, gi-

zaseme bat urriñetik be gaizkatzea. Eta nik naiago neuke neure etxera biurtu ta itzuliko egunaren argi disditsua ikusi, gaitz asko igaro ostean, neure sukaldera elduaz iltea baiño; Egisto'k ta ber-bere emazteak jarri eutsoen zelata-sare artean il zan Agamenon legez. Baiña jainkoak eurak be ezin daikee danentzat bardiña dan eriotzatik jarei kutuna yaken gizon bat, eriotz bildurgarriaren Parka itsaren erpapean jausia baldin ba'da.

251 Telemako zurrak erantzun:

252 **Telemako.**—Mentor! Ez gaitezan geiago olako gauzez mintza, atsekabez gagozan arren. Aren itzulpena ezin daiteke onezkero egi biurtu; ezilkorrak bialdu bear izan dautsoe, ba, eriotza ta Parka baltzerana. Orain, alan be, Nestor'i itandu nai dautsat beste galdera bat egiñik, zuzentasunean eta zurtasunean guztien artean nabarmen bai-da ta iru giza-belaunalditan agintari izan dalako entzutea dabil bala-bala; ortaz, berau ikuskatuaz, ezilkor bat iduritzen yat. O Nestor Nelida! Esaidazu egia. Zelan il zan Agamenon Atrida guztiz altsua? Nun egoan Menelau? Zelako eriotza bilbatu eban Egisto maltzurak, ainbatetan aurea artzen eutson gizakia azpiratzeko? Menelau bear bada Akaia'ko Argos'en aurkitzen ez zalako izan zan, erromes apika bestelako gizataldeekin, eta Egisto'k orregaitik arnas artu ta gizuren a garbitu ete euskun?

267 Nestor, gereniar zaldunak erantzun:

268 **Nestor.**—Egi osoa esango dautzut, ene seme. Asmatu zeinke jazoa zelan gertatu zan. Menelau Atrida ule-gorriak, Troia'tik etxeratzean, jauregian idoro ba'leu Egisto, bizirik oin-diño, onen gorpu illik be ez eben estal-aziko: uritik urrun, zelai laura jaurtia, txakurrak eta egazti arrapariak txiki-txiki egin izango eben, akeuar emakume batek be agaitik negar-antpulturik ixuri bage, gaiztakeri ezin-esana egin ebalako. Gu an gengozan bitartean, bada, guda-egite asko buruturik, bera Argos'en, zaldi bizkorrek azten dituan lurraldean, aurkitzen da nasai ta nare, Agamenon'en emaztea itz goxoz irabazi naiean. Klitemnestra jainkotiak lenengotan olako laidogarrik ez eban egin nai, sentipen onekoa zalako ta aedo batek, Atrida'k, Troia'rako urten zanean, arren bai arren zaindu egiala esan eutsonak, lagun egiten eutsolako. Baiña, jainkoen adua beterik, kuku jo bearreko unea etorri zanean, Egisto'k iñor bizi etzan ugarte batera eroan aedoa, ta bertan itxi eban laguntasun bage, egazti arrapalarien bilkin eta alapide izan ze-

din; eta emakumea bere etxera eroan eban atsegin aunditan, onek ba gogo eban, gero jainkoen altara doneetan iztar ugari erre ta iduri asko, eunak eta urrea eskegirik, burutuko ebanik iñoiz be uste ez eban eginkizun eskerge atatik onez urten zalako. Ba-gentozan, ba, Troia'tik Atrida ta biok, oso adiskide ta ur-bizkarra batera txirristaturik; baiña, Atenai'tik ur dagoan Suni'ko lur-adar donera eldu giñanean, Poibu Apol'ek bere gezi legunez Menelau'ren ontzi-maisu, Frontis Onetorida il eban, une aretan ontziaren endaitza eskuetan eukana ta ekaitzak zakar joten ebenean ontzia zaintzen iñok be irabazten ez eutsona noski. Orrela ba, aurrera jo nai izanda be, gelditu bearren aurkitu zan lagunari lur emon eta illetak egin arteño. Ondoren, ontzi sakonetan kresal-bizkar apartsua zearkatuz, Malea'ko lur-mutur jagira eldu al izan eban arin be arin, eta Zeus urrun-ikusleak nekeza egin eutson bidea putzaldi zaratatsuzko aizeak eta olatu aundituak, izugarriak, mendi-besangak zirudienak bialduaz. Jainkoak orduan sakabanatu zituan ontziak, batzuk Kreta'rantza, Yardano ur-tirain ertzetan bizi ziran zidondarren lurraldeetara, eroanik. Itxaso baltzean ba-da arkaitz aundi malkartsu bat, ur-bizkar baltz-illunean Gortina ondoan aurreratzen dana: Noto'k an olatu ikaragarriak jaurtzen ditu ezkerreko lur-muturraren kontra, Festo'ren kontra, ta aitz txiki batek ausi daroa uin-bolada aundia. Toki ontara jo eben azkenik, eta pozik bizirik urten ziranean; olatuak ur-azpiko arri-murretara jaurti ebezan ontziak, tirabira egiñik. Menelau'k, zeru-kolorezko brankadun bost ontzikin, kairatu eban Egipto, aizeak eta itxasoak zuzendu eben tokian; eta bere galerakaz ara ta ona, ondasunak eta aunitz urre pillotuz, lurralde arrotzetan zear joian bitartean, Egisto'k jauregian ziarduan egipen nagargarri areik eioten. Zarpi urtetan izan zan au agintari urrez aberats dan Mikena'n, eta ankapeturik euki eban erria, Atrida'ren eriotz ostean. Baiña, bere zoritxarrez, zortzigarren urtean Oreste jainkotia eldu zan Atenai'tik, eta onek emon eutsan eriotza bere aitaren iltzaille, Egisto maltzurari, aita leiñargia il eutsonari nunbait. Illarazo ta gero, Oreste'k il-oturuntza emon eutsen argibotarra bere ama nazkagarriaren eta Egisto koldarraren illetetan; eta egún aretan eldu zan Menelau, burrukan azartua asko, ontziak ekarri-ala beste ondasunez astun. Eta zu, adiskide, etzaitez luzaro ibilli zeure etxetik kanpora, ondasunak eta gizaki ain arroputzak bertan itxi izanik: areik bear bada zure ondasunak curen artean banandu ta iruntsirik,

gero dagizun txangoa alperrekoa izan ez dakizun. Baiña nik auxe aolkatzen dautzut, baita ortara bultz-eragin be, zuzen daizuzala zeure urratsak Menelau'gana; au itzuli-barri dozu, iñor olako ur-zabaldi edatuan ekaitz-zirimoletan bide galdua, txoriak eurak be, zabal-zabala oso ta izugarria baita, urte bere osoan bertatik itzuliko ez litzakezan toki urruti aretako jente artetik oraintsu biurtua, atan be. Zoaz orain zeure ontzira ta zeure lagunakaz asi aren billa; liorrez joan nai ba'dozu, emen daukazuz burdia ta zaldi bizkorrak, eta neure semeak, Menelau ule gorria aurkitzen dan Lakedemoni jainkotiraiño lagunduko dautzuenak, eta ara eldurik, esaiozu zeuk otoika egia esan daitzula, ta ez dau guzurrrik egotziko, zentzun aundikoa da-ta.

342 Orrela mintzatu zan. Eguzkia sartzerakoan, illunpeak artu ebazan bazterrak. Eta orduan itz-egin eban Atene'k, ontz-begidun jainkosak:

344 Atene.—O zaar! Oro adierazo dozu sotilki. Baiña, tira, ebagi miiñak eta nastau ardoa, Posidon'i ta gaiñerako jainkoai ixurketa egindakoan, ogera gaitezan, ordua onezkero ordua da-ta. Sarkaldera joana da eguzkiaren argia ta ez da egoki jainkoen oturuntzan luzaro irautea, bakotxa bere kautan kiribildu bearra dogu-ta.

351 Onan mintzatu zan Zeus'en alabea, eta guztiak ak esana egin eben. Ots-egilleak esku-ura emon eutsen; gazte batzuk edariz koroatu ebezan edontzi nausiak eta ardaoa banatu eutsen danai, asikiñak txoletan eskiñi ondoren; eta, miiñak sutara bota ebezanean, zutik jarri ta ixurketak burutu zituen. Oneik eskiñi ta nai aiña edan ondoren, Atene'k eta Telemako jainko-antzekoak ontzi sakonera joan guraria erakutsi eben. Baiña Nestor'ek geldido zituan, itz oneikaz agiraka egiñez:

360 Nestor.—Zeus'ek eta beste jainko illezkorrak ez begie nai izan ontzi ariñera biurtzeko zuek nire ondotik joaterik, jantzi bage bizi dan gizaki baten ondotik ba'ziñoakez lez; txiro baten ondotik, au da, bere etxean ez txabuxik ez oe-gaiñeko estalkirik, berak eta bere arrotzak guri ta bigun lo-egin dagien, ez daukanaren ondotik. Nik alan be ba-ditut txabuxak eta oge-gaiñeko politak. Eta Odis'en seme kutuna ez da etzungo aurki bere ontziko ol-gaiñean ni bizi nazan artean edo-ta nire semeak etxera datorkidazan arrotzak ostatuz artzeko jauregian bizi diran artean.

370 Atene'k, ontz-begidun jainkotasunak esautson:

371 **Atene.**—Ederto itz egin dozu, zaar maite, eta egoki da Telemako'k zure esana bete dagian, egin dagiken oberena orixe da-ta. Zugaz joango da, ba, zure jauregian lo egitera, eta ni neure ontzi baltzera biurtuko naz, lagunak azkortu ta bearezko dana agindu dagiedan. Aren artean, bada, zaarrena nazala-ta nago; gugaz maitasunarren datozan gizaseme guztiak, gazteak dira, ta Telemako biotz aundikoak beste urte daukiez. Antxe lotaratuko naz ontzi sakon baltzean, eta egunak txirrist egiterakoan, kaukondar biotz aundiakana elduko naz, emen antxiñako zor ez txiki bat jaso bear dot eta; zuk, barriz, Telemako zure etxera etorri dan ezkeror, igor egizu zeure seme bategaz batera, emon baita burdi bat eta ibiltan eta indarrez onenak dituzun zaldi bizkorak be.

385 Au esanaz, Atene, ontz-begiduna joan zan, usu arranoa bai'litzan; danak arritu ziran aren jasa ikusiaz. Miretsi eban baita zaarrak be bere begiz ikuskaturik, eta, Telemako'ri eskutik elduaz, itzok oguzi zituan:

390 **Nestor.**—Adiskide! Ez dot gaur-gero koldar ez aul izango zareanaren bildurrik, ain gaztetatik jainkoak eurak lagundu ta zuzentzen zaituen ezkeror. Jainkosa ori ez da, ba, olinpiar egoitzak daukezenetatik, Zeus'en alaba, Trigogeni ospetsua bera baiño, zure aita kementsua argibotarren artean omenez bete oi ebana bera. Baiña zu, o erregiñal, on zakiguz ta emoiguzu ospe argia niri, ta nire semeai, ta neure ezkontide agurgarriari; ta urte beteko bigai bekoki zabalduna, iñoiz gizonak ez ezi ez buztarrira lotu bagea, opatuko dautzut, aren adar inguruan urrea ixuri ondoren, zeure omenez zintzur egin eta eskiñiaz.

401 Orrela esan eban, erreguka; eta Palas Atene'k entzun eutson. Nestor, gereniar zalduna, bere seme ta suiñen aurretik jarri ta eurekaz jauregi ospetsurantz zuzendu zan. Erregeren egoitz bikaiñera eldu zirane koxe, sailka ezarri ziran aulki ta besaulkietan. Andik laster zaarrak ardo gozozko edontzi bat nastau eutsen, amaika urtetan jaki-zaiñak edegi eban tiña baten egon zan ardoa noski; zarrak nastuten eban, ba, ta ixurketak egiñik, babesa daroan Zeus'en alabari otoitz egion erasponentsu.

410 Ixurketak burutu ta guztiak nai beste zurrupatu ebe-nean, bakotxa bere etxera joan zan; Nestor'ek, alan be, gere-

niar zaldunak Telemako, Odis jainkotiaren seme kutuna, an bertan, oge boilduan, atarte zolipean, etzan eitela lortu eban, baita aren ondoan lo egiala be Pisistrato burrukalariak, gizonen buruzagiak, jauregian mutil zirauan seme bakarra bera zan eta. Eta Nestor'ek, bere aldetik, egoitz garaiaren barnean lo egin eban, bere emazte erregiñak apaindu eutson ezkon-oia aurkitzen zan etzanguan.

420 Goizaren alaba, larrosazko atzamardun Ostantza agertuaz batera, Nestor gereniar zalduna ogetik jagi ta atetzar jai-kiaren aurrean egozan arri txit landu, zuri, orioz dizditsuetan jari zan, lenago Neleu, jainkoekin kideko aolkularia jarri oi zanetan, ain zuzen be; baiña au dagoneko, Parka'k azpiratua, Hade'n aurkitzen zan, eta Nestor zan garai atan toki a artzen ebana, gereniar zalduna, akeutarren babesle, onen eskuak bai eukan aginte-makilla. Beraren biran jarri ziran semeak —Ekefron, Estrati, Perseu, Areto, Trasimede jainko baten kide, eta Pisistrato gizurena seigarren— euren logeletatik urtenaz joiazanak, eta guztiok batera lagundu eutsoen Telemako jainko-antzekoari, zaarraren alboan jarri-eragiñik. Ontan Nestor, getetar zalduna, onela mintzatu yaken:

435 Nestor.—Seme laztanok! Bete beingoan nire guraria, asko luzatu barik Atene'ren gogoko gertatu nadin, au bada ikusgarri egon zan guk jainkoaren deduz ospatu gendun oturuntza ugari asean. Ea, zuetatik bat doala landara bei-zaiñak lenbailen bigai bat ekarri daian; beioa beste bat Telemako biotz zabalaren ontzi baltzera ta datozela ona lagun guztiak, bi bakarrik bertan itxiaz; doala beste bat Laerze urregiñari datorrela esaten, adar-baranoan urrea ixuri dagion. Enparauok zagoze emen batzarturik, eta esan jopu-emeai dagozala etxe ospe aundikoaren barruan, gertu dagiela oturuntza, jarlekuak, egurra ta ur gardena aterarik.

447 Era ontan mintzatu zan, eta guztiak aren esanera jarri ziran. Landatik etorri zan bigaia: eldu ziran baita ontzi bizkor txit egokitutik Telemako biotz zabalaren lagunak; eldu zan borontz-gillea be, eskuan ekazala borontzezko tresnak —txingura, mailua ta porrika ondo landuak—, bere ogibideko tresnak, onekin bai eban lantzen urrea; an zan Atene be oparirako; eta Nestor'ek, zaldizko zaarrak emon eban urrea, ta urregilleak, gertatu ostean, bigaintxaren adar inguruan ixuri eban, jainkosa arako apaindura ikusiz poztu zedin. Estrati'k

eta Ekefron jainkotiak ekarri eben biantxea adarretatik oratuta; Areto bere egotegitik urten zan lur-azpil loreztu, garbitzeko urez betea, esku batean, eta bestean zimera bat garagar-urrun txeatu ekarrela; Trasimede zangarra aizkora zorrotz bat egaz aurkeztu zan biantxea zauritzeko; Perseu'k eukan odola artzeko kaikua; eta Nestor, zaldizko zarra, asi zan ura jarioten eta uruna barreiatzen, eta, asikiñak eskiñiaz, Atene'ri otoitz egitson gar aundiz, eta sutara jaurtiten zituan oparigaiaren buruko uleak.

467 Eskaria egin eta garagar-uruna barreiatu ondoren, Nestor'en semeak, Trasimede biotz-zabalak urretik biantxari zartako ederra emonik, samako zanak ebagi eutsozan aizkoraz, indarge lagarik; eta oiuegin eben Nestor'en alaba ta errenak, baita bere emazte agurgarri Euridize'k be, Klimeno'ren alabetatik nagusienak. Beingoan jaso eben bigaia lur zabaletik, eta, goi eukirik, Pisistrato'k, giza-printzeak zintzur egin eban. Txala odol-ustu ta azurrak erbail geratu baizen laster, zatitu eben; izterrak ebagi eutsoezan ondoren, oitura zanez, eta, alde bietatik koipez igurtzi ta aragi-zatiz estalita gero, zaarrak egur ixioru gaiñean ipiñi ta ardaogorritz txipristindu ebazan. Gazte batzuk, aren aldamenean, bost ortzeko burrunziak eukezan eskuetan. Erre zituen izterrak, baita sabel-erraiak txastatu be; eta gelditzeka, gaiñerakoa atal oso txikitana zatitu, ziriakaz ziztatu ta erre egin eben, ziri erpin-zorrotzai eskuz eutsirik.

485 Onetan Polikasta liraiñak, Nestor Nelida'ren alaba txikienak, Telemako ikuzten ziarduan. Ikuzi ta orio joriaz igurtzi ondoren, txirikon ederra ta soin-gaiñekoa jantzi eutsozan; eta Telemako, illezkorren antz-antzeko gorputzaz, urten zan baiñutegitik, eta Nestor, erri-artzaiñagana jorik, aren ondoan jarri zan.

491 Aurreko aldeak erretakoan, atera ebezan sutatik, eta, danak jarririk, oturuntza ospatu eben. Gizaseme bikaiñak jagiten ziran urrezko ontzietan ardaoa zerbitzen. Eta jan-edanez ase ziranean, Nestor, gereniar zalduna, onela mintzatu yaken:

496 Nestor.—Ea, ene semeok, apaindu ule-zurda ederdun zaldiak eta lotu burdiari, Telemako'k bere txangoa burutu daian.

499 Ori esan eban; eta areik adi-adi entzun eutsoen, eta aren esanera, beingoan jarri ebezan zaldi bizkorrak burdiari lotuta. Jaki-zaiñak ogia, ardaoa ta jatekoak ekarri eutsezan,

erregeak, Zeus'en ikasleak, jan oi dabezan lakoxeak. Igon zan Telemako burdi eder-ederrera ta aren atzatic Pisistrato Nestorida, gizonen printzea orobat; onek, ao-eadeak eskuratu ta zaldiak zigortu zituan, abiatu eitezan' Oneik, pozarren, egaz egin eben zabaldirantza, Pilos uri garaia atzera itxi ta egun osoan buztarriari eragitea be laga barik.

508 Eguzkia beerantza joian eta bideak artzen ebiltzan itzalak, Feras'era, ots, Diokles, Orsiloko'ren semearen egonlekura eldu ziranean; Alfeu'k sortua zan au. An lo egin eben gau atan, Diokles'ek arrera txeratsua egin eutsen eta.

512 Goizaren alaba agertu zaneboxe, oster, larrosazko atzamardun Egun-antza, zaldiak buztartu, burdi txit landura igon eta bebarru ta etxeaurre zear zuzendu eben. Pisistrato'k zartatu zituan zaldiak, asi eitezan, eta oneik egaz egin eben pozik bai pozik. Eta garitza zan lau batera eldurik, bat-batetan amaitu eben txangoa; azkar bai joiazan zaldi zoliak! Eguzkia sartu zan, eta illun baltza jabetu zan bide guztietaz.

IV KANTUA

Lakedemoni'koa

Lakedemoni zabal ta leizatsura elduaz batera, Menelau gu-renaren egoitzera joan ziran zuzen-zuzen; adiskide askoz ingurata idoro eben au bere seme ta alaba argien ezkontza bikotxa zala-ta, eztegu-bazkaria ospatzen. Menelau'k, Akileu'ren semeari bialtzen eutson bere alaba, au da, gudamutil taldeen buruzagi zanari; an Troia'n bada bere baietza emon eutsan, alabea emongo eutsola-ta zin-egiñik, eta jainkoak egin eben azkenik eztegua egiazki burutzea. Zaldi ta burdiakaz bialtzen eban, ba, arek agintzen eban mirmidondarren uri ospatsura. Eta aldi berean Alektor'en alaba, Estarta'tik eldutakoagaz ezkontzen bere seme, Megapente kementsua, adin elduan jopueme bategandik aurretik be seiña izana; Elena'ri, bada, jainkotasunak ez eutsoen emon beste umerik Hermione maitagarria, ots, urre-itxurako Afrodita'ren ederra eukana baiño.

16 Orrela pozten ziran eztegu-jana egiñez, sapai jasodun jauregi barne txairoan, Menelau aintzatsuaren adiskide ta auzokoak. Aedo jainkotiar batek abesten eutsen kitara soiñuz eta, asiera jo baizen arin, dantzari bik artazi-jauzkak egiezan bazkaldarren erdian.

21 Orduan, ain zuzen be, gazte biak, Telemako gizurenak eta Nestor'en seme argiak, geldi-azo zituen euren zaldi zaluak jauregi ataurrean. Emendik urtetean, Eteoneu leiñargiak, Menelau aipatuaren otsein maratzak ikusi zitun, eta barrura joan giza-artzaiñari orren albiste emoten. Eta, aren aurrera eldurik, itz bizkor oneik esan eutsazan:

27 **Eteoneu.**—Gizon bi eldu dira, o Menelau, Zeus'en ikasle, gizon bi Zeus'en jatorrikoak dirudienak. Esaidazu aren zaldi bizkorrak askatu bear doguzan ala norbait bialdu bear dogun eurengana, arrera txeratsua egin dagitsen.

32 Asarrez kiskal, erantzun eutson Menelau baltzeranak:

34 Menelau.—Len etziñan ain kaskala, Eteoneu, Boeto'ren seme ori; baiña orain lelokeriak esan daroazuz mutiko batek lez. Geuk be, ona itzuli giñan arte, sarritan jan genduan beste aundiki batzuen arrotz-mai txeratsuan, eta laket bekio Zeus'i gu alako ezbearretik aurrerantzean be zaindu ta urrintzea. Jara egizuz arrotzen zaldiak eta datozela eurak ona, gure bazkarian esku artu dagien.

41 Orrela esan eban. Eteoneu'k otoz-otoan jauregitik urtenaz, beste morroi perkatx batzui dei egin eutsen, lagundu egioen. Beingo baten askatu ebezan giñarrapean izerdiz egozan zaldiak, euren asketan lotu ta galtxuria emon eutsen, garagar zuriz nastauta; burdia orma dizditsuetara urreratuaz, egoitz jainkozko artan sartu ebezan arrotzak. Oneik, erregeren, Zeuz'en ikaslearen jauregia ikusiz zurtuta joiazan aurrera; Eguzki edo-ta illargi antzera dizdiz egian, ba, Menelau gurenaren egonleku berebizikoak. A ikusiz euren begiak ase ziranean, baiñutegi txit edertuetara joan ziran garbiketa egiten. Jopu-emeak, ikuzi ta orioz igurtzi ebezanean, txabusak eta soin-gaiñeko uletsuak jantzi eutsezan, ondoren Atrida Menelau'ren aldameneko aulkietan egokiturik. Neskame batek esku-ura ekarri eutsen urrezko murko bikaiñean, eta zidarrezko azpil zabalean, ixuri eben, jarraian mai ondo landua be euren aurrean jarririk. Jaki-zain agurgarriak ogia ekarri eutsen, eta askotariko janariak itxi zituan maian, gordeta eukanetik onena eurai eskiñiaz. Mueta guztietako aragi-azpillak aurreratu eutsezan aragi-zaiñak, euren eskumende urrezko txolak be jarririk. Eta Menelau baltzeran, eskuaz agur egitsoela, edu onetan itz-egin eutsen:

63 Menelau.—Artu janariak, eta ase zaiteze; jan dagi-zuenean itanduko dautzuegu zelako gizasemeak zarién. Zuen gurasoen etorkia, bada, ez da izan iñundik be illunpean galdua ta aginpide-makilla daroen erregeen, Zeus'en ikasleen semee-takoak zarie ziurki; azi zirtzilletik ez bait litzake sortuko olako aundikirik.

69 Orrela mintzatu zan; eta idi errearen saieski guria ekarri eutsen bere eskuz aurrera, berari ornen egiteko aurreratu eutsoena, ain zuzen. Eta areik aurrean eukezan jangaietatik artu eben ugari. Jan-edanez ase ziranean, Telemako'k onan itz-egin eutson Nestor'en semeari, burua onegana urreratuz bes-teak konturatu ez eitezan:

75 Telemako.—Oar, nik maite zaitudan Nestor'en seme laztan orrek, borontzeko dizdiza jauregi durundutsuan; baita urrezko, eletru, zidar eta marfillezkoa be. Orrelaxe dozu nunbait barrutik Olinpiar Zeus'en egoitza. Makiña bat gauza ezin-esaneko! Arrituta, konkorrrik nago eurok ikuskatuaz.

81 Eta Menelau baltzeranak, arek iñoanari antz emonik, itz arin oneikaz mintzatu yaken:

83 Menelau.—Seme maiteok! Iikorretatik bakar batek be ezin daike bere burua Zeus'ekin, betiereko egoitzak eta ondasunak daukazanagaz kidetu; baiña gizonen artean izango da bateren bat nigaz leiatuko dana, eta, baita, asko ibilli ta gorriak ikusi ondoren, zortzigarren urtea betetea, neure ontzietan nik ekarri neban beste aberastasun ez daukienak be izango dira: ni neure joan-etorrietan Txipre-raiño joan nintzan, Fenezira, ejiptoarren, etiopiarren, sidonitarren, erenbotarren lurraldeetaraiño ta ardiak urtean iru bider umeak egin eta bildotsak oso arin adarrak dakarrezan Libia'raiño eldu nintzan. An ez yake egundo palta, ez ugazabari ez artzaiñari, ez gaztaerik, ez aragirik, ez esne gozorik, ardiak bada edozein alditan daukatzuz eraztako moduan. Ni lurralde areitan galduta ondasun asko pillatzen nenbillela, beste batek anaia il eustan ezkutuka, batbatean, bere emazte doillorrak azpika apailatu eutson amarruaren bitartez; origaitik bizi naz orain pozik bage daukadazan aberastasun onein erdian. Zuen gurasoi, diranak dirala, entzun izango zeuntsen nunbait olango gauzak edatsi ta adierazten; gorriak, oso gorriak ikusi nituan, ba, ta exte sekulako bat artu neban, bizi izateko on-ona, aberastasun aundiak eta bikaiñak eukazana. Ai, jauregi ornan bizi ba'nintz daukadan erdiagaz bakar-bakarrik, Troia zabalean, Argos zaldi-azletik urrin, galdu ziranak onik atera ta jagon ba'litzaz! Baiña, danakaitik negar baten atsekabetzen ba'naz be (sarri, aretoan jarriarik, negarintziriz jolastu oi dot neure gogoa, edo-ta ez dagit negarrik intziri larriak arin nekatu oi dau-ta), iñortxogaitik ez daroat ainbeste negar-arpulu ixuri, ezta bategaitik beste ez naz atsekabetu be egiten; a gogoraturik ez dot lorik egin nai, ezta jatekorik artu be, akeutarretatik bakar batek be ez eban jasan ba Odis'ek jasan eta igaro bear izan ebanik: arentzat ziran noski neke-miñak eta niretzat kezka ta elorrio luze ta aztu-eziña, arengandik urrin garealako ta bizi ala il dan ez dakigulako. Ziur

asko Laerte zarrak be deitoratzen dan; Penelope ta Telemako, bere etxean jaio-barri itxi ebanak orobat negarrez dagoz.

118 Onela mintzatu zan, eta Telemako'ri bere aitagaitik negar-gurea sortuazo eutson: bere aitarenazkoa entzunik, beerraiño jausi zan negar-tanta bat jaigi yakon begietatik; eta orduan, esku biakaz soin-gaiñekoa jasorik, arpegi aurean jarri eban. Oartu zan Menelau ortaz eta zeri-nakio gertatu zan bere gogoan eta biotzean, berak bere aita aitatu arte itxaron ala lendarretik itandu ta gauza bakotxa arloz azalduaz joan, ez ekiala.

126 Bere buruan eta biotzean olako gauzak iraultzen ziar-dualarik, Elena urten zan bere sapai jasoko egoitz usaindutik, Artemis, urre-uztaia daroanaren iduriko. Adrasta'k ipiñi eutson jarleku trebe landu bat, Alzipe'k ekarri eutson ule malguzko oinpeko bat eta Filo'k zidarrezko zimerea, Egipto'ko Tebas'en bizi zan aberastasun aundiko Polibo'ren emazte Alkandrak emon eutsona. —Polibo'k esku-erakutsiz emon eutsozan Menelau'ri zidarrezko baiñu-leku bi, krisniña edo trebera bi ta amar urre' talentu; eta emazteak bere aldetik bezuza bikain oneik emon eutsozan Elena'ri: urrezko gorua ta zimera biribilla, zidarrezkoa, urrezko ertzakaz—. Filo jopu-emeak itxi eban, ba, zimerea ari jadanik irezkituz betea, ta gaiñean jarri eban gorua artule more-gorritzkeaz. Jarri zan Elena aulki zabal, oiñentzat lenka txiki bat eukanean, eta bertatik itandu eutson bere senarrari itz oneikaz:

142 Elena.—Ba-dakigu onezkero, o Menelau, Zeus'en ikasle, nortzuk ete diran gure eaoitzera etorritako gizaseme orreik? Zipotza sartuko ete dautsat neure buruari ala egia ete daiteke esatera noiana? Mintzatzeko diñost biotzak. Ez dot ecuno ikusi iñor, ez gizonik, ez emakumerik. beste bati ain bardiña (zur-turik nago berau ikuskatnaz! 1. au Odis biotz-aundidunaren seme Telemako'ren antzeko dan lez; ak, zuok akeutarrok neuk, txakur-begidun onek eraginda, troiatarrakaz eraso'aldi ankerbasatiak aстера joan zintzazenean, jaio-barri bere etxean itxi ebana nunbait.

152 Menelau baltzeranak erantzun eutson:

153 Menelau.—Begitandu yatan bai, o emazte-, zuri iruditzen yatzuna; antzekoak ziran, bai, aren oiñak. eta eskuak, eta begien soa, ta burua, ta estaltzen eutson ulea. Oraintxe berton, edesten neutsen, Odis gogoratuaz, zelako nekeak jasan

ebazan neugaitik, eta ori negar aunditan asi zan, urrezko soin-gaiñekoa begi aurrean jarteraiño.

160 Orduan Pisistrato Nestor'en semeak onela:

161 Pisistrato.—Menelau Atrida, Zeus'en ikasle, gizonen printze! Diñozunaren seme da egi'egiaz, baiña zurtasunaren jabe da ta ez dau uste egoki danik, lenengoz ona eldurik, zure aurrean itz utsalak esatea, zure abotsa bada jainkotasun batena ba'litz lez, atsegin aundiz entzuten dogu. Beronegaz bialdu nau ni Nestor, gereniar zaldunak, lagun egin dagiodan, ikusi gura zinduzalako, zuk aolkatu zengion berak esan edo burutu bear dauana; urrin aurkitzen dan aitaren semeak, ba, neke-min aundiak jasan daroaz, Telemako'ri orain jazoten yakon lez beste pertsona batzuk laguntzeko ez ba'daukaz: joan yakon oni aita eta erri osoan ez dago zoritxar ortatik onez aterako dauanik.

173 Menelau baltzeranak erantzun:

174 Menelau.—Jainkoak! Neu nintzala-ta, ainbat eraso-aldi neketsu izan zituan gizaseme maitearen semea etxeratu yat; au maite izateko asmotan nintzan, biurtzen zanean, argié botar beste iñor baiño geiago nunbait, Zeus olinpuar urrutira ikusleak, guk, ontzi ariñez itxasoa zearkatuz, geure aberrira jo ta bertara itzultzea gogoko baldin ba'eban. Orretara ezkerro, uri bat egokituko neutsan Argos'en, bertan bizi izan zeiten; baita jauregi bat beretzat jaso be, bera bere aberastasunakaz eta bere semea ta erri osoa Itaka'tik ekarririk, nik aginpidea dodan auzo-inguruetakoa urietatik bat-bakarra utsitu-azo ondoren. Eta sarri izango genduan ar-emona alkarregaz eta, beti adiskide ta zorionsu, ezek be ez ginduzan alkarregandik bananduko, eriotzaren laiño goibela gure gaiñ zabaldu zedin arte. Baiña onen bekaitzez bizi zan antza zoritxarreko a, axe bakar-bakarrik, aberrira biurtu barik itxi dauan jainkoa.

190 Au esan eban, eta negar gurea somatu eben danak. Negar egian Elena argibar, Zeus'en alabeak; negar Telemako'k eta Atrida Menelau'k; eta Nestor'en semea etzan geratu begi-negar txukatuakaz, gogora etorkion ba Antiloko narrio gabea, Egu-antz dizditsuaren seme argiak eriotza emon eutsona. Eta, a gogora ekarriaz, itz zalu oneik ebagi ebazan:

197 Pisistrato.—Atrida! Nestor adintsuari esan oi geuntson, zutzaz alkar izketan jauregian ziardugun guztietan, beste ilkorrak baiño naikoa geiago ziñeala zurtasunean. Orain bada bete egizu, al ba zengi, nire aolku au. Ez yat atsegin aparita-

koan illeta jotetik; baiña, Egu-antzak, goizaren alabak, argia urratzerakoan, ez dot txarto ikusiko bere etorri-bearra beteaz il zanagaitik negar egitea, ilkor gaixoai bada dedu auxa baka' rrik geratzen yake: ebagi dagiela beretarrak ule-mototsa, ta matrallak malkoz zearka. Nire anaia be il zan, argibotarren artean txarrena etzana nunbait; eta zuk ezagutu bear zenduan aurki (ni ez nintzan an egon, ezta ikusi be ez neban egin), eta diñoenez, guztien artean nabari zan, ariñeketan lez gudaldietan be.

211 Menelau baltzeranak jardetsi:

212 **Mer_elau.**—Adiskide! Urte geiagoko gizaseme zentzun aundiko batek lez itz egin dozu. Zelako aita alako semea, ta origaitik diarduzu zurtasun aundiz. Errez ezagutu oi da gizon aren ondorena, zera, Kronion'ek ezkontzatik edo-ta jaio zonetik zoriona gertatu dautsan arena; orain, adibidez, Nestor'i damotsa etengabe, egunero, zartzaro gozoa izan daiala bere jauregian, eta bere seme-alabak txit zurrak izan daitezala ta trebeak oso aztamakilla erabilten. Emon daiogun azkena egin dogun negarrari, gogora daigun aparria, ta ekar begiskue ura eskuetara. Eta Egu-antza agertu danekoxe, ez yaku guri, Tele-mako'ri ta bioi itzik paltako alkarrekin jardun dagigun.

224 Olan mintzatu zan. Asfalion'ek emon eutsen ura, Menelau ospetsuaren zerbitzari zoliak, eta Jesus amenean aurrez eukeezan jatekoak artzen asi ziran.

227 Orduan Elena'k, Zeus'en alabeak, beste zerbait eratu eban. Edaten ziarduen ardaotan droga bat bota eban negar eta asarrearen aurkakoa, gaitz guztiak aztu-azten ebazana. Azpillean nastauta gero olakoa artu dagianak, egun osoan negarmalko bat be matralletan jausterik ez dau jaritsiko, berberaren begiz bere ama naiz bere aita ilten, edo-ta borontzez bere anai naiz bere-bere semea sakailtzen ikusita be. Ain bikain eta ondo gerturiko drogak gorde oi zituan bere kautan Zeus'en alabak, egiptotar Polidamna, Ton'en emazteak emondakoak ain zuzen, aren lurralde jorian bait dira artzen olakoak ugari, ta batzuen nastea osasungarri yatzu ta beste batzuen kaltegarri. An nor bakotxa osagille da, jakitez gizon guztien artean nabari dana, Peon'en jatorrikoa dalako. Elena'k, drogea egotzi baizen laster, ardaoa banantzeko agindu eban, eta edu onetan itz-egin eutsen barriro be:

243 **Elena.**—Atrida Menelau, Zeus'en ikasle, eta zuok, giza aundikien semeok! Zeus jainkoak egi-egiaz, dana al dauan

ezkero, noiz bialdu oi dauskuz ondasunak eta noiz gatzak igortzen; jan eizue orain, areto ontan jarririk, eta poztu zeuen alkar arteko izketaz, nik bada gauza erazko ta dagokizuezanak esango dautzuedaz. Odis eroan aundikoaren lanak oro ezingo neuskizuez esan ez adierazo, ta auxe bakar-bakarrik esango dautzuet, akeutarrok ainbeste zoritxar izan zenduen troiar errian gizaseme zangar arek burutu ta jasan ebana noski. Zauri aalkegarriak gorputzean zitula, morroi bat ba-litzan pildriski ta dandar irolak bizkarreratu ta bere arerioak bizi ziran uri kale zabaletan zear sartu zan. Orrelaxe, bere buru ta nor-izana estalduaz, beste gizaseme baten, eskeko baten ítxurea artu eban, akeutar ontzien ondoan orrelakoa ez zanarena beintzat. Gisa orretan sartu zan Troia'n. Baltza sakatu eutsen guztiai, neuk bakarrik ezagutu neban, baita galdetu be, baiña ak itzalgaizka alde egiten eustan. Alan be, ikuzi ta orioz igurtzi ta jantzi bat eskuratu ta Odis barriro bere etzangu ta oial-ontzietara eldu arteria troiarrai ez yakela ezer agiri-azoko zin sendoz agindu neutsonean, orduantxe autortu eustan akeutarrak asmotan eukien guztia. Eta troiar asko punta luzezko borontzez illazo ondoren, itzuli zan argibotarretara, gauza askoren jakite ta ezaukundera eroanik. Troiar emakumak negar-zinkurin bizitan jarri ziran, eta niri pozez gañezkatu yatan biotza, neure barruan sorterrira biurtzeko gurari bizi-bizia somatzen neban ba, ta Afrodita'k ara eroanaz, neure aberritik urrun ain zuzen, bi-tartean jarri eustan okerra negartzen neban; an itxi bear izan nebazan, bada, neure alaba, ezkont-oge ta jakite ta adore bizian iñok irabazten ez eutson senarra.

273 Menelau baltzeranak erantzun eutson:

274 Menelau.—Bai, emakume, zeatz-meatz kontatu dozu. Gizuren askoren pentsakera ta sentikera ezagutzera etorri nintzan, baiña nire begiak ezin izan eben egundo be jasankor zan Odis'ek lako biotza leukaken gizonik idoro. Zer ez eban egin eta iasan gizaseme kementsu arek zur txit landuzko zaldian; guk argibotar onenok geunkan aren barnea, troiarrai triskantza ta erioa eroateko nunbait! Zu zeurez etorri ziñan (troiarrai ospea emon nai eutsen goitarren batek ortara eragin zinduzan ba), Deifobo jainkoen antzekoa atzetik zenduala jarraika. Iru bider ibilli ziñan iruzur utsalaren biran, a ikutuaz eta danaotar ausartena euren izenez deika; eta, orrela egitean, argibotar bako-txaren emazteen abotsaz baliatzen zintzazan. Nik eta Tididarrak.

Odis jainkotiagaz batera erdian gengozanok, entzun geuntzun dei egin zeunskunean eta andik urten nai izan genduan edo-ta barrutik zuri erantzun; baiña Odis'ek ez eban nai ta ez euskun itxi guk bizi gura izanik be. Akeutarren seme guztiak egozan ixil-ixil, Antiklo'k bakar-bakarrrik erantzun nai eban aldarrika; baiña Odis'ek agoa itxi eutson bere esku giartsuz eta akeutar guztiak gaizkatu zituan, eten gabe ari eutsirik, Palas Atene'k andik alde-eragin eutzun arte.

296 Telemako zurrak jardetsi:

297 Telemako.—Atrida Menelau, Zeus'en ikasle, gizonen printze! Orrela dala jakiteak atsekabe geiago damosku, orreita-ko ezek be ez eban askatu ba eriotza negargarritik, ez eban gaiñera ortik alde egingo burdiñezko biotza euki ba'leu be. Baiña, ia, bial gagizuz lotara, ogeraturik, lo gozotan atsegin artu dagibun.

303 Orrela mintzatu zan. Elena argibarrak mirabeai agintzen eutsen: antola egiezala oiak ataurre azpian, purpurazko estalki bikaiñez ornidu, gaiñetik bururdiak zabaldu ta eurretan berogarritzat txirikon uletsuak itxi egiezala. Neskatzak urten ziran jauregitik zuzi biztuakaz eta gertu ebezen oiak, eta otsegille batek lagun egin eutsen arrotzai. Olaxe ogeratu ziran etxaurreko ate-ondoan Telemako gizurena ta Nestor'en seme leiñargia; Atrida'k barriz egoitz bikaiñaren barnean lo egin eban, eta onen ondoan Elena'k, adats luzedunak, emakume guztien gaiñetik jainkotien danak.

313 Baiña, goiz-alaba, larrosazko atzdun Egu-antza agertuaz bat, Menelau, gudan azkarra, ogetik jagi, bere soiñekoak jantzi, ezpata zorrotza lepotik esegi, oiñetako ederrez bere oin zuriak apaindu ta, jainko baten pareko, logelatik urtenaz, Telemako'ren ondora urreratu zan jarteko; dei egin eta esan eutson:

319 Menelau.—Telemako gizuren! Zek beartu zaitu ona etorten, Lakedemoni jainkotira, itxas-bizkar edatuan zear? Erriko auziren batek ala zeuk dozunen batek? Esaidazu argi ta garbi.

323 Telemako zurrak, jardetsiz, bota eutson:

324 Telemako.—Atrida Menelau, Zeus'en ikasle, gizonen printze! Neure aitaren izparren bat emon ba'zengikedan, etorri naiatzu. Nire etxeko dana urtuaz doa ta solo-landa aberatsak

be galduaz: jauregia gizon gaiztoz beterik dago; nire ama senartzat artu nairik eta lotsa-izpirik be erakutsi bage, nire artalde jorietako ardiak eta adar biurridun idi zango malguak ilten daustiez. Orixegaitik nator zure belaunak besarkatzera, aren eriotz itsa kontatu nai ba'zengist, naiz zeuk zeure begiz ikusi zendula, naiz bidaztiren bati entzun dautsazula zerbait esaten, bere amak oso zoritxarreko munduratu eban eta. Ez eidazu ezer ixildu, begirunez naiz errukiz; bestera, ikusi izan dozunari buruz jakitun ipiñi nagizu. Arren eskatzen dautzut: nire aitak, Odis leiñargiak, bein edo bein bete eutzun emondako itza edo-ta agindu eutzun egintzaren bat burutu eban, an troiatarren errian. akeutarrok ainbat ezbear izan zenduen tokian; gogora egizu ta esaidazu itandu dagitzudanaren egia.

342 Eta Menelau ule-gorriak erantzun eutson txit gaitzitu:

343 **Menelau.**—«Jainkoak! Egia da gizon ain koldar areik gizaseme arras saiatuaren oian Io egin nai dabela. Orein bat, bere kumatxo jaio-barriak leoi bipil baten gordezuloan itxirik, basarte ta ibar bedartsuetan zear bazkatzen joan, eta leoiak bere kabi-zulora biurtuaz orein-kume biai eriotz iguingarria emon eutsen lez, orobat Odis'ek be arei emongo dautse lotsagarrizko eriotza. Agertuko ba'litz, aita Zeus, Atene, Apol!, Lesbos ondo eraikian Filomelida'ren aurka jagi zanean lakoxea; orduan, eztabaida baten, aregaz burukatu ta oldarrez azpiratu eban, akeutar danak poz-eztitan itxirik; edu aretan agerturik, senargaiakaz aurkituko ba'litz Odis, egiaz laburra izango litza-ke onein bizia ta ezteguak oso mingots biurtuko litzakioez, aurki. Baiña itanduten daustazun eta nik zuri edestutea nai dozun orretan, ez neuke egitik aldendu gura, ezta zuri ziririk sartu be; itxasoetako agura egitiak kontatu eustazan gauzeta-tik, ez dautzut bat be ixilduko, ezta gordeko be.

361 «Jainkoak geldi euki ninduen Egipto'n, naiz-ta nik ona itzuli nai izan, ilketa osoak egin ez neutseezalako, antza; jainkotasunak, bada, euren aginduak guk aztuterik ez dabe gura. Itxaso naspiltsuan ugarte bat dago, Egipto'ri aurrez aurre; Faro deritxe oni! ta ontzi sakon batek, aize durundutsuak saka ba'dagio, egun osoan egin daiketan bidarloa baizen urrun daukazu. Kai ederra dauko ugarteak aingura botatzeko, eta emendik egotzi oi dabez itxasora ontzi txit egokituak, iturburu sakon baten urgunea egin ondoren. An euki ninduen jainkoak

ogei egunez, itxasoan putz-egin eta ontziak aren lepo-zabal gainez darabiltzazan aize egoki-laguntxailleak jagi arte. Apurka apurka, amaituaz joakidazan bizigaillu ta janariak, eta gizonen kemena be gitxituaz; nigaz errukitu zan jainkosa batek, alan be, onik atara ninduen: Idotea'k Proteu bulartsu, itxasoetako agurearen alabak; oneri nitzaz errukitu ta biotza dardaratu ta ausi yakon, eta bein baten buru egin genduan, ni alderrai nembillela ta ugartean barrena, goseak bai eutsezan sabelak alatzen, amu makurrez aspertu barik arraiñetan ziarduen nire gizonakandik urrin samar nengoala. Idotea'k, bidean geldi, itzok esan eustazan:

382 «Idotea.—Arrotz! Olakoa zara, ain xalo ta oarkabe? Ala zeuk naita zabiltz egaberen itxia, ta eder yatzu atsekabetan murgiltzea, aspalditik bada ugartean euki-azoa ta, zure adiskideen biotza dagoneko oso jausita egon arren, egoera oni zuk amaia ipinteko biderik aurkitzen ez dozun ezkeru?

387 «Onan itz egin eban, ta gisa onetan erantzun eutson:

388 «Menelau.—Esango dautzut, jainkosetan zareala zareana, ez nagoala neure gogoz emen geldi, ezpabe pekatu egin bear izan dot ortzi zabalean bizi diran ilezkorren aurka. Baiña iragar eidazu (jainkoak dana dakie-ta) illezkorretatik zein nekaukan emen atxillo, bidea izten daustala, ta zelan eldu neikean aberrira, arraiñetan ugaria dan itxasoa zearkatuz.

395 «Onela mintzatu nintzakion. Bertatik erantzun eustan jainkosen artean jainkotiar danak:

397 «Idotea.—Oi arrotz! Zintzo be zintzo dautzudaz barriak emongo. Itxasoetako agura egiti Proteu egiptoar ezilkorra maiz ibilli oi da toki onetan ta onek ondo dakiz itxaso osoak ditun barrenak, eta Posidon'en zerbitzaria da: neure aita dala diñoe, bera izan zala ni sortu ninduana. Zuk, barranduan jarritik, zelan edo alan ari oratzea jadetsiko ba'zendu, berak esango zeuskizu zein bidez joan bear dozun, zenbat denporan ibilli ta zelan barriro aberriratu, itxaso arraiñetan ugaria zearkatuz. Baita berak emongo leuskizu, Zeus'en ikasle, jakin nai ba'zendu, joan-etorri luze ta nekez au egiteko urten zintzazanetik zure etxean jazo izan dan txarraren naiz onaren albistea.

409 «Orrela esan eban; eta Menelau'k erantzun:

410 «Menelau.—Erakuts eidazu zeuk agura jainkotiari jarri bear dautsadan sare-amarrua: aldia baiño len igarri ez

dagidan, edo-ta nire azpikeriaz konturatu ez daiten, eta igesari emon; guztiz gatxa da, ba, gizaseme ilkorrak jainkoa menderatzea.

414 «Olan adierazi eutson, eta jainkosen artean jainkoria danak erantzun eustan:

416 «Idotea.—Oi arrotz! Fede onez eskolatu nai zaitut. Eguzkia, bere bideari e^giñik, ortzi-erdira eltzen danean, itxasoetako agura egizaleak, olatu baltz kirimillatuetan estalduta, lurrera zapart egin oi dau, Zefir'en pafaldira. Beingoan etzun oi da axpe sakonean, eta bere ingurumari etzuten dira lotarako, danak batera, itxas-txakur (foka) zango igarilaridunak, Halosidne ederraren alabak, itxaso barren-barrenaren suna garra-tza darioela kresal apartsutik urteten diranak. Ara eroango zaitut, eguna urratzean, an etzun zaitezen zu eta zuretarak zugaz yagoken saillean; ortarako iru lagun aukeratuko dozuz, tosta askodun ontzietan daukazuzan onenetaikoak. Agureak ditun maltzurkeri danak esango dautzudaz. Lenengo fokak zenbatuko ditu, euren gaiñetik ara-ona ibilliaz; eta, bostean bostean zenbatu ta guztiak ondo ikuskatu ondoren, erdian etzungo da artzain bat artaldearen erdian lez. Ikus zengien baizen laster, indartsu ta bipil zaiteze' ta eutsi egiozue antxe bertan, ak iges egin nai izan eta ortarako alegiñak alegin saiatuko vatzuen arren. Orduan, lurrean narras dabiltzan izaki guztien antza artu naiko dau, eta uretan, eta su galdatan dabiltzane-na; baiña zuok eutsi gogor-gogor, estuago egiñik. Eta, lotan ikusi zenduanean lez agiri izanik, itzez itandu daeitzunean, ez erabil gaiago zakarkeririk: laga eizu aske agurea, oi gizarren!, eta zure aurka dagoan jainkotasuna zein dan, itandu egiozu, eta zelan biurtu al izango zrrean aherrira, itxaso arraiñetan jori dana zearkatuz.

442 «Au esanik, itxas naasian murgildu zan. Ni ontzietara zuzendu nintzan, ondar gaiñean egozanetara, biotza egingogo askoz urduri nebalarik. Neure ontzi ta itxasora elduaz batera, aparria gertatu genduan; laster eldu zan gau iainkotii ta ondar gorrian etzun giñan lotarako. Eta, goizaren alaba larrosazko atzdun Egu-antza agertu zaneukoxe, itxas-eeal, bide zabal dunera joan nintzan, jainkoai eskari beroak egiñez; eta neugaz eroan nitun iru lagunak, niretzat edozein arazotarako uste osozkoak ziranak.

452 «Arteetan, itxas-sabel edatuan murgildu zan jainko-sak, lau foka-narru edendu-barriak atera ebezan; eurokaz uste eban-eta iraziko ebala bere aitaren aurkako azpikeria. Eta, ondartzako arean zulo batzuk egiñik, jarrita egoan gure zain. Gu aratu giñaneko, zulo arein barruan etzun-eragin euskun sailka ta gaiñera bota euskuzan foka-narru aundiak. Iruzur au iguingarria izan yakun oso, itxas-txakurren kirats gogaikarriak, ba, kresaletan aziak diralako, ozpintzen ginduzan izugarriro. Nor etzun al itxas bidutzi baten aldamenean? Baiña berak arindu ginduzan osagarri bikaiña asmatuaz: surretan ipiñi euskun anbrosi apur bat, eta onek, usain gozo leuna emonik, bidutzi arein kiratsa uxatu euskun. Goiz guztian egon gintzazan zain larderia eroan aundikoz; fokak atzenean urten ziran itxasotik danak batera ta ur-ertzean etzun ziran sailka. Eguerdia zan zaarra itxasotik etorri zanean: idoro zitun foka lodiak, euren artetik ibilliz zenbatu ebazan. Guregandik asi eban itxas-abereen kopurua, bere barruan iruzurraren susmorik ez ebala; eta, gero, bera be etzun zan. Une aretan eraso geuntson oiui, txilio ta garraxi ikaragarritan, eta danok oratu genduan. Zaarrak etzitun aztu bere maiña malmutz iruzurtiak; leoi kima aundiko, dragoi, leoi ñabar ta basurde zangar itxurak artu ebazan ondozka ta bein banan; gero ur ixurbera egin yakun, baita zugatz-aldor gaiñ-gaiñeko be. Baiña gogor be gogor oraturik geunkan ezkerro, adore giartsuz, azken batean gogaitu zan agure maltzur a ta edu ontan mintzatu yatan:

479 «Proteu.—Atreu'ren seme! Jainkoetan zeñek eskolatu zaitu ni orrela neure naiaren kontra oratu ta eusteko, itxura ontako amarruan matazaturik? Zer gogo dozu?

482 «Olan mintzatu zan; eta erantzun neutson, esanez:

483 «Menelau.—Ba-dakizu, zaar. Zegaitik itz dagistazu orrela, ni atzipetu nairik? Ba-dakizu, bai, aspaldi dala ugartean geldia-azoa, ez dot aurkitzen biderik egoera oni amaia emote-korik, eta onezkero oso biotz-jausia bizi naiatzu. Baiña, esaidazu (jainkoak dana dakie-ta) illezkorretatik zeñek nauka emen, ibilteko bidea itxirik, eta zelan eldu naiteken aberrira, itxaso arraiñez ugaria dana zearkatuz.

490 «Onela esan neutsan. Eta bertatik erantzun eustan:

492 «Proteu.—Itxasoratu aurretik, Zeus'i ta gaiñerako jainkoai opari bikaiñak eskiñi bearra zeunkan, asko luzatu bari-rik zeure sorterrira eltzeko, kresal bizi irakiñean zear ibilliaz.

Ezinbestek erabagi dau zuk ez daizuzala ikusi zeure adiski-deak, ezta be, ez zaitezala biurtu zeure etxe ondo eregira ta gurasoen lurraldera, Egipto'ko uretara, zeruko euriak alikatzen daben ibaira itzulirik, ortzi zabala daukien jainko illezkorrai ilketa doneak eskiñi arte: orduantxe itxiko dautzue jainkota-sunak gura dozun bidea egiten.

501 «Gisa onetan itz-egin eban: erdi bi egin yatan biotza, ostera be itxas illunean zear —joan-etorri luze ta nekeza nunbait—, Egipto'ra biurtzeko agintzen eustala gogoratuaz. Baiña, alan eta guzti be_z erantzun neutsan esanik:

505 «Menelau.—Agindu dagidazuna dagiket, agure. Baiña, ea, esaidazu argi ta garbi Nestor'ek eta nik Troia'tik alde egitean akeutarrak euren ontzietan bizirik itzuli ziran ala ez, edo-ta bateren bat erio garratzez bere ontzian naiz adiskideen besoetan il ete zan, guda bukatuta gero.

510 «Onan itz-egin neutson; eta jarraian erantzun eustan:

511 «Proteu.—Atrida! Zer dala-ta itanduten daustazuz olako gauzak? Ez dagokizu zuri orreik ezagutzea, ezta nire burubideak aztertzea be; eta danak jakin ondoren, uste dot, ez zareala luzaro egongo negar egin barik. Areitatik asko il ziran, eta beste askok onik urten. Akeutar buruzagi bi, borontzeko bular-oskoldunak erori ziran bakar-bakarrik, biurtzerakoan; eraso-aldietakoa, ba, zeuk be ikusi zenduan. Bat, bizirik oin-diñokarren, itxas zabalean aurkitzen da geldi-azoa. Aiante jausi zan arraun luzedun bere ontziakaz: aurrenen, Posidon'ek urreratu eban Girea arkaitz aundietara, itxasotik bizi ta osasuntsu atareaz; eta eriotzatik be onez urtengo zan, naiz-ta Ate-ne'k gaitz-etsia, kalte aundia ekarri eutson izkera arroa izan ezpaleu: jainkoak gorabera, itxas-ondar ikaragarritik berak iges egingo ebala, esan eban. Posidon'ek entzun ebazan aren itz arroputzak, eta, buru-itzul batean, esku giarrakaz burdinsardea arturik, Girea arkaitza jo ta zati bi eginda itxi eban: zati bata bertan geratu zan, eta bestea, emen bai egoan Aiente aurretiaz jarrita bere kalte aunditan, itxasoan jausi zan gizurena kresaltegi zabal iluntsura eroanik. An il zan, itxas-ur gezaltsua zurrustatu ondoren. Zure anaiak, ontzi sakonetan iges egiñez txuliatu zitun alanbearrak, Hera agurgarriak gaizkatu eban eta. Baiña Malea'ko mendi garaiaren oiñera eltzeko egoala, ekaitz batek erauzi eban, intziri utsean, itxaso arraiñetan

ugari danean zear, orduan Egisto Tiestiada bizi zan eta leenago Tieste'k bere etxea eukan landearen bazterreraiño eroanaz. Ara ezkerro biurkera erreza eritxen eta, jainkoak naita aizea aldatu bait zan, euren etxeetara eldu ziran alango baten. Agamenon'ek poz-eztitan zapaldu eban bere sorterriko lurra, oster ta barriz bera ikutu ta mosukatuz; begietatik be maiko beroak zerioen pozaren pozaz bazter a ikuskatuaz. Baiña gaindegi batetik ikusi eban, saritzat urrezko talentu bi aginduta Egisto maltzurak an jarri eban talaiari batek; au urte bete zala zan ango begirale (Agamenon etorri etzedin iñok ikusi bage ta kemen oldartsua erakutsi); eta supituan joan zan jau-regira gizonen zaiñari aren barri emotera. Eta Egisto'k otsotsean nazi eban azpi-joko maltzurra: erriko ogei gizon zangar aukeratu ta zelatan ipiñi ebazan, beste aldetik oturuntza bat gertatu eguela agintzen eban artean. Agamenon, gizonen zaiñagana jo eban gero oturuntzarako dei egiten, zaldi ta burdiakaz, bere kolkoan triki-maillu iguingarriak erabiltzalarik. Beragaz eroan eban gizurena, gertu eutsoen eriotzaz ezer ez ekiana, eta jaten emondakoan, bizia kendu eutson aska ondoan ilten dan idiari lez. Atrida'gaz ara eldu ziran lagunetatik bat bera be etzan bizirik gelditu, Egisto ta onen lagunen eskuetatik iñok ez eban iges-egin, ezpabe danak illak izan ziran jau-regian,

560 «Orrela mintzatu zan. Biotza austuten yatala zirudidan eta, ondarrean apatx jezarririk, negar nengian eta ez neban are geiago bizi gura, ezta onezkero eguzki-dizdizik begitu be. Baiña, negar-egitez eta ondarrean narras tuz ase nintzanean, itxasoetako agura egizaleari onela mintzatu nakion:

565 «Proteu.—Ez eizu, Atreu'ren seme orrek, luzaro ta arnas artu bage negarrik egin, ezin daiteke ba ezelango osabiderik idoro. Baiña egizu aletin alik ariñen zeure aberri lurrera biurtzeko ta idoroko dozu a, bizirik oindiño; eta Oreste'k zuri aurea arturik ilgo ba'leu, illeta oturuntzarako elduko zara.

570 «Gisa onetan mintzatu zan. Poza sortu yatan biotzean eta neure gogo zabalean, atsekabe miñetan nengoan arren, itz arin oneikaz itz-egin neutson agureari:

573 «Mcnelau.—Gauza onein barri ba-dot lendik be. Aíta eidazu irugarren gizasemea, a, oraindik bizi dana; itxas zabalean dago geldi-azoa, edo-ta illen arteko da bear bada. Nik, ba, atsekabez ta maskal nagon arren, aren albistak nai ditut.

577«Onetara esan neutson, eta bat-batez erantzun eustan:

578 «Proteu.—Laerte'ren semea da, bere egoitza Itaka'n daukana. Izaro baten ikusi neban, eta malkoak nasai erioka eukazan begiak; Kalipso maitederrak dauka bere jauregian, ak nai-ezta atxillo, eta eziña ,jako bere asaben lurrera eltzea, ez dau ba eskura ez ontzi arraundunik, ezta lagunik be itxas-bizkar gainez eroango dauenik. Zuri dagokizunez, oi Menelau, Zeus'en ikasle, aduak ez dau agintzen zuk zeure bizia amaitu ta zeure azkena Argos'en, zaldi ariñetan jori dan eskualdean, bete daizunik, illezkorrak, bada, Eliseu Zelaietara bialduko zaitue, lurraren azken-mugaldera, Erradamenti ule-gorria aurkitzen dan lekura (gizonak an zoritsu bizi dira, an ez dago iñoiz edurrik, ez negu luzerik, ez euririk, Okean'ek bada beti bialdu oi ditu Zefir, ats-aldi ozentsuaren bafada bigunak, gizonai eder-atsegin geiago emoteko), zu bada, Elena zure emazte izanik, Zeus'en suiña zara jainkoentzat.

594 «Au esanik, itxas naasian murgildu zan. Ni ontzietara zuzendu nintzan, neure lagun jainkotiarraz, eta nire biotzak egin-asmo ugari erabiltzan irabioka. Neure ontzira ta itxasora eldu giñanean, aparia gertatu gendun; laster etorri zan gau jainkotia ta ondar gorrian etzun gintzazan. Eta goizaren alaba, larrosazko atzdun Egu-antza agertu zaneboxe, ontzi ondo egokituak itxasoratu genduzan, masta ta oialak jarririk; gero, sailka jazarri ziran nire lagunak tostetan eta itxaso bitsez betea astinduten asi ziran euren arraunakaz. Egipto'n geldido genduzan ontziak, zeru-euriak janaritzen daben ibaian, eta bertan eskiñi nebazan sarraski opariak. Jainko betikorren asarrea arindurik, arri-illobi bat jaso neutson Agamenon'i, aitu-eziña izan zedin aren ospea. Gauza oneik amaitutakoan, itzulua artu neban, eta aize doatsua emon eusten illezkorrak eta beingo baten ekarri minduen neure sorterri kutunera. Baiña, tira, lotu zaitez jauregian amaika edo amabigarren egunsentia eldu arte, ta orduan, eskuéerakutsi bikain lez, iru zaldi ta txit dotore landutako burdia emonik, agur egingo dautzut; baita txol eder bat be emon bear dautzut jainko illezkorrai ixurketak egin eta ni gogoratu nagizun egunero».

617 Telemako zurrak, jardetsiz:

618 Telemako.—Atrida! Ez nagizu emen euki luzaro. Nik urte osoa emongo neuke zure alboan, ez neure etxearekiko ez neure gurasoengandiko bakartaderik somatu bage (ainbeste poz-

ten bait nau zure solas eta errazoiak entzuteak) ; baiña gogait egiñik egon bear dabe onezkero nire lagunak Filos jainkotian, aspaldi dala naukazu emen eta. Egin nai daustazun doaia izan daitela gorde daiteken zerbait. Zaldiak ez dot uste Itaka'ra eroango dodazanik, emen bait ditut itxiko zuretzat edergai, lotu, iraur-bedar, gari, galtxuri ta garagar zuri txit guritan aberatsa dan lautada zabalean agintzen dozu-ta. Itaka'k ez dauka ordoki zabalik atxi-atxika ta karraka egiteko, ezta landarik be, auntzak larratzeko lurra baita, zaldaik azi-erazten dabezanak baiño atsegíngarriagoa noski. Itxasorantza makurtzen diran ugarteak ez dira egokiak zaldi-lasterketarako, ez daukie larra-zelai joririk be, eta Itaka'k besteak baiño gitxiago.

633 Au esan eban. Irripar egin eban Menelau'k, erasoan kementsuak, eta, eskuz txerak egiñaz, onan mintzatu yakon:

635 Menelau.—Seme laztan! Dirauzunetik ondo agiri da, dakazun odol andikia. Aldatuko dot emoitzta, egin dagiket-eta; nire jauregian gordeten diran gauzetatik eder eta bitxiena emongo dautzut. Ardontzi (kratera) landu bat damoketzut atseginsaritzat, dana zidarrezkoa, ertzak urrez ornidutakoa, Hefesto'k egiña dozu ta Fedimo gizurenak, zidoniarren erregeak emon eustan, ni neure etxera biurtzean berera atotsi ninduanean. Orixe da opari egin nai dautzudana.

643 Era ontako autuak erabillezala, apaitara deituak batozan errege jainkotiaren egoitzara: batzuk ardiak ekarrezan, beste batzuk ardao bizigarria; eta euren emazteak, galartzu ederrez apainduak. ogia bialdu eutsen. Orrelaxe ziarduen, jau-regi barruan, janaria gertatzen.

648 Bien bitartean, alai ziarduen senargaiak jolasketan Odis'en jauregi aurrean, solairu landuan txirrindolak eta txabaliñak tiraka; emen egin oi ebezan, ba, euren egitada nabarmenak. Antinoo jezarrita egoan, baita Eurimako jainko-itxurakoa be; oneik biok ziran senargaien buruzagi, ta besteen gaiñez nabari ziran oldar ta ausartzian. Onein billa joan zan Noemon, Froni'ren semea; onek, Antinoo'gana zuzendurik, itzokaz itandu eutsan:

656 Noemon.—Antinoo! Ba-dakigu, ausaz, Telemako noiz biurtuko dan Filos aretsutik? Neure ontzian joan zan, ta Elide zabalera joateko bera bear dot orain, an daukadaz ba amabi sabel-beor eta mando eroapentsuak oindiño ezi barik, eta oneitatik bateren bat ekarriko neuke ezteko.

661 Au esan eban; eta zurturik gelditu ziran Telemako'k Pilos erako, Neleu'ren urirako bidea artu ebanik ez ebelako uste, mendian zalakoan bai egozan txarrizaiñen txabolan bere ardiak ikusten.

665 Antinoo'k, atzenez, Eupite'ren semeak, erantzun eutson, esanaz:

667 Antinoo.—Esan argi ta garbi. Noiz joan zan eta zeintzuk gaztek jarraitu eutsoen? Itaka'ko mutil gazte autatuak dira ala, bear bada, gizon alogerekoak eta bere jopuak? Orrela be egin zeinkean ba. Autor eidazu egiaz oneri buruz dakizuna, neuk be orren barri euki dagidan: indarrez eta zeuk nai ezta kendu eutzun ontzi baltza, ala itz egiten joan yatzunean zeuk emon zeuntson berarikoz?

674 Noemon, Froni'ren semeak, modu onetan jardetsi eutsan.

675 Noemon.—Neuk, neronek emon neutsan, eta gogoz emon be. Zer egin zeikean beste edozeiñek be, gizaki ain andiak eta arduraz beteak eska ezkeror? Gaitz izango zan ari ukatzea. Laguntzen dautsen mutil gazteak errian, gure artean, geientsu nabari diranak dozuz, eta buruzagi lez Mentor ikusi neban itxasoratzen, edo jainko bat osorik aren antzekoa. Baiña gauza batek nauka arri ta zur egiñik: atzo, egunsentia izpitzean, emen ikusi neban Mentor jainkotia ta orduantxe itxasoratu zan Pilos'era joateko.

684 Au esanaz, Noemon bere aitaren etxera joan zan. Antinoo arroa ta Eurimako muxindu ziran euren barrurako; eta senargai enparauak, jolasak itxiaz, eurakaz jezarri ziran. Danen aurrean Antinoo'k, Eupite'ren semeak itz-egin eban, naigabegabeta, errai baltzak sumiñetan eta begiak su-kaldatan ebazalarik:

690 Antinoo.—Jainkoak! Egitsari itzala burutu dausku Telemako'k, arrokeriz nunbait, ibillaldi onegaz- Eta ez ebalazkeneraiño eroango, esaten gendun! Askok nai ez-ta, joan zan umea; ontzi bat itxasoratzea lortu ta besteak aukeratuaz; gartzaroaren orrilloa jadetsi baiño len, obe Zeus'ek ezereztuko ba'leutsoz ondarrak. Baiña, ea, erreztu eidazue ontzi bizkor bat eta ogei lagun, eta onantza datorrenean marro egingo dausat, Itaka Samos malkarretik banantzen dauan meargunean jarri ta aren biurtzearen zain egonik, bere aitaren barriak jakiteko asi eban itxasaldia zori-txartxarrekoa izan dakion.

701 Onan mintzatu yaken. Iñotsena aintzat artu eben guztia, esana egi biurtzeko aolkatzen eutsoela; eta jagiaz, bertatik zuzendu ziran Odis'en jauregira,

704 Asko luzatu barik jakin ebazan Penelope'k, senargaiak ixilka artu ebezan erabagiak, Medonte otsegilleak adierazo eutson-eta: onek kanpoko aldetik entzun eban larraiñean mataza eiote ziarduen artean iñoena. Sartu zan, ba, etxean Penelope'ri entzuna esateko, ta onek, atarian ikusirik, itz-egin eutson:

710 Penelope.—Otsegille! Zelako asmoz bialtzen zaitue senargai leiñargiak? Agian, Odis jainkotiaren neskameai lana ta oturunt, a gertatu dagitsela, esateko? Oba, bai, nire uzian ibiltea ta bizileku au sarritzatzea lagako ba'lebe, euren azken orritsa gaur ospaturik. Zuok, sarri be sarri alkartuaz, Telemako zurraren yarauntsia osotzen daben ondasun ugariak urtzen dozuezanok: ez zeuntsen entzun zeuen gurasoai, oindiño ume zintzazela, zelan erabilli zituan Odis'ek; onek ez eutson iñori kalterik egin, ez eban errian iñoren kontra berba mingaririk esan, errege jainkotiak sarri egin oi daben lez, gizaseme batzuk igundu ta beste batzuk maite izanik? Arek ez eban egundo, gaiztakeri txikienak be, iñundiko gizonen aurka egin; eta orain ondo nabarmenak dira zuen gogo txar ta zuen egin-tza gaiztoak, artutako mesedeakaitik ez bait dozue esker onik erakusten.

725 Orduan Medonte, zentzunezko gogorakizunez beteak, au erantzun eutsan:

727 Medonte.—Ori balitz, ene erregiñ!, gatzik aundiena. Senargaiak ba beste izugarriago bat asmetan dabiltz orain; Kronion'ek, arren, ez bei azkeneraiño eroan. Telemako il gura dabe borontze zorrotzez, a jauregi ontara elduaz batera; bere aitaren berri billa joan da, ba, Pilos donera ta Lakedemoni jainkotira.

733 Era onetan mintzatu zan. Penelope'k, belaunak eta biotza aul-araziz joakozala, somatu eban, luzaroan egon zan itzik ebagi eziñda, malkoz bete yakozan begiak, eta abots zolia eten. Baiña atzenik itzokaz jardetsi bear izan eban:

737 Penelope.—Otsegille! Zergaitik joan zan nire semea? Ez eukan zetan itxasoratu ibilli ariñeko ontzietan, gizonak zal-diak iduri itxasoz erabilli ta kresal-zabaldi edatuak zearkatzen

dabezanak, aurki. Bear bada, bere izenaren gomutarik be gizonen artean geratu ez zedin, ein ete eban?

743 Zentzunezko *gogorakizunak* biotzean erabiltzan Medonte'k erantzun:

745 Medonte.—Ez dakit jainkotasunen bat izan zan zirikatu ebana, ala bere biotza soilki izan zan, bere aitaren itzulbarriak euki-naiez, Pilos'era joateko bultz eragin eutsona; ez dakit, gaiñera, ari zer gertatu yakon.

749 Au esanaz, Odis'en bizitokirantza joan zan. Atsekabea jabetu zan Penelope'z, austu oi dituan atsekabea, ta geroztik ezin izan eban jarlekuan ezarrita egon, etxean jarlekuak eurrez ziran arren; egoitz ondo landuko sarreran jarri ta errukia emoteraiño negar egian. Bere biran erosta egien baita jauregiko jopu-eme guztiak, gazteak lez zaarrak be. Penelope'k esan eutsen, negar-angepulu ugaritan:

757 Penelope.—Entzun, ene adiskideak; Olinpoarrak, ba, nigaz batera jaio ta azi ziran guztietan iñori baiño lor ta samñ-aldi geiago emon daustaz: aurretiaz senar entzun zabalekoa galdu neban, leoi bat baizen kementsu zana ta danaotarren artean edozelako bikaintasunez nabarmentzen zana, giza-seme argia ta beronen aomena Elade'n eta Argos biran zabalazten zan; eta ekaitzak orain jauregitik eroango eben nire seme laztana, ospe bage ta nik aren joatearen albisterik izateke. Anker alenak! Zuetako iñori be ez yakon burura etorri ni ogetik jagi-azterik, eta zuek jakin zenduen, ziurtasun osoaz jakin be, noiz itxasoratu zan a ontzi sakon baltzean! Nire belarrietara eldu izan balitz, ba, ostera ori asmetan ebillela, etxean geratuko zan, joan-nai benetakoak eukita be, edo-ta illik itxiko nindun jauregian. Bioa bateren bat arin Doli zaarrari, ene morroiari dei egitera; ona etorri nintzanean aitak emon eustana da au ta neure baratza, zugatz askoz betea, zaindu daroa: doala Laerte'ren billa ta esan daiola dana; Laerte, bear bada, zerbait asmatuz, jatorria, Odis jainko baten idekoarena, ondatu nai daben uritarrai arpegira botaten urten ba'dadi be.

777 Eurikle, bere iñude laztanak esan eutson orduan:

778 Eurikle.—Ume maite! Borontze zakarrez il naizula, bizirik itxi jauregian, ez dautzut ezer be ixildu gura. Dana nekian nik, eta agindu eustan guztia emon neutsan Telemako'ri,

ogi ta ardao gozo; baiña egiazko ziña egin-azo eustan zuri ezer ez esateko amabigarren egunerarte, edo-ta zu a ikusi-naiez kezkatu edo joan zala esaten zuk entzun arte, zuk, zeure gorputz ederraren kaltez, negar egitea orrela galerazoz. Baiña orain, zoaz zeure jopu-neskatneakaz etxe-gaintegira, ikuz zaite, jantzi garbietan batu zeure gorputza, ta egin erregu Atene, Zeus' en alaba, babeskia daroanari, eta jainkosak gaizkatuko eriotzatik **zure** semea. Ez egizu are geiago atsekabetu agure naigabetu bat, nik ez dot uste, ba, Arkesiada'ren jatorria ainbeste-raiño iguingarri yakenik jainko zoruntsuai; beti geratuko da, oster, sapai jasoko etxearen solo-landa zabal jorien jabe izango danen bat.

794 Au esanaz negarra atertu eutson, begi areik malko-jarioa itxirik. Garbitu zan Penelope, soiñeko aratzetan batu eban bere gorputza, jopu-neskameakaz etxe-gaindegira igon, ta zimera baten garagar-uruna jarriaz, Atene jainkosari otoitz-egin eutson onela:

⁷99 Penclope.—Entzun naizu, babeskia daroan Zeus'en alaba orrek. Ezigaitz! Odis asmotsuak iñoiz, jauregi barnean, idi-iztar guriak naiz ardienak, zure omenez erre ba'ebazan; gogora eizuz eurak, gaizka egidazu seme maitea ta jaurti andik senargai zital,biurri ta putzak artuak.

804 Au esaterakoan, deadar egin eban; jainkosak entzun eutson egindako eskaria, Senargaiak zarata ateraten eben areto goibelean, eta gazte arroputzetatik batek onela esan eban:

808 Abots bat—Ainbatek senartzat gura daben erregifiak ezkontza eratu bear dau, eta ez daki bere semeak onezkero eriotza gerturik daukala.

811 Onan abotsak; baiña ez ekien barruan jazoten zana. Eta Antinoo'k onela:

813 Antinoo.—Doakabeak! Ez geiago berba gorri ausartik; iñor joan ez dakion Penelope'ri au iragarten. Baiña, tira, jagi ta dagigun, ixil-ixillik, danoi atsegin yakuna.

818 Au esanaz, ogei gizon autatuenak artu ta itxas-egalera joan zan eurakaz, oial-ontzia egoan lekura. Aurrenik, itxas sakonera bota eben ontzi baltza, gero masta oialak antolatu eutsoezan, ondoren arraunak narru-ugelez gertatu ebezan legea zanez, azkenez ojal zuriak aizeratu, ta guenean izkilluak ekarri

eutsezan euren zerbitzari bipillak. Ainguratu eben ontzia, itxasbarrura eroanda gero, lurrera zapart egin eta jaten asi ziran arratsa noiz etorriko zain.

828 Penelope zurra. bitartean, goiko bizitzan egoan jarrita, baraurik, ezer jan ez edan bage, beti bere seme egin-egiñekoak eriotzatik iges egingo ete eban edo senargai arroen eskuetan ilgo ete zan pentsamentua beregandik urrindu eziñik. Leoi batek, esi maltzurra ingurumari egiten dautsoen gizataldearen billaldea ikusiz, burura dakazan gauzak asko ba'dira, beste ainbeste eukazan Penelope'k be buruan iraulka lo gozoak artu ebanean. Erdi-etzuna lokartu zan, eta bere soin-atalak oro zart-arazi ta nasaitu ziran.

837 Atene'k, ontz-begidunak, orduan, beste zerbaít agindu eban. Iretxo bat, mamu bat antola eban emakume baten, ots, Iftima, Ikari biotz-zabalaren alabaren antzekoa; Feras'en bere etxea eukan Eumelo'rekin egoan au ezkondurik; eta dalako mamua Odis jainkotiarren bizilekura bialdu eban, zizpuruka negar egian Penelope'ren malko ta intziriai zelan-edoalan amaia jarteko. Sartu zan, ba, txirristaka giltz-morroilloaren ede-azpitik zear, eta aren buru gaiñean gelditurik, itzok bota eutsozan:

845 **Iretxoak.**—Lo zagoz, Penelope, biotzean min dozula? Zoritsu bizi diran jainkoak ez dautzue izten negar egiten, ez atsekabetzen; zure semea, ba, itzuliko da oindiño, jainkotasunen aurka ez eban ezetan utsik egin-eta.

849 Lo gozo-leunean egoan kukulux-atetik erantzun eutson Penelope zurrak.

851 **Penelope.**—Aizta! Zetarako etorri zara? Oraiñarte etzinan onantza etorten, zure egoitzetik au urrun aurkitzen da-ta. Azkena emoteko diñostazu neure atsekabeari ta buru-biotzak artegatzen daustiezan neke-lor ugari! Lenago senar entzun zabalekoa galdu neban, leoia baizen kementsu zana ta danaotarren artean edozelako bikain-trebetasunez nabarmentzen zana, argia zenduan, bai, ta beronen aomena Elade'n eta Argos biran zabal-azten zan; eta orain seme maitea, ume oraindio, lanitzetan ezjakiña, joan yat ontzi sakonean. Auxegaitik negar dagit, agaitik baiño geiago; augaitik iñarrosten yat gorputza; eta joan zan arein lurraldean edo itxasoan okerren bat izango ete

dauan, bildur-ikaraz naukazu. Asko dira, bai, aren kontra azpijokoan daragoien arerioak, bere asaben lurrera eldu baiño len bizia kendu nai dautsoenak, ain zuzen.

866 Iretxo baltzak, erantzuki:

687 Iretxo.—Biotz on!, eta ez izan zeure kautan ainbeste bildur. Zure semea lagunduta doa; gizaseme askok gurako leukie egin al dabenak eurak be orrelaxe lagunduak izatea; Palas Atene dau laguntzaille, ta, zugaz errukiturik, berak bialtzen nau zuri gauzok adieraztera.

872 Penelope zurra barriz, onela mintzatu yakon:

874 Penelope.—Jainkosa ba'zara, ba, ta jainkotasun baten aotsa entzun baí dozu, ia, esaidazu doakabe arek, bizirik oindiño, eguzki-argiz gozatzen dan, edo illa, Hade egoitzean aurkitzen dan.

878 Iretxo baltzak erantzun eutson, esanez:

879 Iretxo.—**Ez** dautzut argi ta garbi iragarriko bizi dan ala illa dan, gauza utsalez mintzatzea txarra dozu-ta.

881 Au adierazo ostean, atearen morroillotik labandu zan, aize-bafada lez. Itxartu zan Ikari'ren alabea ta biotza alaitu yakon, gau illunean lo ain argia izan ebalako.

885 Senargaiak orduko itxasoratuak ziran eta zabaldi urtsuan zear joiazan, Telemako'rentzat eriotza ankerra euren barruan azpiz jokaturik. Itxasoan izaro arrítsu bat dago, Itaka ta Samos latzaren tartean —Asteris—; ez da zabala, baiña sarrera bikotxeko kaiak daukaz, bikaiñak oso ontziak ditxoan eukiteko: akeutarrak antxe jarri ziran zelatean, Telemako'ren zain.

V KANTUA

Odis'en baldusa

Egu-antza, Titon urena itxirik, ba'joian ogetik jagiaz, illezkorrai eta ilkorrai argia zabaltzeko jainkoak batzarrean batu ziranean; an zan Zeus goi-burrunbaria be, aalmen txit andikoa. Eta Atene'k, Odis'en milla ezbear gogora ekarririk, jainkotasunaí iragarri eutsezan eurak; zazpi alak egiñak nunbait, itxasoko neskatz ederraren jauregian aurkitzen zan gizurenaren alde:

8 Atene.—Zeus aita, jainko zoruntsu ta betikorrak! Ez bedi izan, jaur-makilla eskuratzen dauan erregerik, ez adeiberra, ez beratz, ez samur, eta ez bei erabil bere adimena gauza zuzenetan; bestera, baiño, joka bei beti biotz-bage ta zakar, egiteko itxusi ta nazkagarriak buruturik; uritarren artean, ba, onezkero iñortxok be ez dau gogoratzen Odis jainkotia, euren errege zala aita samurtasunez zuzendu ebazana noski. Uarte baten dago orain, neke-min gordiñez oiñazetua; eta eziña yako bere aberrira biurtzea, ez bait dauka ontzirik arraunez ornidurik, ez lagunik itxas-bizkar edatu zear zuzen-aziko dauanik. Orain, orrezaz gaiñ, seme kutuna il nai dautsoe bere etxera biurtu-ala, bere aitaren barri billa Pilos donera ta Lakedemoni jainkotira joana da-ta.

22 Zeus, odeiak batzen dauazanak, erantzun:

23 Zeus.—Ene alaba! Zelako itzak iges-egin dautzuen agin-biratik! Zeuk ez zenduan oretu egin-asmo ori: Odis'ek, bere lurrera itzulitakoan, arein apena artuko ebala? Lagun zaskioz, ba, zur ta ernai Telemako'ri, egin zeinke-ta, bere sorterrira kalterik bage biurtu dedin, eta ontzian dagozan senargaiak andik itzuli bearra izan dagien.

29 Au esan eban; eta, Hermes, bere seme laztanagana zuzendurik, gisa ontan mintzatu yakon:

31 Zeus.—Hermes! Gaiñerakoan be zu mezulari zara, zoaz eta esaiozu kopeta ederdun neskatzari: gure erabagi sen-

doa dala (Odis jasankorra bere sorterrira biurtu daiten), eta gizurena doala ara iñok lagundu barik, ez jainkok eta ez gizonek; biurri askoko lotzaikiz egindako baldusa baten itxasoa zearkatuz, ogei egunez eta neke-lor askoz Eskeri aputz narora, jatorriz jainkoen urbil samarreko diran featziarren lurrera elduko da; areik txera aundiz, jainkotasun bat bezela, artuko dabe, ta gero ontzi baten bere gurasoen lurrera bialduko, borontzea, urrea ugari, jantziak, eta osasunez eta legokion gudaondakin zatia eskutan dauala Troia'ra elduko ba'litz be, andik iñoiz aterako ez leukezan aiñako gauzak. Balbe'k erabagita dauka Odis'ek ikus daizala bere adiskideak, sapai garaiko etxera eldu ta sortu zan aberriari agur-egiñik.

46 Zeus'ek au adierazo ondoren, Argifonte mezularia etzan izan esan-gatxekoa: irri-arra batean itxas-gaiñez naiz lur edatua barna aizea baizen bizkor eroan oi eben urrezko aztal egodunak oiñetan jantzi ostean, nai ditun gizonen begiak iotaratu naiz lo dagozanenak itxartzen ditun zaaroa eskuratu eban. Au eskuetan ebalarik, Argifonte altsua asi zan egazka ta, Pieri'ra eltzean, eguratsetik kresalera jatsi ta uin-gaiñ joian egatan, bizkor be bizkor, kaioak, itxas antzuaren sabel andietan arrain billa dabillega, bere ego sarri taitsuak kresal uretan busti oi dauazanez: orrela zirudian Hermes'ek бага ta uin-arroen gaiñez egan ebillelarik. Uarte urruti artara eldu zanean, itxas moretik urten, lur artu ta bere bideari jarraitu eutson kopeta ederdun neskatxa bizi zan koba zabalera eldu arteño; barruan idoro eban. Su andia eukan ke-garretan eskaratzean, eta an erreten ziran zedro (izai) ta tuia ezpalduen usaiña ugartean zear zabaltzen zan oso urriñera; arek, bitartean, abots ederrez kantari, barruan cuna eioz ziarduan urrezko anazkan, Arpearen biran, oian orlegia agiri zan makalez, eltxunez eta il-zugata usaintsuz beterik, egats luzezko egaztiak eurotan abi eginenez: gau-ontz, mirotz eta miin zabaleko itxas —belatxingak, uretako gauzaz bizi diranak. Antxe bertan, koba sakonaren ondoan, zabalazten zan maasti eder bat, maats-mordoz astun; eta lau iturri ur-jarioka, bata-besteagandik ur-ur, ur gardenak ara ta ona txiristatzen zirala. Ingurumari briolet eta apirio saillak ikusten ziran; eta, bertara eldukeran, illezkor bat be txunditua geratuko zan, biotza pozez jauzika eukala-ta. Bertan gelditu zan Argifonte, ingurura soka; eta, dana miretsi ondoren, arpe zabalean sartu zan, eta Kalipso'k, jainkosen artean jainkotiak, laster ezagutu eban, aurrean aurkeztu yakonetik —jainko iUez-

korrak bada, banatuta bizi izan arren, alkar ederto ezagutzen dabe—; baiña Odis biotz aundikoa ez eban idoro: au ur-ertzean aurkitzen zan negarrari emonda, andik bait zitun eten barik, negar-anpulu, intziri ta atsekabez aitu bearrean, begiak zorrozten ur-zabaldi soillean, aienez beterik. Eta Kalipso'k, jainkosen artean jainkotiak aulki garai eder batean jesarri-azo eban Hermes, onela itandurik:

85 Kalipso.—Zer dala-ta, oi Hermes, urrezko zaaroa dozun ori, agurgarri ta laztan ori, zatoz nire aterbera? Leen etziñan orren maiz etorten. Esaidazu zer nai dozun, barne-leiak bultzatzen nau ba zuk nai dozuna egitera, neuri dagokidana ta neure eskuetan dagoana baldin ba'da. Baiña jarraistazu, arrotz-maitasun erakutsirik doiak eskiñi daitzudazan.

90 Era ontan itz egiñaz, mai bat ipiñi eutson jainkosak aurrean, anbrosiz betea, ta edari gozoz nastaua. Antxe edan eta jan eban Argifonte mezulariak. Apaldu ta janez gogo-bizkortu zanean, itz oneikaz erantzun eutson Kalipso'ri:

95 Hermes.—Niri, oi jainkosa, jainko nazan oni, itanduten daustazu zegaitik etorri nazan. Argi ta garbi esango dautzut, orrela agindu daroastazu-ta. Zeus'ek agindu eustan etorri nintela, neure gogoaren kontra: nok igaroko leukean jitan onean esan ezin daiteken aiña ur gazi, batez be ilkorrak jainkoai opariak egin eta ilketa autatuak eskintzen uri bat bera be or zear aurkitzen ezpada? Baiña eziña yako edozein jainkori babeskia daroan Zeus'en naikuna zapaldu edo-ta bete barik iztea. Gizakume bat ei dago zugaz, Priamo'ren uri inguruan bederatzi urtez gudakatu ta amargarrenean, a birrindurik, etxera biurtu ziranen artetik zori txarrekoena, ain zuzen; baiña itzultzean Atene iraindu eben eta jainkosak aize kaltegarritzkoa ta olatu arro blei-bleiak jagi-azo eutsezan. Oneitan izan eben eriotzea aren lagun saiatuak; eta bera ona ekarri eben aizeak eta бага-erasoak. Zeus'ek agintzen dautzu itxi daiozula gizaki orri al bait ariñen joan daiten, bere zona ez da, ba, beretarrengandik urrun iltea; bestera, Balbe'k erabagia dau ikusi dagizala barriro be, bere etxe sapai jasokora ta sortu zane-ko lurraldera eldurik.

115 Olan mintzatu zan. Latz-ikaratu zan Kalipso, jainkosen artean jainkotia, ta itz ariñokaz erantzun eutson:

117 Kalipso.—Jainkoak!, iñor baiño gaizkin eta bekaiztiagoak zarie, senartzat artu daben gizonaz etzuteko lotsarik ez daukien jainkosai bekaitza dautsezue-ta. Orrela, larrosazko

atzdun Egu-antzak Orion arrapatu ebalako, zuok, jainkuak, ezereen ardura barik bizi zarienok, bekaitza izan zeuntsoen, urrezko aulkian jarten dan Antemis garbiak Ortigia'n ii eban arteño, bere gezi leunez eratxita. Bardintsu, Demeter, kopeta ederduna, bere biotz-indarra men egiñik, maitasunez eta ogez, iru aldiz landutako lur barrian, Yasion'egaz alkartu zanean, Zeus'ek, ori bertatik jakiñak, it eban gizurena oiñaztarri gartsuaz jota. Niri be erabat bekaitza daustazue, oi jainkoak!, gizaseme bat neugaz daukadalako; neuk onik atera neban au bakarrik eta kadena gaiñean ur-gaiñez ebillela, Zeus'ek, kresal apartsuan ontzia zartatu ta onen kontra oiñaztarri gartsua jaurtirik. Antxe galdu eben bizia aren lagun kementsuak; Odis, alan be, ona ekarri eben aizeak eta olatu-eragiñak. Eta neuk atosi neban adiskide usaiñean, neugaz eukirik; sarri adierazo neutson illezkor egingo nebala, zaartzarotik aske beti-betikoa. Baiña, jainko bati be aizu ez yakon ezketiño babeskia daroan Zeus'en naia zapaldu edo-ta bete bage lagatzea, bioa a itxas elkorrean zear, arek zirikatu ta baldin agindu ba'dagio; nik ez dot emendik botako (nik ez daukat, ba, arraunez ornidutako ontzirik, ezta ezin dagikeot emon itxas-bizkar nasaian zear eroan dagikeen lagunik), gogoz aolkatuko dot, alan be, ezertxo ixilazo barik, osasunez eta bizirik eldu dedin bere gurasoen lurrallera.

144 Argifonte mezulariak jardetsi:

145 Hermes.—Agur egiozu azkar, eta Zeus'en asarrearen bildur zaite; jainko au, bear bada, sumin-gorriturik, aurrera-koan sapuztu ez daiten zure aurka.

148 Au erautsirik, alde egin eban andik Argifonte altsuak; neskatz agurgarria, oster, Zeus'en mandatua entzundakoan, Odis biotz-zabalaren billa joan yatzun. Ondar gorrian aurkitu eban jezarrita, an egoan-eta, bere begiak etenbako malkoz bustirik eta etxera biurtzea noiz izango ete ebanez bizi samurra galtzen; egoaneko, bada, neskata ez yakon atsegin. Arpe sakonean lo egiten bearturik, berak maitatu bage maite eban maitagarriaz gaua emon bearrik, eguna igaro oi eban itxas-ertzcko arkaizetan jarrita: negar-burbulaz, intziriz eta lor-minez barrua erresumiñetan, itxas elkorrerantza begiak zorrozturik, erosta ta progu egian euri antzera. Eta, aren ondoan geldituz, jainkoen artean jainkotiak era onetan itz-egin eutson:

160 Kelipso.—Doakabe ori! Ez eizu geiago negarrik egin, ezta zeure bizia orrela ondatu; gogo on-onez itxiko dautzut joa-

ten. Ea, ebagi egur aundiak, borontzeaz galgatu ta miifietan sarturik, antola eizu baldusa zabala ta estal gaiñetik olezko zoladura bategaz, itxas illunean zear eroan zagizan. Neuk ipiñiko dautzut bertan ogia, ura ta ardo gorria, biotza pozten dakiana, goserik igaro ez daizun; jantziak be emongo dautzudaz eta aize atseginkorra bialdu, osasuntsu ta bizirik eldu zaitezcan zeure gorasoen lurraldera, ortzi nasaian bizi diran jainkoak opa ba'dabe; areik ni baiño geiago dira, bai asmo ta xedeak matazatzen eta bai azken onera eurak eroaten.

171 Onela mintzatu zan. Dardarazo zan eroapen aundiko Odis jainkotia ta itz arin oneikaz erantzun eutson:

173 Odis.—Zerbait darabilzu gogoan iraulka, oi jainkosa!, ta ez ain zuzen be nire urteera, itxas-leza aundia baldusa baten zearkatzeko agintzen daustazunean; izugarri ta arrisku-tsua da leza ori, ta neurri oneko ur-ontziak, oial ontziak be, ez leukie aren errez zearkatuko, naiz-ta Zeus'ek bialdutako aize laguntzailleak bultz-eragin. Ni ez nintzake baldusara igongo, naiz-ta zuk gura, beste oker kaltegarriarik ez daustazula ekarriko zin bene-benetakoz erabakiten ez ba'dozu.

181 Orrela esan eban. Kalipso'ri, jainkosen artean jainkotiar, irripar gozoa loratu yakon ezpan-ertzean; eta, eskuz txerak egiñik, onela itz-egin eutson:

183 Kalipso.—Zuzen-eza zara egiaz, gauza utsalik gogotan erabili oi ez dozun arren, olako itzak esaten azartu zara-ta. Beki orain Lurrak eta goitik Ortzi nasaia eta Estix'eko ur ibilliak (auxa bait da ziñik aundi ta izugarriena jainko zoruntsuentzat): ez dot bilbatuko zure aurka oker galtzaillerik, eta gogoan darabilt eta aolkatuko dautzut neure burua bearrian ain estuan ikusirik nik neuretzat gura izango neukena. Nire asmoa da, ta nire biotzak ez dauko zurekiko gaitz danik, errukia baiño.

193 Orrela jardun ostean, jainkosen artean jainkotia ibiltan asi zan azkar eta Odis jainkotasunaren urrats atzetik jarraika. Eldu ziran koba sakonera jainkosa ta gizona, au Hermes jagi zan aulkian egokitu zan, eta neskatzak gisa guztitariko elikaturak ekarri eutsozan aurrera, janariak lez edariak be, gizaki ilkorrak jan-edan oi dabezanetarikoak. Ondoren bera jarri zan Odis jainkotiar aurrez-aurre, eta anbrosia ta jainko-edaria maian emon eutsezan neskameak. Bakotzak aurrean eukanetik artu eban; eta, jan-edanez ase ziranean, Kalipso'k, jainkosen artean jainkotiak urratu eban ixilla, esanez:

204 Kalipso.—Laerte'ren seme, Zeus'en jatorriko! Odis, arikulueta jori! Orduan, ba, bertatik, joan nai dozu zeure etxerata aberrira? Zaita augaitik doatsu. Baiña zure adiñak ba' leki, zeure sorterrira eldu baiño leen naitaez eroan bearko dozuzan neke-lorak, emen geratuko ziñake neugaz, toki au zaintzen eta illezkor zintzakez, zeure emaztea ikusteko miñez, arengandik urrun aurkitu bearrak biotza unero zauritzen dautzen dautzunarren. Nik ez dot neure burua a baiño txikiagotzat ez berezkotik ez gorputz aldetik: ilkorak ezin dagikee jainkoakin leiatu ez adiñez ez edertasunez.

214 Odis asmotsuak erantzun:

215 Odis.—Ez zakidaz asarratu, jainkotasun agurgarri! Ba-dakit ondo be Penelope zurra xeago yatzula edertasunean eta luze-laburrean; a ilkor da ta zu illezkor, eta zaartu eziña. Ori gorabera, gura dot eta eten barik opa dot neure etxera joan eta neure biurpenaren eguzki-argia dizdizka ikustea. Eta jainkoetatik bateren batek itxas apartsuan suntsitu nai ba'nindu, jasango dot ori be nire barrua asetzen dauan eta neke-miñetarako orren eroapentsua dan biotz aundi ta beteaz; asko be asko jasana nozu, ba, bai itxasoan eta bai gudatean, eta betor gaitz au besteen ondoren.

225 Era ortan mintzatu zan. Sartu zan eguzkia, ta illuna jausi zan gaiñera. Baztertu ziran orduan leza sakonaren barrenengo txokora; eta an, alkarri eutsela, poza aurkitu eben maisunean.

229 Baiña, goizaren alaba, larrosazko atzdun Egu-antza agertu zaneukoxe, Odis'ek txabuxa ta soingaiñekoa jantzi eban; Kalipso'k be jantzi nasai, leun bikaiña soñeratu, urrezko gerriko bitxiz gerria estutu, bere burua estali, ta Odis biotz-zabalaren urteera gertatzen jarri zan. Aizkora aundi bat, borontzekoa, alde bietatik zorrotza, ondo aiututako orio-zurezko ederduna, emon eutsan errez erabili egian; baita emon eutsan atxur oso ederto egindako bat be, ta izaroaren urriñeko egal batera eroan eban, au da, zugatz garaiak —makal, lertxun eta ortziraiño igon oi dan izai— egozan lekura; oneik igar egozan aspalditik eta txit gogorrak ziran eta egokiak oso ur gaiñean irauteko. Eta zugatz aundi areik nun azi ziran erakutsi eutson baizen laster, Kalipso, jainkosen artean jainkotia. bere egoitzera biurdu zan; Odis, barriz, enborrak ebagiten asi zan, asko luzatu barik bere lanari amaia emonaz. Ogei eratxi ebazan, borontzez lautu, trebetasunez leundu ta galga baten bitartez

arteztu. Kalipso'k, jainkosen artean jainkotiak, barra aundi batzuk ekarri eutsozan, eta gizurenak oneikin zulatu ebazan, gero zati guztiak alkar-loturik, untze, ziri ta txurrillakin. Langille duin ta zertarako batek eratu legikean kargako itxas-ontzi on batek barrua nasaia ta biribildua izan oi dauan lez, orrelaxe antolatua geratu zn Odis'en baldusa be. Gaiñaldea egin eutson gero, zuraje lodiak beroni egokiturik, eta ol luzezko soruaz azkena emonik; masta bat ipiñi eutson erdian egokion bela-zu•rrunaz; baita endaitz bat be egin eban baldusa zuzentzeko. Au andik eta emendik mimen eiotarikoz babestu eban, olatuentzat atzerapibe izan eitezan, eta azkenik egur ugariz lastatu eban. Kalipso'k, jainkosen artean jainkotiak, bitartean, euna ekarri eutson oialentzako; Odis'ek trebe ta antzetsu eratu zitudan. Eta bere lanari bukaera emonik, baldusari lokarriak, zirgak eta bolinak lotuaz, zulo-takek batzuen bitartez itxaso jainkotira bota eban.

261 Laugarren egunerako dana egoan amaiturik, eta bostgarrenean, ikuzi ta soñeko usainduak jantzi ostean, Kalipso jainkotiak bialdu eban ugartetik. Jainkosak emonda eroiazan zaragi bete ardo baltz, beste zaragi aundi bat urez beterik, zaku bat elikaturaz eta beste jaki atsegingarri askoz beteta emon eutsozan jainkosak; aize on atsegiña be bialdu eutson. Pozik, beraz, askatu zitun Odis jainkotiak oialak eta, endaitzean jarriarik, baldusa zuzentzen asi zan antzezki ta jas aunditan; etzan loa etorri aren betazaletara Izar-Zazpikiak, eta belu sartzen dan Boote, ta Artza, Burdia izengoitiz ikuskatzen zitun arte: au beti dabil leku berberean biraka, Orion'i adi-adi dago, ta Okean'en ezkoztu oi ez dan bakarra dozu; Kalipso'k jainkosen artean jainkotia danak, agindu eutson bada bere ezkerre euki egiala izar au, itxasaldi bitartean. Amazazpi egun emon ebazan itxasoan zear, eta emeretzigarrean ikusi al izan zituan feazitarren lurraldeko mendi laiñotsuak, ur-zabaldi goibeleko unerik urrenean ezkutu bat bai'litzazan agerturik.

279 Lurra dardarazten dauan Posidon altsua orduantxe etorren etiopiar larraldetik eta urrunera, Solimos mendietatik ikusi eban Odis, itxasoz ebillela agertu yakon eta. Asarre bi-ziak artu eban jainkotasuna, ta, buruari eragiñik, era onetan mintaztu zan:

284 Posidon.—Jainkuok! Jainkotasunak, bear bada, aldatu egin dabez Odis'i buruzko erabagiak, ni etiopiarren artean nengoala. Faezitar lur ondoan aurkitzen da dagoeneko, ta ezin-

bestekoa da gaiñeratu yakozan ezbear askotik aske urtetea. Nik uste dodanez, gaitzak etorriko yakoz, eta ez gitxi, aurrerakoan be lepo gaiñera.

290 Au esan eban; eta, iru-ortza eskuraturik, odeiak mol-tzotu ebazan eta itxasoas asaldatu; milla eratako aize-zirimol eskergak atera-azo zitun; laiñoz bete eban lurra, ta itxasoas, ta gaua jausi zan ortzitik. Euro, Noto, Zefir oldartsuak putz-egin eben; baita eguratsean jaiorik, бага izugarriak jagi-azten dauazan Borea be. Orduan indargetu ta auldu ziran Odis'en belaunak eta biotza; gizurena, intzirika, bere gogo zabalari one-la mintzatu yakon;

298 Odis.—Ai, ene zoritxarra! Zer jazoko yat azkenez niri? Jainkosak aurrez esana egi biurtuko ete danaren bildur naz; arek iñostan, bai gorriak ikusi bearko nitula itxasoan neu-re errira eldu baiño len; orain dana doa ba arek esan lez be-teten. Zelako odeiez itxi dauan Zeus'ek zeru nasaia! Eta itxa-soa naspil-azil! Eta guztitako aizez zirimoltsu dira baztarrak. Orain, ziur asko, eriotz izugarria dagokit. O!, milla bidar zo-rioritsuago, Atridatarrai poz emotearren Troia zabalean burru-katuz ji ziran danaotarrak! Orrela ii ba'nintz ni be, neure alan-bearra beterik, Pelion'en gorpu ondoan nengoala teukro mol-tzoak borontzezko lantzak jaurtzen eustezan egunean! Illeta ospetsuak jaritsi ba'neuz bertan, eta akeutarrak nire aintza go-retsi; baiña alanbearthak nai dau ni eriotza negargariz jaustea.

313 Onela mintzatzen zala, olatu ikaragarri bat etorri-rik, Odis'en gaiñera jausi zan goitik beera izugarriro, baldusa tan-galaica ondatzer ipiñirik. Gizurena baldusetik urrin jaurtia izan zan, aren eskuak endaitza laga eben-eta; ondoren eldu zan aize naasizko burrunba biurriak erditik apurtu eban masta, (Orala ta bela-zurruna bertatik urrun itxasoan jausiaz. Odis luzaroan egon zan urpean; uiñen oldar eskergagaitik ezin izan eban ber-tatik ur-azalera urten, Kalipso jainkotiak emon eutsazan jan-tziak pixu aundikoak ziralako. Ur-gaiñeratu zan, atzenez, aotik eta burutik beera be ugari txirrio ozentsuz ur gazia eriola. Alen be, naiz-ta nekatua, ez eban begitik kentzen baldu-sa; bestera, olatu artean azkar ibillirik, eskuz oratu ta aren erdian jarri zan eriotzatik iges egiteko. Itxaski za-karrak nora uiña araxe erabillen baldusa. Udagoieneko Bo-rea'k illaun-mordoa ondo bildu ta matazatua, zelai zear eper-tandarrez croan oi daben lez, aizeak orrelaxe eroien baldusa be kresal-bizkar-gaiñ, ara ta ona; batzutan Noto'k jaurtzen eban

Borea'ra, eroan egian, eta beste batzutan Euro'k Zefir'i izten eutson, onek eraso egion.

334 Baiña Ino Leukote'k, Kadmo'ren alaba oin ederdunak ikusi eban: lenago ilkor abotsez ornidua izanik, orduan itxas-ondarrean bizi zala, jainkozko deduz goretsia zanak, ain zuzen. Odis, urak eroana ta itomendi egiña, ikusirik, artzaz biotz-errukitua, itxas-bele biurtu, kresal-ondarretik egan urten eta biur azkorekin egindako baldusa gaiñean kokaturik, itz oneik esan eutsozan:

342 Ino.—Begi txarrak jo ori! Zergaitik, lurra astintzen dauan Posidon asarratu yatzu ain gogor, ainbat gaitz zure aurka jagi-azorik? Biziro gura ba'dau be, eziña izango yako zu eratxi ta ezereztutea. Egizu esango dautzudana, nire ustez zurra zara-ta: ken jantzi orreik, laga baldusa aizeak eroan daien, eta, besoakaz igeri, alegindu zaite feaziarren lurrera eltzen, Balbe'k zu an gaizkatzea erabagi dau-ta. Eutsi, zabal eizu zapi illezkor au zeure bularpean, eta ez izan bildur jasateko, ezta ilteko be. Eta lur tinkoa eskuakaz ikutu daizuneko, kendu ta bota egizu itxaso apartsuan, leorretik urrun, burua bestaldera biurturik.

354 Itz oneik esandakoan, jainkosak zapia emon eutsan eta, itxas-bele biurtuaz, barriro murgildu zan ur-zabaldi olaé tutsuan, eta uin baltzizkak estaldu eben. Odis jainkoti eroa-pentsua, ala eta guzti be, ezbaian egoan eta, zotinka, edu one-tan zirautson bere biotz onberari:

359 Odis.—Ai, ene bada! Ez daidala illezkorren batek oratu-sarea jarri, baldusa izteko agindu daroastanean. Zer jazoko be, ez dot oindiño aren esana egingo, neure begiz dakust bada oso urrin dagoala, diñoenez, aterpea idoroko dodan lurra; aurretiaz, onan jokatuko dot, nire eritxitan onena da-ta; zurabeak zuriz alkartuta dirauen artean, emen jarraituko dot, dato-zan gaitzak eroanik, eta olatuak baldusa puskatzen daustean, asiko niaitzu igerika; buruak ez damost, ba, gauza obea-gorik.

369 Onako gauzak erabiltzan buruan eta biotzean iraulka, lurra astintzen dauan Posidon'ek itxaski izugarri bat, eutsi-eziña, sapaia baizen garaia, jaso-azi ta gizurenaren aurka bota ebanean.. Aize zakarrak lasto igar moltzoa nastau ta zokorik zoko sakabanatzen dauan lez, erabat ausi ta banandu zitu-an olatuak baldusaren egur lodiak. Odis orduan, oletatik bati oratuaz; bere gaiñean jarri zan ankalatraba; erantzi ebazan

Kalipso jainkotiak esku-erakutsiz emon eutsazan jantziak, edatu eban aringa zapia bere bular azpian eta uretara jausten itxi eutson bere buruari auspez, besoak zabalik, igeri egin naiean. Lurra astintzen dauan jainko altsuak ikusi eban eta, buruari eragiñez, onan mintzatu zan berekiko:

382 Posidon.—Aínbat zoritxar eroan dozun ezkerro, zoaz orain itxasoan barruna, gizaki orreikaz, Zeus'en ikasleakaz al-kartzea jaritsi dagizun arte. Iruditzen yatanez, orduantxe be ez yatzuz gitxi begitanduko izan dozuzan ezbearrak.

386 Au esanda, zartatu zitun zigorrez zurda ederdun zal-diak eta bizitoki bikaiña daukan Egas'era joan zan.

389 Atene'k beretik, Zeus'en alabak, beste zerbait egin eban. Aizeai bidea itxi ta, otzandurik, atsedeen egiteko agindu eutsen; eta, Borea azkarrari putz-eragiñik, ausi ebazan olatuak, Zeus'en jatorriko, eriotik eta Balde' tatik aske, arraunak era-bilten zaleak yatzuzan feazitarren lurrera eldu zan arteiño.

395 Egun bi ta gau bi ibilli zan alderrai gizurena uin lodi gaiñez, takian takian biotzak erioa iragarri izan eutsola-rik. Egu-antz kopeta ederdunak, irugarren egunari asiera emon eutsonoko, zear-aize ta mendebala ibituz, barealdi gozatsua izan zan, eta Odis'ek orduan ikusi al izan eban, olatu eskerga ba-ten gaiñetik, begiak adi-adi, lurra naiko ur eukola. Gaixorik oian, oiñaze aundiz betea, aspaldi dala, txarren dongeak joa, apurka apurka urtuaz doan aita baten bizia, jainkoak zorion aundiz, gaitzetik askatzen baldin ba'dabe, poz aundi ta gogo-betegarri yake semeaí egi-egiaz; Odis'i be, orrelaxe, atsegingar-ri agertu izan yakozan lurra ta basartea. Uger egian, ba, lur tinkoan oiñak jarteko alegiñak alegin egiñaz; baiña, ur-egale-tik (onaiño elduko ziran aren deadarrak) ur-ur egoala, itxa-soak, ertzeko arkaitzetan ausi ta puskatzean, ataraten eban burrundara entzun eban. Orro egien olatu ta бага amai bakoak, itxasalde legorra zakar be zakar zigor-azorik, eta oro egoan bits gaziz estaldua; an etzan ba kairik aurkitzen, ontziak sar-tzeko, ezta leior txokorik be, labar zut pekatsuak, troskak eta uarriak baiño. Odis'i, ori ikusiaz, belaunak auldu yakozan eta biotza kikildu; eta, negar-ziñuka, onela iñotsan bere gogo za-bal aundiari:

417 Odis.—Ai ene! Osin au zearkatu ta itxaroten ez ne-ban lurra ikustea Zeus'ek emon daustan arren, itxas apartsu-tik urtetea lortu daikedan tokirik ez dot aurkitzen. Kanpotik aitz zorrotzak agiri dira, onein ingurumari olatuak orroaka diar-

due, ta lau-zapal goratzen da arkaitza; emen, oster, itxasoa ondo sakonekoa bait da, ezin dodaz oiñak gogortu gaitzetik iges egin dagidan. Bear bada, urteterakoan, olatu eskergaren batek aidean artu ta labar arritsuan txikituko nau, asmo dodanak ustel urtenik. Baiña, uger ba'noa, ondartz, billa naiz itxas-kai billa, bildur naz barriro be ekatxak artu ta arraiñetan jori dan itxasora eroango ete nauan, negar-zotin barrenbarrenkoiak atera-eragiñik; edo-ta jainkotasunen batek ez ete dauan zirikatuko nire aurka itxas-bidutziren bat, Anfitrite argiak ugari be ugari azten dabezanetakoak; ba-dakit ba lurra astindu oi dauan jainko aotua kontra daukodana.

433 Onako oldozkunak bere adin eta biotzean iraultzen ziarduan artean, itxaski batek eroan eban ur-ertz lakarrera. Antxe urratuko yakon narrua ta azurrak apurtu, Atene'k ontz-begidun jainkotasunak, burutu ebana emon ez ba'leutson go-goak: arkaitzera zapart egiñik, esku biakaz ari oratu ta, intzirik, antxe atxari itsatsia iraun eban uin ikaragarria igaro zan arte. Onela iges egin eutson; baiña, atzera jotean, kolpe zakarrez, ur-potzura bialdu eban oster be, ta ondo barrura bialdu be, gero, olagarroak, bere gordelekutik ateraten dabenean, bere erro luzeai erantsita ainbat arri-korkor eroan oi dauazanez, Odis'en esku sendoen narrua be erabat urratu ta aitz-erpiñetan geratu zan, uin ezin-geiagokoak estaltzen ebalarik. Eta bertan amaituko eban Odis zorigaiztokoak, aduak erabagitakoaren kontra, Atene'k, ontz-begidun jainkotasunak, zurtasuna idaroki ez ba'leutso. Urten zan ur-azalera ta, lur-ertzean burrunba ta dunbotsez lertzen ziran olatuetatik iges egiñaz, ur-egalean zear igeri egin eban, lurrera begira, uinñak zearka jotan eben ondartzaren bat edo-ta itxas-kairen bat ikustatzen baldin ba' eban. Beti igerika, azkenik, tirain ederreko ibai baten zintzurra eldu zanean, leku egokia iruditu yakon, an ez bait zan atxik eta aizeetatik be babestua. Eta, ur eskinka etorren ibaia zala jakiñik, onan eskatu eutson bere artean:

456 Odis.—Entzuidazu, goitiko orrek, zareana zareala! Zugana nator leiatsu, itxasotik eta Posidon'en asarretik igeska. Itzalgari da nunbait jainko illezkorrentzat be orra ta ona ibilli ta aurkeztu oi dan gizona, ni orain zure tirain ta belau-netara natorren lez, neke-min ugari igarota etorri be. Oi errege!, erruki zakit, zeure erregularitzat naukazun ezketiño!

463 Orrelaxe esan eban. Ibaiak beingoan ebagi eban bere tiraiña, eta, olatuak be ibiturik, barealdia zabalago eban be-

re aurretik, ur-agoan Odis onik itxiaz. Gizurenak orduan be-launak eta beso sendoak bitu zituan, bere biotza ba nekatuta egoan itxasoarekiko burrukan. Aundituta eukan Odis'ek gorputz guztia, bere ago taurretik kresala eurrez eriola; eta, arnas ta abots bage, etzunik gelditu zan indar bage, leerdura ta itomen ikaragarriaz abaildua egoan eta. Arnas artu ta biotz berotu zanean, jainkosaren buru-zapia askatu ta itxasoratzen joian ibaira bota eban: uin aundi batek eroan eban arako zapia tirain barruna, ta laster euki eban Ino'k bere eskuetan. Odis'ek, ibaitik aldendu, zi-bedar pilloan etzun, lur joria mosukatu ta, intzirika, onela itz-egin eutson bere goxo errimeari:

478 Odis.—Ai ene! Zeri ez nagakio? Zer jazoko ete yat azkenez? Gau gogaikarria ibai ondoan emon ba'dagit, lei kaltagarriak eta iruntz ozkirriak aulduko nabe, ta auleriz bear bada nireak egingo; eta aize me izozkorra etorri oi da ibaitik, egunsentia urratu aurretik. Muiñora igon eta basarte itzaltsuko arbazta lodi artean, barriz, otzak eta nekeak itxita, loak artu ba'nagi, patarien arrapakin eta janari izango ete nazan bil-du rre tan nago,

487 Asko ausnartuta gero, azken-alabear au begitandu yakon onenatarikoa. Joan zan, bada, ur-ondoan, mendiska baten aurkitu eban oianera, ta toki bat-berean ernetako arbazta—bas-oriondo ta gartxu— biren azpian sartu zan. Etzan igarotzen bien erditik ez aize ats-aldi ezkorik, ez eguzki dizditsuak jotzen ebazan bere erraiñuz, ezta euriak be ez ebazan oso-osoan bustiten: egin egiñean be, ain naasi ta alkar-eiotuak azi izanak ziran. Euron azpian sartu zan Odis, eta beingoan eratu eban bere eskuz oge zabala, bertan eukan ba orbelik naiko, negu latzean, naiz-ta gogorra izan, bi edo iru gizon berotzeko beste, nunbait. Poz-eztitan jarri zan Odis jainkoti eroankorra eurok ikustean, eta erdian etzun zan, pillo aundi bategaz gaiñetik estaldurik, landa urrutian, auzokorik bage, bizi danak, suari iraun eragin eta ixiotzeko beste iñora joan bearrik ez izateko, illinti bat auts arrear gorde oi dauanez, orrelaxe estaldu zan Odis be orbelpean. Eta Atene'k lo gozoa ixuri eutson begietan betazalak itxi-azorik, alik ariñen askatu zeiten unadura neketutik.

VI KANTUA

Odis, feazitarren lurraldera eltzen da

Orrela lo egoala Odis jainkoti eroapentsua, lo-gureak eta leerdurak zapalduta eukoela, Atene feazitarren erri ta urira aldatu zan; oneik aspaldi batean Biperea nasaian bizi izan ziran, Kiklopetarren alboan, gizakume arroak, nunbait, indartsuagoak ziralako zarrei, feazitarrai, kalte aundiak egin oi eutsezalarik. Jainko baten kideko zan Nausitoo'k atera zitun andik, eta Eskeri'ra eroan ebazan, gizakume piju areingandik urrun, bertan bizitzen asirik; uni inguruan arresia eraiki eban, etxeak eregi, jainkotasunai jauretxeak be jaso ta solo-zabaldegiak banatu ziztuan. Baiña orduko, Balbe'k azpiratua, Hade'ra jatxia zan, eta Alkinoo zan errege: jainkoak eurak argituta artzen zitun onek aolkuak; onen jauregira zuzendu ebazan Atene'k, ontz-begidun jainkosak, bere urratsak, Odis biotz aundiaren itzulia gogotan ebal. Alkinoo gurenaren alaba, berezkoz ta edertasunez illezkorren pareko, ots, Nausikaa lo egoan etzangu ontzez landura sartu zan Atene; neskatzaren aldamenean, sarreran andik eta emendik, jopu-mirabe bi egozan, Eskerrak edertasunez ornidutakoak ain zuzen, eta ate-orri bikain-bikaiñak erdi-zabalik aurkitzen ziran. Atene araxe, gaztearen ogera zuzendu zan, aizebolada baizen azkar; aren buru gaiñean kokatu, ta mintzatzen asi yakon, Dimante, itxas-gizon ospetsuaren alabaren, Nausikaa'ren adiña eukirik, oso atsegngarri yakonaren itxura artuaz. Orrela antz-aldaturik, esan eban Atene, ontz-begidunak:

27 Atene.—Nausikaa! Zegaitik ekarri zinduzan amak ain memela? Soiñeko eder panpoxak bazter itxita daukazuz, eta zure ezkontz-eguna, jantzi politak, zaroazanai be parte emonez, eroango dozuzana ur daukazu; olan bait da entzute aundia jaristen gizartean, aitari ta ama agurgarriari egiazko poza sortazirik. Goazan, bada, ikuztera, egunsentia urratuz bat, eta neuk lagun egingo dautzut bertatik gertu euki dagizun dana;

zure neskatasuna ez da asko luzatuko, feazitarretatik onenak, ba, zu be jatorri ortakoa zara, zure atzetik dabiltz aspaldi danik. Tira, esaiozu zeure aita argiari, egun-antzea urratu baiño len, prest euki dagiezala mandoak eta zeure itoltzak, txabusinak eta estalgi eder ikusgarriak eroango dozuzan burdia, agindu dagiala. Zeuretzat be, oiñez baiño oba da onela joatea, urtik urrin samar aurkitzen dira ba garbitegiak.

43 Atene, ontz-begiduna, onela mintzatu ostean, Olinpo' ra joan zan, diñoenez jainkotasunen bizileku betiko ta eskierra aurkitzen dan tokira; alderdi oni aizeak ez dautsoe kalterik egiten, ez euriak busti, ez edurrak estaldu —an eguraldia, bada, beti da garbi ta laiño bakoa—, eta ostera argitasun betea dau beti dirdirka: antxe daukie zorion betikoa jainko doatsuak. Arantza zuzendu zan, ba, ontz-begidun neskatxari aolkua emondakoan.

52 Laster eldu zan Eguantza, aulki ederduna, ta itxartu eban Nausikaa, txabusina dotoreduna; neskatxa, barriz, ames aregaz miretsia, jauregi barrura joan zan bere gurasoai, aita ta amari, bera iragrtera, ta biak aurkitu ebazan barnean: ama, sutondoan egoan jarrita, neskameakaz, purpur-margozko artulea euntzen; eta aita, erregegai ospetsuakaz eukiteko zan batzarrera urten-agiñean aurkitzen zala, dei egin eutsoen ba feazitar pres-tuenak. Nausikaa'k, bere aitaren ondo-ondoan gelditurik, onela esan eutson:

61 Nausikaa.—Aita laztan! Ez zeuskit gertatuko burdi andi bat, txirrinka sendoduna, bertan eroan dagidazan erre kara, garbitzeko, loi daukadazan jantzi bikaiñak? Zeuri be egoki yatzu soiñeko garbiak eroatea, gizaseme nausienakaz batzarrean ebatzi bitartean. Bost seme daukazuz, gaiñera, jauregian: bi ezkonduak, eta iru gazte adin onekoak eta dantzara doazanean jantzi garbiak eroan nai izaten dabez; eta, ba-dakizu, arazo orren ardurea neuk daukat.

70 Olan mintzatu zan; lotsa emoten eutson, ba, bere aitari eztegu garerdikoak aitatzea. Arek, baiña, oro ulerturik, itzokaz erantzun eutson:

73 Alkinoo.—Ez dautzut ukatuko, ene alaba, ez mando rik, ez beste ezer be. Zoaz, eta morroiak apainduko dautzue burdi garai bat, txirrinka sendoduna, oltzaz orniduta.

76 Itzok erausirik, agindua emon eutsen morroiai, ta oneik ots-otsean esana bete eben. Gaitu eben etxetik at txi-

rrinka sendodun burdi bat, mandoentzako egoki etorrena; eta oneik ekarriaz, buztarrira lotu ebezan. Neskatzak, bitartean, atera ebazan bizitzatik soiñeko bikaiñak, burdi dizditsuan ipiñiaz. Bere amak zimera baten jarri eutsozan guztitariko jan-edari ta bizikaiak; ardaoa, aunts-narru baten ipiñi eutson; eta neskatz burdira igon zanean, orio ixuria emon eutsan urrezko zarika baten, neskameakaz batera bere gorputza igurtzi egian. Nausikaa'k, zak-zigorra artu ta, ede dizdikorrak eskuan, zigorazi zituan mandoak ibiltzen asi eitezan. Abia ziran oneik clanbarradaz ta txairo joiazan lauoinka, jantziak eta neskatz, bakarrik ez, bere mirabeak lagun eginda joiana, eroanik.

90 Ibaiaren tirain ederrera, loiena be garbitzeko ur ugarria ta gardena egoan tokira eldu ziranean, mandoak askatu ta ibai zurrunbillotsurantz bota ebezan, ango azki gozoa jan egien. Burditik jantziak artu ta ur sakonera eroanik, ango urasketan zapaldu ebezan, danak alkarren leian nok obeto egingo. Garbitu ebezanean, gogoz garbitu be, itxasoak sarri ikuzi oi ditun ur-egaleko pendularri zabaletan edatu zituen. Jarraian ekoztu, orio joriz igurtzi ta ibar-ertzean jarri ziran jateko, jantziak eguzki-izpitan legortzen ziran artean. Neskameak eta Nausikaa'k guraiña jan ebenean, buru-zapiak kendu ta pelotan egin eben; eta, guztien artean, Nausikaa, beso zuriduna, kantari asi zan. Geziak jaurtzea eder yakon Artemis, Taigeto mendi garaian barna edo-ta Enmanto zear basurde naíz orein bízko-rren atzetik jarraika ibilli oi dan lez, eta oian-maitagarriak be, babeskia daroan Zeus'en alabak noski, orrein jolasetan esku artzen dabela Leto'k ikusi ta egiaz poztu- azoz, eta ak bere buru-bekokiak enparauen gaiñez jasota, danak eder izanik be, bera errez ezagutu leiteken bezela, neskatz be era berean, bere eskuko oindiñokarren, txit nabari zan mirabe-jopuen artean.

114 Baiña, mandoak buztartu ta jantzi ederrak tolostufik, etxerako bidea artzeko egozala, Atene'k ontz-begidun jainkotasunak, beste zerbait erabagi eban, Odis'ek lotatik esnatuz, feazitarren urira eroan bear eban neskatz begi galant a ikusi egian. Lenengoak jopu bati bota eutson pelotea ta uts-egin eban tiroa, zurrunbillo bizian jaurtirik; eta guztiak oiuka asi ziran bizi-ro. Orduantxe itxartu zan Odis jainkotia, eta, jarrita, pentsamentuok erabiltzan buruébíotz:

124 Odis.—Ai, ene! Zelako gizasemeak bizi ete dira eldu nazan lurralde ontan? Zakarrak ete dira, basatiak eta biotz-gabeak, ala arrotz-adeitsuak eta jainkoen bildur diranak? Emendixek entzun daroadaz mendi-erpiñetan bizi diran maitagarri gazteen emakumezko oiu ta ijuiak; baita ibai-ertzetako iturrietan eta bedarrez estalitako zelai-landetan dabilzainerak be. Gizaseme abotsdunen ondoan aurkitzen naz, bear bada? Ia, urten naiten emetik alegiñak egiñez ikusi daidan.

132 Onela iñoalarik, Odis jainkotia urten kima ta zugaz-ño artetik, eta basarte naasian adar ostotsu bat ausi eban bere esku giartsu sendokotez, lotsariak estaldu egizan eurakin. Bidean jarri zan gero, leoi basati baten antzera, bere kemen-indarretan pentzutua; aurrera doa, naiz euria naiz aizea izan, sutan daroaz begiak, eta idiai, ardiai naiz basauntzai eraso ta ekiñik, edo-ta etxe tinkotu batera joz, emon dagitsela giberriai eskatzen dautso sabel gosetia; orrelaxe Odis be aurrean aurkeztu bear yaken adats ederreko neskatzai, bilosik egon arren, ezak ortarako bultz-eragion eta. Lazgarri agertu yaken, ba, itxasoko zaborra ta erdokaz txit itsuski; eta guztiak igesari emon eutsoen, ur-egal gan,garretan zear banandurik. Alkinoo'ren alabea, alan be, bakarrik eta zirkiñik egitzake, Atene'k, ba, biotzkemena emon eutsan, eta aren soin-atalak bildurretik aske, Gizurenaren begi-aurrean, beraz, iraun eban aldatu barik; eta Odis zalantzan gelditu zan, ez ekiala zein zan oba, begi-ederdun neskatzari, belauñetik besarkatu, ala urriñetik eta itz gozoz eskatu, erakuts egiola urirako bidea, eta zegaz estaldua emon. Ondo oldoxtuz, urriñetik itz gozoz eskatzea izango zala onena, iruditu yakon: neskatz, bear bada, belaunak besarkatzen ba'eutsozan, minduko yakola ta. Ortaz ba itz gozo ta labanok ebagi zitun:

155 Odis.—Erreguz nagokizu, oi erregin, jainkosa naiz ilkorra zareala! Zeru zabala daukien jainkotasunetik bat ba'zara, Artemis, Zeus gurenaren alabaren kideko aurkitzen zaitut, zeure berezkoz eta anditasunez; eta lurrean egoitza daben gizakumeengandik jaioa baldin ba'zara, zoriontsuak milla bider zure aita, zure ama ta zure nebarrebak, euron barrena bada unero poztuko da bizi-bizi olako kimua dantzara urteten ikusi dagienean. Eta doatsua bere biotzean, iñor baiño geiago, ezkontz-doe ta sariz bikain gaillendurik, zu emaztetzat bere etxera eroatea lortu dagiana. Ez dot ba egundo, ez gizon ez ema-

kume, antzeko ilkorrik begi aurrean euki, ta zu ikusiaz, ez zerrurako ez lurrerako gelditu naz. Bein bakarrik ikusi neban zuzgaz kidetu leikena, Delos'en azi zan palmondo muskil gazte batean, Apolo'ren altara ondoan (an egon nintzan erritar askogaz, gaitz negargarriak etorriko yatazan ostera artan): muskil aren aurrean luzaro egon nintzan zurturik, lurretik ez bait zan urten sekula a lazko kimurik; era berean zakustaz sor ta lor, oi emakuma!, txunditurik naukazu, ta bildur naz zure belakunak besarkatzen, neke-min txit aundi batek abailduta naukanagaitik. Atzo urten al izan neban itxas ardanoitik, ur gazit, Ogigia ugarteak itxi nebanetik, olatuen eta aize-erauntsi biurrien mende, ogei egun igaro ta gero; goitarren batek jaurti nau ona, zoritxar barriak izan dagidazan, ez dot uste ba oneik amaitu yatazanik: bestera, jainkoak antza beste asko bialdu bear daustiez oindiño, Baiña zu, oi erregifi, erruki zakit; zeu zaitut, bada ainbeste gaitz igaro ondoren, lenengo aurkitzen zaitudana, eta ez-ezagunak yataz uri ta lurralde ontako gizonak, Erakuts eidazu una, ta emoidazu zerbait soin-biran lotzeko, ona ziñanean ekarri baldin ba'zendun zeozer jantziak batzeko. Eta jainkoak emon beitzue zure biotzak opa dauan guztia: senar, sendi ta adiskidetasun gozoa: gauza eder ta obeagorik ez dago, ba, senar-emazteak euren etxea alkar ondo aitu ta zuzentzea baiño; onek, min andia dakartse arerioai ta poza ostera maite dabezanai, eurak (senar-emazteak) izanik onen obariak geien aintzakotzat artzen dabezanak.

195 Nausikaak, beso zuridunak, erantzun eutson:

196 Nausikaa.—Erbestetar ori! Ez zatar, ez zentzun bako zareanik ez deritxat-eta, jakizu, Zeus Olinpoarrak berak banatu oi dauala zoriona onai ta txarra, ta neke orreik bialdu ba'dautzuz, eroapenez josan bear dituzu; baiña orain, gure uri ta lurrera eldu zarean ezketiño, ez yatzu jantzirik paltako, ezta eskeko errukarri batek itzal-zurrian jaritsi bear dabezan gauzetatik ezertxo be. Erakutsiko dautzut uña, bertako biztanleen izena be zuri iragarririk: feazitarrek daukie uria ta eskualdea, eta ni Alkinoo biotz zabalaren alabea nozu, feazitarren artean indarra ta aginpidea daukazanarena.

207 Au ebagi eban; eta neskame kopeta ederdunai agindu eutsen:

209 Nausikaa.—Gekli, arren, jopuok! Nora igeska, giza-seme bat ikusi dozuelata? Areno dala uste al dozue? Feazio-

tarren lurrari gogor egiten etorriko dan ilkor izugarririk ez da iñoiz egon, ezta egongo be, oneik illezkorren adiskide kutun dira-ta. Banaka bizi gara ta itxaso naaspilduak inguratzen gaitu; gizonetatik azkenak gara ta beste ilkorrek ez dau gugaz artu-emonik. Doakabe bat dozue au galdurik datorrena, ta laguntasuna emon bear dautsogu, Zeus'enak dira, ba, arrotz eta txiro guztiak, eta atsegingarri yake egin oi yaken mesede txikiena be. Zuok, beraz, nire mirabeok, emon arrotzari jaten eta edaten, eta ikuzi egizue ibaian, aizebera dan babesleku baten.

221 Alantxe mintzatu zan. Gelditu ziran neskatz jopuak eta, alkar gogo-beroturik, Odis jezarri-azo eben leku sarobean, Nausikaa'k, Alkinoo biotz-zabalaren alabeak agindu eutsenez; alboan itxi eutsoen mantu bat, baita alkondara bat be jantzi egian; orio ixuria eskuratu eutsoen, urrezko zarikan, ibaiko ur ibillian garbitu zedilla erreguturik. Odis jainkotia orduan au esan eutsen:

228 Odis.—Neskatzak! Urrindu zaiteze pizkat, neure sorbaldako itxas-zaborra kendu daidan eta gero nire gorputzak aspaldian euki dauan orioz igurtzi naiten. Bustialdirik, baiña, ezin neinke zuen aurrean artu, lotsa nintzake ba gazte kopeta ederdunen artean billosik jarten.

234 Ori esan eban. Baztertu ziran neskatzak, eta Nausikaa'ri esan eutsoen dana. Odis jainkotia, bitartean, ibaian garbitzen zan, bere gorputzetik kenduaz sorbaldea ta besagain nasaiak estaltzen eutsozan itxas-loia, burua be itxaso leorrak itxi eutson bits eta abarretik garbituaz. Baiña, garbiturik, orio ugariz igurtzi ta neskatz, oraindik aske zanak emon eutsozan jantziak soñeratu ebazanean, Atene'k, Zeus'en alabeak, egin eban aundi ta lodiago emon egiala, ta bere burutik dingilizka agertu eitezala jazintu loren antza euken ule kizkurtuak. Eta gizon trebeak, Hefesto'k eta Palas Atene'k zernaitarako erti-lanetan eskolatuak, zidarra urrez biran arturik, lan bikaiñak egin oi dituan lez, orrelaxe Atene'k be ixuri eban txairotasuna Odis'en buru ta besagaiñetan be. Au, apur bat bazterturik, itxas-ertzean jarri zan, eder ta txairoz dizditsu. Miretsi eban neskatzak, kopeta ederdun mirabeai esan eutsen:

251 Nausikaa.—Entzun, beso zuridun mirabeak, esango dautzuedana; gizaseme ori ez dator jainko-antzeko feaziotarretara Olinpo'n bizi diran jainkoak naia bage. Lenengotan urlia matxar begitandu yatan, baiña zeru zabala artzen dauen jain-

koen antza dauka orain. Oi, olako gizasemeari neure senar deitu al ba'nengio, ementxe bizi izanik! Oi, gurekin gelditu nai ba'leu! Dana dala, mirabeolc, emon jaten eta edaten arrotzari.

260 Orrela esan eban. Areik entzun eutsoen, eta esana egin, jakiak eta edaria arrotzari eroanez. Odis jainkoti eroa-pentsuak gutar aundiz edan eta jan eban, aspaldian egoan ba barau gorrian,

Nausikaa'k, orduan, beso zuridunak, beste zerbait erabagi eban: burdi txairoan ipiñi erropa ondo tolostua, beatz sendo-dun mandoak buztarrian atondu, bera burdizain jarri ta, Odis'i dei egiñik, edu onetan eskatu eutson:

268 Nausikaa.—Jagi zaitez, arrotz, eta goazan urira, neure aita begiratuaren etxera zuzendu zagidazan, eta antxe ikusiko dozuz gaiñera, neuk diñotzut, feaziar guztietatik argi-jatorreenak. Alan be joka onela, zentzun bagea ez dirudizu-ta: soloe-tan, gizonak landu lurretan zear goazalarik, ibilli zu azkar nes-kameakaz mandoen eta burdiaren atzetik, eta neuk erakutsiko dautzut urira igoten dan bidea; uri au, arresi garai ta torredunez inguratuta dago, eta albo bietan ao estuko kai ederrez ornidua dan ezkerro, onaxe zuzendu oi dabez itxas-ontzi makurrak, egoitz seguruak guztientzako daukiez-eta. Posidon'en jauretxe dizdikor baten ondoan aurkitzen da batzarlekua, oiñarri ondo sakonduetan lurmokor landuak ditula: antxe gordeten dabez ontzi baltzetako tresnak. zirga-baga ta unamak, arraunak be zorroztuz; feaziarrek ez dabe, ba, uztai ta gezi-ontzien ardurarik, masta ta arraun eta ondo egokituriko itxas-ontziena baiño, oneikaz zearkatzen bait dabe pozik osin apartsua. Orain, oster, arein esan mningotsai iges egin nai dautsiet; bateren batek jorratu ez nagian gero (urian bada gizon txit lotsa-bakoak dagoz), edo-ta beste norbaitek, motzago oraindik, gu biok alkarregaz aurkitzean, onela itz-egin ez dagian: «Nor da arrotz ori, orren tantai ta larden, Nausikaa'ren atzetik doana? Nun idoro ete eban? Bere senarra izan bear dau. Bear bada urriñetako gizon bat artu dau, bere ontzia galduta aruntz-onuntz ebillena, emen inguruetan ez dago olakorik eta; edo-ta jainko bat da apika, bere etenbako deiai erantzunik, zerutik jatsi dana, ta egunero beragaz eukiko dauana. Obeto neskaxa senar billa beste leku batera joan ba'da, feaziarren erria gitxi eritxirik; emen bada giza-seme asko ta argiak dabilkioz ondoren». Onan erautsiko dabe, ta sekulako iraiñak jasan bearko ditut. Neu be su-

minduko nintzake orrela egingo leukenaren aurka; oindiño bizi diran gurasoak gorabera, agiriko ezkontzaz emaztetu aurretik gizonakin batuko litzakenaren aurka, ain zuzen be. Oi arrotz!, ulertu ondo esango dautzudana, nire aitagandik jaritsi daizuzan lagunak beingoan, zeure sorterrira eltzeko bear dozuzanak. Bide albora jarrugiko dozu Atene'ri opaturiko eltxun oian ederra, bertan daukazu iturri bat, eta inguruan larra-zelai bat: an daukaz nire aitak landa bat eta maasti loretsua, uri ondo-ondoan, berton emon oi dan oiva errez entzuteko moduan. Jarri zaitez toki aretan eta itxaron bertan gu, urian sartuaz, neure aitaren jauregira eldu arte. Eta gu etxean gagozala iruditzen yatzunean, zuzendu zaitez zeu be feazitarren urirantza ta galdetu neure aitaren, Alkinoo biotz zabalaren egoitzagaitik; errez da au eza-gutzen eta ume batek be zuzenduko zaitu bertara, feazitarren beste etxeak bada Alkinoo gizurenaren aldean bestelakoak dituzu. Jauregian eta onen barrubean sartu ondoren, aretoa igaroko dozu azkar neure amagana eldu arteño; an aurkituko dozu a, eskaratzeko su-dirdirítan ezarria, zutoin bati sorbaldak emopurpur artulea iruten, gauza ikusgarria, atzcan neskameak daukazala. Antxe bertan, supazter alboan, daukazu jartoki garaia, nire aita jarten dana, illezkor baten pareko ardoa edanez. Igaro jartokiaren aurretik eta zabal-azi zeure besoak nire amaren belaunetara, zeure aberrirako biurtze eguna, urrin zagozan arren, alik eta lasterren pozez aseabaldudakizun. Nire ama, ba, onbera ba'yatzu, artu zeinke zeure adiskideak ikusi ta zeure sorleku ta etxe ondo landura elduko zareanaren itxarokizuna.

328 Onela esanik, jo ebazan mandoak bere ede dizditsuz; bat-batean itxi eben oneik ibaiko igaro-bidea, draka-draka ariñean, bide zabalean oin-dartadak luzatuz. Nausikaa'k eukazan edeak, mirabeak eta Odis oiñez jarrai etorri ekiozan, eta sen aundiz zirikatzen ebazan mandoak. Sarkaldera jatxiz joian eguzkia Atene'ri eskeiñitako oian ederrera eldu ziranean. Antxe geratu zan Odís, eta jarraian otoitz egin eutson onela Zeus andiaren alaban:

336 Odis.—Entzun nagizu, babeskia daroan Zeus'en alaba orrek! Ezigaitz! Lagun zakit orain, lurra astindu daroan jainko gurenak txarto erabilli ninduenetan iñoiz be egin etzenduan ezkerro. Eidazu, feazitarren artera eldukeran, oneik artu nagiola adiskide lez, nitzaz errukiturik.

341 Onela oles egin eban erreguka, ta Palas Atene'k entzun eutson. Jainkosa, alan be, ez yakon agertu oindiño, bere aitaren aldeko osabaren bildur zan-eta; au, bada, bizi-bizi suminduta egon zan Odis jainkotiaren aurka, gizuren au bere aberrira biurtua izan arte.

VII KANTUA

Alinoo'run jauregian sartzen **da Odia**

Odis jainkoti eroapentsua olan eskariz egoalarik, neskatxa urira eroien mando giartsuak. Bere aitaren egoitz ospatsura eldu —ala, ataurrean geratu zan; bere nebak, jainkoen iduriko. inguruan jarri yakozan, eta, mandoak askaturik, jantziak etxe barnera eroan eutsoezan; neskatxa bere gelara zuzendu zan, Apira'ko Eurimedusa zarrak, bere gelazaiñak, sua ixiotu eutsonera: beste orduz andik, Apira'tik, ekarri eben au itxas-ontzi makurretan, Alkinoo'ri, feazitar guztien errege izanik, erriak jainko bat bai'litzan entzuten eutsonari, emoi ta opari lez eskintzeko aukeratua. Onexek azi eban Nausikaa, beso zuriduna, jauregian; eta une atantxe biztu-azten eutson sua, ta afari-izkia gertatu.

15 Orduantxe, ain zuzen, jagiten zan Odis, urira joateko; eta ondo gura eutson Atene'k laiño lodiz estaldu eban: feaziar prestuen batek, bidera urtenik, itzez min-arazi ta nor zan itandu ez egion. Gizurena erri atsegingarrian sartuaz bat, Atene, ontz-begidun jainkosa, egokitu yakon bidean, txanbil bat eroian neskatz gaztez antzaldatua, Odis aurrean gelditu zana. Gizuren jainkotiak, au itandu eutson:

24 Odis.—Oi alaba! Ezin eroan ete nengikezu gizaseme onein gaiñ errege dan Alkinoo'ren jauregira? Arrotza nozu; gorriak ikusi ta gero, eldu naz ona, urriñetik, lurralde baztertu batetik etorriaz; ez dot ezagun uri onetan eta zabaldegi oneitan bizi diran gizonetatik bat bera be.

29 Atene'k, ontz-begidun jainkotasunak, erantzun:

30 Atene.—Neuk erakutsiko dautzut, arrotz agurgarri, di-raustazun jauregia, neure aita goragarriaren egoitzetik ur-ur dago-ta. Zabiltz ezpanak edegi barik, eta bidean gidari izango naiatzu; baiña ez begiratu gizonik, ezta itaunik egin be, arrotzakin ez dira ba eroan aundiko, erbestetik datorrena ez dabe

adiskide lez artzen. Areik, euren ontzi bizkorrez entzinduak, lurra astintzen dauan Posidon'ek lagata, zearkatzen dabe itxas-osin zabala, ta arein ur-ontzik egoak edo-ta oldozkuna baizen ariñak dituzu.

40 Au esanez, Palas Atene bizkor sainar ibiltzen asi zan, Odis'ek jarraiturik jainkosaren oiñatzak. Eta feazitarrak, itxastar ospetsuak ez ziran oartu urian eta euren artean ebillenaz, Atene'k, adats ederdu jainkosa izugarriak ez eban ba itxi, onbera ta errukior laiño jainkotiaz estaldu eban-eta. Odis'ek zurtuta begiratzen zitun kai areik, ondo egokitu ontziak, gizuren arein batzartegiak eta ikusgarri ziran orma aundi ta garaiak, zur-esiz orniduta, Baiña, erregearen jauregi lerdenera elduaz batera, Atene, ontz-begidun jainkosa, onela asi yakon mintzoz:

52 Atene.—Auxe dozu, aita arrotz!, erakuts negitzula eskatu zeustan jauregia: berton idoroko dozuz erregeak, Zeus'en ikasleak, janaldi bat ospatzen; zu, alan be, zoaz aurrerantza, ezeren kezka bage, gizona bada, ausarta baldin ba'da, erbeste lurraldetik etorria izanda be, zori obekoa da burutan artu dauan arloan. Gizategian sartuaz, erregiña aurkituko dozu lenengo, Arete deritxona, ta Alkinoo erregea sortu eben asaba ber-beren jatorrikoa, Lenengotan sortu ebezan Nausitoo, lurra astintzen dauan Posidon jainkoa, ta Peribea, emakumeetan ederrena, beste orduz Erraldoi arroputzen errege izan zan Eurimedonte ospetsuaren alaba txikia. Eurimedonte'k, baiña, galdu eban bere erria, ta galdu zan bera be; Posidon'ek, barriz, aregandik seme bat izan eban, Nausitoo bioztuna, gero feazitarren gaiñ agintea izan ebana. Nausitoo'k, Errexenor eta Alkinoo sortu zitun: baiña, lenengoa ezkon-barri ta seme barik egoala, Apolo'k ii eban, zidarrezko uztaiia darabilenak, eta jauregian alaba bakarra itxi eban, Arete, Alkinoo'k emaztetzat artu ebana; eta orain senarrak goretsi oi dau au, etxe bat zuzendu ta euren gizonen mende bizi diran lurreko emakumeetatik beste iñortxo baiño geiago goretsi be. Orrelaxe, guztiz txeratsu, ta begirune aundiz, euki izan dabe, ta daukie, bere seme-alabak, Alkinoo'k berak eta erritar guztiak, unian dabillenean jainkosa bat lez artu ta berba maitekorrez agur-egiñik. Adin argikoa da ta, arein auzi ta eztabaidak ebatzi oi ditu, gizonak izanagaitik beti onbera ta biotz-bigun. A onbera ba'yatzu, itxaron bai: ikusiko dozuz zeure adiskideak, zeure sorterrira ta sapai jasoko etxera iritxirik.

80 Atene, ontz-begiduna, au esanez, ur-azalez joan zan; eta, Eskerí lilluragarritik urtenaz, Maraton'era ta kale askoko Atenai'ra eldu ta Erekteu'ren egoitza sendo eregira sartu zan. Odis'ek, barriz, Alkinoo'ren etxe lerdenera zuzentzen zitun bere oiñak; borontzezko atari aurrera eldu orduko, gauza asko erabilli zitun burutan; Alkinoo biotzberaren egoitz gorena, bada, eguzkiaren naiz illargiaren argiz bezela eukan dirdi-urtika. Ezker-eskuma, ataritik barrurantz, borontzezko orma lodiak luzatzen ziran; euron gaiñean arri-urdiñezko erlatxa zabalazten; urrezko ateak isten eben barrutik etxe sendo jasotakoa; zidarrezkoak ziran ate-zango biak, borontzezko ataritik asita; eurok eusten eutsoen ate-buru zidarrezkoai, eta urrezkoa zan atearen erestuna. Alde bietan txakur batzuk egozan, zidar eta urre, illezkor eta sekula zaartzen etziranak, Alkinoo bioztunaren etxea gorde egien Hefesto'k zuur eta antzetsu landuak. Orma bieieutsela aulkiak ugari, ateko armaillatik barru-barruraino etenbako errezkadan, eta oneik estaltzeko andrazkoak tajuz eundu•tako tapiz-kurtxoiñak. Antxe egozan feazitar aundikiak jan-edanean, aten barik ospatu oi ebezan zautak eta. Ederto egiñiko euskarri gaiñetan zutik aurkitzen ziran urrezko aurtxoak; gabaz oneik argitu oi ebezan, argontxi biztuak eskuetan, etxean egokezan zautarakoak. Berrogetamar mirabe-jopu daukaz Alkinoo'k bere jauregian; batzuk gari gorrizkea austuten dabe errotatxoan, beste batzuk euna iruten dabe eta, jezarrita, goruak darabillez biraka, eskuak platanu zardai baten orriak bai'litzan, igi-azirik, ta orio ixuriak lez diz-diz dagie ederki adelatu miesak. Feazitarrak, gizakume guztien artean, trebe diran lez ur-osin zear oial-ontzia zuzentzen, orrelaxe nabarmen dira oso emakumeak danetariko miesak eratzen, Atene'k emon dautse ba trebetasuna lan eder-ederrak egiteko, eta berez be guztiz asmoitsuak doguz. Barrunbez kanpo, ateen ondoan, lau goldeko lorategi eder bat daukazu, ingurumari dauala alde bietatik esiluzea. Antxe azi dira zugatz aundi ta loratsuak: madari-landarak, granadak, ale ederdun sagar-ondoak, pikondo gozo ta oriotantai muskerrak. Zugatz onein igaliak ez dira galtzen, eta beti emon daroe, udan naiz neguan: betikoak dira; eta Zefir'ek, atertu barik joaz, aldi barean dakarz batzuk eta umo-azoten beste batzuk. Madaria madari gaiñean zaartu oi da, sagarra sagar gaiñean, maats-sail bat eguzkitan legortzen da toki sarobe ta lauan, beste sail batzuk batu egin oi dabez, beste batzuk zapaldu, eta or datoz berdeak be, loran laster, eta baltzitu ten

asten diranak. An, ortu-barrenean, ari guztitako barazki lerro-kadak azten ziran, beti joritsu. Ur-aska bi dagoz bertan: bata ortu guztian zear doa; bestea, egoitz bikaiñerantz egiñik,atariko zubi azpian agertzen da: erritarrak ona datoz ur-billa. Era ontakoak ziran jainkoen bezuza ta doe bikaiñak Alkinoo'ren jauregian.

135 Guzti au ikusi ta miresten geratu zan Odis jainkoti eroapentsua; eta, zati batean olan ikus-miretsi ondoren, ate-aurrea azkar igaro ta etxean sartu zan; feazitarren buruzagi ta erregegaiak, edontziak eskuetan, Argifonte begiralariari, ogeratu aurretik, azken ixurketak egiten aurkitu ebazan; Odis jainkoti eroapentsua, alan be, Atene'k gaiñ ipiñi eutson laiño lodiaz estalduta ibilli zan jauregian zear, Arete ta Alkinoo erregea egozam lekura elclu arteño. Oclis orduan Arete'ren belau-natera luzatu ebazan bere besoak, gandu jainkotia urtu zan, etxeko guztiak mututu ziran, aurrean eukien gizaseme a ikusiaz arriturik, eta Odis'ek onela asi eban bere erregua:

148 Odis.—Arete, jainko bat langoa zan Errexentor'en alaba! Asko be asko eroanda gero, zure senarragana ta zure belaunetara natorkizu; baita bazkaldar onein aurrera be: laket bekie jainkoai guztiok zoriontsu bizi izatea, ta euren ondasunak euren jauregietan itxitako semeai emon al izatea, eta baita erriagandik artu izan dabezan dedu oorek be. Baiña emoidazuez orain gizonak, neure aberrira ni arik eta ariñen zuzentzeko gai litzakezanak; aspaldidanik nabil, ba, adiskideengandik urrun, ezbearren ezbearrez txit austuta.

157 Au esanaz, eskaratzeko sutondoan jarri zan, autsean; guztiak, ixil ta mutu egozan. Baiña, azkenez, Ekeneu zaar gizurena, feaziar gizasemeen artean zarrena zanak, eta izlari eder, berein gauza ta zaarrak **biotz-bera ta goitik onan** itz-egin eutsen:

163 Ekeneu.—Alkinoo! Ez da ona, ezta egoki be, zuretzat, arrotza lurean jarria, supazterreko auts gaiñean egoterik; eta oneik, zure itzen zain, galgaturik eukitea. Ia, bada, jagi zaitetz, ezarri egizu ziclar-untzeterizko jarleku baten, eta ots-egilleak nastu daigula ardaoa, Zeus'i, oiñaztarri-zale dan eta otoizlari agurgarriai laguntzen dakian jainkoari, ixurketak eskintzeko. Jaki-zaiñak ekar begio, ondoren, aparitarako, an barruan gordeta daukazan janarietatik.

172 Alkinoo'ren menpe doneak au entzun ebanean, Odis zuur ernea, eskuz oratu, sutondotik jaso ta aulki ederrean jarri-azo eban, alboan jarrita eukon eta maite eban bere seme Laodamante kementsuak artzen ebana, ain zuzen be. Esku-ura emon eutsan neskatxa batek, urrezko pitxar aberatsean ekarrena, ta zidarrezko azpillean ixuri eban; ostean, mai ondo landua ipiñi eutson Odos'i aurrean, Jaki-zain agurgarriak ogia ekarri eutson, baita edu askotako janariak be, mairatu eutsozan, gorderik eukozeanak ain zuzen. Odis jainkoti eroapentsua edaten eta jaten asi zan; Alkinoo altsuak ordun esan eutson ots-egilleari:

184 Alkinoo.—Pontonoo! Nastazi ardaoa kantiñean eta banandu bertatik jauregian aurkitzen diran guztiai, Zeus'i, oiñaz-tarri-zale dan eta otoizlari agurgarriai laguntzen dakian jainkoari, ixurketak egin daioguzan.

188 Olan emon eban aditzera. Pontonoo'k, ardo gozoa nastazi ta bertan aurkitzen ziran guztien artean banandu eban, asikiñak txoletan eskiñi ondoren. Eta ixurketak egin eta bakotxak nai aiña edan ebanean, Alkinoo'k, iztun eder, onela esan eutsen:

193 Alkinoo.—Entzun, feazitarren gudalburu ta erregegai-ok, eta esango dautzuet neure biotzak kolkoan diñostana. Orain, apaldu dozuen ezkerro, zoaze zeuen etxeetara ta lo egin: biar, eguna urratu baizen laster, zaar geiagori dei egiñik, atzeritar au arrotz bezela artuko dogu jauregian, jainkotasunai sekulako opariak eskiñitakoan, beroni emon bear dautsogun laguntzaz mintzatuko gara, neke ta ezeren kezka barik, eta geuk lagun-duta, txit urruti egonda be, bere sort-lurrera bizkor eta alai eldu daiten, eta bere eskualdera jo arte iriundiko kalte ta ez-bearrik izan ez dagian; bere etxean aurkitzean, bada, igaro bearke dau aduak eta Gorulari alasokoak, bere amak argitara ekarterakoan, aria irutean erabagi ebena, Eta zerutik jatxi dan illezkorren bat zeozter gertatzen dauskue jainkoak; gaur arte, ba, beti agertu yakuz argi be argi guk ilketa bikaiñak eskintzerakoan, eta geugaz jan oi dabe jarrita, geuk jan daroagun lekuan bertan. Eta bidezko bakartiren bat ba'legoke eurekaz, ez yakoz estaltzen, geure jatorkiz, bada, orreitatik ur-ur gagoz, Kiklopetarrak eta Erraldoien enda basatia legez.

213 Odis asmotsuak erantzun:

214 Odis.—Alkinoo! Ez izan olakorik gogoan; ni ez nozu, ez senez ez soiñez, ortze zabala daukien jainkoen kideko, giza-

seme ilkorrena baiño: neke-lorrez bardindu naiteke ezbearrik geien jasan dabela dakizuenakaz eta are aundiagoak edestuko neuskizuez, jainkoak naita zelakoak ikasi dodazan esango ba'neut-
tuez. Baiña, naigabetua nagon arren, itxi egidazue apaltzen; ez dago, ba, sabela baiño gauza alarnentsuagorik eta ez-garai-
koagorik: oso naigabetuak eta ni orain aurkitzen nazan lez ezertarako gogo barik egonda be, jan-edanera garoaz beti, eta oraingoz jasan dodazan neke ta ezbear guztiak aztuteko diñost, ta asebite dagidala bera. Eta zuok zabilte bizkor, egunsentia agertu danekoxe, eta egizue, otoi, ni, asko be asko sufridua izan arren, zori txarreko au!, biur naitela neure aberrira. Bizia bu-
katu ez daiclan, bai, neure etxaguntza, neure morroi-mirabeak eta neure sapai jaso dauan etxe lerdana ber-ikusi barik.

231 Olantxe mintzatu zan. Danak onartu ebezan aren itzak, eta, iñoana errezoizkoa zala-ta, arrotza bere sorterrira croan bear zala erabagi eben. Ixurketak egin eta bakoitzak nai beste edan ondoren, euren etxeetara itzuli ziran; Odis jainkotia, jauregian geratu zan, eta berari aurrez jarri ziran Arete ta jainko-itxurako Alkinoo, mirabeak euren aldetik oturuntza-
rako tresnak barteztzen zituen bitartean. Arete, beso zuriduna, izan zan aurrenik mintzatu zana, Odis'en jantzi ederrak ikus-
katuz, bada, laster ezagutu ebazan berak bere mirabeakaz eundu alkondara ta txabuxa. Jarraian itz arin oneik zuzendu eutsozan gizurenari:

242 Arete.—Arrotz! Neuk itandu gura dautzut lenengo: Nor zaitugu ta nundik zatoz? Nok emon eutzuzan jantzi orre-
ik? Itxasoan zear, galdua, etorri zareala ez te diñozu?

246 Odis asmotsuak erantzun:

247 Odis.—Ez litzateke erreza, oi erregiñ!, neure ezbea-
rrak zeatz-meatz kontatzea, zeruko jainkoak bada guztiz ugari bialdu eustiezan; baiña galdetu ta itanduten daustazunari buruz itz-egingo dautzut. Itxasoan izaro urriti bat dago, Ogigia; emen bizi cia Atlante'ren alaba, Kalipso maltzurra, ule-kopeta txai-
roduna, ez jainko bategaz ez gizaseme ilkorrakaz artu-emonik ez daukan jainkotasun altsua; ni, alan be, doakabe au, aren sukaldera croan nindun goitar indarren batek, Zeus'ek bere oiñaztarri galdutuz nire ontzi bizkorra ur-osin apartsuaren erdian brintzatuta gero. An galdu ziran nire lagun saiatuak, baiña ni, ontzi makurraren kadenari besarkatua, aruntz-onuntz ibilli nin-
tzan bederatzi egunez eta amargarrenean, gau illunez, Kalipso,

adats txairoduna, jainkosa izugarria bizi dan Ogigia ugartera eroan ninduen jainkoak: neskatz liraiñak artu nindun berean, arduraz eta maitekiro artu ta euki be, jaten eta bear nebana emonik; illezkor egingo nindula esan eustan sarri, eta betikoz zaartzaro gabea, baiña onek ez nindun iñoiz be gogo-bete. Zazpi urtetan egon nintzan an, eta negar-malkoz bustiaz nebazan asper gabe Kalipso'k emon eustazan soiñeko jainkotiak. Zortzi-garren urtea eltzean, alan be, aolkatu nindun eta andik joateko esan eustan, zala Zeus'ek mandaturen bat emon eutsalako, zala berari bere gogo aldatu yakolako, Korapillo moltzoaz egiñiko baldusa baten bialdu nindun, ogia ta ardo gozoa ugari biderako emonik, jainkozko jantziak ipiñi ta aldezko aize atsegingarria bialdurik. Amazazpi egunez ibilli nintzan ur-osin barruna; ama-zortzigarrean zuen lurreko mendi-gaillur itzaltsuak ikusi al izan nebazan, eta niri, doakabe oni!, pozez gaiñezka jarri yatan biotza. Oraindiño, baiña, Posidon'ek sortu-eraziko eustazan neke-lorrakaz aurkituko nintzan: lurra astintzen dauan jainkoak, alkarren aurkako aizeak jagi —azo zituan, kresal zabala naspildu ta niri bidea eragotziaz; olatuak ez eustien izten intziri bizitan nengon oneri, baldusan joaten, eta au laster suntsitu eban eka-txak. Orduan igeri egin neban, osiña zearkatuz, aizeak eta urak zuen eskualdera urreratu ninduen arte. Itxasotik urtetean, olatuak lur tinkoaren aurka zatituko nindun, arkaitzezko leku ondagarriara jaurtirik; baiña atzera egin neban ugerka ibai batera, arkaitzik ez eukalako ta aizeen aurka babestoki egiten ebalako, egokia oso begitandu yatanera, eldu arte. Lur gaiñean jausten itxi neban neure burua, kemena arturik; baiña gau jainkotia jausi yatan gaiñ eta, zerutar euriak alikatzen daben ibaitik urrinduaz, zugatz txiki batzuen artean lotaratu nintzan, neure ingurumari orbel ugaria moltzoturik: lo bete-betea ixuri eustan jainkoren batek. Antxe, orri artean eta biotza goibel, lo egin neban gau guztian, goiz guztian eta eguerdian; eguzkia sartzean itxi nindun lo gozoak. Zure alabaren mirabek ikusi nitun orduan beragaz batera ondar gorrian jolasketan: jainkosa emoten eban zure alabak. Otoiztu neban eta ez eutson uts-emon zentzun onak, orrela aurkitzen dan neskatz gazte batek bere egiñenetan erakutsi bear dauanez, morroskoak bada beti agertu oi dira buru-arin eta zarrapoka. Ogia ta ardo gorda emon eustan ugari ta eurrez, ikuzi nenguela ibaian aqindu eban, eta jantziok emon eustazan, Auxe zan, naiz-ta naigabetua, zuri esan nai neutzuna, jazo danaren egiari berea emonaz.

302 Alkinoo'k erantzun eutson, zirautsola:

303 Alkinoo.—Arrotz! Nire alabeak, egi-egiaz, ez eban artu erabagirik egokiena; ez zindun ekarri ba gure jauregira, mirabeakaz, zuk lenengo erregutu zeuntsona bera izanik.

307 Odis asmotsuak jardetsi:

308 Odisr—Oi gizuren! Ez egiozu origaitik, agíraka egin neskatz ain bikaiñari; mirabeai jarraitzeko otoiztu nindun, baiña nik ez neban nai izan bildurrez eta lotsaz; ni ikusteak bear bada zu suminduko zinduzan, lur gaiñean bizi garan gizonok oso susmaberak gara-ta.

313 Alkinoo'k erantzun:

314 Alkinoo.—Arrotz! Ez, nire bularrak ez dau gordeten zio barik sumintzen dan biotzik, eta onena da beti zuzenena. Oi, Zeus aitagaitik, Atene ta Apolo-gaitik!, zareana izanik eta nik uste dodanez uste izanik, nire alaba emaztetzat artu ta, geugaz bizi izanaz, neure suiña dei egingo ba'leutzue! Etxea ta ondasunak emongo neuskizuz, zeure gogoz geratuko ba'ziña; zeuk nai ezik, bada, feaziar batek be etzaitu emen geldiazoko, orrek Zeus aita atsekabetuko leuke-ta. Eta on ontatik derabagit, ondo jakin dagizun, zure joan-etorria biar gertatu daiten: logureak abailduta lo egin ostean, lagunak itxaso bare zear arraun egingo dabe zeure aberri ta etxera eldu arte, edo-ta, Eubea baiño urriñago egonda be, zeuri eder litzakizun lekura jo arte; Eubea au, txit urruti aurkitzen dala diño Radamantis gorrizka Titi, Lur'aren semea ikusten eroan ebenean begiz jo eben uritarrak: joan ziran ara ta egun bat-batean eta nekatu barik osterea amaitu ta euren etxeetara biurtu ziran. Zerorrek ikusiko dozu zein bikain diran nik daukadazan itxas-ontziak, eta zein trebe nire gazteak ur-osiña arraunez jo ta zaplatzeko.

333 Orrela esan eban. Odis jainkoti eroapentsua egiz poz-tazi zan, eta, arrena, edu onetan mintzatu zan:

335 Odis.—Zeus aita! Ai, Alkinoo'k esana oro egi biur-tuko ba'leu! Onen aintza ez dedilla iñoiz be lur jori gaiñean itzali, ta nik lortu daidala neure aberrira eltzea.

338 Onakoa zan onein alkar-izketa. Arete'k, beso zuri-dunak, barriz, mirabeai agindu eutsen: atartepean oge bat aton-du egiela, purpurazko estalki ederrez ornidua, gaiñetik oin-zamauak zabaldu ta ondoan alkondara uletsuak berotzeko gertu.

Mirabeak jauregitik urten ziran zuzi ixiotuak eskuetan eroieza-
la, ta ogea arreta aundiz eratu ondoren, Odis egana joan eta
onela dei egin eutsoen:

346 Nestatzak.—Jagi zaitez, arrotz, eta zoaz lotara, oia
gertu daukazu-ta. Orrela esan eben, eta eder iruditu zan lo
egitea. Gisa ontan, Odis jainkoti eroapentsuak antxe lo egin
eban, oatze ondo landuan, ateaurre ozenaren azpian. Alkinoo
egoitz bikaiñaren barnean lotaratu zan, eta bere ondoan erre-
giña, ari oge ta inguruak ondo apaindutakoan.

VIII KANTUA

Odis, feazitarren aurrean

Goizaren alaba, larrosazko atzdun Egu-antza estalgetu zanekeo, jagi ziran ogetik Alkinoo aginte donekoa ta Zeus'en jatorriko Odis, uri-errauslea, Aginte doneko Alkinoo besteen buru jarri zan, eta danak batera batzartegira zuzendu ziran, feaziarrak itxas-ontzien alboan eraiki ebenera noski. Ara eldu ta beingoan, arri landu batzutan ezarri ziran, batzuk besteen ondoan; Palas Atene, bitartean, Alkinoo zurraren otsegille antza arturik, urian zear ebillen oiuka, ta Odis biotz-zabalaren aberriratzeara gogotan erabillela. Aurkitzen eban gizaseme bakotxaren ondora elduaz, itzok esan oi eutsezan:

13 Atene.—Ia, zuok, feazitarren gudaiburu ta erregegaiok! Zoaze batzartegira, eta entzun, itxasoan zear arat-onat ibilli ondoren, arestian Alkinoo zurraren etxera eldu dan arrotzaz zer diñoen: soiñez, illezkorren kideko emoten dauan gizasemea da.

18 Olan esanaz, biotza ta gogoa mugi-erazten eutsezan. Laster bete ziran batzartegia ta bertako jarlekuak an batuaz joiazan gizakume prestuakaz, eta asko be asko ziran Laerte'ren seme zurra ikusiaz miresten ziranak, Atene'k bada millaka edertasun barreia zitun Odis'en buru-sorbalda gairiez, luzeago ta lodiago agertu zedin, eta olan feazitar guztien aurrean atsegintsu, lazkor eta agurgarriago agertuz, onein begi aurrean, norañokoa zan egiazteko, egin bearko zitun askotariko jokoak ondo burutu egizan. Eta uritarrak aratu ta danak batzaldut ziran, Alkinoo'lc goraxko itz-egin eutsen:

28 Alkinoo.—Entzun, otoi, feaziar gudaiburu ta erregegaiok; neuk esango dautzuet biotzak neure barruan diñostana! Arrotz au, ez dakit nor dan, baiña noraezean eldu zan nire jauregira (naiz datorrela Sortaldeko gizonetatik, naiz Sartalde-takoetik) eta bein eta barriz eskatu dauku, bere aberrira biurtu

daiten, berari laguntzeko alegiñak egin daiguzala, arren bai arren. Saia gaitezan, ba, berau ara eroaten, lenago be beste askogaz egin izan dogunez. Nire etxera eldu izan diranetatik, iñortxo be ez bait-da luzaro egon bere errira itzuli naita. Tira, ba, bota daigun osin jainkozkora aurretik erabilli bagako ontzi baltz bat, eta erritarren artetik aukeratu beitez berrogetaamabi gazte, gaur artekoan bikaiñenak izan diranak nunbait. Eta, arraunak tostarteai ondo loturik, datozela ontzitik eta gerta dagiela bertatik abarrada bat neure jauregian; danoi emon bear dautset, ba, guztiz ugaria. Auxe dagintset gazteai; baiña zuok, errege aginte eroaleok, zatoze neure egoitz zardaiñera gure arrotzari jai-egin daiogun etsari nagusian. Ez beist iñok ezetzik esan. Dei egin, baita, Demokoko'ri, aedo jainkotiarrari, goitarrak oni bai eutsoen emon trebetasun izugarria, gogoak abesnaia ezarri oi eutsonetan gizasemeak kantuz alai-azoteko noski.

49 Onela itz-egin ostean, ibiltan asi zan; erregeak joakozan jarrai, aginte-makiladunak, eta ots-egillea jainkozko bertsolariari dei egiten joan zan. Berrogetamabi gazte autatuak, erregeak esana beteaz, itxas elkorreko ur-ertzeraz zuzendu ziran; eta, izontzi baltza egoan lekura elduz, osin sakonera bera bota, masta ta oial-sailla atondu ta edez lotu ebezan arraunak, dana txit egoki jarriarik. Ondoren oial zuriak edatu, ur sakona egoan unean ankillak bota, ta jarraian Alkinoo zurraren etxe galanteraz jo eben. Atarte, arkupe, barrualde ta gizategiak kuin-kuin bete ziran an batzaldun ziran gizasemez; zaar eta gazte, gizatza izugarria osotzen eben-eta. Eurentzat amabi ardi, zortzi ortz zuridun txarri ta zango-malgudun idi bi il-sarraskitu zituan Alkinoo'k: danak narrua kendu ta gertatuak izan ziran, jan-edate atsegingarria ospatzeko.

64 Ots-egillea aurreratu zan bertsolari malatsa eskutik ebala; kutun eban au Musa'k oso, ta onez ta txarrez ornidu eban; begitik kamus itxi eban, baiña kantu legunez doatu. Pontonoo'k, zidar-untzeko aulki zabala ipiñi eutson bazkaldarren erdian, zutoin dizditsuari eutsola; otsegilleak, barriz, kako batetik esegi eutson kitara doiñutsua buruz gaiñetik, bera eskuz artzen erakutsirik, eta sestaiña bat urreratu eutson ondoren, mai polita ta ardao txola, be bai, gogoak emon-ala edan egian. Maiko guztiak asi ziran jaten eta edaten. Eta deituak jan-edariz ase-bete ziraneko, Musa'k sugartu eban bertsolaria guda-gizonen ospea zabalazi egian garai aretan zeru edaturaiño eltzen

zan kantu aomen aundiko bategaz; Odis eta Pelida Akileu'ren arteko eztabaida, ain zuzen be; jainkoen goratzarrezko zauta sekulako baten, biak leikide bizkor akarra atera eben mintzaera gordin-gordinez nunbait, gizonen errege Agamenon poz-eztitan egoalarik, akeutarren artetik onenak alkar-mokoka ikusiaz; Poibu Apol'ek, Pito jainkotian, aurretiaz iragarri eutson, bada, gizurena arrizko atartea igaro ta aolku eske joan yakonean bertan, une atantxe asiko zala teukro ta danaotarren artean zori txarra zabaltzen, Zeus aundiak erabagita.

86 Auxe zan aedo argiak abesten ebana. Odis'ek, bere esku giarrez purpur kolorezko soingaiñeko zabala arturik, burugaiñez bota eban, bere betarte zoragarria estalduaz, lotsa zan ba feazitarren aurrean begiak malkoz bustita, negar-jario agertzen; bertsolari jainkotiak, oster, kantatzea bukatu ebanean, negar-malkoak txautu, txabuxa burutik kendu ta, txol bikoitz bat arturik, ixurketak egin eutsezan jainkotasunai. Baiña a oster be kantari asi zanean —feaziar prestuak eskatu bai eutsoen kantatzeko, aren esanak eder yakezala-ta—, Odis'ek barriro be bere burua estali ta negarrari emon eutsan. Alkinoo ezik, beste iñor etzan konturatu Odis'en negarrez; erregea, oster, bai, ondoan eukon-eta, konturatu zan, eta ondo konturatu, baita zein intziri barrenkoiak emoten zitun aditu be. Erregeak, ba, orduan feazitar, arraun-zale bizkorrai onela:

101 Alkinoo,—Entzun, arren, feaziar gualburu ta erregeaiok! Alkarrekiko jan-edanez ta kitaraz, au baita oturuntza bikaiñen laguntzaille, alai egin garean ezker, goazan orain gutzariko jokuetara; arrotzak, bere aberrira itzultzerakoan, adierazo dagien bere lagunai, zenbat mailla gagozan beste gizameak baiño gorago, ukabilka, auzka, jauzika ta lasterkan.

108 Au esanaz, ibiltan asi zan, eta enparauak aren atzetik. Kakotik esegi eban otsegilleak kitara doiñutsua ta, Demodoko'ri eskutik oratuaz, etxetik atera ta feaziar prestuak jokuak ikustera joiazan bidean zear zuzendu eban. Batzartegira joiazan danak, gizatalde aundia, konta-eziña; zutik jarri ziran an ainbat gazte giartsu. Oneik jagi ziran: Akroneu, Okial, Elatreu, Nauteu, Primneu, Amkial Eretmeu, Ponteu, Proreu, Toon, Anabesineu eta Anfial, Polineu Tektonida'ren semea; jagi zan baita Eurial, Ares'en kideko, ilkorrentzat adu txarreko, eta Naubolide, Laodamante egin-egiñekoz kanpo, feazitarren artean bikaiñena gorputzez eta edertasunez; zutundu ziran, azkenez, Alki-

noo ospetsuaren iru semeak: Laodamante, Halio ta Klitoneu, jainko baten iduriko. Lasterketan asi ziran lenengo. Marratik era batera urtenik, azkar be azkar egaz egien, autsa astinduz lautadan zear. Askotaz nabari zan euren artean, arin-aringa, Klitoneu bikaiñena, eta mando bik lubarri dan soloan edegi oi daben azatza luze izaten dan beste, aurreratu yaken atzetik jarraika etorkozanai. Eupaka urten ziran beste batzuk be norgeiagoka neketsura, eta Eurial'ek azpiratu zituen bertan zerbair ziran guztiak. Jauzian Anual nabaritu zan besteen gaiñetik; kurpilla jaurtzen Elatreu danetatik gailleen; eta ukabilka, Laodamante, Alkinoo'ren seme laztana. Eta guztiak jokatu ta gogolaitu ziranean, Laodamante'k, Alkinoo'ren semeak, onan itzegin eutsen:

134 Laodamante.—Zatoze, adiskideak, eta itaun dagiogun arrotzari ainbateko jokorik dakian ala ikasi dauan. Bere izatez, iztar, berna ta beso, sama sendo ta kemen aundiz, ba, ez dirudi erakutsi txarreko gizona: gaztaroak be ez dau oindiño bertan-bera itxi, izan dituan gaitzak naikoak austua laga daben arren; nik bada ez dot uste gizon bat, naiz-ta bulartsua, erasteko, itxasoa lakorik aurkitzen danik.

142 Eurial'ek beingoan erantzun:

143 Eurial.—Laodamante! Oso egoki datoz zure errazoiak. Zoaz zeo, ta ortara egizu, esanak barriz esanez.

145 Au entzunaz bat, Alkinoo'ren seme ona aurreratu, guztien erdian jarri ta Odis'i bota eutsan:

147 Laodamante.—Ia, aita arrotz, zatoz zu be jokuetan eskua ikustera, olakorik ba'dakizu beintzat; eta jakin bear dozuz, gizonarentzat bada ez dago bizitza ontan bere oiñezko edo-ta eskuzko lanetan txapeldun izatea lako aintza argirik. Ea, bada, erakuts eiguzu ekiñez zeure gaitasuna ta uxatu zeure gogotik daukazuzan kezka ta naigabeak, zure osterea ez da asko luza-tuko ta: ontzia uretan dago gertu, ta lagun egingo dautzuenak be zain.

154 Odis asmotsuak jardetsi:

155 Odis.—Laodamante! Zer dala-ta agintzen daustazuz olako gauzak, nire lepotik aiñen egitearren? Jokuetan baiño geiago diardu nire gogoak bere naigabeetan, asko be asko bai dira nik jaso ta igaro ditudanak. Eta orain, aberrira biurtu —miñez, zuen batzartegian jarten naz, erregeri ta erri osoari eskatu naiean.

161 Eurial'ek, osterá, iráin au arpegira jáurtiz, erantzun eutson:

163 Eurial.—Arrotz! Ez derist, egiaz, zu gizaseme eskolatua zareanik, gizonen artean jolastu oi diran joku askotan; bestera, itxasmutil sal-eroslarien buru dirudizu, berein tostadun ontzi batean eten barik sartua, salgai-pilloa zaindu ta tratubi-deak eta arrapakiñen irabazia begiratzuz.

169 Odis asmotsuak, bekoki motzez so-egiñik, erantzun eutson:

171 Odis.—Arrotz! Txarto itz-egin dozu, gai-ariña emanik. Jainkoak ez dautsez banandu gizon guztiai bardin euren doai maitagarriak: edertasuna, buru-zolitasuna ta itz-etorria. Ba-da gizonik, kaskar gizantzez, jainkoagandik itz-jariozko apaindura artu dauanik, eta gero guztiak miresten dabe atsegiñez, berbots sendoz ta erabide gozoz mintzatu oi jakenean, eta urian zear baldin ba'doa, goitar bat dala uste dabe; alderantziz, beste batek illezkorren antza dau sain-itxuraz eta ez dau ez gatzik ez sonarik bere esanetan. Bardin, zure armera ta betarteá autak dituzu, ta jainko batek ez zinduzan beste taju batean idurituko; baiña adimen zakatza dozu. Gogoa asaldatu daustazu barruan, gauza ez-egokiak esanda, Ez nozu ez-jakiña jokuetan, zuk diñozunez; beste aldera, neure gatzetasunean eta eskuetan uste ona izan nebanean, aurrenengoen artean zenbatu nengikeela uste dot. Oráin ezbear eta neke-miñez abailduta nago, asko jasan bear izan dot, ba, naiz gizonakaz burrukatzen, naiz olatu bildurgarriak zearkatzen, Baiña, alan eta guzti be, gaitzak millaka ikusia nazan arren, eskua sartuko dot jokuetan :eztenkada latzak izan yataz zure itzak, ta eurak esatean sumin-azi ninduzun.

192 Esan eban; eta, oldarki jagi soigaiñekoa itxi bage, ta kurpil bat artu eban eskuan, feaziarrak erabilli oi ebena baiño aundi, lodi ta naiko astunagoa. Bira batzuk emon-azo eutsazan, besogain errotsutik bialduaz, eta txistuka joan zan biribilla; baita oldarrean be guro, feazitarrak, arraun luzeak erabilli daroezan itxastar argiak, lurrerantza makur-azi ziran eta. Kurpillak, eskuak askatu ebanetik azkar, tiro-marra guztien ezaugarriak gaiñezkatu ebazan. Eta Atene'k, gizaki iruditua, egokion ezaugarria ipiñi ta onela esan eutsen:

201 Atene.—Itsu batek be, oi arrotz!, bereiziko leuke aztamuka, gen-gen, zure kolpearean ezaugarria, ez dago ba beste askoren artean nastauta, askotaz aruntzago baiño. Jaku one-

tan, egon nasai, feaziar bat be ez da elduko zure kolpera, ta berau igarotera askoz gitxiago.

206 Onan itz-egin eban. Pozez bete zan Odis jainkoti eroapentsua, jokuen barruti barne, lagun onbera bategaz aurkitu zalako. Orduan esan eutsen feazitarrai, abots leunagoarekin:

210 Odis.—Saia, gazteok, ezaugarri ontaraiño eltzen, eta begira nago beste kurpil bat laster ain urrin edo-ta urriñago bialtzeko. Eta gaiñerako jokuetan, biotzak ortara eragin eta bere indarrak nigaz neurtu nai dabezana, betor ona (bizi-bizi sumindu nozuen ezker), ukabilka, auzka naiz lasterka, ba, feaziar bati be, neure ostalari dan Laodamante berari izan ezik, ez dautsat ezetzik emongo: nok burukatuko leuke etxean biotz zabalez artu zagiazanaz? Buru-arin zitala da, lur arrotzean erbestetar lez artu dauanari jokuetan zirikatzea, orrela egiñaz bere buruari kalte dagitso-ta. Gaiñerakoai buruz ez dot bat bere baztertzen ez ezesten; nik denak ezagutu gogo ditut, eta danakaz neure indarrak bekoz-beko neurtazi; gizasemeen artean oitzen diran jokuetan, ba, ez naz ni iñolaz be geldo, deuz-eza. Ba dakit uztai dizditsua ederto erabilten, eta gudari bat, etsaitaldearen aurka bota ezker, neuk zauritu baietz aurrenengo, neure alboan geziz erasoka lagun-aldra aundia ba'neuko be. An, troiar errian, akeutarrok gezia erabilli oi genduanean, Filoktete'k bakar-bakarrik irabazi al izaten eustan; baiña, neuk dirautzuet, beste guztiai, gaur munduan bizi ta ogia jan dagien ilkorrai, alde aundia atera baietz, illezkorrakin be uztaiiaz leiatzen ziran gizaki areikaz (ez Herakle'gaz, ez Ekali'ko Eurito 'gaz) ez nintzake, ba, azartuko autsak batzen. Orixegaitik zan Eurito gazte zalarik eta etzan iritxi zartzarora bere jauregian: Apol'ek il eban, asarre uztaiiaz tiratzera eup-egin eutso-lako. Lantzaz, oster, beste batek gezi bat be botako ez leukean tokiraiño eldu zan. Arin egiten bakar-bakarrik duda-muda izango neuke feazitarren batek irabaziko ete leuskidan bear bada, negargarriro erabilli ta ondatua itxi ninduen itxasoko uin-baga biurriak, ez neban beti zer-janik be izan, eta gorputz-atalak, jakiña, indargetu ta aul-eraziak daukadaz.

242 Orrela mintzatu zan. Mutu ta ixil geratu ziran danak. Alkinoo'k bakarrik erantzun eutsan:

244 Alkinoo.—Arrotz! Ez dauskue gogait eragin zure itzak, eurokaz ba daukazun kemena adierazo nai izan dauskuzu, gizon orrek joku-leku barruan gogor artu zindulako

asarre, zentzunezko eritxia dauan ilkor batek be zure bipil-izateari akatsik ipiñiko ez leukiola nunbait. Baiña orain, entzun adi-adi nik diñotzudana, zeure etxean zagozanean, zeure emazte ta seme-alabakaz jaten, gogora ekarri daizuzan gure modu ta ganorak, baita edestu be beste gizurenen bati, zelako egiñenak izentau euskuzan Zeus'ek, geure asabaengandik. Ez gara ukabilkari ez auzkari akar-eziñak, ibiltan oso bizkorrak eta itxasontziak artezten, moldatzen gaiñ-gaiñekoak baiño; eta betidanik yakuz atsegin jan-edanak, kitara, dantzak, soiñeko garbiak, baiñu beroak eta oia. Baiña, ia, feaziar dantzariak, urten errimeenok dantzara, arrotz onek, bere lurrera biurtzean, autor dagitsen bere adiskideai, zenbatetan irabazten dautsegun gaiñetiko gizasemeei, itxas-gauze tan, lasterka, dantzan eta kantuan. Eta beioa norbait gure jauregian geratu zan kitara billa, ta ekar beio bizkor Demodoko'ri.

262 Orrela esan eutsen jainko-antzeko Alkinoo'k, Ots-egillea jagi ta erregeren jauregira joan zan kitara billa. Bederatzi epailariak be jagi ziran, uritarren artetik aukeratuak eta jokuen gorabera guztia zaintzen ebenak. Biurtu zan ots-egillea, kitara doiñutsua Demodoko'ri ekarriaz; au guztien erdian egokitu zan, eta gazte trebeak, dantza biran, aren ingurumari jarririk, azpi jainkozkoa zanpatu eben oin-bizkor. Odis'ek, arri ta zur, ikusi ta miresten zituan areik oiñakaz egiten zituen bira, irra ta zirkin arin lilluragarriak,

273 Bertsolaria alan be, kitara joaz, Ares ta burestun ederdun Afrodita'ren arteko maite-miñak guztiz leun abesten asi zan: zelan alkartu ziran lenengoz Hefestu'ren etxean ixilostuka, eta ak zelan egin ebazan esku-erakutsi asko, ta azkenik zelan loitu eban jainko gurenaren ezkon-ogea. Eguzkia, maite-aldi ori ikusirik, beingoan joan zan flefestu'ri esaten; eta onek, albiste zaurikor a arturik, kako-mako baltzetan ari-mea, bere sutegira joan, piko gaiñean ingude izugarria ipiñi ta ari ausi-eziñak landu ebazan, izten zituan tokian banandu barik sendo iraun egien. Ares'en aurka suak artuta apapu ta xedera au moldatu ondoren, arek bere oia eukan gelara joan eta ariak zabaldu zituan biraka ta aiaren anka inguru ta age-tatik dingilizka, iñok ikusi al ezindako amaraun ari meak bai litzan; ezta, jainko zori ontsuak be ez ebezan ikusiko, ain antzetsu bait zituan arek moldatu. Sare-arte a oe-biran lotutea egin ebanekoxe, Lemnos'era joialakoa egin eban, uri ederto

eregia, beretzat lurralde danetako atsegiñena. Ares, oster, urrezko burdi-e-deak darabillezana, ez egoan alperrik zelatean; eta Hefesto'k, esku-langille argia, urrinduz joala ikustean, jainko bikain onen jauregirantz jo eban, Kitere, koro ederdunagazko maitasunaren gose ta miguru. Afrodita, Kronion bere aita altsuarenetik asko etzala etorria, jarrita aurkitzen zan; eta Ares'ek, etxean sartu ta eskutik oraturik, esan eutson: «Goazan ogera, ene laztan, eta etzun gaitezan bertan; Hefesto dagoneko ez da gure artean idoroten, Lemnos'era ta izkuntz basatia daben sentitarrengana joan yaku bear bada». Autor au egin eutson; eta ondo iruditu yakon emakumeari ogeratzea. Biak sartu ziran ogean, eta euren biran edatu ziran Hefesto zuurrareri lokarri sotillak, areik euren soin-atalatik bat bera ez mugi ez jaso ezindako eran edatu be; eta orduan igarri eben ez eukoela iges egiteko modurik, ez biderik. Asko luzatu bage aurkeztu yaken oin bietatik Erren zan gizaki argia, zeletan egoan Eguzkia iragartera joan yakolako, Lemnos lurraldera eldu orduko itzuli zan eta. Biotz aul eta its bere etxera zuzendu, ate aurrean geratu ta, asarre sumiñetan, deadar egin eban, oso izukor, jainko guztiak entzuteko eran: «Zeus aita, jainko zoruntsu ta betikorrok! Zatoze gauza zirtzil eta jasan-eziñok ikustera: Afrodita, Zeus'en alabak, niri, erren nazan oni, ixeka dagist unero, Ares gaiztoa maite izanik; onek galanta dala, oiñak osasuntsu daukazalako, ni oster meko jaio nintzan; baiña orren errurik ez dau iñok neure gurasoak ezik, oneik ez ninduen ba sortu bear. Ba-dakusazue zelan etzun diran neure oian eta lo dagoz maiteki alkaturik, ni barriz atsekabe aunditan ori ikusita. Baiña, asko mate ba'dira be, ez dot uste orrela etzutea luzerorakoa izango danik: laster gurako dabe biak ez lo egin, alan be lokarri maltzurak ondo eutsiko dautse, aita bere alaba lotsagaldugaitik emon neutsan ezkontzaria oso-osorik biurtu dagidan arte. Au ederra dala, baiña ez daki naiak egiten». Orrela mintzatu zan; eta jainkoak batzartu ziran borontzezko azpia daukan egoitzean. Aratu zan Posidon, lurra besarkatzen dauana; an aurkeztu zan Hermes ongillea be; ara eldu zan erabat Apol goitarra, urrundik zauritu oi dauana. Jainkosak, lotsaz, etxean geratu ziran. Atarian gelditu ziran jainkoak, ondasunak emon oi dabezanak; eta irripar ezin-itzungia jagi zan goitar zoriontsuen artean Hefesto asmotsuaren sare-arte ikusiaz. Euren arteko batek au esan eutson, urren eukari: «Egite txarrak ez dabe gora egiten, eta motelenak azkarre-

nari aurea artzen, Orain Hefesto'k, esaterako, erren eta as-
titsu danak, Ares, Olinpo daukien jainkoetatik azkarrena, bere
amarru-ariz giltzapetu dausku, eta jakiña, Ares'ek ordaindu
bearko dautso ezkontz-austeari zor yakon diru-zigorra». Onda
mintzo ziran oneik, Apol goienak, orraitioño, Zeus'en semeak,
era onetan itz-egin eutson Hermes'i: «Ilermes, Zeus'en seme,
mezulari, on banatzaille! Gurako zeunke, lokarri sendoetan
atxillo, Afrodita urrezkoagaz oian lo egin?». Argifonte mezu-
lariak erantzun: «Zuk esana gertatuko ba'litz, o Apol goien,
urrundik zauritu oi duzuna! Lokarri aska-eziñezko iru izurrez
estaldu ba'nengie, ta zuok jainkuok eta jainkosa guztiak be niri
begira egon, ez leuskit ezer, nik Afrodita zuriaz lo ba'nengi!». Onela autortu eban; eta barriro be barre-karkara zabaldu zan
jainko illezkorren artean. Posidon'ek, alan be, ez eban barre-
rik egiten, Hefesto, esku-langille argiari, Ares aske itxi egiala,
atseden barik eskatu baiño. Itz arin oneik ebagiaz, esaten
eutson; «Aska egizu, nik bada agintzen dautzut ordainduko
dauala, nai dozunez, jainko illezkorren artean bidezko dana». Oin bietatik Erren zanak erantzun eutson, orduan: «Ez, ez egi-
dazu olako gauzarik agindu, o Posielon, lurra besarkatzen do-
zun orrek, txarrak bait cura dongak aurreratutako zurtasun-
oarrak, Zelan nik premiatu zengikedaz jainko illezkorren aurre-
an, Ares'ek, aske ta lokarri bage, zorra ordaintzea ukatuko
ba'leust?». Lurra astindu oi dauan Posidon'ek erantzun: «Ares
igeska ba'lhoa, zorra ordaindu naiezta, neuk ordainduko dautzut
dan-dana». Oin bietatik Erren zanak jardetsi: «Eziña cia, ezta
elitzateke egoki be, eskatzen dozuna ukatzea». Au esanaz, He-
festo'ren inlarrak lokiak eten eutsezan. Areik, egiaz sencloak
ziran lokietatik euren buruak aske ikusirik, jagi ziran luzatu
barik eta beraTrazi'ra joan zan eta Afrodita irribera Txipre ta
Paos'era. emen daukaz ba oian bat eta altara usaindua; antxe
Eskerrak ikuzi eben, jainko betikorrai edertasuna damotsen
jainko-orioz igurtzi ta ikusleak oro txunditurik izten ebezan
soiñeko dotoreak ipiñi eutsoezan.

369 Auxe zan aedo entzutetsuak abesten ebana, eta po-
zarren egozan Odis ta feaziar ítxaslari izen andiko, arraun lu-
zeak erabilli oi dabezanak.

370 Alkinoo'ren aginduz, ondoren, Halio'k eta Laoda-
mante'k bakarrik dantzan egin eben, oneikin neurtzekorik ez
egoan iñor be ta. Itzetik ortzera, purpur kolorezko pelota polit

bat, Polibo erneak egiña nunbait, eskuetan artu eben; eta bata, atzerantza egiñik, odei illunetara jaurtzen eban, eta besteak, jauzi bat emonez, aise artzen eban bere oiñekaz barriro azpia ikutu aurretik. Pelotea artez jaurtzen saioa egin ostean, dantzari ekin eutsen lur-gaiñ jorian, sarri txandaturik. Joku-leku-ko beste gazteak bero-bero txalotu ebezan, azkenez oiù-ots galanta sortuz. Odis jainkotiak orduan Alkinoo'ri itz-egin eutson onela:

384 Odis.—Alkinoo errege, uritar guztietan argiena! Zuen dantzariak txit bikain dirala erakutsiko zeustala agindu eustazun, eta bete dozu agindua. Arri ta konkorrrik naukazu eurok ikusita.

386 Onela mintzatu zan. Poztu zan Alkinoo'ren nausitza donea, ta beingo baten onan mintzatu yaken feaziar, arraun-zaleai:

388 Alkinoo,—Entzun, feaziar gudalburu ta printzeak! Oso buruduna iruditzen yat arrotza. Ea, ba, eskiñi daioguzan arrotz-maitasunari zor yakozan doiak, egoki da-ta. Amabi erre-gck jaurri daroazue printzeak bezela erri osoa, eta ni nozue amairugarren: bekar bakotxak soingaiñeko bat, txabuxa bat eta urre bikaiñezko talentu bat; eta goazan guztiok batera arrotzari eroaten, bere eskuetan artu ta ikusiz, aparitara biotz-alai etorri dakigun. Eurial be, itz gozoz ta bezuzaz, a bake-azten saiatu bei, taiu egokian etzan mintzatu ta.

398 Orrela itz-egin eutsen. Danen txaloak, eta esana egi biurtzeko, bakotxak bere ots-egillea bialdu eban, esku-erakutsiak ekarri egitsezan. Eta Eurial'ek gisa onetan erantzun eban:

401 Eurial.—Alkinoo errege, uritar guztietan argiena! Nik bake-azoko dot arrotza, agintzen daustazunez, eta borontzezko ezpata au emongo dautsat, zidarrezko eskutxandoguna ta bere biran marfil ebagi barrizko leka bat. Bezuza ederra, ziñez, ola-ko gizasemeari dagokiona.

406 Onela esanaz, Odis'en eskuetan jarri eban zidar-untzez onnidutako ezpatea itz ariñok ebagiz:

409 Eurial.—Agur zuri, arrotz aita! Nire solasen batek naigabetu ba'zinduz, croan beiz alik ariñen zirimol oldartsuak. Eta emon beitzue jainkotasunak zeure aberrira biurtu ta zeure emaztea barriro be ikustea, luzaro zabiltz-eta zeuretarrengandik urrin neke-min gorriak ikusten,

414 Odis asmotsuak erantzun:

415 Odis.—Agur beroak damotzudaz zuri be, adiskide! Jainkoak egin daizuela zuri be zoriona, eta ez daízula sekula be, zeure itzokaz bake-azo nozun ezker, doe lez damostazun ezpata orren uts-aierrik izan.

419 Onela esan eban; eta lepora bota eban zidar-untzez ornidutako ezpata a. Eguzkia sartu zaneko, Odis'ek bere aurrean eukazan bezuza bikaiñak. Ots-egille argiak Alkinoo'ren etxebarruan moltzotu ebezan, euren arduradun errege gurenaren grimumak egiñik, oneik oster a euren ama agurgarria egoan lekura eroan ebezan esku-erakutsi guztiz zardaiñak. Danak itzuli ziran jauregira, Alkinoo'ren nausitza donea aurretik zala, ta jarleku eraikietan jesarri ziran, Orduan Alkinoo altsuak esan eutson Arete'ri:

428 Alkinoo.—Ekarzu, emakume, kaxa eder-eder bat, dagonik onena; eta sartu bertantxe soingaiñeko ondo ikuzi bat eta txabuxa bat. Jar sutan borontzezko galdara bat, berotu ura arrotza garbitu daiten, eta, feaziar yaukalak oraintxe ekarri dautsoezan atsegin-emoiak saillean ipiñita ikusirik, erabat poztu dedin jan-edatez eta bertsolariaren kantuz. Nik neure urrezko txol bikain-bikaiña emongo dautsat egunero ni gogoratu nagian Zeus'i ta beste jainkoai, bere etxean, ixurketak egiterakoan.

437 Ola mintzatu zan. Arete'k agindu eutsen neskameai beingoan jarri egiela baiñuetarako zan iru-oiñeko krispiña, ura bota galdarara ta, egurra baturik, su emon eutsoen azpitik. Su-lanboak laster esitu eben galdarearen sabela, ta berotu zan ura. Arete'k tartean atera eban bere etzangutik kutxa guztiz eder bat eta bertan ipiñi ebazan doe galantak —jantziak eta urrea—, feazíarrak ekarritakoak, eta orrez gaiñera soingaiñekoa ta txabuxa. Eta aidan gizurenari itz-egin eutson, mintzoera ariñean:

446 Arete.—Azter eizu zerorrek estalkia ta emon bereala korapilloa; zeozer ostu ez dagizuen bidean, itxas-ontzi baltzean lo gozoaren besoetan aurkitu zaizaneakoan.

450 Odis jainkoti eroapentsuak, itzok entzun ebazaneke, estalkia bere lekuan egokitu ta Kirke agurgarriak erakutsi korapillo naasia egin eutson. Jaki-zaiñak jarraian ur-aska baten baiñu artzen joan zedilla esan eutson; eta Odis'ek atsegin aundiz artu eban ur berozko baiñua, ez eutson ba ardura aundirik emon

bere gorputzari Kalipso'enetik aldendu zan ezkeru; adats eder-
dun aren egoitzean, bada, beti egon zan jainko bat legez zain-
duta. Ikuzia dagoneko ta orioz neskameak igurtzita, oneik jantzi
eutsoezan soingaiñeko ta txabuxa ederragaz, urten eta an ego-
zan gizaseme ardao-edaleakana zuzendu zan; Nausikaa'k, orrai-
tiño, jainkoak edertasunez jantzi ebenak, sapai sendo eregitaé
koari eusten eutson zutoin aurrean geldi, Odis'i begiak zorroz-
tean txundituta, itz arin oneik esan eutsozan:

464 Nausikaa.—Agur, arrotz!, noizbait, itzuliz zeure abe-
rrian aurkitzen zareanean, nitaz gomuta zaitezana; neuri zor
daustazu, ba, inori baiño leen zeure biziaren jarein-ordaiña.

468 Odis asmotsuak ari:

469 Odis.—Nausikaa, Alkinoo biotz-onaren alaba! Egin
beist Zeus'ek, Hera'ren senar burrunbariak, nik neure etxera
eldu ta ikus daidala neure biurpenaren eguna; an oles egingo
dautzut egunero, jainkosa bati lez, zeu izan zintzazana, ba, nesé
kuts, ni bizirik atera ninduzuna.

474 Au esan eban, eta Alkinoo erregearen ondora urre-
ratu zan ezartera, jan-izkiak banandu ta ardoa nastu-azten ebi-
tzalarik. Ots-egillea jenteak aomen anditan eukon Demodoko
aedo maitagarriaz aurkeztu zan, eta deitutakoan erdian jarri-ezo
eban, zutoin bikaiñari eutsola. Odis asmotsuak orduan, ortz
zuridun txarri-bizkarretik, oindiño naikoa geratzen zanetik koipe
ugariz estalitako zati eder bat ebagirik, onan itz-egin eutson
ots-egilleari:

483 Odis.—Ots-egille! Artu ta eroan eiozu eragi au De-
modoko'ri, jan dagian, atsekabeturik nagoan arren, olantxe zer-
bitzu egin opa dausat eta; bertsolariai, bada, nun-nai gora-
tzarrea ta omena eskiñi oi dautse gizaseme lurtarrak, Musa'k
kantua erakutsi ta maite dauzalako danak.

438 Orrela esan eban; eta ots-ezillcak Demodoko gizure-
nari eskuetan jarri eutson aragia; aedoari, barriz, au artzera-
koan, gogoa poztasunez gaiñezkatu yakon. Ontaz, guztiak aurre-
an eukezan janariai eskuak ezarri eutseezan. Eta jan-edateko
gurea asetu ebenean, Odis asmotsuak onan itz-egin eutson De-
modoko'ri:

494 Odis.—Demodoko! Beste edozein ilkorri baiño itz
geiago egin dagitzut, Musa'k, Zeus'en alabak, edo-ta Apol'ek
berak erakutsi bear izan dautzue, aren ederto abesten bai dozu

akeutarren zoria ta areik burutu, jasan eta igaro izan eben guztia, zeuk zerorrek an egonik, begiz ikusi edo areitarikoren bati edesten entzun izan ba'zeuntso lez. Baiña, ia, beste gai bat, Epeu'k Atene'ren laguntzaz moldaturiko egur-zaldia zelan erattuta egoan, abestu eiguzu; tramankulu maltzurra, Odis jainkotiak, Traia suntsitu eben gudariz bete ondoren, iri-garaira eroan ebana. Au kanta ba'dagizu bear bezela, nik gizaseme guztiai esango dautset jainko onbera batek emonda daukazula jainkozko kantua.

507 Ola mintzatu zan; eta aedoak, jainkozko oldarrak joa, kantu eder bat asi eban: argibutarrak, curen tosta askoko ontzietan, itxasora egin ebela, guclaltegiari su emon ondoren, beste batzuk Odis'ekin batera, iri-garairaiño eurak narras croan eben zaldian gordeta, teukrotarren batzartegian aurkitzen ziran artean. Zutik egoan ta teukrotarrak, aren inguruan jarrita, errazoi nastuak jarten ebezan, eta zalantzan ebiltzan iru eritxi oneitatie zein aukeratu ez ekiela: egur arroa borontze zakarrez zulatu, goi batera jaso ta andik beera jaurti, ala itxurapen eskergea jainkoak bake-azteko opari lez laga; azken erabagi au nabarmendu zan, ezinbestekoa zan bada uriaren ondamena, zurezko zaldi eskerga arek, orrela uste zan, teukrotarrai sarraskia ta eriotza eurrez ekarri. bear eutsen argibotarrik kementsuenak barruan izatekotan. Kanta kantari ekion, akeutarrak, zalditik urten eta iruzur utsala lagarik, zelan austu eben uria; abestu eban baita, zelan, batzuk alde batetik eta besteak bestetik sakabanaturik, uni bikaiña suntsituaz joiazan; Odis'ek, Ares bai litzan, Deifobo'ren etxerako bide artzen eban, jainkc-antzeko Menclau'rekin batean. Azkenez abestu eban arek zelan euki eban burrukaldi ikaragarri bat, eta garaille gertatu zala bertan, Atene onberari esker,

530 Auxe ízan zan bertsolari gurenak abestua; aitzen egoan tartean Odis, betazalak negar-jario ta matraillak malkoz. Ona emakume bat: uria ta bertakoak egun ankerretik jagon eitezan, guda zitalean jausi yakon senarra bere erri ta erritarren aurrean, eta au pilpilka ta il-agiñik ikustean, gaiñean jarrí ta beso biekaz oraturik, intziri zoliak emoten ditu; etsaiak, alan be, aren arruki bage, zikaiz joten dabe lepoan eta sorbaldetan, neke-lor eta ezbear geiago jasan dagian: alako emaztekiari oiñaze errukitsutan erre oi yakoz matraillak; Odis be orrelaxe egoan begietatik negar-jaro, errukia emoten ebala. Iñor

be etzan oartu negar-ixurtzez, Alkinoo ezik; au hai, aten alboan jarrita cgoan eta, oartu ta konturatu zan, baita aren zorin-ciagora ta zizpuru zoliak entzun be. Eta bertatik mintzatu yaken feaziar arraun-zaleai:

546 Alkinoo.—Entzun, arren, feaziar gudalhuru ta printheok! Itxi bei Demodoko'k bere kitara jotea, kantatzen dauana bear hada ez yake atsegin entzule guztiai eta. Aparitan asi ta aedo jainkotia jagi zanetik, negar mingotsetan daukagu arrotza: naigaheen hatek joa dauko ausaz arimea. Baiña, tira, bego ixillik a, guztiok poz-alaitu gaitezana, arrotzaren ostatuemoilleak lez arrotza bera be; egin daitekenik onena auxe da nunbait, arrotz agurgarriagaitik atondu dira ba gauza oneik, txera-erakusburutzat egin daioguzan emoiak, eta biderako laguntasuna. Anai lez artu hear dauz arrotza ta eskalea zentzun apur bat daukanakr Orrela, zeuk be, ez dozu ixildu hear, asmo maltzurrez bear bada, itaunduko dautzudana; bai, iragarri egiguzu. Esaidazu an aitak eta amak, dei egiñez, esaten eutzuen izena, bardin uriko biztanleak eta ingurumariko auzokoak; gizaseme guztiak, ha, onak naiz dongak, jaiotzatik euki oi dau bakotxak berea, gurasoak sortzen dabezan danai jarri oi dautse ta. Izenta eidazu baita zeure erria, ta uria, gure ontziak, zure erabagia zintzo hete nai dahren ezkerro, araxe zuzendu zagiezan; feaziarren artean ez dago lemazaiñik, eta euren ontziak be ez daukazuz beste itxas-ontzien antzera endaitzez orniduta, eurak ha-dakiez ba gizasemeen asmo ta gurariak, eza gutzen dabez eskualde guztietako uriak eta solo emokorrak, itxas-osiña bizkor zearkatzen dabe, edozein lurrun-ontzik naiz ganduk estalduta egon arren, eta ez dabe izan oi kalterik artzeko ez galtzeko bildurrik; alan be nik neure aita Nausi-too'ri entzuna dot, Posidon'ek begi txarrez ikusi oi gaitula, giza-mota guztiak ezeren kalte barik eroaten doguzalako; baita iñoiz esan eban jainkoak ondatuko ebalu egunen baten osin baltzean feazitarren ontzi ondo eraiki bat, norbait croan eta menditzar bategaz estalduko ebalu uriaren ikuspegia. Onela iñoan agureak; baiña jainkoak ori beteko dau ala ez, betaz eta oldean zelan dagoan. Tira, mintza zaite ta esaidazu zeatzmeatz nundik nora ihilli ziñan galduta, nundiko lurraldeetara eldu ziñan, eurentan ze jente-moclu ta zelako uri aziak egozan; baita esaidazu zeintzuk gizan ziran odol-zaleak, basatiak eta zuzen-ezak, eta zeintzuk arrotz-maitaleak eta jainkoen bildur ziranak. Esaidazu zer dala-ta negar dagizun, barru-barruko ziz-

puru zoliz, argibutarren, danaotarren eta Ilion'en zoriaren
kontaera entzunik. Gizaseme arein eriotza erabagi eben jain-
koak emona da, etorteko ziranak kantu-gaia izan egien. Seni-
tartekoren bat galdu zenduan Ilion aurrean, zure suin argia
edo-ta zeure aitagiñarreba, bear bada, odolez eta etorkiz lo-
karrituta daukaguzan pertsonen ondoren, onetxek bai yakuz
kutunenak? Ala lagun saiatu ta atsegiñen bat izan zan, ausaz,
zuurtasunez jantzitako laguna anai bat baiño gitxiago ez dan
ezkero?

IX KANTUA

noo'ri esanak. - Kiklope

Odis asmotsuak erantzun eutson:

2 Odis.—Alkinoo errege, uritar guztietan argiena! Gauza txairoa da, izan be, au lako aedo bati, goitar baten taiuko abotsa dauanari entzutea. Gauza zoragarriagorik dagoanik, ez dot uste, erri osoa pozik ikustea baiño, ezta maikideak, ogi ta aragiz ornidutako mai aurrean sailka jarrita, ardo-banatzailleak ontzi sakonetatik ardaoa atara ta txoletan jauregiko bakotxari ixuriten dautsola ikustea lakorik be. Onako jaikizuna eder ikusgarria iruditzen yat. Baiña onek biotza eragin dautzu ta nik neure zoritxar negargarriak edestea nai dozu, nik oindiño negar geiago egin dagidan, antzi-zotin zolia-goak emonez. Zer gauza esango dautzut aurrenik, eta zer azkenengo lekuan, zerutar jainkoak bialdu eustezan alditxar eta zori-gogorrak ainbeste izanik? Lenen-lenen, neure izena jakiñerazo nai dautzuet, jakin daizuen eta aurrerantzean, ni, egun ankerretik jareña izan ondoren, zeuen arrotz izan naiten, oso urruti dagoan etxe baten ni bizi arren. Odis nozue, Laerte'ren semea, guztiz ezaguna gizonen artean, era guztitako neure eskernio ta maltzurkeriakaitik batez be; alan eta guzti, nire aintza zeruraiño eltzen da. Itaka'n bizi naz, urrin ikusten dan uri aretan: bertan dago Nerito mendia, ostotsu ta eder-ederra, eta aren biran uarte asko dagoz alkarren ur-samar, Duliki, Same ta Zazinto oiantsua, adibidez. Itxasoz gaiñ ez da asko jagiten Itaka, Sarkaldetik azkenengo dagoana da (enparauak, zerbait urrintxuago, Sortalde ta Eguerdirantza makurtzen dira), latza da, baiña mutiko bipillen azle galanta; nik ezin daiket aurkitu neure aberria baiño bikaiñagoa daitekenik. Antxe euki nindun Kalipso'k, jainkoen artean jainkosa danak, arpe arroetan noski, senartzat neu artu nairik; Eea'ko Kirke amarrutsuak be erabat bere jauregian artu ninduen aurrerago, onek be ni bere senar izatea opa ebalarik; ez arek ez onek ez eben jaritsi nire barrua

ortara jarterik. Aberria ta gurasoak baiño sumarragorik ez dago, etxe aberats baten bizi izanda be, baiña urruti, erbestean, areikandik baztertua. Baiña neure itzulia edestuko dautzut, neke-lorrez betea, Troia'tik urten nintzanetik Zeus'ek agindu eustana.

38 «Ilion'dik abiatuturik, aizeak eroan nindun zikondarren eskuaklera, Ismaro'ra; ebatsi ta bipildu neban uria, erail neban ango gizasemeak eta, emakumak eta onclusun ugariak artuaz, alkarrekin banandu gendun dana, iñortxo be bere arrapakin-zati barik joan ez citen. Lagunai esan neutsen, arren bai arren, andik arrapaladan urrindu bear genduala, baiña burugorri ta txolin areik ez custen jaramonik egin. Ardaotan itoak, ardiak eta aclar-biurridun idi zango-malguak ugari ilten ondartzan ziarduelarik, zikondarrak inguruko beste zikondar talde batzuei dei egiten joan ziran; oneik geiago ziran eta indartsuagoak, cskualde barruan bizi ziran eta gizonakaz zaldizko burrukatzen ekien, baita oiñez be bearrizanik ba'zan. Uclabarrian jaio oi diran orriak eta lorak beste etorri ziran goizean; eta aurreratu yakun guri, errukarriok!, gaitzik ugari jasan gengian Zeus'ek erabagi euskun zori kaltegarria. Gertatu ziran burrukarako, ontzi ariñen ondoan gudakatu bear zan, alkar zauritu oi genduan borontzezko igunakaz. Goizean eta egun donearen argia geituz joan zan bitartean, jarki ta aren erasoaldiari agiñak erakutsi al izan geuntsezan, areik gu baiño geiago izan arren. Baiña gero, eguzkiak sartzalderantz egin, ebanean, zikondarrak suntsitu ebezan akeutarrak, oneik igesari emonik. Ontzi bakotxetik sei lagun, zangobabes ederdun galdu genduzan; besteok onez atera gintzazan eriotik eta adutik.

63 «Andik aurrera egin genduan biotzak itun, lagun batzuk galduagaitik arrisku aretatik pozez igeska. Ez genduzan, alan be, ontzi makurrak igitu, zikondarrak zaurituta negar illetazkoan bizia amaitu eben lagun errukarri bakoxtari iru aldiz dei egin bagarik. Laiñoak moltzotzen dituan Zeus'ek, Borea aizea jagi-azo eban ontzien aurka, ta ekaitz zakarrak odeiganduz estali eban dana, lur ta ur; ta gaua jatxi zan goitik. Ontziak zearka joiazan, zanbulu ta draustadaka; aize-biurriak irulau zatitan urratu ebazan oialak. Orduan nasaitu ta erria genduzan, geurc ondamendiaren bildur gintzazan egotez, beti etzunik, egun bi ta gau bitan, nekeak eta oiñazeak barrua ozkatzen euskuelarik. Baiña, adats politezko Egu-antzak irugarren eguna

eskiñi euskuneko, mastak jarri, oial zuriak edatu ta itxas-ontzietan jarri giñean: aizeak eta lemazaiñak eroiezan oneik. Eta bizirik eta onik elduko nintzan sorterrira, olatu-tiraiñak eta Borea'k, Malea muturra igarotzean bidetik oker-azo ninduenak, Zitera'tik urrun arat-onat ibiltan beartu ez ba'nindue.

84 «Andik aize kaltegarriak eroan ninduen bederatzi egunez, arraiñetan ugaria dan ur-potzu aundian zear; eta amargarrenean, jaki loretsuz alikatzen díran lotojaleen lurrera eldu gintzazan. Lur artu, ontziak egokitu ta lagunak laster asi ziran jalen oial-ontzien aldamenen. Janariak artu ta edaria txastatu ondoren, lagun batzuk (aukeratu nituan aundiki bi ta otsegille bat arei laguntzeko) bialdu nebazan, lurralde atan zeintzuk gizakik ogia jan eroien, jakin egien. Beingo baten joanik, lotojaleakaz alkartu ziran; oneik ez eben, ain zuzen, gure adiskideen ondamenclirik matazatu; baiña lotua emon eutsen jaten, eta igali au, ezta baizen gozoa, txastatzen eben guztiak ez eben geiago biurtu gura, ezta izparrik eroan be; bestera, lotojaleakaz bizi nai eben, lotua janik, eta aberrira itzultzeaz gomuta bage. Nik, alan be, indarrez croan nebazan ontzi sakonetara; negar egiñagaitik, tatarrez eroan ta tostapean lotu-azo nituan. Eta beste lagun zintzoak sartu eitezala, aginclu neban, arin be arin ontzi bizkorretan, oneitatik be bateren batek lotua jan eta biurpenari uko egingo ete eutson bildurrez. Bertatik egin eusten esandakoa, ta, tostetan sailka jarriaz, itxas apartsua jotzen asi ziran arraunakin.

106 «Atinen jarraitu genduan gogo miñetan, kiklope arroputz eta lege bakoien lurraldera eldu arteño; oneik, jainko illezkorregan sendo dagozala, ez dabe zugatzik landatzen, ez solorik aratzen, bestera dana erneten yake azi ta goldaketa barrik (gana, garagarra ta morda aundietan ardaoa dakarren mats-aienak), Zeuz'ek bialdutako euriaz azi ta ugaritu-azorik. Ez daukie batzargauzak ebazteko batzarlekurik, ezta legerik be, eta mendi garaietan bizi dira, arpeetan egiñiko zuloetan gorderik; bakotxak bere emazte ta seme-alabai agintzen dautse, eta batzuk besteen zeregiñetan ez dira sartzen.

117 «Kai aurrean, kiklopeen lurraldetik ez ur, ez urrin, zugatzez jantzitako izaro bat dago, basauntzez bete-betea; ez ditu, ha, iñungo gizonak uxatzen, ezta be, ara ez doaz mendi gaillurretan oianak zearkatuz nekatzen diran eiztariak. An ez da ikusten artalderik, ez lur-sail landurik; lurra beti dago gol-

datu ta erein barik, an ez dabil gizonik, eta auntzetan aberatsa da. Kiklopeak, beraz, ez daukie aurre-alde gorridun ontzirik, ezta ez daukie esku-langillerik be tosta askodunik antolatzeko (gizasemeak, batzuk besteen billa, itxasoz, sarri-askotan egin oi dabezan osteretan, ango ta emengo uni ta errietara saleroskiak eroaten dabezanen antzekoak, ain zuzen); oneik egingo eben, ziur asko, izaro a jentez ugaritzea, ez da ba txarra ta mota guztitako igaliak ekarri leikez bere garaian, itxas apartsu ondoan landa ezko ta samurrak bait daukez, eta an ez litzateke maatsik iñoiz be galduko. Barrualdea laua da, ta lankizun; garai egokin, beraz, lur-zoru guria da-ta, ereintza galantak itaitu leikezan. Kai eroso dauko ugarteak, eta emen ez da bear lokirik, ez dago aingura bota bearrik be, ez soka lotzerik; kairatu ezker, bada, an ezeren galzori bage, barriro be itxasoratzeko mariñelen gogoak biztu ta aizeak arnas-emon artean. Kai-buruan iturri bat sortzen da, ur gardena damoana, arpe baten abaroan, lertxun aziak inguramari ditula, Araxe, ba, eroan ginduezan gure ontziak, eta ezertxo be ikusten ez gendun gau aretan jainkoren batek zuzendu ginduzan, lai-iioa bada txit naasia zan ontzi inguruan, eta illargiak be ez eban zeruan ditzitzen, odei-erru baltzak estaldurik eukon eta. Iñok ez eban jo begiz ugarte, ezta lur-ertzean apurtzen ziran olatu eskergak be, tosta askodun ontziak ertzeratu ziran arte. Orduan oial guztiak batu, itxas-egalera zapart egín eta, loari berea emonik, jainkozko Egunsentia agertu zedin, zain egon giñean.

151 «Goizaren alaba, atz larrosazkodun Egu-antza estalgetu zaneke, txit miretsirik ibilli giñan ugarte zear. Ontan maitagarriak, babeskia daroan Zeus'en umeak, basauntzak jagi-azo ebezan nire lagunak jan egien. Orduan berean, ontzie-tatik uztai makurrak eta erpin luzeko sastakaiak eskuraturik, iru taldetan banandu, tira tu ta berealakoan jainkotasun batek erreztu euskun eizaki ugaria. Amabi ziran jarraika etorkidazan ontziak eta bakotxari bederatzi auntz yatorkozan, neuretzat bakarrik amar gordeta. Arrezkero egun osoan, eguzkia sartu arte, egon giñan ezarrita, aragia eurrez janik eta ardao gozoa edan ta edan; ontzietan, bada, oraindiño etzan urritu mamagorria, zikondarren uri donea artzerakoan emendio ta ornialde galanta egín genduan murkoetan eta. An gengozala begiak zorroztu oi genduzan kiklopeen lurraldera; ur egozan

oneik, kea ikusten gendun, baita entzun be euren oiur ta dea-darrak, eta ardi ta auntzen beeak. Eguzkia sartu ta illundu zanean, itxas-egalean etzun giñan lotarako. Baiña, goizaren alaba, larrosazko atzdun Egu-antza estalgetu zaneokxe, batzar-rrera dei egin neutsen, errazoiok emonez:

172 «Odis.—Geratu emen, ene adiskide zintzuok, eta ni neure ontziaz eta lagunakaz ara joango naz, eta alegindu be bai areik zelako gizonak diran jakiten: suarrak, basatiak eta zuzen-ezak, ala arrotz-zale ta jainkoen bildurti diran jakin,

177 «Alan itz-egin nebanean, ontzira igonik, jarraitzeko esan neutsen lagunai, ta aska egizela lokarriak. Bertatik ziran. eta, tostean saillean jarritz, itxas apartsua astintzen asi ziran arraunakaz. Eta ur-samar egoan arako lurraldera elduaz, alderdi baten eta ozta-ozta itxasoa ikutzen arpe goren bat ikusi gendun, ereiñotz batzuk geriza egiten eutsoela: bertan egozan abaroan ardi ta auntz-talde aundiak, eta ingurumari aurkitzen zan arresi garai bat, arri-mokor lurrean ondo sartutakoakaz baita lerrondo aundiak eta adaburu jasoko arteak. Antxe bizi zan gizaki tantai bat, bakar-bakarrik, gaiñetik gizasemeakaz artu-emon barik, urrun, artaldeak zaintzen ardurutzen zana; eta, guztiengandik urrindua, gogoz gauza zirtzilletan murgilduta ebillen. Mamu izugarria zan eta ogiaz bizi diran gizonen antzik ez eukan, mendi garai artean beste gaillurretatik bakandua agertuko litzateken gain-kukutz oian-tsu batena baiño.

194 «Orduan izontzia zaintzen geratzeko, esan neutsen lagun zintzoai; eurretatik amabi onenak eta alkarregaz abiatu giñan, auntz-zaragi bat geugaz geroiala, Maron'ek, Ebante'ren muskil eta Apol'en jaupari, Ismaro'ko jainko jagoleak emon eustan ardao baltz gozoz beterik, jakiña; onez atera genduzan, ba, begirune aundiz, beta ta bere emazte ta seme-alabak, Peibo Apol'i eskiñitako basarte trinkoan bizi ziranak. Esku-erakutsi aberatsak egin eustazan Maron'ek, urre ondo landuzko zazpi talentu emon eustazan bada, zidarrezko suil andia ta amabi murko ardao, berak, bere emazteak eta jakizain batek ezik, bere morroi ta mirabeak be ezagutzen ez eben jainkozko edari gozo gardenez betea. Mamagorri au, ezta baizen leuna edeterakoan, onetiko txol bat ixuri oi eben urezko ogeitan, eta suil edo krateratik usain gozo jainkozkoa bait etorren, nekez itxiko eban bera edan barik iñortxok be. Ardao

onetik zaragi aundi bat neroian bete-beterik. eta janariak zakuto baten; lenengo unetik uste izan eban, ba, nire gogo zabalak gizonen bat aurkeztuko vakula, indar itzalezkoa, basatia ta zuzentasunean eta legeetan ez-jakiña.

214 «Laster eldu giñean arpera; baiña ez gendun bera an aurkitu, ardi guriak larratzen egoan eta. Sartu gintzazan bertan, eta zurturik, hanan-banan, bertako gauza guztiak ikuskatzen genduzan: zii ta mimenezko keretak, gaztaez beterik; kortak he, bildots eta aumez beterik, nausiak, erdikoak eta jaio-barriak curen okulluetan banazean ipiñita; erazteko erabilli oi ebazan ontzi, kaiku, kankarro ta terreñetatik gatzara erion eurrez. Lagunak asko erregutu ninduen gaztae batzuk artu ta andik alde egin bear gendula-ta; ondoren, oster, ardokitik atera bizkor-bizkor bildotsak eta aumeak eta, eurok oial-ontzira croanik, itxas zabalera egin bear gendukeala harriro be. Baiña ni ez nintzan arein esancra etorri (askoz obe izango zan arein onua bete ba'neu), gizaki a ikusi ta arrotzemoirik eskintzen ete eustan jakin naiean. Aren etorrera, orraitio, ez yaken txit atsegin izango nire lagunai.

230 «Sua egin genduan; jainkoai Oparia eskiñi ta gero, gaztae batzuk artu ta jan genduzan, eta aren zain egon gintzazan, arpean jarririk, abelgorri taldeaz biurtu zan arte. Egurxirpil sorta galanta ekarren bizkarrean bere jatekoa moldatzeko; sartzean, arpe barruan bota eban zarata ikaragarriaz, eta gu, bildurrez, meatz-zuloaren azkeneraio joan gintzazan astrapalada utsean. Gero, artzulo nasaian sartu ebazan eratzi bear zituan ardi gurintsu danak, aariak eta akerrak atean, orma aundidun gabesi barruan, itxirik. Ondoren atea zarratu eban, lau txirrinkako ogetahi burdi sendo lurretik zirkin eragiteko lain ez litzakezan eta berak pultsoan croan eban arritzar eskerge ta astunagaz. Orren aundia bai zan sarreran jarri eban arkaitza! Bereala ezarri ta ardiak eta auntz beelariak eratzi zituan, gauzeari dagokionez dana, ta baktxari bere kumea ipiñi eutson. Ordu hetera, esne zuriaren erdia mamindu-azo ostean, zumezko otzaratxoetan moltzotu eban, gaiñerakoa aparitan edateko zura batzuetan ixuriaz. Zeregin orreik laster amaiturik, sua biztu eban; gu ikusi ginduzanean, onela itaundu euskun:

250 «Polifemo.—Oi arrotzak! Nortzuk zarie? Nundik eldu zarie ona, itxasoz, bide ezkotu zear? Garatz-zurrian zato-

ze, ala itxasoz zabilte, jitoan, aruntz-onuntz dabiltzan itxas-lapurren antzera, euren bizia arriskuan jarriaz eta lur arrotzetako gizonai kaltea ekarririk?

255 «Odis.—Akeutarrak gara, era guztitako aizeak, Troia'tik urteieran, sakabanatu ginduezan eta orain itxas-leiza aundian zear garoiazenak: geure aberrira biurtu nairik, ona eldu gintzazan beste joera batez, beste bide batzuetatik, Zeus'ek orrela erabagi bear izan dau-ta. Agamenon Atrida'ren gudaraik gara; aren ospea,ba-dakizu, muga bagea da zerupearan (uri orren aundia suntsitu dau ta ainbat gizaseme galdu-azo!), eta zure belaunak besarkatzera gatoz, arrotz-txerak egin naiz-ta, atzerritik eldutakoen artean ekandua danez, beste esku-erakutsiren bat emon gura ba'zeunskuzu be. Lotsa izan, ba, jainkoaí, gizaki bikain orrek; gu gara orain zure eskaleak. Eta eskale ta atzerritarren apena Zeus ostatzailleak artu oi dau, arrotz agurgarriari beti lagun egiten dautso-ta.

269 «Onela itz-egin neutson; eta itzetik ortzera, odol-zale, erantzun eustan:

271 «Paliferno.—Arrotz! Geldo bat zara, edo-ta urriñetako lurraldeetatik zatoz, jainkoen bildur izateko ta arein asarretik neure burua zaintzeko diñostazun ezkeror; Kiklopeak ez dira kezkarazten babeskia daroan Zeus'ez, ez goi-indar zoriontsuetaz, areik baiño indartsuago baitira; eta nik ez neuskizu parkatuko, Zeus'en atsaigoagaitik, ez zuri ez zure lagunai, neure gogok aginduko ez ba'leust. Baiña, esaidazu, nun itxi dozu, ona etortean, zeure ontzi txit landua: ondartzatik asago, bear bada, ala urreko abaro baten. Jakin nai neunke.

281 «Zirikatzearren mintzatu zan onela. Baiña ainbat dakidan oni ez yatan aren asmoa oartzeka urtu, eta barriren barri mintzatu nintzakion guzurrezko itzakaz:

284 «Odis.—Lurra astintzen dauan Posidon'ek austu eban nire ontzia, lur-mutur batera eroan eta arkaitzen kontra puskatuaz, zure lior-mugetan; kresal-osiñetik etorren aizeak narrastu eban, eta olan gaizkatu al izan neban, oneikaz batera, neure burua eriotz izugarritik.

289 «Olan esan neutson. Kiklope'k, odol-zale, ez eustan erantzunik emon; brastakoan jagirik, alan be, eskua bota eutsen lagunai, biri oratu ta, totoak bai litzan, lurrera jaurti eban zakar baizen indartsu, ta bien buruazurrak beian agiri zi-

ran zorua bustirik, Zatitu zitun, jakiña, soin-atalak, apari ederra gertatu ta jaten asi zan leoi basati baten pareko; ez eban ezer laga, ez sabelarte, ez aragi, ez azur muintsurik. Guk, begi-negarrez, ikusten genduan ikuskari latz izugarri a, geure eskuak Zeus'i jasorik; gure biotzaz jabetua bait zan etsipena. Kiklopea, giza-aragiz urdailla bete ta esne soilla edanaz ase zanean, arpean etzun zan, ardi artean luze-luze. Neure biotz onberean ordun arengana urreratzea erabagi neban, neure iztar gaiñean dindil neroian ezpata zorrotza aterarik, aurretiaz ikutu ta erraiak gibela inguratzen daben lekuan, bularrean jo ta zauritu; biña beste burutakizun batek atzera eragin eustan. Antxe, izan be, eriotz ikaragarritz galduak izango gintzazan, Kiklopeak sarrera garaian jarri eban arritzar astuna guk ezingo genduan geure eskuakaz baztertu ta. Orrela, zizpuru ta intziri aunditan, Egu-antz jainkozkoaren zain gengoan.

311 «Goizaren alaba, larrosazko atzdun Egu-antza estalgetu zanean, Kiklopeak sua egin ta batu ebazan ardi lodiak, egin bear danez dana, ta bakotxari bere kumea ipiñi eutson. Zeregiñok amaiturik, neuretarretako beste biri eskua bota, ta eurokaz apaindu eban gosaria. jatea bukaturik, giberri gizen-tsuak atera zituan artzulotik, ateko arritzarrari erre bez erez eragiñez; baiña ots-otsean jarri eban len lez, gezi-ontzi bati bere estalkia ipiñiko ba'leutso bezela. Kiklopeak, zarata utsean, bere artaldeak mendiruntz akulatzen ebazan bitartean, ni go-goetan geratu nintzan, antze lazkorrak iraulka, zelan edo alan egindako txarkeria ordainduko ba'neutso be. Atene'ren laguntzaz garaipena lortuaz. Azkenean, erabagirik onena auxe izango zala, iruditu yatan: ardoki barruan etzana oriondo eze-ko adaki-zurrun eskerga bat agiri zan, Kiklopeak igartzen zanean eroateko ebagi ebana. Guk, ikuskatuaz, kargako ontzi zabal baltz baten mastiaz, ogei arraunez ornidu ta ur-leza edatua zearkatzen dauanarenaz, barclindu oi genduan: orren luze ta lodi begitandu yakun guztioi. Nik, urreraturik, ebagi neutson gizabete bateko zatia, landu egiela esanaz lagunai emon neutsen. Lau ta garbi laga ebenean, muturretatik bat zorroz-tu, su berotik igarorik gogor-azi ta arpean zabal egoan gorotz ugaripean gorde neban arretaz. Gero, neure aginduz, zotzean atera ziran, neugaz batera, ro,a luzea iaso ta Kiklopea'ri, loak eukala, begian josten azartuko ziranak, Garai artan neuk aukeratu izango nebazan lau urten ziran zotzean, eta eurakaz

batu nintzan, bostgarrena egiñik. Arratsaldean, itzuli zan Kiklopea larratik etorren ule ederreko artaldeagaz, eta abere gizensu guztiak sartu-azo zituan arpean, bat bera be barrunbetik at itxi bage; bai zerbaiten susmoz ebillelako, bai jainkoren batek orrela agindu eutsolako. Itxi eban atea pultsoan eroan eban arritzarraz; ezarri zan, ardiak eta auntz beelariak eratzi, egin bear danez dana, ta bakotxari bere kumea ipiñi eutsen. Zeregin guztiok amaitu ondoren, eta arin amaitu be, nire lagunetatik beste biri oratu ta eurokaz gertatu eban aparria. Bien artean urreratu nakion Kiklopeari ta, ardao baltzez beteriko txol bat eskuan nebala, onan esan neutson:

352 «Odis.—Artuizu, Kiklope; edan ardoa, giza-aragia jan dozu-ta, gure ontzian zelako edaria gordeten dan jakin dagizun. Ixurketa bat eskintzeko nekartzun, nitaz erruki izan eta neure etxera bialdurik ona ba'zintzakit, baiña zu modu aspergarrian suak artu oi zaitu. Biotz-gogor! Bizi diran gizaki askotatik nor etorriko yatzu, gerokoan, bear zeunken lez ibilli ta jokatu ezik?

359 «Onela erauzi neutson. Ardaoa artu ta kla-kla-kla zintzurreratu eban. Eta mama gozoa gogoko yakolako, geiago eskatu eustan:

361 «Polifemo.—Emoidazu gogoz ardaoa geiago, eta esaidazu beingoan zelan deritxazun, zeure alaitasunerako arrotz-doe bat eskiñi dagitzudan. Lur joriak Kiklopetarrai be, ba, ekarri oi dautse ardaoa maats-morda lodi, Zeus'ek bialdu-tako euriaz azitakoetan; baiña au anbrosi ta likiz moldatua dozu.

367 «Olan mintzatu zan, eta nik barrito eskiñi neutson ardo baltzetik: iru bider aurreratu neutson eta iruretan edan eban sen-urriko. Eta ardaoaren lurrenak Kiklopeari kaskogaiñak artu eutsozanean, berba gozoz esan neutson:

371 «Odis.—Kiklope! Nire izen argia zein dan itanduten dozu, ta oraintxe esango dautzut; baiña emoidazu aurretik agindu daustazun arrotz-doea. Nire izena «Iñor-ez» dozu; eta Iñir-ez esaten daustie amak, aitag eta neure lagunak oro.

376 «Olan bota neutsan; eta bat-batean erantzun eustan, gogo zitalez:

378 «Polifero.—Iñor-ez azkenengo jango dot, bere lagunuen ostean. eta enparau danak aren aurretik; orixe izango da eskiñiko dautzudan arrotz-doea.

381 «Au esanaz, atzerantza egin eta sorbaldaz jausi zan lurrean. Olan etzunik, sama 'odia makurtu ta guztia azpiratu oi dauan loalc menderatu eban: zintzurretik ardoak erion giza-aragi zatiakaz, eta upazka, korrokadaka egoan, ardaoz ase-tua zalako. Sartu neban orduan errauts ugaripean arako agea, berotu zedin, eta solas azarriz biztu-azo nituan lagun guztiak; iñortxo be. bildurrez edo, baztertu ez eiten. Oliondoa, gordiño izan arren, erretan asi-zorian eta dizdizka gogorrean egoala, joan ta atera neban sutatik; urreratu yatazan lagunak, eta azartasun oldarkorra ixuri euskun jainkoren batek. Eurak, oriotaketa arturik Kiklopearen begian sartu eben zorrozutako puntatik; eta nik, goratuaz, goikaldetik bira-azoten neban. Adibidez, gizon batek itxas-ontziaren masta laratruaz zulatzen dabenean, beste batzuk ede bategaz mugi oi dabe azpitik. mutur bietatik oratuta, eta arek geratu barik jirabiraka diardu; orrelaxe guk suzko puntadun ageari eldurik, birabiraka gerabillen Kiklopearen begi-zuloan, eta taket beroaren ingurumari odolak urteten eban. Betazalak eta betulak erre eutsozan lurrin biziak, sutan eukon ba begi-ninia ta onen erroak zirtzart egozan suaren cragñez. Borontze-langilleak, burdiñearen indarra dan otz-beroa emoteko, ur otzetan sartu oi dau aiotz edo aizkora aundi bat, kurriskada polita dagiana; erabat egoan kurrixka Kiklopearen begia be, olibondo aga-buruaren inguru. Kiklopeak azkenez zinkulin garratz izugarria emon eban, atxak dardar egiñik, eta guk, izu-laborri, igesari egin geuntson arin be arin; arek, baiña, taketa atera, dana odole-tan orbandua, suak artua beragandik urrun egotzi ta deadar aundika bere inguruan, arpe barruan, itxas-mutur aizetsuetan bizi ziran Kiklopeai deika ekin eutson. Aren aldarri-oivak entzunaz, asko joan yakozan, urlia emenclik eta sandia andik, eta arpe aurrean geldi, zek naigabetzen eban itandu eutsoen:

414 «Kiklopeak.—Zergaitik ain asarre, Polifemo, olan deadarka zaukaguz jainkozko gau onetan, guztiok itxartu gaituzula? Gizakiren batek bear bada, zeuk nai ezta, ardiak da-roatzuz? Edo-ta, apika, maltzurkeriz ala indarrez il gura zaitue?

419 «Polifemo zangarrak, arpetik, erantzun eutsen:

421 «Polifemo.—O adiskideak! Iñor-ez'ek ilten nau iru-zurrez, ez indarrez.

423 «Eta areik erantzun, solas arin oneikaz:

425«Kiklopeak.—Iñok indarrrik ez ba-dagizu, bakarrik zagoz-eta, eziña da Zeus aundiak bialdutako gaixoari alde egitea; otoiztu, alan be zeure aita, Posidon goiena.

429 «Alkar-izketa bukatutakoan, danak joan ziran; eta nik neure kautan barre egin neban ederto, nire izenak eta nire joko-maiñak zelan ziria sartu eutsen ikusirik. Kiklopea, sammin-iturri ta irrintzika, itsumustuan **ate aurreko arkaitza** kendu ta sarreran jarri zan, ardiakaz urten zeitekenen bati eskua ezarri nairik, besoak zabalduaz: aren tentela nintzalakoa eukan, antza! Ni, orraitino, kinka a zelan obeto burutu asmetan nengoan, ots, neure lagunak eta neu zelan eriotzatik askatu. Era guztitako maiña ta iruzurrak matazatu nebazan, gure bizia bai zan jokutzen eta gaitz ikaragarria gain geunkan; eta azkenez, esango dodan erabagi au begitandu yatan onenetarikoa. An egozan aari batzuk ondo janarituak, aundi ta ederrak, ule naasi ta illunekoak; eta ezpanak zabaldu barik, irunan irunan lotu nebazan, Kiklope lazkor dongeak lo egian tokiko mimenak alkar eiorik; eta orrela erdikoak gizon bat eroian eta beste biak alde bietan joiazan, olan gaizkatu egiezan nire lagunak. Iru aarik, bada, gizon bana enoien; ni, alan be, beste aari bat, abete guztien artean nabari zana, an ikusirik, lepotik oratu ta ganetik beera sabel galpartsura txirrist egiñaz, ule ugari-ugariari esku biakaz elduta antxe geratu nintzan, egoera onetan gogo bero ta gibel-aundiz iraunik. Gisa onetan, intzirika, jainkozko Egunsentiaren zain gengoan.

454 «Goizaren alaba, larrosazko atzdun Egu-antza agertu zanean, arrak bizkor be bizkor jo eben larrara, eta urruzak, eratzi bage egozan-eta, bee egien ardokian erruak gogortuta. Arein ugazabak, neke-lorrez abaildua, zutik egozan giberri guztiai ikutzen eutsen lepo-gaiña, ta txaldan arek ez eban igarri nire lagunak abere galpartsuen bularpean lotuta joiazanik. Azkenengo atakarako bidea artu ebana neure aaria izan zan, bere ulez astun eta ni, buruan gauza asko nerabillezan au, sabelpean eroiala. Polifemo zangarrak eskuz jo ta au esan eutson;

466 «Polifemo.—Aari laztan! Zegaitik zoaz arpetik artaldearen azkena? Ez ziñan egungo be ardien atzetik geratu; oinkada ederrez ibillirik, zeuk jan oi zenduzan lenengo bedarloro samurrak, erreketako ur-ibillietara zeu eltzcn ziñan au-

rrenen, eta arrats-beran zeu ziñan lenengo artegira itzuli nai zenduna; orain, barriz, lengoaz bestera, atzenengo zatoz dane-tatik. Uts emongo zeuntson bear bada ugazabaren begiari; gi-zaki doillor batek itsutu eban bere lagun gaiztoekin, buruko gunak ardaoz asaldaturik; Iñor-ezak, bai, jarri nindun onela, baiña uste dot oindiño ez dala eriotz izugarritik askatu. Nire sentipenak ba'zeunkoz eta mintzatu, nun saiesten dauan nire sumiña ulert-azo dagistazun! Laster aren buru-azurra, zartaka austua, barreiatuko litzateke or-emen arpe zokoan, eta biotza arinduko litzakit Iñor-ez zital matxar orrek egin daustazan kalteetatik.

480 «Au esanaz, aaria agindu ta kanpora bialdu eban. Arpetik eta ardokitik urruti samar aurkitu giñanean, aaritik askatu nintzan eta lagunak be jaregin nebazan. Beingoan, anka meedun giberri lodi arei aurea artu ta, itzulinguru asko emonaz, eldu gintzazan azkenez itxas-ontzira. Gure lagunak, eriotzatik onez urten giñanok ikusiaz, bene-benetan poztu ziran, besteen zoriagaitik erosta ta negar-asperen aundiak egiñik. Ník alan be, bekanez kiñuka, negarrik ez egiteko niñotsen, ule ederreko abere areitatik pillo eder bat ontzian sartu ta kresal-osin zear abiatzeko agindurik. Ontziratu ziran bertatik, eta, tostetan saillean jarriaz, itxas apartsua arraunez jöten asi ziran. Eta urrin samar, deadar dagian gizonari entzuten yakon lekura lez, Kiklopeari itz-egin neutson berba garatzokaz:

495 «Odis.—Kiklope! Ez zeunke, ez, erabilli bear zeure indarrik arpe sakon orretan gizaseme kalte-bakoaren adis-kideak jateko. Zeure egite txarren ondorenak, o anker!, eldu bear yatzuzan bai, zeure egoitzean bertan. ezeren bildur barik, etxakideak iruntsi zenduzan eta: auxegaitik Zeus'ek eta beste jainkoak zigorrasi zaitue.

500 «Onan esan neutson; eta arek, erreago oraindik, mendi eskerga baten erpiña erauzirik, gure txopa urdindun ontziaren aurrera bota eban, eta apur bategaitik ez eutsan emon endaitz-muturrean. Arkaitzaren zartakoaz itxaso bi-zi-bizi zirkindu zan, eta olatuak, ur-putzutik onantz egiñik, liorrerantza bultz eragin eutsoen ontziari, lur tinkoraiño eroa-nez. Nik, baiña, aga txit luze bati esku biakaz eldurik, itxa-sora bota neban eta neure lagunai, buru-kiñuka ta ixillik, eutsi egoela arraunakaz agindu neutsen, arrisku atatik aldendu

gendizan. Danak makurtu ta arraunketan asi ziran. Baiña len baiño bitan itxas-barrurago aurkitu gintzazanean, Kiklopeari onela mintzatu nintzakon, naiz-ta inguruan nitun lagunak, batzuk andik eta beste batzuk emendik, itz gozoen bitartez, ezer ez esateko niri adierazo gura izan:

515 «Lagunak.—Errukarri! Zer dala-ta sumin-erazo nai gizaki enker ori, uretara bota ebanaz ontzia lur tinkora itzuli-azorik, bertan ilgo giñala uste genduan eta? Bateren bat oiuz naiz mintzoz dagoala ba'leki, gure buruak eta ontziaren zura-jea zapalduko leukez, beste arkaitz zakarren bat botako leus-kigu-ta. Orren urruti eltzen dira aren geziak.

521 «Olan mintzatzen ziran. Ez eben jaritsi, alan eta guz-ti be, nire biotz zabalaren sendotasuna austea; eta, barne-su-mindua itz-egin neutson era ontan:

524 «Odis.—Kiklope! Gizaki ilkorren batek itandu ba'dagitzu zegaitik zagozan ain lotsagarriro itsututa, Odis izan zala, esaiozu, begia lausotu eutzuna, uri-suntsitzaillea, Laerte'ren semea, Itaka'n bere etxea daukana.

528 «Onan esan neutson; eta ak, inkesa bizitan, erantzun:

529 «Poliferno.—O jainkoak! Bete dira aspaldi bateko iragarkizunak. Ba-zan emen aztru aundi bikaiña, Telemo Eurimida, aztikerizko antzean aurrenengo izanik, zaar egin zana, kiklopetarren artean izarle; onek iragarri eustan, ba, gaur ja-zoten dana: Odis'ek bere eskuz ikusmen bage lagako nindua-la. Baiña nik uste neban kaizu aundiko gizakia izango zala, galanta, indartsua; eta gizon txiki, ezezgarri ta meko bat izan da begia itsutu daustana, ardaoaren bitartez menderaturik. Baiña, tira, biur zaitez, Odis, arrotz-doaiak eskiñi ta luna astintzen dauan jainko gurenari, aberrira zuzendu zagizala, eskatu daiodan; ni zeure seme naz eta a arro da nire aita dala-ko. Eta bera izango da, on badakio, eta ez jainkoetatik ez gizonetatik iñor, ni osatuko nauana.

544 «Edu onetan, ba, itz egin eban; eta nik jardetsi:

545 «Odis».—Gogoa ta bizia kendu aal ba'neutzuz. eta Hade'ren egoitzera igorri, lurra astintzen dauan jainkoak be ez leuskizu begia osatuko!

448 «Orrela nik mintzo. Eta Kiklopeak beingoan Posi-don gorenari egin eutson otoi, zeru izartsura eskuak jasoaz:

550 «Polifemo.—Entzun eidazu, Posidon, lurra besarkatzen dozun orrek, adats urdindun jainko, nik diñotzudana! Zurea ba'naz egi-egiaz ta zu nire aitatzat ba'zagoz, emoidazu Odís, uri-suntsitzaillea, Lacrte'ren semea, bere etxea Itakan daukana, ez daitela iñoiz bere jauregira biurtu. Eta aduak erabagita ba'dauko, bere aberrira, bere etxe onda egiñikora itzuli ta beretarrak ikusi ta besarkatzea, alik eta berandu ta txartoen izan dedilla, iñoren ontzian, lagunak oro galdu ondoren, eta bere egoitzean be izan dagizala kezka ta atsekabe barriak,

559 «Orrela esan eban otoizka, eta entzun egin eutson adats urdiñezko jainkoak. Jarraian Kiklopeak lengoa baiño arri-mokor aundiagoa artu ta, indar eskergaz jirabiratu ta askatuaz, gure ontzi txopa urdiñezkoaren atzeko aldera bota eban, eta apur bategaitik ez eban jo endaitz muturra. Itxasoa oso mugitu zan arkaitzaren kolpeaz, eta olatualc, ontziari aurrera saka eragiñik, lurrera iño ekarri eben au.

567 «Beste izontziak, tosta askodunak, eta euron inguruan negarrez lagunak gure zain, batera aurkitzen ziran ugartera eldu giñanean, itxas-egalera zapart egiñik, ondartzara aterra genduan ontzia. Eta ontzi ondarretik Kiklopearen abereak arturik, danon artean banatu genduzan, ain zuzen be iñor bere zati bagarik gelditzen etzalarik. Giberri-banaketa ontan, nire lagunak, zango-babeski ederdunak. yagokidanez gaiñera aari bat berezi eben niretzat; eta nik zeian Zeus'i eskiñi neutson

ots, odeiak moltzotu ta danen gaiñ errege dan Kronida'ri, iztar biak bere omenez errerik. Baiña jainkoak, opariari jaramonik egiteke, gogoetaz egoan zelan nire ontzi tosta askodunak eta lagun zintzoak ondatu ta suntsitzeko bide egoki bat idoro nairik. Geroztik, egun osoan, eguzkia sartu arte, jarrita egon giñan, aragia ugari janaz eta ardao gozoa be eurrez edanaz, Eguzkia sartu ta illuna gaiñeratu zanean, itxas-egalean etzun giñan lotaralco. Baiña, goizaren alaba, larrosazko atzdun Egu-antza estalgetu zaneokxe, ontzira igon eta lokiak askatu egiezala, egindu neutsen neure lagunai. Laster ontziratu ziran eta, tostetan saillean jarriaz, itxas apartsua zaplatzen asi ziran arraunakaz.

589 «Andik aurrera jarraitu gendun, biotz-goibel, lagun batzuk galdu genduzan arren, txitxi-papetan eriotzatik alde egiñaz.

X KANTUA

Eol'i, Lestrigondarrai ta Kirke'ri buruzkoa

Eoli ugartera eldu gintzazan, Eol Hipotada, jainko illezkorrak maitatua bizi zan tokira; ur-azaleko izaroa, arresi borontzezko ausi-eziñak biratzen dauana, ta barnean arkaitz mal-kartsu bat daukana. Eol'i amabi kimu jaio yakozan jauregian: sei alaba ta sei seme loratsu; eta areik onei emon eutsezan, euron emazte izan eitezan. Danak batera, euren aita kutun eta ama agurgarriaren ingurumari, etenbako jan-edanean bizi dira, bertan, agitz janari era askotako artu ta txastatuaz. Egunez etxean aragi-erre usaiña usmatzen da, txirularen gozoz gutia eresiturik; eta gabaz bakotxak bere emazte garbiagaz lo dagi oin-zamau gaiñean, oge bikainki landuan. Eldu gintzazan, ba, aren uri ta bizileku jasoetara, ta Eol'ek adiskide bat lez artu ninduen illebate baten barruan, gauza askotaz itaunak egiñik (Ilion'ez, argibotarren itxas-ontzietaz, akeutarren itzultzeaz), eta guzti orreitz jakitun ipiñi neban, zeatz-meatzezko txostena emonaz. Andik aurrera jo nairik, agur egiteko eskatu neutsonean, ez eustan ezetzik esan, eta osterea gertau eban. Orduan emon eustazan, aurretik narrutu eban bederatzi urteko idi baten narruan giltzapetuta, aize burrunbalarien ats-pafaputzak; Kronida'k, bada, onein jaun ta jabe egin izan eban, berak nai ebana baketu naiz sustatu egiteko eskubide guttiaz. Eta dalako zaragia ontzi makurrean lotu eban zidarrezko ari distikorrak, pafarik pitiñenak be iges egin ez egian; beste aldetik, Zefir bialdu eustan, samur joaz, gure ontziak eta euretan gu eroan gengizan. Alan be, orrela jazo bearrean, geure zuurtasun-ezak galduko ginduzan.

28 «Bederatzi gau ta egunetan itxas-egin genduan, atsedenden barik. Eta amargarrenean asaben burra agiri izan yakun, eta an ikusi genduzan itxas-baztarrean sua biztuten ebenak. Ontan austuta oartu nintzan, eta lo leunak menderatu nindun;

etzan arrigarri be, denpora guztian lemazain ibilli nintzan ba eten barik, ariñago eltzearren ez neutson adiskideetariko iñori endaitza emon nai izan. Nik juregira neroiana zan lagunen autu-gaia, urrca ta zidarra, Eol Hipotada esku-zabalak emondako bezuzak, ziralakoan. Eta euretatik batek onan esan eutson urren eukanari:

39 «Abots bat.—O jainkoak! Gizaseme au bai bala maitatua ta omendua, eltzen clan un i ta lurraldeetan bizi diran guztien aldetik! Gauza asko ta baliotsuak croan ditu Troia'ko ondakiñetatik; besteok, os t'era, joan-ctorri bardiña egin dogun arren, esku-utsik biurtuko gata etxera. Eta orain Eol'ek, adiskide bai'litzakio doeak egiñik, cskuratu dautsoz gauza oneik. Tira, dakusgun arin zer diran, eta zenbat urre ta zidar dagoan narruan.

47 «Orrela iñoen. Onu donga a nausitu zan, eta nire adiskideak zaragia askatu ebenean, aize guztiak iges egin eben, astrapalada bizian. Beingoan, ekaitzak airean artu ta itxas aundira eroan ebazan ontziak; negarrari emon eutsoen areik, aberitik urrun euren buruak ikusiaz, eta nik, gomutaraziz, neure barru errugean nerabillen zer egingo ete neban: ontzitik burua bota ta ur-osiñean ito, ala ixillean croan clima ta bizien artean iraun. Egonarriari eldu neutson, ontzian geratu ta neure burua estaldurik, barriro etzun nintzan lotarako. Ontziak Eoli ugartera croan zitun barriro aizeak jagi-azotako ekaitz zakarrak eraginda; erostari egozan, artean, lagun citen eusteenak.

58 «Ara eldurik, lurra artu, ditxoia egin eta luzatu bage jaten asi giñan oial ontzien aldamenean. Ortaz, jan-edanez asi gintzazanean, otsegille ta lagun bat neugaz artu ta Eol'en jauregi autura zuzendurik, au bere emazte ta seme-alabakaz orrits bat ospatzen aurkitu genduan. Etxeraturik, ate aurrean jarri giñan, zangoai geuntsela; eurak barriz zurtu ziran gu an ikusiaz, eta itaun oneik *egin* euskuezan:

66 «Eol'en seme-alabak.—Zelan emen, Odis? Zelako goi-indar gaiztok zarabiltz aurrean? Guk ardura aundiz bialdu zinduguzan zeure erri ta etxea eldu zendin, edo-ta ondoen zeritxazun tokira.

70 «Onan mintzatu ziran. Eta nik, biotz-urratua, esan neutsen:

72 «Odis.—Neure lagun ergelak eta lotaldi onez batek ekarri daustie kalte au; baiña zuok, adiskideok, al dozue-ta, ipiñi osakaia gaitz oni.

74 «Onan mintzo nintzan, itz leunez areik neurera limurtu naiean. Danak mututu ziran eta, azkenez, aitak erantzun eustan:

77 «Eol.—Joan zaitez ugartetik, eta arin joan be, gaur bizi diranetatik iñor baiño doillorrago ori! Ez yat laket, jainko illezkorrai gorrotagarri egin yakon gizakia neure babespean arto ta bere etxera biurtu daiten laguntzen saiatzea. Zoaz zori txarrez; orain etorri baldin ba'zara, illezkorrak gaitz-esten zaituelako da.

83 «Onela mintzatuz, bota nindun jauregitik, negar-marruma mingotsetan nengoan au. Aurrera jo genduan gero, biotz-izu ta larriturik. Eta geure ergelkeriari zor geuntson arraunketa arek gure gizonen kemenak amaira eroiazan, aberrira eltzeko biderik ez yakun eskintzen eta.

89 Sei egun eta gau ibilli giñan tai bage, eta zazpigarrenean Lamos'ko Telepilo'ra eldu gintzazan, Lestrigoni'ko uri zabalera: artzaiñak emen, bere artaldea etxeratzean, bertatik beregaz urten oi dan beste bati dei egin dagitso. An lorik egingo ez leuken gizonak, lan-sari bi irabaziko leukez: bata, idiak zainitzen, eta bestea, ardi zuriak larratzen. Ain ondotik datorkio eguneko larreari gabekoa! Kai ederrera elduaz bat __alde bietatik arkaitz zakarrez ingurutatua egoan au, eta bere azken muturretan igarobide estu bat izten eben ur-ertz-gangar aurkakoak eukazan—, onaxe zuzendu ebezan danak ontzi makurrak, baita bertan, alkarren ondoan oso, lokarritu be kai biribillean, an ez baita olaturik, ez txiki ez aundi, jagi oi, naretasun baketsua inguru aretako nausi dalarik; baiña nik kaitik kanpora itxi neban neure izontzi baltza, an bazter baten, lokiak arri-mokor bateri emonaz. Ondoren begiratoki erripetsu batera igon eta andik ez neban ikusi ez idi-golderik ez giza-saillik, lur-gora joian kea soilki. Lurralde atan zeintzuk gizonak jaten eben ogia jakin egien lagun batzuk ara igorri nai izan nebazan, eta bi autatu nitun, otsegillea zan irugarren batek be lagun egioela. Joan ziran eta, goiko mendietatik burdieten egurra urira eroan oi eben bide lau bati ekiñik, errira eldu **lentxoago**, neskatsa bat aurkitu eben, Antifate lestrigondarraren alaba ospatsua, un eder-dun Artazi iturrira jatxiz joiana, uritarrak hada araxe joan oi

ziran uretan, Gelditu ta gazteari itz-egin eutsoen, uri aretan errege nor zan eta uritarrak nortzuk ziran itanduz; eta arek beingoan erakutsi eutsoen bere aitaren etxe garaia. Eldu ziran, ba, egoitz txairora, barne idoro eben emaztea, mendi-gaillur bat lez luze zana, ta bildur pizkat emon eutsen. Emakumeak dei egin eutson batzarretik bere senar Antifate argiari, eta onek eriotza larria asmau eban nire lagunen kontra: azkar oraturik bati, onen gorputzaz aparia apaindu eban, beste biak bizkor be bizkor ontzietara anka egiela. Antifate deadarrez asi zan uria zear eta, onen oivak entzunaz, andik eta emendik kontaezin ala lestrigondar indartsu aratu ziran, gizonak barik erraldoiak zirudienak; eta atxetatik arri-mokor astunak bota ebezan: ontzietan laster entzun zan erosta negargarria ilten ziranen oivak eta austen ziran ontziak aterata; lestrigondarrak, oster, arraiñak bai'litzan gizonak zearkaturik, zorigaitzeko zauta ospatzeko eroiezan. Kai sakonean nire lagunak orrela jausten zirala, nik, iztar ondoan neroian ezpata zorrotza atera ta ebagi nebazan neure mutur urdindun ontzien lokiak. Jarraian lagunai itz-egin neutsen, galzori aretatik urtetako arraunak erabillí egiezala agindurik; eta guztiak astindu eben itxasoa erio bíldurrez. Pozik iges egin genduan neure ontzian arkaitz urtenetatik itxasora; beste ontziak, orraitíño, danak batera, antxe ondatu ziran.

142 «Andik aurrera jo genduan, biotz itun, lagun batzuk galdu genduzan arren, arrisku artatik urten giñalako ez ain naigabetsu. Eea izarora eldu gintzazan gero, Kirke, adats politduna, jainkosa altsua, abots ozenez ornidua, Eete izugarriaren aragi-arreba bizi zan lekura; oneik biok, Kirke ta Eete, mendak argitzen ditun Eguzkiak sortu zituan, eta Perse, Okean'en alaba, daukie amatzat. Ixil-ixillik urreratu gendun ontzia urbazterrera, kai zabal samarrera sarrazorik, eta jainkoren bat edo ebillen gure gidari. Lurrera zapart egiñik, etzunda egon giñean bertan gau ta egun bi, ta barrua ozkatzen euskuen nekeak eta lorrak. Alan be, egu-antz adats politdunak irugarren eguna ekarri euskuneko, neure lantzea ta ezpata zorrotza eskuraturik, ontzitik begiratoki batera joan nintzan arin-arin, gizon ilkorrak landutako solorik ikusi edo-ta arein abotsik entzutea jadetsi al ba'neban. Eta, gaindegi malkartsu batera igonaz, bertan lotu nintzan, eta andik nekusan Kirke'ren jauregian, artatza itsu ta oian artean, lur zabaletik gorantza joian ke-mordoa.

Ke baltza begiz joaz batera, buruak emon eustan eta gogoan jarri neuk, neurez, joan bear nebala ara ango barri jakitera; baiña, obeto oldozturik, obeagoatzat artu neban oial ontzia egoan ur-ertzera biurtu, nire lagunak jan egiela agindu ta gero eurretatik batzuk ara bialdu izpar-billa. Itzulia artu ta ontzi makurretik ur-ur nengoala, jainkoren bat ni bakarrik ikusiaz nitzaz errukituta, bidez niñoiala, aurrean ipiñi eustan, basarteko larratik beeko erre kara, eguzkiaren beroak larritzen eban-eta, ura edatera etorren basauntz itzal adar garaiduna. Aurreratu yataneko, lepazurrean, sorbalda erdian jo neban lantzeaz, bate-tik bestera zulatuaz. Jausi zan basauntza, autsean luze, bizia galdurik. Agana eldurik, borontzezko lantzea atera neutson, beean itxirik; batu nituan gero zotzak eta mimenak, eta soka bat egin neban gizabetekoa edo, alde bietatik ondo biurritua, eta beronegaz lotu al izan nebazan pizti eskerga aren anka biak batera. Lepoan artu ta ontzi baltzera zuzendu nebazan neure oiñak, zikaian makurturik, pusketa a guztiz aundia zan bada, ta beste eskuaz bakarrik ezingo neutson sorbaldan eutsi. Azke-nez lurrean ipiñi neban, ontziaren alboan; eta neure lagunak sustatzen asi nintzan, eurengana urreratu ta itz gozo oneik esanaz:

184 «Odis.—Adiskideok! Ez gara jaxkiko Hade'ren egonlekura, naigabetan aurkitu arren, guri be zoriak emondako eguna eldu artean. Baiña, tira, janariak eta edaria ontzian daukaguzan ezkerro, jan daigun, geure buruak gosez aitzen itxi barik.

189 «Onda esan neutsen; eta, bat-batean nik esana egiñaz, an, itxas elkorreko ondarrean estaldu ziran soiñekoak erantzitzi ta basauntza miresten jarri ziran, piztitzar a aundi-aundia zan eta. Ez esanez, curen begiz ikusiz baiño, asko alaitu ostean, eskuak garbitu ta jan-edate baikorra gertatu eben. Eta, arrezkero, egun osoan, eguzkia sartu arte, jarrita egon giñan, okela ugari janez eta ardao gozoa edanez. Eguztia sartu ta gaba el zanean, itxas-ertzean etzun giñan lotarako. Goizaren alaba, larrosazko atzdun Egu-antza estalgetu zane koxe, alan be, neure lagunai batzarrera dei egin eta onan mintzatu nintzaken:

201 «Odis.—Entzun nire itzak, lagunok, ainbat larrialdi jasanagaitik. Oi adiskideak! Sartaldea nun dagon ez dakigun arren, ezta egunsentia nun agertzen dan be, gizonak argitu oi ditun eguzkiak nundik artzen dauan lurperako bidea, ezta barriro nundik urten oi dan be, ez dakigun ezkerro, azter daigun lenbaitlen erabagiren bat artzea, nik ez dot uste onik, eskuetan

daukagun ala ez. Gaiñ-alde aldapatsutik ikuskatu dot izaro guztia, zapala da ta bere inguruan koro bat dago itxas mugageak, eta neuk neure begiz ikusi dot bere erditik kea urteten, artadi tirigun ta oian erditik.

212 «Ola esan neban. Danai austu yaken biotza, Antifate lestrigonarren eta Kiklope anker giza-jalearen zakarkeriak gogoratuaz, eta negarrari emon eutsoen zaratatsu, begiak maiko ugarritan; alperrekoa yaken, alan be.

217 «Talde bi eratu nitun neure lagun zanko-babeski ederdunakaz, bakotxari buruzagi bi emonik; neu jarri nintzan talde bataren buru ta jainko-antzeko Euriloko'k agintzen eban bestean. Zotzean egin genduan borontzezko buru-oskolean, eta, Euriloko biotz-aundiarena jausi zan lez, joan zan negar egien ogetabi lagunegaz; eta gu laga ginduezan, negarrez ain zuzen be. Ibar batean eta toki agirian ikuskatu eben Kirke'ren jauregia, arri landuz eregitakoa. Aren biran mendi-otsoak eta leoiak egozan, Kirke'k zorigaiztoko ixurkiak emonda, lilluratuta eukazanak; patari oneik, alan be, ez eutsen oratu nire gizonai, jagirik. euren buztan txit luzeakaz arei txera egitera urreratu baiño. Txakurrak euren ugazabari, jan-edanetik biurtzen dan guztiak, jan-galea zirikatu oi dautsen zer- edo-zer dakartselako, txerak egiten dautsoez beti; orrelaxe atzapar sendodun otsoak eta leoiak be, piztitzar aren izugarriak ikusiaz ikaratu ziran nire lagunai palagu ta eskamak egitera urreratu yakezan. Kopeta bitxidun jainkosaren bizitegira eldurik, atarian gelditu ta barruan kantari egoan Kirke'ren abots gardenen entzun eben: miesa aundi bat, jainkosen lan danak lez, jainkozko ta txit leuna, dotore ta ikusgarria egiten eragoiola zan aren kanta zolia. Eta Polite, giza-buruzagia, niretzat kutunena ta lagunetan begiratuena, onela asi yaken mintzoz:

241 «Ponte.— O adiskideak! Barnean kantari dago, oso ederki, jainkosaren bat edo-ta miesa aundi bat eiote diardun emakumeren bat, eta azpia oro durunduz jarten dau. Dei dagiogu lenbaitlen.

245 «Orrela esan eutsen; eta areik aldarrika dei egin eutsoen. Beingoan zutundu zan Kirke, ate bikaiña edegi ta dei egin eutsen danai, ta oneik, Euriloko ezik, au maltzurkerizko marru-bildurrez atean geratu bait-zan, danak batera jarrai joan yakozan, arinkeri aundiz. Barne eukozalarik, aulki ta besaulkietan eskiñi eutsen ezarlekua; egoskai bat gertau eutsen ondoren,

gaztae, urun eta ezti ezkoa Pramni'ko ardaoaz nastauta, bertara botarik droga kaltegarri batzuk, niretarrak oso-osorik aztu egien asaben lurra. Emon eutsen, edan eben, eta, jarraian, zotz mee bategaz ikutu ta txarri-tokietan sartu ebazan. Burua, abotsa, zurdak eta gorputza txarriak lez eukezan arren, aren adimenak len baizen oso geratu ziran. Edu orretan ertsiak izan ziran, eta negar baten egozan; eta Kirke'k jateko, pagatxak, ezkurak eta zuandor-gereziak bota eutsezan. Ale onetxek jan oi dabez, ba, lurrean etzuten diran txarriak.

259 «Euriloko belumendu barik itzuli zan ontzi baltzera, lagunak izan eben zori gaiztoaren barri guri ekartera. Baiña, naita be, ezin eban berba bat bera be ebagi, biotza neke-lorrez larri eukon eta; begiak negar anpuluz bete yakozan, eta aren gogo negarrak eukan bakar-bakarrik. Arrituta begiratzen genduan danok, itaunak egiñaz; azkenez onan edestu euskun lagunak galpena:

267 «**Euriloko.**—Artadian zear urrindu giñan, Odis argia, agindu zeuskunez, eta ibar baten barnean eta toki ikusgarrian jauregi eder bat, arri landuz egiña, ikuskatu gendun. An, jainkosaren bat edo emakumeren bat egoan kantari abots zoliz, miesa aundia eioten. Ots egin eutsoen deadarka. Beingoan jagi, ate bikaiña zabaldu ta dei egin euskun, eta danak jarraitu eutsoen zentzun-bako; baiña ni kanpoan geratu nintzan, an amar-ruren bat ete egoan bildurrez. Danak batera ostendu ziran eta eurretatik iñor be ez da barriro aurkeztu, zelatan luzaro egon nazan arren.

277 «Olan mintzatu yakun. Nik orduan, neure lepotik esegi borontzezko ezpata aundia, zidarrezko untzeteriduna, eta luzamen barik, agindu neutson, egin eben bidetik zuzendu nengiala. A, ostera, erreguka asi yatan, esku biakaz nire belaunak besarkaturik; negar-zizpuruka, itz ariñok iñostazan:

283 «**Euriloko.**—O Zeus'en ikasle! Ez nagizu ara eroan, gogo txarrez; itxi nagizu emen; ba-dakit, ba, biurtuko **ez zarea**na, ezta zeure lagunetan iñortxo ekarri be. Goazan gagozanok azkar be azkar, egun latzetik oindiño gaizkatu geinkez-eta.

288 «Olan itz-egin eustan; eta nik erantzun:

289 «**Odis.**—Euriloko! Lotu zaitez zu emen, ontzi makur baltzaren aldamenean, jan eta edaten; ni, barriz joan egingo naz, premia latzak ortara beartzen nau-ta.

292 «Au esanaz, urrindu nintzan ontzi ta itxasotik. Baiña, ibar done barruna noalarik, droga askoren indarren barri ekian Krike'ren jauregi dotoretik ur-ur nengoala ta neure urratsak ara zuzentzekotan, Hermes'ek urten eustan bidera, urrezko zaarodunak, gazte eder ta liraiñaren itxura artuta. Eskutik oratuaz, onela mintzatu yatan:

299 «Hermes.—Ai, doakabe! Nora zoaz muiño oneitan zear, bakarrik eta emengo barririk ez dakizula? Zure adiskideak Kirke'ren jauregian ertsiak izan dira, txarriak lez, eta gogor bo gogor eratutako txarritokietan aurkitzen dira. Areik askatzera zatoz. Ia, gaitz guztitik gorde nai zaitut, bai gaizkatu gura zaitut: ar eizu osabide bikain au, zeure burutik egun baltza bazter-azoko dautzuna, ta zoaz Kirke'ren egoitzera; neuk edestuko dautzudaz onen asmo zitalak zearo be zearo. Egosi bat atonduko dautzu, janariari droga batzuk egiñaz; baiña, guzti orregaz be ez dau jaritsiko zu lilluratzea, artuko dozun osabide bikaiñak galazoko dautzu-ta. Oraintxe esango dautzut gero jazoko dana. Kirke'k bere zaaro luzeaz jo zagizanean, eskuratu iztar ondoan daroazun ezpata zorrotza ta eraso egiozu bera iltea nai ba'zendu lez. Orduan, bildur izango dautzu, ta beragaz etzutera komit egingo: zuk ez ukatu jainkosaren oia erdikide egitea, zure adiskideak askatu ta zu be onbera artu zagizan; baiña jainko zoriontsuen ziñ-eskintza eragiozu aurretik, au da, zure aurka ez dauala beste gaitz kaltegarriarik asmatuko: zeure izkilluak erantzi dagizuzanean, bear bada, zeure indar-kemenik bage itxi ez zagizan.

321 «Orrela esanaz, Argifonte'k osabidea emon eustan, zelako indarra eukon esan eustan landara bat lurretik atareaz. Baltza eukon sustraia ta zuria zan esnea lakoxea aren lorea, jainkoak moly deritxoena, eta ilkor bati oso gatx yako lurretik ataratea; jainkotasunak, barriz, oro al dabe.

326 «Hernies Olinpu nasaira joan zan izaro basatsu zear, eta nik Kirke'ren egonlekura bide artu neban, neure biotzean amarro asko iraulka. Kopet ederdun jainkosaren jauregira elduz, ate aurrean lotu ta deadarka asi nintzan; jainkotasunak aditu eban nire abotsa ta, bat-baten jagirik, ate dizditsua edegi ta barrura dei egin eustan, eta ni, oso naigabetu, bere atzetik joan nintzan. Barruan nintzaneko, zidarrezko untzezko ezarleku baten jarri-azo ninduan, ots, oiñentzat lenka bat eukan aulki eder, landuan ain zuzen; eta urrezko txolean gertau eustan naas-

tura bat, edan nengian, bertan olako droga bat ixuriaz eta bere buruan asmo nabarmenak erabiltzalarik. Baiña ak ernon eta nik, lillurazi barik, edan baizen laster, zaaroaz ikutu nindun itzok esaten eustazala:

340 «Kirke.-Oa orain txarritokira ta etzun adi eure lagunakaz,

342 «Olan mintzo zan. Atera neban orduan zorrotik iztar ondoan neroian ezpara zorrotza ta Kirke'ri ekin neutson, bera ilteko asmoz bezela. Ak, oi u zolian, lurrera jausi ta belaunetatik besarkaturik, itz ariñok zuzendu eustazan zizpuruka:

347 Kirke.—Nor zaitut, eta nungo errialdetik zatoz? Nun dagoz zure uria ta zure gurasoak? Zur ta lur gelditu naz zuk droga oneik edan eta etzareala lilluratu ikustean; beste iñok ez dau orrei jarkitzeko kemenik izan, artu-ala bait ziran curen agiñen birara igaro. Zure barruak arnas-emoille ezigatxa dau. Zu zara bear bada arako Odis, berein asmoduna, urrezko zaaroa daroan Argifonte'k niri sarritan aitatua, Troia'tik onunzkoan ojal ontzi baltzean etorriko ziñala esanaz. Baiña, tira, zorroratu ezpatea ta goazan ogera, gure artean, ogez ta maitasunez alkarturik, uste ona sortu ta azi dedin.

358 «Onda mintzatu zan, eta nik erantzun:

359 «Odis.—O Kirke! Zelan eskatu dagistazu onbera izan nakizula, ementxe jauregi ontan, txarri biurtu ba'zenduzan nire lagunak eta orain nire aurka, ni atxillo nozula, azpikeriak asmatu ta zeure etzanguan sarturik zeure ogera igoteko agindu ba'dagistazu, neure izkilluak itxiaz bat, indar-kemen barik laga nagizun? Nik ez neuke zure ogera igon naiko zu, jainkosa, nire aurka ez dozula beste gaitz kaltekorrik asmatuko, aurretik ziñ-eskintza egiten azartuko ez ba'ziña,

367 «Orrela esan neutson, Bertatik egin eban ziña, nik eskatu bezela. Eta ziñeskintza burutu ebanekoxe, igon nintzan Kirke'ren oge galant-aberatsera.

370 «Lau neskamek apaintzen eben jauregia, sorbunietatik, oianetatik edo-ta itxasoan barruna doazen ibai doneetatik jaio ziran Kirke'ren mirabeak. Batek, aulkiak estali oi ebazan purpurazko zapi ederrez, oinetan miesa bat itxiaz; beste batek, zidarrezko maiak jarten zituan jarlekuen aurrean, gaiñ urrezko zimerak ipiñiaz; irugarrenak, zidarrezko kratera baten ardao leun gozoa nastau ta urrezko txoletan banatzen ekion; eta lau-

garrcnak ura ekarri ta sua ixiotu oi eban a berotzen zan krispiñaren azpian. Eta ura irakiten asi zanean borontze dizditsu barruan, baiñutegira eroan eta bertan ikuzi nindun trebereko ur atseginkorra burura ta sorbaldotara, gogoa karraskatzen dauan nekea soin-ataletatik uxatu arte, ixuririk. Ikuzi ta ario lodiz igurtzi ondorean, txabuxa ta soingaiñeko bat jantzi eustazan eta, ezarri neintean, zidar-untzezko aulkira croan nindun, lerden, ondo landu ta oiñentzako lenka bat eukanera, ain zuzen be. Jopu-erne batek, urrezko murko bitxian ekarren ura emon eustan eskuetarako; zidarrezko azpilleen ix-uri ondoren, mai apain-apaiña jarri eustan aurean. Jakizain agurgarriak ekarri eban, eta maian itxi ebazan askotariko janariak, gordeta eukazanakaz niri eder egiñik. Jateko esan eustan Kirke'k, baiña ez yakon atsegin nire barruari ta geldi jarraitu neban, beste bururakizun batzuekaz, nire biotzak bada egun baltzak igarten zituan.

394 «Kirke, ni geldi nengoala oartu zanean, jatekorik artu bage, ta atsekabe gogorpean, ondora etorri yatan, itz ariñok esanaz:

397 «Kirke.—Zergaitik dirauzu, Odis, olan mutu baten antzera, ta arteгатzen dozu zeure barrua, janari ta edanari ikuturik egin bage? Kalterik egingo ete dautzudanaren susmo txarrik ba' zendu, uxa orren bildurra, ziñ-eskintza egin neutzun eta.

401 «Olan mintzatu zan; eta nik jardetsi:

402 «Odis.—O Kirke! Zein gizonek, zentzunduna ba'da, jan-edateko azarritasuna leukate, lagunak askatu ta bere begiakaz ikuskatu baiño len? Gogo onez ba'diñostazu jan eta edateko, jarein egizuz nire adiskide zintzoak, neure begiakaz ikusi dagidazan.

407 «Olan adierazo neutson. Eta Kirko'k urtenaz eskuan zaaroa, txarritokiko ateak edegi ta atera ebazan nire lagunak bederatzi urteko txarri itxuran. Aurean jarri ziran ta euren artetik ibilli zan, droga barri bategaz areik igurtziten; bertatiko baten jausi yakezan soin-ataletatik len Kirke agurgarriak emondako droga kaltekorra azi-azi eutsezan zurdak, eta nire adiskideak gizon biurtu ziran estera he, baiña len baiño gazteago, askozaz be ederrago ta galantagoak. Ezagutu ninduen eta banan-banan luzatu eustien eskua. Danen artean negar-in-

tziri samurra jagi zan, etxeak durundu egian sendaro, ta jain.
kotasuna bera be errukira yaken. Eta, neure elboan tink, one-
la mintzatu zan jainkosen artean jainkotia dana:

420 «Kirke.—Laerte'ren seme, Zeus'en leiñuko! Odis,
maiñetan azkar! Zoaz orain itxas-egalera, oial ontzia daukazun
lekura, ta atera lenbaitlen lur tinkora; eroan arpeetara onda-
sunak eta itxas-tresna guztiak, eta ekar ona beingoan zure la-
gun zintzoak.

425 «Orrela mintzo zan, eta nire biotz zabala zuritua
geratu zan. Zuzendu neban bidea oial ontzira ta itxas-egalera,
ta an ondoan aurkitu nebazan neure lagun zintzoak, itun ta
kezkaz, negar-zotin ugari ixurika. Landan okullua daukien bi-
gantzak, jauzika ta batera, esiak be arei eusteko gauza ez di-
rara, bedarrez aseak kortara biurtuz datozen bei jarraikariai
bidera urtenik, geratu barik murrusaka, amaen inguruan arin
dabiltzan lez, orrelaxe be, ni euren begi aurean ikusiaz, in-
guratu ninduen negarrez, curen aberrira ta urira, jaio ta azi
ziran Itaka latzera eldu ba'litzazan lakoxe biotz-zauskada ar-
tu eben eta. Eta, uxinga, itz arin oneik ziraustezan:

438 «Lagunak.—Zure biurtzeak, Zeus'en ikasle ori, geu-
re sort-lur Itaka'ra eltzeak beste poztuten gaitu. Baiña, tira,
konta eiguzu gaiñerako lagunen galpena.

441 «Orrela itz egien. Orduan nik mintzo samurrez:

443 «Odis.—Lenengo lurreratu daigun ontzia ta eroan
daiguzan arpeetara geure ondasun eta tresna guztiak; eta on-
doren zatoze arin neuri jarraika danok batera, gure adiskideak
zelan jan-edaten daben Kirke'ren egoitz donean; antxe ikusiko
dozue ez yakela azertxo be palta.

448 «Onela mintzatu naiaken; eta bertatik bete eben
nik esana. Euriloko izan zan bakar-bakarrik lagunak geld-i-azo
nai izan zituna, itzok esanaz:

451 «Euriloko.—Ai, doakabeak! Nora ete goaz? Zergaitik
zeuen ondamendia billatzen, Kirke'ren jauregira joanik? Arek
txarri, otso naiz leoi biurtuko gaitu guztiok, geuk gura ez-ta
be, bere bizitegi zabala gorde dagiogun. Barriro jazoko da Ki-
klopeaz gerta zana, gureak Odis ausartagaz aren arpera eldu
ta onen azarkeri zoroagaitik danak galdu ziranean.

458 «Olan mintzo zan. Niri gogoak emon eustan, ori en-
tzunik, iztar giartsuaren alde batera neroian ezpata erpin-zo-

rrotza atera ta danbateko batez aren burua lurrera jaurtzea, Euriloko senitarteko ur-samarra neban arren; baiña adiskideak geldi euki ninduen, batzuk andik eta besteak emendik, itz leunok esanaz:

464 «Lagunak.—Zeus'en ikasle! Au unen itxiko dogu, zeuk nai ba'dozu, ontzia zaindu dagian; gu, alan be, eroan gaizuz Kirke'ren bizitegi donera.

468 «Ori esanik, aldendu ziran ontzitik eta itxasotik. Euriloko be etzan geratu ontzi makur ondoan; gure atzetik etorren, ba, fine zemai izugarritz zur ta lur egiña.

471 «Kirke'k, bitartean, arretaz garbitu zitun bere egoitzean beste lagunak, orlo guriz igurtzi ta txabuxa ta soingaiñeko uletsuak jantzi eutsezan; eta gu eldu giñanerako, oturuntza alaia ospatzen egozan jauregian. Alkar ikusi ta jazo zana-ren barria arturik, zinkurinka asi ziran danak, etxea durundutan jarriaz. Jainkosen artean jainkotia danak orduan, neure alboan geldi, onela itz-egin eustan:

479 «Kirke.—Laerte'ren seme, Zeus'en leiñuko! Odis, iruzurretan jori! Emon atsaldia orain negar-zotiñari: ba-dakit neuk be arraiñez ugari dan itxasoan zenbat neke ta lor ikusi dozuezan, baita lurrean zenbat gizon gaiztok kalte egin eutzuen be. Baiña ia, jan jaki oneitatik eta edan ardaoa, zeuen aberri Itaka malkartsua lenengoz itxi zenduenean zeuen barruan zeunken biotz ona barrito zeuekandu arte. Oraingoz makal eta erdi-zorabiotuta zagoze, egin dozuen ibillaldi gogaikarria tai bage gogoan dozuela, ta zuen biotzak ez dau pozik artzen, ainbat zoritxar ikusiak zarie-ta.

489 «Olan mintzatu zan, eta gure biotzak arintzen asi ziran. Egunak joan egunak etorri, antxe lotu gintzazan untebete osoan, eta jan-edanetan beti euki genduan aragia ugari ta ardao gozoa, urtea bete ta atoen goraberak jazoaz, illabeteak eta egun asko igaro ondoren, dei egin eusten lagun zintzoak, onela adierazorik:

496 «Lagunak.—Argitsu! Ekartzu gogora zeure aurretiko en lurrean, zu, gaizkaturik, zeure sapai garaiko etxera ta asaben lurrera eldutea, alanbearrak erabagi baldin ba'dau.

499 «Orrela esan eben, nire biotz onbera limurturik. Eta egun oso aretan, eguzkia sartu arte, jarrita egon giñan, okela ugari jan eta ardao gozoa edaten. Eguzkia etzun eta illu-

nak gaintitu ginduzanean, gizategi itsuetan ogeratu ziran lagunak.

504 «Ni, barriz, Kirke'ren oge zabalera igonik, jainkota-sunaren belaunak besarkatu ta entzuten eustanari erreguka asi nintzan. Mintzatuz, itz biziok niñotsazan:

508 «Odis.—O Kirke! Bete egizu, etxera bialduko ninduzulaéta, egin zeustan ziñeskintza. Ori eskatzen daust biotzak, eta lagunena bardin, zu urrin zareanean bada negarrez daktorkidaz orixe eskatzen.

512 «Olan mintzatu nakion, Eta jainkosen artean jainkotiak ots-otsean erantzun eustan:

514 «Kirke.—Laerte'ren seme, Zeus'en leiñuko! Odis, amarrutan aberats! Ez, etzaiteze luzaroago, zeuek naiz ez-ta, emen geratu. Aurretik, alan eta guzti be, Hade'ren eta Persefonea agurgarriaren bizilekura egin bear dozue txango bat, tebatar Tiresias, aztru itsuaren arimeari eritxia eskatzeko, aren bururakizunak osorik bait dabe irauten. Ari bakar-bakarrrik, it ondoren, emon eutsozan Persefonea'k adimena ta jakituria; enparauak ba kerizpe iduri dabiltz ega-biraka.

522 «Olan jardun eban. Biotza austen yatala somatu neban eta, oian jarrita, negarrari nengion; ez neban geíago bizi nai, ezta eguzki-argirik ikusi be. Negarretan eta oian garra-garraka ase nintzanean, itz oneikaz erantzun neutson:

528 «Odis.—O Kirke! Nor izango ete da gure bide-erakusle osterar orretan, oindiñokarren gizonik iñoiz eldu ez ba'da Hade'ra ontzi baltzean?

529 «Onela nik ari. Ta bertatik jardetsi eustan j ainkosetan jainkotia danak:

531 «Kirke.—Laerte'ren seme, Zeus'en leiñuko! Odis, azpi-jokoetan aberats! Ez beizu kezkabide izan ontzi baltza nok zuzendu eukitea: goratu mastak, tolosgetu oial zuriak eta itxaron jarrita, Borea'ren Putzak eroango dau-ta ontzia. Eta Okean zearkatu ta ondartz medar bat eta Persefonea'ri opatutako oianak eta eltxun jagiak eta sarats elkorrak dagozan tokira eldukeran, geldia-azo ontzia Okean zirumol barrenkoietan, eta zoaz Hade'ren egoitz aizarotsura. An, Pírflegeton'ek eta Kozito'k, ots, Estix'etik ura dakarren erreka, Akeronte'ra deroez euren urak; ibai durundutsu areik alkartzen diran unean,

arkaitz bat daukazu. Leku ontara, ba, urreraturik, agindu dargitzudan lez, oi gizuren!, alde bietatik ukondo bat leukaken zulo bat atxurtu egizu; egin onen biran ixurketa bat ildako guztiai, lenengo esku-urez, ardao gozoz gero ta uraz irugarrenez; urun zuriaz dana autsezturik. Jaso ondoren ainitz eskari ildakoen buru utsalai, eta zin-egizu, Itaka'ra eldutakoan, bei bat, ume egiteko ez dagoana, baiña bai legoken onena, eskiñiko dautsazula jauregian, baita aren omenez, sutea gauza bikaiñez bete be; Tiresias'i gaiñera, beratar, lepo-egingo dautsozu zeuon artaldeetan nabarmenena dan aari baltza. Zeure otoitzez illen erri ospetsuari dei egin ondoren, ii bertan aari bat eta ardi bat, Erebo'ra arpegia biurtuta, eta baztertu zaitzez pizkat ibaiaren tirain aldera: araxe urreratu dira ildako askoren arimak. Mintza zakioez beingoan lagunai, ta agindu eiezu narrutu dagiezala abereak, borontze ankerrak jota, illik datzaen lurretik artuaz, eta bat-batean erre dagiezala, Hade altsuari ta Persefonea gurgarriari ziñ-itzak egiñik; eta zuk atera zorrotik iztar ondoan daroazun ezpata, ezarri ta ez egiezu itxi illen buru utsalai odolera urreratzen, Tiresias'i itandu dagiozun arte. Laster aurreratuko da aztrua, gizonen printzea, eta berak esango dautzu nundik joan bear dozun, zenbat eguneko bidea izango dan eta, itxaso arraiñetan joria zearkatuaz, zelan biurtu al izango dozun aberrira.

568 «Orrela esan eban, eta beingo baten eldu zan Egunsentia, urrezko alkiduna. Kirke'k txabuxa ta soingaiñekoa jantzi eustazan; eta berak soiñeko zabal zuri, leun dotorea, jantzi eban, gerria urrezko galartzuz lotu ta burua zapi bitxiz estaldurik. Ni etxean zear ibiHi nintzan lagunai onuak emoten, bakotxari urretik, onako itzak esanaz:

574 «Odis.—Ez zaiteze luzatu lo gozoan nasai. Abia gaitazan berealaxe, Kirke agurgarriak orrela dinost eta.

577 «Olan esan neutsen; eta ontzat artu eben nik esana. Baiña andik be ezin izan nebazan neure lagunak oro kalterik bage croan. Elpenor zana, danetan gazteena, craso aldietan ez zangar, burutik be ondo ez egoana, ardaoz aseta gero giro ozkirri billa joanik, bere lagunakandik urrin samar Jotaratu zan Kirke'ren egoitz donean; eta abiatzen asi ziran lagunkideen barbaroa ta barailla entzunaz, supituan jagi ta, mailadi luzetik jasteko atzera biurtzea aztu yakolako, sapaitik

beera jausi ta lepazurrak ausi yakozan, eta Hade'ra jatsi zan
aren arima.

588 «Danak alkarganatu ziranean, itzok esan neutsezan:

590 «**Odis.**—Etxera goazala uste dozue bear bada, geure asaben lurrera; beraz, Kirke'k esan dausku aurretik Hade'ren eta Persefontea gurgarriaren bizilekura osterata egin bear dogula tebatar Tiresias'en arimeari onua eskatzeko.

596 «Orrela itz-egin neutsen. Itzokaz biotza zatitu yaken guztiai eta, ber-bertan jarriarik, negarrari emon eutsoen, uleai tenka eginaz. Baiña illeta areitatik ez eben onurarik atara.

597 «Atsekabez beterik, itxesorantz eta oial ontzia geunkan lekurantza abiatu giñanean negar-maiko bizitan, Kirke etorri yakun eta ontzi baltzari aari bat eta ardi baltz bat lotu eutsozan. Eta ori inor be oartu edo konturatu barik egin eban naikoa errez; izan be, nok ikusiko dau bere begi biakaz doan naiz datorren jainkotasun bat, berak naí baldin ez ba leuke?

XI KANTUA

Illak gogoraztea

«Ontzira ta itxas jainkozkora elduaz, ontzi baltza uretara bota, masta goratu ta oialteria askatu gendun: ontziratut genduzan gero abereak, eta azkenez geu be ontziratut giñan goibel eta negar-malkotan, Branka urdiñezko ontziari atzetik putz-egion aize onak, oialak puzturik; lagun ona nunbait Kirke'k, ule-txorta politdunak, abots zolidun jainkosa altsuak bialdu euskuna, Gauza bakotxa bere lekuan egokiturik, ontzian jarri giñan. Au aizeak eta lemazaiñak eroien, eta egunez oial-zabal bide egin eban, eguzkia sartu ta itzalak bide guztietaz jabetu ziran arteño.

13 «Orduantxe eldu gintzazan Okean tirain sakondunaren azken-mugetara. Antxe Kimeritarren erri ta uria laiño ta odei artean, eguzki dizditsuak iñoiz be bere erraiñuz argitzen ez ditula, ez zeru izartsura igon oi danean, ez zerutik lurrera datorrenean, gauraldi gaizkorra edatzen da ba gizaki gaixoen gaiñean. Bazter ontara jo eban gure ontziak, ondarrera atera gendunak; eta gu, geure ardiak arturik, Oke:-,n'go tirain ertzez ibilli giñan, Kirke'k esan euskun unera eldu arte.

23 «Antxe Perimede'k eta Euriloko'k oparaigaiak eukiezala, nik, iztar ondoan neroian ezpata zorrotza zorrotik atera ta alderdi bakotxetik ukondo bateko zuloa zabaltu neban; onen biran gero ixurketa egin neutsen, lenen ur-eztiz, ardao gozoz gero ta urez irugarrenean; eta urun Zuriaz autseztu neban guztia. jarraian iuco buru utsalai dei egin neutsen arrengea, baita zin-egin be, Itaka'ra eltzean, jauregian opatuko neutse. tsela bei antzu bat, egoanik onena, ta euren omenez gauza bikaiñakaz beteko nebala sutea, eta Tiresias'i bereziki aari baltz-baltz bat, gure artaldeko nabarmenena, eskiñiko neutsolea. Ildakoen erriari ziñitzez eta eskariz otoitz-egin ondoren, abereak artu, zulo gaiñean sarraskitu ta odol baltza txirristu

zanean, berealaxe batzartu ziran, Erebo'tik urtenik, ildakoen arimak: emakume gazteak, mutillak, beste orduz gaitz asko jasandako agurak, neskatil samurrak neke-barriz atsekabetutakoak, eta gizuren asko gudan illak, borontzezko lantzaz zau-rituak, guda-jantzi odol-gorrituak erakusten ebezanak: zala-partaka ebiltzan danak, marmarketa bízian, zuloaren inguru-mari, batzuk andik eta beste batzuk emendik; eta izu larua nausítu zan nitaz. Beingoan itz-egin neutsen lagunai, narrutu egiezala abereak agindurik; borontze ankerrak sarraskituta egozan lekutik artu ta erre egiezala bat-batean, Hade altsuari ta Persefonea agurgarriari zin-itzak egiñik; eta nik, iztar ondoan neroian ezpata zorrotza ateratik, jarri ta illen buru utsalai ez neutsen itxi odolera urreratzen, Tiresias'i itandu aurretik.

54 «Aurrenengo etorri zan Elpenor gure lagunaren ari-meia izan zan, ots, lur zabalean oraindiño lur artu barik geratu zana; aren gorpua bada Kirke'ren egoitzean laga genduan eortzi bage ta negarrik be egiteke, beste arazo batzuk estutzen ginduezan eta. Ikusi nebaneko negarrari emon neutsan, eta biotz-errukitua, ta min-askatua, onela itz-egin neutson:

60 «Odis.—O Elpenor! Zelan etorri ziñan itzal aizarotsu oneitara? Zu oiñez eldu zara, ni ontzi baltzean baiño len.

63 «Onan mintzatu nintzakon; eta arek, asperenka, itzokaz erantzun eustan:

65 «Elpenor.—Laerte'ren seme, Zeus'en leiñuko! Odis, iruzurretan azkar! Jainkoren bateren nai txarrak eta ardao larregiak galdu ninduen. Kirke'ren egoitzean lotaratu nintzanean, ez nintzan atzera biurtu, zurubi luzetik jasteko, ta sapaitik beera jausi nintzan; samako azurrak ausi yatazan, eta Hade'ren egoitzera jatsi zan nire arimea. Orain arren dagitzut, zure etxean geratu ziranakaitik eta emen aurkitzen ez diranakaitik (zeure emazte, ume ziñala azi zinduzan aita, ta Telemako, jau-regian itxi zenduan kimu bakarragaitik): ba-dakit, emendik, Hade'ren egoitzetik abiatzean, Eea izaroan geldituko dozuna ondo landutako ontzia: ník daskatzut, ba, o errege!, ara el-tzean gogora zaitezala zigaz. Ez zaitez andik aldendu, nire gorpua negarrik egiteke ta eortzi bage itxirik, jainkoen asarrea sumindu ez dagidan zure aurka; bestera, erre egizu nire gorpua neuk nerabillezan izkilluakaz, eta jaso eidazu obi bat itxas apartsuaren urbeeran, gerokoak izan dagie gizaki doakabe onen

barri. Egizu olan, ta josi obian, bizi ninizala, neure lagunakaz itxas nengian arraun a.

85 «Onakoak izan ziran aren solasak; eta nik erantzun:

86 «Odis.—Guzti-guzti ori egingo dautzut, oi doakabe!; oso-osoan beteko dautzut diñostazuna.

88 «Edu onetan, biok jarrita, onako errazoi goibelak esaten geuntsozan **nik jasorik neukan ezpatea odol gaiñean**; eta nire lagunak, bestekaldetik, nasai itz egian.

92 «Gero Antikele, nire ama zanaren arimea etorri zan, Autolik biotz-zabalaren alabarena, nik Ilion donerako urten nebanean bizirik itxi nebanarena nunbait. Negarrari emon neutsan bera ikustean, biotz-errukiturik; baiña alan be, oso atsekabetuta nengoan arren, ez neutson itxi odolera urreratzen, Tiresias'i itandu baiño len.

98 «Tiresias, urrezko agint-makilla eskuratzen eban tebatarraren arima etorri zan gero. Laster ezagutu nindun, eta onda itz egin eustan:

101 «Tiresias.—Laerte'ren seme, Zeus'en leiñuko! Odis, inzurretan azkar! Zergaitik, zori txarreko ori, eguzkiaren argia laga ta illak ikustera zatoz eskualde gozaga ontara? Alde zu ortik eta bztertu ezpata zorrotz ori, odola edan eta iragarri dagitzudan gura dazunaren egia.

106 «Orrela mintzatu zan. Baztartu nintzan eta zorroan sartu neban zidar untzez ornidutako ezpatea. 'garle gurenak edan eban odol baltzetik, eta beingoan itz-egin eustan onela:

109 «Tiresias.—Itzuli gozoaren billa **Odis argia**, eta oso zail egingo dautzu jainko batek; ez dot uste, ba, lurra iñarrosoi oi dabenarentzat oarkabe ibilliko zareanik, eta arek amorrua dautzu biotzean, semea itsutu zeuntsonetik suminduta. Baiña alan be aberrira elduko zintzakeze, neke-lorrak igarota gero, ur-zabaldi ubeletik iges-egin ondoren, Trinaki ugartearen ontzi ondo landua lotzen clozuenean, zeuk eta zeure lagunak, barne-leiari eutsi ba'dagiozue: oro ikusi ta oro entzun oi dauan Eguzkiaren beiak eta ardi gizenak aurkituko dozuez an, larran bazkatzen. Kalterk bage itxi ba'zengiz, zeure itzulpena gertatzen bakar bakarrik arazotuaz, oindiño elduko ziñake Itara'ra, naigabe asko jasan ondoren; baiña kalterik egin ba'zengiezu, oraindixek diragartzut ontziaren eta zeure adiskideen galpena. Eta zeu askatu arren be, berandu elduko zara, ta txarto, lagun

guztiak galduta, iñoren ontzian, eta jauregian be beste izurri bat idoroko dozu: gizaki arroputzak, zure ogasunak iruntsi ta zure ezkon-lagun jankotiaren billa, eztegu-bezuzak eta, eskintzen dabiltenak. Zuk, eldukeran, aiertuko dituzu arein geiegikeriak. Baiña zeure egoitzean senargaiai eriotza emondakoan, naiz azpi-jokoz, naiz borontze zorrotzaz aurrez-aurre, artuizu arraun eroso bat eta zoaz ez egundo itxasorik ikusi, ez gatzituriko jatekorik artu, ez aurre eragituzko ontzirik ezagutu, ez itxas-ontzien ego lez diran arraun erabil-errezen barririk eztaben gizaki areikana eldu arte. Ortarako ezaugarri nabari bat emongo dautzut, konturatu barik joango ez yatzuna. Bidean beste bidazti bat aurkitu ta sorbalda lerden gaiñean artzari bat daroazula esango leuskizun onean, josi lurrean arraun erabil-erreza, eskiñi Posidon gurenari aari bat oparitzat, baita zezen bat eta ordotz bat be, eta biur zaite zeure etxera, ta antxe ilketa deunak egingo dautsezu, sailka egin be, ortzi zabala daukien jainko illezkorrai. Geroago etorriko yatzu, eta itxasotik urrun, eriotz oso leuna, zaartzaro atsegiñak abailduta zaukazanean bizia kendumo dautzuna; eta zure ingurumari doatsuak izango dira uritarrak. Dirautzudana egia da.

145 «Orrela adierazo eban; eta nik erantzuki:

146 «Odis.—Tiresias! Gauza orreik, jainkoak eurak edo ebezan erabagiko. Baiña, tira, mintzo zaite ta erantzun leialki. Neure ama zanaren arimea dakust, odol ondoan íxillik, bere semeari bekoz beko begiratzen, ez itzik egiten, azartzen ez dala, Esaidazu, errege!, zelan ezagutu al izango nau?

152 «Olan mintza ni. ntzakon; eta itzetik ortzera erantzun eustan, esanez:

153 «Tiresías.—Esango dautzudazan itz lau batzukaz adierazoko dautzut ori. Odolera urreratzen zuk itziko dautsazun ildakoetakoak, arexek emongo dautzuz albiste seguruak; uka zengiona, barniz, bertatik itzuliko da.

158 «Orrela esanaz, Tiresias nausiaren arimea, iragarkizunak burutu ostean, Hade'ren egoitzera joan zan. Ni alan be geldi egon nintzan neure amak, etorrita, odol baltzgorria edan artean. Otsean ezagutu ninduen eta, zotinka, itz ariñok esan eustazan:

163 «Antikele.—Ene seme! Zelan jatsi zara, bizirik, illunpe belun ontara? Nekeza da toki oneik bizidunak ikuskatzea,

ibai aundiz bananduta dagoz bada, ta tirain oldartsuz, eta batez be Okean'ez, oiñez ez baiña ontzi ondo egiñikoan igaro bear dozu-ta. Troia'tik zatoz bear bada, ontziaz eta lagunakaz itxaso zear luzaroan ibilli ondoren? Ez zara oindiño Itaka'ra eldu, ta ez dozu jauregian zeure cmaztea ikusi?

171 «Orrela esan eban; eta nik gisa ontan jardetsi:

172 «Odis.—Ene ama! Bearrak ekarri nindun Hade'ren egoitzera, Tiresias tebatarren arimeari aolkua eskatzen; baiña oindiño ez naz Akaia'ra urreratu, ezta neure lurrean sartu be, alderrai nabil ba beti ta nekeak jasaten, Agamenon jainkotiar, troiarrakaz gudukatzeko, zalditan aberats dan Ilion'era jarraitu neutsanetik. Baiña, tira, mintzo zaite ta erantzun eidazu leialki: Zein eriotz bildurgarrik egin eban zurea? Gaixoaldi luzeak, ala bear bada, Artemis'ek, gezi-zaleak, II zinduzan bere gezikolpe gozoz? Itz eidazu neure aitaz ta itxi neban semeaz; esaidazu, bai, nire errege-duintasuna eurak iraunazoten daben edo-ta beste gizasemereren batek daukan, ni ez nazala biurtuko uste da belako. Iragar eidazu baita nire legezko emaztearen naia ta eritxia: nire semeaz bizi ta ondasunak oro zaindu ta zutik daukazan, ala bear bada akeutarrik onenagaz ezkontzaz alkartu dan.

187 «Onan mintzatu nintzakon; eta bertatik erantzun eustan nire ama agurgarriak:

189 «Antikele.—Ak an jaraitzen dau zure jauregian, atsekabez betea, ta gau-egunak oso goibel igaroten ditu, negar eta negar. Oindiño ez dauka iñok zure errege agintaritza bikaiña: Telemako'k bakez lantzan ditu zure solo-landak, eta jan-edate garbietan esku artzen dau, zuzenbidearen ardurea dauan giza-semeari dagokionez, guztiak gomit dagitse-ta. Zure aita base-rrian agertzen da, urira jatsi barik, eta ez dauka ogenik, ez kamañarik, ez maindirarik, ez oge-gaiñeko ederrik; bestera, neguan etxeko morroien artean lo dagi, autsean, sutondoan, eta soiñeko zarpailduak daroaz; eta uda ta udazken emokorra eldu ordukoxe, nainun jarten yakoz, maasti jorian, osto igrerezko etzangoak, eta ortakoetan datza miñetan, zure biurpena ikusi naiez neketan, eldu dan zaartzaroari dagokiozan alamen eta akidurak kontuan artu bage. Orrelaxe u nintzan ni be, abeari berea emonik: ez nindun ez zauritu zartako leunez jauregian begi-zizta zoliz geziak jaurtzen atsegiña izan oi dauanak, ezta ez eustan akidura gogoikarriz soin-atalen bizitasuna eroan oi daben oreitariko gaixoren batek eraso; obeto esateko, zurekiko

bakartadeak, zure kezka-arreten gomutak eta dautzudan maitasunak, Odis aipagarria, bizi samurraren aria eten eusten.

210 «Onda elekatu zan. Orduantxe bete nai izan neban neure barruan artuta neukan xedea, ots, neure ama zanaren arimea besarkatzekoa. Iru bidar urreratu naiakon, gogoak a besarkatzera bultz-egistalako; iru bidar joan yatan egaz esku artetik, itzala edo-ta ames bailitzan. Orduan oiñaze aundi geituz joana somatu neban biotzean, eta itz ariñok esan neutsazan amari:

217 «Odis.—Ene ama! Zegaitik zoaz igeska, zeuri eldu nairik, urreratzen naiatzunean, Hade'ren egoitzean bertan batak bestea beso artean estutu ta biok negar-zotin itunean ase gaitzezan? Irudi utsal au bialdu eustan bear bada Persefonea argiak, nire adia-marraskak eta antzi-zizpuruak?

223 «Onela esan neutson; eta beingo baten erantzun eustan nire ama agurgarriak:

225 «Antikele.—Ai ene, ene seme, gizonetan doakabeena! Ez zaitu atzipetzen, ez, Persefonea'k, Zeus'en alabak, auxe baita ilkorren zoria ilten diranean: kirioak onezkero ez daukiez baturik aragia ta azurrak, sugar ixiotuen kemen biziak aitzen ditu oneik, azurreri zuria biziak itxi baizen laster, eta arimea egazka doa, ametsa bai'litzan. Baiña alegindu zaite alik ariñen argitara biurtzen, eta eroaizuz gauza guztiak ondo ikasita, gero zeure ezkontideari adierazo dagiozuzan.

234 «Olan alkar autuan giñarduala (Persefonea ikastunak bialduta) gizaseme argien emazte naiz alabak izan ziranetatik ainbat emakume etorri ziran aurrera, odol baltzaren bitan saldoka batzarturik; eta nik buruan nerabillen zelan arei banan-banan zerbait itandu nengien. Azkenez auxe iruditu yatan erabagirik onena: iztar ondoan nekarren ezpata erpin luzeduna zorrotik atera ta ez neutsen itxi odol baltzitutik danak batera edaten. Beraz, bein banan urreratuz joiazan, bakotxak bere jatorria iragarri eustan, eta guztiai egin neutsezan galderak.

244 «Tiro, seaska argikoa, izan zan lenen ikusi nebana; Salmoneu gurenaren alaba ta Kreteu Eolida'ren emaztea izan zala esan eustan. Ibai batekin maite mindua ibillia zan, munduan zear dabillen ibairik ederrenaz, Enipeu jainkotiaz noski, ta aren ur-ertz ederretan egurastu oi zan; bailía lurra besarkatu ta astintzen dauana, Enipeu'ren antza arturik, beragaz ogeratu

zan ibai zirimoltsuaren agoan. Purpur olatua, mendia baizen aundia, bien inguruan makurtu zan, jainkoa ta emakume ilkorra estal-azirik. Posidon'ek neskatiillari neskutz gerrikoa askatu ta loa ixuri eutson. Baiña, bere maite-tirriak jaritsi baizen laster, eskutik oratu ta itzok erasan eutsazan:

257 «Posidon.—Alai zaite, emakume, maitasun onegaz. Urte barruan seme ospetsuak izango dituzu, illezkorren alkar-tzeak bada ez dita iñoiz be antzuak izaten. Jagon eta azi egizuz. Orain biur zaite zeure etxera, eta ez egizu nire izenik aitatu, zeuretzat bakarrik naz-eta lurra astindu oi dauan Posidon.

262 «Au autortuaz bat, urtza eragiñean murgildu zan. Tiro seindun geratu zan, eta Pellas eta Neleu argitara ekarri zitun, Zeus aundiaren zerbitzari saiatu izango ziranak nunbait; eta Pelias, giberritan aberats, Yaolko zabalean bizi izan zan, eta Neleu, Pilos aretsuan. Emakumeen erregiñak, gaiñera, Kreteu' gandik beste iru semeok euki ebazan: Eson, Feres eta Amitaon, burdian burruka egiten ebana.

269 «Ondoren Antiope ikusi neban, Asopo'ren alaba, Zeus'en besoetan lo egin ebalako pozik aurkitzen zana. Seme bi izan zituan —Anfion eta Zeto—, zazpi atedun Tebas irasi ta lenen arresiz inguratu ebenak; uri nasai aretan ba, torre bagarik, ez eben bizi al izango, naiz eta eurak oso adoretuak izan.

275 «Gero Alkmena ikusi neban, Anfitrion'en emaztea, Zeus aundiaren besarkadatik leoi biozdun Herakles sendoa euki ebana; eta ondoren Megara sortu eban, Kreonte oldartsuaren alaba, ta au euki eban emaztetzat Anfitrion'en semeak, beti ezikaitz ta indartsu.

280 «Edipo'ren ama be ikusi neban, Epikasta liraiña, nai-ezta, bere semeagaz ezkonduarik, uts aundia egin ebana; onek, bada, bere-bere aita il ondoren, emaztetzat artu eban. Jainkoak belutu barik iragarri eutsen gizakiai gertatu zana; eta, alan be, Edipo'k, ezbear izan arren, jainkotasunen xede kalte-garriakaitik, kadmeutarren errege jarraitu eban Tebas atsegin-garrian; baiña Epikasta, atsekabez eratsia, ate sendodun Hade' ren egoitzera joan zan, sapai jasara lokarri bat emonik, eta ama baten Eriniak ekarri oi dabezan beste samintasunez itxi eban,

291 «Kloris eder-ederra be ikusi neban —Neleu'k, ederra zalako, au artu eban emazte, sekulako ezkontsaria izentaurik—,

Anfion Yasida'ren alaba txikiena, Orkomeno Minieu'n aginpide gogorra eukonarena noski: alaba au erregiña izan zan Pilos'en, eta Neleu'gandik seme ospetsuak izan ebazan: Nestor, Kromi ta Periklimeno argoia. Gero Pero ospetsua munduratu eban, ilkorrren atsegiña, bere auzoko guztiak emazterzat gura izan ebena; baiña Neleu'k ez eutson iñori emon nai izan, Filake'tik bei adarbiurrindun eta Ifiklo zangarraren bekoki edatua ekarten eutsozanari baiño; arazo neketsua bene-benetan. Igarle bikain batek bakar-bakarrrik agindu eban ekarriko eutsozala; baiña jainko baten xede gaiztoak, kate sendo ta landako beizaiñen laguntzaz, galazo eutsoen egitekoa burutzea. Alan be, egunak eta illak, eta urtea be igarorik, urte-aroak gertatu ziralarik, Ifiklo zangarrak askatu eban erantzun guztiak iragarri eutsozan aztrua, ta orduantxe bete zan Zeus'en naia.

308 «Leda orobat ikusi neban, Tindaro'ren emaztea, gogo berozko seme bi emon eutsazana: Kastor, zaldi-ezlea, ta Polideukes, ukabilkari gaiñ-gaiñekoa. Lur amak daukaz oneik bizerik, eta aren azpian Zeus'ek omenduak dira; ain zuzen, bizi ta il usbeteka dagie, bata bizi dan egunean ba bestea il oi da, ta alderantziz. Goi-indarrak lakoxe omena artzen dabe bi-biak.

315 «Ifimedi ikusi neban ondoren, Aloeu'ren emaztea, Posidon'egaz joera izan ebalako alaitzen zana. Seme bi izan ebazan, bizitza laburrekoak: Oto, jainko baten kideko, eta Efialtes txit ospetsua; oneik izan ziran lur emokorrak azi ditun giza-semerik aundienak, eta galantenak, Orion argia kendu ezkerro, bederatzi urtekin bada bederatzi ukondo zabal eta bederatzi gizabete luze-laburrean eukezan. Oto'k eta Efialtes'ek zemaika artu ebezan Olinpo'ko illezkorrek gudu oldartsuan naspil-aziko ebezala-ta. Osa, Olinpo gaiñean jarri nai izan eben, eta Osa'ren gaiñean Pelion ostotsua, urbil-errez izan ekien zerua. Eta amaira eroan izango eben euren asmoa, gaztetasunaren lorera eldu izan ba'litzaz; baiña Zeus'en semeak, Leto'k, adats ederdunak, ludiratu ebanak, bi-biak soildu ebazan arein garunpetan illeuna loratu ta arein okotzak ule leunez kukutu baiño len.

330 «Fedra ikusi neban, Prokris eta Ariadna lerdena, Minos malmutzaren alaba, Teseu'k Kreta'tik Atenai doneko lurralde jorira eroan ebana; baiña ezin jadetsi izan eban, Artemis'ek bada, Dioniso'k salatuta, olatu artean dagon Dia ugar-tean bizia kendu eutson.

335 «Mera be ikusi neban, Klimene be bai ta Erifle iguin-garria, bere senarra saltzearren urre bikaiña artu ebana. Eta ez neukez esan eta izentau al izango ondoren ikusi nebazan gizurenen emazte ta alaba guztiak, amaitu orduko jainkozko gaua bere jomugara elduko litzakit eta. Baiña lotarako ordua da, naiz lagunak dagozan oial-ontzira joanik, naiz berton oindiño irau-nik. Eta jainkoak arduratuko dira niri aberrira lagun egiten, baita zuok be.

343 «Orrela mintzatu zan. Mututu ziran entzuleak jauregi goibeean, eta, ari entzunaz lilluraturik, ixil-ixil geratu ziran. Baiña Arete, edur-besoduna, onan asi yaken mintzatzen:

347 «Arete.—Feaziarrok! Nor dala uste dozue gizaseme au, arpegíz, luze-laburrez eta irizpide artezez? Neure arrotz da, baiña dedu onen erdikide zarie zuok be. Ez egizue, beraz, onen joatea leiatu, doe ta bezuzarik be xurki emon, bear-izanean dago ba ta zuen jauregietan ba-da aberastasunik, jainkoak orre-la naita.

353 «Orduan feaziarren artean zarrena zan Ekeneu gizurenak, onela itz egin eutsen:

355 «Ekeneu.—Adiskideak! Erregiñ gurbillak egoki ta bidezko ez danik ez dausku esan. Egizue, bada, berak esana; Alkinoo dan arren, bere itzez ta egiñez, erakutsi ona emon daikeguna.

359 «Alkinoo'k erantzun:

360 «Alkinoo.—Diñozuna beteko da ni arraun-zale diran feazitarren errege nazan artean. Arrotza, naiz-ta bere aberrira itzuli gurata egon, bego emen etsirik biar arte, bezuza ta esku-erakutsiak oro gertatu dagitsadazan. Eta aren joateaz gizaki guztiak arduratuko dira, eta neu batez be, erri ontako nausi nozue-ta.

367 «Odis asmotsuak erantzun eutson, esanez:

368 «Odis.—Errege Alkinoo, uritarretan argiena! Urte osoan emen egoteko agindu baldin ba'dagistazu, ta urte orren buruan nire itzulia gertatu ta doe ta esku-erakutsi bikaiñak egin, pozik geratuko nintzake zuokaz; oba litzateke bada esku-beterik aberrira eldu ta olan, ni Itaka'ra biurtzen ikusiko nin-dukenen artean, neure burua omenduago ta maitatuago ikustea.

375 «Ordun Alkínoo'k erantzun eutson, gisa onetan:

377 «Alkinoo,—Oi Odis! Zu ikustean, ez dogu, ez, lur
illunak azten dituan beste askoren antzera, ao-zuri ta guzurti
zareanik uste; olakoak, ain zuzen be, nun-nai sakabanatuta,
inok igarri ezin leikezan lakoxe guzurak biribiltzen dabez: zuk
eder jantzi oi dozuz zeure solasak, bikain zara asmotan eta aedo
baten trebetasunez edestu dauskuzuz zeure gauzak, argibotarren
neke-lorrak eta zeuri jazoak argi ta garbi adierazorik. Baiña,
tira, mintza zaita ta esaidazu leialkiro ikusi ete zenduan zuri
Ilion'era lagun egin eta an eriotza garratza iruntsi eben adis-
kide jainko-antzeko areitakorik. Gaua luzea da, oso luzea, ta
oraindik ez da eldu jauregian lotaratzeko ordu. Konta eidazuz,
ba, egitsari arrigarri orreik, ni bada egunsenti gurenerarte emen-
txe nengoke, areto ontan zeure ezbearrak adieraztea opa ba'
zeustaz.

391 «Odis asmotsuak erantzun:

392 «Odis.—Alkinoo errege, uritarren artean argiena!
Ba-dira ordu egokiak autu luzeetarako, eta orduak loari emote-
koak; baiña oindiño be niri entzuteko pozetan ba'zara, zori-
txarrak, teukrotarren gudu itsetik iges egin ondoren, euren abe-
rrira itzultzerakoan, emakume donga batek orrela nai izan eba-
lako, ji ziranenak noski.

400 «Persefonea garbiak ara ta ona emakumeen arimak
sakabanatu ebazanean, Agamenon Atrida'rena aurkeztu zan txit
atsekabetua; onen inguruan alkartzen bait ziran Egisto'ren
etxean, curen siratsa beterik, gizurenagaz batera u ziranen ari-
mak ber Odol baltza edan ebanekoxe ezagutu nindun, eta ber-
tatik asi zan negarrez, intziri zoliz: negar-anpuluz betea, es-
kuak luzatzen eustazan ni besarkatu naiean; baiña onezkero
ez eukan lengo adorerik, ezta soin-ataletan lengo malgutasunik
ber A ikusiz negarrari emon neutsan, eta, biotz-errukiturik, itz
ariñok erauzi neutsazan:

411 «Odis.—Atrida aintzatsu, gizonen errege, Agamenon!
Zein adu eriotz ikaragarrikok kendu eutzun bizia? Bear bada
Posidon'ek u zinduzan zeure ontzietan, aize-bolada izugarrien
ats-aldi gogorra sorturik, edo-ta lur tinkoan gizaseme etsaiak
emon eutzuen eriotza, euren idiak eta artalde ederrak zeroiezu-
zalako, edo-ta curen uriaz eta euren emazteakaz jabetu nairik
burukatzen zendulako?

418 «Onda esan neutsan; eta ak erantzun beingoan:

419 «Agamenon.—Laerte'ren seme, Zeus'en leiñuko!
Odis, amarrutan azkar! Ez nindun ii ontzietan Posidon'ek, aize izugarrien bolada latza ler-azirik, ezta ez ninduen gizaki. etsaiak lur tinkoan ni erail; Egisto'k gertau eustan eriotza, eta aduak, neure emazte doakaheagaz aituta, bere etxera dei egin eustan, eta jaten emonaz, bizia kendu eustan idi bati aska ondoan kentzen yakon lez. Edu orretan ji nintzan, erio negargarria jasanik; eta neure ingurumari sarraskituak izan ziran nire lagunak be, hata bestearen ondoren, gizaseme aberats eta aaltsu baten etxean, eztegu-oturuntza baterako,, nork beretik jaten dauan bazkari baterako, naiz orrits bikain-bikaiñerako, ortz zuridun txarriak sastakatu oi diran legetxe. Ikusi izan dozu burruka latzean banaka jausitako gizon ilketa joria; baiña benetako errukia emongo eutzun aurki ikuskizun arek, gu kratera biran ota mai beteen inguruan zelan gengoza ikusiaz, heia andik eta emendik odolez hlei-blei geunkala. Entzun neban Priamu'ren alaba, Kasanclere'en aots errukiorra, Klitemnestra maltzurak, neure alboan, ilten eukanarena; eta nik, lurrean eta il-bearreko, besoak jaso neroiazan ezpatatik oratu nairik. Baiña lotsa-galdu a joan egin zan gero, niri ez betazalak eratsi ez ana itxi bagarik, Hade'ren egoitzera jatsiz niñioiala ekusan arren. Beraz, ez dago, bere legezko senarraren aurka eriotza zitala matazatu eban aren antzeko asmoak bere barruan sortu oi dauazan emakumearen xedeak baiño izugarri ta lotsa-bagekoagorik. Neure etxera biurtzerakoan, liste neban, ni ikusiz poztu egingo ziralta nire seme-alabak eta nire jopuak; baiña a, gaiztakeriak egiten beste iñor baiño zurgatxagoa, lotsariz estaldu eban bere burua, ta baita jaiotzeko diran emakumak he, nai aiña onbidetsuak.

450 «Orrela mintzatu zan; eta nik erantzunaz:

451 «Odis.—O jainkoak! Egi-egiaz, Zeus luze-ikusleari beti iguingarri izan yakon, oso-osorile, Atereu'ren etorkia, asi-asieratik ain zuzen, emakumeen itxuskeria zala-ta, asko galdu giriean Ele.na'gaitik, eta Klitemnestra'k sare-arte bat gertatu eutzun, zu urrin ziñan bitartean.

456 «Onela itz egin neutson; eta bertatik ak erantzun:

457 «Agamenon.—Ortaz, ez zaite egundo he onbera izan zeure emazteaz, ezta ez egiozu erakutsi barruan darabizun guttia; bestera, gauza batzuk hai esan egiozuz, baiña beste batzuk gorde. Baiña zuri, oi Odis!, ez yatzu eriotzea etorriko zeure

emazteagaitik, Penelopo zurra, Ikari'ren alaba, oso zentzunduna baita, ta aren asmoak be zuzenbidezkoak. Ezkonbarri itxi genduan gudarako unen gintzazanean, eta bere semeari bularra emotsan, umetxo oindiñoarren; au onezkero, alai ta zorionsu, gizisemeen arteko dogu. Eta aren aitak, aberrira biurtzean, ikusiko dau; eta ak bere aita besarkatuko dau, bidezko danez. Nire emazteak, orraitino, ez eustan niri itxi ni neurea begi oneikaz ikusiz, asetu nenclin, aurretik ii egin eustan eta. Beste zerbait be esan bear dautzut, biotzean ipiño dozun: lur aberrian kai egitean, egizu ezkutuan eta ez aize zabalean, aurrerantzean ezin daiteke ba emakumeengan uste onik izan. Baiña, ia, mintza zaite ta esaidazu leialki nire semea Orkomeno'n bizi danik entzun ete zenduan, edo n'os aretsuan, edo-ta Menelao' rekin bear bada Esparta eclatuan; Orestes jainkotia ez da, ba, oindiño lurretik ostendu.

475 «Era onetan mintzatu zan; eta jardetsi neutson, esanez:

476 «Odis.—O Atricle! Zer dala-ta dagistazu itaun ori? Ez dakit a bizia dan ala illa, eta txarra da alperrik itz egitea.

479 «Gu, atsekabeturik, alkarri onako errazoi goibelak esaten eta negar-maiko ugari ixurika genbiltzala, Akileu Pelida'ren, Patroklo'ren, Antiloko akats-bakoaren eta Pelion guranaren ondoren, danaotar guztietatik soñez ta ederrez bikaiñena izan zan Aiante'ren arimak etorri yatazan. Eakida, oinariñaren arimak laster ezagutu nindun, eta erostaka itzok esan eustazan:

486 «Akileu.—Laerte'ren seme, Zeus'en leiñuko! Odis, maltzurkerietan azkar! Zori gaiztoko! Lengoak baiño, zer egiteko aundiago darabilzu barnean? Zelan azartzen zara Hade'ren egoitzera, ilclakoen errira jasten? Oneik ez dabe zentzunik, eta izan ziran gizasemeen irudi besterik ez dituzu.

492 «Onan adierazo eban; eta nik jardetsi, esanez:

493 «Odis.—O Akileu, Peleu'ren seme, akibotarretan adoretuena! Tiresias'en iragarkiagaitik etorri nintzan, Itaka malkartsura eltzeko onuren bat emon ba'egistan: oraindik ez naz ba Akaia'ra urreratu, ezta neure lurean sartu be, etenbako neke ta zori txarrak jasan-azi baiño. Baiña zu, o Akileu!, jaiotako ta jaioko diran gizaseme guztietatik zorionsuena zara, len bada, bizi ziñala, jainkotasun bat lez onesten zinduguzan argibotarrok, eta orain, emen zagozalarik, ildakoen gaiñ agintzen

dozu indartsuki, Beraz, o Akileu!, ez daukazu zetan goibel ego-
nik ilda zagozalako.

504 «Orrela esan neutson; eta bat-batez erantzun eustan:

505 «Akileu.—Ez zaitez saia, Odis argitsu, ni eriotzaz
poztu naita: lugin izan naiago neuke ta beste baten zerbitzari
izan, jateko gitxi baiño ez leukaken gizon beartsu batena adi-
bidez, zendu guztien errege izan baiño. Baiña, ia, mintzo zaki-
daz neure seme argiaz: esaidazu gudara joan ete zan eraso-al-
dietan aurrena izateko, ala etxean geratu zan. Erasan eidazu baita
Peleu bikaiñaz ezer entzun ete zenduan, eta mirmidondar uga-
rien artean bere errege duintasuna zaintzen dauana, ala aintzat
artua ez dan Elade'n eta Ptia'n, zartzaroak auldu dabezalako
aren oiñak eta eskuak. Lagundu al ba'neutso, eguzkiaren izpita-
ra, Troia zabalean argibotarren alde gudakaturik, gudari txit
zangarrak erasten nebazanean nintzan lakoxea izanik, nunbait!
Orrela dala, neure aitaren etxera, naiz-ta epe laburrerako, biur-
tuko ba'nintz, neure kemenaren eta esku garaitunen erakutsi
izugarria emongo neuskioe nire aitari gogor egin edo-ta errege-
nausitza kendu nai leuskioen guztiai.

521 «Orrela mintzatu zan; eta nik erantzun:

522 «Odis.—Ez dot egiazki Peleu egin-egiñekoaz ezer be
jakin; baiña zure seme Neoptolemo'ri buruz egi osoa esango
dautzut, agintzen daustazunez, neronek croan neban ba, ontzi
makur ta ondo egokitu baten, Eskiro'tik zango-babeski eder-
dun akeutarren kapardietara. Troia'ko uri inguruan batzarra
geunkanetan, berak itz egian iñok baiño len eta errakuntza ba-
rik; eta ekanduz Nestor jainkotiak eta neuk bakarrik gaiña
artzen geuntson. Baiña, troiatarren lautadan borontzezko izki-
lluz burrukatzen giñanean, iñoiz etzan geratzen gudari asko-
ren artean, ezta lagunartean be; bestera, besteak baiña naiko
aurrerago joan oi zan, iñor baiña kementsuago, eta erasoaldi
izugarrian giza-kopuru ederra eratsi oi eban. Nik ezingo neuke
esan zenbat gudari azpiratu ebazan, argibotarren aldeko burru-
kan; baiña ba-dakit zelan ii eban borontzez Euripilo Telefida
gizurena lakoxe gizaseme bat, onen jira-biran bait eben bizia
galdu bere lagun aketeutar askok eta askok, emakume bati bial-
du yakozan atsegin-sariakaitik. Memnon kendu ezker, ez dot
oindiño a baiño gizaseme galantagorik ikusi al izan. Eta Epeu'k
egiñiko zaldian argibotar kementsuenok sartu giñanean, eta niri
ango arazo danaren arreta (zelata gogorra edegi ta iztekoa)

emon yatanean, danaotarren gudalburu printzeak malkoz eukezan begiak eta soin-atalak dardarka; baiña begi oneikaz nik ez neban egundo ikusi aren betarte liraiñeko margoa aldatzen, ezta aren matrailletako negar-arpulurik leortzen be: zalditik urte-ten izteko eskatu oi eustan, barriz, bein eta barriro, eta txera' tsu igurtzi oi eban ezpatearen eskutxangoa ta borontzeak pisutsu egiten eban lantzea, teukrotarren aurkako gaitzak asmatzen ziarduala. Eta Priamo'ren uri gurena suntsitu ta ortik egokion gudakin-zatia ta gaiñera bearsari aipatu bat artu ondoren, itxasoratu zan bizirik eta osasuntsu, ez urretik ez urriñetik borontze zorrotzez iñok zauritu bage, erasoaldietan sarri jazo oi danez, Ares bada guztien aurka sumindu oi da nor nor dan ikusteke.

557 «Onda esan neutson; eta Eakida, oin-ariñaren arima, irustarbi solotik zear joan zan arin onean, bere semea aundi zala adierazo neutsalako pozarren.

560 «Beste illen arimak bertan gelditu yakuzan oraindik, eta, guztiz murriz, bakotxak bere kezka ta naigabeak autortu euskuezan. Aiante Telamoniada'ren arima egoan soilki besteak baiño zerbait urriñago, Akileu'ren izkilluak banandu bear zirala-ta, ontzien ondoan ospatu zan auzian irabazi neutsolako, aser-erazia noski; gizurenaren ama agurgarriak ipiñiriko auzia nunaibait, eta teukroak eta Palas Atene'k erabagitakoa. Oba irabazi ez ba'neutso epaia emokeran! Arako izkilluakaitik gorde daroa lurak bere altzoan Aiante'ena lako buru bat; au bait zan nabari, bere soin-lerdentasunez eta egite arrigarritz, Pelion akats-bakoa-
ren ondoren jakiña, danaotarren artean. Orduan, alan be, itz samur oneik esan neutsozan;

571 «Odis.-0 Aiante, Telamon aundiaren seme! Ez zenduan ibitu bear, jida gero be, izkillu kaltegarriak zirala-ta, nire aurka sortu zenduan asarre bizia? Jainkoak izurrite biurtu ebezan argibotarren aurka, zu be, guztiontzat arako eutsi-esia ziñan ori be, antxe jausi zintzalako. Akeutarrok beti naigabetu izan gaitu zure eriotzak, Pelida Akileu'renak adiña. Baiña orren errua ez eukan iñok Zeus'ek ezik; onek, bada, danaotar burrukalarien aurkako asarreak eraginda, olako azaga jarri eutzun. Ia, erdu ona, oi errege!, nire itzak entzutera; ito egizu asarre ori, zeure biotz adoretua zabal-aziaz.

582 «Onela mintzatu nintzakon; ez eustan, alan be, ezer erantzun eta Erebo'runtz joan zan beste arima illakaz batzeko. Andik bai bear bada zerbait esango eustan, sumiñetan egoan

arren, edo-ta nik beintzat ari zer bait, baiña biotzak barman enparau illen arimak ikustera saka egistan.

587 «Minos ikusi neban an, Zeus'en muskil argia, jarri-rik eta eskuan urrezko agint-makilla ebala, illen artean zuben-bidearen ardurea berak eukan eta. Illok, batzuk jarri-rik eta beste batzuk zutik bere inguruan, nausiari Hade'ko ate zabal-dun egoitzean curen arazoak azaltzen eutsoezan.

592 Orion tantaia ikusi neban gero; onek beiñola irustarbi soloan zear jazarten zituan mendi bakartsuetan aurretik eriotzaz zauritutako piztiak, borontze utsezko txurrua erabillirik.

596 «Titi be ikusi neban, Lur gurenaren semea, beian etzunik, bederatzi buztarri lan artzen ebazalarik. Sai bik, alde bakotxean batek, gibela jaten eutsoen, moko- bere erraietara-ño elduaz, bera eskuakaz be uxatzeko gauza etzala; guzti au, Leto, Zeus'en ezkontide aintzatsua, Panopeu atsegiñetik zear Pito'ra joiala, indarrez artu nai izan ebalako.

603 «Tantalo be antxe ikusi neban, oiñaze bizitan egoa-na, zutik zingira baten ura okotzeraiño eltzen yakolarik. Egarri zan eta ez eban jaristen ura artu ta edatea: agurea ura edateko asmoz jasten zan bakotxean, ura ostendu egin oi zan lurrak irun-tsita; ur au baltzizka zan aren cmn-bitan, eta jainko batek leortu oi eban. Aren gaiñ dingilizka egozan zugatz garaien igaliak (madari, sagar dizditsudun sagarrondoak, ikondo ta oriondo ezeak); eta agureak bere besoak gora jasoten ebazanean areik artzeko, aizeak odei goibetara eroan oi eutsozan.

613 «Sisifo ikusi neban orobat, neke-lor aunditan, arritzar eskerga bati esku biakaz sakaka. Oiñakaz eta eskuakaz saiatu-rik, arritzarra eroanaz joian mendi-tontor batera; baiña araiño eltzeko gitxi palta izaten yakonean, indar ixil batek bota oi eutson arri mazkara, barriro be laura txiristaturik. Barriz eto-rreren orduan sakaka, indar egiñik, eta izardiak artzen eutson gorputza, bururaiño estaltzen eban auts-zurumilloan.

621 «Herakle bulartsua ikusi neban gero, edo, obeto esa-teko, aren irudia; bera ba jainko illezkorrakin dago, arein jan-edanetan alaiturik; Hebe dau emazte, oin-ederra, Zeus eta Hera, urrezko oiñetakodunaren alaba. Aren baranoan, ildakoen bar-bailla entzuten zan (egaztiak bai'liran), arri ta zur, ara ta ona igeska; eta Herakle'k, gau aizarotsua irudi, erantzia ekarren uztai ari gaiñean gezia ebalarik, eta begiak lazkiro biratzen

zitun, erauzten ba'lloa lez. Bular inguruan urrezko ezpata-edea, ikusteko izugarri, lan miresgarriak itsatsita eukazana: artzak, basurdeak, leoi begi-dizditsuak, burrukak, erasoak, ilketak eta giza-erailketak. Ezpata ede a bere trebetasunez egin ebanak berak be, ez eikean nunbait beste bardin bat egin al izango. Bere begiakaz ikusiaz bat ezagutu nindun Heralde'k, eta eros-taka itz ariñok esan eustazan:

637 «Herakle.—Laerte'ren seme, Zeus'en leiñuko! Odis, maltzurkerietan azkar! Doakabe ori! Adu txarren batek zara-biltz apika aurrean, eguzki-izpiak argi egisten artean neu be erabilli nindunaren antzekoren batek. Zeus Kronida'ren seme izan arren, ezin-esan alako gaitzak jasan bear izan nebazan, neu baiño gitxiago zan gizakí baten mendean egonik, lan neketsuak agindu oi eustazalako. Bein batean ona bialdu nindun txakurra atera nengion, beste zer guztiak baiño neketsuago egingo yatala, uste izanik; eta nik, Hermes'ek eta Atene, ontz-begidunak la-gunduta, Hade'ra eroan eta andik atera egin neban.

647 «Orrela esanaz, barrito ostendu zan Hade'ko egoitze-an; eta ni geldi geratu nintzan, aurretiaz ildako gizurenen bat ba-etorren be. Eta ikusiko nebazan aspaldiko gizasemeak, nik ezagutu nai nitunak (Teseu ta Piritoo, jainkotasunen seme aintzatsuak); baiña, areik eldu aurretik, il-talde itzala batu zan bertan oiuz-zarata ikaragarrian, eta izu laruak artu ninduan, Persefonea argiak ez eustala Hade'tik Gorgo, bidutzi bildurgarria-ren burua bear bada bialduko ta. Ontzira biurtu nintzan berea-laxe, eta ontziratu ta lokarriak askatu egiezala agindu neutsen lagunai. Jarraian ontziratu ziran, eta tostetan jarri. Eta tirai-ñaren kulunkak eroian gure ontzia Okean ibaian zear, lenengo arraunez bultzatua ta geroago aize ongilleak.

XII KANTUA

Maitederrak, Eskila, Karibdis, Eguzkiaren Beiak

Ontzia, Okean ibaiaren tiraiña laga ta urtza zabaleko olatuetara ta Eea izarora (emen bait dagoz Egu-antz, goiezko alabaren egoitza ta dantzak, eta Eguzkiaren urteiera) eldu zaneukoxe, ondarrera atera genduan, eta areatzara zapart egiñik, lotarako etzun gintzazan bertan, Egu-antz jainkoa noiz agertuko zain.

7 «Goizaren alaba, larrosazko atzduna, agertu zanean, Kirke'ren egoitzera bialdu nebazan lagun batzuk Elpenor zarenen gorpu illotza ekarri egien. Gero enborrak ebagi ta, mindurik eta negar-maiko ugaritan, illetak ospatu genduzan ur-ertzeko tokirik gorenengoenean. Eta illaren gorpu ta izkilluak erre genduzanean, obi bat jaso geuntson, egokion oroit-arriagaz, arraun erabil-erreza gorenengo gaillurrean josiaz.

16 «Zeregin oneitan genbiltzala, Kirke oartu zan gu zelan etorri ginan Hade'tik, eta, ederto jantzirik, geugana zuzendu zan arin-arin ogia, aragi ugari ta su kolorezko ardao gorria ekarren neskameakin, Eta guztion erlion jarririk, one-la itz egin eban jainkosen artean jainkotia danak:

21 «Kirke.—Doakabeak!, oindiño bizi ta Hade'ko egoitzera jatsi ziñienok, eta birritan ilgo ziñien, gizaki enparauak bein baiño ilten ez dirala! Tira, gera zaiteze emen, eta artu jatekoak eta edan ardaoa, gaur-egun osoan; biar bada egunsentia urratzean, itxasoratuko zarie barriro be, eta neuk erakutsiko **dautzuet** bidea, baita iragarri be zer egin bear dozuen jasan ez dagizuen, azpikeri gaiztoren bat bide dala, ezetariko ezbearrik ez itxasoan, ez lur tinkoan.

29 «Orrela esan eban; eta gure biotz zabalak siñistu egin eutson. Eta egun osoan, eguzkia etzan arte, jarrita egon giñan, aragi ugari jan eta ardao gozoa edanik. Eguzkia sartu ta illuna gaiñera yakunekoxe, gaiñerakoak izontziaren lokarri

ondoan ogeratu ziran. Ni ostera Kirke'k eskutik oratu ta lagunakandik banazean jarri-azo nindun eta, neure ur-urrean egokiturik, jazo yatana itandu eustan, eta nik dana edestu neutson saillean. Orduan itzok esan eustazan Kirke agurgarriak:

39 «Kirke.—Orrelaxe bete dira, ba, gauza guztiok. Entzun orain esango dautzudana, ta jainko batek berak gomutaraziko dautzu geroago. Maitederretara elduko zara lenengo, eurekana doazan gizasemeak lilluratu oi dabezan areingana. Areikana buru-arin urbildu ta arein abotsa entzun daroanak ez dau geiago bere emazterik ikusten, ezta etxera biurtzean pozez inguratu oi daben bere seme txikerrik be; bestera, maitederrak sorgindu oi dabe euren kantu doiñutsuz, zelai baten jarririk eta narrua apurka-apurka aituz doakien gizaki ustelduen azur- meta izugarria ingurumari eukirik. Zoaz bizkor andik, eta itxi zeure lagunen belarriak argizagi bigunez, aurretik meetuaz nunbait, euretatik iñok be entzun ez dagian; baiña entzun nai ba'zeuntsoe, lotu zagiezala esku ta oin oialontzian, artez eta alboratuta, mastaren beeko aldeari, eta lokiak korapillotu dagiezala bertan; orrela atsegiña artu al izango dozu maitederrai entzunaz. Eta lagunai askatu zagiezala eskatu naiz agindu ba zengioe, lotu zagiezala oindiño lokarri geiagoz.

58 «Zure lagunak Maitederrak baiño aruntzago zu eroatea lortu dagienean, ez dautzut zeatz esango bide bietatik zein yatzun egoki artzea; ausnar egizu zeure barruan, esango dautzut bada zer daukazu alderdi bakotxean. Alde batetik arkaitz goituak jagiten dira, eta beturdiñaren uin eskergak orro dagie orrein aitz. Antitrite: jainko zoriontsuak Aldaberak deritxe. Andik ez dira arrisku bage igaroten egaztiak, ezta Zeus aitari anbrosia daroatsoen uso bildurtiak eurak be; arkaitz lauak, ba, bakotxean arrapa oi dau bateren bat eta aita beste bat bialdu oi dau kopurua betetzeko. Gizasemeen ontzirik ez da andik biziaz urten; itxasoko olatuak eta su gaizkorrez asepturiko ekaitzak, batera daroiez ontziaren olak eta gizonen gorputzak. Bakar-bakarrik ontzi itxas-zearkari batek, Argos ain goratuak, jadetsi eban, Ete lurraldetik itzultzean, arkaitz areik beste aldera igarotea; eta arkaitz-punta zorrotzen aurka uin-bagak zatituko eben au be, Hera'k, Jason'i eutson maitasunagaitik, arein ondolik igaroten lagundu izan ez ba'leutso.

77 «Uarri bi dagoz bestekaldean. Batak ortzi zabala iristen dau bere erpin zorrotzaz, iñoiz be izten ez dauan odeimorroillo arrez estalitakoaz noski; buru-kukutza ez dau arek egundo be argi erakusten, ez udan, ez udazkenean, Gizaki ilkorra, dana dalakoa, ez litzateke gauza, ogei esku ta beste ainbeste oin ba'leukoz be, uarri aren gaiñera igon eta jasteko, laua baita arkaitza, adelatua bai-litzan. Uarriaren erdian arpe illuna dago, sarkaldera, ots, Erebo'ra begira, eta araxe zuzenduko dozue, Odis leiñargi!, zeuen ontzi makurra. Gizaseme gazte batek be, ontzi makurretik uztaiia erauzi arren, ez leuke jadetsiko bere tiroak arpe sakoneraiño eltzea. Antxe bizi da Eskila, txakur-eme jaio-barri baten antzera adausika, txit izukor, diarduana, ta bidutzi gaiztoa dozu iñok ikusi nai ez leukeana, beragaz batera jainko bat aurkitzea ba'litzateke be. Amabi zango daukaz, guztiak zatar, eta sei sama oso luzeak, bakotxa buru izukor bategaz, ao bakotxean iru zerrenda agin ugari ta estu, erio baltzez beterik. Gorputz erdiraiño arpe sakonean murgildua dago, burua ateraten dau leza iguingarri atatik, eta, uarri biran arakatuz, izurdeak, itxas-txakurrak, eta baita, arrapau al izan ezkerro, Anfitrite durundutsuak ugari be ugari azten ditun beste bidutzi aundiago batzuk be bereganatzen dauz. Andik ez da igaro ontzirik, mariñelak kalterik izan bage iges egin dabenik; **ba, bere buruakaz ostu oi** dautsez ainbat gizaseme aurrealde urdiñeko ontzitik.

104 «Beste uarria, Odis, txikiagoa da ta lenengoaren ondoan daukazu; gezi-tiro barruan dago-ta. An daukazu bas-ikondo andi orritsu bat, eta aren oiñean Karibdis jainkotiak irun-tsi oi dau ur loa. Egunean iru aldiz bota oi dau kanpora ta beste ainbestetan irunsten dau barriz, lazgarriro. Irunsten dauanean ez zaite an idoro, lurra astindu daroanak be ez zindukez bada galtzetik jagongo. Beste aldera, Eskila uarrira urreratu zaite naikoa ta bebil azkar zure ontzia andik barruna; oba dozu ba danak galtzea baiño sei lagun galtzea.

114 «Orrela mintzatu zan; eta nik erantzun:

115 «Oclis.--Ea, jainkosa!, esaidazu argi ta garbi: Karibdis galgarritik alan edo onan iges egitea lortuko ba'neu, Eskila atzerazi al izango ete neuke, nire lagunak galdu nai leukezanean?

119 «Onela esan neutson, eta bat-baten erantzun eustan jainkosen artean jainkotiak:

121 «Kirke,--Oi doakabe! Oindiño he guda-egiñak eta lanak darabilzuz gogoan, eta jainko illezkorren aurrean be ez ete dozu amor-egingo? Eskila ez da ilkor, izurri amaihage, astun, bildurgarri, anker eta iges-ezina baino. Aren aurka ez dago jagoterik; aren ondotik iges egitea dozu onena. Izkilluak eskuraturik, arkaitz ondoan iraungo ba'zendu, bildur naz, bigarrenez zure aurka amildu ta bere buruakaz gizaseme zangarrak indarrez kenduko ete dautzuzan. Beraz, egizu au: zure ontzia andik azkar doan bitartean, zuek oles egiozue, garra-xika, Krateis, Eskila'ren arnari, ilkorrai olako izurria munduratu eutselako; eta onek eutsiko dautsa, barrien barrí ekin ez dagi tzuen.

132 «Geroago Trinaki ugartera elduko zara, Eguzkiaren bei ta ardi ugari gizenak larratzen diran lekura. Zazpi bei-sal-do dira, eta beste ainbeste artalde eder, aldra baktotxa berrogetamar buruk osotzen dauala. Dalako giberria ez cia ugaltzen, ezta ii be, eta jainkotasun bi dira curen zaintzaille, kopeta ederdun neskatx lirain bi: Faetusa ta Lanpeti, Neera jainkotiak Eguzki Hiperion'gandik sortu zitunak. Ama agurgarriak, argitara ekarri ta azi ebazanean, Trinaki ugartera eroan zituan, an oso urruti, curen aitaren ardiak eta adar biurridun beiak zaindu egiezan. Oneik itxi ha'zengiz kalterik egiteke, zeure itzulua gertatzen bakar-bakarrik arduratuaz, elduko zifiake oindiok Itaka'ra, neke-lor askoren ondoren, jakiña; baiña kalterik egingo ba'zeuntsie, oraindixek iragarten dautzut zure ontziaren eta zeure adiskideen ondamena. Eta zeuk iges egiñagaitik, berandu ta txarto elduko zara aberrira, lagunak oro galdu ostean.

148 «Onela autortu eban; eta bertatik agertu zan Eguantza, urrezko aulkiduna. Tainkosen artean jainkotia ugaritean barrendu zan, eta nik, izontzira zuzendurik, neure lagunai ontziratu ta lokiak askatzeko agindu neutsen. Jarraian igon ziran ontzira, eta, tostetan saillean jarriaz, arraunakaz urtza apartsua iñarrosten asi ziran, Branka urdiñezko ontziaren atzetik, oial-zapiak anditzen ebazan aize ederrak putz-egian; Kirke'k, kopeta politdunak, jainkotasun altsuak, abots zolidunak bialdu euskun lagun ona dudarik bage. Tresna baktotxa egokion lekuan ipiñi ondoren, aizeak eta lemazaiñak eroien ontzian jarri gintzazan. Orduan abotsa jasorik, baiña biotza goibel, neure lagunai onela mintzatu nintzaken:

161 «Odis.—Adiskideok! Ez da egoki bat edo bi bakarrik ezagutzea Kirke, jainkosen artean jainkoti danak iragarri eustazan igarkuntzak; eta esango dautzuedaz eurak jakiniñik, naiz ii naiz gaizkatu, eriotzatik eta Parka-tik askatu gaitzezan. Lenen agintzen dauskuna da, maiteder jainkotien abotsetik eta oneik bizi diran zelai loratsutik alde egin daigula. Neuk bakarrik entzun negioela adierazo eustan; baiña lotu nagizue estekaillu sendoakaz, zutik eta mastaren azpikaldera urreratuta, an egon nadin zirkiñik egiteke, ta ariak begoz ari loturik. Eta askatu nagizuela eskatu edo aginduko ba'neutzue, lotu ni estekaillu geiagoz oraindiñokarren.

173 «Nik, neure lagunai gauzok azalduz, itz nengian artean, ondo eregitako ontzia laster eldu zan maitederren ugartera, aize onak saka egion eta. Une atatik umetu zan aizea ta bare-aki ezitia izan zan, goi-indarren batek bada uiñak lotarazi ebazan. Jagi ziran nire lagunak, oialak egokitu ta ontzi makurrean jarririk; eta, barriro be bakotxak bere tosta artuaz, ura zurizkatzen eben, izai landuzko arraunakaz dardatuaz. Artu beingoan argizagizko ogi aundi bat eta zatitxoetan banatu neban borontze zorrotzaz, gero neure esku sendotez dana estuturik. Laster berotu zan argizagia, indar aundiari ta Eguzki Hiperionida altsuaren izpietara oben egin bearra izan ebalako, eta beragaz lagun guztien belarri-zuloak estaldu nebazan banan-banan. Lotu ninduen oneik ontzian, esku ta oin, artez eta mastaren be-aldera urreraturik; oneri lotu eutsezan lokarriak, eta, tostetan jarriaz, barriro asi ziran arraunakaz ur-osin apartsua astintzen. Guztiz azkar erabiili genduan ontzia, eta gure barbaroa eldu leikean ur-ertzeraiño elduta aurkitu giñanean, maitederrak laster konturatu ziran gure ontzi ariña eurekandik ur ta kanta-kantari asi ziran ozen:

195 «Maitederrak.—Ea, Odis ospetsu, akeutarren aintza betea! Urrera zaitez eta gelditu ontzia gure abotsa entzun dagizun. Iñor be ez da igaro bere ontzian gure aotiko ots samurra entzun bage; bestera, aregaz atseginduta gero doaz guztiak, leen baiño geiago dakiela; ba-dakigu, ba, zenbat ezbear jasan eben Troia zabalean argibotarrak eta teukrotarrak, jainkoak orrela nai izanik, eta baita ezagutzen dogu lur jorian jazo oi dan guztia be.

203 «Au esan eben euren abots ederrez. Arei entzuteko gogoia sutatu yatan, eta betazalak be zirkindu nebazan, aska-

tu nengielat lagunai aginduaz; baiña oneik danak batera buruak makurtu ta arraunai eragiten asi yatazan. Eta, bertatik jagiaz Perimede'k eta Euriloko'k, lokarri barriakaz estekatu ninduen, eta oneik gogorrago eusten. Maitederrek atzera itzi ta onez-kero ardí-1 abotsik ez kanturik entzuten etzalarik, kendu eusten nire lagun zintzoak nik neure belarri-zuloak estalita neukazan argizagia, eta lokarriak be askatu eustezan.

212 «Maitederren izaroa atzera laga ta laster, kea ikusi neban eta olatu itzalak, danbada ikaragarria be entzunik. Ni-reak, zur ta lur larriak jorik, gora bota ebezan euren arrau-nak, zarata aundiz uretan jausi ziranak; ontzia geratu zan, eskuak ez eutsen arraun luzeai indarrrik emoten eta. Beingoan ontzi-gaiñez ibilki, lagunakana urreratu ta mintzatu nintzaken onako itz gozoakaz:

219 «Odis.—Adiskideak! Ez gara barriak ezbear-ara-zoan, eta aurreratzen yakuna ez da noski, arako Kiklopeak, bere indar itzalez baliaturik, arpe zulatuan sartu ginduzanean izan gencluna baiño aundiagoa, Andik be, orraitíño, neure kemen, erabagi ta zurtasunari esker, iges egin genduan, guztiok, nik irudi, gogoratuko dozuenez. Orain, ea, egin dagigun danok esango dautzuedana. Zuok, tostetan jarririk, astindu arraunakaz itxasoko uin eskergak, Zeus'ek bear bada, eriotik aterata, ondamencli ortatik iges egitea emongo dausku-ta, Eta zuri, lemazain, agindu bat emongo dautzut gogoan lotuko dozuna, ontzi makurraren endaitza zeuk daroazu-ta. Aldendu egizu ke ortatik eta olatu orreitatik, eta alegindu zaite uarri-ra bera urreratzen: ontzia joan ez dadin ara, zu konturatu barrik, eta danak ondamenclera eroan ez gagizuzan.

234 «Onela esan neutsan, eta eurak luzapen barik bete nik aginclutakoa. Eskila'z, zori iges-eziñak, ez neutsen tautik be esan, lagunak arraunai erabiltea itxi ez egien, ontzi barruan ostondurik. Aztu neban orduan Kirke-ren eskabide ta gomen-dio neketsua, ots, ez gengiala ezelan be izkillurik eskuratu; ta, guda-jantzi eder-ederra soiñeratu, lantza aundi bi artu ta aurre-aldeko oltzara igon nintzan, andik uste neban ba aurre-nik ikusiko nebala nire lagunetan alako triskantza egin bear eban Eskila arritsua. Baiña ezin ikusi izan neban iñundik iñora be, ta begiak, aitz illuna arakatu ta arakatu, nekatu egin yatazan, ara ta ona so-bearrean.

244 «Negarrez igaro genduan itxas-zintzurra, alde bate-tik Eskila geunkan ba ta bestetik Karibdis jainkotia, era laz-garrían itxasoko ur gazia iruntsi oi ebana. Gaiñez egitean, marmar eta ixil-or bat entzunazten, su-gaiñean dagon galdara bat lez guztia irabiaturik, eta bitsa uarri bietako gaiñetara jausten zan. Baiña, itxasoko ur gazia iruntsi baizen laster, bar-ne-naasi ta igurdia agertzen zan, aitzak durundi egian biran iskanbil izugarritz eta ondarrean lurra agiri zan ortzi-areaz nas-pildua. Izu larua nireakin jabetu zan, eta, eriotz-bildurrez, Karibdis'i begira gengozalarik, Eskila'k, sei lagun euren esku ta indarrez geien nabari ziranak, ostu eustazan ontzi maku-rretik. Neure begiak oial ontzira ta lagunakana zuzendu nai izan nebazaneko, airean ikusi nitun gora jasoak ziranen zan-go ta eskuak; dei egiten eusten intziri zoliz, azkenengoz nire izena ebagiaz. Arrantzaleak, gaintxo batetik, arraintxoari ka-ñabera luzez amuzkia botaten, bas-idi adarra uretara jaurti oi dau, ta arraiñen batek oratu ondorean, pilpilka kanpora atera; nire lagunak be bardintsu, pilpilka atxetara eroanak zi-ran eta an, arpe-sarreran, Eskila'k iruntsiten ebazan, gaxoak burruka latzean, oiu ta oiu, euren besoak luzatzen eustezala. Kresal-osin zear alderrai nenbillela izan nebazan samín-aldie-tatik auxe izan zan nire begiak ikusi eben negargarriena. Ikus-kan latza, benetan,

270 «Arkaitz areitatik, Karibdis iguingarri ta Eskila'tik, iges egin ondoren, laster eldu gifiean jainkoaren ugarte akats-bakora; emen aurkitzen ziran bekoki zabaleko bei ederrak eta ardi gizen asko be asko, Hiperion'en seme Eguzkiarenak nos' ki. Urtatik, ontzi baltzean nengoala, entzun neban okulluetan sartutako beien orroa ta ardien beca, Tiresias igarle itsu te-batarraren eta Eea'ko Kirke'ren itzak gogoratu nebazan; oneik, hada, osterá ta barriz agindu eusten iges egin nengiala ilko-rrak alaitu oi dauazan Eguzkiaren ugartetik. Beraz, biotza mi-ñetan, esan neutsen lagunai:

281 «Odis.—Entzun, adiskideak, nire itzak, gaitz asko-ren artean zabiltzen arren; Tiresias eta Eea'ko Kirke'ren au-rre-esanak iragarri gura dautzuedaz; orreik, ha, sarri agindu eusten ilkorrak alaitu oi dabezan Eguzkiaren ugartetik iges egiteko, ezbearrik gordiñena antxe geunkala zain esanaz. Be-raz, zuzendu eizue ontzi baltza ugartetik kanpora.

287 «Onela esan neutsen. Biotza erdi bi egin yaken danai, eta Euriloko'k otsean erantzun eustan itz gogaikarri oneikaz:

290 «Euriloko.—Biotz-gogorra zara, Odis; bizi ta osuntsu zagoz, zure gorputza ez da nekatzen, eta burdiñezkoa zaitugu itxura danez: teukrotarrai, neke ta lo-guraz austuta dagozanai, ez dautsezu izten ementxe, olatuak ederki jotako ugar-te ontan lurra artzen, berton aragi-jate atsegingarria atondu daigun; urrindu daitezala diñotsezu, ostera, ta gau bizian dabiltzala galdu-gordean ur-osin illunetik, Gabaz jagi oi dira aize gogorrak, ontzien zartailluak. Nora joango gara, eriotz ankerretik iges egiteko, ez bat ez bi ba-letor ler-azten jainko goitarren naiaren aurka be? Men egin dagiogun orain gau illunari, ta apain dagigun zer-jana oial ontziaren alboan; eta eguna urratzean ontziratuko gara ostera be ur edatuan ekiteko.

305 «Onako errazoiak jarri ebazan Euriloko'k eta beste lagunak aintzat artu ebezan. Jainkoren bat guri kalte egin naiean ebillala igarri neban orduan, eta, agana zuzendurik, itz arin oneik esan neutsazan:

309 «Odís.—Euriloko! Indartsuak dira zure itzak, baka-rrik nagoalako. Baiña, ea, zin egidazue danok egiazko itzez, bei-talderen bat naiz artalde ugariren bat aurkitu baldin ba' dagigu, zuotatik iñork be ez daukala ilgo, zoroaldiari amor-eginaz, ez bei bat, ez ardi bat; Kirke illezkorrak emon euskuzan jatekoak baketsu artu baiño.

316 «Onela mintzatu nakien; eta bertatik zin-egin eben, agindu neutsenez. Zin egin ebenekoxe, gelditu gendun ondo egiñiko ontzia kai sakonean, ur gozozko iturri baten aldame-nean; eta lagunak, lurreraturik, bertatik gertatu eben janaria, guztiz trebeki. Jan eta edateko gogoari asedura emonik, negar-rari ekin eutsen, ontzi makurretik erauzita gero Eskila'k irunsi ebazan adiskideak gogoratuaz; eta negarez egozalarik, lo gozoak artu zituan. Gaba bere azken irurenera eldu ta izar-rak beerantza joiazala, odeik moltzotzen dituan Zeus'ek, aize oldartsua jagi-azo eban eta ekaitz zurrunbillotsua, lurra ta itxa-soa laiñopean jarri, eta zerutik jausi zan gaba. Biaramo-nean, goizaren alaba, larrosazko atzdun Egunsentia agertu zaneke, toki seguruan egokitu genduan ontzia, aitz-zulo sakon batera eroanez; Ninpak euren egonlekua ta dantzarako toki

ederrak eukezan berton. Jarraian danak batzarrera alkatu ta edu onetan itz egin neutsen:

334 «Odis.—Adiskideok! Oial ontzian jatekoak eta edaria daukaguzan ezkerro, ez daiguzan ikutu bei orreik, kalterik etorri ez dakigun ortik, bai beiak eta 61 ardi guriak bada jainko bildurgarri batenak dira, dana ikusi ta entzun daroan Eguzkiarenak.

339 «Onela esan neutsen, eta arek ontzat artu eben nik esana, Illabete osoan Noto'k ats emon eban atertu barik, Euro ta Noto beste aizerik jagi etzala; eta ogiak eta ardao gorriak uts-emon ez eutsen artean, ez eutsen ikuturik egin beiak, bizia zaintzearen. Baiña ontziko janariak aitu ziranean, ara naiz ona jateko billa (arrain naiz egazti, eskuetara etorkiena) joan bearra izan eben, amu makurrez saiaturik, goseak alatzen eutsoelako sabela; ni, bitartean, ugartean barrendu nintzan jainkoak otoiztu ta norbaitek aberrira eltzeko bidea erakusten eustan ikusteko. Ugartean zear ibilliaz, neurenegandik urrin samar aurkitu nintzanean, eskuak garbitu nebazan aizebera baten, eta Olinpo'n bizi diran jainko guztiai eskatu neutsen, ots, nire betazaletan lo gozoak isuri ebazanai. Eta anartean, Euriloko autuan asi zan lagunakaz, aolku onez au emoteko:

356 «Euriloko.—Lagunok, entzun nire itzak, gorriak ikusita zagozen arren. Eriotz oro gogaikarri yake ilkor errukarriak, baiña gosez iltea baiña zori-gogorrekoagorik ez da ezagutzen, norbere itua orrela beterik. Ea, artu daiguzan Eguzkiaren beirik ederrenak eta zero zabala daukien jainkoai eskiffi opari bat. Itaka'ra, geure asaben lurrera, biurtzea jadetsiko ba'gendu, jauretxe aberats bat eregiko geunskio Eguzkiari, Hiperion'en semeari, bertan jarririk ainbat antziduri bitxi. Eta, bei adar-zut lerdendunak dirala-ta sumindua, gure ontzia galdu nai ba'leu Eguzkiak eta beste jainkoak ori ontzat artuko ba'lebe, gurago dot beingoz iltea, uin-ura iruntsirik, ugarte soil baten apurka apurka akitu ta iraungi baiña.

369 «Olan itz-egin eutsen Euriloko'k, eta danak txalotu eben arek esana. Eta ^gesu batean, an urrean egozan Eguzkiaren bei bikaiñenai esku ezarririk (bei eder adar oker eta bekoki zabaldunak, bada, branka urdindun ontzitik ber-bertan larratzen eben), ingurumari jarri ta jainkoai erregu egin eutsen, tosta askodun ontzian garagar zuririk geratzen ez yake-

lako, arte garai baten osto bigunak erauzi ondoren. Eskaria amaitutakoan, beiai lepoa moztu ta narru kendu eutsoen; gero iztarrak ebagi, alde bietatik koipez igurtzi ta aragizatiz estaldu ebezan; eta geratzen zana zati oso txikietan banandurik, burduntzietan egokitu eben.

384 «Orduantxe iges egin eban lo gozoak nire betazale-tatik, eta oial-ontzira ta itxas-ertzera abiatu nintzan. Izontzi makurrera eldukeran, laster sumatu neban koipe errearen usain biguna, eta, intziri aundia emonez, onela oles egin neutsen jainko illezkorrai:

389 «Odis.—Zeus aita, jainko zoruntsu ta betikorrok! Neure txarrerako, bear bada, lo ankerrez /oraran. · ninduzuen; eta lagunak bitartean, emen geraturik, gaiztakeri aundi bat burutu dabe.

393 «Lanpeti, besana nasaiduna, bizkor joan zan mezulari lez Eguzkiari, Hiperion'en semeari, guk aren beiai eriotza emon geuntsela esaten. Eguzkiak, beingoan, biotz-sumindua, edu one-tan itz egin eutsen illezkorrai:

397 «Eguzkiak.—Zeus aita, jainko zoruntsu ta betikorrok! Zigor-azo egizuez Odis, Laerte'ren semearen lagunak, arropuzturik, ba, nire beiak ii dabez; eta ni poz-eztitan egon oi nintzan areik bai zeru izartura igoten ikusi eta bai barriz zerutik lurrera jasten ikusiaz. Bein onein ordain zuzena emoten ez ba' yat, Hade'ko egoitzera jatsiko naz eta illak argi-azoko ditut.

404 «Eta odeiak moltzotzen ditun Zeus'ek erantzun eutson, esanez:

406 «Zeus.—O Eguzki! Jarri il/ezkorrai eta lur jorian bizi diran gizaki ilkorrai argi egiten; neuk ba jaurtiko dot iñazkar bizia aren oial ontziaren aurka, eta zati-zati eginda itxiko dot ur-potzu apartsuan.

410 «Kalipso, adats ederdunak esan eustan au, eta Hermes'i, mezulariari, entzun eutsola iñostan.

413 «Ontzira ta itxasora eldu nintzanean, agiraka egin neutsen neure lagunai (bai onegana ta bai aregana urreratuaz), baiña ez genduan osabiderik idoro al izan, beiak dagoneko illak ziran-eta. Jainkoak laster ager-azo eutsezan anitz gertakizun arrigarri: arein adarrak biurka ebiltzan, aragi erre ta gordiñak orroa egien burduntzietan, beien antzeko urrumak zabal-azirik.

420 «Nire lagun zintzoak jan-edan eta jaiak ospatu ebezan sei egunez, ortarako Eguzkiaren beirik ederrenai eskua ezarririk; Zeus Kronion'ek zazpigarrena ekarri euskunean, orraitño, ekaitza ekarri eban zear-aize zakarra ernetu zan, eta guk, ontziraturik, kresal zabaldira eroan gendun ontzia, masta goratu ta oial zuriak edaztu ondoren.

426 «Ugarte a atzera itxi ta lurrik ikusten ez genduan, zerua ta itxasoa besterik begipe ez genduala, odei arre bat ipiñi euskun Zeus'ek ontzi makur gaiñean; eta aren azpian laster illundu zan ur-osiña. Ez zan luzaro ibilli ontzia, bertatik bada Zefir kirrinkariak, zakar joaz, ekaitz izugarria ekarri euskun: aize-biur batek mastako zirga-ari biak apurtu ta atzerantz eratsi euskun, eta tresna guztiak ontzi-ondarrean batu ziranr Mastak, gibel-aldera jaustean, lemazaiña zauritu eban buruan, azurrak oro zapaldurik; oltzatik jausi zan, murgilkari batek zapart dagian lez, eta aren arima ona azurretatik banandu zan. Zeus'ek trumoi bat ler-azo eban, baita erabat oiñaztarri bat gure ontzira jaurti be: ontzia, jakiña, zabu-zabuka asi zan, Zeus'en oiñaztarriz joa izan zanean, sulbur-kiratsez dana atsiturik; eta uretara jausi ziran nide gizonak. Uin-bagak eroiezan ontzi baltzaren ingurumari belatxingak iduri, jainko batek ez eutsen itxi aberrira biurtzen.

443 «Ontzi barruan ibilli nintzan ni, ta azkenez itxasoaren eragiñak killa-saietsak banandu zituan, eta killa bakarrik agertu zan ur-gaiñean kulunka; masta be apurtu zan arekin batera. Masta gainean aurkitzen zan idi-narruz eginiko soka bat lotu nebazan arekin masta ta killa ta, bien gaiñ jarririk, aize kaltegarrien mende itxi neban neure burua.

449 «Laster ibitu zan Zefir'en ats-aldi zakarra, ekaitza ekarkiguna, eta bertatik agertu zan Noto, ta larritu nindun onek, barriro be bere ekiñez Karibdis galkorrera eroango nindulakoan. Gau osoan ibilli nintzan olatuen mende, eta eguzkia urteteen Eskila uarrira ta Karibdis, itxas-ur gazia iruntsi ta iruntsi egoanera, eldu nintzan; baiña nik, bas-ikondo garaira saltu egiñik, gautxori batek lez ari oratu neutson; ez neukon nun neure oiñak jarri, ezta ez neukon zugatzera igoterilc be, sustraiak urrin egozalako ta Karibdis'i kerizpea emotsen adar luze sendoak, txit goi-goian. Orrela iraun neban, ba, zugatzari gogor oraturik, Karibdis'ek masta ta killa noiz biurtuko ete eustazan zain; eta oneik agertu ziran atzenez, nik opa nebana

beterik, Epaikaria batzarrean, gazte liskartien auzi asko ebatzi ostean, jagi oi dan orduan, ikusi nebazan nik ol-zati areik Karibdis'en mendetik kanpo, onezkero. Esku ta oiñak jarein eta danbarrada aundiz jausi nintzan uraren erdian, enbor luzeen ondoan; eta, arein gaiñean egokiturik, besoakaz arraunketan asi nintzan. Eta gizakien eta jainkoen aitari esker, ez nindun Eskila'k ikusi; bestela, eriotza izugarritik ez nintzan urtengo.

470 «Toki artatik alde eginda, bederatzi egunez ibilli nintzan alderrai, ta amargarrenaren gauan, Kalipso, kopeta lirainduna, jainkosa altsua, abots zoliz ornidua, bizi dan Ogigia ugartera eroan ninduen jainkoak; eta arek oso txeratsu artu ninduan eta ar-emon aundia izan eban nigaz. Baiña, zetako edestu gaiñerakoa? Atzo esan neutzuen etxe onetan zeuri ta zeure emazte argiari, eta nekezko yat argi azalduta dagoana barriro esaten jardutea.

XIII KANTUA

Odis, feazitarren lurraldea itxi, ta Itaka'ra eltzen da

Olan esanik, itz-motz geratu ziran entzuleak, eta, ari entzun-atsegiñez geldurik, ixillaren mende jauregi illunean. Alkinoo'k, alan be, erantzun eutson:

4 Alkinoo.-O Odis! Borontzezko azpia ta sapai jasoan dauan nire egoitza jaritxi bait dozu, uste dot elduko zareala zeure aberrira arat-onat ibilli bearrik bage, orain arte izan dozuzan ezbearrak zenbatu eziñak dira baiña. Eta zuokana guztiokana zuzendurik, neure jauregian beti deduzko ardao baltza edan eta bertsolariari entzun oi dautsezuokana, begitu zer agindutako damotzuedan: arrotzuak ba-daukaz onezkero kutxa ederto landuan jantziak eta urre dizditsua ta feaziar aolkulariak ekarri dautsoezan bezuza ta esku-erakutsi enparauak; ea, emon daioguzan orrezaz gaiñera krispiñak eta galdarak; eta alkar gaitezan gero urian zear eske-batze bat egiteko, gutar bakotxari ez litzakio ba errez izango taiu ortako emoi ederrik egitea, geuk al genduantxoa bakarrik emonaz.

17 Orrela mintzatu yaken Alkinoo, ta eder izan yaken guztiai iñotsena. Urten ziran orduan bakotxa bere etxerantza, lotarako; eta goizaren alaba, larrosazko atzdun Eguantza estalgetu zana bateratsu, ontzirantza zuzendu ziran lasterkiro, giza-borontzea ara eroanik. Alkinoo'ren alizate sagaratua be ara joan zan, eta ber-beronek egoki zituan emoiak tosta-azpitan: gizonetatik bateren bat, ontzi ari eragitekoan, arraunakaz gertu, zauritu edo mindu ez citen. Jarraian Alkinoo'ren jauregiratu ziran, janketarako bear ziranak gertatuaz.

27 Ortarako, Alkinoo'ren alizate sagaratuak idi bat saraskitu eutson Zeus Kronida'ri. guztion gaiñez errege dan odei illunen jainkoari. Iztarrak errerik, orrits sekulakoa ospatu eben, baita Demodoko, jainkozko bertsolariak abestu be, erriak ornen

aunditan eukanak. Odis'ek, ostera, sarri biurtu oi eban bere burua eguzki dizditsurantz, alik ariñen sartu eiten leia bizitan, bere aberrira itzuli nai eban eta. Lugñak, apal-aurretik, lur-sail barria idi-buztarriaz eta golde sendorraz apurtzen eta iraultzen egun osoa emon ondoren, eguzkia sartzen pozik ikusi oi dauan lez, jaten joateko, eta, ibilleran, belaunak nekatu yakozala sumatzen dauan lez, orrelaxe, poz aunditan ikusi eban Odis'ek be, eguzkia ba-joiala beerantz. Eta itzetik ortzera, feaziotarregana, arraun-zale diranakana zuzenduaz, eta Alkinoo'ganuntz bereziki, gisa onetan itz-egin eutsen:

41 Odis.—Alkinoo errege, uritar guztietatik argiena! Eskein ixurketak, agur egistazue osasunez, eta zuek lotu emen pozez gaiñezka. Bete da jadanik nire barrenak opa ebana: neure ibillaldia ta doe adeitsuak; zerutar jainkoari eder bekie oneik daitezala neure zorionerako, eta aurkitu daidazala neure jauregian neure ezkontide akarkizunik bagea ta onik adiskideak. Eta zuok, emen geratzen zarienok, izan zaiteze zeuon andra bidezkoen eta seme-alaben poz betea; jainkoak emon daitzuezala danetariko ogasun ugariak, eta uri onek ez bei egundo be zoritarrik izan.

51 Orrela mintzatu zan. Danak txalotu ebezan aren itzak, baita arrotza bere sorterrira eroateko esan be, errazoiz ta zentzun aundiz mintzatzen zala-ta. Alkinoo'ren alizateak, beraz, egindu eutson ots-egilleari;

55 Alkinoo.—Pontonoo! Nastau ardoa azpillean, krateran, eta emon edateko etsarian dagozan guztiai, Zeus aitari otoi egin ondoren, bial dagigun arrotza bere asaben lurraldera.

59 Orela zesan. Pontonoo'k nastau eban ardao gozoa ez-tia bailitzan, eta guztiai emon eutsen, banan-banan eskinirik: eurak, barriz, euren jarlekuetatik, zeru nasaia daukien jainko zoruntsuai opatzen eutsen; eta Odis jainkotiak, jagiaz, txol bi-kotxa ipiñi eban Arete'ren eskuetan, solas ariñok iñotsazala:

65 Odis.—Zorioneko zakidaz beti, oi erregiña!, zartzaroa ta eriotza etorri arteño, ortik ez baita gizakirik askatzen. Ni ba-noa. Zuk jarrai pozkiro, etxe onetan, zeure seme-alaba, erri ta Alkinoo erregearekin.

69 Au esanaz, Odis jainkotiak ate-zubia gainditu eban. Alkinoo'ren alizateak aginduta, ots-egille batek lagundu eutson

oialdun ontziraiño, itxas-egaleraiño. Arete'k be mirabe batzuk bialdu eutsozan: onek soingaiñeko txit garbia eroiatson, eta txabuxa bat; arek, kutxa gotor bat; eta bestea, ogia ta ardao gorria.

75 Ontzira ta itxasora eldu ziranean, gidari argiak, gauzok edari ta janariakaz arturik, oro egokitu eben ontzi maku-rrean; eta oge-gaiñeko bat eta liño-zko zapi bat edatu ebezan atzekaldeko oltza gaiñean, Odis'ek lo-egin eikean nasa-nasai. Igon zan au ontzira ta ixil-ixillik lotaratu zan' Enparauak euren tostetan jarri ziran saillean, ontziaren lokarria arri zulotutakotik askatu ta, okerturik, kresala zigortu eben arraunez, Odis'en betazaletan lo sakon, bigun, gozo-gozoa, eriotz antzekoa, jausten zan bitartean. Lasterketa-burdiko zaldia-k zelai baten zigorzartakoz ariñeketan asi ta lauoin-ka azkarrean lasterketa arin amaitu oi dabenez, antzera jasoten zan ontzixopa be, ta bere atzean izten zituan, oso irakiñetan, itxaso zaratatsuaren purpur-olatuak. Ibiller-askier eta bardiñean arin egian ontziak, eta egaztietan ariñena dan miru-saia be ez yakon ari egokituko: olan, abiada itzalean, ebagi eroazan itxas-uiñak; aldean eroian bada gizaki bat, zurtasunean jainkoen antza ebana. Onek, sarri-sarritan izan eban barrua ondo naigabetuta, bai gizonakaz burruka egiñik, eta bai ur-osin arriskutsua zearkaturik, baiña orduan lotan etzan gozaro, jasan ebanez ondo aztuta.

97 Izarrik dizditsuen- a, Egu-antz, goizaren alabaren argia bereziki igarri daroana urtenean egoala, urtzako ontzi zearkaria orduantxe eldu zan ugartera.

100 Itaka lurraldean dago Forzis kaia, itxas-agurea, ertz bik eratuta: ertzok garai ta malkartsuak dira, erpiñerantz- a al- kartuz doazanak, eta orrela olatu aundiak zaindu daroez gaiñe- tik aize-bolada galgarrien aurka; eta barruan ontzi makur tosta askodunak lokarri barik diraue, bein ditxoa jaritsi ezker- o. Kaia- ren azkenean oriondo osto luzeduna daukazu ta ur-ur arpe atse- gingarri, itzaltsua, ur-lamiñak deritxen maitederrai opaldua. Berton aurkitzen dira kraterak eta arrizko txanbillak, eta erleak oneitan egin oi dabez euren ezti-orraziak. An ikusi daitekez arrizko euntegi batzuk be, oso luzeak, eta ementxe irun oi dabez maitederrak, begi-atsegingarri, purpur-kolorezko txabux gorri- ak. An tai bage sortzen da ura pol-polka. Ate bi ditu arpeak: Borea'ra begira dago bata, ta eldu-eziña da gizonentzat; bes-

tea, Noto'ri aurrez aurre, jainkotiagoa da, andik ez da ba gizonik sartzen, illezkorren bide da-ta.

116 Aurretiaz ezagun eben toki ontara joan ziran elduaz; ontzia abiada bizkorrez ebillan eta ondartzan ondoa jo eban, uretik erditsua lez urtenik, Olakoxeak ziran gero a eroian arra. unlarien eskuak! Tosta ederdun ontzitik lur tinkora zapart egia orclukoxe, Odis oraindik lo egoana ontzi makurretik atara eben bere oge-gaiñeko ta liñozko zapi ta guzti; eta jarraian, eta, eskerrak Arene biotz-zabalari, feazitarrak bere aberrira itzulkeran emon izan eutsezan ondasunak ontzitik atereaz, oriondoaren oiñean moltzotu ebezan guztiak, bidetik zerbait baztertuta: bada-ezpaclan, bidaztiren batek, arein ondora urreraturik, ostu ez egizan, Oclis lo egoalarik. Orren ostean, feazitarrak euren lurraldera biurtu ziran. Baiña lurra astindu oi dauanak ez ebazan aztu Odis'i, jainko baten antzekoari, asieratik egin eutsozan zemaikak, eta Zeus'en naia aztertu nai izan eban:

133 Posidon.—Zeus aita! Iñoiz be ez naz izango geiago omenclua jainko illezkorren artean, gauzarik pitiñenean be ez nabe ilkorrak eurak be, feazitarrak, neure-neure azikoak, orrenduten eta. Begitantzen yatan, bai, Odis, naiz-ta ezbear asko askoren bizkar, bere sorterrira biurtuko zala, itzultze ori egundo be osorik galazo ez neutsolako, beti be zeure baiezkoz agind zeuntsala uste izan neban eta; feazitarrak, alan be, oialezko ontzian ur-osin zear eroanik, Itaka'n itxi dabe, lotaratua, kontaezin alako emoiak egin ondoren; borontze, urre ugari, jantzi eioak, eta Troia'ra itzuliko ba'litz kalterik bage ta legokion guela-ondakin zatia jaritsi ondoren, sekula atarako ez leukezan beste gauza.

145 Odeiak moltzotzen dauzan Zeus'ek erantzun:

147 Zeus.—A, lurra zaflatu oi dozun jainko altsu! Zer esan zenduan! Ez zaitue jainkoak ezesten, gaitz izango litzakigu ba zaarrena ta argiena dana gitxi-eritxiz ta destaiñaz zauritzea. Baiña gizakiren batek itxi ba'zaroaz omendu bage, bere indarretan eta almenean uste ona jarririk, zeure eskuan dago aganik aserrekundea artzea. Jo egizu, beraz, naien dozun lez eta zeure buruari atsegiñen yakon lez.

153 Lurra dardaratu oi dauan Posidon'ek jardetsi:

154 Posicion.—Bertatik egingo neban diñostasunez, o odei illunen jainko!, baiña izua sartu dagist zure asarreak, eta beroni

iges egiten alegindu oi naiatzu. Orain nik gogo dadona auxe da: onda dedilla itxas-sabel illunean a barriz dakarren feazitarren ontzi eder-ederra, aurrerantzean gizonik eroan ez dagien, eta estaldu gero uriaren ikuspegia mendi-besanga itzal bategaz.

161 Odeiak batzen dabezan Zeus'ek gaiñeratu eutson:

162 Zeus.-0 laztan! Nire eritxiz auxe izango yaku one-na: uritar guztiak oillo-lurretik begira ontzia zelan eltzen dan legokezanean, zuk itxas-ertzean arkaitz bat besteratzea, oial-ontzi baten itxurea leukakena, jentetza guztia zur ta lur egin dai-ten, eta orduan estali zeinke uriaren ikuspegia menditzar ba-tek.

168 Lurra dardaraz jarri oi dauan Posidon'ek entzrun-ala, au feazitarrak bizi diran Eskeri'ra joanik, an geratu zan, Ontzi, itxas-zearkaria, oldar bizitan urreratu zan, eta lurra astin-tzen dauanak, bidera urtenaz, arkaitz bat irauli eutson, eta ikubilkada batez susterrak atara eragin eutsozan bean; onen ostean, beste toki baterantzeko bidea artu eban.

174 Feazitarrak, bitarte artan, arraun luze erabilliz ixas-tar bipillak diranak, itz bizkorretan mintzatzen ziran euren artean. Eta batek onela adierazo eban, bere auzokoagana zu-zenduaz:

178 Abots bat.—Ai! Nok kateatu dau ur-potzuan aberri-ra itzuliz joian eta jadanik oso-osoan ikusten zan oialezko on-zia?

180 Orrela iñoan norbaitek, zer jaso zanik ez ekien eta. Alkinoo'k orduan onan itz-egin eutsen:

182 Alkinoo.—Q jainkoak! Bete dira nire aitag ña baten esandakoak, ak autortu oi eban ba Posidon'ek begi txarrez begitzen euskula, gizakiak oro kalte barik arteztu oi genduzalako; eta sarri esan eroaskun jainkoak feazitarren ontzi eder-eder bat ur-osin illunean ondatuko ebala, norbait eroanda itzultzerakoan, eta arkaitz eskerga batez estalduko ebala uriaren ikuskizuna, Olaxe baieztu oi eban agureak, eta orain guztia doa beteaz. Ea, dagigun esaten noan au. Ez egizue gure errira urreratzen dan ilkorrik geiago eroan, eta sar-raskitu ta eskiñi daioguzan orain Posiclon'i amabi zezen au-tatu, gutzaz errukia izan eta menditzar itzalez bear bada uria-ren ikuspegia estali ez daiskun.

194 Orrela mintzatu zan. Bildurrak artu zituan eta ze-zenak atondu ebezan. Eta erriko buruzagi ta printzeak Posi-

don goitarrari otoi egitsen bitartean, euren ondi biran zutunik egozala, Odis asaben lurraldean itxartu zan bere lotik; ontatik urrin luzaroan egon zalako, ez eban ezagutu al izan, jainkosa batek —Palas Atene'k, Zeus'en alabeak— laiñotza aundiz ertsi ebalako, ez-ezagun egitearren eta guztiaren jakitun jartearren: bere emazteak, uritarrak eta adiskideak ezagutu ez egien senargeiak curen geiegikeriak bete-betea ordaindu baiño len. Zio au zala-ta, erregeari bestera jazoten yakon guztia, bide luzeak esaterako, kai egokiak ontziari pondoa emoteko, arkaitz malkartsuak eta zugatz loraz beteak. Gizurenak zutik jarri ta asaben lurrera begiak zorroztu zituan; baiña bertatik intzirika asi zan, eta, besoak eratsiz, iztarrak zartatu zituan, zizpuru aundiz onela iñoalarik;

210 Odis.—Ai ene! Zelako gizakiak bizi ete dira iritxi nazan lurralde ontan? Zakarrak ete dira, basatiak eta zuzenezak, edota ostatzailleak eta jainkoen bildur diranak? Nora croan al izango dodaz aberaski guztiok? Nora noake galdurik? Ai, an lotu ba'nintz, feazitarrakaz, orduan ba bear bada beste errege biotz-zabal batenera elduko nintzan, onek artuko nindun txeratsu ta neure aberrirako bidea erreztu. Orain ez dakit gauza oneik nun itxi, ezta emen itxi bear ba'dodaz be: beste gizaki batzuen ondakin izan ez daitezan ausaz. O jainkoak! Etziran, ba, guztiz zurrak ez zuzenak feaziar buruzagi ta printzeak, beste lur ontara nakarren ezker; Itaka'ra zuzenduko ninduela esan eusten, urrindik ikusten dan Itaka'ra, ta ez dabe emondako itza bete. Zigortu beiz Zeus'ek, eskaleen jainkoak, gizasemeak begiratu ta obendari diranak zigor-azten dakianak. Baiña, tira, zenbatu ta arakatu egingo ditut ogasun oneik: emendik joan ziranean zer-edo-zer eroan ba'eben be ontzi makurrean.

227 Onela mintzatzen zala, zenbatu ebazan iru-zangoko bikain-bikaiñak, mazkeluak, urrea ta soiñeko eder eunduak, eta, ezeri utsik emon ez eutson arren, bere aberriagaitik negar egian itxaso burrunbadatsuaren ertzean narras, antzi bizitan samiñari emona. Atene urreratu yakon orduan artzain gazte itxuran, bakaldun baten semea bailitzan adiguritsu, besapuruan soingaiñeko bikotxa, ederto be ederto eratua, eroiala; oin arazetan, abarkak; eta eskuan, txahalina bat. Odis'i atsegin izan yakon a ikustea, ta berari bidera urtenaz, itz zorakor oneik esan eutsazan:

237 Odis.—Adiskide! Beste iñor baiño len toki onetan zeu aurkitzen zaitudan ezkerro, agur zuri!, eta oba, bai orixe, nirekiko asmo txarrez ez ba'zentorkidaz; bestera, galbidetik gorde egizuz gauzok, eta onik atara nagizu neu be: jainko bati lez daskatzut, zeure oiñetan auspez. Baiña esaidazu leialki jakin dagidan: Ze lur dogu au? Ze erri? Zelako gizonak bizi dira berton? Urriñera ikusten dan izaro baten nago, ala itxasorantza makurtzen dan lurraso joriaren egalean?

246 Atene, ontz-begidun jainkotasunak erantzun eutson, esanez;

248 Atene.—Arrotz! Txaldan bat zaitut edo urrutitik zaitoz zu, lur onetzaz itaun dagistazunean; onen izena ez dozu, ba, orren illuna, askok eta askok ezagun dabelako, zein eguan, tza ta eguzkia jagiten diran alderdian, zein beste aldera, sarikaide illunerantza bizi, Egiaz latza ta egoki-eza zaidizketarako; alan be ez osoro antzu, txikia baiña, garia ugari bait dakar, eta ardaoa; emen eztau iñoiz euriak uts-emeten, ezta iruntz ugalkorrek be; ala-alakoa da auntzak eta idiak larratze-ko; orotariko oianak daukazuz berton, baita egundo agortzen ez diran ur-askak be, Au dala-ta, o arrotz!, Itaka'ren izena Troia'raiño eldu zan, diñoenez akeutar lurretik oso aldenduta dagonaraiño.

261 Orrela jardun eban. Ziñez poztu zan Odis jainkoti eroapentsua, Palas Atene'k, ezkuta daroan Zeus'en alabak izentatzen eutson bere asaben lurraz poz-atsegindurik, eta otsotsean itz ariñok ebagi ebazan, sasi-kontatzea egiñik *egia* es-talduaz, beti erabilli oi ebazan ba bere kautan asmo maltzur-maltzurak:

267 Odis.—Itaka'z mintzatzen aditua naz an Kreta na-saian, oso urruti, itxasoz andik, eta eldu-barri nozu aberastasu-
sun oneikaz. Beste onenbeste itxi neutsen neure seme-alabai, ta igeska nabil Idomeneu'ren seme kutuna ii nebalako, Orailoko bai, oin-ariña, bere oin-arintasunez Kreta zabaleko giza-seme trebe ta igurdizi onekoak baiño geiago zana; arek bada Troia'ko guda-ondakin barik laga nai izan ninduan, ni ainbat neke-lor erroandako au, naiz gizasemeakaz burrukan, naiz olatu izukorrak zearkatuz, bere aitaren naia egin nai izan ez nebalako, ni beste lagun batzuren buruzagi nintzan troiatarren errian bere esanera ez nintzan makurtu-ta. Bein batean a solotik etorrela, borontzezko lantzea sartu neutsan, bide-

zidor ondoan lagun bategaz zelatan egonda gero: gau illun-illunak eukan zerua, gizonik etzan guri begia ezarri euskunik, eta olan ezkutuan lotu zan nik eriotzea emon izan neutsane-koa. Borontze zorrotzez a erail ondoren, fenizitar ospetsu batzuen itxasontzirantza jo neban, arei arrena, guda-ondakiñaren zati eder bat emon ostean, eroan nenguela ta Pilos'en naiz epeutarrak agintzen daben Elide jainkotian itxi nenguela, eskaturik. Baiña aizearen indarrak bidekatu zituan, eurak nai ezta, ez eusten ba niri ziririk sartu gura; eta, orra ta ona ibilli ostean, ona eldu gintzazan gabaz. Nekez be nekez sartu al izan genduan kaian, arraunka; eta, jan-bearrean gengozala be, iñok ez eban aparirik gogoratu: gintzazan guztiok ontzitik urten ta ondartzan etzun giñean. Orduantxe, oso nekaturik nengoan-eta, lo gozoak artu ninduan; atara ebezan areik ontzi makurretik nire aberastasunak, ni etzunik nengoan ondartzan itxi ta barriro ontziratu ziran Sidon gizoztetsura joateko; eta ni an geratu nintzan, biotz-itun.

297 Olan mintzatu zan. Irri-barrea loratu zan Atene'ren ezpan-ertzetan; eskuaz eskamak egin eutsozan ontz-begidun jainkosak eta emakume eder, aundi lan bikaiñetan jakituna danaren antza arturik, itz arin oneik ebagi eutsozan:

301 Atene.—Amarrutsua ta zurgatxa izan bearko leuke zuri edozein iruzurretan aurea artuko leuskizuna, bidera urtengo litzakizuna jainko bat bera ba'litzateke be. Zarapardo, azeri, trikimailu ta azpikerian ezin-nekatuzkoa! Zeure sorterrian be ez al dozuz alde bat itxiko azpikeriak eta beti gogoko ízan yatzuzan trankart-itzak? Baiña, tira, orretzaz tautik be ez geia-go, biok bai gara marrokeri-zale; zu nabarmen ba'zara ba gizonen artean zeure aolkuz ta itzez, ni goratua nozu jainkotasun guztietan neure zurtasun eta kako-makoakaitik. Baiña ez nozu ezagutu oindiño: ni Palas Atene naz, Zeus'en alaba, gerizapetu ta kezketan etenbage jagon oi zaitudana; feazitar guztientzat be neuk egin zindudazan atsegingarrizko. Orain xede bat burutzera nator zeugaz batera, feazitar argiak aberrira etorri ziñanean neure gogoz ta argiz emon eutzuezan ogasunak gorde ta zeure egoitz ondo landuan naitaez jasan bearko dozuzan neke-lor guztiak iragartera: eroan egizuz, naitaezkoa data, eta ez iñori esan, ez gizionezko ez andrazkori, ona erromes eldu zareanik; bestera, eroan tautik esateka samiñaldirik nai-ko, eta jasan gizonak egingo leuskizuezan gogorkeri zatarrak.

322 Odis asmotsuak erantzun:

323 Odis.—Zailla deritxat, oi jainkosa, ilkor batek zu bidean aurkitzerakoan zu bertatik ezagutu al izatea, oso jakituna izanda be, eder yatzun itxurea artzen dakizu-ta. Ba-dakit jakin onbera izan zaiatazana akeutarrok Troia'n burrukatu genduanen; baila Priamo'ren uri goienekoa suntsitu ta ontzietan abiatu ta jainko batek akeutarrak sakabanatu ebazanetik, etzaitut iñoiz he ikusi, o Zeus'en alaba!, ezta ez naz oartu nire ontzira igon zareanik, iñungo samiñaldian laguntzeko. Alderantziz, alderrai ibillia nozu atsedean bage, neure bularrean biotza samin-odoletan eukirik, zoritxarretik jainkoak atera ninduen arte; eta zuk, feazitarren errialde aberatsean zeure solasakaz bizkor-azo ninduzun, jente artera eroanik. Orain zeure aitarren daskatzut (ez dot uste ba Itaka'ra, urriñetik ikusten danera eldu nazanik, beste lurralde baten aurkitzen nazala ta zuk adarra jo nai daustazula baiño): esaidazu egiaz neure lur laztanera eldu nazan ala ez.

339 Atene'k, ontz-begidun jainkotasunak erantzun eutsen:

340 Atene.—Beti daukakezu zuk zeure baitan zur-neurri bardin-bardiña, eta ezin neinkezu zoritxarrean bertanbera itxi, malats, zoli ta burutsu zara-ta. Itxasoz ainbeste ihilli ta etxeruntz datorren edozeiñek bere jauregian ikusi naiko leukez seme-alabak eta emaztea; baiña zuri ez yatzu eder arei buruzko ezer, ezta itandu be ez dozu egiten areitzaz ezer, zeure etnaztea ikertu arte, zeure egoitzean iraunik, atertu bako negarrean egunak eta gauak tristura aundiz emoten dabezana nunbait. Nik ez neban egundo be zalantzan jarri, ha-nenkian ba, ta ziur íakin be, zu, zeure lagun guztiak galdurikoan, zeure aberrira biurtuko ziñana; baila Posidon, neure aitaren aldeko osabarekin, ez neban liskarrik izan nai, aren barrua bada osoan sumindu ta erre zan zurekiko, bere seme laztana itsutu zeuntsolako. Baiña, ea, Itaka'ko lurra erakutsiko dautzut, zurito zaitezana. Auxe dozu Forzis'ko kaia, itxasoko zaarra; a, kai muturrean datzan oriondo orri luzeduna; andik ur-ur daga arpe atsegin, kerizpetsu, **deritxen maitederrai eskiñitakoa**: ementxe daukazu artzulo gangaduna, zuk maitagarriai ainbat ilketa oso egindako lekua; eta antxe ikusi zeinke Nerito, mendi orritsua.

360 Orrela itz-egin ebanean, jainkotasunak urratu eban laiñoa, lurraldea agertu zan eta Odis jainkoti jasankorra benebenctan poztu yakun; bere lurraz txoraturik, makur-makur egiñik lur-gaiñ joria mosutu cban. Baita jarraian maitederrai he otoitz egin eutsen, eskuak jasorik:

364 Odis.—Ur-lamiña eder, Zeus'en alabok! Iduritzen yatan, bai, ez zinduedazala geiago ikusiko. Agur dagitzuet orain ziñitz samurrez, eta opariak eskiñiko dautzueguz, leen bezela, Zeus'en alabak, guda-erasoetan agintzen dauanak, onbera ni bizi izaterik nai ba'dau, neure semea aziaz doala ikusirik.

369 Orduan Atene'k, ontz-begidun jainkotasunak, esan eutson:

371 Atene.—Izaizu biotz on, eta orrek ez heizu ardurarik ekarri. Sartu daiguzan oraintxe berton ogasunak iainkozko arpe ontako tokirik barrenenean, leku arrisku bageak euki daizuzan: eta gero erabagiak artuko doguz, taiurik onenean joan dedin guztia.

375 Olan itz-egin ostean, arpe illunean sartu zan jainkosa, tokirik ezkutuenak arakatuaz; Odis'ek, feazitarrak doe lez emon eutsoezan gauza guztiak croan eutsozan: urrea, horrontze gogorra ta soiñeko bikainki egiñak. Alik ondo ta ego-kien jarri ebezanean, Atene'k, erredola daroan Zeus'en alabak, sarrera arri-mokor bategaz itxi eban.

382 Ondoren oriondo sagaratuaren suster gaiñean jezarritik, senargai buruarroak zelan ondatu erabagiten asi ziran. Atene'k, ontz-be^sidun jainkosak, urratu eban aurrenik ixilmiesa, itzok jalgiaz:

386 Atene.—Laerte'ren seme, Zeus'en jatorriko! Odis, asmoetan jori! Asma orain zelan eskuak ezarri senargai lotsagaldukoai, iru urtetan zure jauregian agindu ta zure ezkontide jainkotiari, ezkontz-bezuzak eskiñiaz, bultza ta bultza da-biltzanai; arek, baiña, zu noiz etxera biurtuko dagonak, guztiai itxaro-luza^penak emon eta bakotxari esku-erakutsiak, mandatuak hialduaz, egin arren, guztiz bestelako bururakizunak darabiltz bere barruan.

394 Odis asmotsuak erantzun eutson:

395 Odis.—O goitarrak! Ezpai barik, jauregian neukan eriotza, Agamenon Atrida'ren zori txar berberagaz, zuk, o jainkosa orrek-, egokiro eskolatu ez ba'ninduzun gauza onei-

tzaz, Baiña, tira, burutu egin-asmo bat zigor-azo dagidazan, eta izan zakidaz beti ondoan, kemena ta bipildura isuriz, Troia'ko torre-buruak erasterakoen legez. Orduan lango arnas biziz laguntzen ba'daustazu, o ontz-begidun jainkosa!, ni burrukatuko nintzake irureun gizakiren aurka; baiña zeure laguntzaz, jainkosa agurgarri, zeuk beti onbera lagunduta.

405 Atene'k, ontz-begidun jainkotasunak, erantzun:

406 Atene.—Zeure ondoan naukakezu, bai; ez, etzaitut albora itxiko olako gauza ta arazoetan jardutekoan; eta, nik uste dodanez, zure ondasunak irunsi bearrean dabiltzan senargaietatik bateren batek bere odolez eta garunez loituko dau etxeko solairu zabal-nasaia. Baiña, ea, ezagutu-gaitz egin bear zaitut gizaki ilkor guztientzat: zure soinala azkarren narroazal ederra tximurrez beteko dot, zure burutik murriztuko ditut ule gorrizkak, ikusten zaitunari naska emoteko lakoxe zarpailok jarriko deutzudaz, len orren politak dituzun begiok atz-ezkabiz beteko, senargai, emazte ta jauregian itxi zenduan semearentzat iguingarri agertu zaítezan. Zoaz lenengo txarri-zaiñagana, zeure txarriak jagoten ditunagana, arek maite zaitu ba, zeure seme ta Penelope zuna lez. Txarri artean jezarrita aurkituko dozu, Belearen arkaitz ondoan, Aretusa'ren iturrian; antxe hait dabe txarriak ezkurra eurrez eta ur arrea ez gitxi, biok onak ziuarki arei lodiera galanta emoteko. Lotu zaitez antxe egotez, eta galde egiozu berari nai zenduken guatia; ni bitartean, Esnarta'ra, emakume ederrez ospatsua dan Esparta'ra noake, ta Telemako, zure semeari, o Odis!, dei egingo dautsot, au bada, Lakedemoni zabalera, Menelau, nera, joan yatzun, oindiño nunbait bizirik zengozanentz jakin naita.

428 Odis asmotsuak erantzun:

429 Odis.—Eta zergaitik ez zeuntsan esan, zuk dana zenkian eta? Gorriak ikusi zegizan arek be bear bara, ur-potzu elkorrean zear alderrai, enparauak ogasunak jaten ziraussoen artean?

433 Atene'k, ontz-begidun jainkotasunak jardetsi:

434 Atene.—Ez estutu. ezta ez izan aren ardurarik. Neronek croan neban, ara joanik, ospe te aomenez jabetu zedin; ez dau ezetariko neke-minik, poz-pozik dago Atrida'ren iau-regian, ezeren urritasun barik bizi yatzula. Egia, zelatan ditu gazteak, izontzi baltzean sartuta, a asaben lurrera biurtzera-

koan u gurata dabiltz; baiña ez deritxat orrela jazoko danik; ortara baiño len, lurrak bere altzoan eukiko ditu zureak irunsten dabezan senargeien batzuk.

443 Au esanaz, Atene'k zarta bategaz ikutu eban. Soinatal azkarretan jainkosak narru-azal ederra tximurtu eutson, ale gorrizkak murritztu eutsozan burutik, gorputz osoko narrua jarri eutsan agure batena zirudiala; begiak, len ain ederrak, ezkabiz zatartu eutsozan; pildar-dendelak eta soin-gaiñeko bat jantzi eutsozan, zarpil, zikin eta kez itxusi orbanduak; gaiñetik orein arin baten narru aundi, ule soildua bota eutson; azkenez, taket bat emon eutsan, eta zorro-fardel marroiz bat, zuloz betea, bere ede biurriaz.

452 Onda erabagi ostean, banatu ziran, Atene, Odis'en semea aurkitzen zan Lakedemoni jainkotira joanik.

XIV KANTUA

Odis, Eumeo'rekin alkar-izketan

Odis'ek, kaia itxirik, bide latza asi eban alderdi oiantsuetan zear, mune-gaintxo artetik, Atene'k, txarrizaiña idoroko ebala, esan eutson lekurantza; auxe zan, Odis jainkotiak alogeratutako morroi guztietatik, ondasunak arduratsuen zaintzen eutsozana.

7 Jezarrita idoro eban aberetegi guren, eder ta aundia-
ren ataurrean; toki agirian egoan au, ingurumari bira nasaia
ebalarik; txarrizaiñak berak egiña zan, urtuti zan bakaldunaren
txarrientzat nunbait, ez ugazaba-andreak ez Laerte zarrak la-
guntzeka, arri-lorrez atondua, arantzazko esi gogorrez ingura-
tuta. Bordatik at, an eta emen, arte-biotzetik ataratako taket
lodi erreskada aundia jarri eban; eta barruti ontan amabi txar-
ri-toki egoki zituan, alkarregandik ur samar, eta emen etzun
oi ziran txarriak. Onako bakotxean, itxita, berrogetamar txar-
ri-eme eukazan, txarrikumakaz, bean lo egielarik; eta arrak
kanpoan emon oi eben gaba; oneik gitxiago ziran, senargeiak
bada, jainkoen kideko, gitxitu oi ebezan, txarrizaiñak bialdu-
tako txarririk lodienetatik ederrena jaten leiatzen ziralako beti.
Irureun eta irurogei ziran txarriak. Onein urrean aurkitzen
ziran lau txakur eten-barik, pizti antzekoak noski, unai-maiz-
ter nausi zan txarrizaiñak azitakoak. Onek une aretan idi-na-
rru kolore bizikoa ebagirik, beretzat ondo etorkozan abarkak
egiten ziarduan; beste txarrizaiñetatik, iru ara ta ona sakaba-
natuak ziran euren txarri-saldoakin, eta laugarrena Eumeo'k
urira bialdua izan zan senargei buru-arroai, euren jan-galea oke-
laz asetzeko ilgo eben txarri jakiña eroan egioen.

31 Txakur zaunkalariak tupustean ikuskatu eben Odis,
eta, zaunkaka, oneganantz jo eben; gizurenak, alan be, bean
jarri ta maltzur gisan eskuan eroian adakia jausten itxi eban.
Orduan bear bada ezbear lotsagarria jasateko zorian egon zan,

bere borda ondoan egon be; txarrizaiñak, baiña, bat-batean eta oin-arin txakurren atzetik joan zan, eta eskuan eukan narru a jausten yakola, bizkor be bizkor ataria zearkatu, txakurrai dei egin, bakotxa bere bidetik arrika bialdu, ta onela itze-egin eutson erregeari:

40 Eumeo.—O agure! Txakurrak ots-otsean zatitzeko arrisku aunditan egon zara, ta niretzat au laido ta itxuskeri izugarria litzakidan. Jainkoak au barik be atsekabetan naukie, beste zerbaitegaitik negar eragiñik; malko ta samiñetan bada, neure ugazaba, jainko parekoagan goartuz, azi bear dodaz txarri gizen oneik, beste batzuk jan dagiezan; eta a, bear bada, gosekilla egongo yat, eta izkuntza arrotzezko jente arteko erri ta urietan erromes dabilkit, oindiño be bizi baldin ba'da ta eguzki-argirik ikusteko gai ba' yaku. Baiña erdu, zaar, jarrai nakizu txabolara, janariz asebate ta nai dozun aiña ardao edan-dakoan, esan daidazun nun jaioa zarean eta zelako zoritxarrak ikus dituzun.

52 Olan esanaz, txarrizain jainkotiak txabolara zuzendu eban, bertan sartu ta jarri-azorik; gero abar legorrak edatu ebazan bean, moltzo aundia, gaiñetik ondoren oetzako eukan basauntz aundi, uletsu, lodi baten narruz estali eban. Poz-esnetan egoan Odis Eumeo'k egiten eutson arrera txeratuaz, eta edu onetan mintzatu yakon:

58 Odis.—Zeus'ek eta jainko illezkorrak emon daizuela, oi arrotzari!, leiatsuen opa dozuna; onako biotz-beratasunez artu nozun ezkerro!

61 Eta zuk, Eumeo txarrizain, onela erantzun zeuntson:

62 Eumeo.—O arrotz! Ez yat zillegi aurrera datorbidan arrotzari ez-ikusi egitea, zu baiño be errukarriagoa izan arren, Zeus'enak dira ba arrotzak oro ta txiroak oro. Guk egiñiko edozein doe atsegin yake, txikia izanda be; otseiñak orrelaxe egin oi dabez, ugazaba gazteak agintzean beti bildurti. Nirearen itzulia jainkotasunak eragotzi eben antza; arek, ba, oso maite ninduan-eta, etxalde bat egokituko eustan, bizileku bat, alogersari bat, eta emazte aberats bat be bai; ugazaba onberak guzti ori emon oi dautso bere morroiari, onek arentzat lan dagianean leialki, eta jainkotasunak bere egintza gurendu ta gora jaso nai dabenean, orain esku artean darabildan au jaso eben lez. Asko be asko lagunduko leuskit nire jaunak, emen

azurrak zartzekoa balitz; baiña, ail, illa dot onezkero; bardin garbitu ba'leu oso-osorik Helena'ren jatorria be, berau zala-ta ainbat gizakiri ausi bai eutsezan belaunak! A bada Troia'ra, zaldi ederdunera, Agamenon omentzera joan zan, teukrotatren aurka guda egiñik.

79 Onan esanaz, bat-batean soin-gaiñekoa gerrikoz estutu ta txarri-taldeak egozan tokietara jo eban; bigaz biurtu zan, eta biak gardostu ta zatitu ondoren, burcluntzietan jarri zj-tuan. Txarrikia erretakoan, Odis'i eroan eutsan, berorik eta burduntzi ber-beretan, uren zuriz austuta; untzorrizko txol baten ardoa, ezta baizen leuna, bota. Odis'i aurrez-aurre jezarri ta, artzeko esanez, onela mintzatu yakon:

88 Eumeo.--Tan, o arrotz!, txarriki ontatik, morroiak jan oi dabena ziur asko; senargeiak irunsten dabez txarririk gizenenak, jainkotasunen asperraldien bildur bage, ta ez iñoren errukirik erakutsi. Baiña goitar zoriontsuai ez yakez eder egiñen gaiztoak; zuzenbidea ta giza-egintza zentzunezkoak, barriz, omengarritzat daukiez. Eta arrotz lurraldeak indarka artu oi dabezan gizaki biurri ta arerioak eurak be, Zeus'ek itxita guda-ondakin ugari batu ta euren sorterrira ontziak ondasunez beterik daukezala, biurtu oi diranak noski, onetxe he, barman ba-dabe, jainko-apenaren izu-ikara biza, biotza lene barik leertzen dautsoena. Baiña senargeiak jakin bear debe, aurki, entzuna daben jainkoren baten abotsez edo, aren eriotza negargarriari buruz, bidezko danez ez dabe ba eskatu nai ezkontzarik, ezta euren etxeetara biurtu he; bestera, oso nare ta odolotz aitzen dabez ondasunak buru-arro ta neurririk hace, Zeus'egandik datozan gau-egunetan ez dabe naiko opagai bat eskintzen, ezta bi he; eta ordaoa amaitu daroe, edan eta edan ezertariko neurri barik, guraiña ta geiago. Nire upazabaren etxaldea. hada, guztiz zabal aberatsa zan, larraso baltzean edo-ta Itaka'n bertan bizi diran gizurenena beste hai; geiago, ogei gizonek eurena batuta be ez leukie arena beste izango. Sailkatuko dautzudaz. Amabi bei-talde dagoz lurrasoan; eta beste ainbeste artalde, beste ainbeste txarritalde, ta en dabiltz auntz-aldra ugariak be euren zaintzaille ta alogerekoakin. Emen larratzen dira solo-guenean amaika auntz-saldo ugari, zaintzaille onak jagonda; oneitatik bakotxak senargeiai bere bat daroatse egunero, gizentasunez ta itxuraz onena dalakoa noski. Eta nik makera oneik zaindu ta

babesten ditut, eta, txarri-kumeetatik beti ederrena banandurik, ara bialdu oi dautset irunsle arei.

120 Orrela mintzatu zan. Odis'ek, itzik esateka, bizkor artzen eban janaria ta ardaoa be gogotsu edaten eutzun, senargeien aurka kalte ta gatzak asmatu bitartean. Apaldu ta barrua jatekoz bizkor-azo ondoren, Eumeo'k, berak edateko erabilli eroan txola emon eutsan, ardaoz beterik. Artu eutsan gizurenak eta, biotza poz-esnetan, itz ariñok ebagi ebazan:

127 Odis.—O adiskide! Nor izan zan bere ondasunakaz erosi zinduzana eta, diñozunez, orren aberats altsua zana? Agamenon'en deduagaitik galdu zala, esan daustazu. Bere izena be esaidazu, nun-edo-nun olako gizakia ezagutu baldin ba'dot be. Zeus'ek eta jainko illezkorrak ba-dakie ikusi dodan ala ez, eta emon neiskuzu aren albisteren bat, aunitz erriz galdua ibillia nozu-ta.

134 Erantzun eutson txarrizaiñak, unai-zaiñen nausiak:

135 Eumeo.—O agure! Nire ugazabaren barriakaz datoren etxe-iñes ta iperloka bateri be ez dautsoe siñistuko ez onen emazteak, ez onen semeak; alderrai eta babes-premiñan dabilztanak, ba, ango guzurretik orko guzurrera ibilli oi dira, bape lotsa barik, eta garbi, zintzo ez dabe itzik egiten. Itaka'ra erromes eldu oi diran guztiak, nire ugazaba andreagana doaz atso-ipuiñak edestera; eta onek, arrera txeratsua egin oi dautse, ainbat zeaztasun eskaturik, eta bertatik intzirika asten da, malko ugari isuriaz bere begi-zintetatik, senarra erbestean il yakon emakumak oitura daben lez. Zeuk be, o agure!, laster asmatuko zeunke edozein edeski, jazteko alkondara eta soingaiñekoa emongo ba'leutzue. Baiña onezkero txakurrak eta egazti zailluak azurretako narrua berezi bear izan dautsoe, eta arimeak itxiko eban; edo-ta bear bada arraiñak iruntsi eben ur-potzu nausian eta aren azurrak ondartzan dagoz, are-meta aundi baten barruan. Orrela il zan a, atsekabe ta biotz-miñak ugari bere adiskide guztioi, baiña batez be niri, itxirik, ez dot ba geiago, noala noan lekura, ezta neure gurasoen etxera, jaio ta azi nintzanera, ba'niñoia be, ugazaba ain biozberarik aurkitu al izango. Eta negar dagit, neure begiz sorterrian ikusi nai neukezan areikaitik baiño geiago, nigandik urrindu zan Odis'eganako atsekabe ta mifiarren; aren izena, o arrotz!, bildur naz esaten, emen ez daukadan bitartean; maite-maite ninduan, eta nigazko ardura

aunditan bizi zan aren biotza, eta nik, urrin dagoan arren, biotzeko anaia deritxot.

160 Odis jainkoti eroapentsuak esan eutson orduan:

161 Odis.-0 adiskide! Dana ukatu daroazun ezkerro, a ez dala itzuliko esanez, eta zu guztiz siñisgogor bait zaukadaz, ez bakarrik Odis etorriko dala bein ta barriz esan, baita zinez ziurtu be egingo dautzut. Albiste onen barri onagaitik, jantzi nagizu alkondara ta soin-gaiñeko bategaz, jantzi bikaiñakaz noski, a bere jauregira eldu ordukoxe; aurretik ba ez neuke ezer txo be artuko, neure burua bear-izan gorrian dakust baiña. Hade'ko atea baizen iguingarri yat, ez-eukiari amor-egiñik, guzurrak saltzen dabezana. Beitez lenengo ziñaldari Zeus jainkoen artean eta gero jaritxi nazan Odis akats bagearen sukalde ta mai atoskorra, bai, guztia diñodan lez beteko danaren testigu: Odis ona etorriko urte onetan bertan; gagozan illebete au amaitu ta bestea asterakoan, bere etxera biurtuko da, eta aren emaztea ta seme gurena irain-azten dabezana aspertuko yake.

176 Eta zuk, Eumeo txarrizain orrek, onela erantzun zeuntson:

177 Eumeo.-0 agure! Ez, ez dot artu dodan barriagaitik ezer ordaindu bearrik izango, ezta Odis be ez da bere etxera biurtuko; baiña edan nare-nare, autu-aria alda dagigun eta ez eidazu gai ori gogora ekar; samiñetan jarten yat, ba, barrua neure jaun agurgarriaren izena entzunaz bakar-bakarrik. Egiña ezpalitz lez bego ziña, ta betorkit aurrera Odis, nik opa neukean lez; baita Penelope, Laerte zarra ta Telemako, jainkoen kidekoa. Aur au dala-ta nago orain etenbako negarrean, Odis'ek sortu eban Telemako'gaitike jainkotasunak larrosapinpiña bailitzan azi eben ezkerro, urteak joan urteak etorri, uste neban, gizasemeen artean etzala bere aita baiño gitxiago izango, bere soin-itxura ta jas-zoramenez eder-ederretsia baiño; alan be, kor edo gizakiren batek leen eukan zentzun ederra gaiñazpikatu dautsolako edo, Pilos jainkotira joan da bere aitareen barribilla, ta itzuliz datorrenerako sare ta iruzurrak gertatzen diardue senargei ospatsuak, jainkoen kideko dan Arkesi'ren jatorria aintza bage Itaka'tik ostendu dedin. Baiña laga dagiogun, naiz arrapatua izan, naiz iges-egitea lortu, Kronida'k luzatu daian aren gaiñ bere besoa. Ea, zar!, esaidazuz zeure kezka; esaidazu, bai, gai oneri buruz dakizuna, nik be jakin dagidan: Nor zaitut eta zein eskualdetik zatorkidaz? Nun daukazuz zeure

uria ta gurasoak? Zelako ontzian eldu zara onaiño? Zelan ekarri zinduezan mariñelak Itaka'ra? Nortzuk **uste ete dabe?** Ez dot ba oiñez etorri zareanik uste.

203 Odis asmotsuak jardetsi;

204 Odis.—Guzti oni buruz barri zeatzak emongo dautzudaz. Jatekoa ta ardao leuna luzarorako ba'geunkoz, eta enparauak lanera doazan bitartean gu borda onetan orritsak ospatzen geratuko ba'gintzaz, ez litzakit errez izango, jainkoak olan naita, nire gogoak jasan dabezan samintasun guztiak, urte guztia ortan eginda be, zuri iragartea.

210 «Jatorriz, Kreta nasaikoa nozu, nire aita antxe izan zan, ba, aundiki aberatsa. Beste seme asko be jaio yakozan, jauregian eziak izanik, danak legezkoak, bere emaztearenak, baiña ni aren oa-kide izan zan emakume erosi batek munduratu nindun; baiña Kastor Hilakida'k bere legezko semeai baizen itzal eta begirune aundia erakutsi eustan beti, eta nik aren kimutikotzat euki dot beti neure burua. Kretatarrak jainko bat bailitzan omendu izan eben beti, zoriontsu, aberats eta seme-alaba ugariduna izan zalako. Balbeak Hade egoitzera eroan ebe-nean, aren seme esku-zabalak euren artean banatu ebezan ondasunak, nori zer zotz-egiñik, eta niri be zerbait emon eusten, etxe bat izendaturik. Sendi aberatseko emaztea artu neban, neure balioz bakar-bakarrik; ni ez bait nintzan arbuiagarri, ezta gudatean bildurti be. Orain ez daukat ezer, guztia galdua dot eta; alan eta guzti be, galtzua ikusiz laborea ezagutzen, ezbear aundiak austuta naukan arren. Are'k eta Atene'k ausardia ta kementa emon eustezan aurkakoen gizataldeak ondatzeko, eta gizaseme bulartsuagoak aukerata etsaien aurka kalteak asmaurik iruzur-sare batera eroan bear izan nebazanetan, nire biotz aundiak ez eustan egundo be eriorik begi aurrean ipiñi; bestera, bai, beste iñor baiño lenago burruka-zelairatuaz, neu nintzan ni baiño oin-ariñago etzan arerioa lantza-erpiñez ji oi nebana. Orrela jokatu oi neban gudan, Ez yatazan ader solo-lanak, ezta seme argiak azten dabezan etxeko ardurak be; bai, oster, ontziak euren arraunakaz soilki, erasoaldiak, azkon leunduak eta geziak; gauza goibel izugarriak askorentzat eta gogoko niretzat, jainkoaren batek griña ori sartu bai eustan; guztiok ez dogu, ba, egiñen berberetan poza artu oi. Akeutarrak Troia'n oiñak jarri baiño len, bederatzi alditan zuzendu nitun nik gizonak eta ibilli bizkorreko ontziak erbestetar jentearen aurka, ta zer guz-

tiak eskuratu oi eustezan ugari be ugari. Areitatik neuretzat ziran atsegiñen yatazanak, beste asko be gero zotzegiñik ziran niretzat; edu orretan, nire etxea azkar azirik, altsua ta adei-lege aundikoa izan nintzan kretatarren artean. Baiña Zeus urrin-ikusleak ateraldi gogaikarria, ainbat gizaki gureni belaunak ausi eutsezanekoa, erabagi ta gertatu ebanean, ni ta Idomeneu argi-argia, Ilion'era joiazan ontzietako buruzagi izentatu ginduezan, eta errian entzute txarra ez artzegaitik, ezin ziran geuntson eskari orri uko egin. An gudukatu gendun akeutarrok bederatzi urtetan, eta amargarrenean, guk Priamo'ren uria suntsitu ostean, geure etxeetarako bidea artu genduan ontzietan; baiña jainko batek sakabanatu zituan akeutarrak. Eta Zeus arduratsusak gatzak asmatu ebazan zoritxarreko onen aurka, illebe-tean bakar-bakarrik neure seme-alabakaz, neure legezko emazteaz eta etxaldeko ondasunakaz poz-azi nintzan onen aurka; ondoren, bada, barruak ziri egin eustan Ejipto'rantza itxas egiteko, eta ontziak egokiro gertautakoan, orrelaxe egin neban jainkoen kideko neure lagunakaz. Bederatzi ontzi antolatu nitun, eta berealakoa alkartu zan bear neban gizioztea.

261 «Sei egun emon ebezan nire lagun zintzoak janke-tak ospatzen, eta neuk aukeratu neutsezan ainbat oparigai oparitarako ta euren jatorduetako. Zazpigarrenean, ontzietara igon eta, Kreta zabaletik abiatu-rik, txit eroso ibilli giñan Borea onezko ta gogorraren babespean, ur-tiraiñak eroanak ba'gintzaz lez, errez ta gozatsu. Ontzietatik batek be ez eban kalterik izan, eta danok giñoazan bizirik eta onik, aizeak eta lema-zaiñak eroiezan eta. Bost egunen buruan Ejipto ibaira, tirain ederrekora, eldu gintzazan; emen geratu nitun izontzi makur-rak. Orduan, lagun zintzoai ontziak zaintzen geratzeko agindu ondoren, begiraleak bialdu nebazan toki autakoetara, eskualdea arakatu egien. Baiña niretar-arak, curen barruko sen azar urtenai aria emonaz, ejiptotarren solo bikaiñak ondatzen asi ziran; eta eurekaz eroiezan emakumeai eta gizonezkoai eriotza emonik. Ornen zurrumurrua laster eldu zan uriraiño. Bertako biztanleak, garrasi ta deadarrak entzunaz, egunsentirantz etorri yakuzan; zelaia oiñezkoz, zaldiz ta borontze dizditsuz bete zan; oiñaztarria pozik darabillen Zeus'ek, iges kaltekorra bialdu eutsen nire lagunai; eta gerozkoan, une areatik, iñok be ez eban gogor egiteko adorerik, gaitzak nun-naitik esitzen ginduezan eta. An u euskuezan borontze zorrotzez

ainbat eta ainbat gizaki, eta beste batzuk bizirik eroan ebezan uritarren onerako lan gogorrak burutu egiezan. Niri Zeus'ek berak jarri eustan gogoan erabagi au (ai, orduan il ba'nintz eta nire adua antxe, Ejipto'n, bete ba'litz, zoritxarrak bada geroztik be larri artu bear ninduan) : orduan bertan, buru-oskol ondo landua erantzi, ta besogaiñetatik ezkutua kendurik, eskuetatik urrin bota lantzea ta erregearen zaldietara zuzendu nintzan, eta belaunak besarkatu neutsozan oni, euretan mun-egiñik. Erregeak babestu ta gaizkatu nindun; bera joian burdira igon-azorik, bada, bere etxera eroan nindun, begi biak negar malkotan nebazalarik. Askok eraso eusten ^uur-
ren lizarrezko lantzakaz, ni il gura-ta, guztiz suminduta egozalako; baiña ak bazter-azo ebazan, Zeus arrozariaren sudur-
uxtuaren bildurrez, au bada oi ez bezela asarretzen dana badakigu egiñen txarrakaitik. Zazpi urte egin nituan arenean eta aberastasun ugariak batu nebazan ejiptotarren artean, zerbait bertako edozeiñek emon oi eustan eta. Baiña, zortzigarrrena eldu zanean, feniziar guzurti maltzur bat etorri yatan, beste gizaseme batzui be ainbat kalte egindakoa; eta, asmo-
tsua zalako ni be berera jarriarik, berak etxea ta ondasunak eukazan Fenizia'ra eroan nindun, Urte osoa egin neban arenean; eta urtea eta beronen illebete ta egunak bete ta urte-
aroak gertatu ziranekoxe, beste azpikeri batzuk eio ta Libia'ra croan nindun bere itxas-ontzi zearkarian, agiri zanez bere salerosgaiak eroaten lagundu nengion; baiña, egi-egiaz, salneurri jasoan an saldu nai izan nindulako izan zan. Ara jarraitu bear izan neutsan, zer-edo-zeren susmoa ba neban arren, eta aren ontzira igon neban. Au ba-joian ur zabalean zear, Kreta'tik ur-
samar, Borea onezko ta ederrak eraginda; Zeus'ek, bitartean, ontziaren onndamena zelan burutu, gogoan erabillen.

315 «Kreta itxi ta lurrik iñundik iñora be ikusten etzala, zerua ta itxasoa soilki baiño, Zeus'ek laiño moltzo illun illuna jarri euskun ontziaren buru-biran, bertatik illundu zan azpikal-
de guztia, baita ostotsa sorturik oiñaztarri bat bota eban gure ontzira, bat-batean: onek dardara egin eban, Zeus'en oiñaztarriak jo ebanean, kirats-sundaz guztia beterik; eta itxasora jausi ziran nire gizonak. Uin-bagak eroiezan ontzi baltzaren ingurumari, belatxingak iduri; eta jainko batek ez eutsen laga sorterrira biurtzen. Niri, alan be, atsekabez nengoala ta guzti, Zeus'ek berak jaurti eustan eskuetara branka urdiñezko ontziaren masta

luze-luzea, orduan be ezbearrtik iges-egin nengian. Ari oraturik, bederatzi egunez izan nintzan aize kaltegarrien jostaillu; eta amargarrenean, gau baltz-baltzean, olatu eskergak jaurti nindun tesprotarren lurrera. An, Fidon gizurenak, tesprotarren bakaldunak, oso txeratsu artu ninduan; antxe aurkeztu yatan, ni nengoan lekuan, aren semea, jaso ninduan bere eskuz eta aitaren egoitzera zuzendu nindun, otz-nekez abailduta nengoalarik, eta jantzi nengizan alkondara bat eta soin-gaiñeko bat emon eustazan.

335 «Odis'eri buruz mintzatu yatazan bertan: erregeak esan eustanez, arrera txeratsua egin eutsoen, eta laster itzuliko zan bere asaben lurraltera; antxe erakutsi eustazan Odis'ek batu ebazan aberastasun guztiak, borontze, urre ta burdin landua, gizon bat eta beronen ondorengoak amargarren belaunaldiraiño alikatzeko lain ziran aberastasunak ain zuzen be: errege aren jauregian, ainbat bitxi ta edergarri eukazan euki be! Gaiñeratu eutsonez, Odis Dodona'n aurkitzen zan arte jasoagandik Zeus'en naia jakiten ara joanda, aspaldi danik alde-egiria zan Itaka lurralde aberatsera, agirian edo-ta ixil-ostuka itzultzea egokiago zan jakitera noski. Eta neure aurrean zin-egin eban, bere etxean ixurketak eskiñiaz, ontzia itxasora botata eukiela ta lagunak gertu egozala bere asaben lurrera eroateko. Baiña aurretik agur egin eustan niri, garitan ugaria dan Duliki'ra joian mariñel-ontzi bat alanbearrez an agertu zalako. Oso arduratsu eroan nenguela, esan eutsen, Akasto erregeanera; arei, orraitio, eder izan yake erabagi gaizto bat artzea, nire gaiñera oindiño zoritxar eta ezbear aundiagoak jausi eitezan. Ontzi itxas-zearkalaria ur-ertzetik urrin egoala, nirtzat jopu-eguna eldu yatala erabagi eben; eta, aldean neroiazan alkondara ta soin-gaiñekoa erantzirik, dandar eta alkondara errukarriok jantzi eustezan, zuloz beterikoak, zeure begiakaz dakusazun oneik. Arrastian, urrin ikusten dan Itaka'ko zelaietara eldu gintzazan; eldukeran, loki biurriaz lotu ninduen gogor be gogor tosta askodun ontziari, eta jarraian lurreraturik, aparia egin eben ur-ertzean. Baiña jainkoak eurak askatu eustezan loturik neukien lokarriak; eta orduan, nik dendclak buruan biribilatuaz, endaitz leunetik txirrist egin, itxasora bularra emon, esku biakaz igeri egin, eta laster aurkitu nintzen areikandik urrin, areik ez ortzeko eran. Itxasotik urten arte joritsu oian bat dagoan lekura, ta lurrean etzunda geratu nintzan; areik larri ta kezkaz

ebiltzan irabioka, intziri sakonak egiñik, baiña azkenez alperri-
kotzat etsi yaken nire billa ibiltea, ta ontzi makurrera biurtu
ziran; jainkoak errez estal-azi ninduen eta gizaki zuur baten
bordara eroan, nire bizia luzeagoa izan dedin nai dau-ta aduak.

375 Eta zuk, Eumeo txarrizain orrek, onan erantzun
zeustan:

376 Eumeo.—A!, ostatutarretatik zori gaiztokoena! Ba-
rrua erruki-azo daustazu ain zeatz esanik jasan izan dozuna
ta andik ona ibillia. Baiña ez dot uste egoki zanez itz-egin do-
zunik Odis'i dagokionez, ezta ez nozu zurituko zeure itzakaz.
Zek beartzen ete zaitu, zareana izanik, alperrik gururretik ebil-
ten? Ba-dakit ondo be neure jaunaren itzuliaz zer egin; jain-
kotasunai gogaikarri izan yaken naitaez, ak teukrotarren artean
bizia amaitzerik gura izan ez ebenean, ezta euren adiskideen be-
soetan be guda amaitu zanean; orduan ba akeutar guztiak obi
eder bat jaso izango eutsoen, euren semearentzat aintza azken-
bakoa jaritsirik. Galdua dogu orain aomen barik, Harpia'k
eroana. Baina ni baztertuta bizi nozu, neure txarrien ondoan,
eta urira joan oi naz Penelope zurrak dei egiten daustanean
bakar-bakarrik, nun-edo nundik albisteren bat ekarri oi dautsoe-
nean: angoak etorri-barri danaren inguruan jarririk, milla itaun
egin darotsoez, bai erregearen urrin-egunakaz atsekabe diranak,
eta baita orregaitik poztu oi diranak be, aren ondasunak apen
barik irunsten dabez eta; baina niri ez yat gogoko orretzaz ezer
arakatu ez itaunik egitea, etolar gizon batek bere itzakaz ziria
sartu eustanetik; au bada, gizon-ilketa bat egin ebalako, errial-
de askoz ibilli zan ara ta ona, ta azkenez nire bordara eldu zan,
eta nik oso arrera ona egiñez artu neban. Odis Kretan ikusi
ebala esan eustan, Idomeneu'ren ondoan, ekatxak bere itxas-
ontzietan egin ebezan kalteak atontzen iñardualarik; eta uda-
rantza edo udagoienerantza elduko zala esan eban ogasun asko-
gaz, eta jainkoen kideko ziran lagunakaz batera. Eta zuk'o
zaar!, ainbat jasandako orrek, jainko batek ekarri zaitun ezke-
ro nire etxera, ez egizu nai izan maltzurkeriakaz poztu edo-ta
niri palagu egin nai izan; ez dautzut ba origaitik lotsa geiago
erakulsiko, ezta geiago maite izan be, Zeus arrozariari dautso-
dan bildurarren eta damostazun errukiagaitik baiño.

409 Odis asmotsuak erantzun:

410 Odís.—Siñisgogor da, egiazki, zuk bular barru daroa-
zun biotza, ziñez be lortu ez dodanean zuk nigan uste ona iza-

tea, ezta zuk esan ncutzuna. Baii'ia, ea, dagigun itunben bat, eta gure gaiñetik beitez testigu curen bizilekua Olinpo'n daben jainkoak. Zure jauna etxe ontara biurtu **alkondara bat** eta soin-gairieko bat emongo daustazuz ncure gorputza estaldu dagidan, eta ni opa dudan Duliki'ra bialduko nozu; eta esan dautzudan lez etorri ez ba letor, axatu eizuz nire aurka zeure morroiak, eta amil nagIELa arkaitz jasotik beera, eskeko enparauak egundo iñoizkotan atzipetu ez zagiazen.

421 Txarrizain jainkotiak jardetsi:

422 Eumeo.—O arrotz! Entzute ona ta eritxi ohea jarisiko neuke gizonen artean orain eta aurrerantzean, neure txabolara ekarri ta arrotz-legearen doeak aurkeztu ondoren, zuri bizia kentzera ba'niñoia! Zelan otoitz egingo neuskio Zeus Kronida'ri! Baiña apaitarako ordua dogu: lagunak arin baletoz, txabola barruan aparti atsegingarria gertatu daigun.

430 Edu onetakoa zan arein autua. Ontan, urreratu ziran txarriak curen jagoleakaz, eta makerak curen tokietan itxi ebezan, lo-egin egien; olako kurrinka azkenbako bat entzun zan txarriak euren okulluetan egokitzen ziralarik. Txarrizain jainkotialc orduan agindu au emon eutsen bere lagunai:

436 Eumeo.—Ekar eidazue txarrietatik onena urriñetik etorri yakun arrotz onen omenez ii dagigun eta geuri be onurakor izan dakigun, aspaldi danik bada ortz zuridun txarriakaitik nekatu oi gara ta beste batzuk iruntsi daroez bapc kezka berik gure izerdien frutua.

442 Onela esanaz, egurra moztu eban borontze erruki bageaz, urdezaiñalc bost urteko txarri guztiz lodi bat sukalde undora ekarren bitartean; txarrizaiña, onbera zan-eta, etzan aztu illezkorrakaz: asikiñak eskiñi eutsezan ortz zuridun txarriaren buruko zurda batzuk sutara jaurtirik; eta bidenabar jainko guztiai eskatu eutsen Odis zurra itzuli zedilla bere etxera. Gero be-soa jasorik, egurra moztean itxitako arte-enbor bategaz txarria zauritu eban; hurera jausi zan arnas barik. Eurak narrua kendu eutsoen, sutan erre ta bertatik zatitan banandu. Txarrizaiñak, abercaren soin-atal bakotxeko zati bat arturik, zati gordiñak koipe joritan nastau ta, urun zuriz txipristinduaz, sutara bota ebazan. Enparaua zati txikiagoetan banandu eben, eta, burruntzai puntetan sarturik, arduraz *erre* ebezan eta, azkencz, sutatik atera ondoren, danak batera mai gaiñean ipii3i zituen. Ja-

gi zan txarrizaiña zatik egiteko, eta —onen gogoa zuzen-zale zan egiazki—, txatalak zeatuz, zazp i pusketa eratu zituan: bat Ninoa ta Maia'ren seme Hermes'i eskiñi eutson, zin-aginduak be berori egiñaz, beste seirak bazkaldarren artean zatiturik; ortz zuridun txarriaren solomokia Odis'erentzat izan zan, eta ornen onek, jakiña, benetan poztazi eban ugazabaren biotza. Bat-batean Odis asmotsuak onan itz-egin eutson:

466 Odis.—Neuretzat baizen maitagarri zakioz, o Eumeo!, Zeus aitari; nagoan lez nagoalarik, emoi bikaiñez aundietsi narozu-ta!

469 Eta zuk, Eumeo txarrizain, onan erantzun zeuntson:

470 Eutnee.—Jan egizu, arrotzetatik doakabeen orrek, eta ar poza aurrean daukazun orrez; jainkotasunak, bada, au emongo dautzu ta bestea ukatu, berari atsegiñen dagokionez, guztialtsua da-ta.

474 Au esanaz, jainko betierekoai eskiñi eutsezan asikiñak, eta, ardao baltza isuriaz, bere aragi-pusketaren ondoan jarrita egoan Odis, uri-suntsitzaillearen eskuetan ipiñi eban txola. Ogia Mesauli'k banatu eutsen; jagole au, txarrizaiñak berak eresia zan, bere ugazaba urrin zala, ez bere ugazabandira ez Laerte zarraren laguntza barik, bere ondasun berekikoz tafitar batzuei erositakoa. Guztiak sartu eben eskua eukiezan janarietan. Eta jan-edanez ase-ala, Mesauli'k batu zituan ogi-txatalak, eta eurak, ogiz ta aragiz asetuak, ogera joan ziran geiago luzatu bage.

485 Gau txarra, illargi bagea, etorri yakun gaiñera; Zeus'ek aspertu barik euriari ekin eutson, y Zefir euritsuak tai bage putz, indartsu ta asarre. Eta Odis'ek era onetan itz-egin eban, txarrizaiña zirikatuz, soin-gaiñekoa berari emoteko kentzen ete eban, edo-ta, beragaz ardura orren aundia eban ezkerro, beste lagun bati agintzen ete eutsan orrela egiteko.

491 Odis.—Entzun eidazue orain, Eumeo ta lagun enparauak! Itz batzuk esan bear ditut neure burua goretsiz, ardao nastatzailleak ortara daraeist eta; onek bada zentzundunena be barreka ta kantari jarri oi dau, dantzara daroa ta baita ixillik euki bear leukezan gauzak iragartera be. Baiña, solasari eldu dautsodan ezkerro, ez naz ixilduko esateko daukodana adierazo arte. Ai, ba'giña Troia'ko arresi aurrean, lenda-netik eraturiko zelata-marroa zuzentzen genduanean gintzazan

baizen gazte ta indartsu! Odis eta Atrida Menelau ziran orduko buruzagi, eta ni niñoian irugarren buruzagi lez, eurak agindu eusten eta. Urira ta orma jasoaren ondora elduaz bat, sasiarte trinko batzuetan etzun giñean, zingira bateko kañabera artean, osto azpietan kukurio jarririk. Gau txarra, izoztua izan zan; Borea'k arnas egian, goitik etorren edur zee, leia baizen otza, ezkuta biran izoztela gogorturik. Besteak, alkondara ta soin-gaiñekoak eukezanak, lo egozan nare-nare bizkar-gaiñak eskutakaz estalduaz; baiña nik, ahiazerakoan, zorakeri au egin neban: soin-gaiñekoa neure lagunai emon neutsen, ez bait neban uste ainbesteraiñoko otzik egingo ebanik, eta ezkutaz eta bular-babeski eder bategaz bakar-bakarrik etorri nintzazikun. Baiña, gaua bere azken arenera eldu ta izarrak beerantza asi ziranean, Odis ikutu neban neure ukondo, ur-ur bai egoan, eta ots-otsean erantzun eustan; onela mintzatu nakion: «Laerte'ren seme, Zeus'en leiñuko! Odis, maltzurkerietan jorri! Onezkero ez nozue zenhatuko hizidunen artean, otzak azpiratu hear nau-ta. Ez daukat soin-gaiñekorik. Jainkoren hateg adarra jo eustan, alkondaraz bakarrik abiatu nintzanean, eta orain ez dot biderik aurkitzen bizirik urteteko». Onela esan neutson. Laster asmatu eban ak igespide bat, burrukan baizen asmotsua zan bada olako gauzetan; eta, aopeka itz egiñik, esan eustan: «Ago ixillik, eure akeutarren batek olakorik entzun ez dagikan». Mintzatu zan; eta, ukondoan zutikatuturik, burua jaso ta onela asi zan eleketan: «Entzun eidazue, adiskideok! jainkozko amesa izan dot lotan nengoala. Ontzietatik urrun gagozan ezkerro, beioa bateren bat Atrida Agamenon, giza-artzaiñari, ontzietatik gudari geiago hialduko ete dauskuzan, esatera». Ola esan eban; eta Toante, Andremon' en semeak, bat-hatean iagi, purnurazko soin-gaiñekoa jaurti ta ariñeketa baten joan zan ontziak egozan lekurantza. Aren jantzian hato ta ozik lotara nintzan, eta bingoan agertu zan urrezko aulkidun Egu-antza. Orduan baizen gazte bai nintz eta orduan haizen kementsu nire gorputza, okullu onetako txarizniñen batek hada bere soin-gaiñekoa emongo leuskit, adiskide zurrian edo-ta adoretzu bati leuskion itzal eta begirunez; orain, alan be, ercleiñagarri ta matxar nakie nire soña iantzi zirtzillak estaldua dakuselako.

538 Eta zuk, Eumeo txarrizain orrek, onan jardetsi zeuntson:

539 Eumeo.—O agure! Egin dauskuzun kontaketa au esankizun bakoa dozu, ez dozu ezer esan alperreko danik, ezta egoki ez danik be: orixegaitik ez yatzu peituko ez jantzi-rik ez beste ezertxo be, bidora urtenik edozein eskeko doakabek eskatu ta gugandik jaretsi bear dauanik; baiña, egunduala, zeure dandar-piltzarrok astinduko dozuz oster a be, emen ez daukagu ba aldatzeko alkondara ta soin-gaiñekorik, bako-txak berea aldean daroana besterik. Eta Odis'en seme laztana datorkenean, arek emongo dautzu alkondara bat eta soin-gai-ñeko bat, jantzi dagizuzan, eta zeure biotzak eta kemenak nai daben lekura eroango zaitu.

549 Itz oneik ebagi ostean, jagi, sutondoan arrotzaron-tzat oge bat antolatu ta ardi ta auntzen narruz bete eban. Odis bertan etzun zan luze-luze ta Eumeo'k, ekaitz gogorren batek jo oi ebanoan aldatzeko beti beragaz eroian soin-gaiñeko zabal lodia gaiñetik zabal-azi eutson.

554 Onela lotaratu zan Odis, eta beronen aldamenetan artzain gazteak; txarrizaiñak, alan be, ez eban an bere etzangua euki nai izan, eta txarri tegietan urrin lo egin, bere jagole-tresnak artu ta urteteko gertau baiño; eta Odis'ek sekulako poza artu eban, bera urruti zala be zelako arduraz zaintzen eutsozan bere-bereak zituan ondasunak ikusiaz. Ortarako Eumeo'k ezpata zorrotza esegi eban lenengo bere sorbaldatik; gero beroki lodi bat jantzi, aizearen aurkako, auntz aundi ta ondo gizendu baten narrua artu; eta, azkenez, azkon zorrotz bat eskuratu eban txakur eta gizonakandik bere bu-rua zaintzeko. Eta arkaitz garai baten zapal-unera joan zan etzutera, antxe bai egoan lo ortz zuridun txarria, Borea' ren babesean.

XV KANTUA

Telemako, Eumeo'ren bordara eltzen da

Tarte onetan, Palas Atene Lakedemoni zabalera zuzendu zan Odis biotz-aundiaren seme argiari adimenean itzuli-gogaia sartu ta bere egoitzera biurtu eiten indarra ernoteko. Telemako ta Nestor'en seme gurena Menelau aintzatsuaren etxeko ateurrean aurkitu zitun etzuncla: Nestor-semea lo gozoak eukan azpiratua; baiña Telemako'z etziran oindiño lo-gozotasunak jabetu, gau illezkorrez bada bere aitag izan zeitekean zoriaren ardureak ez eutson lokartzen izten. Eta, aren aldame-nean geldituaz, Atene'k, ontz-bigidunak esan eutson:

12 Atene.—Telemako! Ez yatzu egoki etxetik urrun berandukor egitea, bertan ainbeste ondasun eta gizon aren buru-arroak itxi dozuzan ezkerro: zure onibarrak bear bada banandu ta jan ez dagiezan, eta gero alperrekoa izango litzakizu egin dozun joan-etorria. Eska egiozu Menelau'ri arren bai arren eta alik ariñen, itxi daizula joaten, oindiño be jauregian aurkitu daikezun zeure ama gurena; bere aitag eta nebak ba ezkondu daitela diñotse Eurimako'rekin, au bai doa aurrelari senargei guztien artean esku-erakutsiak eskinka, opaturiko ez-konsaria be geiturik: zuk nai ez-ta be, dagokizun bitxiren bat egoitzetik eroan ez daizuen. Ba-dakizu ze zozo darabillen emakumcak bere barnean: emaztetzat artu dauanaren etxea goigoiraiño jaso nai dau; eta ez lenengo seme-alabak, ez ikuge alkartu yakon senar illa, ez ditu iñoiz gogoratzen, ezta curakaitik itandu be. Baiña zuk, ara biurturik, emon zeurea dozunaren ardurea onenentzat daukazun neskameari, jainkotasunak ezkontide aundiki bat billatzen dautzuen artean. Beste gauza bat be esango dautzut, zeure biotzean jarriko dozuna. Itaka ta Samos malkartsuaren artean dagon medar-unean sareak ipiñi dabez senargaietatik argienak, zure itzulpenaren zain jarri-rik; zeure gurasoen lurrera biurtu-ala ii egin nai zaitue-ta; bai-

ña ez dot uste orrela jazoko danik, eta ori gertatu baiño len, lurrak bere magalean obiratuko dau zurea iruntsiz bizi diran se-nargeitakoren bat. Origaitik, egizu, arren, zure ontzi ondo landua igaro daiteela ugarteetatik urrin samarrera, eta gabaz; eta zu zaindu ta gerizatu oi zaituan illezkorretatiko arek zure ontzi ondoren bialduko dautzu aize atsegingarria. Itaka itxa-saldera eldutakoan, bial egizuz ontzia ta lagun guztiak urira; eta zu zoaz lenik-lenen txarrizaiñarenera, urdeak jagon eta maite bait zaitu bene-benetan. Emon bertantxe gaba, ta bialdu eizu gero urira, Penelope zurrari eroan dagion bizirik zagozala ta Pilos'era eldu zarealako albistea.

45 Orrela mintzaturik, Olinpo zabalera aldatu zan Ate-ne. Telemako'k itxartu eban Nestor'en semea lo gozotik, oi-ñaz eragiñik, eta itzok esanaz:

48 Telemako.—Iratzar, Pisistrato Nestor-seme! Burdira-tu zaldi zoliak eta buztartu, bidean jarri gaitezan.

51 Baiña Pisistrato Nestor-semeak jardetsi:

52 Pisistrato.—Telemako! Ostera egiteko esturaz gabil-tzan arren, gau illunean ezin daikeguz zuzendu zaldiak; eta onezkero laster datorkigu egunsentia. Baiña itxaron pizkaten, Menelau Atrida'k, bere lantzaz ospetsu dan gizurenak, bezu-zak ekarri, burdia antolatu ta itz leunez agur egin daiskun arteño. Betikoz iraun oi dau, ba, arrotzagan arrera bioztia egin gizaki ostatzaillearenganako gomutamen txeratsuk.

60 Olan itz-egin eutson; eta beingoan etorri zan urrez-ko aulkidun Egu-antza. Orduan urreratu yaken Menelau, burrukan kementsu, Helena, adats ederdunaren ondotik, jagi-ba-rri zana. Odis'en seme laztanak, ikusi ebanekoxe, alkondara ederrez bere soiña bizkor bizkor estali, sorbalda zangarretara txabux aundia botarik, bidera urten eutson. Eta, aren alboan geldí, onela mintzatu yakon Odis jainkotiaren seme kutuna:

68 Telemako.—Atrida Menelau, Zeus'en ikasle, giza-printze. Itxidazu oraintxe berton abia naiten neure aberriran-tza, neure egoitzera biurtzeko irrika biziz nago-ta.

71 Menelau, burrukan azkarrak erantzun:

72 Menelau.—Telemako! Joan nai dozun ezkero, etzai-tut nik geldi-azoko luzaro; gogaikarri yat, bada, bai arrotz ba-ti ostatua emonik neurri bage maite dauana, eta bai oi **ez** be-

zela olakoari gorroto dautsona; beti da eder, ta oba dozu, gauza guztietan neurritasuna erabide lez eukitea, Etxetik joan nai ez dauan arrotzarí urteteko diñotsonak baizen txarto jokatu daroa, abiatu gura dauana etxean geldi-azo ba'daroa be. Gurekin dagon artean maitasunez artu bear dogu, ta bideari ekin nai dautsonean, agur esan eta doala. Baiña itxoin pizkat, esku-erakutsi bikaiñak ekarri ta burdian, zeuk ikusteko, ipiñi dagidazan arte, ta andrai jauregian, berton daukaguzan emendio ta bizigailluekin jan-edate galanta gertatu dagiela, agindu dagitsedan arte; deduzlcoa, aintzazkoa ta obarizkoa da, ba erabat arrotzak lur zabalean zear abiatu aurretik jan eta edatea. Esaidazu gaiñera Elade'tik eta Argos erditik bear bada itzuli nai zendukean, neuk lagun egin dagizudan; zaldiak loturik, ha, uri jentatsuetatik zear eroango zaitut eta eroango dogma zerbait barik iñok be ez gaitu itxiko, dala borontzezko, dala galdara bat, mando-bikote bat, naiz urrezko txol bat.

92 Telemako zurrak erantzun:

93 Telernako—Atrida Menelau, Zeus'en ikasle, giza-printze! Neure sukaldera biurto nai dot albait lasterren, ondasunen zaintza ez neutson ba iñori be itxi; eta daitekena da, neure aita, jainkoen kidekoaren billa nabillela ni il edo-ta jau-regitik eroan leikeden bitxi guren bikaiñen bat galtzea.

99 Au entzutean, Menelau'k, burrukan zangarrak, berta-tik agindu eutsen bere emazteari eta neskameai gertatu egiela janaria, jauregian gordeta eukezan jakirik eder ugarietakaz. Orduantxe eldu zan Eteoneu Boetoida be, andik ur-samar bi-zi zana, ogetik jagi barri; eta Menelau'k, burrukan azkarrak agindurik, txit esaneko, sua ixetu ta aragiak erreten jarri zan. Menelau, barriz, egotegi lurrundu batera jatsi zan: ez bakarrik gero, Helena'k eta Megapente'k lagunduta baiño. Gauza-ki bitxiak egozan toki atara elduaz, Atrida'k kirten biko txol bat arturik, urrezko azpil aundi bat eroateko agindu eutson bere seme Megapente'ri; eta Helena, berak bere eskuz egin ebazan besana lore askodunak egozan kutxa aurrean gelditu zan. Eta Helena'k berak, emakumeen artean jainkotia danak, eukeratu ta eroan eban orratz-lanez aundi ta ederrena zan besana, besteen azpian egoala izar bat iduri dizdiz eeianar Eta ostera be jauregian zear ibilli ziran, Telemako'rekin alkar-jo arte; Menelau gorrizkak esan eutson oni:

118 Menelau.—Telemako! Emon beitzu Zeus'ek, Hera' ren senar burrunbariak, zeure biotzak opa dauanez ibillaldia burutzea. Nire jauregian gordeten diran gauzetatik, eder bikaiñena emongo dautzut, Landutako kratera bat dozu berau, bezuza bikaiña, zidarrezkoa urrezko ertzez, Hefesto'k bere eskuz egiña, eta sidonitarren errege zan Fedimo gurenak, ni neureta nentorrelarik bere etxean artu ninduanean, neuri emona. Auxe jarri nai dautzut eskuetan atsegin-emoi edertzat.

126 Onela mintzatuz, Atrida gizurenak kirten biko txola ipiñi eutson eskuetan; Megapente zangarrak kratera ikusgarria ekarri eutson, aren begi aurrean ipiñiaz; eta Helena, matrail ederduna, besana eskuetan ebalu agertu yakon, onan itz egitsola:

131 Helena.—Nik be, seme maite, doe au damoketzut, Helena'ren eskuetatiko gomutagarria nunbait, zure emazteak eroan daian ezkontz-ordu irrikatuan; ordurarte zaindu beitzu zure amak jauregian. Eta biur zaitez bai, poz-esnetan, zeure ondo eregitako etxera, eta zeure asaben lurraldera.

137 Au esanik, eskuetan ipiñi eutson, eta arek alai be alai artu eutson, Pisistrato gizurenak, esku-erakutsiak artuaz, burdiko zimeran egokitu ebazan banan-banan, guztiak poz aundiz miretsi ostean. Menelau gorrizkak gero biak eroan zitun jauregira, aulki ta kataberetan jarri-azoaz. Esku-ura emon eutsen nekame batek, urrezko murkoan ekarria, eta zidarrezko azpillean isuri eban, ondoren mai dizditsua euren aurrean egokituaz. Jakizain agurgarriak ogia ekarri eutsen, baita mairako jateko ugari be, gordeta eukazanakaz adiguri egiñik. Euren alboan, Boetoida'k aragia zatitzen ekion, eta pusketak bananduten; eta Menelau aintzatsuaren semea ardao-lanari emona ebillen. Orok sartu eben eskua aurrean eukiezan jatekoetan. Eta jan-edan gogoa ase ebenekoxe. Telemako'k eta Nestor'en seme argiak zaldi ariñak lotu, burdi dizditsura igon eta atari ta arkupe durundutsu zear erabilli eben. Arein atzetik joan zan Menelau Atrida, eskuman urrezko txol bat, ardao gozoz betea eroiala, abiatu aurretik ixurketak egin egiezan; eta, burdi aurrean geldit, aurkeztu eutsen, esanez:

158 Menelau.—Agur, gazteok!, eta eroan Nestor, gizonen artzaiñari be, nire agurra; onbera izan yatan, ba, aita bat lez, akeutarrok Troia'n gudalari ibilli gintzazan artean!

162 Telemako zurrak bere kasa:

163 Telemako.—Ara eldutean, o Zeus'en ikasle!, diñoskuzuen guztiaren jakitun ipiñiko dogu Nestor. Al neu, Itaka'ra biurkeran, Odis'i bere egoitzean itz-eginik, zure jauregitik noa-la esan, ainbat maitasun-ezaugarri artu ondoren, eta neugaz eroanik atan be berein bitxi oso baliotsuak!

169 Onela mintzatu-ala, euren gaiñetik igaro zan, esku-marantza, arrano bat, etxe-antzar bat, zuria, eskergea, antzar-tokiren baterik ostua, erpa artean erioiala; atzetik joakozan, oiutazarata, gizonak eta emakumak; eta, burdi ondora elduta-koan, eskumarantza okertu eban egazkadea, zaldien aurrez aurre, ain zuzen be. Poztu ziran au ikusiz; atsegin aundia somatu eben guztiak, eta Pisistrato Nestor-semeak onela itz-egin eban:

177 Pisistrato.—Gogo emon, o Menclau, Zeus'en ikasle, giza-printze!, zantzu au erakutsi dauskun jainkoak guretzat ala zeuretzat bakarrik egin dauan ikusgarri.

180 Olan adierazo eban. **Ares'entzat maitagarria**, ausnartzen jarri zan, itaunari egokionez zelan erantzun asma-tzen; baiña Helena, besana luzeduna, aurreratu yakon, itzok esanez:

183 Helena.—Entzun eidazue, aurrez esango dautzuet ba jazotekoa dana, jainkoak biotzera diñostanez eta zelan beteko dan niri iruditzen yatanez. Arrano onek, jaio ta bere kumea daukan menditik etorriaz, etxe-barruan azitako antzarra arrapatu dauan lez, Odis be, erabat, asko jasan eta luzaroan alde-rrai ibilli ondoren, bere etxera itzuliko da ta apena (bengan-tzea) artzea lortuko dau; onezkero bertan ez ba'dago gero, senargei guztien aurka gaitzak matazatzen.

192 Telemako zurrak erantzun:

193 Telemako.—Zeus'i, Hera'ren senar durundutsuari ba'letsa; ta an egunero dei egingo dautzut, jainkosa bati lez!

196 Esan eban, eta zartaz bizkortu zitun zaldiak. Oneik, gartsuak ziran-eta, bertatik ekin eutsen landarantza, uria zear, eta egun osoan etziran gelditu buztarria astintzetik.

200 Eguzkia sartu-agiñean egoan, eta illunpeak bidez ta bazterrez jabetzen asiak ziran, Feras'era, Diokle, Orsiloko'ren semearen bizitokira eldu ziranean: Alfeu'k bai eban au sortu. Antxe lo egin eben gau aretan, Diokle'k arrotz-maitasuna erakutsi eutsen-eta.

204 Baiña, goizaren alaba, larrosazko atzdun Egu-antza agertu zaneke, zaldiak lotu, burdi dizditsura igon eta atari ta arkupe durundutsuan zear erabilli eben, Pisistrato'k biztu-azo ebazan zigorrez bere zaldiak, abiatu eitezan, eta oneik egaz egin eben poz eztitan. Lasterko eldu ziran Pilos un i ospatsura, eta Telernako'k orduan onan itz-egin eutson Nestor'en semeari:

211 Telemako.—Nestor-seme! Zelan burutuko zeunke, agíndu zeustanez, esango dautzudana? Pozetan gara, gure gurasoak alkarri eutsoen maitasunarren, bata-bestearentzat betikoz eta ordaiñetan arrotz izateko; adin bardiñekoak gara, ta osteria onck oindiño geiago sendotuko dau noski gure alkarganako txera ta batasuna. Ez naizu, ba, croan zuk, Zeus'en ikasle orrek, nire izontzia dagoan baiño aruntzago; itxi nagizu ementxe, toki onetan, niri, bada, alik aniñen ara eltzea egoki yat.

221 Orrela mintzatu zan. Nestor-semea ausnarrean jarri zan, zelan beteko ete eban, egokien zanez, aginduta eukona. Eta ondo ausnartu ostean, onena auxe izango zala begitandu yakon: zaldiak itzuli zitun, ontzi ariña egoan itxas-egalera zuzendurik; artu zitun burditik doe bikaiñak —jantziak eta urrea—, Menelau'k emondakoak, eta ontziaren atzeko aldean itxi ebazan; eta, Telemako aolkatu nairik, itz ariñok esan eutsazan:

229 Pisistrato.—Zoaz arin eta ontziratu zaite, ta agindu eizu zeure lagun guztiak be ontziratu daitezala, fino etxera eldu ta zarrari ori adierazo baiño len. Nire adimenak ba-daki ta biotzak aurretiaz asmatzen, bere gogo gartsuz zu joaterik ez dau lagako, bera etorri baiño zuri dei egitera; eta neuk diñotzut ez dala utsik biurtuko, orrela izatekotan aundi-aundia hai litzateke aren sumia.

236 Onela esanaz, piliotarren urirantza biurtu ebazan zaldi zurda ederdunak, eta laster egoan bere etxean, Bitartean, Telemako'k bere lagunai aginduak emoten ziarduan, itzok esanez:

240 Telemako.—Jarri, lagunok, euren lekuetan ontzi balzteko tresnak, eta ontziratu gaitezan geure ibillaldia asteko.

243 Onan mintzatu yaken; eta areik entzun eta agindua beteteko zoli agertu ziran; beingoan ontzian sarturik, tostetan lekua artu eben.

246 Onako arazoetan arduratua ebillen Telemako, ziñak egiten zitun, baita opariak eskiñi be Atene'ren omenez ontzia-

ren txopa ondoan; eta ontan, kanpotar bat agertu yakon aurrean Argos'tik igesi etorrena, an bait eban gizon bat erail, eta az-trua zan, Helanpo'ren lefflukoa. Azkeneko au lenago ardi-azle ederra dan Pilos'en bizi izan zan, eta an oso aberatsa izan zan bertako bizilagunen artean, egoitz bikain-bikain baten jabe zalarik; baiña gero beste lurralde batera aldatu zan, bere aberritik eta bizidunetan argiena zan Neleu biotz-zabalagandik igeska; onek indarrez euki eutsozan gauza asko ta aberatsak urte bete osoan. Urte guzti orretan Melanpo kare gogorrez lotuta egon zan Filako'ren jauregian, oiñaze aunditan nunbait, Neleu'ren alabea jaristeko, jainkosa batek, Erinis iguingarriak egin-azo eutson oben astunagitik. Eriotzatik azkenez onik urten zan, Filake'ren bei orroalariak Pilos'era eroan zitun, egintza gaizto agaitik Neleu jainko-antzekoa zigor-azi ta, anairentzat emaztea bere etxera eroan ondoren, beste erri batera, zaldi ederrak azten dituan Argos'era joan zan, eta, aduak ebatzita eukon lez, emen-txe bizi izan zan argibotar askoren nausi izanik, An artu eban emaztea, etxalde bikaiña antolatu ta seme saiatu bi, Antifate ta Manti, sortu zituan. Antifate'k Oikleu biotz-zabala sortu eban, eta onek Anfiarao, gudariak sustatu oi ebazana; au, bai babesicia daroan Zeus'ek eta bai Apolo'k biotz guztiz maite izan eben; zartzarora, baiña, etzan eldu, Tebas'en ii bait zan bere emazteak artu ebazan esku-erakutsiakaitik. Aren semeak Alkmeon eta Anfiloko izan ziran. Manti'k, bere aldetik, Polifides eta Klito sortu zitun: Egu-antzak, urrezko aulkidunak, au, ederra zalako, beragaz eroan eban, illezkorrakin bizi izan zedin; eta Polifides biotz-bera Apolo'k, Anfiarao ii zanean, gizarteko aztruetatik ospetsuena egin eban. Baiña, Polifides bere aitaren aurka sumindu zalako, Hepiresia'ra alde-egiñiic, an egoala, goitiko erantzunak emon oi eutsezan gizaki ilkor guztiai,

280 Onen seme bat zan, Teoklimeno eritxona, Telemako'ren aurrean garai artan aurkeztu zana. Otoizka ta ixurketak eskintzen aurkitu eban ontzi baltzaren ondoan; eta, mintzaturik, itz ariñok ebagi eutsozan:

284 Teoklimeno.—O adiskide! Opariak egiten toki ontan aurkitzen zaitudan ezker, esaidazu, arren, opariokarren, jainkoarren eta zeure ta jarrai doakizuzan lagunon buruakaitik, itandu neutzun guztiaren egia, ezertxo be ixildu barik; Nor zaitut eta nundik zatoz ona? Nun datzaz zure uria ta zure gurasoak?

290 Telemako zurrak erantzun:

291 Telemako.—Guzti onen barri emongo dautzut, oi arrotz!, zeatz eta meatz. Sendiz Itaka'koa nozu, ta Odis izan zan nire aita, oro ames izan ez baldin ba'yat; baiña ak onez-kero egiña dau egitekoa, ta errukarriro egiña izan be. Auxegaitik etorri nintzan neure lagunakaz eta ontzi baltzean, neure aitarekiko albistcren bat lortzen ba'neban, aren urrunmiñak dagoneko larri gaukaz eta.

298 Teoklimeno, jainko baten antzekoak, esan eutson orduan:

299 Teoklimeno.—Neuk be, neure leiñuko gizaki azkar bati eriotza emon neutsolako, laga neban neure aberria; illaren anaiak eta lagunak asko dira zaldi ederrez ugaria dan Argos'en, eta aginpide aundia dabe akeutarren artean; eta orain areikandik igeska nabil, erioa ta Balbe baltza alde bat itxi nairik, nire adurra gizonen artean arat-onat ibiltea da-ta. Ar nagizu, alan be, zeure ontzian, igeska etorri niaitzu-ta mesede billa: fi ez nagien be, atzetik dabilkidazala-ta nagoan ezkerro.

307 Telemako zurrak erantzun:

308 Telemako.—Ontziratzea nai dozu-ta, etzaitut uxatuko neure ontzi ondo einkatutik. Zatoz jarraika, eta txeratsu artuko zaitugu an, al clogunik ondoen.

312 Au esanik, borontzezko lantzea, ontzi makurreko ol-tzan luze itxia artu eutson; ontzi kresal zearkalarira igon, txopan jarri ta bere ondoan leku egin eutsan Teoklimeno'ri. Beingoan askatu ebezan lokarriak. Telernalto'k, lagunak aolkatuz, bertan soka jarteko agindu eutsen, eta danak arduratsu bete eben ak esana. Izaizko masta jaso eben, zearkako latagan sartu, sokakaz lotu ta jarraian edatua geratu zan oial zuda ede ondo biurriakaz. Atene, ontz-begidunak, bafada oldartsuz putz egian aize-giro ederra bialdu eutsen, ontziak alik eta lasterren egiñik, bizkor zearkatu egian itxas-ur gazitua. Orrelaxe igaro ziran Krunos eta Kalkis, uiol aundikoaren aurretik,

325 Eguzkia sartu zan, eta illunpeak artu ebezan bide guz-tiak. Ontzia, Zeus'en aize onak eraginda, Feas'era urreratu ta epeutarrak nausi diran jainkozko Elide'tik igaro ziran. Andik, oster, Telemako'k Zorrotzak ugarteetaruntz jarri eban branka, eriotzatik askatuko ete zan edo-ta atxillo jausiko ete zan bil-dur aundiaz.

331 Odis'ek eta txarrizain jainkotiak, bitartean, apari-legea egiten eben bordan, eta eurakaz batean beste gizonak. Eta jan-edatioz gose-zirria ondu ebenean, Odis —txarrizaiñak oindiño be bertan, okulluan geratzeko aginduaz, txera ta arduraz artzen ebala, edo-ta urira joan zeitela, naiago ebala, jakin nairik— onela mintzatu yaken,

338 Odis.—Entzun eidazue, Eumco ta enparau lagunok! Eguncluaz bat, urira joan nai dot eskean, eta ez naiatzue astun izan gura, ez zuri eta ez zure adiskideai be. Zakidaz onulari tre-be ta eroango nauan bide-erakusle eme bat, emon eidazu; errian zear ibilliko naiatzu alderrai, bearrak joa, bateren batek ba'da-mostaz ardao-txol bat eta ogi-kuzkur bat. Odis jainkotiaren jauregira joanik, barriak eroan al izango deutsedaz Penelope zur-rari ta senargei buru-arroakaz topoz-egin, jaten emongo ba' leuste be, konta-ezin alako jan-edari meta curen mende dau-kie-ta. Nik aginduko leuskiden guztia egingo neuskioe. Gauza bat esan bear dautzut, eta zuk entzun eidazu, adi-adi: Hermes mezulariari esker, gizasemeen lanai ospe ta izena beronek bait damotse, iñundiko beste ilkorrik ez litzake nigaz morroiketan leiaturko, naiz sua egitcko egurra eraz pillatzean, naiz ebateko zimel dagoanean, aragia zeetu naiz erreteko, edo-ta ardaoa edon-tzietan ixuritzeko, onetxek bait dira menpekoak goikoai egin oi dautsezan zerbitzuak.

356 Eta zuk, larriak joa, onela itz-egin zeuntson, Eumeo txarrizain orrek:

358 Eurneo.—Ai, arrotz! Zelan ostatu emon zeutsan go-goan olako oldozkunari? An galdu nai dozu bear bada zeure burua, senargeien aldra artetik igaro naiko dozunean, arein ur-tenkeria ta buru-eritxia burdiñezko zeruraiño eltzen dira-ta, Arein morroiak ez dira zu lakoak, beti dabez ba zerbitzari gazte jake ta soingaiñekoz aberats jantzitakoak, arpegiera eder ta adats dizditsua dabenak; eta maiak ogiz, eragiz ta ardaoz sor-taturik dagoz. Egon zaite geugaz, zu emen egonaz ez da iñor pirrituko ta: ez ni, ez nire lagunetatik iñortxu be. Eta Odis'en seme lastana datorkenean, alkondarea ta soingaiñekoa emongo dautzudaz jantzi zaitezcan, eta berak eroango zaitu zure biotzak eta barruak nai dauan lekura..

370 Odis eroapentsu jainkotiak erantzun:

371 Odis.—Ai ba'ziña, Eumeo, zuretzat baizen kutun Zeus aitarentzat be; zuk jarten dautsazu, ba, azkena nire ibillal-

di neketsu ta errukarriari! Gizasemeentzat ez dago arat-onat ibiltea baiño txarragorik: sabel itsarren berein neke-min igaro oi dabez gizaseme ilkorrak, alderrai ibilteak, ezbearrak eta neke-miñak astuntzen dauazanean batez be. Baiña orain, emen cuki nai nozun ezkeru, aren itzulia itxaron dagidala agindurik, ea, Odis'jainkoatiaren ama ta andik alde-egitean zartzaroaren atarian itxi neban bere aita bizi diran oraindik eta eguzkiaren erraiñuz atsegin oi diran, cdo-a ii diran eta Hade'ren egoitzera joanak ditudan,

382 Txarrazaiñak, artzaiñen nausiak, orduan esan eutsan:

384 Eumeo.—Guzti orretzaz, o arrotz!, jakitun jarri nai zaitut, gauzea dan lez, zeatz eta meatz esanik. Laerte bizi da oindiño ta bere egoitzean otoizka diardu Zeus'i eten barik, ari-mea soin-ataletatik askatu clakion; bere semearen urrintzearren eta bere emazte legezko ta zurraren eriotzeagaitik naigabe izugarriz bizi da, onek bada, emaztearen eriotzeak batez be, tristuna baltzetan ipiñi eban, zartzaroa be aurreraturik, Ak erio negargarria izan eban, bere seme aintzatsuak emon oi eutsan sarnintasunarren; ez bei iñortxo be era aretan eskualde onetan bizirik, nire laguna danik edo-ta atakotzat naukanik. Bizi zalarik, naiz-ta larriak azpiratua, nik gauza asko itandu oi neotsazan, baita sarri onua eskatu be, berak azi nindun ba azkeanean ekarri eban bere alaba argi, besana luzedun Ktimene'rekin batera: alkarregaz azi gintzazan, eta ni ez nintzan izan bere alaba baiño gitxiagotan eukia. Ezkont-adíñera biok eldu gañanean, Same'kin ezkondu eben Ktimene, ortaz amaikatxo doe eder arturik; niri, barniz, ark emon eustazan esku bat eta alkon-dara bat, jantzi oso ederrak, baita oiñetakoak be emon eustazan, landara biaidu nindun, eta geroztik geiago maite izan nindun bere biotzean. Orain aren babesak uts-emoten daust, jainkotasun zoriontsuak bide onez daroe daukadan arloa, berrotik jan eta edaten bait dot, eta gaur eskeko agurgarriai eskupekoa emoteko lain be ba-nozu. Dagokidan unean, alan be, eziña yat neure ugazabanderen itz gozoak entzutea, ezta no'gandik esku-erakutsi ta bezuzak artzea be ez yat errez, gizaki buru-arro orreikaz sartu zan ba zoritxarra be jauregian; eta, alan be, otseiñak curen ugazabandregaz itz-egiteko eretia dabe, gai ta auzi bakotxari buruz ari itaunak eratu, jan eta edan, eta zerbitzarién barrua poztazi oi daben esku-erakutsi areitatik banaka batzuk, landara eroateko eretia be bai.

413 Odis asmotsuak jardetsi:

414 Odis.—O jainkuok! Zelan, Eumeo txarrizain!, aur oraindik, ainbat arat-onat erabilli zendun, zeure sorterririk eta aita-amengandik urrin! Baiña, ea, esaidazu, egiazki esan be, zure gurasoak bizi ziran txaide zabaldun uria suntsitua izan zanentz; edo-ta, zu bakarrik geraturik zeure ardi ta idien ondoan, gizaki etsaiak eskua ezarri ta ona ekarri ete zinduen, salneurri bikaiña emon eutsen gizaki onen etxean saltzeko, bear bada.

423 Txarrizainak, orduan, artzaiñen nausiak:

426 Eumeo.—Arrotz! Onetzaz itauna dagistazun ezkerok, entzun naizu eta poz zaite, jarririk eta ardaoa edanez. Azken bakoak dituzu gauak, lo egiteko ta baita edeskiak entzunaz poza artzeko be astia izan daroagu, eta zuri ez dago-kizu ordua baiña len ogera joatea, larregi lo egitea kaltegarri yatzu-ta. Enparauotatik, ostera, biotzak eta barruak orrela diñotsenak, urten eta bioaz lotara; eta biar, egunduaz batera, gosaria artu ta bioa baktxa bere jaunaren txarriakin. Gu, bordan, jan-edanez alai gaitezana geure ezbear baltzen gomutea barriztatuz; atsegiña aurkitu oi dau, ba, asko be asko jasan ez alderrai luzaroan ibilli izan danak, igarotako lan-nekeen oroitzapena egiñik. Erantzungo dautzut, beraz, itandu ta galdetuten daustazunari buruz.

439 «Siria deritxon (entzuna dozu ausaz) ugartedi bat dago, Ortigia'tik laster, eguzkiak bere itzulia egin daroan lekuan: ez jenrez betea, baiña bai emokorra 1: a idiz ta ardiz, ardaoz ta garitzaz ondo aberatsa. Errialde atan ez da iñoiz gose-rik ezagutzen, ezta bizi diranai gizaki ilkorrak jasan oi dabezan lako gaixo ta min gogaikarririk etorri be: urian belaunaldi bateko gizasemeak zartzen diranean, zidarrezko uztaiia daroan Apolo ta Artemis aurkeztu oi dira bertan, gezi leunez erailazten dabez. Eskualde osoa banandu daben uri bi dagoz ugar-tean, eta bietan nire aita, Ktesi Ormenida, illezkorren kideko, izan zan errege.

450 «Ara eldu ziran beiñola feniziarrek, gizaki trebeak itxasoan, baiña maltzurak, curen ontzi baltzean konta-ezin ala bitxi ta edergaillu ekarrezala. Nire aitaren etxean ordun feniziar emakume bat bizi zan, eder, garai ta esku-lan bikaiñetan ernea; eta feniziar iruzurtiak limurtu euskuan. Erropa-garbi-

tzen aurkitu eban bat, beragaz alkartu zan, ontzi makurraren ondoan, maitasunez eta aragiz: onek barriz errazoia nastu dagitse emakume makalai, langilleak izanda be. Gero nor zan eta nundik etorri zan itandu eutson; eta emakumeak, nire aitaren etxe garaia beingoan izentaturik, onela erantzun:

461 «**Emakumeak.**—Pozik nozu Sidon'en, borontzez ugari danean, jaio nintzalako, eta Aribante aundikiaren alaba naz. Bein landatik nentorrela tafiar itxas-lapur batzuk ostu ninduen, eta, ona ekarriaz, egoitz ontako ugazabari salduazo ninduen salneurri polit baten truke.

466 «Onegaz ixilka batu zan gizonak esan eutson bere-tik.

468 «**Feniziarra.**—Biur nai zeunke gugaz zeure aberrira, zeure gurasoen etxe garbala ta eurak be ikusteko? Oraindik bizi dira, ba, aberats entzute aundiarekin.

471 «Emakumeak itzokaz erantzun eutsen:

472 «**Emakumea.**—Orrela eginga neuke zuok, itxastarrok, gogoz ta ziñez ni neure sorterrira onik eta osasuntsu eroateko. beartuko ba'ziñie.

475 «Olan mintzatu zan; eta danak, agintzen eutsenez, zin-egin eben. Eta au egin ebenekoxe, emakumeak barriro be itz-egin eta esan eutsen:

478 «**Emakumea.**—Ixillik orain, eta zuotariko iñork be ez beist itzik egin ni kalean naiz iturrian aurkitzean: bateren batek joan eta zarrari, an bere egoitzean, esan ez dagion; eta onek, aier eta gogoanbeartsu jarririk, ni kate gogorrez lotu-azo ta zuok zelan galdu asmatu ez dagian. Sar ondo ebatzi-takoa zeuon buruetan eta eros alik ariñen osterarako bear doguzan ornidurak. Eta ontzia jan-edariz bete dozuene-koxe, be-tor norbait jauregira niri iragarri dagistan; eta neure esku-men-de daukakedan urrez guztia dakarketzuet. Onezaz gaiñera, bes-te ordain-sari bat be emon nai neuskizue bide-zerga lez: etxean jaun aundiki onen seme bat zaintzen dot, oso argia da ta jau-regitik kanpo be neugaz ibilli oi da; zeuon ontzira ekarriko dautzuet, eta edozein atzerritan saldu diru-kopuru aundia egin-go dautzue.

492 «Onela mintzatu ostean, jauregi bikaiñeratu zan. Feniziar-rak urte bete osoan geratu ziran gugaz, ontzi makurre-rako jan-edari asko ta asko erosiaz; eta, ondo zamatua ta abia-

zori aurkitu zanean, berezi bat bialdu eban emakumeari esateko. Nire aitaren etxean aurkeztu zan gizaseme zur-sotil bat, urrezko lepo-uztai anbarrez birxiztatua ekarrena; eta, neska-meak eta nire ama agurgarriak eskuetan artu, curen begi biakaz ondo ikuskatu ta zegan erosiko leuskioen be esaten eutsoen bitartean, maltzur arek, emakumeari kiñu ixilkorra egiñik, eta, nire aitaren etxea sarritzen eben eta orduan erri-batzarrean jartera joandako bazkarldarren txolak eta maiak atartean aurkiturik, iru txol be croan zitun kolkoan gorderik; eta ni aren atzetik niñioian soilki ta erabat. Sartzen egoan eguzkia ta illunpeak bidez jabetzen, gu, oinkada bizkorrez, fenizitarren ontzi azkarra aurkitzen zan kai ospetsura eldu giñanean. Igo-teko agindu euskuen, ta, danak ontziratutakoan, itxas-bideari ekin geutson ur-zelaian zear, Zeus'ek bialdutako aize-arnasa onak lagunduta. Geratu barik ibilli giñan sei egun eta sei gabaz; baiña, Zeus Kronion'ek zazpigarren eguna ekarri euskunean, geziak tiraka alaitu oi dan Artemis'ek, emakumea zauritu eban, eta au zaratatsu jausi zan ontziondarrean, kalasantza bailitzan. Itxasora bota eben, itxas-otso ta arraiñen janari izan zedin; eta ni an geratu nintzan biotz-larritan. Aizeak eta uiñak Itaka'ra ekarri ebezan, eta emen Laerte'k erosi nindun ni bere ondasunez. Olantxe ikusi eben nire begiak lurralde au.

521 Odis, Zeus'en leiñukoak, itzokaz erantzun eutson:

523 Odis.—Eumeo! Barru-barrutik samur-azo daustazu biotza, ikusi zenduzan gatzak orren zeazki edestuaz. Baiña Zeus'ek txarraren ondoan ona jarri dautzu, gorriak ikusita gero be, jaten eta edaten arduraz emoten dautzun gizaseme onbera baten egoitzera eldu zarealako, eta bizitza ona daroazulako; nik, barriz, onaiño eldu al izan dot bakar-bakarrik, uri askotan zear ibilli ondorean.

531 Olan zan arein alkarizketa. Lotaratu ziran gero, baiña une laburrerako; beingoan agertu zan, ba, aurki ederdun Egu-antza.

534 Telemako'ren lagunak, ontzia lur-ondora zanean, oialak batu, masta bertatik eratxi ta ontzia, arraun-oldez, ditxora eroan eben. Aingurak bota ta lokiak estutu ebezan; ondoren, ondartzaratu, ta bazkaria atondu eben, ardao baltza nas-taurik. Eta jan-edanez ondo ase ziranean, Telemako zurra asi yaken:

541 Telemako.—Eroan orain ontzi baltza urira; ni bada landara ta artzaiñakana noake: eta arrats-beran, neure lurrak ikuskatutakoan, urira jatsiko naitzue. Eta biar emongo dautzuet, oster a onen saritzat, okela ta ardao gozozko jan-edate eder bat.

546 Orduan esan eutson Teoklimeno'k, jainko baten antzekoak:

549 Teo klirreno.—Eta ni, seme maite, nora noake? Itaka latzean agintzen daben aundikietatik, zein en etxera? Zure amaren etxera, zure egotegira, zuzendu bearko naz bear bada?

551 Telemako zurrak erantzun:

552 Telet-jako.—Beste egoera baten neure etxera bialduko zindukedaz, an ez bait da ezer palta arrotzari ostatua emoteko; baiña gaur-egunez zuretzat ez da egokiena, ni ez nozu an eukiko, ta nire amak be, etzaitu ikusi al izango; jauregian ez da ba sarri agertzen senargaien aurrean, goiko egoitz baten bizi da-ta, guztiz baztertua, miesa bat eundu ta eundu. Baiña, alan be, ona gizaseme bat, eta aretxen etxera joan zeintek ez: Eurimako, Palibo zurraren seme argia, itakarrak goitartzat daukiena, aux e dozu, ba, askotaz, guztietan onena ta nire amagaz ezkondu gura dau, Odis'ek euki eban errege gurentasuna be euki dagian. Baiña eguratsetan bizi dan Zeus Olinpoarrak, daki, ta ondo jakin be, senargaientzat eztegu-aurretik egun zori-galduko bat etorriko ete dan.

565 Itzok amaituaz batera, miru batek, Apolo'ren mezulari azkarrak, egaz egin eban goi-aldean, eskumarantza; onek, erpa artean eukan uso bat kapusten eban, lumak ontzi ta Telemako'ren bitartean lurrean jausten itxirik. Teokilmeno'k orduan oni dei-egin, lagunekandik banazea, eskutik oratu ta esan eutson:

571 Teokilmeno.—Telemako! Egaztiak zure eskumara egaz egin dau, eta jainko batek agindu bage; bekoz beko soegiñik, bada, aztia dala oartu naitzu. Zurea baiño erregeago dan leiñurik Itaka'ko urian ez dago, eta zeuk aginduko dozu an betikoz.

576 Telemako zurrak jardetsi:

577 Telemako.—Beteko balitz, arrotz!, diñostazuna; orduan bai, laster ezagutuko zeunke nik dautzudan maitasuna,

zugaz aurkituko litzakenak bere burua zoriontsutzat leukaken
aiña bezuza ta esku-erakutsi cgingo neuskizuz eta.

581 Au esan eban; eta onda mintzatu yakon ondoren
bere adiskide zintzo Pireo'ri:

582 Telemako.—Pireo Klitida! Pilos'era jarraitu eusten
lagunetatik, beste gauzetan, esanekoena izan zaiatazan orrek,
eroaizu orain nire arrotza zeure etxera, ar egizu txeratsu ta
maitekor, eta euki egizu zeurean deduz ni etorri arte,

586 Lantzaz aundi zan Pireo'k jardetsi:

587 Pireo.—Telemako! Emen, askotxo luzatuko ba'ziña
be, neuk izango dot bere ardurea ta arrotz-maitasunak eska-
tzen dauanetik ezek ez dautso utsik emongo.

590 Orrela itz-egindalcoan, ontzira igonik, ontziratute
zala agindu eutsen lagunai, eta askatzeko lokiak. Oneik bein-
goan ontziratute ziran, sailka euren tostetan jezarririk.

594 Telemako'k bere abarka dizditsuak jantzi ebazan,
eta ontziaren oltza gaiñetik lantza sendo borontzezko erpin-
duna artu, mariñelak lokiak askatzen ebiltzan bitartean. Ondo-
ren, zapiak zabal, urirantza itxas-egin eban, Telemako'k, Odis
jainkotiaren seme maiteak agindu ebanez, Eta bera, oin-azkar,
konta-ezin ala txarri eukazán bordarantza joan zan; onein on-
doan emon oi eban gaba txarrizaiñak, bere jaunak ain maite
ebazanak,

XVI KANTUA

Telemako'k Odis ezagutzen dau

Eguantzaren argia urratu zaneko, Odis'ek eta txarrizain jainkotiak txabolan sua egin eta gosaria atonclu eben, taldeetan zatituriko txarriakaz joan ziran zaintzaileai agur esan ondoren. Telemako bordara eldu zanean, txakur zaunkalariak losingaka asi yakozan, euretatik batek be zaunkarik egiteka. Odis oartu zan txakurrak buztanari eragitsela, oin-otsak somatu zitun, eta bertatik esan eutsozan Eumeo'ri itz ariñok:

9 Odis.—Eumeo! Ezbai barik zure lagunen bat edo-ta ezagunen bat yatortzu, txakurrak bada, zaunka egin bearrean, buztanari zirkin dagitse, ta oin-otsak dantzuclaz.

12 Itzok oguzi-ala, bere seme kutuna ate-aurrean gelditu zan, Zurturik jagi zan txarrizaiña, ardao baltza nastuten ari zan katilluak jausi yakozan eskuetatik, eta bere jaunari bidera urtenaz, buruan, begi ederretan eta esku bietan mun-egin eutson, begiak maiko ugaritan ezko ebazala. Aita maitekorrak, adibidez, amar urtez urrietatik ibilli ondoren, etxera biurtu ta zartzaroan sortu eban seme bakarra leiatsu besarkatu oi dauan lez, txarrizain jainkotiak be orrelaxe estutzen eban Telemako jainko-antzekoa, eta mosukatzen gaztea eriotzatik askatua izan bailitzan. Eta, zotinka, itzok esaten eutsozan:

24 Eumeo.—Itzuli zara, Telemako, ene argi gozo! Uste neban ez zindudazala geiago ikusiko, ontzian Pilos' era joan ziñanetik. Baiña, tira, erdu barrura, seme laztan, zu ikusiaz poztu naiten, beste lurraldeetatik eldu-barri neure bordan zagozan ezkerro. Sarri etzara etorri oi ba landak eta artzaiak ikusten, geienik urian gelditzen zara-ta: atsegin bai yatzu senargei gaiztoen saldoan begiak jartea!

32 Telemako zurrak jardetsi:

33 Telemako.—Gogo dozunez egingo da, aitita, zeugaitik etorri naz-eta; zeu neure begiakaz ikustearren, eta nire ama

oindiño jauregian dagoan, edo-ta aundiki areitatik bateren bat ezkondu dan beragaz, eta Odis'en ogca, bertan nor etzun ez clagoalako, amaraunak artuta cte daukien; au danau jakin gurarik etorri naiatzu.

38 Orduan txarrizaiñak, zaintzailleen buru zanak:

40 Eumeo.—Zure amak jauregian jarraitzen dau, guztiz naigabetua, eta gau-egunak itun be itun igaro oi ditu, etenbako negarretan.

43 Onela mintzatu ondoren, borontzezko lantzea artu eutson; eta Telcmako arrizko atari zcar sartu zan. Bere aita Odis'ek jarlekua itxinai izan eutson eldu zanari, baiña itzokaz galazo eutson Telemakol:

47 Telemako.—Jar zaite, arrotz; aurkituko dogu jarlekurik gure txabolaldeko beste toki batean; ez dago urrin be berau gertau bear dauan gizakia.

50 Onan esan eutson; eta gizurena jarri egin zan osterah, Telernako'rentzat, txarrizaiñak adar berdeak zabaldu eban ur-gaiñean, gero narru bategaz estaldurik curak; ementxe egokitu zan Odis'en seme kutuna. Txarrizaiñak ondoren bezperako bazkaritan gelditu ziran aragi erre azpillak ekarri eutsezan aurrera; otzaratxoetan ogia arduraz pillotu, arrizko txol baten ezta baizen ardao gozoa ixuri, ta Odis jainkotiari aurrez-aurre jazarri yakon. Ziran guztiak eskua jarri eben aurrean eukezan janarietan, Eta jan-edatez ase ziranean, Telemako'k onda itz-egin eutson txarrizain jainkotiari:

61 Telemako.—Aitita! Nundik etorri vatzu arrotz ori? Zelan ekarri eben itxas-gizonak Itaka'ra? Nortzuk dira? Igeri ez dot uste ba etorriko zanik.

65 Eta zuk, Eumco txarrizain, onela erantzun zeuntson:

66 Eumeo.—O seme! Guzti ortaz egia esatera noakizu. Jatorriz Kreta nasaikoa ei da, eta arat-onat ibilli dala diño korren uri ta erri asko ikusiz, goitar batek orrela erabagi ebalako. Oraintxe eldu da nire ordokira, testropotar batzuen

igeska, ta zeure ardurapean jarten dot: egin nai dozuna beronegaz, zure eskale izatea ornen aunditzat dauka-ta.

73 Telemako zurrak erantzun:

74 Telemako.—Eumeo! Egitan, tamalgarri yat diñozuna entzutea, Zelan artuko ete dot neure etxean arrotz au? Ni gaztea naz, eta ez dot uste onik neure eskuetan, berau iraintzera

letorkionari arpegi emoteko, eta nire amak gogo ezbaikoa dakar bere barruan neure alboan geratu ta, ezkontz-ogeari dautson begirunarren eta oztearen zer-esanagaitik, bere etxea zaindu ta jagon, ala jauregian leiatzen dauan akeutar onenagaz eta csku-erakutsi geien dagitsozanagaz ezkondu: onek darabilkigu zalantzaz, flama, arrotz ori zeure egoitzera eldu dan ezkerro, soin-gaiñeko bar eta alkondara bat emongo clautsodaz, jantzi oso ederrak, baita ao biko ezpata bat eta oiñetarako pare bat abarka be, ta bere biotzak eta gogoak daroan lekurantza bialduko dot. Eta naiago ba'dozu, jagon egizu berau, ordokian eukirik; neuk bialduko dautzudaz, ba, mota guztitako jantziak eta jatekoak jan dagian eta zuri ta zure lagunai astun, kaltegarri izan ez dakitzuen. Ez dautsa itxiko, alan be, ara joaten, ain lotsabako ta gaiztoak diran senargeiakaz batzen, zirika samindu ez dagien eta ni bidenabar atsekabe aunditan jarri; gizon bakar batek, bada, sendoa izanik be, ez dau ezer jaristen ainbesteren aurka naspildurik, azken baten be naikoa altsua goak dira-ta.

94 Jainkozko Odis eroapentsuak orduan esan eutson:

95 Odis.—O adiskide! Zuri erantzutea zuzenak eskatzen daustan ezkerro, biotza urratzen yat senargeiak jauregian, diñozuenez, zeure gogoaren aurka ta zareana zu izanik, asmetan dabiltnan biurrikeriak dirala-ta, zuek daukazuezan kezka. 1. ardurai buruz mintzatzen zuri entzunik. Esaidazu gogoz menderatzen zarean, ala bear bada erriak, jainkoren batek iragarriagaitik, begitan zaukazan, ala zeure anaiakaitik apika kexaz zagozan; onein laguntzaz, ba, edozein gizonek burruka dagi uste-tsu, jagi-azotako liskarra aundia izan arren. Ai, ni ba'nintz, daukadan adorez, zu baizen gazte ta Odis gurenaren seme izan edo-ta au berau bere izatean, ortik alderrai ibilli ondoren bere sorterrira datorrena (oraindik ba-da ba orrela jazoko danaren itxarokizuna): burua moztu daidala orduan, etsai batek, izurri eskerga ezpa-nintz guzti areintzat, Laerte'ren seme Odis'en jauregira zuzendurik. Eta, neu bakarrik nazalako, euren moltoz aurrean jausi bear ba'neu be, gurago neuke neure jauregian eriotzea artu egintza mazkarrok eten bage ikusi baiño: txarto arturiko arrotzak, neskame indarrez artuak egoitz ederrretan, akiturik ardaoa; eta senargeiak jan eta jan bape lotsa barik, eta iñoiz beteko ez dan asmo bategaitik dana.

117 Telemako zurrak erantzun:

118 Telemako.—O arrotz! Gauzea dan lez, zeatz-meatz adierazo bear dautzut. Ez, ez nintzan gogaikarri egin, erriko oztea nire aurka aizatu zedin; ezta ez daukat ezer neure anaien aurka, onein laguntzaz ba edozein gizonek ustetsu burruka dagi, jagi-azotako liskarra aundia izanagaitik, Kronion'ek orrela nai izanaz nire jatorrikoak beti anai bakarrik izan dira-ta. Arzesi'k Laerte sortu eban, bere seme bakarra; onek ez eban sortu neure aita Odis besterik; eta Odis'ek, neu bakar-bakarrik sortu ondoren, jauregian itxi ninduan eta nire laguntza ta arnasaz ez eban atsegin askorik izan. Origaitik daukazuz gure egoitzean konta-ezin ala arerio. Ugarteetan, Duliki'n Zazinto oiantzuan agintzen daben aundikiak, eta Itaka latzean errege diranak, guztiak dabiltz nire amaren irrikaz, gure etxea ondatuta itxirik. Nire amak ez ditu ukatu oi ezkontza gogaikarriok, ezta ez daki gauza orrei amaia zelan emon; eta areik jan eta edan, nire etxaldea aiturik; ni be laster naroie zulora. Baiña jainkoen eskuetan dago auzia. Eta orain zu, aitita, zoaz ariñeketan eta esaiozu Penelope zurrari, ondo nagoala ta Pilos'era eldu nazala. Ni emen geratuko naz eta zu, agindua bete ondoren, biur zaitez ona luzatu barik; berari bakarrik adieraza gero ta akeutar enparauak ez dagiela ezeren susmorik izan; askotxo bait dira nire aurka gauza txarrak asmatzen diarduenak.

141 Eta zuk, Eumeo txarrizain orrek, onela erantzun zeuntson:

142 Eumeo.—Ulertxen dot, konturatzen naz, aitzen zaitunari agintzen dautsozu. Baiña, ea, mintza zaite ta esaidazu laiñoki bide batez joango ete nazan Laerte doakabcari be orren albistea emoten; onek, Odis urruti zalako atsekabe aundia izanik be, aren sololandak jagon eta aren etxe barruan jan eta edan oi eban otseñakaz, bere barruak eskatzen eutsonean; baiña orain, difioenez, ontzian Pilos'era joan ziñan ezkeror, ez dau ez jan ez enlaten, oi bezela, ezta solo-landarik zaindu be; bestera, negarrez eta zinkulinka emon daroaz egunak eta gabak, eta aragi-azala igartuz doakio azurren biran.

152 Telemako zurrak jardetsi:

153 Telemako.—Tristea da, baiña itxi daigun, samingari yakun arren; ilkorren ebgtzira dana egingo ba'litzateke, ezer baiño len neure aitaren biurtzearen egunak dizdiz egiala autetsiko geunke. Bita zaitez zu barria eroan baizen arin, eta

etzaitez ibilli ara ta ona solo-landetan aren billa; baiña esaiozu nire amari bial dagiala ixilka ta bizkor jaki-zain neskamea; eta onek eroango dautso zarrari orren albistea.

160 Esan eban, ta leiaz bialdu eban txarrizaiña; au, abarakak artu ta jantzitakoan, urira joan zan. Atene laster oartu zan, Eumeo txarrizaiña ba-joiala ordokitik; eta ona urreratu zan, emakume eder, garai ta esku-lan bíkaiñetan aitua zan baten antza arturik. Borda aurrean geratu ta Odis'i agertazi yakon, Telemako'k ezertxo be oartu bage, jainkoak ez bai darentzat ikusgarri egiten; baiña Odis'ek ikusi eban, baila txakurrak be: oneik ez eben zaunkarik egin, ulu erostariak emonaz igeska joan ziran ordokíko beste alde batera. Atene'k kiñu egin ehan bekanez; aitu eutson Odis'ek eta bordatik unten zan, barrunbeko arresiari bira emonik. Gelditu zan gero jainkosaren aurrean, eta Atene'k iñotsona enztun eban:

173 Atene.—Laerte'ren seme, Zeus'en leiñuko! Odis, amarruz jori! Mintza zaite zeure semearekin, eta ez egiozu ezer be ixilazi, senargeiai zelan eriotza ta Balbea emon asmatu ondoren, uri ospetsura joan zaitezen; ni ez naz ba luzaroan zuekandik urrin egongo, burrukarako gogo bizitan naukazue-ta.

179 Au esan eban Atene'k; eta, urrezko zigorñoaz ikuturik, bularra alkondara ta soingaiñeko garbi bategaz estaldu eutson, eta luzera ta gazte-kemena geitu eutsozan. Gizurenak bir-artu eban bere kolore baltzizka be, matrallak biribildu yakozan, bizarra be baltz illunago egiñaz. Onela, joan zan jainkosa, ta Odis bere txabolara. Zurturik ikusi eban bere seme maiteak; au bada, artegatu egin zan, gizaseme a jainkoren bat zalakoan edo, begiak be beste alderantza zorrozturik, eta itzok bota eutsozan:

188 Telemako.—O arrotz! Lengo aldean beste bat zaitut orain, zure jantziak aldatuak dira ta zure gorputza be ez dirudi len zeunkana. Iñundikan be zeru zabala daukien jaungoikoetariko bat zaitut. Onbera zakiguz, bada, oparigai atsegingarriak eta esku-lan bikaiñezko urre-bezuzak eskiñi daitzuguzan. Erruki zakiguz!

195 Odis jainkoti eroapentsuak erantzun:

196 Odis.—Ez nozu jainkoetarikoa. Zer dala-ta nasten nozu illezkorrakaz? Zure aita naz; ainbat negar egin dozu bera-gaitik, ainbat neke-min jasan, eta gizonakanclik be ainbat zakarkeri eroan.

200 Au csanaz, bere semca laztandu eban; eta ordurartxe: cutsi-azo zituan negarnalkoak, matrail beera asi yakozan hurre-raiño ixurtzen. Baiña Telemako'k, oindiño ez bait ekian a bere aita zanik, barriz erantzun eutson itzokaz:

205 Telemako.—Zu etzara nire aita Odis, atzipetzen nauan jainko bat baiño, gero negarrari samiñago ekin dagiodan; ilkor batek ba ez leukez olako gauzak egingo bere adimenez jainko bat urreratu ta errez ta bere gogora gazte edo zar biurtuko ez ba'leu. Arestian zar ziñan eta zarpaillez jantzia zengozan; orain, oster, zeru zabalean bizi diran jainkoen antzekoa emoten dozur

213 Odis asmotsuak erantzun:

214 Odis.—Telemako! Orren goitik miresterik ez yatzu egoki, ezta zure aita emen barnean daukazula-ta, larridura iza-terik be; ez yatzu ba onezkero beste Odis'ilc etorriko, ori neu nozu-ta, orain nakusazun lez, asko jasan eta or-emenka ibilliz, ogeigarren urtean bere asaben lurrera biurtzen dana. Ikusi do-zuna Atene'ren lana da, burruketan agindu oi dauanarena; ak bada antz-aldatu oi nau bere gogara, al dau-ta; batzutan eskale antza emon oi daust eta beste batzutan soiña jantzi ederrez estaltzen dauan gazte batena. Erreza da zeru nasaian bizi diran jainkotasunentzat ilkor bat aintzaz bete naiz oro beztu.

226 Itzok esanez, jarri zan. Telernakol besarkatu eban bere aita, zizpuru ta negar artean. Bi-biai etorri yaken negar gurea ta zaratatsu negar-egin eben, egaztiak —arranoak naiz erpa makurdun saiak—, baserritarrak, oraindik egaz egin ez daben kumak kentzen dautsezanean egin oi daben baiño geiago: edu orretan, ixuri eben areik errukia emoteraiñoko negar bizia. Intziri ta negarketari emonak itxiko zitun eguzkiak etzatzean, Telemako'k esan ez ba'leutso aitari bat-batean:

235 Telemako.—Zein ontzitan ekarri zaitue ona, Itaka'ra, aita maite, itxastarrak? Nortzuk dirala diño? Ez dot uste, ba, oiñez etorri zareanik.

238 Odis jainkoti eroapentsuak esan eutson orduan:

239 Odis.—Edestuko dautzut, seme, egi osoa. Feazitarrak ekarri ninduen, euren lurraldera eldu oi diran gizaki guztiak zuzentzeko oitura daben itxastar entzutedunak: lo nengoan bi-tartean ur-osin zear euren zapi-ontzian ekarri ta Itaka'n itxi ninduen, jainkoen naiez arpe baten aurkitzen diran ainbat be-

zuza bikain (borontze, urre ugari ta jantzi eunduak) neuri emon ostein. Eta ona etorri naz, Atene'k aolkatuta, geure etsaien eriotza apailatu dagigun. Baiña, tira, zenbatu ta esaidazu senargei bakotxa zelakoa dan, zenbat eta zelakoak diran jakiñik, neure barru akarkizun bagekoan ausnar dagidan gu biok naiko garean guztien aurka, edo-ta laguntza billa asi bcar ete dogun.

252 Telemako zurrak jardetsi:

253 Telemako.—O aita! Nik beti entzuna dodanez, zu beti izan zara aipagarri esku-indarrez eta aolku zurrez; baiña aundia da esan dozuna ta arriturik naukazu, gizon bik soilki ezin bait dabe burrukarik egin gizuren asko ta indartsuen aurka. Senargeiak ez dira amabiko bat doi-doi, ezta bi bakarrik be, askoz geiago baiño, eta laster jakingo dozu kopurua. Duli-ki'tik berrogei ta amabi gazte autatu etorri ziran, sei morroi lagun dabezala; Same'koak dira beste ogei ta lau gizongei; Zazinto'tik dagoz ogei akeutar gazte; eta Itaka bertakoak, amabi, danak aundikiak; baita eurakaz dagoz Medonte ots-egillea, aedo jainkotiar bat eta morroi bi, aragi zatitzen maixu diranak. Barne dagozan guztien aurka ba'goaz, orain eldu zarean ezker, latz eta izugarriro ordainduko ete dozun bildur naz, arein geie-gikeriak zigor-azteko dakazun asmoa. Zuk, alan be, gogo emon al dana bada adore onez lagundu nai lcuskigun aldezlaren bat idoro ete daikegun.

270 Odis jaintold eroapentsuak erantzun eutson:

271 Odis.—Gauza bat esango dautzut; ernai egon, eta entzuidazu. Oldoztu naikoa litzakiguzan Atene ta Zeus aita, ala beste aldekariren bat billatu bear etc dodan.

274 Telemako zurrak erantzun:

275 Telemako.—Goian, odeitan bizi diran arren, onak ditugu aitatzen daustazuzan aldekarriak; eurak dabe ba gizase-meen eta jainko illezkorren gaiñetiko aginpidea.

278 Odis jainkoti eroapentsuak, barriz, onela:

279 Odis.—Ez dira luzaro egongo liskar gorritik baztertuak, Ares'en indar-indarrak senargei eta gure artean bere epaikari-arazoa beteten jauregian asi baizen laster. Zu orain, egunsentia agertuaz bat, zoaz etxera ta nastu zaitez senargei buru-arroakaz, eta ni geroago eroango nau txarrizaiñak urira, eskeko zar zarpailtsu baten irudia artuta, jauregian irainduko ba'nindue, eroan onez bularrean daukazun biotzean nik portu txarrak

jasatea, Eta oiñetatik oratuta narras jauregitik jaurtiten nabela, edo-ta geziakaz zauritzen nabela, ikusi ba'dagizu, igaro ori be. Agindu egiezu bakar-bakarrik, solas gozoz ori be, amaitu daiezala euren zorakeriak; eurak, baiña, ez dautzue jaramonik egingo, egun doakabea eldu yake-ta. Beste zerbait be gorde bear dozu zeure biotzean: Atene jakintsuak goi-argitu baizen laster, ezaugarri bat egingo dautzut buruaz; zuk oartu-ala, jauregian dagozan guda-izkilluak artu ta jarri egizuz neure sapai jasodun gelan, eta jarrai oraindik senargeiai itz gozo-leunez zipotza sartzen; izkillu orreik bage aurkitzean, nun diran zuri itandutzerakoan, zuk erantzun: «Ke artetik urrun eroan ditut, Odis'ek Troia'ra joatcan itxitakoen antzik be ez daukie-ta; oso itxurgaturik dagoz, su biziak iritxi ditun aldetik batez be. Kronion'ek, gaiñera, beste errazoi indartsuago au be gogoan jarri eustan: zuok, mozkortuta, eztabaidaren bat sortu ba'zengie, batak bestea zaurituko leuke, ta orritsa ta ezkonbidea ezainduko zeunkiez; burdiñeak, bada, berez erakarri oi dau gizona». Guretzat ezpata bi, lantza bi ta idinarruzko ezkuta bi itxiko dozuz bakar-bakarrik; oneik eskuratuko doguz senargeiai erasotzean, eta oneik ondoren Palas Atene'k eta Zeus arduradunak itsutuko ditu. Ba-dot oindiño beste zerbait be biotzean gorde bear dozuna: egiazki nire seme ba'zaitut eta neure odoleko, ezpei iñortxok be entzun Odis barruan dagoanik, ezpei Laerte'k be jakin, ez txarrizaiñak, ez etxekoak, ezta Penelope'k berak be; zeuk eta neuk, biok jakin bear dogu emakumeen eta morroien guganako gogoa zelakoa dan, olan konturatu gaitezan nortzuk maite gaituen eta nortzuk ez diran kezkatzen gutzaz, eta nortzuk zu, zareana izanik, aintzat artzen ez zaituen.

317 Erantzunik, onela mintzatu yakon seme argia:

318 Telernako.-0 aita! Laster ezagutuko dozulakoan nago nire gogoa, ez bait da kemenik-eza nire barneari nausitua; alan be zuk asmotan dozuna ez deritxat egokiena yakunik, eta barriro ausnartzera daragitzut. Alperrik eta luzaro ibilliko zara, landetan zear joanaz, banan-banan aztertu gura ba'dozuz; eurak, jauregian nasai ta ^Pare, gure ondasunak arro ta neurri barik iruntsi daroezan bitartean. Nire eritxiz, emakumeetan zeintzuk diran dedu gitxi dagitzuenak, eta zeintzuk dagozan errurik bage, jakin bear zeunke; baiña nik neuk ez neunke joan nai saroirik saroi gizonak aztertzen, au geroagorako itxi baiño, eta au be

babcskia daroan Zcus'ek igorri ezaugarriren bat egi-egiaz ikusi baldin ba'dozu.

330 Onela ziarduen autuan. Anartean, Itaka'ra elduaz joian Telemako ta onen lagunak oro Pilos'tik ekazan ontzi egoki landua; oneik, kai sakonera eldu-ala, lur tinkora atera eben izontzi baltza, ta, otsein leial batzuk ontzi-tresnak eroiezala, eurak bezuza aintzagarriak ekarrezan Kliti'ren egoitzcra. Ots-egille bat biaiclu eben ondoren Odis'en etxera, Penelope zurrani barriak ernoten: Telemako landatik zala, ta ontzia urirantza eroateko agindu ebala, erregiña lei ñargiak, biotz-ikutua, maiko sarnurrez begiak busti ez egizan. Otsegilleak eta txarrizaiñak, albiste bardiña erregiñari eroaten joiazalarik, bidean topoz egin eben; eta errege jainkotiaren etxera elduaz batera, ots-egilleak onan oiuegin eban neskameen erdian:

345 Otsegillea.—O erregiña! Eldu da Pilos'tik zure seme maitea.

347 Txarrizaiña Penelope'ri urreratu yakon, eta bere semeak esan egiola agintzen eban guztia iragarri eutsan; gero, agindua beterik, bere txarrietara biurtu zan, jauregia ta inguruak atzera itxirik.

351 Senargeiak, naigabez itsuturik, jauregia itxi eben, barrubeko arresi garata igaro ta ate aurrean jazarri ziran. Eta Eurimako, Polibo'ren semea, aldarrika asi yaken:

355 Eurimako.—O adiskideak! Egitsari izugarria burutu dausku, arrosko, Telemako'k ibillaldi orregaz! Eta guk giñoan ez ebala amaira eroango! Baiña, tira, bota daigun uretara ontzi baltzik onena, orni daigun arraunlariz, eta beioaz jo ta su arei datozela alik ariñen jauregira esaten.

360 Itz oneik ebagiaz bat, Anfinomo'k, bere lekutik burua itzuliaz, kai sakonean sarturik joian ontzia ikusi eban; bere itxasgizonak, oialak askatzen ari ziran, edo-ta eskuan eukezan arraunak. Eta irri-parre samurrez bere lagunai adierazo eutsen:

465 Anfinomo.—Ez daigun mandaturik igorri, kaian aurkitzen dira-ta; naiz jainko batek esan dautsolako, naiz ontzia igaroten ikusi arren, ez eben atzemon al izan.

368 Orrela mintzau zan, Guztiak jagi ta joan ziran itxasertzera, aida baten ontzi baltza lur tinkora atera ta morroi maratatzak tresnak eroan zituen. Jarraian batzartokira zuzendu zi-

tan, danak batera; an ez eutsoen beste gizoni, ez gazte ez zaar, eurekin jezarten itxi. Eta Antinoo, Eupite'ren semeak, onela itz-egin eutsen;

374 Antinoo.-0 jainkoak! Jainkotasunak, zelan atera eben gaitzetik gizaki au! Egunez talaiariak jarrita egozan mendiguren aizetsuetan; eta, eguzkia sartu ondoren, iñoiz be ez genlían gaurik lur tinkoan igaro, oial-ontzian ur-zabaldiz joanik, bada, Eguantz jainkotia agertu arte, Telemko'ren itzulia jagon oi genduan, atxillo artu ta erailtzeko asmoz; bitartean, oster, jainkotasunen batek bere etxera zuzendu eban. Baiña, asmatu daigun zerbait oraintxe berton eriotz deitoragarria emon daikeogun: ausaz iges-egin ez daiskun; begitantzen yatanez, ba, a bizi daiño ez dira beteko gure asmoak, a bere aolku ta adimenez bait da nabari ta guk ez dogu erriaren ederra osotoro irabazi. Ea, Telemako'k akeutarrak batzartegian alkartu baiño len (eta ez dot uste ori egiteka lagako dauanik, bere asarre bizian jarraitu baiño, ta guztien erdian jagirik, guk bere aurka, lortu bage, eriotza izugarria matazatzen gabiltzala esango dautse; eta enparauak, ori entzunaz, ez dabez egintza txar oneik goretsiko, eta bear bada kalte egingo dauskue geure lurretik jaurtiaz, eta beste eskualde batera joan bearrean aurkitu), ati kanpoan, uritik urrun, edo-ta bidez datorrela, eriotza emoteko gertu gaitez; geugandu daiguzan aren ondasun eta sololandak, guztion arrear egoki ta zuzen danez eurak banandurik; jauregia azkenez emon daiogun bere amari, ta onegaz ezkontzen danari, biena izan daiten. Eta esapide au eder ez ba'yatzue ta Telemako bizi daitela ta bere aitaren ondasunak osorik beretzat irautea nai baldin ba'dozue, gaur-gero, emen batzartuta gagozan guztiok, ez daioguzan eurrez jan aberastasun atsegingarriak; bestera, leia bei bakotxak bere etxetik Penelope ezkontz-sariz mur tuaz, eta artu bei onek senartzat esku-erakutsirik geien dagitsozana ta alانبearrak izentaturik datorrena,

406 Orrela mintzatu zan. Mundu guztia ixil ta mutu geratu zan; azkenik, Niso Aretiada erregearen seme argi Anfinomo'k itz-egin eutsen; au garitan jori dan Duliki bedartsutik etorria, senargeien artean geien gaillentzen zan eta Penelope'ri be begikoen yakon, beronen itzak sentipen samurrez naasiak agertzen bai yakozan. Onek, ba, aldarrikatu eutsen, ondo guraz esanik:

413 Anfinomo.—O adiskideak! Nik ez neuke erail nai Telemako edo orretan, erregeen azia ondatzea gauza astuna da-

ta; nik neuk jainkotasunen naia aztertuko neuke lenengo. Zeus aundiaren erabagiak ori balirioe, ncronek ilgo neuke, ortan guztiok lagun zatorkidazela eskatuaz; baiña jainkoak urrundu ta alde-erazoko ba'ginduez asmo ortatik, neuk aixa emongo neuskizuc xede orri uko egin eta etsi zaitezen.

420 Olan mîntzatu zan Anfinomo, eta eder izan yakon danai, Jagi bertatik, eta Odis'enera joan ziran; ara eldurik, aurki ondo landuetan jarlekua artu eben.

424 Penelope zurrak orduan beste gauza bat erabagi eban: arto ta lotsabako ebiltzan senargeien aurrean bera agertu; Medonte otsegilleak esanda jakin eban, ba, jauregian ze asmotan ziarduen, bere semeari eriotza emon nairik, ami] zuzen be. Gizatigira zuzendu zan, bere mirabeak lagunduta. Emakumeetan jainkotia, senargeiak egozan lekura eldu zanean, ederki eregitako sapaia eusten eutson abe aurrean gelditu zan, zapi bikaiñez estalduta matraillak eukazala, eta gogor artu eban Antino, onela esanik:

434 Penelope.—Antino, ausarkeriak joa, gaitz-asmatzaille! Itaka'n zure adiñekoen artean onuan eta ao ederrean nabari zareala diñoe, baiña etzara ez egiaz areik uste dabena. Zentzun bako! Zer dala-ta zabiltz Telemako'ri zelan bizia, ta alantearra, kendu asma ta asma, eta Zeus lekukotzat dauken eskalei ez dautsezu jaramonik egiten? Ez da bidezko batak bestearen aurka gaitzak matazatzea. Ez ete dakizu zure aita, erriaren bildurrez, etorri zala ona igeska? Asarre bizitan egoan auaren aurka, gure alkartu tesprototarra kalte egitera, tafiar itxaslapur batzuen atzetik, joan zalako; eta bizia kendu nai izan eutsoen, eta biotza kendu, eta iruntsi aren ondasun ugari bikaiñak; baiña Odis'ek, alan be, asarrean eztitu ta galazo egin eutsen ori aurrera eroatea. Eta orain bere etxea jaten zagoz lotsagarriro, bere emaztearen atzetik zabiltz, aren semea ii nai dozu, ta naigabe aunditan naukazu. Baiña benetan deskatzut: itxi eizu asmo ori, ta agindu eiezu enparauai be ori berori egín dagiela, arren,

452 Polibo'ren seme Eurimako'k erantzun eutson:

453 Eurimako.—Ikari'ren alaba! Penelope Azkor zaite, ta ez larritu gauza orreikaitik. Ez dago gizonik, ezta egongo be, ezta jaioko be, ni bizi nazala ta emen lurrean argia dakusalarik, zure seme Telemako'gan bere eskuak jarriko dauazanik. Esaten noana laster burutuko: olakoaren odol baltzizka neure lantza bitan neukake. Odis'ek, uriak suntsitu oi zitunak,

sarri, bere belaun gain artzen nindula, aragi errea ipiñi eustan eskuan, eta ardao gorria edaten emon: Telemako begiko yat orixegaitik, beste gizaseme guztien artean, eta etzaite senar-geiengandik etorri leikeon eriotzaren bildur izan; jainkoak bidalia iges-eziña da-ta.

465 Onan itz-egin eutson beta naretu nairik; baiña arek be Telemako'ri bizia kendu gura eutson. Pcnclopc, barriro be, goiko gela bikaiñeratu zan; eta an Odis, bere senar kutunarren, negar egin eban luzaro, Atene'k, ontz-begidunak, betazaletan lo gozoa ixuri eutson artean,

470 Arrats beran, txarrizain jainkotia Odis eta onen semearen albora biurtu zan, oneik urte beteko txarria i1 eta aparia apailatzen ziarduelarik. Atene urreratu yaken orduan eta, bere zaaroz Odis Laerte'ren scmea ikuturik, zaar biurtu eban oster a be, soiña jantzi zarpaillez estaldurik: txarrizaiñak batez be, arpegiz arpegi ikusiaz, ezagutu ez egian, eta, izparra bere bularrean gorde bearrean, Penelope zurrani iragarten joan ez citen.

479 Telemako mintzatu zan aurrenik, onela esanez:

481 Telemako.—Eldu zara, Eumeo jainkoti ori! Zer barri erritik? Bertan dagoz onezkero, zelatalditik etxeratuta, senargei buru-arroak ala zelatan daukadaz oindiño, neure etxera itzuli nadinaren zain?

485 Eta zuk, Eumeo txarrizain, onela jardetsi zeuntson:

486 Eumeo.—Ez nintzan kezkatu, olako gauzak ez jakiteko ez itanduteko, unian gaindi ibilli nintzan bitartean; izparra emon alaxe, bada, bizkor be bizkor ona biurtzea nai izan neban. Otsegille bategaz, zure lagunuen mezulari maratzaz, buru egin neban bidean: onek itz-egin eutson lenengo zure amari. Beste zerbait be ba-dakit, neure begiokaz ikusi dodana. Itzultzean, uria baiño garaiago, Hermes'en muiñoan aurkitzen nintzala, oial-ontzi bat ikusi neban geure kaira jasten: eta gizon-aldra aundia etorren bertan, eta ezkutaz eta ao biko lantzaz beterik egoan. Eurak izango zirala uste neban, baiña ezin daket ziurtu.

497 Orrela emon clan aitzen, Irriparra loratu yakon ezipan ertzean Telemako zangar jainkotiar, ta bere aitagana biurtu ebazan begiak, txarrizaiñak ikusi ez egian zaioak emonaz.

500 Egitekoa amaitu ta otordua eraturik, jan-edan eben, eta inori ez yakon peitu egokion zatia. Eta jan-edan galea bete ebenean, oeratu ta lo-emoitza artu eben,

XVII KANTUA

Telemako Itaka'ra biurtzen

Goiz-alaba, larrosazko atzduna agiri baiño geiago, Telema-ko'k, Odis jainkotiaren seme maiteak, abarka ederrak bere oiñetara emonik, eskurako egoki etorkon lantza sendo bat artu ta, urirako gertu, onela itz-egin eutson bere txarrizaiñari:

6 Telemako, —Aitita! Urira noa, neure amak ikusi nadin; bere negar itsa, ba, ez dot uste itxiko dauanik, ezta bere antzi ta engaraka be, barriro ni ikusi artean. Zeuri agintzen dautzut, gaiñera, croan daizula urira arrotz doakabea, bertan eskale jateko pizkat batu dagian, eta ondo deritxonak ogi-muskin bat emongo dautso, ta ardao txol bat; nik bada min dot biotzean eta ezin neinke neuregan artu gizaseme guztien ardurea. Eta arrotza sumin jarriko ba'litzakizu neurriz gaiñ, beretzat kaltegarri; niri atsegin yat egia esatea.

16 Odis zurrak jardetsi:

17 Odis.—Adiskide! Nik be iñok ez geldiazotea naiago dot; eskeko gaixo bati abeto datorquio, izan be, unian janaria eskatzea, eta ez landetan. Emongo daust gura dauanak. Dodan adiñari oar ezkerro, ez nago gaurtik abeltegian gelditzeko, ezta ugazaba bati agindu gauza guztietan esana egiteko be, Zoaz, ba; niri agindu dautsozun gizon orrek lagunduko daust, su-ondoan zerbait sustatu ta egun-beroa etorri baizen laster; nire jantziak egoera ain txarrean dagozan ezkerro, goizeko otzak bear bada eratsi ez nagian, uria urrin samar dagoala diñozue-ta.

27 Orrela mintzo zan. Urten zan Telemako saroitik, urrats-bizkor eta senargeien aurkako gogoeta latzak barne iraulki. Jau-regi erosora eldu zanean, zutabe garai bati eutsola lantzea itxi ta barruragotu zan, arrizko ate-brindela igarorik.

32 Eurikle'k, jarleku ondo landuak narruz estaltzen ziar-duan bere iñudeak, ikusi eban lenengo, eta negar-malkotan bidera urten eutson. Era berean bere inguruan batu ziran Odis

eroapentsuaren mirabeak; danak besarkatu eben, buruan eta besaganetan mun egiñaz.

38 Penelope zurra, Artemis edo-ta urrezko Afrodita zirudiana, urten zan bere egotegitik; eta, negar baten, bere seme kutuna besartean estuturik, burua ta begi arraiak mosutu eutsozan; azkenez, intzirika, itz ariñok ebagirik:

42 Penelope.—Biurtu zara, Telemako, ene argi samur! Ixilka ta nik ez nairik, zeure aitaren barri billa, ontzian Pilos' era joan ziñanetik, ez neban uste geiago ikusiko zindudazanik. Baiña, tira, esaidazu ikusi izan dozuna.

46 Telemako zurrak egotzi:

47 Telemako.—Ene ama! Eriotz izugarritik onez urten nazan ezkerro, ez eidazu negar eragin, ezta ez eidazu neure galtzar barruko biotza be zauskadaz ipiñi; zoaz, oster, mirabeakaz etxeko gaindira, garbi zaite, estal zeure soiña jantzi aratzez, eta zin-egizu jainko guztiai opagai beteak eskiñiko dautsezuzala, Zeus'i on ba'lekio asperraldiak bere betea izatea. Eta ni, orduan, batzartokira elduko naz; ona biurkeran neugaz etorri zan eta jainkoen kideko lagunakaz bialdu nebanari dei egingo dautsot; Pireo'ri, bere cgoitzera eroanik, arrera txeratsua egin ondoren, neu itzuli arte alik ondoen omendu egiala, eskatu neutson.

58 Onela mintzatu yakon; eta itzik etzan atera Penelope' ren ezpanetatik. Ikuzi zan au, estali eban soiña jantzi aratzetan, eta zin-egin jainko guztiai opagai beteak eskiñiko eutsezala, Zeus'i eder ba'lekion asperraldiak bere beca izatea.

63 Telemako, eskuan iguna, urten zan jauregitik, txakur oin-arin bi jarraika ebazala. Eta Atene'k jainkozko jasez jantzi bai eban, erri osoak, eldukeran, iniretsita begiratzen eban. Bertatik urreratu yakozan senargei buru-arroak, itz eder jario, ta gaitz zantar iraulka; arein aldra aunditik alde egiñaz, baiña, bere aitaren aspaldiko lagun Mentor, Antifo ta Haliterses'en aldamenera joan zan jarten; oneik ainbat itaun egin eutsoezan. Urreratu zan lantzaz nabari zan Pireo be, urian zear arrotza batzartokira ekarrena; eta Telemako ez zan agandik urrin geratu, bertatik ondoan jarri baiño. Pireo'k itz-egin eban aurrenik, era onetan:

76 Pireo.—Telemako! Igor eizuz emakumak nire etxera, Menelau'k emon eutzuzan esku-erakutsiak bialdu dagitzudazanr

78 Telemako zurrak jardetsi:

79 Telemako.—Pireo! Ez dakigu oindiño zelan amaitu diran gauza oneik. Senargei arroputzak, jauregian ni azpikeriz ii ondoren, nire aitaren ogasunak bananduko ba'lebez, gurago dot orreitako batek baiño zuk euki ta gozatzca esku-erakutsion obaria; eta nik lortuko ba'neu orrei erio ta Balbea emotea, orduan, neure pozaren betean, zuk be pozik ekarriko zeuskidaz neure egoitzera.

86 Orrela esanaz, bere etxera eroan eban arrotz doakabea. Jauregi erosora elduaz bar, aurki ta kataberetan itxi ebezan euren soin-gaineakoak, garbitzeko asmoz ezkotegi dizditsu batzuetara zuzenean joanik. Eta mirabeak ikuzi ta orioz igurtzi ondoren arkondarak jantzi ta soin-gaiñeko uletsuak ipiñi eutsenezanean, ikuztarritik urten eta aurkietan jesarri ziran. Mirabe batek una emon eutsen eskuak garbitzeko, urrezko txarroan ekarri ta zidarrezko azpillean ixuriaz; gero mai eder bat jarri eutsen aurrean. Jaki-zaiñak ogia ekarri eutsen, jateko mordo aundiaz batera, gordeta eukonaz adiguri egiñik. Ama gazte biai bekoz beko jarri zan, gelako sapaiari costeo eutson zutabe ondoan; eta, aurki baten eratzana, gorutik ari me-meak ateraten asi zan. Gazteak aurrean eukczan janariaí ekin eutsen. Eta jan-edan antzia bete ebenean, Penelope zurrak onela asi yaken autuan.

103 Penelopc.—Telemako! Goiko etzangura noake, ain deitoragarri yatan oge aretan etzutera, Odis Atrielatarrakaz Ilion'era joan zanetik beti nire malkoak laztandu dabenena nunbait; eta zuk ez daustazu oindiño esan nai izan, zeatz eta argiro, senargai arroak etxe ontara hiurtu baiño len, zeure aitaren itzuliaz nun edo nun ezer entzun dozunik.

110 Telemako zurrak jardetsi:

111 Telemako.—Esango dautzut, ene ama, egi osoa. Pilos'era joan giñan, giza-artzain dan Nestor ikustera; onek bere jauregian artu ninduan, baita semea urriñetik ibilli ostean etxera yatorkon aitak legeaz arduraz ta oso maitati atotsi be. Berak eta bere seme aintzatsuak ni bai cuki ninduela txera ta arretaz! Baiña lurreko gizaki bat berari be ez eutsola entzun Odis eroapentsuz ezer esaten, ez bizi ez illa zanik; eta Atereu'ren seme Menelau, lantzaz ospetsu danagana bialdu ninduan, zaldi bizkorrak eta burdin gotor bat emonik. An ikusi neban argibar Helena, jainkoak ola naita, argibar eta teukrotarrak ainbat ne-

ke-min beragaitik ekarri ebezana. Burrukan azkar dan Menelau'k laster be laster itandu eustan, zek beartuta niñoian jainkozko Lakedemoni'ra; nik guztia edestu neutson zeatz eta meatz, eta berak orduan itzokaz erantzun eustan: «O jainkoak! Egi-egiaz, gizaki errotsu baten oian etzun-azo nai dauste gizon ain koldar areik. Basauntz-emeak, esaterako, bere kuma jaio-barriak, errapekoak oindiño, leoi zagai baten ezkutuan itxi ta oian eta aran bedartsuetan zear larre billa doan antzera, Odis'ek be edu bardiñean emon bear dautse arei eriotza lotsagarria. Ai, agertuko ba'litz, o Zeus aita, Atene, Apol!, bere Lesbos ondo eragitakoan Filomelida'ren aurka, eztabaida baten, jagi eta aregaz burrukatu ta oldartsu, akeutar guztien pozerako, azpira eratsi ebanean lez; orduan lez agerturik, Odis senargeiakaz aurkituko ba'litz, laburra litzateke onein bizia ta ezteguak be oso mingots gertatuko. Baiña erreguz ta itaunka edesteko eskatzen daustazun orri buruz, ez neuke egitik aldendu gura, ezta zu ezegaz atzipetu be; eta itxasoetako zaar egizaleak esan eustazan gauzetatik ez clautzut batxo bat be ixilduko, ez gordeko». Adierazo eustanez, izaro baten ikusi eban, (Kalipso maitagarriaren jauregian, indarrez an bah dauko), naigabe latzez beterik, eta eziña dau bere asaben lurraldera eltzea, ez dauko ba izontzi arraundunik, ezta lagunik be itxas-bizkar zabalean barrena zuzendu dagianik. Olan mintzatu zan Atereu'ren seme Menelau, lantzaz ospetsu dana. Aginduak bete ondoren, etxerakoa artu neban, illezkorrak aize ona eskiñi eusten, eta orrela eldu naz naiko bizkor neure aberri laztanera.

150 Orrela esan eban; eta bera biotz-eragiñez oartu zan bular-barner Teoklimeno'k orduan, jainko baten antzeko, onela esan eutsen:

153 Teoklimeno.-0 Odis Laretida'ren emazte agurgarri! Arek ez daki argi ta garbi ezer, baiña entzun nire itzak, neuk emongo dautzut aurrez esan ziurra, ezertxo be ixildu barik. Beitez lenengo ziñaldari Zeus jainkoren artean eta gero ni eldu nazan Odisakats bakoaren sukalde ta mai arrotzale ta txeratsuak, gizurena dagoneko bere sorterrian aurkitzen da, jazarrita edo arat-onat dabillela; ba-dau ekintza gaizto orrein albiste, senargei guztien aurkako guda asmatzen daragoio. Telemako'ri esan neutsanez, zantzu au nabari izan yatan tosta askodun ontzitik.

163 Penelope zurrak erantzun:

164 Penelope.—Zuk, arrotz, diñozuna beteko ba'litz, laster zeunkake nire biotz-txera; aunitz bezuza ta esku-erakutsi egingo neuskizuz, ha, eta zugaz aurkituko litzakenak zori ontsutzat leukake bere burua.

168 Onela ebiltzan oneik izketan. Senargeiak artean jolasari ekioen, Odis'en jauregi aurean, euren lotsabakokeriak egin oi ebezan sala landuan kurpillak eta azagaiak jaurtiaz. Apari-ordua eldu ta artzaiñak oitura ebenez curen abereak oro landetatik ekarri ebezanean, alan be, Medonte otsegilleak, senargientzat atsegingarrien zanak, eta euron jan-edanetan esku artu oi ebanak, adierazo eutsen:

176 Medonte.—Gazteok! Joko bidez, zeuen barruak atsegindu dozuezan ezkerro, zatoze jauregira ta gerta daigun aparia, berau ordu onez artzea egoki yaku-ta.

180 Onan mintzatu yaken; eta areik, jagirik, esan yakena egin eben. Jauregi erosora eldu, euren soingaiñekoak aurki ta kataberetan itxi, ta ardi aziak, aunts joriak, txarri gizenak eta saldoko bei bat 1 ebezan, eurokaz oturuntza ederra gertaturik.

185 Ontan, Odis eta jainkozko txarrizaiña, euren gauzak atontzen ziarduen, landatik urira aldatzeko. Eta artzaiñen buruzagi zan txarrizaiña itzez asi zan, onela:

188 Eumeo.—Arrotz! Gaur berton urira joan nai dozun ezkerro, nire ugazabak agindu eutzunez (nik gurago neuke emen jarraituko ba'zendu kortak zaintzen; baiña arek esana ontzat artzen dot eta agiraka egingo cleustanaren bildur be ba-naz, eta ugazahen akarrak latzak izan oi dira), ea, goazen orain, egun erdia ta geiago igaro da, laster eldu yatzu arratsa ta ozkirria ez yatzu osasungarri.

195 Odis zurrak egotzi:

196 Odis.—Ba-dakit, ulertzen dot, aitzen dautzunari agintzen dautsazu. Goazen, ha; zuzen nagizu ora eldu artean. Eta taketen bat ebagi baldin ba'dozu, ekazu bera, lagungarritzat; artu bear dogun bide-zidorra guztiz labankorra dala entzun dautzuet eta.

201 Esan eban, eta hizkarrera bota eban bere zorro marruíza, zuloz betea, bere ugel biurtuaz. Eumeo'k opa eban taketa eskuratu eutson; eta bertatik bideari ekin eutsoen. An geratu ziran, sarobea zaintzen, txakurrak eta artzaiñak, Eumeo'k, bere erregea, zaar ta eskeko zarpailtsu biurtua, urira zuzentzen eban

bitartean; zaarra makilla luzangan oiñarri artuta joian, jantzi itsusitan zirpildua soiña eroialarik.

209 Riele malkartsua egin ondoren, uritik ur samar aurkiturik, maitagarri aratzen iturrira eldu ziranean, —Itako, Nerito ta Poliktor'ek egiña zan berau; ingurumari eukan ezota. sunetik janaritzen diran eltxun sail aundia; goitik jausten zan ura, ozkirri-ozkirria, arkaitz baten gaiñetik; goiko aldean, antxiña baten, ondi bat jaso eben maitagarrien omenez, eta bidazti guztiak antxe eskiñi oi ebezan euren oparigaiak—, eta emendixek artu oi eben uritarrak bear eben ura, eurokin aurkitu zan bidean 1\Aclanti, Doli'ren semea, bere saldoko auntzik ederrenak, artzaiñak jarraitsoela, senargeien aparitarako eroiazana. Melanti'k, ikusi zituneko, itz zemaikor ta iguingarriz akar egin eutsen, Odis'i biotzean ikutzeraiño akar (agiraka) egin be:

222 Melanti. —Ondo dakusgu orain be, ziztrin batek beste ziztrin bat daroala eskutik, jainkoak bada bakotxa bere kidekoaz batu oi ditu beti. Nora, txarrizain opagarri-ez orrek, daroazu tripazai ori, eskale gogaikarri ori, jan-edan aldietako izurri ori, ate askoren ertzak bere sorbaldaz igurtziz iru-oiñekoak eta galdarak ez, bahía ogi-muskiñak soilki eskatu oi dauazan ori? Neure aberetegia gorde, okullua garbitu ta auntz-kumai nabaza-munduillua eroateko emongo baleustazu, gatzura edanik izterrak lodituko leukez. Baiña, egite gaiztoetan laber aditua dan ezkerro, ez dautso lanari oratu naiko; erririk erri, ostera, eskean joango da, bere sabeltzar ase-eziña zelan-alan beteteko. Ník diñodana beteko da: Odis jainkotiaren jauregira ba'loake, gizaki arein eskuak aren buru gaiñera botako leukiezan alketx askok ikutuko dabez aren sorbaldak.

237 Orrela esan eban; eta, urreraturik, ostikada bat emon eutsan ipur-txuntxurrean, zoro antzo; baiña ez eban bidetik jaurti al izan, grzurenak tinko be tinko berean iraunik. Orduan Odis'i, ari craso ta bizia kentzea otu yakon, eskuan eroian ma!dicaz kendu be, edo-ta zerbait gorantza jaso ta burua zatitu bearen kontra. Baiña azkenik be iraiñari eutsi ta biotzean ito eban bere asarrea. Txarrizaiñak, alan be, beztu eban a, arpegiz arpegi begira jarri eta, eskuak goian, suar otoi egiñaz:

245 Eumeo.—Iturrietako maitagarriok! Zeus'en alabak! Odis'ek bein edo bein bildots eta aumeen iztarrik erre ba'eutzuen, koipe joriz estaldurik, bete eidazue eskintz au: Itzul bei gizaseme a, jainkoren batek ekarria; aretxek kenduko leuskizu,

ba, orain iraiñak irain gu samintzen darabiltzun arropuzkeri guzti ori, artzain zital-galduak abere saldoak ondatzen diarduen bitartean, urian zear alderrai beti zabiltzan ori.

252 Melanti auntz-zaiñak jardetsi:

253 **Melanti.**—Jainkuok! Zer diño txakur orrek, doillor-
uiuez beti doan orrek! Egunen baten Itaka'tik urrun eroan
bear dot, tosta askodun izontzi baltzean, an, saldurik, irabazi
ona ekarri dagistan. Oba, zidarrezko uzaia daroan Apol'ek,
gaur berton, jauregian, zaurituko ba'leu Telemako, edo-ta se-
nargeien eskuetan ondatua ba'litz gaztea; Odis jausi zan lez,
emendik urrun, etxerantza etorrela.

260 Orrela mintzatutakoan, atzera laga ebazan, oso astiro
ebiltzan eta; laster eldu zan erregearen jauregira. Bertara zu-
zendu zan jarraian, eta senargeien erdian, Eurimako'ri aurrez-
aurre jazarri zan, auxa bait zan maiteen ebana. Aragi-zati batzuk
ekarri eutsoezan aurrera orretan ziarduenak; jaki-zain agurga-
rriak, osteria, ogia ekarri eutson. Ortan, Odis eta jainkozko
txarrizaiña jauregi ondoan lotu ziran, eta bertatik kitara otsaren
soiñuak entzun ebezan, Fermi kantatzen asia zan eta. Arek, txar-
rizaiñaren eskua arturik, onela mintzatu yakon:

270 **Odis.**—Eumeo! Auxa da, zalantzarik bage, Odis'en
egoitz ederra, ta errez litzakigu berau ezagutzea, askoren artean
ikusita be. Bizitz-oin bat baiño geiago daukaz, arresi almenaz
apainduak esitzen dau bere larriña, ateak ondo aiutu ta arabe-
rakoak eta orri bikoak daukaz; koskorik ez dago olako etxea
gaitz-etsiko leukenik. Ba-dakit, beronen barruan, gizaki aldreak
abarrada ospatzen dauana; neuganaiño eldu da, ba, okela erre-
aren usaiña ta kitara soiñua dantzut, jainkoak jan-edatearen la-
gun egin ebenarena.

279 Eta zuk, Eumeo txarrizaiñ orrek, onela erantzun ze-
untson:

280 **Eumeo.**—Errez ezagutuko zenduan, bai, beste gauze-
tarako be sena ta zentzuna ez yatzuz palta-ta. Baiña, tira, ebatzi
daigun egin daikegunari buruz. Nai sartu zeu lenengo jauregi
erosoan eta ibil senargeiakaz batera ta ni atzerago lotuko naz;
nai, gurago ba'dozu, lotu zaitez zeu ta neu joango naiatzu aurre-
tik, baiña ez belutu: bat edo batek, kanpoan ikusirik, zerbait
jaurti edo-ta kolperen bat emon ez dagizun. Nire eritxiz, au
gogoznartu bear zeunke.

288 jainkozko Odis eroapentsuak jardetsi eutson:

289 Odis.—Bai, ulertzen dot; aitzen dautzunari agintzen daut:sozu. Baiña, aurreratu zaite zeu ta ni lotuko naz, aurretik be ba-dakit ba kolpeak eta zauriak zer diran, eta nire barrua jasankorra da, itxasoan lez gudan be asko ikusi bear izan naua-lako; betor,ba, gaitz ori be besteen ondoren. Ezin daitekez ostendu sabel baltz gutartsuaren eskabide ta arrenak, gizonai ainbat kalte dakartsenarenak nunbait; orixegaitik, gaifiera, tosta askoz apaintzen dira itxaso antzua zearkaturik, arerioai kalte egi-ten doazanak.

298 Onela ari ziran izketan. Eta, etzunda egoan txakur batek, burua ta belarriak jaso ebazan: Argos zan, Odis eroapen-tsuaen txakurra, onek azitakoa, naiz-ta gero, Ilion donera joan bear izan ebalako, ezkur gitxi berari atera. Arteraiño gazteak eroan oi eben basauntz, orein eta erbi atzetik ibilli eiten; baiña orduan, ugazaba urrin izanik, Odis'en morroiak solo ta landa zabalak zimaurtzeko artu egiezan ate ondoan botaten ebezan mando ta idien pekorotz-pillo gaiñean zetzan baldar ta nagi: an egoan Argos luze etzuna, lapa-zorritz ta akenez oso betea. Odis urreratuz etorrela oartuaz, buztanari eragin eta belarri biak be-rantz jausten itxi zituan, baiña ez eutson bere u^gazabari bidera urten al izan; eta onek, ikusiaz batera, negar-maiko bat txukatu eban, Eumeo'ri berau ostendurik, jakiña; ondoren, oni itanduz:

313 Odis.—Eumeo! Mires Tarri var txakur au gorotz artean etzunda ikustea, gorputz ederrekoa da-ta; ez dakit, alan be, eder-ederra izan arren, ibilteko bizkorra izan zan edo-ta batzuk curen maian euki oi dituen antzekoa, euren jaubeak andikeriz bakar-bakarrik azi oi dabezan orreitakoa.

318 Eta zuk, Eumeo txarrizain orrek, onela erantzun zeuntson:

319 Eumeo.—Txakur ori, gugandik urrun il dan gizaseme batena zan. Odis'ek, Troia'ra joatean, itxi eban langoa balitz gorputzez eta ernaitasunez, laster miretsiko zeunkie bere kemen eta bizkortasuna: basarte trinen sakonenean izanda be, ez eutson ^ges egingo jagi-azotako piztiak. lorratzari jarraitzen guztiz pizu-errimea zan eta. Orain, baiña, bere uzagaba sorterritik kanpora 11 zalako, gaitz askok jota aurkitzen da, eta mirabe baldranak be ez dabe geiegi zaintzen, menpekoak ha jaubeak agindu ezik ez dabe lanik egin nai bidezko danez; Zeus ikusle-luzeak onoi-

men erdia kendu oi dautso gizakiari jopu biurtzen dan egunean bertan.

331 Au esanaz, jauregi erosoan sartu ta salara jo eban zuzen-zuzen, senargei argiakana. Orduantxe eriotz baltzaren Balbea Argos'ez jabe egin zan, ogei urte ondoren Odis ikusi ebanean.

335 Iñor baiño len konturatu zan Telemako jainko-antzekoa txarrizaiñaren eltzeaz; eta, kiñu egiñaz, bere ondora dei egin eutson. Eumeo'k, bere binara soka, jarleku uts bat artu —jauregian otorduak ospatu oi ebezanean senargeiai aragia ugari aurreratzean aragi-banatzailleak artu oi ebana, ain zuzen—, eta berau jarrita egoan Telemako'ren mai aldamenean, oni aurrez aurre, egokitzeraz joan zan. Otsegilleak gero jatekoak eta agia, zimeratxoan eroana, aurreratu eutsozan.

344 Eumeo baiño gerotxogo, Odis sartu zan jauregian, zaar ta eskale zarpailtsu, bere makillea eusgarri ta jantzi itsusiak soinean. Leizar-atarian jarri zan, atearen barruko aldean, eta nekostazko ate-zangoari eutsola geratu zan, arotzak beste orduz trebe landu ta sestra bitartez egoki jarri ebanari eutsola noski. Telemako'k, txarrizaiñari dei eginez, esan eutson, zimera bikaiñetik ogi osoa ta eskuetan artu-ala aragi arturik:

353 **Telemako.**—Emoiozu arrotzari, ta eska egiozu, arren, egin dagiala eskabidea senargeien artean, bakotxaganaturik; bear-izanean dagoanari, ba, ez yako egoki lotsor izatea.

356 Orrela esan eban. Joan zan txarrizaiña, ta Odis'egana eldu zanean, itz arin oneik egotzi eutsozan:

359 **Eumeo.**—**O** arrotz! Telemako'k damotzu dakardan au, ta senargei guztiai eskatu daiezula agintzen dautzu, bako-txari banan-banan; eskekoari, bada, ez yakola diño lotsor iza-tea egoki.

363 Odis zurrak erantzun:

364 **Odis.**—Zeus aaltsu! Telemako izan dedilla, otoi, zori ontsu gizartean; bete dedilla bere biotzak opa dauana oro.

367 Esan eban; eta esku biakaz jakiak arturik, oin aurrean eukon zorro gergel gaiñean ipiñi ta jan ebazan, bertsolaria jauregian kantuz ari zalarik; ain zuzen be, arek aparria amaitu ebanean, bukatu eban orrek be bere kantua. Senargeiak zarata ateraten asi ziran etsarian, eta Atene Laerte'ren seme Odis egana

urreratu zan, zeozer eskatu egioela, ogi-muskiñak batu egizala esanaz, areitatik nortzuk ziran zuzenak eta nortzuk gaiztoak jakin nairik, ondamentitik iñok he iges egingo ez eban arren. Joan zan, ba, gizurena bakotxari zerbait eskatzera, eskumatik asita; danai luzatu eutsen eskua, aspalditik eskean ba'lebil lez. Areik, errukiak jota, eskupekoa emonez, arridur.az begiratzen eben, nor zan eta nundik etorri ete zan alkarri itandurik. Eta Melanti auntz-zaiñak onela esan eutsen:

382 Melanti.—Entzuidazue, erregin urenaren senargaiok; arrotzaz dakidana esango dautzuet, lenago be ikusia dot eta. Txarrizaiñak ekarren onantza, baina beta ez dot ezagun, ez dakit nungoa ta zein leiñukoa danik be.

386 Olan mintzatu yaken; eta Antinoo'k itzok bota eutsozan arpegira:

388 Antinoo.—A, txarrizain ospatsu! Zergaitik ekarri dozu urira? Iper-loka ta alper.-ontzirik naiko ez ete ditugu lendik be, eskale gogaikarri ta otorduetako izurri? Ala gitxi dirala deritxazu zure jaunaren ondasunak irunsteko emen batu oi diranak, eta beste leku batera joan zara oneri dei egiteko?

393 Eta zuk, Eumeo txarrizain orrek, onela erantzun zeuntson:

394 Eumeo.—Antinoo! Etzara egoki mintzatzen, leiñargi zarean arren. Nor iñora joango zan iñori dei egiten, errian bere ogibidean ari danen bat: aztru bat, gaixoak osatzeko osagille bat, arotz bat edo-ta kantuz alaitu oi gaitun bertsolariren bat izan ezik? Onetxek dira lur zabalean dei egiten yaken ilkorrak; baiña txiro bat iñok be ez leuke ekarriko, ondagarri izan dakion. Beti izan zara senargei guztietatik latzena Odis'en morroientzat eta neuretzat batez be; ez naz, alan eta guzti be, origaitik asarretuko, Penelope zurra ta jainko baten kideko Telemako jauregian bizi yatazan arteiño.

405 Telemako zurrak jardetsi:

406 Telemako.—Ixillik, ez egiozu erantzun luzerik emon; Antinoo'k beti ta era txarrean sumindu oi gaitu itz gazi-min-gorraz, enparaui be ortarakoxe bidea emonik.

409 Esan eban; eta itz ariñokaz mintzatu yakon Antinoo'ri:

411 Telemako.—Antinoo! Egiaz, bai, aitak bere semeaz dauan lakoxe arduraz begiratzen nozu ni, arrotz ori itz zaka-

rrrez jauregitik botaten dozunean! Jainkotasunak ez bei gura orrela jazoterik! Ar egizu zerbait eta emoiozu; nik ez dautzut ori galazoten, bai oster a ori egiteko eskatu; eta ez uste izan ori txartzat artuko dautzuenik ez nire amak, ez Odis jainkotaren etxean bizi diran jopuetatik batek be. Baiña zurekiko ez dago olako asmorik, zuk gurago dozu iñori emon baiño zeuk jatea.

420 Antinoo'k erantzun eutson, esanaz;

421 Antinoo.—Te lema ko deadarti, zeure barne-kemena eztatzen ez dakizun ori! Zer esan clozu? Senargei guztiak nik beste emongo ba'leutzue, iru illebetea, gugandik urrun, zeure etxean egongo zintzakez.

425 Onela zan mintzatu; eta, maipetik artuta, oturun-tzetara joan oi zanean bere oin aratzak jarten ebezan aurkitxo a erakutsi eutson. Beste guztiak, orraitño, zer-edozer emon eutsoen, eta zakutoa ogi-aragiz bete yakon. Eta dagoneko Odis akeutarrak emonilco jateko ate-aurrera biurtzekotan egoa-la, Antinoo'ren ondoan gelditu ta itzok erasi eutsozan:

432 Odis.—Adiskide, emoidazu zerbait; ez dirudizu, ba, akeutarretatik txarrena, onena baiño, errege baten antza dozu-ta. Orixegaitik, zuri dagokizu, beste iñori baiño geiago, niri janaria emotea; eta nik lur edatuan zear zabalduko dot zure entzutea. Beste orduz, neu be zoriontsua izan nintzan gizasemeen artean, egoitz aberatsean bizi izanik, eta sarri emon izan neutson eskupekoa arat-onat ebillenari, edozein zala ta egoan bear-izanean aurkitu; orduan konta-ezin alako morroisaila neukon, eta beste gauza askorik be, gizonak nasai bizi ta aberats-izena emon daroatsenak. Zeus Kronion'ek, baiña, lur-jota itxi ninduan, orrela nai izan ebalako, itxaslapur baztarka dabilztanakaz Ejipto'ra joateko eragiñik; oster a luzea, egiz, neure ondarena ekarri eustana. Ontzi makurrak Ejipto ibaian geldi-azo nitunekoxe, ontziak zaintzen geratu eitezala lagun zintzoai agindu ondoren, barrandari ta ikerleak bialdu nebazan tertzioko bazterretara eskualdea aztertu egien. Baiña nitarrak, bakotxak bere oldeari jarraitu nairik, ejiptotarren lurralde edcr-ederrak ondatzen asi ziran; eurakaz eroiezan ango emakumeak eta aurrak, gizonezkoai eriotza emonik. Uriraiño eldu zan laster arein oi u ta garrazia. Bertakoak, txilio ta deaclarrak entzunaz, aratu ziran egun-argitzerakoan; zelaia bertatik bete zan oiñezkoz, zaldizkoz eta borontze ditzikorre;

oiñeztarriz poztu io dan Zeus'ek, igesi kaltekorra bialdu eutsen nire lagunai; eta, arrezkero, iñor be etzan azartu gogor egiten, nainondik gengoan zoritxarrez esiturik eta. An ii euskuezan ainbat eta ainbat gizaseme borontze zorotzez, eta beste batzuk bizirik eroan euskuezan, erritarren onerako lanetan hear eragiñez buztarpe astunean bizi eitezan. Ni an zan Dmetor Yasada izeneko arrotz baten eskuetan itxi ninduen; Txipre'ra croan nindun onek, inclar aundiz agintzen eban leé kura, ta andik etorria nozu, makiñatxu bat ezbear jasan ondoren.

464 Antinoo'k erantzun eutson:

465 Antinoo.—Zein jainkok ckarri dausku izurri ori, oturuntzako garraztasun ori? Zagoz or, erelian, nire maitik urrintxo: laster, barrito be, Egipto mingotsera ta Txipre'ra joan ez zaitezan, eskeko ain lotsabako ta ausarta zarealako, Orain, orren zoro emon daroatzuen oneitako bakotxaren aurrean geratzen zara, oparo be oparo esku artean darabillezan iñoren gauzak emoterakoan ez bait darabille neurririk, ezta errukirik oartu be.

472 Odis asmotsuak, atzera egiñez, eraso eutson:

473 Odis.—O jainkoak! Egi-egiaz darakusun zentzuna ez dator egoki emen. Zuk ez zeunke etxetik emongo, ezta gatzik be, eskatuko ba' leutzu, ainbat gauza esku mende eukirik, ogi-pizkat be ez daustazu emon nai izanda, iñoren maian jarriarik euki nozun oneri.

478 Olan mintzatu zan. Antinoo oraindik areago sumindu zan bere biotzean, eta, bctosko illuna zorroztuaz, itz ariñok bota eutsozan:

481 Antinoo.—Onezkero, ez dot uste, atzera biurtzerik daukazunik, ezta gizategi ontatik zigortzaka urteterik be, orrenbesteko iraiñak oguzia zarean ezkero.

483 Mintza zan; eta, aurkia arturik, bota eutson, eskumako sorbaldan, bizkar guenerantza joaz. Odis'ek, arkaitza iduri, tinko iraun eban, Antinoo'ren kolpeak bape ukurrik eragiteke; baiña ixillik buruari eragin cutson, bere kolko barruan asmorik txarrenak naasi ta irabioturik. Atzeratu zan beingoan ate-aurrera, lurrean jarri ta beterik eroian zakutoa ondoan itxirik, erauzi eutsen senargeiai:

490 Odis.—Entzuidazue, erregiñ gurenaren senargeiok, esan dagizuedan gogoak barne zuoi iragarteko eskatzen daus-

tana. Iñungo gizonek ez dau samiñik ariman, czta naigaberik be, bere etxaldeagaitik, bere idi naiz ardi zuriakaitik burrukatzean artutako zauriakarren; baiña Antinoo'k neu zauritu nau gizasemeai ainbat gaitz dakartsezan sabel iguingarri ta itsa dala-ta. Iñun jainkorik baldin ba'da ta Erini'k eskekoentzat, ora begio eriotzak Antinoo'ri, ezkontza amaira aurretik,

499 Antinoo, Eupite'ren semeak, egotzi cutson barriro be:

500 Antinoo.—jan egik, liare jarrita, o arrotz!, edo-ta oa beste nunbaitera: gazte oneik, diñokanagaitik, tatarrez oin batetik naiz esku batetik oratuaz, etxean zear erabillirik, gorputza osorik zauriz josi ez daizuen.

504 Orrela adierazo eban. Danak jarri yatzuzan asarre sumin, eta gazte arroputz areitako batek edu onetan itz-egin eban;

506 Abots bat.—Antinoo! Ez dozu ondo egin, ibiltari doakabea zaurituaz! Zentzun gitxiko! Eta, ausaz, zerutiko jainkotasunen bat ba'litzakizu? Jainkoak, bada, beste lurraldeetako arrotz-antza artu ta mota askotako itxurak eurekanduz, iriak zear ibiltan yatzuz gizonen litsabagekeria naiz zuzentasuna ezagutu naiez,

512 Onan mintzatzen ziran senargeiak, baiña Antinoo'k ez eutsen arein itzai jaramonik egin. Telemako'k atsekabe aundia artu eban bere bularrean zartako agaitik, ez yakon alan be negar-malkorik jausi begietatik zelaira; baiña buruari eragin eutson bere barru-barruan asmorik txarrenak irabioturik.

518 Penelope zurrak entzun ebanean, Antinoo'k gizategian arrotza zauritu ebala, onela jalgi eban bere mirabeen erdian:

521 Penelope.—Ai, Apol'ek, uztaz trebe danak, zu be era bardiñean zaurituko ba'zinduz!

523 Eurinome, jaki-zaiñak orduan esan eutson:

524 Eurinome.—Zuk naia beteko ba'litz, areitariko bat bera ez litzateke bizi izango aulki ederdun Egu-antza datorkenean.

527 Penelope zurrak erantzun;

528 Penelope.—Ugazabandre! Guztiak dituzu iguingarri egitada doillorak asmatu oi dabezalako; baiña Antinoo'k ia-ia

Balbe baltzak beste. Erbestetar doakabe bat dabil jauregian, ukar eskean, ezaldiak estutzen dau-ta; cnparuak curen emoiez bete eutsocn zakutoa, eta onek oin-aurkia jaurti dautso, eskumako sorbaldean emonik.

534 Orrela esan eban, bere egonlekuan mirabeen artean jezarrita, Odis jainkotiak aparria artzen ziardualarik. Eta gero, jainkozko txarrizaiñari dei egiñaz, esan eutson:

537 Penelope.—Zoaz, Eumeo jainkotiar; urrera zakioz arrotzari, ta neuk agurtu dagidan, datorrela esaiozu; itandu dagiodan, bai, Odis'ez ezer entzun dauan, eroapentsu aretzaz noski; edo-ta bere begiakaz ikusi eban bear bada, lur askotaz alderrai ibillia baita.

542 Eta zuk, Eumeo txarrizain orrek, onela erantzun zeuntson:

543 ameo.—Ixillik ba'legoz bein, o erregiñ!, akeutar-rak; gauza ain ederrak edestu oi ditun ezkerro, lillurazoko leus-kizu biotza. Iru egun ta gau neure bordan eukia dot, izontzi-tik iges egiterakoan neugana jo ebalako aurrenik, baiña orrela be ezin amaitu izan eban bere zoritxarren edeskizuna. Bertso-lari bati, jainkoak argituta, entzuten yakonez, ilkorrai gota-bera ta edesti atsegingarriak abestu ta oneik kantu orregaz iñoiz be aspertzen ez diran lcz, edu orretan euki ninduan ni be, lilluratuta, nire sarioan iraun eban guztian. Odis aitaren arrotz izan zala diño, ta Kreta'n bizi dala, Minos'tarren lei-ñua datzan tokian. Andik dator orain, ezbear asko jasanik eta andik-ona ta emendik-ara itxibarik ibiili ondoren; eta, Odis'ez jarduten entzun ebalala diño, bizi dala oraindik, ur dagoala (tesprototarren eskualde aberatsean) eta bitxirik asko daka-zala etxe ontara.

557 Penelope zurrak jardetsi:

558 Penelope.—Zabiltz, eta etorri eragin egiozu ona, ori danori esan daistan neuri. Poztu beitez enparauak, atean jar-ririk edo-ta emen gizategian, poz-eztitan bai dauke biotza, euren ondasunak, ogia ta ardo gozoa, osorik zaintzen dirala-ko euren etxeetan, morroiak jana izan ezik; eurok, barriz, egu-nik-egun geure jauregira datoz etorri, idiak, ardiak eta auntz gizenak ilten dauskuez, jan-edate galantak ospatuz, eta zoroak lez ardaoa edanez, gauza asko ta asko iruntsi ta ondatu da-roaskuez, gure etxea ondamentitik askatzeko gauza litzaken gizon bat, Odis'en antzeko bat, ez daukagulako. Odis bere

sorterrira itzuliz ba'letor etorri, ez leuke asko luzatuko, bere semeaz batera, gizon onein geiegikeriak errotik kendu ta garbitu barik.

571 Olan mintzatu zan; eta Telemako'k usin egin eban gogorki, jauregiak izugarriro dardar egiteraiño. Barrezka asi zan Penelope, ta jarraian Eumeo'gana zuzenduz, esan eutson:

574 Penelope.—Zoaz, eta ekardazu ona arrotz ori. Ez ete dakusazu nire semeak nik esaniko itz guztietara usin dagiala? Orrek adierazten dau senargeien erailtza laster burutuko dala, batek berak be igesik egin bage eriotzatik eta Balbeen eskuetatik. Au be ba-dirautzut, biotzean artuko dozuna: Diñostana egia dala ezagutu ba'dagit, soin-gaineko bat eta alkon-dara bat jantzi oso ederrak.

581 Olan azaldu eban bere barrua; zirautsona entzunik, joan zan txarrizaiña, ta Odis'egana eldurik, itz oneik esan eutsozan:

583 Eumeo.—Arrotz aita! Penelope zurrak, Telemako'ren amak dei egiten dautzu; aren gogoak, bada, samiñetan dagoan arren, bere senarrari buruz zuri itaun batzuk eskatzen dautzuz. Eta zuk edestuko leuskizuna egia dala jakitera elduko ba'litz, soin-gaiñeko bat eta alkon-dara bat emongo dautzuz, euron premiñan zagoz-eta; aurrerantzean, gaiñera, erriz erri ogia eskatzen joanaz alikatuko dozu zeure sabela, nai dauanak eskupekoa emongo dautzulako.

591 Jankozko. Odis eroapentsuak erantzun:

592 Odis.—Eumeo! Nik pozik esango neuskio kontu-kontari Ikari'ren alabeari, Penelope zentzundunari gauza guztion egia, ezbear bardiñak igaroak gatean ezketiño, onen senarraren barri ondo dakit-eta; baiña senargei odolzaleen bildur nozu, onein ausarkeri ta goi-naia zeru urdiñeraiño jaristen bait dira. Oraintsu berton, ni iñori ezelango kalterik egiteke, etxean zear nenbillela, gizaki onek zartako mingarria emon daust, iñok be, ez Telemako'k, ez bestek ori galazo bage. Orrela, ba, emon burutara Penelope'ri, jakin-nairik urduri egon arren, itxaron dagiala jauregian eguzkia sartu arte; ta itandu dagidala orduntxe bere senarrari buruz eta itzuliko dan egunaz, bere aldamenean, sutondoan, niri be jarri eragiñik, nire jantziak bada egoera larrian aurkitzen dira, zuk ondo dakizunez nik neure eskariak lenengo zuzendu neutsazana zeu izan zintzazan eta.

606 Orrela esan eban. Txarrizaiña joan zan, itzok entzunaz batera. Eta ate-zubia igaroteko egoala, Penelope'k onela itz egin eutson:

609 Penelope.—Ez dakazu, Eumeo? Zergaitik ez dau nai ibiltariak? Bildurra sartzon ete dautso norbaitek edo-ta beste zer-edo-zergaitik erabe da jauregian egoten? Txarra yatzu ara ta ona dabillena lotsati izatea.

613 Eta zuk, Eumeo txarrizain orrek, jardetsi zeuntsan:

614 Eumeo.—Zentzunez itz dagi, ta berea lako jazome-nean beste edozeiñek pentsatuko leukena diño, ez geiago ez gitxiago, gizaki ain buru-arroen ausarkeriari txiri egin nairik. Eguzkia etzan arte itxaron dagizula, dirautzu. Eta askoz be oba izango da, o erregiñ!, zu bakarrik egotea, arrotzari itz-egin eta beraren erantzunak entzun dagizuzanean.

619 Penelope zurrak erantzun:

620 Penelope.—Ez, ez eban zoroki oldoztu arrotzak, dana dalakoak; ez dago ba inungo eskualdean, gizaki ilkorren artean, onela iraintzen dabenik, egitada doillorak eiorik.

624 Orrela mintzatu zan. jainkozko txarrizaina, Pendo-pe'ri gura ebana adierazo baizen laster, senargeiengana zuzendu zan, eta jarraian Telemako'ri bota eutsazan ítz arin oneik, besteak entzun ez egien burua arengana makur-azorik:

629 Eumeo.—O adiskide! Ni ba-noa txarriak eta zeu-reak eta neuriak diran beste gauza guztiak zaintzera; eta emen-goia bego zeure ardurapean. Baiña lendabizikoz gaizka egizu zeure burua, kalterik egin ez dagizuen zelan jokatu bear dozun ondo pentsaurik; gaitz askoren asmaketan diardue ba akeutarretatik ez gitxik: Zeus'ek onda begiz olakoak guretzat izurrite ta kutsu iguingarri biurtu baiño leen.

636 Telemako zurrak erantzus eutson:

637 Telemako.—Orrelaxe egingo da, aitaita. Zoaz apal-ostean, ota eguna urratzean opagai ederrak ekarriko dozuz; oraingo gauzen ardurea neuk izango dot, bada, ta baita ezil-korak be.

640 Orrela mintzatuz, Eumeo jarri zan osteria aurki diz-ditsuan; eta jan-edanez asetu ondoren, bere txarrietara biur-tu **zan**, ateko arresia ta maikidez ondo betetako etxea atzera itxirik. Dantza ta kantut, olgura atsegintsuan ebiltzan oneik, arrats-bera zan eta.

XVIII KANTUA

Odis eta Iro ikubilka

Errian ara ta ona ebillen eskale bat eldu zan orduan; onek Itaka urian eskatu oi eban ukarra, tripontzi ikaragarria zan —jan eta edan etenbakoan bizi zana—; garai aretan ez indar ez bizi-kemen, ez eban ezer, itxura naiko onekoa egoan arren. Arneu eritxon, jaio zanean bere ama agurgarriak izen ori

eutson eta; baiña gazteak oro Iro ezizenez dei egiten eutsoen, agintzen yakozan erreparriak egin oi ebazalako. Zalako arek, eldu zanean, Odis jaurti nai izan eban bere etxetik, onako itzakaz jorraturik:

10 Iro.—Oa ate ondotik, zaar ori-, cure burua laster ikusi ez dagikan anka batetik lotuta kanpora ateraten. Ez dok ikusten guztiak begiz keiñu dagistela, i narrastuteko zirika egiñik, eta ez dagidala lotsa nokalako? Baiña, tira, jagi adi, asarre-eztabaidan eskuetara jo ez daigun,

16 Betondo illunez so egiñez, erantzun eutson Odis asmotsuak:

18 Odis.—Errukarri! Ez dautzut kalterik egiten, ez itzez ez ostantzean; ez naukazu aurka emoten dautzuenagaitik, asko izanda be. Arman onetan biontzat dago lekua, ta ez izan iñoren gauzen bekaizti; iñola be eskeko anote bat zaitut neu lez, eta jainkotasunak dita oparotasuna bialtzen dabenak. Baiña ez nagizu larregi zirikatu eskuetara etorri gaitezan, ezta fine sumiña sustatu be: zaarra nozu-ta, bear bada odolez zikinduko dautzudaz bularra ta ezpanak; eta biar orrela atsedendzio geiago izango zeunke, ez dot uste ba Odis Laerte-semearen etxerako itzulia baieztuko zeunkenik.

28 Asarreak jota, erantzun eutson Iro alpertzarrak:

29 Iro.—O jainkoak! Tripazai onek bai autsez-eperdi itz dagiala; labako zarskillla dirudi! Gauza txar batzuk asma-tu neinkez beronen aurka: neure besoakaz jo-jo eginez, alba-

gin guztiak lurrera bota eragingo neuskioz, ereiñak ondatzen dabezan txarri eme bati lez. Lot adi beingoan, oneik ebatzi gagiezan burrukan. Baiña, zelan ik burrukan egingo gizon gazteago bategaz?

36 Tankera ontan alkar pikoka ari ziran, asarre be asarre, ate-zubi dizditsuan, ate jasoen aurrean, Oartu zan onetzaz Antinoo'ren jainkotasun deuna, ta irribarre gozoz jal ⁸i eutsen senargeiai:

40 Antinoo.—Adiskideok! Emen ez da egundo izan jainko batek etxeratu dauskun eduko jolasbiderik. Arrotza ta Iro mokoka dabiltz eta eskuetara etorri agiñean daukaguz: egin daigun burrukara daitezala, alik ariñen.

44 Orrela erasi eban. An ziran guztiak barre-algaraka jagi ta eskale baldro marroizen inguruan egokitu ziran. Eta Eupite'ren seme Antinoo'k onetara esan eutsen:

47 Antinoo.—Entzun, senargei argiok, jauki nai dautzuedana. Gantzez eta odolez beterik sutan aparitako ipiñi genduzan auntz-sabeletatik, aukera bei *nai* dauana, indartsuena lez garaille urtengo dana; eta gaurtik gero geugaz jango dau ta ez dogu itxiko, ukar-eske, beste eskale bat be ona sartzen.

53 Onan bota eban Antinoo'k, eta ango guztiai eder izan yaken ak esana. Odis asmotsuak, alan be, amarruak ausnartuz, olan itz-egin eutsen:

56 Odis.—O adiskideok! Gizaki urtetsu ta zori txarrez lortuak gazteago bategaz autsak batzea legezko ez dala be, sabel kaltezkoak ortara ziri dagist, emongo leuskiden asto zurarenak eta baltzarenak artu ondoren, lurra joko dodan burrukara. Ia, bada, agindua zorra da-ta, itz emon eidazue guztiok, zin-egite irmoz, iñortxok be, Iro'ri laguntzeko, ez naua-la esku astunez joko, bide-bagero jokatzuz eta ni aren azpira makur-erazteko indarra erabilliz.

62 Antz onetan mintzatu zan; eta guztiok zin'egin eben, agindu yakenez. Eta zin-egitea bukatu baizen laster, jainkozko Telemako adoretuak itzok jalgi zituan:

65 Telemako.—Arrotz! Zure biotz-kemenak ori erditik kentzeko beste indar ba'damotzu, beste akeutar iñori ez egiozu bildurrik izan; askogaz burrukatu bearko leuke ba zu joko zindukenak. Neu nozu emen arrotzak atosten dodazana, eta nire itzak onartzen dabez Antinoo ta Eurimako erregeak, biak oso zur.

71 Ak esana, guztiak aintzat artu eben. Odis'ek bere sakel-zarpaillak gerriratu ebazan, lotsariak estalduaz, eta bere iztar eder aundiak erakutsirik; orobat bere sorbalda zabal, bular eta beso sendoak be ikusgarri egin yakozan; eta Atene'k, aren alboraturik, gizonen artzaiñari azi ta ederragotu egin eutsozan bere soin-atalak. Oso miretsita geratu ziran senargeiak, eta euretatik batek esan eutson urrekoenari:

78 Abots bat.—Iro'ri, Iro zoribakoari laster etorriko yako berak billatu dauan txarra. Orrenbesteko iztarra agertu dau zaarrak, sakel-pistiñak kentzean!

81 Olan ziarduen autuan; eta Iro'ri gogoa lausotu yakon errukarriro. Baiña, alan eta guzti be, zerbitzariak indarrez gerrikotu ta erdira atera eben izu-ikaraz, aragiak bere soin-ataletan dardar egion eta. Antinoo'k orduan agiraka egin eutson, itzok arpegira jaurtiz:

86 Antinoo.—Oba ez ba'zintza, aupari aobero; oba jaio ez ba.'zintza, ikaraz zagoz ba, jarraika dozun zori txarragaitik, olako bildurra sartu dagitzula agure aulduak. Esatera noiana beteko da. Ori, indar geiago daualako, garaille geratuko ba'litz, ontzi baltz baten sartuta lurrasora bialduko zaitut, ilkor guztien izurria dan Eketo bakaldunagana; arek ebagiko dautzuz borontze odol-ixurlez sorra ta belarriak, eta era berean alderdiak be aterako dautzuz txakurrai gordiñik emoteko.

95 Ola mintzatu zan; eta Iro'ri aundiago egin yakon ikare-a, soin-atalak dardaraz jarte i-aiño. Erdira croan eben eta leikari biak jaso zituen euren besoak. Jainkozko Odis eroapentsua orduan oldozka jarri zan, Iro'ri arimea lurrera jausi-azoteko lakoxe zartakoa emon, ala beste samurrago bat, beera eratxirik. Eta ondo konturatu ondorean, leunkiro jotea izango zala obe iruditu yakon, akeutarrak ezagutu ez egien. Besoak jasorik, Iro'k kolpe bat emon eutsan Odis'i eskumako bizkar gainean; Odis'ek, oster-a, ikubilkada izugarria ezarri eutson Iro'ri garondoan, belarri azpian; onek azurrak ausi eutsozan an barenean, aotik odol gorria ugari bota-azoaz: jausi zan Iro, eta, autsean luze, agin-karraskada egin eban, ankakaz lurra oinkaturik; bitartean senargeiak, besoak jasoz, barrezka zezindu barenean egozan. Odis'ek, oster-a, Iro'ri oiñetik oratu ta atartetik zear bebarrura ta arkupelco ateetaraiño eroan eban ipurtandarez; an jezarri-azo eban ormeari eutsola, ta eskuan makilla bat ipiñiaz, itz ariñok egotzi eutsozan:

113 Odis.—Ago or jarrita, txarriak eta txakurrak uxatze-ko; eta ez egik, ain txatxarra azalarik, arrotz eta txiroen jaun izan nai: oraingoa baiño kalte aundiagoa oraindik eure gaiñ era-karri ez dagikan,

117 Esan eban; lepotik dingilizka jarriaz zuloz beteriko zakuto koipetsua, bere kordel biurriaz, ataurrera itzuli ta an artu eban jarlekua. Eta poz-atsegin aundiz barre egien enpa-rauak be araturik, itz oneikaz jai egin eutsoen:

121 Senargeiak.—Zeus'ek eta jainko illezkorrak emon bei-tzue, o arrotz!, zuk guragoen dozuna ta zeure barruari eder yakona, eskale asegaitz ori errian geiago eske ez ibiltea lortu dozu-ta; lurrasora, ba, eroango dogu beingoan, Eketo erregeaga-na, ilkor guztien izurri danagana nunbait.

127 Ola esan eben; eta jainkozko Odis'ek arnasa artu eban, aurre-zantzu orrekin. Antinoo'k sabeltzar itzala jarri eutson aurrean, gantz eta odolez betea; Anfinomo'k, oster, ogi bi cskiñi eutsozan, saskitik aterata; ardaoa be urrezko txolean eskiñiz, edu onetan itz-egin eutson:

132 Anfinomo.—Agur, arrotz aita! Aurrerantzean, zaitez doatsu, orain arte zori txarrez abaildurik ibilli zarean ezker.

134 Odis asmotsuak erantzun eutson:

135 Odis.—Anfinomo! Txit sen onekoa emoten daustazu, alako aitaren semeari dagokionez. Duliki'ko Niso'k eban zan-gar ta aberats entzute ona iritsi zan nire belarrietara be; ak sortu bide zaitu, ta egi-egiaz zure itxura gizaki txerakor batena danik ezin daikegu uka. Beraz, gauza bat esan hear dautzut; oar ha zuk adi-adi entzun daklazun. Lurrak ez dau gizona baiño beerago abererik azten, zelai-gaiñean arnas artu ta zirkin cíagienen artean. Gizonari ez vako begitantzen, jainkotasunak poz-atsegiñez ornidu ta bere belaunak igitzen diran artean, ezhearrak he igaro hear dituanik; baiña jainko zoriontsuak ezbearra bialdu dagitsoenean, nai ta nai ez bera le ^poratu bear dau, ta barne eroa-pentsuz leporatu be; lurreko gizakien gogoa, alan be, gizonen eta jainkoen aita dakartsen eguna lez aldatu oi yatzu. Neuk be, beste orduz, doatsu izan bear neban gizartean; haina gaiztakeri sarritakoak jauki nebazan, neure indar-aginpidez baliaturik eta neure aita ta anaiengan uste ona izanik. Ezpedi, ba, iñortxo be zuzen-eza izan ezertan; bai, oster, gozatu zarata bage goitarrak emoniko ondasunak, Dakustanez, senargeiak, neuk diñotzut,

bere adiskide ta aberritik urrun, geugandik ur-ur dago-ta, luzaro egongo ez dan gizaseme baten ondasunak txautu ta aren emaztea be irainduz, gatzak eta gatzak asmetan diardue. Oba jainko batek zeure etxera eroango ba zinduz eta asaben lurrera datorkenean aregaz aurkituko ez ba zintza; bere bizitegiko teillatuplean bizi izaten barriz asi ordukoxe senargeiakaz bide emongo dautsan burrukea ez da, ziur asko, odol bakoa izango.

163 Orrela itz-egin eban; eta, ixurketa egiñik, ardo gozotik edan eban, txola ostera be gizasemen printzearen eskue-tan jarriarik. Au etxean zear joan zan, biotz mindua ta buruari eraginka, barruak ezbear ta zoritxarren zantzu emotson eta; origaitik, alanbe, ez eban eriotzatik iges egingo, Atene'k eutsi eutson ba, Telemako'ren eskuz eta lantza sendoz azpiratua jausi zedin. Orduan, orraitino, len euki eban jarlekuan jarri zan harriro be.

171 Atene'k, ontz-begidun jainkosak, bitartean, Ikari'ren alaba, Penelope zurraren biotzean sar-azo eban senargeiai bere burua erakusteko guraria, arei barrua bizi-bizi poztu eragin eta beta inozkorik geien bere senarrak eta semeak omendua izan zedin. Barre egin eban Penelope'k zergaitik ez ekiala, ta itzok bota zituan:

177 Penelope.—Eurinome! Nire gogoak orain, leen opa ez ebana gura dau: ikus daidazala senargeiak, danak ezesgarri yatazan arren. Oarkizun bat egin nai neuskio neure semeari, onurakor izango yakona: ez dagiala jarranco ar-emonik izan itz politak esanagaitik egipen gaiztoak asmetan diarduen arroputz oneikaz.

183 Eurinome jaki-zaiñiak erantzun:

184 Eurinome.—Bai, alaba, txit egoki datorrena da adierazo dozun ori. Zoaz, egiozu zeure semeari oarkizun ori, ezer-txo be ixildu bage, baiña ikuz lendik zeure gorputza, ta igurtzi zeure matrallak: ez zaitez aren aurrera eldu arpegia malkoz ezainduta; gauza txarra bait dozu beti ta atertu barik negar-rari, samiñari emotea, orain batez be zure semeak, zuk bizar-txukun ikusi al zeinkela jainkoai eskatzean opa zenduan adiña daukan ezkerro.

191 Penelope zurrak jardetsi eutson:

192 Penelope.—Eurinome! Neure ona arduratsu billatzen dozun arren, ez eidazu orrenbesteko gauzarik (neure gorputza

ikuzi ta orioz igurtzi naizenik) eskatu, a izontzi makurretan oan zanean, bada, Olinpo'n bizi diran jainkoak ondatu eben nire edertasuna. Baiña Autorice ta Hipodam.i'ri esaiezu ona etorteko ta areik lagun egingo daustie jauregian barna; bakarrik ez nintzake joango-ta gizonak dagozan lekura, lotsarren.

199 Ola mintzatu zan; eta atso zarra jauregian barna joan zan, emakumeai etozala esatera.

201 Atene'k, ontz-begidunak, orduan, beste zerbait agindu eban. Lo gozoa íxuri eutson Ikari'ren alaban; au oian geratu zan erdi-etzunda, ta soin-giltzak oro nasai-nasai egin yakozan. Jarraian, jainkosen artean jainkotia emoi illezkorrez ornidu eban, akeutarrak miretsi egien: batetik bat, anbrosiz ikusi eutson betartea, onek bada gertu oi dau edertasuna, Kitere, uztai txairocluna, Esker saldo maitagarrira doanean igurtzi oi danez; eta gero, luze ta lodiago agertu cítela egin eban, eta zurikeraz marfil landu-barria baiño be zuriago. Ortaz, joan zan jainkosen artean jainkotia.

231 Etxe-barnetik eldu ziran, autuan, edur-antzeko besodun mirabeak; lo gozoak itxi eban Penelope, ta matrallak igurtzirik, gisa onetako itzak jalgi zituan:

217 Penelope.—Lo-gura leunak garaitu ninclun, ain neke-larritan nagoan arren. Ai, Artemi aratzak oraintxe berton emongo ba'leust antzeko eriotza leuna, akeutar guztietan nabariena neban neure senarra edertzen eben mota guztitariko gaitasunik bage aurkituaz, neure bizi barne-alaka aitu ez dagian.

224 Au esanaz, goiko etzangu yaukaletik jatsi zan, ez bakarrik, mirabe bik lagunduta bainor Emakumeen artean jainkotia senargeiak egozan lekura eldu zanean, gogorki eregitako sapaia eusten eutson zutoin aurrean geratu zan, matrallak zapi bikainez estalduta, albo baktxean mirabe deduzko bat eukalarik. Senargeiak oro belaun-dardar gelditu ziran, maitasunarren euren barruak lilluratuta nunbait, eta danak nai eben Penelope'kin berberaren oian etzun. Baiña, arek, ecíu onetan itz-egin eutson bere seme maite Telemako'ri:

234 Penelope.—Telemako! Dagoneko ez daukazu ez naimen sendorik, ez zentzunik. Aurtzaroan zengozala, gogoeta zentzunezkoagoak irauli oi zenduzan zeure buruan; baina orain nagusiago zareala, gaztaro-gaztaroan zaukadaz-eta, arrotz batek, zure gizon betea ta edertasuna ikustean, semea zaitun aita doa-

tsu etsiko leukena, zuk ez dozu erakusten gogo artezik, ez zentzunilc. Zelako egikunea burutu dan gizategi onetan, zuk laga-ta, arrotz bat olan barrcgarri erabillia izanik! Zer jazoko da gure etxean legoken arrotzak olako irain-alamena eroan bear ba'leu? Zeure gain jausiko dira lotsa gorria ta izen txarra, gizarte osoaren aurrean.

246 Telemako zurrak erantzun:

247 Telornako.—Ene Zu mindua egoteak ez daust asarrerik sortzen; baiña nire barrenean onezkero ezagutu ta ulertzen ditut gauza on eta txar asko, oraiñarte bada urne bat izan naiatzu. Alan eta guzti be, ezia yat oro zurtasunez, ingun_ian dodazanak bait nabe nr,stuten, gaíztakeriak asmatuz, eta ez daukat nok laguntza emonik. Arrotzak Iro'gaz euki dauan burruka etzan egin senargeiak olan erabagi ebelako, ta a izan zan indartsuagoa. Oba, Zeus aita, Atene, Apoll, senargeiak garaituak izan balitzaz jauregi on _{tan} e_{ta}, ba _t zuk larrinñean eta beste batzuk sala barruan balegoz, buruz beera ta soin-atalak zart-eragifiik; or larrinñao are ondoan luze, ordi antzera buruari aragitson Tro lez nunbait, zutik jartelco, ez joan oi zan bidetik etxeratzeko be, gauza ez dala, gorputz-atalak ler-azota daukazalako.

263 Onclako autuan ziarduen. Eurirnalc'o'k, ostera, itzokaz mintzatu yakon Penelope'ri:

265 Eurirnako.—Ikari'ren alaba! Penelope zur! Akeutar guztiak ikusiko ba'zinduez Yaso'ko Argos'en, goiz-goizetik jan-eclateak zure jauregian egingo leukezan senargeialc askozaz be geiago izango litzatekez, zeure edertasun eta zentzun onarren emakumeen artean nabarmen zaitugu-ta.

270 Penelope zurrak erantzun:

271 Penelope.—Eurimako! Nire lilluramen eta zorabi-deak (gorpu tzeko edertasun eta txairoa) illezkorrak deuseztu ebezan argibotarrak Ilion'erako urtenik, nire senar Odis he areikaz joan zanean. Onek, etxera biurtuz, nire biziaren axola baleu, aundi te ederragoa litzake nire aintza. Orain lurjota naukazu jainkoren batek bialdu daustazan gatxakaitik. Odis'ek, egia esan, asaben Turra iztean, eskuetatik oratu ta tankera ontan mintzatu yatan: «O emakurne! Ez dot uste zango-babes ederdun akeutar guztiak, osasuntsu te bizirik, Iroia' tik itzuliko diranik; teukrotarrak, bada, burrukalariak ei dira

oso, azkonak eta geziak erabilten trebeak, eta zaldi bizkorren burdiz burrukatzen be ikasiak eta, ba-dakizu, oneik erabagi oi dabe lasterto burrukaldi setatsu ta ezkaitor baten azkena, Ez dakit, beraz, jainkoren batek etxera biurtzen itxiko ala Troia'n kukuak joko claustan. Emengo guztia, zeure pentzutan geldituko da; gogora egizuz, jauregian bizi zareño, neure gurasoak, oraiñarte egin dozunez, edo-ta are geiago ni urrin nazan bitartean; eta gure semeak bizarra agertutxe dankala ikustean, ezkondu zaite nai dozunagaz eta itxi egoitz au». Onela itz-egin eban arek, eta guztia doa beteaz. Etorriko da nik, o doakabel, nazka be nazka dodan ezkontza ospatuko dan gaba, niretzat, Zeus'ek zorion guztiz bagetu nauan onentzat. Baiña biotz eta arimaraiño eltzen yat gaur atsekabe izugarri bat, leen bada ez ziran orain lez agertzen senargeiak. Emakume guren, gizaseme aberats baten leiaz dahiltzanak, eta berau jaristearren zein-geiagoka ari diranak, idi ta ardi gizenak ekarri oi dabez emaztegaiaren adiskideai oturuntza eskintzeko, ari bezuza galantak egiñik, eta iñoren ondasunik ez dabe irunsten ezeren zigor barik.

300 Orrela esan eban; eta jainkozko Odis eroapentsua poztu egin zan bezuzak atera ta itz ezriz gogoa atsegin-azo euselako, naiz-ta oso bestera izan berak buruan erabil/ena.

304 Antinoo, Eupite'ren semeak erantzun eutson:

305 Antinoo.—Ikari'ron alaba! Penelope zur! Gogor ar egizuz edozein akeutarrek lekarskiz-uzan bezuzak, ez bait dago ondo emoi bat aintzat ez artzea; baiña gu ez gara soloetara biurtuko, ezta iñora joango be, zu akeutarretatik onenagaz ezkondu zaitezcan arte.

311 Orrela adierazo eban Antinoo'k; gogoko izan yaken danai esan ebana, ta bakotxak here otsegillea bialdu eban emoiak ekarri egitsozan. Antinoo'renak besana aundi bat ekarri eutson, eder-ederra, bitxiro egiña, urrezko amabi belarri eukazana, ondo biurritako obo galantez eutsira. Eurimako'renak ondoren lepoko bat okarri eutson, bikainki landua au be, urrezkoa, elektrun gardañatuta. eguzki baten kideko. Zerhitzari hik iru arri aundidun zirzillu bar zuk ekarri eutsoezan. Euridamante'ri begiak baizen aundink, pertxentak, dizdiz eskertsu ederdunak. Pisandro Poliktorida'ren etxetik idun-erestun bat ekarri eban morroi batek, apaingari txit bikaiña, eta beste akeutar batzuk beste hezuza batzuk hialdu ebezan euren aldetik.

Eta emakumeetan jainkotia goiko etzangura itzuli zan gero bere mirabeakaz, esku-erakutsi eder bikaiñak eroanik.

325 Senargeiak barriro be curen dantza ta kantuari ekin eutsen, jolas ta pozkario, gaba noiz elduko zain. Eldu zan au, illun oindiño jolasketan eragoioela, ta orduan iru argi-mutil egokitu ebezan aretoan, argi egin egien, egur legorra moltzotu eben arein inguruan, antxiña ebagia, oso gogorra, eta oraintsu borontzez zatitua, zuziak he onegaz nastaurik, ta Odis eroapentsuaren mirabeak, txandaka euken sua zaintzeko ardura. Onei esan eutsen Odis'ek, Zeus'en leiñukoak:

335 Odis.—Odis'en neskatillak, aspaldi danik urruti dan erregearenak! Zoaze erregiñ agurgarriaren etzangura ta, goruai bira eragiñik, poztazi egizue bera, aren gelan jezarrita, edo-ta kardatu artulea zeuon eskuakaz; neuk argi egingo dautset ba emen dagozan guztiai. Aurki ederclun Egu-antzari itxaron nai ba'clautsoe be, ez nabe nekeraziko, asko he asko eroaten egiña nago-ta.

342 Orrela esan eban; barre egin eben areik, batac bestea begiratzuz, eta Melanto'k, matrail ederduak, zakar agiraka egin eutson: Doli'k sortua zan au, eta Penelope'k bere alaba lez azi ta ezia, gogoa jolas-eragin al leikeon guztia jori ta sendo emonik; guzti orregaz be, baiña, ez zituan erdizkatzen Penelope'ren lor eta naigabeak, maitale eban Eurimako'gaz alkartu baiño. Onek, bada, miñ-erazo eban Odis itaun-itzakoz:

349 Melanto.—Arrotz zirtzil! Zentzun barik zagoz eta sutegi batera edo Leske'ra lo egiten joan bearrean, berba dagizu emen naroro ta gandor oiezez ainbeste ^sizakiren aintzinean, bape lotsatu barik: edo ardaoak nastu dautzu buru-rnuiña, edo izakera onetarikoa zaitugu, ta origaitik difinskuzuz esaten dauskuzuzan tentelkeriak. Ir - bidaztiaren aurka jadetsi zenduan garaipenak, hear bada, aize-puztuten ete zaitu? Koné tuz gero, Tro baiño bulnrtsuen bat ots-otsean jagi ta, bere esku giartsuz zu buruan jo ta odolez beterik, etxetik jaurtiten etzaituan.

359 Betondo-makur begituz, Odis asmotsuak deadar:

361 Os.—Oraintxe berton noa, sats ori!, diñozuna Telemako'ri edesten, ementxe berton zati-zati egin zagizan.

363 Onan esanik, uxatu zituan here itzakaz ango emakumak. Joan ziran oneik etxe barnera, bernak izu-ikaraz dardar

ebezala, benetan itz-egin ebala iruditzen yaken eta. Odis, oster, zuzi-mutil ixiotuen ondoan geratu zan, argiak zaintzen eta an aurkitzen ziranengan begiak zorrotz, burutu barik geldituko etziran beste gogoeta batzuk barruan iraditzen zitun bitartean.

370 Baiña garai aretan be, ez eban itxi Atene'k, senargei gurenak irain neketsutik osotoro alde egin egien, atseka-beak oindiño be geiago sarrin-azo egian Laerte'ren seme Odis'en biotza. Eta Eurimako, Polibo'ren semea, itz-artu ta onela asi zan Odis'en lepotik barre egiten, bere lagunai barre-gurea sort-azorik:

376 Eurimako.—Entzuidazue, erregiñ aundikiaren senargeiok, zuoi azaldu dagitzuedan gogoak bular-barruan zuoi esateko agintzen daustana! Gizaki ori etzan Odis'en etxera etorri jainkoak eragin barik. Zuzien dirdira beragandik eta bere burutik, onezkero ondo soil daukan aretatik urtengo ba'litza lez, iruditzen yat.

382 Esan eban; eta ondoren, Odis'i, uri-ondatzailleari, itz-egin eutson gisa onetan:

384 Eurimako.—Arrotz! Neure otsein izan gurako zeunke neure solo-bazter batean, alogerean (oso ona emongo neuskizu) artuko ba'zindudaz, esiak lotu ta zugatz aundiak landatzen? Neuk erreztuko neuskizuz urte guztiko ogia, jantziak eta oiñetakoak. Baiña egintza txarretan trebe ta aditua zareanez, ez dozu nai izango lanari lotu, erriz erri limosna eskatu baiño, zeure sabeltzar ase-eziña olan bete al izateko.

391 Odis asmotsuak erantsi eutson:

392 Odis.—Eurimako! Uda-aroan, egunak luzeen diranean, guk igitai-arloan leiatsu bear ba'gendu alkarrekin, eta nik ba'neuko igitai ondo makur bat eta zuk beste bat lan-saillean geure indarrak neurtzeko, eta baraurik geratuko ba'gíña illunabarreraiño, eta bedarrak ez uts-emon; edo-ta, ule-antz dir diratsuzko idi galant batzuk, aundi ta bedarren ondo okituak, adin eta zamatan bardiñak, indar ez gitxikoak, lau alogerako ta lurak goldeari amor-dagi_tson giro oneko solo-zati bat landatzeko zuzendu bear ba'nituz: an ikusiko nindukezu golde-aska ez etena urratzen. Eta era berean, Kronion'ek gaur guda bat edozein lekutan sort-erazeko ba'leu, ta nik ezkuta bat, lantza bi ta neure giltzetarako ondo letorken borontzezko oskol bat euki, burrukan ondoen eta aurrenengoen dabilzanakaz naste

ikusiko nindukezu, eta orduan ez zeuskide akarrrik egingo, orain lez, neure sabelarren. Baiña zu guztiz lotsabako zauka, daz gaur, biotz-gogorreka zara, ta bear bada aundi ta sendotzat ciauказu zeure burua, gitxiren artean zagoz ba ta ez oberenen artean be. Odis ba'lioа itzuliz bere sorterríra, ate am aundi oneik estuak izango inzakizuz, zu atalondotik igeska joatean.

413 Orrela mintzatu zan. Sumiñak jo eban are geiago Eurimako bere biotzean eLa, begi biurriak aregan josiz, itz aríriok egotzi eutsozan:

416 Eurimako.—A, zori txarreko! Ainbeste gizakiren aurrean eta bape lotsarik erakusteka, ausart oso itz-egitegaitik merezi dozun zigorra laster ezarri bear dautzut; edo ardaoak buru-muiña artu dautzu, edo, izakeraz zara orrelaxe, ta orixegaitik diñozuz esandako tentelkeriak. Iro bidazti alperraren aurka jadetsi zendun garaipenagaitik, bear bada, arrolzen etc zara?

422 Solasketa au atnaitzean, oin-aurki bat artu eban; baiña, Odis, bildurrez, Anfinomo cluliketarraren belauñetan jazarri zan ezkerro, txolaria jo eban eskuiko eskuan: onen pitxarra beera jausi zan burrunbada aundian, eta bera be, garrazika, autsean erori zan sorbaldaz atzera. Senargeiak zarata izugarria ateraten eben areto illunean, eta euretatik batek bota eutsen urren eukonari:

429 Abois bat.—Oba arrotzarenak egingo baleu, emendik urrin arat-onat, ona eldu izan barrio leen; ez eban orrela, zalaparta au sortu izango. Orain eskekoakaitik gabiltz liskarrean; eta jan-edanean bertan be ez dogu ezetariko atsegiñik izango, txarrena garai dalako.

434 Eta jainkozko Telemako saiatsuak esan eutsen:

436 Telemako.—Zori gaiztokoak! Zoratu egin yatzue, ta zuen barrenak ezin ditu onezkero janaren eta ardaoaren ondorenak ezkutuan euki: jainkoen batek akuillutzen zaitue, ezbai barik. Baiña, ederto jan dozuen ezketiño, beioa bakotxa bere etxera, gogoak damotsanean; nik ez bait dot iñor bota nai.

442 Au esan eursen; eta ezpanak aginkatu ebezan danak, arrituta nunbait, Telernako'k ain urtento ta zorrotz itz-egin eutselako. Ta Anfinomo'k, Niso A.retiada erregearen semeak, onela sustatu zituan:

446 Anfinomo.—Adiskidsok- Ezpei iñor sumindu, Telemako'ren esan artzai aurkako errazoiak jarriaz; ez egizue, gairera, txarto artu arrotza, ezta jainkozko Odis'en etxean bizi diran morroietatik iñortxo be. Baiña, tira, asi bedi ardao-banatzaillea txolak ateraten, ixurketak egindakoan, geure etxetara joan gaitezcan; eta arrotza lotu daitela Odis'en jauregian, Telemako'ren peko, onen egoitzera bait zituan bere urratsak zuzendu.

455 Onela mintzatu zan; eta guztien gogoko izan zan aren itzaldia. Muli gizurenak, dulikiar otsegille ta Anfinomo'ren morroi zanak, kratera baten nastau ebazan edariak, eta an egozan guztiai eskiñi eutsen, bakotxari egokionez banandurik; eta areik, jainko zoriontsuai ixurketa egin ondorean, ugari edan eben ardao gozotik. Eta ixuri ta nai aMa edandakoan, bakotxa bere etxera baru zan oeratzeko.

XIX KANTUA

Odis eta Penelope autuan. Euríkle'k ezagutzen dau Odis

Jauregian gelditu zan Odis jainkotia, eta, Atene'kin batera, senargeien sarrasketa eban gogotan, itzetik ortzera Telemako'ri itzok esan eutsozanean:

5 Odis.—Telemako! Barrura eroan bear dita guda-izkillu danak eta ziria sartu senargeiai, euronak bage aurkitu ta nun diran itauntzerakoan, esanez: «Keetik urrin croan ditut, dago-neko ez daukie ba Odis'ek Troia'ra abiatu zanean itxi zituan antzik be; suak jo cbazan aldetik itxusi-itxusi dagoz. Beste jainlcotasunen batek, gaiñera, buruan jarri daust beste errazoi indartsuago au be: zuok, bear bada, orditurik, eztabaida bat sortu zeinkie, ta bata bestea zaurituaz, oturuntza ezaindu be bai, ta ezkongai-aroa noski; burdiñeak, berez darakar gizona».

15 Onela jalgi eban. Telemako'k aitag esana egin eban eta, bere iñude Eurikle'ri dei egiñik, gisa onetan mintzatu yakon:

17 Telemako.—Etxandera! Ia, euki eidazuz itxita emakumak euren geletan, neure aitaren izkillu bikaiñak beste ganbara batera eroan claidazan arte, kanpotik dan bitartean ba ez ditu iñok be zaintzen eta keak ugertu ta amiotzen ditu, Oraiñarte ume izan naz. Baiña suaren galdak oratuko ez datasen lekuan metatu nai neukez.

23 Bere iñude Eurikle'lc erantzun:

24 Eurikle.—O semc! Oba bai, zeure etxea zaindu ta zeure solo-landai iraun azoteko lain zurtasun jaritsia ba'ziria! Baiña, nor joango yatzu aurretik zuziaz, argi egingo leuskizuen mirabeai etorten zuk itxi ezik?

29 Telemako zurrak erantzun:

30 Telemako.—Arrotz ori; niretik jaten daben iñortxori be ez dautsot lagako alperkerian egoten, urriñeko lurraldeetatik etorria izanda be.

33 Orrela esan eban; eta itzik etzan urten Eurikle'ren ezpanetatik, gela erosoetako ateak beingoan itxirik. Odis ta onen seme gurena buru-oskolak, ezkuta maillatuak eta lantza zorrotzak barrura eroaten saiatu ziran, bertatik; aurean yoa. lcen Palas Atene urrezko argontziaz, argi ederrak emonik. Eta Telemako'k esan eutson bat-batez bere aitari:

39 Telemako.—Ene aita! Aundia da neure begiakaz dakusdan ikuskizuna: jauregiko ormak, zutoin-bitarte txairoak, izaizko abeak eta goi-goiko pillarak, su galdazkoak bai'li tzan agertzen ya taz begi aurean. Ezpai bage, zeru zabala daukien jainkoetarikoren bat egon bear dau emen.

45 Odis asmotsuak jardetsi eutson:

46 Odis.—Zagoz ixillik; galga zeure oldozkuna, ta ez eida-zu itandu; baiña onela jokatu oi dabe, egi-egiaz, Olinpo daukien jainkoak. Orain zoaz lotara, ta ni emen geratuko naz mirabeak oindiño be zirikatzeke, ta zure amagaz itz-egin dagidan; onek, bada, espak joteari ekiñez, gauza asko itanduko daustaz.

52 Ola mintzatu zan; eta Telemako jauregian barna joan zan, zuzi dizditsuen argitan, lo gozoak garaitzen ebanean lo egin oi eban etzangura zuzendurik: antxe ogeratu zan jainko-zko Egu-Antzaren zain. Odis jainkotia, barriz, gizategian lotu zan, eta Atene'kin batera senargeien ilketa erabillen gogotan.

58 Artemis edo Afrodita urreztatua zirudian Penelope bere gelatik urten eta sukalde alboan jarri eutsoen besaulki ondo landua. geienik jarri oi zan marpil eta zirarrezko apaiñez orni-dutakoa; jarleku au, antxiña. Ikmali ertilariak egiña zan, oiñentzako lenka bategaz, aurkiari itsatsia ta narru aundi bategaz estalduta. Antxe jarri zan Penelope zurra. Beso zuridun mirabeak, etxe barnetik elduaz, kendu ebezan ogi-mutxikin ugarriak, maiak, eta senargei buru-arroak edan oi eben ontziak, eta, zuzi-mutilletako txingar-moltzoak beean sakabanaturik, egurmordoak pillotu ebezan curen ingururumari, argia ta beroa emon egien. Eta Melanto'k bigarrenez akar egin eutson Odis'i:

71 Meianto.—Arrotz! Gogait eragingo dauskuzu oindiño gabaz be etxean zear ibilliaz, emakumen salatari? Oa atera, meko ori!, bekik naiko jan dokana, edo-ta laster jaurtiko abe ilintika.

75 Betondo illunez, esan eutson Odis asmotsuak:

77 Odis.—Doakabe ori! Zergaitik zatoz nire aurka, barru suminkor? Loi noalako, ausaz, jantzi dindirritsuz gorputza es-

tali ta errian zear eskean nabillelako? Bearrizanak naroa ortara, ta edu ortako dozuz eskekoak eta alderrai dabiltzanak. Neu be, bada, beste orduz zoriontsu izan nintzan gizartean, egoitz aberatsean bizi izan nintzan eta amaika bidar ukarra emon neutsien arat-onat ebiltzanai, zirala ziralakoak eta egozala egozan bear-izanean; orduan neuk be gizonak ondo bizi diran eta aberats izena emon oi dautsen konta-ezin ala zerbitzari ta beste gauza askotxo neukazan. Baiña Zeus Kronion'ek lur-jota itxi ninduan, orrela nai ebalako bakar-bakarrik. Zuk be, o emakume!, mirabeen artean orain arro zakarzan edertasun guzti ori galdu ez dagizun; zure etxeko andrea, zure aurka suak artu ta irrikaturik, zugaz ausart eta garratz agertu ez dedin; edo-ta Odis biurtu, itzuliko ete danaren itxarokizunik oindiño ba-da ta. Illa dalako, alan be, ez ba'letorkigu, aren seme Telemako aundi azia da, Apol'ek orrela nairik, eta jauregiko emakumeetatik bat be ez yako, txarra ba'litz, oartu bage lerrotik urtengo; badau orretarako beste urte.

96 Olan itzezin eban. Entzun eutson Penelope zurrak, eta itzok esanaz, agirakatu eban mirabea:

98 Penelope.—Lotsa galdu ori! Txakur-eme azartua! Jabetzen naiatzu bai, zeaztasunik pitiñenetan be, jauki dozun egite txar-txar orretzaz, eta zeure buruaz ordainduko daustazu. Ondo zenkian zuk, neure aotik entzun zendulako, sala onetan itandu bear neutsana arrotzak, neure senarragaitik; eziñago biotz-mindua naukazu-ta.

104 Esan eban; eta jarraian itzok zuzendu eutsozan Eurikle, jaki-zaiñari:

106 Penelope.—Eurinome! Ekardazu aurki bat, eta es-tal egizu bera narru-azal bategaz, arrotzak, bertan jarri-ekin dagian; baita niri entzun be, itaunak egin nai dautsodaz eta.

109 Olan mintzatu zan. Arduraz ekarri eban Eurinome'k aurki dizditsu bat, narru bategaz estaldurik, eta jainkozko Odis eroapentsua bertan jezarri zan. Orduantxe urratu eban ixilla Penelope zurrak, gisa onetan itz- egiñik:

113 Penelope.—Arrotz! Ezer baiño leen neronek egin nai dautzudaz itaunok: Nor zaitugu ta nungo lurraldetik zatoz ona? Nun dagoz uria ta zure gurasoak?

116 Odis asmotsuak erantzun:

117 Odis.—O emakume! Lur zabaleko ilkor batek be ezingo leuskizu azpirik jan, zure aintza ba zeru nasairaiño jaristen da, errege goragarri ta jainkoen bildur danarena lez; au da, gizaki asko ta saiatuan gain aginduz zuzentza garaille izan daiten alegintzen cianarena, bere aginpide ederraren babespean lur baitzak garia ta garagarra ugari dakartsonarena, zugatzak arnariz bete, ardiak kume jori sendoz zanpatu, itxaso arraiñez narotu, ta mende daukazan erriak zoriontsu yakoanarena. Baiña orain, zure etxean gagozan ezketiño, beste itaun batzuk egidazuz, eta ezaitez nire leiñua ta aberria zeintzuk diran jakin nana leiatsu: gomuta orreikaz nire biotzaren naigabeak aziagotu ez daizuzan, txit zori txarrekoa izan naia-tzu-ta, Ez da egoki, gainera, ni iñoren etxean zizpuruka ta espaka egotea, nunnai ta eten barik illeta joten ekitea oso txarra bait da: jopu-emeetatik bateren bat nigaz asarratu ez &din, edo zeu, eta esan ez daizuen negar-jarioz nagoala arda-ak adimena nastu eustalako.

134 Bertatik erantzun eutson Penelope zurrak:

135 Penelope.—Arrotz! Nire lillurak (edertasuna ta neu-re gorputzaren lerdentasuna) illezkorrak deuseztu ebezan argibotarrak Ilion'crako urten ziranean, eta nire senar Odis eurrekaz. Onek, etxeraturik, zainduko ba'leust bizitza, nire aintza aundi ta ederragoa izango litzateke: arras naigabetua nago, bada, jainkoren batek bialdu custazan makiña bat nekelorgaitik. Ugarteetan, Duliki'n, Same'n eta Zazinto oiantsuan agintea dabenak, eta urrindik ikusten dan ltaka'n bertan bizi diran gizaki urenak, neure atzetik dabiltz ezkondu naita, neu-re gogoaren aurka; eta etxea ondatu daroaskue. Au dala-ta, ez dot sarri arrotzen ardura aundirik, ezta eskaleenik, ez agiriko zerbitzari diran ots-egilleenik be; bestera, Odis'en bakartade miñez, gogoa aitua cloakit. Eurak ezkontzera leiatzen nabe, nik oster kaparra ta iruzurrak asmatzen luzatzeko. Lenengotan, jainko batek eraginda, jauregian asi nintzan ojal aundi, mee ta amaitu-eziña eunduten, eta onela mintzatu nakien orduan: «Ene gazte senargeiok! Odis jainkotia onezkero illa dala, itxaron, nire ezteguak lei-erazteko, miesa au bukatu daidan (ariak alperrik galdu *ez* dakidazan), eriotz izugarriaren Balbe ala-bearrekoak ez-ustez artu dagianean, Laerte gizurenak bere il-jantzia euki daian, Erriko akeutar emakumeren bat, ainbeste ondasunen jabe izandako gizasemea il-oeko jantzi barik lu-

rra artzen ikusita, asarratu ez dakidan!» Onela esan neutsen, eta eskuzabal areik ontzat artu eusten niñotsena. Une artatik, miesa aundia egiten emon oi genduan eguna, eta gabaz, zuzia kaz argitua nintzanekoxe, eun coia desegin oi neban. Modu onetan, iruzurra estaltzea lortu neban, eta nire itzak iru urtetan beintzat siñistu egin ebezan akeutarrak; baiña laugarren urtea eldu zanean, eta urte-aroak gertatzen asi, illebeteak eta egunak ez gitxi igaro, orduan, ezeren axolik ez daben nire mirabe zoroakaitik, arrapau ninduen, eta itz gogorrez agiraka egin eusten. Olan, ba, nik gura ezta be, oiala amaitu bearrean aurkitu nintzan. Orain eziña yat ezteguak ez egitea, ta onurakor litzakidan beste aolkui:k be ezin dot idoro. Nire gurasoak ernatu ta laster egin nai leukiez nire ezteguak, eta atsekabez dago nire semea gure ogasunak zelan irunsten dabezan ikusiaz, dagoneko gauza da ba etxea zuzentzeko ta Zeus'ek aintzaz beteten dau. Baiña, alan eta guzti be, esaidazu zeure ja. tornaeta nungoa zarean; zure gurasoak ez bait dira izango ipuin zarreko artea edo-ta arkaitza.

176 Odis asmotsuak erantzun eutson:

177 Odis.—Laerte'ren seme Odis'en emazte agurgarri ori! Nire etorbide ta endaz itaunka ez ete zara aspertuko? Ea, ba, esango dautzut, larritzen nauan naigabe orregaz geitu arren be; orrela jazo oi yako, egiaz, nire antzera, luzaroan bere erritik kanpora danari, uraik eta uriak zear, beti erromes eta atsekabez josita, ibillitakoari. Bahía alan be, itandu daustazunari ta jakin nai zeunkenari buruz mintzatuko niaitzu.

185 «Kresal ardankoiaren erdian, itxasoz esituta, lur eder jori bat daukazu, Kreta; eta bertan asko, konta-ezin ala gizaki, ta larogetamar uri. Bestelako izkuntzak entzun oi dira bertan nasteka, eskualde artan bizi dira ba akeutarrak, bertako kretar gurenak, zidondarrak, iru leiñutan banandutako doritarrak, eta jainkozko pelasgotarrak. Urietan nabari da Knoso, oillo-lur aundia; beiñola emen agindu izan eban, bederatzi urtez, Minos'ek, Zeus'egaz mintzatu oi ebanak, eta neure aita-ren, Deukalion eskuzabalaren aita izan zanak. Onek sortu ninduan ni, baita Idomeneu erregea be, Atridatarrakaz batera, izontzi makurretan Ilion'era joan zana; Eton da nire izen argia, ta anai bietatik gazteena nozu a da bada nagusiena ta bulartsuena. Knoso'n ezagutu izan neban Odis, eta arrotz-txeratasuna be erakutsi neutson iñoizkoren baten. Troia'ra joian gi-

zurena, aizeak Malea'tik eldendu ta Kreta'ra eroan ebanean: eta orduan ainguratu ebazan bere ontziak kai arriskutsu baten, Amniso'ren ao-muturrean, Ilitia'ren arpca aurkitzen dan lekuan, eta ozta-oztan iges egin al izan eban ekaitz-adarretik. Joan zan beingoan urian zear, Idomeneu'gaitik itanduaz, auxen zan ba, iñoanez, etxakide laztan agurgarria; baiña orduko amar-amaika bidar agertua zan egunsentia bere ontzi makurrakaz Ilion'erako urten zanetik. Berealaxe eroan neban jauregira, arrotz-lege txcratsua egiñik (gure etxean danetik ugari egoan-eta); berari ta beragaz eroiazan lagunai uruna ta ardao baltza erriak erabat emon egioela, agindu neban, baita idiak be sar-raskitu ta orrela curen jan-gosea arindu egien. Akeutar jainkotiak amabi egunean egon ziran geugaz, Boreak bada txit gogor joten eban, lurrian be doi-doi zutik egoteraño. Jainko gaiztoren batek sustatua zan antza. Baiña amairugarren egunean ibitu zan aizea ta itxasoratu ziran barriro be.

218 Onela egokitzen eban bere edeskia, egi etziran gauza asko egia bai'litzan eclesturik; eta Penelope, eurak entzunik, begietatik negar-arpulu aundiak erre ta gorputza sapor-tzen yakon. Ain zuzen be, mendi garaietan, Zefir'ek barraiatu edurra, Euro'ren eragin gozoz urtuta ibaien tiraña aziagotzen dauanez, era barean malkoz urtzen ziran Penelope'ren matrail ederrak be, bere alboan eukon senarragaitik erostaka. Odis'ek, zotinka ziarduan bere emazteak errukia emotson arren, ermo eukazan bere begiak, adarrezko edo-ta burdiñezko bai'litzan, bctazalpean, eta malkorik ez agertzea lortu eban amarruz. Eta Penelope'k, negarrez ta intzíríz ase zanean, barriro itz-egin eutson onela:

232 Penelope.—Orain, o arrotz!, azterketa batera jarri bear zaitut jakin dagidan, zuk diñozunez, zeure jauregian atotsi zenduala nire senarra bere jainkoak ideko lagunakaz. Esaidazu zelako jantziak eroiazan bere soiñak, eta zelakoak ziran Odis bera ta ari jarraika joiazan lagunak.

238 Odis asmotsuak erantzun:

239 Odis.—O emakume! Gaitz da china cdestea ainbat denpora igarota gero; ogei urte dira andik alde egiñik, nire aberria itxi nebala; alan eta guzti be, esango dautzut zelan iduritu oi daua nire biotzak. Odis jainkotiak artulezko txakuxa eroian, bikotxa, purpu-margozkoa, zulo bi eukazan urrezko kaketxeaz: txabuxak aurreko aldetik txakur bat eukan margoztu-

ta, bere aurreko anka-artean oreinkume izpilduna, igesi gurata, eba'arik; eta guztiak miretsita lotzen ziran, biak urrezkoak izani, arek ito-zorion eukan oreinkumeari begiratzen eutsolako, eta onek oiñakaz indar egian, igesari emon naiez. Odis'ek gorputz biran alkondara bikain-bikaiña ekarren, kipula-mintza zirudiana, ain zan leuna!, eta eguzkiaren antzekoa zan aren dirdira; eta emakurnerik askok begia emoten eutsoen, arri ta belarri egiñak. Baiña beste gauza bat esan bear dautzut, gogamenean josiko dozuna: ez dakit Odis'ek jantziok etxean eroango ebazanik, edo-ta lagunetatik bateren batek emonak ziranik, bere oial-ontzian joan zanean, edo-ta arrotzen batek bear bada; Odis'ek, ba, ainitz adiskide eukazan, akeutarretan gitxi bait ziran aregaz bardiñean ipintekorik. Neuk be borontzezko ezpata bat bezuzatu neutson, baita tolostura biko txabuxa purpur kolorezkoa be, ta alkondara luzca; onen ondoren, agur egiten joan nintzakion begirune aundiz, tosta askodun bere izontziraiño. Bera baiño zerbait zarrago zan ots-egille batek lagun egiten eutson, eta esango dautzut zelakoa zan: bizkar-sartua, narru baltz ta ule kizkur, eta Euribate eritxon. Odis'ek bere lagunnen arteko beste iñor baiño geiago omendu oi eban, bi-biak pentsakera bardintsukoak ziralako.

266 Onan esan eutson, eta onek emakumearen negar-gurea geitu egin eban, Penelone'k hada ondo ezagutu ebazan Odis'k onen ziur emoten eutsozan ezaugarriak. Eta negar-zizpuruka ase zanean, itzokaz erantzun eutson:

270 Penelope.—O arrotz! Lendik be errukia neutzun, baiña aurrerantzean maitatua ta agurtua izango zara etxe onetan; neuk emon neutsozan ba diñozuzan jantziok, onda tolosturik neure etzangutik aterata, eta kakotxa dizditsua ipiñi neutsen, bere oillo-lurrera ta sukaldera biurturik nire begiak geiago ikusiko ez daben ari apaingarritzat izan ekion; adur gaiztoz joan zan ontzi makurretan Ilion galkor eta ezin-esaneko atara.

279 Odis asmotsuak jardetsi:

280 Odis.—O Odis Leartiada'ren emazte agurgarri! Ez eizu are geiago ezain zeure gorputz ederra, ezta zuzitu be zeure gogoa, senarragaitik intzirika; ez dautzut, egiaz, origaitik agiraka egingo, emazteak bada intziri dagi neskuts ezkondu ta beragaz semeak izan ditun gizona galdu daualako, baita Odis lakoa izan ezta be, au diñoenez jainkoen antzekoa gen-

duan eta. Itxi negarra ta adi nire itzai, leialtasunez mintzatu-ko naitzu bada ta Odis'en biurtzeaz dakidanik ez dautzut ezertxo be ixilduko; bizi da oindiño, ur dago (testropotarren lurralde aberats okituan) eta bitxikeri asko ta bikaiñak dakaz erritarren artean batu al izan dabezanak. Itxaso ardao kolorezkoan galdu ebazan bere lagun leialalc eta ontzi makurra, Trinaki ugartetik onantz egiterakoan, Zeus eta Eguzkia bere aurka sumindu ziralako, bere lagunak onein beiak sarraskitu ebezan-eta. Ur-zabaldi nastuan ondatu ziran enparauak, eta bere ontziaren gillan gainkatu zan Odis lur ermora bota eben olatuak, euren leiñuz jainkoen idelco diran feazitarren lurraldera; eta eurak goitar bat bai'litzan omendu eben biotz-biotzez, esku-erakutsi asko egin eutsezan eta bere etxera eroan nai izan eben bizirik eta osasuntsu. Eta onezkero (Mis emen egoan aspalditik, aberastasun ugari batzeko lur nasaian zear joatea onurakorrago iruditu ez ba'litzakion, gizon ilkorren artean ba nabarmen da bere maltzurkeriz, eta ez da iñor ari geiago egitekorik. Orrela esan eustan Fondo, tesprototarren bakaldunak, eta neure aurrean zin-egin eban, bere etxean ixurketak egiñez, itxasora emona eukela ontzia ta bere aberri-za zuzenduko eben lagunak be gertu egozala. Baiña neu bialdu ninduan aurretik, garitan jori dan Duliki'ra joian tesprototarren ontzi bat ein zuzen be ara joiana, bera eroateko eskiñi zan-eta. Odis'ek batu ebazan ondasun guztiak, gainera, erakutsi eustazan; areikaz, ain zuzen be, elikatu zeikean gizon bat ezeze, baita bere ondorengoak be amargarren belaualdiraiño: ainbat ziran errege aren jauregian eukazan gauza ederrak! Odis Dodona'n aurkitzen zala gaiñeratu eban, arte garaiaren bitartez Zeus'en naia jakin nairik, bere aberrirra, augandik luzaro samar bai egoan urrin, agirian edo-ta ixil-mixilka etortea egokiago izango zan jakin nairik nunbait. Bizirik dago, ba, eta laster etorriko da; ez, eztau luzaroan iraungo bere adiskidea-kandik eta aberritik aldenduta; eta gai oneri buruz, zin egin bear dautzut: Tekuko beitez Zeus, jainkoen artean garai ta altsuena, ta ni eldu nazan Odis akatsik bakoaren sukaldea, dirautzudan legez dana beteko danarena: Odis ona etorriko da aurren, gagozan illebetea amaitu ta urrengoa astean.

325 Penelope zurrak erantzun:

326 Penelope.—O arrotz!, diraustazun lez jazoko ba'litzakit, laster ezagutuko zeunke nire txeratasuna, ainbat bezuza

egingo neuskizuz ba, zugaz bidean aurkituko litzakezanak zoriontsu zareala esateko aiña noski. Nire barruak alan he aurrez (ligar gertatuko dana: ez Odis etorriko da etxe ontara, ez zuk jaritsiko dozu zeurera iñok eroaterik: jauregian ez bait dago iñor a zuzendu daiketanik, gizartean Odis zanez (guztia ames uts izan ezpazan) arrotz agurgarriak atotsi ta egokitzeke. Baiña zuok, mirabeolc, ikuz arrotza ta atondu egoitz bat, bere oge, hurusi, estalki bilcain ta gozti: ondo beroturik, urrezko aurkidun F,guantzaren agertaldia itxaron dagian. Biar, goizean goiztik, ikuz batir- be ta igurtz orioz; eta ementxe barruan jan dagiala, gizategi untan jarrita. Telernako'ren ondoan. Gaitz bekio ari, gogo txar asarrekorrez alarnena emon nai leuskionari, heme burua sumindurik erakutsiarren auxe izango litzakio-ta emen burutuko leuken azken-egikunea. Zer deritxokezu, o arrotz!, beste emakumai buru-argiz ta aolku zurrez alde aundia egin arren, orrela, zagozan lez, ain loi ta zarpailtsu jantzirik, jauregian jango ba'zendu? Bizitz laburrekoak dira gizakiak: biotz gogor-rak, zuzenbako jokatu oi dauanak, zer lortzen ete? Bizi dalarik, gizaki ilkor guztiak araoka alinean erabiltea, ta eriotz os-tean be danak laidotu ta txakurrenak esatea; baiña akats ha-koak, egin-egiñeko ta utsik bage ari danak, olakoak os ^Pe aundia jaristen dau, ta berak berean artu dituan arrotzak batez be zabal-azten dautsoe ospe ori gizartean oso ta askotxo izan oi dita una deitzen dautsoenak.

351 Odis asmotsuak erantzun eutson:

352 0(1;s--0 Learte'ren seme Odis'en emazteki agurgaria! Txahuxak eta ogegaiñelco estalki dizditsuak iguingarri yataz Kretalco mendi edurtuak itxi ta arraun luzedun itxason-tzitik alde neban ezketiko. leen legeztuneo naiatzu, be irik itxi hace gabak igaro oi nebazanetan letxe: olako askotan bada oge zirtzillean lotaratu nintzan, aurki ederclun Eguantz jainkotia noiz agertuko zain. Ezta ez vataz gogoko oiñetako baiñnrik he, ezta jauregian zerbitzari dabjltzanetariko emakumek ez ditu nire oiñak ikutuko zar-zarren bat eta gogoeta garbik-oren bat ez balego beintzat, eta eroapentsua gaiñera, nik beste bere barman croan izana; olakoari ez, ez dausat gazaloko nire oiñak ikutzea.

364 Penelope zurrak au erantzun eutson:

365 Penelope.—Artotz maite! Urriñetik nire etxera izan diran arrotz maitagarrien artean egundo be ez yat eldu izan etxe-

ra zu baizen oneko dan gizasemerik: ainbesteko garbitasuna ta sen ona erakusten dauste zure itzak. Molde ta ganora zurreko andra zartxo bat daukat, amak erditu ondoren bere besoetan artu, te doakabe a azi ta janaritu ebana, ab zuzen be: onetxek gar. bituko dautzuz oiñak, beronen indarrak clagoneko aultzen asiak diran arren. Tira, Eurikle zur, jagi ta garbi egizu zeure jaunaren adin-bereko gizaki au; Mis be, bada, oiñetan eta eskuetan antzera egon bear dau, ilkorrak zori txarrean bereziki azkar zarkuldu oi dira-ta.

376 Orrela mintzatu zan. Atso zarrak arpegia ostali eban esku biakaz, negarrari emon eta arrazoi kupigarri oneik jalgi ebazan:

379 Eurikle.---Ai, ene seme, ezin zaitut gaizkatu! Zeus'ek bear bada beste iñori babo gatxeretxi biziagoa artu eutzun, zure barrua jainkoekiko orren bildurtia izanagaitik. Iñungo beste ilkorrek ez ebazan zuk aiña iztar jori erre, tximistaz poztarazi oi dan Zeus'en aheretan, ezta ainbeste ta ain aukerako zuk eskiñi zeuntsozan lez, oskiñi be, zartzaro atsegingarri emon eta zeure serne ospetsua onda azteko bizia eskatuaz; eta orain era^sotzi dautzu, zeuri bakar-bakarrrik, aren itzuli egunaren argia ikustea. Nire jaunaren lepotik bear bada urrutiko arrotzaren neskameak, curen jauregi bikaiñera eltzean, barre egin eben gogotsu, txakur-emeok, o arrotz!, zuri ixeka dagitzauden Tez, eta orain ez dozuz entzun nai onein irain, itz-gaizto ta laido ugariak, zure oiñak garbitzeko olakoen eskuetan itxi nai ezta; orixegaitik neuk egin daitzudan gura dozu eta agintzen daust, ez gero neure naiaren gaiñetik, Tkari'ren a^tahak, Penelope zurrak. Eta olantxe, oiñak garbituko dautzudaz Penelope'ri berari te zeuri dautzuedan riza-lege ta itzalarren; barnean, bada, oar nazanez, gogoia darclarazten (latiste zure zoritxarrak. Baiña, tira, entzuizu cliñotzudana: zoritxarrez jositako arrotz askotxo eldu izan dira etxe ontara, baiña euretatik iñorennan be. ez dot ikusi zunan dakustan beste antz eta iduritu,, Odis' egaz, soiñean, abotsean eta obetan,

400 Odis asmotsnak au erantzun eutson:

401 Odis.---O atsoxtu! Orixe berori diñoe euren begi-beiakaz ikusi ginduezonak be: guztiz antzekoak gareala, zuk so-dozunez.

404 Orrela adierazo eban. Zartxoak, ondoren, oiñak ikusi ni ebezan mazelu ditzikor bat artu, ta bertan jario eban ur otza

ugari ta gero ur beroa ganetik. Odis, tartean, sutondoan jarri ta illunerantza biurtu zan bertatik, zarrak hacia, oiñetik oraturan, bertan eukon alako zauri-ondoko orbanaz konturatu ta guztia agirian geratu leitelakoaren bildurra sartu yakon izate-barruan. Eurikle bere jaunari urreratu ta garbitzen asi yakon, eta beingoan oartu zan, a Parnaso'ra, Autoliko ta onen semeak ikustera joan zanean, basurde batek bere agin zuriakaz egin eutson zauri-ondoaz. Autoliko ori, Odis'en amaren aita ospetsua zan, eta nabarmen zan gizartean ostu ta birao urtikan, Hermesek berak egiñiko esku-erakutsiak ncski, onen otrnez erre oi zituan ba axuri ta aumeen iztar atseginkorrak; jainkoa auxegaitik onbera yakon. Len-danik, bein, Autoliko Itaka uni aberatsera joan zanean, bere alabagancliko ume jaio-barri bat aurkitu eban; eta, apari ostean, **belaunetan ipiñi eutson**, era onetan itz-egiñik:

422 Eurikle.—Autoliko! Billa zuk orain izen bat, ain bi-ziro nai zenduan billobari jarteko.

424 Eta Autoliko'k erantzun eutson, esanez:

425 Autoliko.—Suin, ene alaba! Tar esango dautzuedan izena. Gizakume ta emakume askoren aurka asarratu ta gero ona eldu nintzan ezkerro, Odis (udigo) bedi ezarriko yakon izena. Eta mutil egindakoan Parnaso'ra doanean, nire ondasunak dagozan amaren etxe gurenera, areitatik zati bat emongo dautsat eta pozik bialduko dautzuet.

432 Auxegaitik izan zan Odis: arek emoi bikaiñak emon egitsozan. Autoliko ta bere semeak oso maitekor artu eben, bostekoa emonaz eta itz gozoak oguziaz; eta Anfitea, bere amaren aldeko amamak besarkatu ta burua ta begi lerdinak mosutu eutsozan. Autoliko'k bertatik agindu eutsen bere seme aintzatsuai gertu egiela bazkaria: eta areik aitaren esana beterik, bost urteko idi bat ekarri eben. Il eta beingoan gertau eben oturun-tza, dana zatitu, antzetsu-antzetsu ataltxoetan ebagi, burduntzietan ipiñi, arduraz erre, ta jarraian baktxari zati bana bannandu eutsoen. Egun osoan, eguzkia sartu arte luzatu zan jané edana; eta danak nai beste jan arren, ez yakon jñor ezertxo be palta izan. Eta, eguzkia etzan eta gaba etorri zaneboxe, ogeratu ziran eta lo-doea artu eben.

445 Goizaren alabea, larrosazko atzdun Egunsentia estalgetu zaneke, Autoliko'ren semeak eta Odis jainkotia eizara

joan ziran curen txakurrakaz. Parnaso mendi garai zugatzez estalira zuzendu ziran, aren muiño aizetsuetara laster eldurik. Eguzkiak dagoneko bere izpiz zauritzen zitun solo ta landak oro, Okean'en tirain nare sakonetik urtenaz, eiztariak ibar batean sartu ziranean: aurretik joiazan txakurrak, eiza-uzi ta lorratzean; etzetik., Autoliko'ren semeak, eta oneikaz, baiña txakurrekandik pizkat atzeratxoago, Odis jainkozkoa, lantza aundiari eragiola. Toki aretan aurkitzen zan etzunda basauntz eskerge bat; bertoko basarte txit trinkoa zan, aize-putzik ezkoenak be zearkatzen ez ebana, eguzki dizditsuaren erraiñuak be ez eben zauritzen, ezta euriak berak, osorik beintzat, ain zan zarri trinkoal; bertan egoan orrez gaiñ orbela ugari be ugari metatuta. Eizan arantza urbiltzen ziran gizonen eta txakurren oin-otsa basauntzaren belarietaraiño eldu zan; eta au, beresia etxirik, lepoko zurdak zut-zut eta begiak sutan, arei bide urtenaz, eurekandik ur-ur geratu yaken. Odis'ek, aurrenik ari ekiñaz, jaso eban bere esku sendoaz lantza luzea, a zauritzeko asmuz; baiña basauntza aurreratu yakon, baita kolpe bat belaun gaiñean emon be, eta, zearretara erasoten eban ezkerro, aragizatia urratu eutson bere ariñez azurrerariño iritxi barik. Odis'ek, orduan, eskumako sorbaldan emon eutsan, lantza dizditsuaren puntaz zearkaturik, eta autsean geratu zan ^siztia luze, bizia durik. Autoliko'ren seme kutunak jainko baten kide zan Odis akatsik bagekoaren biran moltzotu ziran, lagundu nairik: Ton] eutsoen arduraz zauria, odol baltzizka geldi-erazo sendaketa ariñez, eta danak gurasoen etxera biurtu ziran. Autoliko ta semeak, ondo sendarazi ondoren, bezuza ederrak egin eutsoezan, eta Insten bialdu eben pozik bere aberrira. Odis'en cita ta ama agurgarria benetan poztu ziran itzuli yakelako eta gama askori buruz itaunak egin eutsoezan, eta ~~zer~~ jaso yakon zauri a eroateko: eta ak zeatz meatz edestu eutsen zelan, Autoliko'ren semeakaz eizan Parnaso'ra joanik, basauntz batek zauritu eban bere agin zuriagaz.

483 Atsoak bere esku-barruaz zauri-ondo au ikutu ebanean, bertatik ezagutu ta jare ixti eban Odis'en oiña: berneak rnazkeluaren kontra emonik, durundu atera eban borontzenk, atzerantza makurtu zan ontzia, ta lurrera iausi zan uta. Pozak eta samiñak aldi berean estu eben Eurikle'ren biotza, begiak malkoz orbandu yakozan, abots zolia be ebagirik. Baiña nudo-ren, Odis'i okotzetik oratuz, onela itz-egín eutson:

490 Eurikie.—Zu Odis zara egi-egiaz, seme maite; ta nik ez zindudan ezagutu neure jauna oso-osorik esku oneikaz ikutu arte.

493 Esan eban; ta Penelope' gana zorroztu zitun begiak, etxe barruan eukala bere senarra adierazo nairik. Baiña arek ezin izan eutson antz emon ez somatu ostekaidetik, Atene'k gogoa barreiatu eutsolako. Odis'ek, atsoari lepotik elduaz bere eskumeaz eta ezkeraz beragana ekarririk, orlan itz-egin eutson:

499 Odis.—Etxandera! Zer dala-ta galdu nai nozu? Bai, zeuk zeure bularretan azi ninduzun, ta orain, neke-min ugari jasan ondoren, ogeigarren urtean eldu naz neure asaben lurre-ra, Baiña, zuk ulertu zendun ezkerro ta jainko batek bururatu eutzunez, zagoz ixillik eta ez bei iñortxok be jauregian orren barririk izan. Diñotzuduna jazoko da. Jainko batek senargei gurenak neure eskuz suntsitzeko ba'litu, zeuri be ez neuskizu parkatuko, neure etxandera izan ziñan arren, beste mirabeak jauregian ilgo nitukenean.

508 Eurikle zurrak jardetsi eutson:

509 Eurikle.—Ene seme! Zelako itzak iges egin dautzuen agiñen esitik! Badakizu nire gogoa irmo ta ezigatx dana, ta arri sendo bat edo-ta burdiña lez gordeko ixillekoa. Beste zerbait adierazo nai dautzut, zeure biotzean jarriko dozuna: Jainko batek suntsi-erazten ba'ditu senargei gurenak zeure eskuz, jau-regian zeintzuk emakume ez zaituen omentzen eta zeintzuk dagozan erruge, esango dautzut.

516 Odis asmotsuak erantzun:

517 Odis.—Etxandera! Zertarako izentatu? Ez daukazu orren bearrik. Neronek arakatuko ditut, atzazkalik atzazkal eza-gutu daidazan. Gorde ixilla, ta izan uste ona jainkoengan.

521 Onela esan eban; eta atsoa jauregian barna joan zan ur-billa oiñak garbitzeko, lenengo ekarria osorik lurrera jausi zalako. Ikuzi ta orio joriz igurtzi ebanean, Odis'ek barriro be sutara urreratu eban aurkia, berotzeko, eta dandar-pistiñakaz estaldu eban zauri-ondoa. Orduantxe urratu eban ixilla Penelope zurrak, onan mintzatuz:

528 Penelope.—Arrotz! Oindiño beste itaun batzuk egin-go dautzudaz, oso gitxi; laster datorkizu ba gozatsu lo egiteko ordua, nekatuta egon arren, begiak batuz lo gozoa egin al daua-narentzat. Jainkoren batek emon daust niri azkenbako atseka-

bea, egunez hada atsegiña artu oi dot negar-intzirika ta neure esku-lanak eta etxeko mirabeenak ikusiaz; baiña gautu ta danak lotaratzen diranean, neure oian natza ta kezka gogor mingarriak esitzen dauste biotz lcertua, negar-zotin izugarriak emon azorik, Pandareu'ren alabak, Aedon nabarskak ederto abestu oi dau uda-lenez, zugatzen ostotza naasian kokatua, un.ero aldatu daroan doiñu askotariko bese abotsa entzun-azten dau, ?tilo, Zcto errcgeagandik euki ta zurtasun-ezik borontzez il eban muskillagaitik negar-egiñaz; era henar, dago nire gogoa he, hurubide bat artzeko zalantzan, ez dakit ha ala neure semeagaz bizi izaten jarraitu ta gauza guztiak (neure ondasunak, neure mirabeak eta etxe aundi ta sapai jasodun au) zutik iraunazn ta zaintzen alegindu, ezkontz-oiarren eta ientearen zer-esanagaitik, ala j-'u-regian nire leia? eta eztegu- asko ta bikaiñak egiten clahilkidan akeutar onenagaz, joan onezkero. Nire semeak, mutiko gitxi-jakiña zala, ez eban nai izan ni ezkondu ta neure senararren bizitegi ontatik alde egiterik; baiña gaur-egunean, bere gazzaro-muñora eldurik adiñeko dan ezkerro, nik iaurenia izten nai dau, akeutarrak bere ondasunak o ro iruntsi bear dabezala ikusiaz. Baiña, ia, entzun eta azal.. eidazu ames au. Ogei antzar daukaguz etxean uretan hustiko uria jaten dabenak, eta ni pozarren egon oi naz arei begira; baiña, ona!, moko makurreko mirutzar bat jatsi zan menditik, eta, samea alisten eutsoelarik, danak il ebazan; oneik moltzoan geratu ziran luze, ta bera jainkozko eguratsera igon zan egazka. 1\lik, lo bitartean, negar egin neban garrazika; eta kopeta ederdun alceutar emakumak intnt-ruan batu yatazan, nik errukarriro, mirutzarrak neure antzarrak il eustazala-ta, negar ta negar nengian artean. Mirutzarra orduan barriro: etorri ta sapai ertzean kokaturik, deadar_ egin eustan giza-abotsez esanik: «Biotz on, Ikari txit ospetsuaren alaba!, ez dozu ha amesa, betetakoa dan egi-egiazko ikuskizuna haiñ.o. Antzarrak, senargeiak dozuz, eta ni, mirutzar, ?lire senar etxeratu dana, ta leiakide guztiai eriotza aalkegarria emongo dautset». Au esan eban. Urrindu zan ninandik lo gozoa, eta inmirumari so-egiñez, jauregian ikusi nehazan antzarrak, aska ondoan, leen lez garia jaten ziarduela.

572 Odis asmotsuak erantzun eutson:

573 Odis.__O emakume! Ezin daiteke beste era batean amesa adierazo. Odis'ek h o -ak he ha azalru eutzlin zelan burutuko eban: arel agertzen da or serargei guztien nndamena ta

batek berak be ez dau iges-egingo eriotzatik eta Balbeen eskuetatik.

578 Penelope zurrak jardetsi:

579 Penelope.—Arrotz! Ba-dira ames igarri-ezinak eta izkera illunekoak, eta ez da bete oi eurak gizasemeei iragarten dautsen guztia. Ate bi dagoz ames ariñentzat: bata, adarrez egiña, ta bestea, marfillezkoa. Marfil edo boli leunetik datozenak ziria sartu oi dauskue, ondoren bako itzak guri ekarriz; eta adar ondo landutik urteten diranak igarri daroez, clakusazan gizaki ilkorriari, egi-egiaz jazoko diran gauzakr Baiña ez yat niti iruditzen nire ames ikaragarria azkenengotik urtena danik, ez niretzat ez nire semearentzat atsegiñezko danik be. Beste zerbait iragarri bear dautzut, biotzez jasoko dozuna. Asko belutu barik agertuko da dizdizka ni Odis'en etxetik urrunduko nauan egunsenti zori gogorrekoa, nor-geiagoka bat eskiñi nai dautset ba senargeiai: arek lerro zuzcnean eta amabiraiño tinkotzen eban aizkorak, jauregian jakiña, eratzen ari ziran itxasontzi baten euskarri edo zutikoak bai'litzan, eta urriñetik euren oboetatik zear gezi bat igaro-azten eban. Orain, bada, dei egingo dautset burruka onetara, ta uztai egokien erabilli, berau eratu ta amabi aizkoren begitik igaro-azten dauanaz, orretxegaz joango naz ni, neskuts etorri nintzan etxe au, ain ederra dan au, ain ornidua daukagun au itxirik, naiz-ta beronegaz gerora be, baita ames artean be, sarritan gogoratu bear izan oindiño.

601 Odis onberak erantzun:

602 Odis.—Laerte'ren sama Odis'en emazte agurgarri! Ez egizu geiago luzatu jauregian egitekoa dan nor-geiagoka ori, Odis asmotsua bada, orreik, uztai dizditsua erabilliaz, aritik tiratu ta geziak burdiña zearkatzea lortu baiño leen, etorriko da-ta.

607 Penelope.—Arrotz! Zuk zeure esanez, sala onetan neure alboan jarrita, poztu gura ba'ninduzu, loa ez litzateke egiaz nire begietara jausiko; baiña gizonak ezin leitekez lo egiteke bizi, illezkorrak bada aginduta daukie lur joriko ilkorrak gauza baktoxean aldiaren zati bat erabilli dagiela. Goiko etzan-gura noake ta antxe etzungo naz neure oge aren larri ta asean, Ilion kaltegarri ta iguinkorra ikusten Odis joan zan ezketiño, beti negar-malkoz iruztauta dagoan artan. An artuko dot atsedenden poxi bat. Zu barniz etzun zaite jauregi barruan, zer-edo zer azpian zabal-azirik, edo-ta apaindu dagitzuela oge bat.

618 Onela mintzatuz, goiko etzangu bikaiñera igon zan,
ez bakarrik gero, mirabeak lagun ebazala baiño. Eta, areikaz
batera etxe-gaindira eldu zanean, negarrari emon eutsan Odis,
bere senar maitegaitik, Atene'k, ontz-begidunak, betazaletan
lo gozoa ixuri eutson arte.

XX KANTUA

Senargeiak erail aurretik jazo zana

Odis jainkotia, bere aldetik, etxeko ate-aurrean etzun zan: idí baten narru ondu bagea zabalazi eban lurrean, akeutarrak ildako ardien beste narru asko gaiñetik bota, ta, etzunaz batera, Eurinome'k estalki bat jarri eutson gaiñez. Odis etzunik, baiña itxarrik, eta sena geien aurka gatzak asmetan ziar-duela, jauregitik atera ziran, barreka ta euren artean alkarren bostak emonga, areikaz batzartu oi ziran emakumak. Gizurenak biotza ausi ta latz-ikaratzen oartu eban bere barru guztia, ta berein erabagi artu ebazan bere buru ta biotzean, ez-paian egoan bada, neskameai eraso ta erail, ala azkenengoz senargei buru-arroakaz alkartzen itxi, zer egin ez ekiala; bi-tartean biotzak zaunka egitson barrutik. Bere txakur-kume sam-murren inguruan dabillen txakur-emeak, ezagutzen ez dauan gizaseme bat ikustean, oni zaunkaka eraso nai dautson lez, eraberean zaunka egian Odis'en biotzak be barruan, egite txar areik bekozko baltzez ikustean. Eta onek, bularra joaz, onako itzakaz mormor egion:

19 Odis.—Eutsi ta jasan, biotz!; ori baiño lotsagarriagorik igaro bear izan zenduan, ba, indar ezigatzako Kiklopeak, lagun bulartsuak iruntsi eustazan egun aretan; eta zuk eroapena izan zenduan, nire maltzurreriak atera ginduzan geure buruak iltzakotzat geunkazan artzulotik!

24 Orrela esan eban, bularrean biotzari, uneoro saiatu ta esaneko agertu yakonari, agiraka ta agiraka; Odis, baiña, orain ona ta orain ara iraultzen zan. Onda edo, gizon batek su aundi ta bizitan gantzuz ta odolez beteriko sabel bat erreten diarduanean, arantza ta onantza biraka erabilli oi dautzu, ariñago erre daiten; Odis be antzera nunbait iraultzen zan ara ta ona, ainbesteren aurka bakar-bakarrik aurkitzen zala, senargei lotsabakoai zelan eskua ezarriko ete eu-

tsen asmatzen ebillen bitartean. Baiña Atene urreratu yakon, zerutik jatsitz; eta, emakume itxura arturik, aren burugaiñ kokatu ta onari mintzatu yakon:

15 Atene.—Zelan zagoz zu oindiño itxarrik, gizasemee-tatik zori txarrekoen ori. Auxe da zure etxea, ta barruan daukazuz zeure emaztea eta zeure semea, guztiak eurena izatea gurako leukiena dana nunbait.

39 Odis asmotsuak jardetsi:

40 Odis.--Bai, abagune onez dator, o jainkosa!, zuk esan-barri dozuna; baiña gogoak beste zerbait darabil bere kautan; zelan jaritxiko dodan senargei lotsabakoetan eskuak jar-tea, ni bakarrik eta eurak jauregian beti batzartuta dagozalarik. Gogora dakart beste gauza bat be, are garrantzitsuagoa: Zeus eta zeure naiez, areik erailtzea jaristen baiclin ba'clot, nun Lloro al izango nik babes-a? Nik otoi dagitzut; azal eistazu au, arren.

50 Atene.—Doakabe! Lagun txarrago bategan, ilkorra danagan eta ainbat onu emoten ez dakiagan uste ona ipiñi oi dozu, ta ni jainkosa bat nozu, zeure lan eta arazo guztietan zaintzen zaitudana. Argi ta garbi itz-egingo clautzut. Berrogetamar ahots argic-lun giza-talclek, Ares tarteko dabela gu ondatu gurarik, inguratuko ba'ginduez be, zuk oindiño eroango zeunkez arein idi ta ardi gizenak. Baiña zagoldoz loari, kalte te nekedura aundia yatzu ba gaba iratzarrik, loan berea emon bage igarotea; eta, onezkero, laster urtengo zara gaitz onei-tatik.

59 Onela itze-gin eutson; eta, Odis'en betazeletan loa ixuriaz batera, jainkosen artean jainkotia Olinpo'ra itzuli zan.

62 Gizurena loaren mende jausten zalarik, kezka bage itxi ta soin-atalak nasaitu oi dauazan loaren mende noski, itxartu yatzun aren emazte eraduna, ta bertatik negarrari emon eutsan, oge heratzean jarri-rik. Eta aren barrua negar-egiñez ase zanean, ernakumeetan jainkotiak urrengo otoitz au zuzen çu eutson Artemis'i:

68 Penelepe.—Arternis, Zeus'en alaba, jainkosa agurgarri! Oba, oraintxe berton, gezi bat bularrera jaurtirik, bizia kenduko ba'zeust; edo-ta ekaitz batek eroango ba'nindu, itzal sendoengana ni zuzendu eta Okean atzeragillearen mugetan jausten lagarik! Pandareu'ren alabak ortzitikoz zear-erasoak

eroan zituan lez, goitarrak bada gurasoak il eutsezan eta eurak umezurtz geratu ziran jauregian, eta orduan Afrodita jainkosak azi ebazan gaztae, ezti gozo ta ardao leunez; Hera'k edertasunez eta zurtasunez apaindu ebazan beste emakumen gaiñez; Artemis garbiak gorpuzkera ederra emon eutsen, eta esku-lan bikaiñetan eskolatu zituen Atene'k; baiña, Afrodita jainkosa Olinpo zabalera joialarik, iñestuz alai dan Zeus'i mirabeentzat ezkontza loratsuak eskatzera (jainko arek dana daki, ba, gizaki ilkorren zori ona naiz txarra ezaguturik), Harpiak ostu ebezan eta Erini jainkosai emon eutsezan jopu lez: nigaz be bardintsu egin begie olinpuar jauregietan bizi diranak, edo-ta Artemis, ule-adats ederdunak il naiala, ni sar nadin lur-barru iguingarrian, Odis neure begi aurean eukirik, eta beeragoko gizaki iñoren gogorik alaitu bear izan ez dagidan. Jasankor yaku edozein gaitz, eguna negarrez eta biotz-illun emonagaitik, gauetan, begiak iztean, gauza guztien, txar eta onen, aantz-ordua ba'yatorku. Niri, alan be, lo-murdi ta amesgaizto itsak bialdu oi daustaz jainkoren batek. Bart berton neure aldamenen etzun yat sunbil bat, aren antzekoa oso, Odis, gudarozteagaz joan zanean, zan lakoxe-lakoxea; eta pozeztitan neukan biotza, amesa barik, egia zalakoan.

97 Orrela esan eban; eta beingoan eldu zan urrezko aurkidun Egunsentia. Odis'ek entzun zituan Penelone'k negar-bi-tartean emoten ebazan deadarrak, gogartu eban pizkat eta, eza-gutu-aziz, uste eban bere buru ondoan eukola. Bertatik etzunda egoan estalkia ta narruak batu, guztia jauregiko aurki baten egokitu ta idi-narrua kanpora aterarik, esku biak goi-goi, Zeus'i zuzendu eutson eskari au:

104 Odis.—Zeus aita! Zuok jainkuok, ni, ur ta lur, gogonez ekarri ba'nozue neure asaben lurrera, ainbat zoritxar leporatura gero, egizu esan dagiala zantzuren bat barru aldean esnatuz doan edozeiñek eta ager bekigu kanpoan beste mirari bat, zeuk egindakoa.

110 Orrela esan eban arrengea. Entzun eutson Zeus arduratsuak eta aitaren egin orduko bialdu eban trumoi bat Olinpo dizditsutik, odeien sabeletik, Odis pozaren pozez bete ebana. Zantzua be emakume batek emon eutsan etxean, gizonen artzaiñaren errotak egozan toldan, beragandik ur-ur, ale-elioten eragoionarena nunbait. Amabi ziran an arduraz lan egienak, garagar eta gari uruna gizonen janari diranak egiten;

ordurako, baiña, guztiak egozan ogerratuta, bakotxari egokion gari-eiotea egiñik ebelako; bat egoan oraindik bere arazoari azkena emon barik, aula zan eta. Onek, ba, errotea geratu ta urrengo itzok oguzi ebazan, bere ugazabarentzat ezaugarri ziranak:

122 Emakumeak.—Zeus aita, jainkoen eta gizonen gaiñ aginpidea dozuna! Ortzi izarratutik trowni gogor bat bialdu dozu ta ez dakusat odei-azterrenik; ziurrik asko, norbaiti egiten dautsazun ezaugarria da. Niri be, gaixo oni!, bete bekit esatera noakizuna: ar beie gaur senargeiak gueneko ta amairako janari atsegingarria Odis'on jauregian; eta, urun-lan neketsu onegaz nire belaunak anbarau-azo dabezana ezketiño, izan bedi emen azkenengo aldiz apalduko dabena gaba be.

131 Olan adierazo eban; eta oi ez bezela poztu zan Odis jainkotia zantzuaz eta Zeus'ek igorritako trumoiak, errudunak zigor-azo leikezala iruditu yakona eta.

134 Beste mirabeak, Odis'en bizitoki ederrean alkaturik, sukaldean su zailla ixiotzen ziardeen. Telemako, jainko baten kideko gizakia, ogetik jagi, jantzi, ezpata zorrotza sorbaldatik esegi, bere oin aratzetan abarka dizditsuak lotu ta borontzezko erpindun lantza sendoa eskuratuaz, kanpora urten zan. Eta, ate aurrean geraturik, Eurikle'ri esan eutson:

141 Telemako.—Etxandera kutun! Txeraz artu dozu arrotza etxe barruan, esnea ta aparria emonaz, edo-ta or edonun dago etzunda iñoren arreata barik? Nire ama olakoxea dozu, ba: zurra da, baiña abosdun gizasemerik txarlena be buru ariñaz omendu oi dau, ta geien balio dauanari ezetariko ohore bage agur egiten dautso.

147 Eurikle zurrak erantzun:

148 Eurikle.—Ez egizu, ene seme, orain salatu, errudun ez da-ta. Jarririk egon zan arrotza ta guraiña ardao edaten; eta janariari buruz, naikoa artu ebala adierazo euskun, eta berberak egin eutson itauna. Lotarako etzutea erabagi ebanekoxe, zure amak ogea gertatu egioela agindu eutsen mirabeai; baiña zarpailtsu ta doakabe dan ezkerre, ez eban nai izan ogean ez estalki samur artean atsedenek artu ta ate-aurrean etzun yakun idi-narru ondu bagean eta beste olako ardi-narru batzuetan. Eta guk estalki bat bota geuntson gaiñetik.

158 Orrela esan eban. Jauregitik urten zan Telemako bere lantzea eskuan eta atzetik joakozan txakur oin-arin bigaz; eta erri-batzarrera zuzendu zan, zango-babes ederdun akeuta' rrakaz alkartzera. Eurikle orduan, Ops Pisenorida'en alaba ta emakumeetan jainkotia zanak, mirabeai onan agintzen asi zan:

164 Eurikle.—Ia, zuotariko batzuk isutsi egizue jauregia alik eta ondoen, ureztatu baita, ta purpur-oialkiak jarri egizue aurki ondo landuetan; beste batzuk erabil beie txupera maietan eta garbi-azo kraterak eta kirten biko txolak, antzetsu egiñak; eta beioaz iturrira uretan eta ekar beiste azkarki. Senargeiak, bada, asko luzatu barik jauregiratuko yakuz; gaur, alde bestea, goizean goizetik etorriko dira, guztiontzat jai egun da-ta.

172 Onela mintzatu yaken; eta areik zoli entzun eta bereala esana egin eutsoen. Ogei mirabe zuzendu ziran ur saketako iturrira ta enparauak antxe bertan, etxe barruan, jarri ziran trebe ta azkar lanean.

176 Aurkeztu ziran andik laster mutil gazte zerbitzari zangarrak be, ta egurra ebagi eben taju ta esku-antze aundiz; itzuli ziran iturritik mirabeak; eta beingoan etorri zan txarri-zaiña be iru txarrigaz, bere zainpean eukazan onenakaz. Eumeo'k, txarriok esiarte ederrean itxirik, mintzo samur itz-egin eutson Odis'i:

182 Eumeo.—Begi obez zakuste akeutarrak ala len lez iraiña dagitzue jaurregian?

185 Odis asmotsuak erantzun:

186 Odis.—Obe jainkoak zigortuko ba'lebez, o Eumeof, ain galbar eta lotsabako egin oi dabezan iraiñak, iñoren etxean olako egite gaiztoak astnau ta lotsa izpirik bage egiñez.

189 Orrela autuan ziarduela, Melanti txarrizaiña urreratu yaken, senargeientzako janaria egiteko bere auntz-saldoetatik ederrenak ekazalarik, eta artzain bi lagun ebazala. Eta, arkupe durundutsupean eurak loturik, Odis'i zuzendu eutsozan itz eztenkarí oneik:

194 Melanti.—Arrotz! Gogaikarri izango zaiakuz oindiño be etxe onetan, aundikiai ukar askean? Ez etc zara bein emendik aldenduko? Bai, ba-dakit ez gareala bananduko geure besoen indarrak neurtu arte; zuk ez dozu, ba, bear dan

lez eskean egiten, akeutarrak beste jan-edate batzuk be euki oi dabez eta.

200 Olan adierazo eban. Odis asmotsuak ez eutsan erantzunik emon; baiña buruari eragin eutson ixil-ixillik, bere go-goaren barne-barnean asmo gaiztoak erabiltzala.

203 Fileti, artzaiñen maizter nausia izan zan irugarren etorri zuna; bei antzu bat ekarren onek, eta auntz gizenak. Aurkeztcn yakezan gizaseme guztiak croan oi dabezan ontzi-lariak, ara eroanak ziran, Eta, a, arkupe durundupean bere piztiak lotu ondoren, txarrizaiñaren ondoan geldi, tankeraontan itandu eutson:

209 Fileti.—Txarrizain! Nor da gure etxera eldu-barri dan arrotz ori? Nungotzat dauko berak bere burua? Nun aurkitzen etc bere scndia ta oillo-lurra? Zori bako! Gorpuzkeraz errege aaltsua dirudi; jainkoak, baiña, milla gaitzetan amildu oi dabez arat-onat askotxo jbilli diran gizasemeak, erregeai eurai be zoritxarrak bialtzen dakie-ta,

215, Au esan eban; eta, Odis'en aldamenean gelditurik, eskumaz agur egin eta itz ariñok bota eutsozan:

217 Fileti.—Agur, arrotz alta! Zaitetz zoritsu aurrerantzean, orain ainbeste gatxez abailduta zagoz eta. O Zeus aita! Ez dago zu baiño jainko baltzagorik; zuk sortuak dira, ba, gizonak eta eurokaz errukitu bage, ezbearren esku laga oi dituzu triste ta naigabetsu. Ikusi zindudazanetik izerdia botaten asi nintzan eta begiak malkoz urtu yatazan, Odis gogoraturik; nik uste dot, ba, oindiño a gizartean dabillega alderrai, dandar atruizez betea, olakoxez nunbait, oraindik bizi bada ta eguzki-argiaren alaitasunik baldin badau. Eta illa baldin ba'da ta Hade' ren egoitzean aurkitu, ai ene!, Odis akats bageak ni jarri ninduan bada, umetatik, bere bei-saldoen buru kefalenotarren eskualdean! Konta-ezin ala dira gaur ango beiak, eta iñori be ezin leikeon, niri beste, bekoki zabaldun giberririk azi ta ugaritu; baiña bertoko ez diran batzuk agindu daroaste beiak ekarri dagitsedadala jateko, eta ez dabe ctxeko semearen ardurarik, ezta jainkotasunen bildur be ez yatzuz, onczkero askotxo luzatuz doian errege urrin joanaren ondasunak curen artean banandu gurata dabiltz eta. Gogaiok sarri be sarri iraultzen ditu barruan nire gogoak: arras zentzun bakoa nintzake ni, semea bizi dala, beiak artu ta eskualde arrotz baterako, erri ezczagun baterako bidea artuko ba'neu; baiña latzago yat oindiño emen geratu bea-

rra, beiak iñorentzat zaindu ta samin-neketan biotza ausiz. Eta aintxiña joana nintzan errege altsu batzuen babespean gerizpeztzera, emcngoia croan eziña yat eta; biña oraindik zori txarreko aren zain nago, hear bada, nunbaitetik etorririk, jauregian dagozan senargeiak uxatuko ditulako.

244 Odis asmotsuak erantzun:

245 Odis.—Unai! Ez doillor ez zentzun bako iruditzen ez zaiatazan ezker, eta zure ezpiritua zurtasunak clarabillelako, gauza bat adierazo hear dautzut, ziñezpen aundiz baietsikoa: «Bedi ziñaldari lenen Zeus jainkoen artean eta gero ni eldu nazan Odis akats bakoaren sukalde ta mai atoskorrak, Odis bere etxera itzuliko dala, zu berton zagozalarik, eta zeure begiakaz ikusi al izango dozu, nai ha'zendu, gaur jauregian jaun eta jabe diran senargeien acta».

253 Unaiak orduan bota eutson:

254 Fileti.—Arrotz! Ai, Kronion'ek diñozun ori burutuko baleu! Asko luzatu barik jakingo zeunke zelako kemena dodan, eta zelako beso zangartalc ditudan.

257 Eumeo'k be, bardin, jainko guztiai erregu egin eutsen biurtu zeitela Odis zurra bere etxera.

279 Onela ekioen oneik curen solasean. Senargeiak, oster, euren aldetik Telemako'ren aurka eriotzea ta alanhearra bilbatuz, ixil-jokoan ehiltzan, bat-hatean curen ezker aldetik arrano burgoi bat, erpa artean uso izuti bat ekarrela, agertu yakenean. Eta Anfinomo'k onela sustatu zitun:

264 Anfinerno.-0 adiskideak! Bilbe onek (Telemako'ren eriotzak) ez dau atze, ondoren onik izango guretzat; baiña gogora daigun onezkero geure jotardua.

267 Onela esan eban Anfinomo'k, eta gogoko izan yaken danai esan eutsena. Odis iainkotiaren jauregira biurturik, ba, aulki ta hesaulkietan itxi ebezan curen soin-^gaiñekoak; u chezan ondoren ardi txit aziak, auntz gizenak, txarri lodiak eta hei saldokari bat; sutan iniñi ta geroago aragi erreak banandu ebezan; krateretan ardaoa nastau, ta txarrizaiñak txolak ekarri eutsezan. Fileti, artzaiñen nausiak, ogia banatu eutsen saskitxo bikaiñetan, eta Melanti'k atclaoa ixuri eutsen edontzietan. Eta danak asi ziran aurean eukezan janariak artzen.

277 Telemako'k, asmo zurgatxez, etxe-barne ermoan jezaé rri-azo eban Odis, arrizko atari ondoan, emen bait eutsoen jarri

aurki lander bat eta mai txiki bat; erreketatik zati bat emon eutsan, baita ardaoa be urrezko txol baten, onela itz-egíñez:

282 Telemako.—Ezarri zaitez emen, aundiki onein ar-tean, eta edan ardaoa. Neuk jagongo zaitut senargei guztien irain eta eskuetatik; etxe au ez da, ba, agiriko etxe bat, Odis'ek neuretzat erositakoa baiño. Eta zuok, o senargeiok!, ezi ta atzeratu zeuen larderia, ta ez egizue zemairik ez kolperik nai izan, eztabaidarik ez zezio ta izkaldirik euki ez daigun,

289 Orrela adierazo eban; eta ezpanai aginka asi ziran danak, Telemako orren ausart mintzatzen yakela-ta miretsirik. Antinoo, Eupite'ren semeak orduan, au esan eban.

292 Antinoo.—Akeutarrok! Bete daigun, latza dan arren, Telemako'ren agindua,abots zemakorrez, aupadaka lez itz-egin dauSKU baiña. Ez dau nai izan Zeus Kronion'ek; bestela, ba, laster ixil-azoko gendun jauregian, izlari durundutsua dala be.

297 Onela mintzatu zan Antinoo; baiña Telemako'k ez eutsen aren itzai jaramonik egin. Ontan, otsegilleak ba-eroien urian zear jainkotasunen sarraski sagaratua; eta urrundik zau-ritu oi dauan Apol'i eskiñitako oian itzalean batzartzen ziran akeutar galpardunak.

302 Senargeiak, aurreko laukiak erre ebezanerako, sutatik atera, zatietan banatu ta oturuntza ospetsua egin eben. Odis'i serbitu eutsoen, ortan ebiltzanak, enparauai egokien lakoxe za-tia; orrela erabagi eban, ba, Telemako'k, Odis jainkotiaren se-me kutunak.

309 Atene'k orduan be ez eban egin senargei gurenak iraun naigebetsu barik oso-osorik iztea, atsekabeak are geiago oiñazetu egian Laerte'ren seme Odis'en biotza. Barru gaiztoko gizaseme bat aurkitzen zan arein artean, Ztesipo eritxona; Sa-me'n bizi zan, eta, bere azken bako ondasunetan uste ona eza-rririk, aspalditik urrin zan Odis'en emaztearen atzetik ebillan. Dalako onek esan eutsen senargei arropuztuai:

317 Ztesipo.—Entzun, senargei argiok, esango dautzueda-na! Aldia dala arrotzak be, bear lez, geuk daukagun aiñako zatia dauko; ez da, ba, egoki ez bidezko Telemako'ren etxa-kideak, diranak dirala jaure^gi ontara datozenak, ian-edanetik urrindu ta alde bat iztea. Baila, tira, neuk eskiñi bear dautsat arrotz-doea, berak he bere aldetik bezuza egin dagion baiñula-rian edo-ta Odis jainkotiaren etxean bizi diran morroietatik beste

325 Onan itz-egiñik, zareto batetik artu eban idi-anka bat jaurti eutson esku indartsuaz; Odis'ek iges egin eutson kolpeari, burua pizkat makurtuz, eta bertatik irribarre egin eban irripar maltzurrez; eta idikia aurreko orma ondo eregitakoan txipristindu zan. Telemako'k jarraian itzokaz erantzun eutson:

331 Telemako.—Ztesipo! Askoz obe 7uretzat arrotza ez jotea, onek itzuri egin dau-ta zartakoa; nik bada neure lantza zorrotzaz zulatuko zindudazan alderik alde, ta zure aítak emen-txe egingo eutzuzan illetak, zeure ezkontza ospatu bearrean, ain zuzen. Beraz, ezpei iñok jokatu etxe barruan giza-legeen aurka, gauzarik asko, onak eta txarrak, dazaudaz bada, eta ulertzen, leen ume ba'nintzan be. Eta dakusguna aizuz egin arren (ardiak il, eta ardaoa edan, eta ogia artu), batek bakarrik asko galgaitzen errez ez dalako dozu. Baiña, tira, ez eidazue kalte geiagorik egin, gaiztoak izanik; eta borontzez erail nai ba'nozue, gurari ori bete daizuela, nai neunke, etenbako eginen doillorrok ikusi baiño oba litzakit eta: arrotzak gaizki erabilliak eta mirabeak indarrez eta itsuski artuak bizitegi txairoetan.

345 Orrela mintzatu zan. Danak mututu ziran, ixil aundia egiñik, Baiña Agelao Damastorida'k, azkenez, esan eutsen:

347 Agelao.—O adiskideak! Ezpei iñortxo be sumindu, Telemako'ren esan zuzenai aurkako errazoiak jarririk; eta ez egizue txarto artu arrotza, ezta Odis jainkotiaren etxean bizi diran morroietatik batxo bera be. Nik, Telemako ta onen amari itz gozo batzuk esango neuskioez, bion biotzai eder ba'lekíe. Zuen barnean Odis zurra itzuliko zalakoaren itxarokizunak pil-pil egian artean, ezin geinkezan asarratu belutzen ebala-ta, ezta senargeiai etxean iraun-azoteagaitik be; eta orduan be, oba izango zan, Odis bere jauregira itzulia izan ba'litz. Baiña nabari da orain itzuliko ez dana. Alan be, tira, iar zaitez zeure amaran alboan, eta esaiozu; senartzat artu dagiala gizasemerik bikaiñena ta esku-erakutsirik geien egin dautsozana: zuk orrela zeure aítaren ondasunen jaun eta iabe jarraituko dozu, eurotatik jan eta edanaz, eta arek beste baten etxea zaindu.

362 Telemako zurrak erantzun:

363 Telemako. Ez, Zeus-arren eta nire aita illaren edo Itaka'tik urrin alderrai dabillenenren!, ez dodaz luzatzen, o Agelao, neure amaren ezteguak; bestera, ezkondu daitela diñotsot, atsegin yakolarik, bezuzarik geien-geien dautsonaz, baiña

lotsagarri izango litzakit jauregitik erauztea, berak nai ezik eta berba latzakaz. Ez daiela jainkoak olakorik gura izan!

370 Orrela mintzatu zan Telemako. Pallas Atene'k irri-par eziñ-itzalia sortu-azo eutsen senargeiai, zentzuna be naasi ta artegaturik. Beartuta lez barre egien, aragi odol-jariozkoak jaten ebezan, begiak malkoz bete y akezan eta aren gogoak negar-zotiña ekarrela zirudian. Orduan Teoklimeno, jainko baten antzekoak, onan itzegin eutsen:

376 Teoklimeno.---Ai, errukarriok! Zer gaitz da zuek daukazuena? Gau illunak esitzen dautzue burua, eta arpegia, eta beean helaunak; zinkuliñak aziogotzen; malkoz urtzen ma-traillak: eta ormak lez zutabe-arte ederrak he odolez ezkotuta dagoz. Erebo aizarotsura iatsiz doazanen itzalak heteten dabe etxaurre ta larriña: eguzkia ostendua da zerutik eta illuntasun izugarria edatu da nainun.

384 Olan adierazo ehan, barre-algara ezta bota eben guztiak. Ordun Eurimako, Poliho'ren semea asi yaken esaten:

386 Eurimako.—Zoratu egin vako lurralde urriñekotik etorri dan erbestetar orri. Ia, gazteak, eroan oraintxe herton atera ta andik batzarrera, emen uste dau gaba dalata.

389 Teoklimeno'k, jainko baten antzekoak, erantzun eutsen:

390 Teoklimeno.—Eurimako! Lagun egin dagistenik ez dot eskatzen. Ba-ditut hegiak, helarriak eta oiñak, eta errazoia neure bularrean, kalte barik oindiñokarren: lagungarri bategaz kanpora noake, argi dakust ba zuen gaiñ ezhearra datorrena: ortatik ezingo dozue iges egin, ezta azkatu be, (Mis jainkotlaren iauregian, egipen doillorrak asmatu ta asmatu, giza-semeak irauntzen dozuezan senargeietatik iñortxo.

397 Au esanaz, urten zan iauregi erosotik eta Pireo'ren erxera zuzendu zan: biotz-samur artua izan zan an. Senargeiak, bata besteari begitzen eutsen, Telemako zirikatu ta bere arrotzen lepotik barre egiñik. Gazte arroen artean, batek onela itz-ezin eban:

402 Ahots hgt.—Telemako! Iñok be ez dauko arrotzakaz zuk beste zoritxar. Bara eskeko al ^Per orren antzekoa da, ogi ta ardaos emon bear vakona, ezetarako ganorarik ez dauan indarge, lurreko sorta baldar gauzeza: eta bestea zantzuak aldarrikatzera iagi yaku. Siñistu nai ha'daustazu (eta oba

tzake), sar daiguzan arrotzok tosta askodun ontzi baten eta bial daiguzan Sikili'r a; an erosiko dautzuez ainbesteko saldeurrian.

410 Orrela inoen senargeiak, baiña Telemako'k ez-entzun egin eutsen itzoi; eta ixillik bere aitagan josita cuckozan begiak, senargei lotsabakoai eskuak ezarriko eutsezan unearen zain.

414 Ikari'ren alaba, Penelope zurrak, gizonai bekoz beko ipiñirilç eukon bere aulki bikaiñ-bikaiña, ta gizategian esaten zan guztia entzuten eban. Eta barreka ebiltzan senargeiak eta bazkarirako gertakuntzak egiten; au guztiz gozo ta atse-gingarria izan zan, ainbat eta ainbat abereri lepoa moztu yakon eta. Baiña janari bat be ez urrean jainkosak eta gizaseme saiatuak emongo eutsena baizen its eta mergatzik, egipen gaiztoak asmatzen lenenak izan ziralako.

XXI KANTUA

Uztaiareu erabagia

Atene'k, ontz-begidun jainkosak, Ikari'ren alaba Penelope zurrani biotzean sartu eutson, Odis'en etxean bertan senar-gaiai atera egitsela uztaiata ta burdin zurizkea, euren ilketaren asiera izango zan zein-geiagoka ospatzeko. Etxeko zurubi garaira igon zan Penelope; bere esku sendoan artu eban giltz eder makurra, borontzekoa, marfillezko buruduna, eta erregeren edergailluak —borontze, urre ta burdiña landua— gordeten zituan barruragoko gelara joan zan bere neskameakaz; baita antxe zaintzen ebazan uztai malgua ta ziri asko ta mingotsak eukazan gezientzako karkaiza be; bezuza biok Ifito Euritida'k, ezilkorren antzeko arrotzariak emon eutsozan Odis'eri, Lakedemoni'n arekin alkartu zanean. Mesena'n alkarrekin topo egin eben, Ortiloko gudazalearen etxean. Erri osoaren zor bat jasotera joian Odis, meseniararak bada irureun ardi euron artzaiñakaz eroanak zituen Itaka'tik, tostarte askodun ontzietan: Odis'ek auxegaitik, oindiño gazte zan eta, ordezkari lez egian joan-etorri luze a, bere aitak eta beste zar batzuk Malduta. Hito, bere aldetik, lanean jasankor ziran amabi beor umegai ta onein txikoen billa joian, oneik ba lenago ostu eutsoezan eta onexek izango ziran gero bere zoritxar eta eriotzaren zergaitia; izan be, egintza aundiai erasoten ekian gizon biotz aundiko Herakle, Zeus'en semearenera eldurik, onek bere etxean ii egin eban, arrotz lez eukita be. Gaizkin zitala! Etzan izan jainkoen asperkuntzaren bildur, ez eutson lotsarik izan berak bere eskuz ipiñi eutson maiari be: il egin eban, eta bere jauregian geldia-azo zituan apatx senclodun beorrak. Ifito, bada, aitatu beorren billa joian, Odis'eaz aurkitu zan eta oni emon eutsan antxiña Eurito auncliak erabillitako uztaiata, eta onek bere etxe garaian il zanean bere kimuari itxitakoa; eta Odis'ek, bere aldetik, Ifito'ri atsegin-sari emon eutsozan ezpata zorrotza ta lantza sendokotea; bien artean adiskideta-

sun miña erneko eben doaiak noski, baiña gizurenok ez eben maian alkar ikusi, Zeus'en semeak illezkorren antzeko zan Hito Euritida orduko illa bai eban. Eta Odis jainkotiarrek bere aberrian eroian Ifito'k emoniko uztaia, baiña ez eban beragaz croan nai izan gudarako abia zanean ontzi baltzetan; eta jau regian itxi eban bere ostalari maitearen gomutagarritzat.

42 Emakumeen artean jainkotia etzangura eldu ta arotz trebeak beiñola antze aundiz landu ta galgaz artezturik, ate lerdena barne artuko eben alboetako zut-abe biak jaso zituan artezko brinbelean oiñak ipiñi ebazanean, ereztunaren edea askatu ta giltza sarturik, atearen zerrailak ibilli-azo zituan, harurantz saka eragiñaz. Orriak kirriski egin eban, zelaian nazkatzen dan zezenak murrusa dagian lez —ots aundia atera bai eban ate ederrak giltzak sakatu eutsoenean!-- eta aida baten zabaldu ziran. Penelope goiko oltza errimera igon zan, antxe egozan eta jantzi usainduen kutxak; eta, besoa luzaturik, untze batetik eratxi eban uztaia birriailtzen eban azal bikaiñagaz. Antxe bertan jczarri ta belaun gaiñean bera arturik, negar-zotinka, erregeren uztaia atera eban zorrotik. Eta negar-zizpuruz ase zanean. senargai argiak egozan gizategirantz lo on zan; eta eskuan eroan ebazan uztai malgua ta ziri ugari ta mingotsak eukazan gezientzako karkaiza. Penelope'gaz batera, mirabeak kutxa bat eroien erregeren jolasetarako izan ziran burdiña ta borontzez betea. Emakumeen artean jainkotia zana senargaiak aurkitzen ziran tokira eldutean, sendo be sendo eregitako sanajari eusten eutson zutoiñaren aurrean geratu zan, matraillak zani dirdaitsuz estalirik eta albo baxotxean neskatala deduzko bana eukazalarik. Orduan, senargai mintzatu vaken, itzok esanez:

68 Penelope.—Entzuidazue, senargai argiok, n;re senarraren urrintze luze onetan eten barik jan-edateko etxe onen gaiñera jausi zarienok, ortarako beste atxakirik ezin izan dozue aurkitu neugaz ezkondu ta neu emaztetzat eukitea bairio. Ia, ene senargeiok, nor-geiagoka au daukazue zain: emen jarriko dor Odis iainkotiaren uztai aundia, eta berau errezen erabilli. luze iniñi ta amabi aizkoren begitik gezi bat igarozten dauana, arexegaz joango naz ni, neskatal datorrenari etxe au itxiaz, etxe ain ederra, ain ornidutakoa; onegaz oroituko naiatzue ni amesetan be nunbait.

79 Oneik izan ziran aren itzak; eta bertatik agindu eutsan Eumeo'ri, jainkozko txarrizaiñari, eskiñi egíoezala senargaiari uztai ta burdiña zurixka. Eumeo'k negarrez artu eban uztai ta lurrean ipiñi eban; eta beste aldetik idizaiñak be, bere jaunaren uztai ikusiz, negarrari emon eutsan. Eta Antinoo'k asarre egin eutsen bai, onela esanik:

S5 Antinoo.—Trauskil ergelok, egunari zor yakona bakarrik gogora dakartzuenok! A, kaskarrok! Zer dala-ta, negar-zotinka, dardarazoten dozue emakume onen barrua, bere senarra galdu ebanetik oiñaze mingotsean murgil daukana? Jan or, ixillik, edo zoaze at negar egitera, senargaientzat itxiaz norgeiago edo leiaketa zail bat sortuko dauan uztai dizditsu ori, ez yako ba errez izango berori tresnatzea. Emen gagozan guation artean ez dago, ez, Odis izan zan langorik. Ezagutu neban eta ba-dot aren gomuta, ni orduan ume nintzan arren oraindik.

95 Orrela mintza 5;aken, baiña an bere kolko barruan ba-eban itxaropenik uztai lotu ta burdiñatik gezia igaro-azteko; ezer baiño leen, alan he, Odis egin-egiñekoaren eskuak egotzitako gezia txastatu bear zan, ari irain egiten bai egoan jauregian eta lagunai be ori egiela su emoten ziarduan. Baiña Telemako errutsu jainkotiak esan eutsen:

102 Telemako.—Oi jainkoak! Zeus Kronion'ek egiaz zentzuna biurtu daust. Nire amak, orren zurra izanik, diñost besteategaz joan eta etxe ontatik urtengo dala; eta nik barrer dagit, gogo ergel zentzun-bakoz poza be arturik. Ia, zuok, senargeiok, ez akeutar eskualdean, ez Nos donean, ez Argos'en, ez Mikenan, ez Itakan bertan, ez turras() goibelean, zeuok be ondo dakizuenez, bardiñik ez daukan emakume bat dala-ta, norgeiagoka bat antola bear dan ezkerro, zertan asiko naz ni neure amaren goralpenak egiten? Ia, ba, ez luza burrukea aiko-maikoka ta zabiltze bizkor uztai egokitzen, ikus zaiguzen. Neuk be egingo ditut alegiñak ortan; eta tresnatu ta gezia burdiña alderik alde igarotea lortu ba'dagit, nire amagurriak ez daust jauregia laga ta besteategaz joatearen naigaberik emongo; bertan itxiko ninduke, ba, neure aitaren joku bikaiñetan garaille izateko gai nintzakenean,

118 Au esan eban; eta, zutik jarrita, urrezko soin-gaiñekoa erantzi ta bere sorbaldatik eratxi eban ezpata zorrotza. Beingoan asi zan aizkorak tinko jarri, danentzat azatz aundi

bat edegi, eurok agunez lerrotuta alde bietan lurra jarten. Arri ta belarri egiñik itxi zituan danak, joku a iñoiz be ikusi barik euki arreo, zelako egokitasunez jarten ebazan ikusiaz, Jarraian atarira joanik, uztaia eukiten saiatu zan. Iru bider zirkin eragin eutson, bera tresnatu nairik, baiña iru bider lagatu bearra be izan eban, naiz-ta aritik tiratu ta burdiña barna gezia igaro-azoteko itxaropena galdu barik. Eta tresnatua leukean, laugarrenez tiratu ba'leutso indar aunditan; baiña Odis'ek galazo egin eutson kiñuka, bere gurariaren aurka geldi-azo be. Onela itz-egin eban orduan Telemako saiatu ta jainkozkoak:

132 Telemako.—Oi jainkoak! Ala ziztrin eta ezereza izan bear dot aurrerantzean, ala gazteegia naz oindiño ta ezin neinke neure besoetan uste larregirik izan iraindu nagianari etzera eragiteko. Baina, tira, ikusi zuok uztaia, indarretan ni baiño geiago bai zarie, ta amai dagigun leiaketa.

137 Onan irautsi ondoren, lurrean jarri eban uztaia, txit sendo alkarturik eta ondo laututa egozan ate-oletara alderatuaz; gezi lasterra ereztun bikaiña eutsola itxi eban, eta ondoren len eukan jarlekura biurtu zan. Eta Antinoo'k, Eupite'ren semeak, onela itz-egin eutsen:

142 Antinoo.—Jagi zaiteze, lagunak, alderrezkan, ardoa ederazten dan tokiaren eskumatik asita,

145 Olan mintzo zan Antinoo ta gogoko izan yaken guztuai esan ebana. Leode, Enope'ren semea jagi zan aurrenik; auxe zan senargaien aztrua, ta barrenengo jarri oi zan, ardotxanbil aundiaren ondoan, likiskeriak begi txarrez ikusi ta senargai enparauen aurka amorrutan jarten zan bakarra izanik. Auxe izan zan lenen uztaia ta gezi bizkorra artu ebazana. Atarira jo eban bereala ta an txastatu eban uztaia; baiña ezin izan eban zuzen-azo, tira ta tira esku leun soritu-ezak nekatu yakozan arren. Eta txakadan beste senargaiai itz egin eutsen onela:

155 Leode.—Oi adiskideak! Nik ezin daiket au lotu; ar bei beste batek. Uztai onek erregegai asko gogaituko ditu, baita bizia kendu be: eriotzea oba bai da, gaurik gaberdi gu emen alkartu ta egunik egun zain gaukazan xedea lortu bage bizitea baiño. Orain bakotxak bere barruan uste dau Odis'en emazte Penelope'gaz ezkontzeko guraria beteko yakola; baiña, uztaia ikusi ta txastatu baizen laster, saia bedi bai beste akeu-

tar bat, kapusai ederduna, billatzen, ezkontz-bezuzaz limur-azorik; eta gero a emoitzik geien egin dautsonagaz ezkonduko da, ta alanbearrak erabagita daukonagaz.

166 Itzok esanaz, beragandik aldendu eban uzaia, txit sendo alkaturik eta ondo laututa egozan ate-olai eutsoela itxirik; gezi bizkorra be ereztun bikaiñean tinko laga ta leen eukan jarlekura itzuli zan. Eta Antinoo'k akar egin eutson, au esanik:

171 Antinoo.—Leode! Orreik itz astun gogaikarriak agin-obotik iges egin dautzuenak! Oso sumindu nintzan eurok entzutean. Uztai onek diñozu, egokitu ezin dozulako soil-soil-ki, gogo ta bizi barik itxiko ditula erregegaiak. Zure ama agur-garriak ez zinduzan erdibitu uzaia ta geziak erabilten jakin zengian; baiña ikusiko dozu beste senargai argi batzuk laster be laster tenkatzen dabela.

178 Orrela adierazo eban; eta itzetik ortzera emon eutsan Melanti auntz-zaiñari urrengo agindua:

180 Antinoo.—Zoaz, Melanti, ixio sua aretoan, ipiñi su-tondoan aulki aundi bat, narruz jantzia; jo gero barnera ta ekar andik koipezko opil bat, gazteok, uzaia galdatu ta gantzaz igurtzirik, saia gaitezan berau egokitzen, eta amaira daigun bein leiaketa au.

185 Orrela esan eban. Melanti bertatik asi zan su neke-gaitza ixetzen, beraren alboan jarri eban aulki aundi bat, narruz estalia, ta lcoipezko opil aundia atera eban barrutik. Koipez ipurtzi ta sutan beroturik, uzaia txastatzen ekin eutsen gazteak oro; baiña ezin tenkatu izan eben, ortarako bear zan kemenetik asko palta yakelako. Eta dagoneko Antinoo ta jainko-itxurako Eurimako geratzen ziran bakarrik leiatu bage: oneik ziran ain zuzen senargaien artean aurrenak eta indarrez guztien gaiñetik egozanak.

195 Orduan alkarregaz urten ziran etxetik Odis jainkotaren idizaiña ta txarrien ardurea eukana; Odis jarraika joan yaken, eta larriña ta atea atzean itxi ebezanekeoxe onek itz gozoz esan eutsen:

199 Odis.—Idizain, eta zu, txarrizain! Iragarriko ete dautzue, barruan dodana, ala ixillik gordeko ete dot? Esateko diñost barruak. Zelakoak ziñateke zuok Odis laguntzeko, bat-batean ba'letorkigu jainkotasunen batek ekarrita? Senar-

gaien alde ala Odis'en alde jarriko zintzakeze? Erantzun zeuen biotzak eta gogoak diñotzuen.

206 Idizaiiak erantzun eban orduan:

207 Fileti.--Zeus aita l Ai, beteko ba'zeuskit zin-itx au: itzul dedilla gizaseme a, jainkotasunen batek ekar-azoa. Zuk ikusiko zeunke, ori gertako ba' litz, zelakoa dan nire indarra, ta zelako besoak daukadazan!

211 Eumeo'k be jainko guztiai eskatu eutsen Odis zurra biur zedilla bere etxera. Onein bion eretxia gizurenak jakin chancan, gisa onetan mintzatu yaken barriro:

215 Odis.—Barruan dago ba, emen daukazue, neu naz, ainbat neke-lor jasan ondoren, ogeigarren urtean ama-lurrera biurtu nazana, Nire morroietan, ba-dakit, zuok bakar-bakarrik nai zenduan ni itzultzea, ez dot entzun ba beste ir-11.0k ni etxera itzul nendin zin-itzik egin dauanik, Argi ta garbi iragarri bear dautzuet burutu bear dana. Jainko batek orrela naita, nire eskuz suntsituak ba'dira senargai argiak, emaztea bi-llatuko dautzuet, ondasunak emongo dautzuedaz eta etxe ederto landuak neurearen ondoan, eta orrez gero Telemako'ren lagun eta anai lez artuko zaituet. Eta, gura ba'dozue, ia, ezau-garri agiri-agiri bat erakutsiko dautzuet ezagutu nagizuen eta zuen gogoa zuri dedin: Autoliko'ren semeakaz Parnaso'ra joan nintzanean, basurde batek bere ortz zuriaz egin eustan zauriaren orbana.

230 Itzok esanaz, gain eroiazan zarpaillak alboratu zituan zauri-ondo zabala arei erakusteko. Biak ikusi eben, baita arretaz arakatu be, bertatik negarrari emon, besoak Odis zur-rari ezarri ta, bera estutuz, burua ta sorbaldak rnosukatu eutsoezan. Odis'ek, bere aldetik, burua ta eskuak munkatu eutsezan. Eta negar-zotinka eguzkiak itxiko zituan, itxaspera sartzean, Odis'ek berak arindu ta naretu ez ba'litu, onda itz-egiñik:

238 Odis.—Negarrik eta zotiñik naiko: bateren batek, jauregitik urten eta gu onda ikusirik, ikusia kontetara ara barrura zuzendu ba'litz be, jauregian sartuko zarie, baiña ez alkarregaz, bata-besteares atzetik **neu lenengo ta zuek** gero. Ar egizue emon nai dautzuedan ezaugarria, ta auxa da: besteak, senargai argiak, ez dabe jasan al izango niri uztaia ta karkaiza emon dagistenik; baiña zuk, Eumeo jainkozko orrek, eroaizu etzanguan zear, jarri eidazu eskuetan, ta esaiezu ema-

kumai itxi dagiezala geletako ate sendoak, eta bat-edo-batek gure aretoko orma barruan giza-zinkurin edo zaratarik entzun ezpei begitu ta bego antxe, ixi-ixillik, bere esku-lanaren ondoan. Eta zure zainpean izten ditut, Fileti jainkoa, larraiñcko ateak, zuk zarratu dagizuzan korapillo baten bitartez estutuko dozun ate-morroilloari saka eragiñik.

252 Orrela itz-egiñaz, sartu zan jauregi erosoan zear eta leen eukan toldan jartera joan zan. Ondoren sartu ziran, baita, Odis jainkotiaren jopu biak be.

255 Eurimako'k ba-erabillen uztaia, galdatu ta jira-bira asko eragiñik, orain alderdi ontatik eta gero bestetik, suaren argitara. Baiña orrelaxe be ez eban a tresnatzerik jaritxi; beraz, bere biotz aintzatsua naigabe aunditan eta asperenka, onan ots-egin eban:

260 Eurimako.—Oi jainkoak! Aundia da neugaitik eta zuok g,uztiokaitik barnean nabari dodan atsekabea. Eta eztegu ustel-urtenak mingarri yatazan arren, ez da origaitik nire miña (akeutar asko bai dira itxasoz inguraturiko Itaka'n bertan, eta urreko beste urietan), gure indarrak Odis jainkotiarenak baiño naiko urriagoak diralako baizen, aren uztaia ezin dogu ba tenkatu: lotsagarria benetan ondorengok jakingo ba'lebe!

268 Orduan Eupite'ren seme Antinoo'k bota eutson:

270 Antinoo.—Eurimako! Ezta olan izango, ta zuk badakizu. Orain, jainkoaren jai donea urian ospatu bitartean, nok lortuko leuke uztaia tenkatzea? Jarri nasai lurean bera ta begoz aizkora guztiak geldi josita, ez dot uste ba Odis Lartiarren jauregira datozenetatik iñok eroango ditunik. Baiña, ia, asi bei zerbitzaria kopak banatzen ixurketa burutu daigun, eta laga dagigun onezkero uztai makurra. Eta agindu Melanti auntz-zaiñari datorrela ona eguna zabalduaz bat saldoan ditun auntzik onen batzukaz, Apol'i, bere uztaiz ospatsu danari arein izterrak eskeiñiz, Odis'ena egokitzen saia ta leiaketa au amaitu daigun.

282 Orrela mintzatu zan Antinoo, ta eder izan yaken guztiai onek ager-erazia. Otsegilleak ura emon eutsen eskue-tara ta morroiak txanbil aundiak edariz beterik, asildíjak txoletan eskiñi ondoren, danen artean banandu eben edari bizi-garria. Ixurketak burutu ta bako txak nai beste edan ebanean, Odis asmotsuak, iruzur eioka, gisa onetan itz-egin eutsen:

288 Odis.—Entzuidazue zuok, erregiña gurenaren senar-geiok, adierazo dagizuedan barruak zuoi esateko agintzen daustana; eta Eurimako ta adioneko itzok otsegin ditun Antinoo'ri eskatu bear clautset batez be: laga oraingoz uztai ta bere jainkoekikoa, ta biar goi-ezpirituren batek bear dauan kemena emongo dautso berak naien dauanari. Ia, emoidazue uztai ondo leundua ta zeuokaz negur-aziko dodaz neure beso ta indarrak: ausaz nire soin-atal zinbel-zaaletan beiñolako kemenik dodan ikusiko clot, edo-ta ortik zearko bizitzak eta ardurarik ezak motel-azo ta galdua dan.

298 Onan mintzatu zan. Suak artuta geratu ziran danak, uztai leuna tresnatuko ebalako bildurrez. Eta Antinoo'k gogor artu eban, edu onetan

301 Antinoo.—O, atzerritarren artetik doillorren! Igan ez yagok zentzun izpirik. Ez al dok naikoa gugaz, argiokaz, jan-edanean nasai jarririk egotea, oturuntzako ezertxo be palta ezta? Ez ete yak naiko gure itzak eta autuak entzutea, iriundiko erbestetarri ez eskekori izten ez yakon lez? Bear bada ardao gozoak zorabiatzen au, gale, minguru ta neurri barik edan oi daunari kaltea dakartso-ta, Ardaoak kalte egin eutson Eurition zaldi-gizon zangarrari, lapitarren eskualdera joanik Piritoo biotz-zabalaren jauregian aurkitu zanean. Errazoia ardaoak lausotua euki ebaneko, zoraturik, egintza zitalak burutu zituan Piritoo'ren etxean; gizurenak, samin aunditan, oratu eutsoen, eta, aterantza narras eroanik, belarriak eta surra ebagi eutsoezan borontze gordiñez; eta orrelaxe joan zan, adimen naasiaz ta bere erruaren zigorra gogo gaixoz eroanik. Olako jatorria izan eban zentaur eta gizonen arteko liskarrak; baiña axe izan zan lenengo bere buruari zoritxarra ekarri eutsona, ardaoz bete zalako. Era berean, iri be ezbear eskerga bat iragarten dauat, uztai tenkatzera jaritxiko ba'intza; erri onetan ez au ba iñok babestuko, ta laster bialduko augu ontzi baltzean ilkor guztien izurri dan Eketo erregearengana, eta aregandik ez dok igesik egingo, ez osasunez ez bizirik. Edan egik, ba, nasai ta ez adi sar burrukan eu baiño gazteago diran gizonakaz.

325 Orduan Penelope zurrak esan eutson:

326 Penelope.—Antinoo! Ez da bidezko ta egoki Telemako'ren etxapekoak, dirala diralakoak jauregi onetara datozanak, gitxi-eritxi ta laidotzea. Uste dozu, bear bada, arrotzak,

bere esku ta indarretan uste ona izanik, Odis'en uztai aundia tenkatuko baleu, bere etxera eroango nindukela, ni bere emaztetzat artzeko? Ber-berak be ez dau alako itxarokizunik bere barruan sortu, ta zuotariko batek be ez dau beragaitik gogo illunez jan bear: ori ezin gengike, ba, zentzunez beinik-bein buruan erabilli.

335 Polibo'ren seme Eurimako'k erantzun eutson:

336 Eurimako.—Ikari'ren alaba, Penelope zur! Ez dogu uste onek eroango zaituanik, pentsatzea bakarrik ez litzateke errazoi-bidezkoa; baiña lotsaz gorritzen gaitue gizonen eta emakumeen esamesak; gu baiño okerrago litzaken akeutarren batek otsegin ez dagian: «Gizaseme oso beekoak dabiltz akatsik bako gizuren baten emaztearen atzetik eta ezin dabe egokitu uztai leuna; alderrai eldu zan eskeko batek, oster, aisa tenkatu eban, baita burdiñean zear gezia igaro-azo be». Olan esango dabe, gu laidoz beterik eta izen txarrean itxiz.

345 Penelope zurrak orduan jardetsi:

346 Penelope.—Eurimako! Eziña da errian izen ona eukitea gizakume nausi bat, beronen etxeko ondasunak iruntsiz, orrela iraindu dagienak: zergaitik egin oi zarie irain onein duin? Aundi ta zangar da arrotza, ta etorki oneko gizasemea aitatatzat daukalako illarraintzen yatzue. Ia, emon egiozue uztai leuna, ta dakusgun. Esango dodana beteko da: uztai tenkatu ba'dagi, Apol'ek aintza au dagitsolako, mantu ta alkondarra bat, soiñeko ederrak, jantziko dautsodaz; azkon zorrotz bat emongo dautsat adiguri lez, gizon eta txakurretatik bere burua jagon dagian, baita ao biko ezpata bat be opari egingo dautsat; oiñetarako sandalik emonik, bere biotz-gogoak nai daben lekura bialduko dot.

358 Telemako zurrak erantzun eutson:

359 Telemako.—Ene ama! Akeutarretatik iñok be ez dau nik baiño aalmen aundiagorik neuk nai dodanari uztai emon naiz ukatzeko, Itaka latzean naiz zalditan ugaria dan Elide'tik ur dagozan ugarteetan, agintzen dabenen artean; beraz, oneitako iñok be ez ninduke ortara beartuko, neure naiaren aurka, emon nai ba'neutso noski uztai au arrotzari, beronek eroan dagian balitzateke be. Zoaz zeure gelara, jardui zu zeuri dagoldzuzan lanetan, anazka ta gorua, eta uztai gizonok arduratuko gara ta neu batez be, etxe onetan agintzen dodan ezker.

370 Zur ta lur egiñik joan zan Penelope bere gelara, semearen itz zurrak barruan ausnartuz. Eta neskameakaz goiko etzangura eldu zanean, negar egin eban bere senar maite Odis zala-ta, Atene ontz-begidunak lo gozoa betazaletan ixuri eutson arte.

376 Tarteana, txarrizain jainkotiarrek uztai makurra artu eban arrotzari eroateko; baina senargai guztiak asi ziran areto barruan ari itz mingarriak egozten, eta gazte arroputz areitako batek era onetan itz-egin eutson:

380 Abots bat.—Nora daroazu uztai makurra, iñartsi-
duin ez zarean txarrizain, alper bizi orrek? Laster iruntsiko
zaitue, belar-luzeen ondoan eta gizonengandik urrin, zerorrek
azi dituzun txakur bizkorrek, Apol eta beste jainko illezko-
rrak onbera ba'litzakiguz.

385 Olan iñoen; eta arek lengo lekuan itxi eban uztai-
a, areto barruan ainbat gizonenak lotsa gaiztoa erakusten eutsoela-
ta, bildurturik. Telemako'k, alan be, zema egin eutson, bes-
tekaldetik oiuka:

389 Teleinako.—Aita-jaun! Zoaz aurrera uztai-az, laster
ikusiko zeunke ba ez dozula egiten danen esana: neuk, gaz-
teena izanda be, zelaira jaurti ta arrika zauritu ez zagida-
zan, zu baiño indartsuago nozu-ta. Ai era berean, besoz ta in-
darrez, jauregian dagozan senargei guztiak gainduko ba' neu-
kez; ez neuke ba asko iraungo bat edo bat etxetik lotsagarri-
ro bota barik, egintza dongak asmatzen diardue-ta.

397 Olan mintzatu yakon; eta senargai danak entzun
eben eleztaldia irribarre leunaz, Telemako'ri eutsoen amorru
bizia kuku-azorik. Txarrizaiñak uztai-arta ta aretoa zearkatu-
rik, Odis zurraren aurrean geldi, eskuetan ipiñi eutson oni
uztai-arta, Jarraian, Eurikle etxandereari dei egiñik, lege onetan
mintzatu yakon:

403 Eumeo.—Telemako'k agintzen dautzu, Eurikle zur
orri, geletako ate sendoak itxi dagizuzala ta neskameetatik
iñok gure aretoko orma-barruan giza-oiu edo zaratatik entzun
ba'legi, ez daitela leiorantz urrera, gera dedilla antxe ixi-ixi-
lik, bere lanaren aldamenean.

408 Onetara esan eutson; Eurikle'ren ezpanetatik itzik
etzan egatzu, ta aukerako egotegietako ateak itxi zituan.

410 Fileti, barriz, ixi-ixillik etxea itxi ta larrain ondo inguratuko ateak zarratzera joan zan, eta etxepe azpian itxasontzi makur baten papiruzko zirga-aria idoro bait eban, onegaz lotu zituan. Gero barruratu zan oster a be, ta leen eukan lekuan jarri zan, Odis'egana begiak zorroz turik. Onek orduko uztaia erabillen, andik eta emendik bira ta bira eragiñaz; pipiak bear bada, erregea urrin zan bitartean, adarra jan ete eutson ikustearren. Eta ango batek esan eutson urrenen eukanari:

419 Abots bat.—Trebe ta argia izan bear dau uztaiak maneatz en, edo-ta bear bada beste antzeko batzuk daukaz bere etxean, edo olakoak egokitzeko itxura dau: antze txarretan jakitun dirudian arlote orrek beintzat bira ta 'P'ira darabil bere eskuetan.

424 Gazte arroputz areitako beste batek gisa onetan itze gin eban:

426 Beste abots bat.—Bere on aundirako, arrakesta izan daiala zernaitan, uztaia egokitzen izan bear dauan lez!

428 Era onetan ziarden senargeiak. Baiña asmotsuak, bitartean, andik eta emendik, ekin eta ekin ziarden uztaia aundia ikutu, ikusi ta aztertzen. Kitara jotzaille trebeak zotz barriaz errez tenkatu daroan lez len andik eta emendik loturiko ardi-este biurriaz egindako aria, era berean Odis'ek be, ezere n indarketa barik, egokitu eban uztaia aundia. Ondoren aria ikusi eban, eskumeaz eutsirik, eta soiñu eder bat entzun-azo zan, elai baten abotsaren antz-antzekoa. Orduan naigabe aundiak jo zituen senargaiak, danak kolarga geraturik. Zeus'ek zantzu lez trumoi ikaragarri bat egotzi eban, eta benetan poztu zan Odis jainkoti jasan korra Krono maltzuraren semeak ezau garri a bialdu eutsolako. Gizurenak eskuratu eban mai-gaiñean egoan gezi zaillua, besteak karkaiz arroaren barman aurkitzen ziralak o, naiz-ta akeutarrak laster somatu bear eben arein indarra. Eta uztaian egokituaz, tiratu eban aritik eta bizarretatik batera, antxe bertan, aulkian jarrita; apara edo zurira zuzendu, gezia bota ta ez eban utsik egin aizkora baten be, lenengo zulotik azkenengoraiño; borontzeak astun egian gezia danak zearkatuz kanpora urten zan. Au egin ostean, Telemako'ri zirautson::

450 Odis.—Telemako! Ez zaitu lotsarazten jauregian daukazun arrotz onek: ituan ez dot utsik egin, uztaia tresna-

tzea be ez yat neketsu izan; osorik dagoz oindiño nire indarrak, senargeiak, niretzat irain aundiz, ezetz iñoen arren. Baiña ba-da ordua akeutarrai aparia gertetako, oraindik argi dan tartean; gero beste era batera, kantuz ta kitaraz poztu daitezán, orreik bait dira janaldiaren apaingarriak.

458 Au esanik, kiñu bat egin eban bepuruakaz. Eta Telemako, Odis jainkotiaren seme kutuna, ezpata zorrotza gerri-ratu, bere lantzea artu ta, borontze dirdaitsuz iskilloturik, zutik jarri zan aulkiaren aldamenean, bere aitaren ondoan.

KANTUA

Senargaien ilketa

Orduan Odis asmotsuak, jantzi-dandarrak erantzi, atarte garaira zapan egin uztaiatz ta karkaiz gezi ariñez orniduat ta, oneik bere oin-aurrean barreiatuaz, tankera ontan mintzatu yaken senargaiak:

5 Odis.—Amaitua da onezkero leiaketa neketsu au; orain beste itu batera egotziko dot, iñoiz iñungo gizasemek egotzi ez dauanera, ta ikusiko dot apara egiten dodan, ApoPek aintza ori dagistalarik.

9 Au esan ebanekoxe, Antinoo'rantz zuzendu eban ezten mingotsa. Au urrezko txol eder bat, kirten bikoa, jaso ta bera eskuan ebala aurkitzen zan ardoa zurrupatzeko, eriotz-gogaiaren garraztasun barik ain zuzen be: nok uste izan eikean, ainbat mailagunen artean, gizon batek bakarrik, naiz-ta bipil-adoretsua izan, erio ain txarra ta adur baltza eman leikeonik? Odis'ek, bada, eztarrian jorik, gezia zauritu eban onen puntea sama samurretik agertzeraiño. Atzerantza jausi zan Antinoo, zauria artzean; eskuetatik lurrera yakon txola, ta aren surretatik giza-odolezko txarrastada lodia erion. Ots-otsean maiani saka eragin eta oiñaz ikuturik, jatekoak lurrera yakezan, ogia ta aragi errea bertan loituaz. Jausita ikusi ebenean, iskanbil izugarria atera eben senargaiak jauregi barruan; jarlekuak itxi ta, aretoan ara ta ona, ondo landutako ormetara zorroztu zituen euren begiak; baiña ez zan agiri ezkutarik bat bera be, ezta oratzeko lantza sendo bat be. Eta agiraka egin eutsoen Odis'i itz asarrekorraz:

27 Senargaiak.—Oi arrotz! Ez dagizu ondo gizonen aurka uztaiatz egotziaz. Baiña onezkero etzara beste iñungo leiaketan aurkitu al izango: eric) ikarakorra daukazu zain. Itaka'ko gazteetan nabarmenena zan gizaserneari kendu dautsazu bizia; beraz, ementxe berton jango zaitue buztan-urkulu ta saiak.

33 Onda mintzo ziran, gizon a naiezta ii ebalá begítan-
durik. Ez eben uste iñozo areik zintzilika eukela gaiñ onda-
mendia. Baiña, Odis asmotsuak, betarte illun aotik aora, esan
eutsen:

37 Odis.—A, txakurrok! Ez zenduen uste ni troiar erri-
tik neure egoitzera biurtuko nintzanik, eta etxea ondatzen
zeusten, neskame jopuak indarrez artzen zenduezan eta, ni bi-
zi nintzala, nire emaztearen atzetik zenbiltzen, zeru zabala dau-
kien jainkoen bildur barik, eta gizonen aldetik ezetariko apen-
artzerik iñoiz zanak emon bage. Ausiabar betea dindil clau-
kazue onezkero zeuen buruen gaiñ.

43 Onela iñotsen. Eta danak geratu ziran zuri laruek joak,
eta bakotxa nundik iges-egín billa ebillen, erio bildurgarritik al-
dendu naiean. Eurimako'k bakar-bakarrik erantzun eutson, au
esanez:

47 Eurimako.—Itzuli zarean ori egiaz ba'zara Odis ita-
karra, errazoia dozu akeutarrak egin oi ebenetzaz era orretan
itz-egiteko; benetan, ba, gaiztakeri ugari egiñak izan dira jau-
regian eta kanpoan. Baiña lurrean datza, Antinoo, gauza guz-
don errudun izan zana: a izan zan egintza orrein eragille, ez
gero ezkontzcko bear-izanik cdo-ta guraririk ebalako, ezpabe-
re Kronion'ek burutu ez zituan beste asmo batzuk buruan
sartu yakozalako, au da, zure semeari azpikeriz eriotzea emon
eta ondo eregitako Itaka'ko errian agindu nai ebalako bairio.
Ordaindua dau bere biziaz, bidezko zanez; baiña zuk parka
zeure uritarrai, guk bada, zu bigundu ta ezti-erazteko agirian,
emen jauregian jan eta edana ordainduko dautzugu, bakotxak
ogei idiren zorra kitutuz, ta orrez gaiñera zure biotza asetu
arte borontze ta urre emonik, aurretik ez zintzazan bada asa-
rrekor iñoiz be agertu.

63 Arpegi illunez begiraturik, au erantzun eutson Odis
asmotsuak:

65 Odis.—Eurimako! Guztiok zeuon etxe-etorkia emon
ba'zengide, daukazuenaí bestelako etorriko beste ondasun ba-
tzuk geituaz, orrelaxe be nire eskuak ez litzatekez ilketaz ase-
tuko senargai lotsagalduko zcuén geiegikeri guztiak ordaindu
arte, Oraintxe dozue abagune ederra neugaz burrukarako edo
iges egiteko, iñok itzuri al ba'clau eriotzea, ta Parkak; baiña
ez dot uste iñor asazkatuko danik azken zori-gaiztoko bate-
tik.

73 Olan mintzatu zan; eta danak izuak artuta, belautan biotz adore bage somatu ziran. Eurimako'k, alan be, bigarrenez itz-egin eutsen:

75 Eurimako.—Adiskideok! Gizon onek ez ditu bere esku ezikatzak geldiz-azoko: uztaila leuna ta karkaitza eskuan daukazan ezkerre, eurokaz erauziko dau atarte zabaletik gu guz. tiok ii artean. Gerta gaitzean, beraz, burrukarako. Atera ez-patak, jarri maiak babeski lez erio lasterra dakarren gezen aurka, ta eraso daiozun guztiok batera, ia ataritik eta atetik uxatzea lortzen dogun, ondoren, urian zear joanaz, abarrotsa ta zarramarra sortu daigun. Eta bear bada, orduan, azkenengoz erauziko leuke bere uztaila.

84 Au esanik, borontzezko ezpata, zorrotz eta ao bikoa, lekatik atera ta ari eraso eutson zoro-zoro baten antzera garra-xika. Baiña une berean Odis jainkozkoak bota eutson gezi bat eta, bularrean emonez giar ondoan, gibelean josirik geratu yakon ziri ariña, Lurrera jausi zan Eurimako'k eskuan eukon ezpata, ta au, dardaraz ta ing,uru-biraka, mai gaitzera erori ta bertako janariak eta kirten biko txola zelaira zituan; gero, biotz-esturak joa, bekokiz zapaldu ta aulkia jo eban oitakaz; eta, azkenez, odei baltz-illuna edatu zan aren begien gaitzera.

95 Anfinomo be, artezean, Odis aintzatsurengana zuzendu zan, ezpatea zorrotik aterata, zelan edo alan a atetik jaurti naiean, Aurretik, baiña, Telemako'k bidera urtenaz, borontzezko lantza egotzi ta onek, aren sorbaldan, bizkargain bien artean sarturik, bularra zearkatu eutson; eta a, zarata-tsu, aoz-bera jausi zan bearen gaitzera. Laster alden du zan Telemako, Anfinomo'ren gorputzean josita itxirik zikailuzea; bildur zan, bada, ateratekoan, akeutarren batek ezpata erpitiñez edo abakiz zaurituko ete eban, Joan zan ariñeketan, bertatik eldu zan bere aita egoan lekura ta, aren ondoan geraturik, itz arin oneik esan eutsozan:

107 Telemako.—Oi aita! Ezkuta bat ekarri bear dautzut, baita lantza bi ta berontzezko buru-oskal bat be, zure burugiltzai ondo yagokena; eta bide batez neu be izkillotuko naz, txarrazain eta idizaitzagaz beste orrenbeste egitiñik; gertu egon bearra dogu-ta.

111 Odis asmotsuak erantzun:

112 Odis.—Ekar eizu bizkor, orrei aurka egiteko geziak ditudan bitartean: egiazki, bakarrik nagolako, atetik jaurti ez nagien.

115 Orrela esan eutson. Telemako, aitak esana egiñez, izkillu dirdaitsuak egozan ganbarara joan zan. Lau ezkuta artu zituan, zortzi lantza ta lau horontzeko buru-oskol, zal-di-zur-daz naasi apaindutakoak; eta, dana beragaz eroiala, laster bi-ur-tu zan aita egoan lekura. Telemako'k lenen bere soiña ba-bestu eban borontzez; jopu biak he erabat gudu-jantzi ede-rrak alderatu zituen, eta gero guztiak Odis zur ernearen al-boetan jarri ziran.

123 Gizurenak, bere burua gerizatzeko naiko gezi euki eban bitartean, eten barik jardun eban bata bestearen ondo-ren jausten ziran senargaiak bere etxean jo ta erasten. Baiña jaurti ta jaurti eragoion erregeari geziak peitu yakozanean, sendoro eregitako aretoko zutoin bati eutsola uztaia itxi eban, orma dizditsuaren auzoan; lau narruzko ezkuta besagairiera bota, buru giartsua oskol gaiñean izugarriro dardar egian zal-di-zurdazko motots ederto egokituaz estali, ta borontzeko er-pindun lantza sendo bi eskuetan artu ebazan.

133 Ondo landutako orman gibel-ate bat egoan, sendo eregitako aretoaren azpia baiña naikoa gorago alatz-zubia eu-kana; kale estu batera bidea emoten eban onek, eta ondo era-ratu ol batzukaz itxita egoan. Odis'ek agindu ebanez, txarri-zain jainkotiak jagon bear eban au, bere ondoan tinko, axe bait zan urteteko bide bakarra. Eta Agelao itz oneikaz min-tzatu yaken guztiai:

140 Agelao.—Oi adiskideok! Ezin igon leiteke iñor gi-bel atera, jenteari itz-egin eta beingoan garraxi ta abarrotsa sortu? Orrela egiñaz, gizon onek bear bada azkenengo aldiz erauziko leuke uztaia.

144 Baiña Melanti auntz-zaiñak jardetsi eutson:

145 Melanti.—Eziña da, o Agelao, Zeus'en ikasle. Ur-teiera ori larriñera daroan ate ederretik ur-ur aurkitzen da, ezta errez kalera urtetea, ta saiatua dan gizon bat bakarra naiko litzateke gu guztiok geldi-azoteko. Baiña, tira, izkilluz jantzi zaitezen, izkilluak ekarriko dautzuedaz Odis'ek bere serne ar-giagaz, nik uste, itxi ebezan lekutik (antxe laga ebezan ba ziu-rrik asko ta ez beste iñun).

152 Au esandakoan, Melanti txarrizaiña Odis'en etzan-gura igon zan jauregiko mailladitik. Amabi ezkuta artu zituan, eta beste ainbeste lantza ta erabat borontzeko oskol zal-di-zurda naasiz ornidutako; ta dana beragaz eroanik, senargaien

eskuetan ipiñi eban. Dardar egin eben Odis'en belaunak eta biotzak izkilluak artu ta zikai luzeak dardarikatzen asi zirala ikusi ebanean; aundia zan, izan be, aurean jarten yakon lana. Eta ots-otsean itz ariñok zuzendu eutsozan Telemako'ri:

161.—Odis.—Telemako! Neu naz errudun, ez beste iñor, zarratu barik itxi neban ba ganbarako ate sendo egokitua. Er-neago izan da aren zalataria. Zoaz zu, Eumeo jainkozko, atea iz-ten eta jakizu olako gauzak dagizana umakume bat dan ala, nik uste dodanez, Melanti, Doli'ren semea.

171 Oneik onan ziarduela, Melanti auntz-zaiña barriro zu-zendu zan ganbarara beste izkillu dizditsu batzuk ateraten, Igarri eutson txarrizain jainkotiak zetan ebillen, eta bertatik esan eutson ondoan eukon Odis'i:

175 Eumeo.--Laerte'ren seme, Zeus'en leiñukoa! Odis, amarruz jori! Gizon gaitz-gille a, guk susmotan artzen gen-duna, barriro be ganbarara doa. Esaidazu argiro ii egingo do-danez, ni a baiño geiago ba'nintz, ala ona ekarri bear dautzu-dan, zure etxean egin ebazan zitalkeri askuak ordaindu dagi-zan.

181 Odis asmotsuak ari erantzun:

182 Odis.—Nik eta Telemako'k arpegi egingo dautsegu areto ontan senargei argiai, oso suturik dagozan arren; eta zoaze zuok, biur egiozuez atzerantz oiñak eta eskuak, bota lu-rarrera ganberan eta, atea itxirik, lotu soka biurri-biurri bat eta jaso egizue zutoin baten gaiñaldera, zurajeen ondoan, bizi dai-ten eta mm n larriak jasan dagizan luzaro be luzaroan.

189 Olan mintzatu zan; eta areik entzun eta ifiotsena egin eutsoen; ganbararantz abiatu ziran besteak igarri barik, a barruan egoan-eta, Etzanguaren sakon-sakonean aurkitu eben izkillu-billa zebillelarik, eta sarrerako ate-zapata aurean jarri ziran biak, bata eskuman eta bestea ezkerrean. Eta Melanti auntz-zaiña, esku batean buru-oskol eder bat eta ezkuta aundi bat, antxiñakoa, lizunez estaba, Laerte gizurenak bere gazta-roan eroan oi ebana, zokoratua ta ugelak be aske eukazana, bestean ekazala, ataria igarotera joiala, gaiñeratu yakozan areik, oratu ta barrura eroan eben, buruko uleetatik narras; bat-batean eratxi eben lurrera, biotz-larri, ta, oiñak eta besoak atzerantz biurturik, lotu egin eutsoezan batera lotura zai-lla egiñik, Laerte'ren semeak, Odis jainkozko jasankorrek agindu eutsenez: soka ondo biurtu bat lotu eutsoen gero ta

zutoin baten gaiñekaldera jaso eben, zurajeen ondoan, Orduan zuk, Eumeo txarrizaiña, ixeka egiñez esan zeuntso ari:

208 Eumeo.—Onezkero, o Melanti, itzar, bela egingo dok gaualdi osoan, merezi dokanez oge bigun orretan etzuna; ta ez yak oar bage igaroko urrezko aulkidun Egunsentia, goizaren alaba, Okean uretatik jagi oi dan orduan, ik eure auntzak senargaiai gosaria gertateko ekarri oi dokazanean, ain zuzen be.

214 Olantxe geratu zan, loki itsetik eskegita; areik, oster, bat-batean izkillotu, ate nagusia itxi ta Odis zur ernaia-rengana joan ziran. An geratu ziran, kemenez bizi. Lau ziran, beraz, ate-zaintzailleak eta asko ta sendoak areto barrukoak. Laster urreratu yaken Atene, Zeus'en alaba, Mentor'en itxura ta abotsa ebalarik. Poztu zan Odis a ikusiaz eta itzok zuzendu eutsozan:

222 Odis.—Mentor! Alde-eraz gugandik zori-gogorra, ta gomuta zaitez ainbat on egin oi eutzun lagun maiteaz; adin batekoak gara-ta.

225 Orrela itz-egin eban, Arene, gerrariak sutzen ditua-na ezagutu eban arren. Euren aldetik senargeiak zirikatzen zituen aretoan; Agelao Damastor'en semeak onan iñotson:

229 Agelao.—Mentor! Ez zaizala zuritu Odis'ek bere itzakaz, senargaien aurka jokatz, berari lagun zakiozala-ta; nik uste dot, bada, asmoa onela amaituko dogula: aita ta semea, biak ii dagiguzanean, zureak be laster egingo dau jauregian egin nai dozuzan gauzakaitik: zeure buruaz ordaindu bear dauskuzu. Eta borontzeak zure gogorkeriari azkena emon dagionean, Odis'enakaz batuko doguz errian barru ta kanpo gozatzen dituzun ondasun guztiak, eta ez dogu lagako zure seme-alabak zeure jauregian bizi izaterik, ezta zure emazte aratza Itaka'ko urjan zear ibilterik be.

240 Orrela mintzatu zan. Biotzean eban erdein-asarrea aziagotu yakon Atene'ri ta itz laidotsu oneikaz lots-erazo ta gorritu eban Odis:

242 Atene.—Gaur-gero zuk ez dozu, Odis, beiñola, be-deratzi urtetan, Helena, edur-besoduna, guraso leiñargien alabea zala-ta, teukrotarren kontra eten bako burrukan jokatu zenduanean zeunkan lako bizitasunik, ez kemenik; orduan ainbat eta ainbat gizasemeri eriotza emon zeuntsen burruka ta

craso gordiñean; eta zeure aolkuz artua izan zan Priamuren uria, kale zabalduna. Zelan, bada, zeure etxera ta zeure ondasunetara eldu ondoren, ez zara bulartsu izaten ausartzen senargaien aurka? Baiña, ia zatoz ona, adiskide; zatoz neure ondora, ikus nire lana, ta jakingo dozu nunbait Mentor Alkimidak zelan jokatzten dauan zure etsaiakaz egin zeuntsezan mesedeak ordain dagitzuzan.

253 Esan eban; baiña ez eutsan emon bete-betea zalantzazko garaipena, Odis eta onen seme aintzatsuaren indar-ke-menak ikusi ta aztertu nai izan ebazalako. Eta, elai baten antza arturik, egaz, areto bikaiñeko zuraje batean kokatu zan.

258 Ontan zirikatzen zituen senargaiak batez be Agelao Damastorida'k, Eurinomo'k, Anfimedonte'k, Demoptolemo'k, Pisandro Poliktorida'k eta Polibo bulartsuak, oneik ziran ba, oindiño bizirik, euren buruak jagon naita, usu, zangar ta ausardien agertzen ziranak; enparauak, ba, uztaz jaurti gezi-mordoz eratxiak izan ziran. Eta Agelao'k danai itz-egin eutsen onela:

265 Agelao.—Oi adiskideok! Gizon onek onezkero geldi-azoko dauz bere esku ezikatzak; Mentor joan yako, ba, alperriko panparroikeriak esan eta burrundarak egin ondoren, eta bakarrik geratu dira barriro be ate aurrean. Beraz, ez jaurti danok batera zikai luzca; ia, tira begioe lenengo oneik seirrok, Zeus'ek nai ba'dau be Odis zauritu ta guk aintza jaristea. A jausiko ba'litz, besteak ez leuskigue ardurarik emongo.

272 Onan mintzatu yaken; jaurti ebezan euren lantzak oldar aundiz orrela egiteko agindu izan yakenak, eta Atene'k naita, tiro guztiak uts-egin eben. Batek sendo be sendo eregitako gelearen zutoiñean emon eban, beste batek ate gogor egokitan, eta beste batek ormea zauritu eban borontzeak astun egian leizarrezko lantzeazr Baiña, senargaiak jaurti lantzetatik askatu ziranekeoxe, Odis jainkozko jasankorra izan zan beretarrai lenengo itz-egin eutsena:

281 Odis.—Oi adiskideok! Bota orain zuen lantzik senargai-taldearen aurka, leen ainbat egite donga buruturik orain gugazkoa egin nai dabe-ta.

285 Onan adierazo eban; eta areik euren lantza zorrotzak erauzi zituen, aurrez-aurre erauzi be. Odis'ek Demoptolemo u eban, Telemako'k Euriade, txarrazaiñak Elata ta idizainak Pisander; oneik danok batera miizkatu eben lur zaba-

la. Senargaiak orduan aretoaren barrenean moltzotu ziran, eta Odis eta bereak bizkor abiatu ziran illotzak josita eukezan lantzak ateratera.

292 Senargaiak be barriro asi ziran oldar aundiz lantza zorrotzak jaurtzen, baiña Atene'k naita, tirorik geienak utsegin eben oraingoan be. Batek sendo be sendo eregitako geiearen zutoiñean emon eban, beste batek ate gogor egokituan, eta beste batek ormea zauritu eban borontzeak astun egian leizarrezko lantzeaz. Anfimedonte'k Telemako zauritu eban eskuturrean, baiña guztiz gitxi ta arin, borontzeak ba azala urratu besterik ez eutson egin. Eta Ktesipo'k Eumeo'ren bizkargaiña, ezkuta gaiñetiik, bere lantza eskergaz zerbait urratzea lortu eban; izkilluak, baiña, bestekaldera egaz egin eban, lurrean jausirik.

302 Odis zur maltzurak eta beronegaz egozanak bota zituen barriro be euren lantza luzeak senargaien aurka. Odis, uri-suntsitzailleak, Euridamente zauritu eban, Telemako'k Anfimedonte ta txarrizaiñak Polibo; eta idizaiñak bere aldetik Ktesipo jo eban bularrean eta, atsegin aundiz, onela mintzo yakon:

309 Fileti.—Oi Politorsida, irain-zale! Ez iñoiz be amore-egin eure gangartasunaren oldarrari, arroputz mintzatzeko; bestera, bai, itxi jainkoei itz-jarioa, gu baiño askoz altsuago dira-ta. Arrotz-txeratasunaren emoitz au artuko dozu Odis, jainko antzekoari, ber-beraren jauregian eske ebillela, emon zeuntsan ankazurraren truke.

315 Onela mintzatu zan adar biurridun idien zaiña; eta tarteetan Odis'ek, urretik atan be, bere zikai aundia sartu eutson Damastorida'ri. Telemako'k bere aldetik Leokrit Ebonerida zauritu eban lantzez, borontzeak alderik alde zearkatu eban arkuzuloan barrenduz; gizona bekokiz jausi zan, azpia arpegiaz jorik. Atene'k orduan, sapai garaitik, bere ikurriña jaso eban, ilkorrentzat kaltekor; eta senargaien biotzak oro arri ta zur, ada-gaiñean geratu ziran. Igeska ebiltzan oneik aretoan ara ta ona, udabarri-aldera, egunak luzeak diranean, ezpara geldiezeiñak jotako bei-taldea iduri. Eta areik, erpa biurritu ta piku makurdun saiak, menditiek jatsiaz, odei artean egoteko bildurrez laura jatsi ziran egaztiai eraso, aurrean erabilli ta, gizonak arein arrapatzeaz poztuten diran bitartean, ez jarki ez iges, il egiten dabezan legez; orrelaxe arpegia emon

eutsen senargaiai aretoan, ezker-eskuma zartako izugarriak ezarritz; buruan jotakoak antsi ta aiene latz-ikaragarriak ateraten zituen, eta bean non-naitik odola ebillcn borborka,

334 Leode ontan Oclis'egana jo bizkor, belaunetatik besarkatu ta ari erreguka asi zan itz arin oneikaz:

337 Leode.—Emen naukazu, Odis, zure belaunak besaré katz, erreguka: babes nagizu, erruki zakidaz. Nik egiaz dirautzut jauregiko andrazkoai ez dauset egundo ez esan ez egin zitalkeririk; besterik da, olakoetan ziarduen senargaiai nik neurria eskatu oi neutsen beti-beti. Baiña ez eusten areik esanik egin, txar egitetik euren eskuak lekuturik; ori dala-ta, gaiñeratu yake euren gaiztakeriakaitik eriotzarik negargarriana. Eta ni be, arein usnagin nintzana ta txarrik egin bakoa, eurakaz natzake; ez da sumatzen ba ezertariko errukirik onegilleen alderako,

347 Odis asmotsuak, betarte illuna erakutsiz, bota eutson:

349 Odis.—Arein usnagin eta azti izan ziñala-ta pozik baldin ba'zagoz, sarri otoiztu bear zenduan jauregian nire biurkeraren une leuna urrindu, ta nire emazteak zeugaz joanik, eizuzala seme-alabak; beraz zuk be ez dozu igesik egingo eriotz ankerretik.

354 Au esanez, esku sendoaz, Agelao'k, ilterakoan, lurrera egotzi eban ezpata artu, ta lepondoaren erdi-erdian zartako ikaragarria bat emonik, Leode oindiño berbaz egoala, aren burua autsean itzul-ipurdikatu zan.

358 Femi Terpiada bertsolariak, alan be, iges egin eban Parka zakarretik; onek, ha, ortara bearturik, abesari ekin oi eutson senargaien aitzinean. Albo-atearen ondoan aurkitzen zan zutik, kitara soiñutsua eskuan ebala, eta xede bi iraultzen zituan bere biotzean: edo, gelatik urtenda, tegien babesle dan Zeus aundiaren altara ondo eregiaren alboan jarri, Laerte ta Odis'ek ainbat idi-iztar erre ebezanen alboan am zuzen be, edo-ta Odis'egana jo, aren belaunak besarkatu ta otoitza zuzendu berari. Olako zerekoak ondo pentsatuta, onena eritxon Odis, Laerte'ren semeari belaunak ikutzea. Eta bean itxirik kitara makurra, txanbillaren eta aulki zidarrezko untzeteriz josiaren tartean nunbait, Odis'egiño abiatu, aren belaunak besarkatu ta erreguka asi yakon itz arin oneikaz:

371 **Femi.**—Ona ni, Odis, zuri belaunak estutzen, eta erreguka: geriza naizu, erruki nitaz. Atsekabe aundia izango dozu noski, geroago, ni lako bertsolari bati, jainkoak eta gizonak goratzen kantuz nabillen oni, bizia kendu izanagaitik. Nik neuk neure buruari erakutsi dautsot, jainko batek idaroki ta gogora emon daustazala zernaitako abestiak eta zure aurrean be, jainkotasun bat ba'zintzaz lez, eurak kantatzeko gai nozu: ez naizu, ba, sastaka. Telemako, zure seme kutunak esan leikizu ni ez nintzala etxe onetan neure oldez sartzen, ezta bearrak jota be, senargaien jan-edanen ostetan kitara jotzen; oneik, ostera, askotxo bait ziran eta ni baiño indartsuago, naitaez bertoratzen ninduen.

383 Onela mintzatu zan; eta Telemako jainkoti zangarrak au entzunaz, alboan eukan aitari esan eutson:

385 **Telemako.**—Kontuz! Ez eizu, otoi, borontzez zauritu erru bako au. Mendonte otsegilleari be erabat parkatuko dautsagu, ni ume nintzala ba onek zaintzen nindun beti etxe onetan; Fileti'k edo txarrizaiñak onezkero il ez ba-dabe, edoé ta zuk aretoan erasotean azpiratu ez ba'zenduan beintzat.

390 Onela esan eban; eta entzun eban Medonte zurrak, Parka illuna itzuri nairik idi-narru barriaz estalduta, aulki baten azpian kukurio egoanak. Aulkipetik beingoan jagi, idi-narrua kendu eta, arineketan Telemako'gana jorik, belaunak oni estutu ta itz ariñokaz arrenge asi yakon:

396 **Medonte.**—**Oi** adiskide! Neu nozu ori. Alaz!, eta esaiozu zeure aitari ez daidala kalterik egin borontze zorrotzaz, bere indarrean suar ta bipil, jauregiko ondasunek txautu dautsoezan senargaien aurka sumin bizitan dago-ta; zuri be, zoro alenak, ez eutzuen lotsa aundirik erakusten.

401 **Odis.**—Nare zaitez; onek atera zaitu, ba, onik eta gaizkatu, zeure barruan konturatu zaitezan eta besteai esan al izan dagiezun onak txarrak baiño eskozaz ederragoak dirala, Urten, orraitíño, zu ta bertsolari ospetsua emendik eta jesarri zaiteze larraiñean, ilketazko toki ontatik landa, neure bizitokian egin bear dodanari amaia emon dagiodan bitartean.

409 Olan zirautsen; eta biak aretotik urtenda, Zeus aundiaren altara ondoan jarri ziran, ara ta ona begira, ta unetik unera eriotzaren zain.

412 Odis'ek gizategi osoa aztertzen eban begiakaz, gizon areitatik batenbat, Parka itsetik iges eginda, bizirik gelditu

ete zan begira nunbait. Baiña ez, ziran guztiak odol ta auts artean ekusan luze. Arrantzaleak, konta-ezin-ala gartzadun sareetan itxaso apartsutik ur-ertz makurrera atera oi dabezan arraiñak, ondarrean moltzotuta uin-irrikaz dagozanak eta eguzki diztiratsuak bizia kendu oi dautsoenak lez, olaxe aurkitzen ziran senargaiak be bean luze, bata-bestearen gaiñean. Odis asmotsuak orduan onda itz-egin eutson Telemako'ri:

422 Odis.—Telemako! Zoaz eta dei egidazu Eurikle etxekandrea, gogoan zer darabildan jakin dagian.

424 Olan adierazo eutson. Aitak esana egin eban Telemako'k eta, ateari eragiñik, onela itz-egin eutson Eurikle e txandereari:

426 Telemako.—Jagi ta zatoz ona, zaar urtetsu, gure jau-regian mirabeen ardurea dozun ori! Neure aitak dei egiten dautzu, zerbait esan nai dautzu-ta.

429 Olan esan eutson; eta itz bat bera be etzan egaztu Eurikle'ren ezpanetatik; gela erosoetako ateak edegi ta, Telemako aurretik ebala, ba-joian joanez, eta Odis, odolez eta autsez beterik, il-barri zituan arein gorpu artean aurkitu eban. Basabei bat iruntsi dauan leoia, galtzarpea ta matrailazur biak odola dariola, aurkeztu oi da, olan ikusten dabena izu-ikara sarturik; Odis'ek be era bardiñean eukazan odolez orbanduta oiñak eta eskuak. Etxekoandreak illotzak eta odol-erreak a ikustean, poz-oiuka asi zan egitsari aundia ekusalata; baiña Odis'ek ez eutson olako zaratarik egiten laga, itz oneik esanez:

443 Odis.—Zaartxo! Poz zaitetz zeure biotzean, baiña geldi, ez egizu pozezko zantzorik bota; ez da, ba, ona gizon onein eriotza dala-ta poz-zarataka ekitea. Jainkoen Parkak emon eutsen eriotza, ta egite dongak; lureko gizon, txar naiz on, bat berrari, eurekana eltzen zanari, ez eutsoen lotsarik; origaitik, euren gaiztakerien bitartez erio negargarria erakar dautsoe euren buruai. Baiña, ia, esaidazu orain zeintzuk emakumek dagisten dedu gitxi jauregian, eta zeintzuk dagozan errurik bage.

452 Eurikle, aren etxekoandra kutunak, erantzun eutson:

453 Eurikle.—Nik egia esango dautzut, o seme! Berrogetamar mirabe daukazuz jauregian, nik danai erakutsi dautsiet etxeko lanak egiten, ulea kardatzen eta mirabetza onez

eroa ten: euroatik amabik ez dabe zurtasun aundirik erakutsi, ez niri ta ez Penelope berari ez dauskue begirunerik izan eta. Telemako oraintsu eldua da bere gaztarora, ta bere amak ez eutson izten emakumeetan aginpiderik izaten. Baiña, tira, goiko gela bikaiñera noa bertatik, zure emazteari zer jazoten yakon yakin dagidan, daukan lo sendoa jainkotasunen batek bialdu bear izan dautso-ta.

463 Odis asmotsuak jardetsi:

464 Odis.—Ez eizu itxartu oindiñokarren; baiña esaizu datozala ona egiteko duin-ezak egin ebezan emakumetatik danak.

466 Olan adierazo eutson; eta atsoa jauregi-zear joan zan emakumai Odis'en aurrean agertu eitezala esatera. Gizurenak orduan Telemako'ri, idizaiñari ta txarrizaiari dei egiñik, itz ariñokaz mintzatu yaken:

470 Odis.—Egin lenengo gorpuak emendik kentzea, agindu andrai ta eurak egingo dautzue; eta gero garbitu dagiezala uragaz ta begi askodun belakiakaz aurki ta mai sekulakoak. Eta areto osoa eratsu ipiñi dagizuenean, eroan mirabeak jauregi zangarretik kanpora, ta antxe, larraiñeko biribillaren eta esi txairoaren artean, jo ta zauritu danak erpin luzedun ezpateaz arimea erauzi ta Afrodita'z aitzu artean, onen atsegiñetan goza oi ziran ba senargaiakaz baturik ixillean.

490 Agindu au emon eutsen. Eldu ziran andra guztiak batera, zizpuru aundiz ta negar-maiko ugari ixuriz. Asi ziran illen gorpuak ateraten, eta, alkarri eutsela, aterpean jarri ebezan, larrain ondo esituan: Odis'ek agindu eutsen, arin egiteko esanaz, eta areik naitaez croan bear izan zituen. Gero, uragaz ta begi askodun belakiakaz garbitu ebezan aurkiak eta mai txairoak. Teleinako'k, idizaiñak eta txarrizaiñak arrazkoa igaro eben gogor landutako aretoaren zoruan, eta mirabe-jopuak eroan ebezan karraska ondarrak, kanpora jaurtirik. Areto gutia eraz ipiñi ebenean, atera zituen areik jauregiko mirabeak toki medar batera, larraiñeko biribillaren eta esi ederraren artera, iñundik iñora be iges egiterik ez euken lekura. Eta Telemako zurrak esan eutsen beste biai:

505 Telemako.—Ez ditut erio deduzkoz bizi gabetu nai niregan eta nire amarengan laido ta gerena ixuri eben mirabe oneik, senargeiakaz lo egiñik.

509 Orrela itz-egin eban; eta, branka urdinzkadun itxas-ontzi baten sokea zutoin eskergari loturik, beragaz esitu eban biribilla, goian dingilizka jarriaz, mirabetatik bat be oiñakaz bea joteraíño eldu ez citen. Ego zabaleko zazo naiz usoak, esi baten sartzerakoan, sasitza aurrean luze ipiñi dau-tsen sareaz topo egiñik, bertan oge ez-gozoa aurkitu oi daben lez, orrelaxe mirabeak be lerroan eukezan euren buruak eta loki gogorrak curen sarna inguruan, erarik negargarrienean eitezan, Oiñak bakar-bakarrik dardaraztu ebezan pitin batean, ez luzaro.

519 Ondoren Melanti atera cben atartera ta larraiñera; surrak eta belarriak ebagi eutsoezan borontze ankerraz; lotsa-riak be erauzi eutsoezan, gordiriik zatitu egiezan txakurrak; azkenez, eskuak eta oiñak moztu eutsoezan amorru bizitan.

524 Guzti au egin ondoren, euren eskuak eta oiñak ikué zi eta Odis'enean sartu ziran barriro: egitekoa egiña zan. Orduan gizurenak bere etxeakoandra Eurikle'ri esan eutson:

527 Odis.—Zaartxo! Ekar eizu sulburra, txarraren aurkako osakaia, ta baita sua be, etxea sufratzeko. Penelope'ri esango dautsazu, gaiñera, datorrela ona bere neskameakaz; datozala orobat jauregiko mirabe guztiak be.

531 Bere etxeakoandra Eurikle'k erantzun eutson:

532 Eurikle.—Bai, ene seme, dagokiona da diñostazuna; egoki datar ori. Baiña, ia, mantua ekarri bear dautzut, eta al-kondara bat, jantzi zaitezan eta zeure jauregian barna, zeure sorbalda zabalak zarpad eta dindirriz beterik dozuzala, ibilli ez zaitezan.

537 Odis asmotsuak erantzun:

538 Odis.—Ezertxo baiño len, egizue sua ateto ontan.

540 Orrela esan eban, ez eutson esana egíteka itxi bere ugazabandra Eurikle'k, bertatik ekarri eutsozan ba sua ta sulbura. Jarraian sufratu eban Odis'ek aretoa, baita ondoren beste gela ta larraiña be.

543 Etxekanlrea Odis'en egoitz ederrerantza joan zan emakumai dei egiñik etorri eitezala agintzera. Laster urten ziran jauregitik zuzi ixetuakaz; Odis inguratzen ebela, au agurtu ta besarkatu eben, burua, besagaiñak eta eurenakaz artzen eutsoezan eskuak mosukaturok; eta negar ta intziri-nai samur bat jabetu zan gizurenaz, biotzbarruan bada guztiak ezagutu ebazan.

XXIII KANTUA

Penelope'k Odis ezagutzen dau

Poz-pozik zuzendu zan Eurikle zaarra goiko gelara bere andra gurenari iragarten etxe barruan eukala senar maitea. Aren etzangura eldu-ala, belaunai polito eragiñaz eta oiñak jauzika zitularik, Penelope'ren buru-gain makurtu ta itzok erautsi eutsozan:

6 Eurikle.—Itxar zaitez, Penelope, alaba kutun, egunero opa zenduana zeure begiakaz ikus dagizun. Eldu dan Odis; itzuli da, naiz-ta berandu, bere txera, ta il egin dauz jauregia samindu, ondasunak jan eta zure semea gogor artzen eben se-nargai argiak.

11 Erantzun eutson Penelope zurrak:

12 Penelope.—Andera maite! Zentzuna iraul-azo dautzue jainkoak; oneik, bai, ergeldu daikee oso sen oneko dana ta xaloari zurtasuna emon, eta orain zuri, buru aín eldudun orri, kalte egin dautzue eurak. Zer dala-ta nire sudurrera irri egin nai dozu? Samiñetan naukazu neke-lorrez ta orain guzur-jarioka zatorkidaz, betazal-gaiñ ixuria izan yatan lo-zorro ezti-leun ontatik itxartu nairik? Ez neban egundo atsedeen ain gozara(artu Odis Ilion kaltegarri ta iguinkor a ikusten joan yatanetik, Baiña, ia, jatsi zaitez barriro ta ar zeure lekua, jauregian; olako albisteaz baletorkit neure emakumeetatik besteren bat, laster bialduko neuke lotsagarriro etxe-barnera, baiña zu zartzaroak gordeten zaitu ortik.

25 Eurikle etxeko andreak erantzun eutson:

26 Eurikle.—Ez, ez dautzut adarrik jotén, alaba kutun; egia da Odis etorri dana, etxe onetan daukazu, diñotzudanez: arrotz axe zan, jauregian danak gitxi-eritxi ta erdeiñatzen ebena. Aspaldi ekian Telemako'k emen aurkitzen zana; baiña atrikulu zurrez ixildu egin zituan bere aitaren asmoak, giza-seme buru-arro arein zakarkeriak zigor-azo eikezan.

33 Olan odierazo eban. Poztu zan Penelope, eta, ogetik jauzi egiñaz, zaarra besarkatu ta, begiak negar-malkotan, itz ariñok aoskatu ebazn:

36 Penelope.—Ia, ba, andera maite, esaidazu egia: ia egia dan, diñostazunez, etxe ontara etorri dana, ta zelan jarri al izan dabezan bere eskuak senargai lotsabakoen gain, bera bakar-bakarrrik egonda ta besteak alkartuta beti jauregi barruan.

41 Eurikle zarrak erantzun eutson:

42 Eurikle.—Ez dot ezer ikusi, ez dakit, ilda jausten ziranen negar-inkesak asmatu ditut bakar-bakarrrik; gu, bildurrak jota, atearik itxirik gengozan gelearn alderdirik sakonean, zure seme Telemako, aita bialdua, aretora etorri ta dei egin eustan arte. Zutik idoro neban Odis illotzen artean, bere biran bata-bestearen gaiñ etzunik egozanen artean: poztu izango ziñan, aurki, ikusi izan ba'zendu leoi baten antzera, odolez eta autsez orbandua. Orain larraineko ate ondoan dagoz danak batera ta Odis'ek, su aundia egiñik egoitza bikaiña zufartzen diardu, ta zuri dei egiteko esan daust. Zatoz, ba, neugaz, biok batera zuen biotzak poztasunez ase dagizuezan, ainbat gaitz be alkarrekin jasan zenduen ezkerro. Bete da, azkenez, gurari aundi a: bizirik biurtu da Odis bere sukaldera, zu ta zure semea be bizirik aurkiturik, eta a irainduaz pozten ziran senargeiak bere jauregian bertan zigor-azo ditu.

58 Penelope zurrak erantzun eutson:

59 Penelope.—Etxeko andra kutun! Ez abes oindiño garaipenik, geiegi poztuz. Zuk ba-dakizu guri guztioi, jauregian bizi gareanoi, pozgarri be pozgarri izango yakuna aren etorre-ra ta batez be niri ta biok sortu genduan semeari; baiña albistea ez da egia zuk damozunez, bestera baiño: illezkorretatik norbaitek senargai argiak il-azo dauz, arein irain mingotsak eta egitada doillorak ikusi ta asarre-irakiñetan sumindurik. Ez eben, ez, gizaseme lurtar bat bera be, txar naiz on, eurekana eltzen zanik, lotsaz ta begirunez artzen; eta ortik dator, euren gaiztakeriakaitik, orrako zoritxarra jasan bearra. Baiña itzuliko zanaren itxaroa Akaia'tik urrin aitu zan Odis' entzat, eta au be illa da.

70 Itzetik ortzera erantzun eutson Eurikle etxandereak:

71 Eurikle.—Ene alaba! Bai itz bitxiak iges-egin dauztuela agin-bira artetik, zure senarra ez dala iñoiz etxe ont-

ra biurtuko diñozuzean., dagoneko berton aurkitzen dala! Zurre barrua beti siñisgogor! Baiña, ia, beste ezaugarri argi bat iragarri bear dautzut: basurde batek bere albagin zuriaz egin eutson zauriaren orbana. Bera garbitzen niarduanean ezagutu neban, eta esan nai izan neutzun; baiña berak, aurreztik ikusten zur-sotillez, ez eustan itxi, bere eskuakaz agoa izten eustalarik. Narraizu; neure burua damotzut baitzat, eta, kaparra sar ba'dagizut, il nauzu eriotzaTik negargarriena ikusi-azorik.

81 Penelope zurrak erantzun:

82 Penelope.—Etxekoandra kutun! Asko jakinda be, zail-zailla yatzu jainko betierekoen asma ta erabagiak igarri ta somatzea. Alan eta guzti be, goazan nire semearengana, neuk ikus daidazan senargai illak eta arein iltzaillea.

86 Orrela esan eban; eta goiko gelatik beera jatsi zan, bere barruan gauzik asko irauliz: urrindik itanduko ete eutson bere sanarrari, ala obeto, arengana eldurik, buruan munegin eta eskuak artuko ete eutsozan. Arrizko ataria igaro ta aretoan sartu zanean, Odis'eri eurrez-aurre jezarri zan, suaren argitan, bestaldeko orma ondoan; gizurena, ba, zutoin garai bati lepoa emonda egoan jarririk, beera begira, bere emazte argiak, beragan begiak ezarriaz bat, noiz itz-egingo ete eutson zain. Baiña Penelope luzaro egon zan, laborrian bait eukan biotza, ezpanak edegi barik: batzutan, begietara adi-adi so-eginik, axe zala eukan egi-egiaz aren itxura; eta beste batzutan ez ebalá ezagutzen eroiazan jantzi zarpaillakaitik. Eta Telemako,k asarre egin eutson itzokaz:

100 Telemako.—Ene ama, ama endakatu, barru ain dolo-rrekoa zara-ta! Zergaitik jarten zara nire aitagandik ain urruti, bere ondoan jarri orde, eta itaunak egin eta jazo yakon guztiaz jabetu? Emakumetatik ez litzateke iñor orrela geratuko, biotz sendo danik beiñik-bein, bere senarragandik baztertua, bera, ainbat neke-lor igaro ostean, ogeigarren urtean bere gurasoen lurrera etorkeran. Baiña zure biotza beti izan da arri bat baiño gogorra.

108 Penelope zurrak jardetsi:

109 Penelope.—Ene seme! Zur ta lur daukat barrua, ta ezin neio. itz bat be esan, ez itaunik egin, ez begiz-begi so-egin. Baiña, egiaz etxera datorren Odis ba'da, alkar ezagutuko dogu ondo be; gureztat baida, ba, ezaugarriarik bestek ez dakia-nik.

115 Olan mintzatu zan. Irripar egin eban Odis jainkoti jasankorrak eta jarraian itz ariñok zuzendu eutsozan Telemako'ri:

117 Odis.—Telemako! Itxi zure mani, jauregi barru azter nagian; gisa orretan, bear bada, errezago ezagutuko nau. Zikin nagolako ta jantzi zirtzillakaz nabillelako, gitxi-etsia nauko ta ez dau uste oraindik a nazanik. Oraintxe ebatziko dogu, dana alik ondoen burutu daigun. Erriko gizon bat ii dagianak, apentzaille asko atzetik laga ez arren, igesari emon eta senitarteko ta jaiot-lurra bertanbera itxi ba'daroa, guk uria-
ren eusgarri ziranak il doguz, Itaka'ko gazterik bikaiñenak. Arren, ausnar egizu au.

128 Telemako zurrak erantzun eutson:

129 Telemako.—Egoki da, aita maite, gauzea zerorrek ikustea, zure aolkua ba, diñoenez, bikaiñena da gauza guztietan, eta gizaseme ilkorretatik iñok ez leuke zugaz leiatsu ta burua bat egingo. Gu zuri jarraika genbiltzakez abazuzian, eta geure kemenen neurrira ez yaku paltako indarrik.

135 Odis asmotsuak erantzun:

136 Odis.—Egoki ta bidezkoen iruditzen yatana, beraz, esango dautzuet. Asi zeuen gorputzak ikusiaz, jantzi tunikak eta agindu mirabeai be apain daitezala jauregian; eta bertolari jainkotiak, jarraian, kitara soiñutsua arturik, dantza alaira zuzenduko gaitu; tankera ontan, kanpotik dabillen edo auzokoren batek entzun baldin ba'dagi, uste izan dagiala ezteguak dirala ospatzen doguzanak. Ain zuzen be, zabaldu ez dadin urian zear, gu landa-zugaztietara urten orduko, senargeien ilketa barri izugarria. An aztertuko dogu Olinpuarrak dakarskunik zer yakun egoki ta onen.

147 Orrela esan eutsen; eta areik entzun eta entzuna betetako gertu ziran. Asi ziran ikuzi ta tunikak jazten, apaindu ziran emakumak, eta bertolari jainkotiak artu eban kitara arroa ta guztietan sor-azo eban kantu gozorako ta dantza bikaiñerako irritsa. Laster durundu egin eban etxe osoak dantzan ziardeen gizonezko ta andrazko gerri lerdendunen oin-otsakaz. Eta kanpokoak, au entzunik, aldarrika iñoen:

154 Abets bat.—Bat-edo-bat ezkondu da, antza danez, ain eskatu ta limurtua izan dan erregiña. Doakabe! Ez eban izan iraupenik bere lenengo senarraren etxe zabala zaintzeko, a etxera itzuli arte.

158 Olan itz egien, barruan jazo zanaren barririk ez ekielako. Eurinome'k, orduan, maizaiñak, Odis biotz-aundia ikusi ta orioz igurtzi eban bere etxean, mantu ederra ta alkon-dara be berari jantzirik; eta Atene'k edertasun nabariz zirastu eban gizurenaren burua, zan baiño be aundi ta lodiago ager-azorik, ain zuzen be aren burutik jazintu-lorak zirudien ule bitxituak agiri ziran dingilizka. Eta Hefesto'k eta Pala Ate-ne'k era guztitariko antzeak erakutsi dautsoezan gizaseme tre-beak zidarra urrez txukundurik lan politak egin oi dauazan lez, era berean Atene'k be ixuri eban atsegin-zoramena Odis' en buruan eta besaganetan. Gizurena, illezkorren antzeko gor-putza ebala, urten zan bamrtik; jarri zan barriro leen eukon aulkian, bere emazteari bekoz beko, ta itzok esan eutsozan:

172 Odis.—Doakabe! Olinpu'ko jauregietan bizi diranak beste emakuma argalei baiño biotz gogorragoa emon eutzuen. Gogo setati baten jabe dan bat be ez litzateke orrela geratu-ko, bere senarragandik urrin, au, ainbat neke-min ikusita ge-ro, ogeigarren urtean bere gurasoen lurraldera datorrenean. Baiña zoaz, iñude, ta gertatu eidazu oia bertan etzun naiten; orrek, ba, burdiñezko biotza dau barruan.

179 Penelope zurrak jardetsi:

180 Penelope.—Doakabe! Ez naz arrotzen, ez dot neu-re burua gitxi-esten, ezta ez dot arrimen geiegirik be; ondo be ba-dakit-eta zelakoa ziñan erramu luzedun ontzian Itaka'tik urten zintzazanean. Zoaz, Eurikle, ta ipiñi egiozu, txukun-du egiozu, oge sendoa ber-beronek eregi eban gela gotorraren kanpokaldean: atera egiozu araxe oge zangarra ta apaindu egiozu bertan etzaleku egokia ta guria narru, burusi ta estal-ki bikaiñekaz.

187 Onela itz-egin eban bere senarra aztertu nairik; bai-ña Odis'ek, asarre, esan eutson bere emazte begi-gordeari:

189 Odis.—Oi emakume! Bene-benetan mindu nau esan dozunak. Nok aldatu izan ete daust ogea? Esku-onenekoari be gaitz izango litzakion, jainkoren bat etorri ezik lekutik be-ra aldatzera; baiña gaur bizi diran ilkorretatik, ezta gazteetatik be, ez leuke bere lekutik aterako, landuan neuk, eta ez beste iñork, egin neban ezaugarri aundi bat dago. Larrain ba-rruan azi zan olibondo bat, osto luzeduna, sendo ta lora-tsu, zutoin baten loditasuna eukona. Aren inguruan jaso ni-tuan neure logelako ormak, arri asko be askoz egiñak; sapai

bikaiñez estali ta ate sendo, tintoki egokitutakoz itxi neban. Gero ebagi nebazan osto luzedun olibondo aren adarrak; sus-terretik gora aren enborra landu neban borontzez, esku on eta antzetsuz, galga baten bitartez arteztu neban bera oge-oin biur-tzeko, ta ginbelet bategaz ginbeletu neban osorik. Oin oneta-tik asita, apurka apurka landuz oge guztia egitera eldu nin-tzan; urre, zidar ta marfillez edertu neban; eta barrukalde-tik edatu nebazan idi-narruzko ugel ikusgarri batzuk, purpu-raz margoztuta. Orixe da damotzudan ezaugarria; baiña ez da-kit, oi emakume!, nire ogeak osorik dirauan ala norbaitek, olibo-oiña ebagirik, beste toki batera aldatu dauan,

211 Onela esan eutson; eta Penelope'ri belaunak eta bio-tza indargetu yakozan Odis'ek orren erabagitsu emoten zituan ezaugarriak jakitean. Ots-otsean zuzendu zan arengana, negar-zotinka; besoak aren sama inguratu ta, buruas mosuka, esan eutson:

216 Penelope.—Ez zaitetz, nitaz asarratu, gizoneta-tik danean atan be begiratuena zaitut-eta; eta jainkoak bialdu euskuen zoritxarra eta ez eben nai izan guk alkarregaz geure gaztaroa gozatzerik, ezta gu alkarregaz zartzaroaren ateetara eltzerik be. Baiña ez zaitetz asarratu nitaz, ezta sumindu be, lenago, orain lez, neure aurrean euki-ala, besarkatu ez ba-zin-dudazan; nire biotzak, ba, emen neure bular barruan bildur zan, izu-ikaraz, gizonen bat ez etorren bere itzez ni atzipetze-ra, askotxo dirata maltzurkeri doillorrak asmatu oi clausteza-nak. Argibar Helena, Zeus'en alaba, etzan egundo be alkartu izango maitez ta ogez arrotz batekin, jakin izan ba'leu akeu-tar gudulariak barriro ekarriko ebela bere gurasoen etxera ta lurraklera, Jainkoren batek zirikatuta egin eban egiteko lotsa-garri a; aurretik ba ez yakon inoiz gure naigabeen itu-rri izan zan oben negargarria e^gitekorik buruan jarri. Orain, ni orren estalia izanda be, nire barrua zuritzea lortu dozu, geure oiari buruz ain ezaugarri zeatzak emon dozuzanetik ba-tez be; gure oia, izan be, ez eban iñungo ilkorrek **zeuk** eta neuk, eta ona etorterakoan aitak emon eustan mirabeak, Aktorise'k, gure etzangu gotorreko atea onek zaindu oi eban-eta.

237 Au esanaz geitu egin yakon negar-gurea; eta Odis'ek negar egian, bere emazte samur aratza besarkatuz. Ondo lan-dutako ontzia, aireen eta olatu zakar aundien jostailu itxi ta

Posidon'ek itxasoan ondatu dautsoenak, ur-egalera igeri datozanai lurra atsegingarri agertu oi vaken lez; eta banaka dartzuk, gorputza zabor ta erdokaz beterik, ur apartsutik lurre-ratzea jadetsi dabenak, ondamendi atatik askatzen dirala-ta, pozez gainezka oiñak lur tinkoan jarten dabezan lez; Peneloper'ri be era berean yakon eder ta atsegingarri bere senarra ikustea, eta ez zituan aren sarnatik bere beso edurrezkoak kentzen. Egu-antzak, larrosazko atzdunak, negar-zotinka aurkituko zituan oindiño, Atene'k ontz-begidun jainkosak, beste zerbait erabagi ezpaleu: luzetu egin eban gaba, bere azkenerantz joialarik, eta Okean'en geldi-azo eban Egu-antza, urrezko aulkiduna; ez eutson oni laga zango bizkordun zaldiak buztartzen, ots, Lanpo ta Faetonte, gizonai argia dakartsenak eta Egu-antza bere ibilbidean zuzendu daroen zaldi ariñak. Orduan Odis'ek bere emazteari:

255 Odis.—Ernakun-te! Ez gara oraindiñokarren geure neke-lorren amaira eldu, beste egiteko aundi, luze ta zail bat falta yaku-ta: au be bearra der. Orrela iragarri eustan Tiresia'ren gogoak, neure lagunen eta neronen itzulia egokitu nairik, Hade'ren egoitzera jatsi nintzan egunean. Baiña, tira, emakume, goazan ogera, bertan etzunik, lo ez-tiaz gozarotu gairezan.

262 Penelope zurrak erantzun:

263 Penelope.—Nai dozunean izango dozu oia, jainkoak zeure etxe ondo egiñera ta gurasoen lurraldera biur-azo zaituelako. Baiña, lan orretan pentsatu dozun ezkerro, jainkotasunen batek berori gogoan jarrita, ia, zer dan adierazo eidazu; iruditzen yfitanez geroago be jakin bearko dot, eta ez da txarra izango oindixek jakitun jarri naiten..

270 Odis asmotsuak erantzun eutson:

271 Odis.—Doakabe! Zergaitik nozu ainbestean zirikatzen, erreguka, azal daizudala eskatuz? Zeatz eta meotz azalduko dautzut gauzea. Ez yatzu barrua alaituko bera jakitean, neu be poztuten ez nazanez; Tiresia'k, bada, uri asko ta asko zearkatzeko agindu eustan, arraun erabilli-errez bat eskuan eroanik, ez itxasorik ezagutu, ez gatzaz gazituriko jakiak arto, ez saiets gorrizko ontzirik ezagutu, ez txalupen egoak lez diran arraun erabillikorren albistarik daben gizaseme areikana eldu arte. Ortarako ezaugarri txit argi bat emon eustan, gorde nai ez dautzudana. Auxe agindu eustan: bidean ibilki,

beste bidazti bategaz topo egin ha'dagit, lepo lerdenean sarde bategaz noiala ha'diñost, lurrean sartu arraun erabilli-erreza ta Posidon altsuari egin nengiozala opari bikaiñak aari bat, zezen bat eta apo bat eskiñirik, eta etxera itzuliaz ementxe eskintze-ko ilketa doneak zeru zabalean bizi diran jainko illezkorrai, guztiai txandaka, Geroago, ta itxasotik urrin, etorriko yat erio guztiz samurra, zartzaro atsegintsuz ahaildua ni aurkitzerakoan, bizia itzaliko daustana; uritarrak nire inguramari zoriontsuak izango dira. Tiresia'k iñostanez, gauza guztiak hete bearrak ziran.

293 Penelope zurrak orduan:

294 Penelope.—Jainkoai laket ba'yake zu luze ta zoriontsu bizi izatea, oindiño itxaro zeinke askatuko zareala zeure zorigatxetatik.

297 Onela ziarduen alkar-izketan. Tartean, Eurinome ta etxeakoandrea ogea txukundu ta apaintzen ebiltzan jantzi leunakaz, zuzi ixiotuakaz alkarri argi egiñik. Ogea erduraz adelatu ebenean, zaarra jauregira biurtu zan lotaratzeko; eta Eurinome, gelazaiña, arein aurretik joan zan, zuzi bat eskuan, eztegu-ogera zuzendu arte, ondoren andik alde-egiañaz. Eta ezkontide biak, oso pozik eldu ziran euren antxiñako ogea aurkitzen zan lekura.

306 Orduan Telemako'k, idizaiñak eta txarrizaiñak itxi eben dantzea; andrazkoak be bardin, eta danak ogeratu ziran jauregi illunean.

309 Senar-emazteak, maitasun guragarritz ase ziranean, autu gozoan murgildu ziran. Emakumeetan jainkotia edestu eutson zenbat jasan eban jauregian senargei edo leikide ziztrin areik bertan ikusirik; eurak zirala-ta, idi asko ta ardi guriak ez gitxi ii bear izan ebezala, suil ta tirriñetako ardao, len uga'ria, amaituz joialarik. Odis, Zeus'en leiñukoak, bere aldetik, edestu eutson zenbat kalte egin eutsen gizonari ta zenbat nairgabe igaro bear izan eben bere zoritxarretan. Eta Penelope pozik egoan ari entzuten, eta lorik ez yakon jausi begietan edesti-ari osoa amaitu yakon arte.

320 Zikondarrak zelan azpiratu ebazan esaten asi yakon; eta lotojaleen lurralde jorira eldu zanekoa edatsi eutsnn, Kiklope'k egin eban guztia, ta lagun zangarrak erruki barik iruntsiz egin eutson iraiña zelan ordaindu eragin eutson; Eolo'ren ugartera zelan joan zen, onek t' :eratsu artu ebalagur egi, erako ordurante, baiña aduak ez ebalagur erabagi gizurena oindiño gurasoen lurraldera itzultzerik, eta ekaitz batek barriro zirimolean

artu ta arraiñetan ugaria dan ur kresal zear croan ebalá, negar-zizpuru bildurgarriak aterarik; eta andik Telepilo, lestrigon-darren urira eldurik, emen zelan apurtu eutsoezan ontziak eta lagun guztiak be, zango-babeski ederdunak il-azoz, Odis'ek berak bakarrik iges eginik bere ontzi baltzean. Adierazo eurso-zan baita Kirke'ren askotariko amarru ta kako-makoak; ondoren azaldu eutson zelan joan zan bere ontzi tosta askodunean Hade'ren egoitz aizarotsura, Tiresia tebarraren arimeari eritxia eskatzen, eta an zelan ikusi al izan ebazan bere lagun guztiak eta bera erditu ta umetan azi eban bere ama; geroago zelan entzun eban abots ederdun itxas-maitagarrien kantua; berak zelan igarro ebazan Alderriak deritxen rnalkorretatik, Karibdis izugarritik eta gizonak iñoiz kalte barik igaro ezin ziran Eskila arkaitzetik; zelan ii ebezan bere lagunak Eguzkiaren beiak; Zeus durundutsuak zelan zauritu eban ontzi ariña oiñaztarri galdatuz, bere lagun guztiak uretan ondatu ta berak bakarrik Parka doillorretatik onez urtenik; zelan eldu zan Ogigia ugartera ta Kalipso itxas-lamiña egoan lekura, onek zelan euki eban arpe arroetan, bere senar egin nairik, ondo alikatu eban eta hein eta barriz esan eutson illezkor egingo ebalá, zaar izatetik be urrinduz, 'niña ez eutsola iñoiz barman olako itxaropen esatekorik sorazo; eta zelan atsekabe asko ta asko igaroz feaziarren lurraldera eldu zan, eta oneik zelan artu eben txeratsua, goitar bati lez goratzarreak omenduz, eta zelan zuzendu eben ontzi baten bere gurasoen lurrera, borontzea, urrea ugari ta jantziak doe egin ondoren. Auxe izan zan azkenengo aitatu ebana, soin-atalak nasaitu ta izate osoa kezka barik itxi oi dauan lo gozoak menderatu chancan.

356 Atene'k, ondoren, ontz-begidun jainkosak beste gauza bat agindu eban. Odis bere ernazteaz eta loaz naikoa birbiztu zala iruditu yakonean, Okean, goizaren alaba, urrezko aulkiduna atera eikela egin eban, gizasemeai argia ekarri egioen. Tagi zan, beraz, Odis oge malgutik eta itzok zuzendu eutsozan bere emazteari:

363 Odis.—Emakume! Biok ikusi dogu atsekaberik naiko: zuk emen, nire itzuli neketan joria nerartuaz; eta nik, Zeus'ek eta beste iaínkoak, ni aberririk urrin, nik bizi-bizi bertora biur-tu nai nebala, orren luzaro eukirik. Baiña, barriro be oge opagarri ontan alkartu garean ezkerro. zuk zaindu ta gordeko duzuz jauregian nire ondasunak; nik, barriz, senargei buru-arroak

irunsi eusten giberri ta abelgorriak bir-osotzeko, saldo aundi bat atxillo artuko dot eta akeutarrak emongo daustez beste batzuk okullu ta kortak ondo bete daiguzan arte. Orain landa zugatzez betera zuzenduko naz, ni nazala-ta naigabetan daukadan aita ikusten; eta zuri, oi ernakume, zentzunezkoa zarean arren, entzun diñotzudana: eguzkia urtetean senargaiak jauregian ncbazanaren izparra zabalduko dan Tez, zoaz etxearen gaiñekal-dera zeure mirabeakaz eta zagoz antxe ez iñori begiratu ez iñori ezer itandu barik.

379 Au esan eban; izkillu-jantzi bikaiñez estali zituan bere sorbaldak, eta, Telemako, iclizaiña ta txarrizaiña jagi-azorik, guda-tresnak ar egiezala, agindu eutsen. Areik, esana beteaz, borontzez izkillotu ziran danak, eta atea edegi ta etxetik urten ziran, Odis aurrelari ebela. Argia orduko edatua zan lur-gaiña-ren barrena; baiña Atene'k laiño illunez estali ta beingoan atera ebazan uritik.

XXIV KANTUA

Bakeak

Kileniar Hermes senargeien arimai deika egoan, opa dauazanen begiak lokartu edo-ta lo dagozanak itxartu oi dituan urrezko zaaro bikaiña eskuan eukirik. Orduan arimak igitu ta zuzen- azteko erabillen, eta areik bere esanera zirkin egien oiua garraxi ozenak jaulki erazoz. Saguzarrak, artzulo zabalaren sakonenean, atzetik dingilizkako mordotik bat-edo-bat banandu baldin ba'da, alkarri oratu ta kateatu diralako, egazkada ariñez ta txilios dabiltzen lez, arimak be, era berean ebiltzan txilioka, eta Hermes onak, aurretik joanik, bidetxior illun-baltzetatik eroiazan. Okean urak eta Leukade arkaitza gaindutu ebezan lenengo, Eguzkiaren ateak eta Amesen eskualdea gero, ta laster eldu ziran trunbil-landara, arimak, au da, ildakoen iduriak bizi diran tokira.

16 An aurkitu ziran Pelida Akileu, Patrokol, Antiloko akatsik bako ta Aiante, danaotarren artean, soiñez ta edertasunez, Pelion ezertan larderiatu eziñaren ondoren, bikain-bikai-ñena izan zanaren arimakaz. Akilau'ren biran ebiltzan oneik; eta urreratu yaken, oso naigabetua, Agamenon Atrida'ren arima, onen inguruan alkartzen bait ziran Egisto'ren egoitzean, bako-txak bere alanbearra beterik, gizurenagaz il ziranenak be. Eta Pelion'en arima izan zan lenen-lenen mintzatu zana, esanik:

25 Akileu.—Oi Atrida! Zu ziñala, uste genduan, gizuren guztietan beti Zeus'entzat, iñestuz atsegin danarentzat, argarriena, an Troia'n, akeutarrok ainbeste zoritxar izan genduzan lekuan, gizaseme asko ta indartsuen gaiñ agintzen zendulako; eta, alan be, sasoiz aurretik oratu bear eutzun Parka doillorrak, jaio ezkerro iñok ezdau ba aregandik iges-egiterik. Ai erio ta alanbearra izan ba'zenduz teukrotarren eskualdean, jaun ta errege ziñan garaiaaren bete-betea; orduan nunbait il-tronu eregi izango eutzuen akeutarrak, eta zeure semeari be aintza neurri-

bagea laga izango zeuntson. Aduak orain erio negargarri-negar-garriz kateatua zaukaz.

37 Atrida'ren arimak erantzun:

38 Agamenon. —Doatsu zu, Peleu'ren seme, Akileu jainkoen kideko, Argos'tik asao, Troia'n itzali ziñana, eta zure inguruan ji ziran, zu aldeztu nairik, beste troiar eta akeutar txit bulartsu batzuk; eta zu zentzazan lurrean, lau zabalean, auts-zirimolez estalclua, ta burcliak zuzentzeko artetik aztua! Guk egun osoan din geuntson burrukan eta ezcrगतik be ez genduan geldi-azo ta etengo erasoaren ziztua; baiña Zeus'ek ortara beartu ginduzen, ekaitz zakarra bialdu euskun-eta. Zure gorputz ederra guda-zelaitik ontzietara aldatu ostean, oge baten ipiñi, ur epelez ikuzi ta orioz igurtzi genduan; eta danaotarrak, zu inguraturik, negar-maiko ugari ta gartsuak jarioka, curen buruko adatsak be ebagi eroiezan atsekabetan. Zure ama be, itxasotik urtenda, etorri zan ur-jainkosa illezkorrakaz, orren albiste izan ebanean: oi-aldi ikaragarria jagi zan kresal artean eta onek asalaturik akeutar guztiak ia ontzi makurretara abiatzeko egozan, eta orrela egin izango eben gauza asko ta zarrak ekizan gizon batek, Nestor'ek, —onen eritxia beti be aintzat artua izan oi zan—, azo ezpa-leuz. Onek, ba, biotz leunez mintzaturik, onela esan eutsen: «Geldi zaiteze, argibotarrok; ez eizue iges egin, akeutar gizonok! Itxasotik datorren ama dozue au, ur-jainkosa illezkorrakaz datorrena, ain zuzen be, beraren seme illa ikustera». Olan adierazo eutsen; eta akeutar biotz-zabalak igesa eten eben. Itxasoko zaarraren alabak esitu zinduezan, biotza ikutzeraiñoko oiuz zu negarturik, eta soiñeko jainkozkoak ipiñi eutzuezan. Bederatzi Musak illeta-eresia asi eben, euren abots ederrez txandaka, eta an etzan argibu bat bera be negar egiten ez ebanik: ain sainar ziarduan Musa abeslariak! Amazazpi egun eta gauz negartu zinduguzan, bai jainko illezkorrak eta bai gizon ilkorrok, eta emazortzigarrean suari emona izan ziñan, zure inguruan ugari be ugari ardi gizenak eta adar okerdun idiak zintzur egiñik. Suak iruntsi eban zure gorpua, jainkozko jantziz apaindua, miritza ugariz ta ezti gozoz gantzatua; akeutar talde aundia artekatu ziran curen izkilluakaz, batzuk oiñez eta beste batzuk burdieten, zu erre ziñan suten inguruan; eta zirriparra itzala sortu zan. Hefesto'ren sugarra osorik aitu zanean, oi Akileu!, eguna urratzerakoan, zure azur zuriak batu ta ardao uts eta gantzukitan ipiñi genduzan. Urrezko

emon euskun zure amak, Dioniso'k bezuzatu eutsola ta Hefesto ernearen lana zala esanik; eta bertan dagoz zure azur zuriak, Akileu ospetsua, Patrokol ivlenetiada'renakaz batera, ta loko'renakaz banazea, au izan bait zan, Patrokol ii ostea, zuk geien maite izan zenduan laguna. Azur-ondarren biran argibutar burrukalarien gudarozte deunak arri-obi eskerga ta bikaiña eregi eutson muiño garai batean, Helesponto edatuaren ur-ertzetan, urriñetik be, itxasotik, ikusi eikeen gaur bizi diran gizakuema eta gero jaioko diranak. Zure amak kirol-tokian jarri zituan, jainkoe oneritxiz, sari bikaiña, argibutar ospatsuenak egin bear eben leiaketarako. Gizuren askoren eortz-illetetan esku artu zenduan zuk, erregeren baten eriotza dala-ta, gazteak ereinotzez garunak estutu ta illarekiko jokuetarako gertatzen diranean; au onela dala be, asko ta asko zurtu ta alaituko zintzazan Tetis jainkoak, zidar-oindunak, zure omenez atondu zitunak, zein ederrak izan ziran ikustean, zu beti izan ziñan ba jainkotasunak oso maitatua. Orrela, beraz, ilda be ez dozu galdu zeure izen aundia; eta zure entzute aintzatsuak, oi Akileu!, betiere-betierean iraungo dau gizakume guztien artean. Baiña nik, zelan izango dot olako atsegiñik, gudea amaitu ta sorterrira biurtu nintzanean, Zeus'ek, Egisto ta neure emazte zitalaren eskuz, erio negargarria ingiratu ha'eustan?

103 Era orretan autuan ehiltzalarik, Argofonte mezularia agertu yaken Odis'ek bizia kendu eutsoen senargaien arimak zuzen-azten. Biak, ikusi-ala, sor ta lor alkar miretsiz, bidean topo egin eben, Atrida Agamenon'en arimak laster ezagutu eban Menelau'ren seme maite, Anfimedonte txit argia, onen arrotz izan bait zan onek Itaka'n eukon etxean; eta gisa onetan mintzatu yakon:

111 Egamenon.—Anfimedontel Zer jazo yatzue, ainbat gizakume, ta ain autak, eta danok adin bardiñekoak, lur goibel illunean sartzeko? Errian beste batzuk aukeratzeraz ezker, bikaiña gorik nekez aurkituko. Osidon'ek bear bada il zinduezan zeuren ontzietan, aize izugarriakaz sakaka uin-olatu bizi biziak jaso ta nasturik? Edo-ta gizon etsaiak ausaz ondatu zinduezan lurrasoan, euren idi ta artaldeak kendu zeuntsezalako edo euren uriz eta emakumez jabetzekoren burrukan jardun zenduelako? Erantzun diñotzudanari, ornen aundia da nirentzat zure etxeko izatea ta. Oroitzen al zara zelan joan nintzan ara, zure etxera, Menelau jainko-antzekoagaz batera, tosta askodun

ontzietan Ilión'era etor zedilla gure jarrai, Odis'i arren ta arren eskatzera? Illa bete osoa egin genduan itxas zabala zearkatzen, eta nekez he nekez zuritu genduan Odis, uri-ondatzailea.

127 Anfimedonte'ren arimak, berekiko, esan eutson:

128 Anfimedonte.—Atricle guztiz aintzatsu, giza-errege Agamenon! Gomutan ditut diñozuzanak, oi Zeus'en ikasle, eta zeatz baizen meatz edestuko clautzut zelako era tristetan eldu izan gintzazan geure bizitzaren askenera. Odis, garai atan eta aspalditik urrin zanaren emaztea nai genduan emaztetzat; onek ez ebazan ezesten eztcgu gogaikarriak, ezta baietzik esan be, guretzat, olan eriotza ta Parka goibela gertaturik; eta orduan asmatu eban bere biotzean beste amarru au, Eun mee azken hakoa iruten asi zan jauregian, orduan onan mintzatzen yakula: «Gazteok!, ene senargeiok! Odis jainkozkoa illa dan ezkerro, itxoin, neure ezkontzan leiatzeko, eun au amaitu arte (alperrik galdu ez dalcidazan ariak), Laerte gizurenak, erio izugarrizko Parka ala-bearrak eldu dagionean, izerkaria euki dagian. Asarratu ez dakidan nunhait erriko akeutar emakumeren bat, ainbat ondasunen jabe izaniko gizon bat il-miesa barik Lortzen ikusita!», Orrela esan eban, eta gure barren zindoa zuriturik geratu zan. Une aretatik, egun osoa emon eroian eun aundia eioten, eta gabaz, zuziakaz argitua zaneokxe, eioa desegiten eban. Tankera ontan azpikeri ta laumuturra estali al izan zitudan, eta akeutarrak iru urtez beintzat siñistu egin ebezaren solasak; baiña, laugarren urtea eldu ta urte-aroak iraulka asi ziranean illabeteak eta egun askuak igarota gero, zer jazotzen zan ondo ekian emakume batek iragarri euskun, eta ezustez atzemon genduan Penek.)pe eun txit bikaiña ilbiztu ta askatzen. Olan gura nai gura ez, amaitu bear izan eban euna. Zapi aundia eio ta garbitu ondoren, eguzki nai illargia zirudian miesa a erakutsi euskunean, jainkotasun gaiztoak ekar-azo eban Odis nun-edo-nundik txarrizaiñak here bizilekua eukon landahazterretarra. Araxe joan zan, baita, Odis jainkotiaren seme kutuna be, bere ontzi baltzean Pilas aretsutik biurtu zanean; eta, senargeiai eriotza txarra emoteko alkar arturik, uri ospetsura etorri ziran; Odis sartu zan ontan azkenengo, Telemako aurreratu egin yakon zerbait eta. Txarrizaiñak Odis'i lagun egin eutson; eta onek, here zarpildura ta dandarrakaz, zaar eta eskeko errukarri bat emoten eban, soiñeko itsusiz eta makilla eskuan. Guretako iñok ez eban ezagutu al izan, ezta zaarrenak

be, bat-batera jarri yakunean begien eurrean; eta txarto artu genduan, itz iraingarriak esanez eta kolpeak emonez. Eroapen aundiz artu oi eban Odis'ek berbere jauregian anibesteraiñoko laido ta iraiñak egitea; baiña Zeus ikurriña daroana zirikatzen asi yakonekoxe, ormetatik kentzen asi zan Telemako'k lagun-duta, izkillu bikain-ederrak; bere etzangura eroan zitun, eta ateak morroilloz itxi. Eta gero, iruzur utsean, bere emazteari esan eutson atera eigula senargeioi uztai ta burdiña zuri-zuria, guretzat, gaixuontzat, ilketaren asiera izango zan nor-geiagoka ospatu gengian. Iñok be ezin izan eban uztai gotorraren aria tenkatu, ortarako bear zan kemenik ez gendualak. Uztai aundia Odis'en eskuetara joialarik, akar egin geuntson guztiok txarri zaiñari ez egiola emon esanaz, ak leiatsu eskatu arren; Telemako'k bakar-bakarrrik, ortarako biotz ernonaz, eskuratu eiola agindu eutson. Odis jainkoti jasankorrak eskuetan artu ta errez be errez tenkatu, ta burdiñatik igaro zituan geziak; atarira jo eban beingoan, lurrean irauli gezi egazlariak, begitu zorrotzak jaurtika, ta Antinoo erregea il eban. Baiña brastakoan erauzi zituan gezi mingarriak, aurrez-aurre; eta bata bestearen atzetik joian lurrera. Ikusten zanez, jainkoren batek lagun egion; las-ter, ba, amorru bizitan, ilten asi ziran ezker-eskuma, aretoan: buruan joak ziranak antzi ta garraxi ikaragarriak ateraten ebe-zan, eta beia odol-jarioka egoan nun-naitik. Olantxe itzaliak izan gara, Agamenon, eta gorpuak oindiño Odis'en jauregian datzaz bertanbera itxita; orren albisterik, ez da oindiño gure adiskideen etxeetara eldu: ba'lekie, jakin, negartuko gindukeez zaurietako odol baltzetatik gu garbitu ta ogeetan ipiñi ondo-ren; illai dagokiezan il-omenak orrexek dira-ta.

200 Atrida'ren arimak jardetsi:

201 Agamenon.—Laerte'ren seme doatsu! Odis, kako-ma-ko ta amarruz jori! Zuk eskura zenduan emazte txit onoi-men-tsua. Ikari'ren alaba, Penelope akats-bageak, sentipen ederrez beteak, Odis'en —onegaz bait zan ezkondu neskuts— gomuta ona zaindu ta gorde izan dauan ezker, ez da egundo be gal-duko aren onoi-men-ospe aintzagarria ta illezkorrak Penelope zurraren omenezko abesti graziz beteak idaroki ta burutatuko dautsez gizonai. Ez eban orrela jokatu Tindari'ren alabak, onek ba, egintza zitalak matazaturik, senarrari, onekin neskuts ez-konduta egoala, eriotza emon eutsan; orixegaitik, kantu igu-ingarriak abesten yakoz, ta aspaldi ekarri eutsen entzute txarra emakume argalai, onoiimentsuak eurak be aldebat itxi barik.

214 Autu onetan jardun eben Hade'ren egoitzean, luna-
ren errai barru.

216 Odis ta beretarrak, tartean, uritik jatsiaz, Laerte'ren
ortu polit ondo zaindura eldu ziran laster, onek beste orduz
neke-minik naikoa ikusita gero erosi ebanera. Antxe aurkitzen
zan zaarraren etxea, biran estalpe bat eukola, ta emen batzen
ziran aren morroi bereziak jan, jezarri ta lo egitera; atsegin
yakozan solo-lanak egiten eutsoezan morroiak nunbait. Siziliar
atso batek zaindu oi eban ardura aundiz an landan, uritik urrin.
Toki onetara elduaz, ha, Odis'ek bere morroiak ta bere semeari
itz-egin eutsen esanik:

226 Odis.—Zuok, ondo landuriko basetxe ontaturik,
egizue beingoan txarririk onena, jan dagigun; ni, barriz, neure
aita ikusten joango naz, ia ezagutzen nauan bere begien aurrean
ikusirik, edo-ta, ain luzaro kanpotik ibilli nazan ezkerro, ez dauan
bereizten nor nazanik.

231 Onan mintzaturik, morroiak emon eutsezan bere gu-
da-izkilluak. Joan ziran oneik bizkor-bizkor basetxerantza, eta
Odis igalitan ugaria dan orturantza zuzendu zan, azterpena egi-
tera. Eta, ortu aundira jatsirik, ez eban idoro Doli, ezta jopu-
rik Doli zarrak berak zuzentzen ebazan lan orretan. Beraz,
bere aita bakarrik aurkitu eban ortu ondo landuan, landara
bat lurreztatzen. Soingaiñeko loi bat eroian Laerte'k aldean,
zarpail ta adabakiz betea; hernai loturik eroiazan txal-narru
josizko mantarrak sasi-urratuen aurka ta eskuetan atz-zorroak
larrakaitik; bere buru naigabetua, oster, aunts-narruzko txan-
noaz estaltzen &ata. Odis jainkoti eroapeatsta, zarren zarrez
makur eta barnean atsekabe-miñez zamatua ikusi chancan, ma-
dari-ondo garai baten alboan geratu ta maiko ugariz ese yako-
zan matraillak. Ondoren ezpaian aurkitu zan bere barruan,
bere aita besarkatu, munkatu ta, dana adierazorik, zelan eldu
zan bere gurasoen lurrera esan edo ez esan, zer egin ez ekiala;
edo-ta, lenengo berari itandu azterketa egiñazoaz. Asmo one
gaz joan zan zuzen Odis jainkotia arengana, buru-makur landara
baten ondoan atxurren egoan lekura. Eta, aren alboan geldi-
turik, onela itz-egin eutson bere seme argiak:

256 Odis.—Oi agure! Ba-dozu trebetasuna ortua lantzcé
ko, emen ba dana agiri da arduraz zainduta, ez da ikusten lan-
dararik, ez ikorik, ez maatsondorik, ez olibondorik, ez ma-
daririk, ez barazki-saillik, ederto zainduta ez dagoanik. Beste

zerbait, baiña esango dautzut, ez zaitez alan be origaitik sa-
mindu: zeure gorputzaz ez daukazu ainbeste ardura, ez zagoz
ba zartzaro goibelak abaildua balcarrik, loi ta txarto jantzia
zakustaz. Zeure alperkeriagaitik ez zaitut, nik uste, orren-
besteko gabezia eukiko; eta, gaiñera, zuk ez dozu morroi an-
tzik, zeure itxura ta aunditasunez errege bat, garbitu ta jan
ondoren oge bigunean lo egingo dauan gizaseme aundikia di-
rudizu-ta; orixe bait da zarren oitura. Baiña, ia, mintzo zaitez
eta erantzun argi ta garbi: Noren morroi zaitut? Norena da
lantzen dozun ortua? Esaidazu egia, jakin daidan, egi-egiaz Ita-
ka'ra eldu nazanentz, onantza etortean bide topo egin neban
gizakume batek ziurtatu eustanez; ak ez eban emoten oso zen-
tzunduna, ez eban arterik izan ba niri gauza batzuk iragarteko,
ez nire itzak entzuteko, au itandu neutsonen batez be: arako
neure arrotz bat bizirik ete zan ()indino, edo-ta illa dan eta
Hade'ren egonlekuan aurkitzen dan. Zeuri edestuko dautzut:
zagoz adi ta entzuidazu. Neure aberrian beste aldiz etxean euki
neban gure sukaldera eldu zan gizaseme bat; eta urrindik etorri
ta nire etxean ostatz egin diranetatik iñortxo be ez yat ain eder
izan: jatorriz Itaka'koa zala iñoan, eta Laerte Arkesiada zala
bere aita. Neronek zuzendu neban jauregira, txeratsu ta maite-
kor arturik, gogo on eta arduraz bear ebana emonik (nire
egoitzean ba ugaritasuna zan nagusi), ta arako jenteari egokio-
zan esku-erakutsi ta bezuzak egin neutsozan, Urre onda lan-
duzko zazpi talentu eskuratu neutsozan; zidarrezko txanbil lo-
reztatu bat; amabi mantu arrunt, amabi zama, amabi estalki
eder ta beste ainbeste alkondara, eta, gaiñera, antz ederreko
lau emakume, esku-lan ikusgarriak egiten trebeak, berberak
nire mirabeen artean aukeratuak,

291 Bere aitak erantzun eutson, begiak negarrez bustita:

293 Laerte,—Arrotz! Egi-egiaz itaunka zabilzan lur orre-
tan aurkitzen zara; baiña gizon lotsagaldu gaizto batzuk daukie
azpiraturik, eta alperrikoak izango yatzuz zuk ari egindako be-
zuza konta-ezin bestekuok. Itaka'n aurkituko ba'zendu bizirik,
ez zindukez atzera bialduko zuk egin bezuzai beste doe batzu-
kaz erantzun bage; baita izango zeunke ostatu ederra be, aurrez-
tik guri mesede egiñak gu ortara beartuta itxi genduzanari zor
yakonez. Baiña, ia, mintzo zaitez eta erantzun argi ta garbi:
zenbat urte lez (lira zuk atotsi zeure arrotz doakabe ori, neure
sen-je zori-txarrekoa, dana amets soil izan ezpada? Bere adis-

kideengandik eta bere asaben lurretik urrutiratua, edo arraiñak jan eben itxasoan, edo pizti ta egaztien ale izan zan, lurrasoan: eta ez bere amak eban meztitu, sortu genduan onegaz luzaro negaturik; ezta bere emazte aberatsak, Penelope zurrak, ez eban intzirik egin, bidezko zanez, bere senarraren il-oge on' doan, ezta ez eutsozan begiak itxi; orretzek dira, ba, zenduai zor yakezan omenak. Esaklazu onetaz be egia, jakitun egon naiten: Nor zara ta zein lurraldetik zatoz? Nun dago zure uria ta zure gurasoak? Nun aurkitzen da zu, zeure lagun jainkoen antzekoakaz, ekarri zaitun ontzi bizkorra? Edo-ta bidazti etorri ziñan beste baten ontzian, eta lurrean itxi ondoren, bere ibi-bideari ekin eutson?

315 Odis asmotsuak, erantsuki, esan eutson:

316 Odis.—Zeatz-zeatz emongo dautzut guztiaren barri. Alibante'n sortua naz, antxe daukat oindiño be bizitegi edertxairoa, ta Afidante Bolipemonida erregearen semea nozu; Eperito da nire izena; jainkoren batek Sikani'tik baztertu nau naita neure gogoz ez, ona ekarteko, ta nire ontzia landa ondoan dago, urira eldu baiña lenago. Bost urte dira dagoneko Odis, nire aberria itxita, andik urrindu zanetik. Gizajoa! Onezko egaztiak egaz egien aren eskuman abiatu zanean, eta, ori ikusirik, alai agur egin neutson eta pozik joan zan; biotzean geratzen yakun, ba, arrotz-txeralc berriro be alkartuko ginduzala ta doe bikaiñez alkar bezuzatuko genduarien itxarokizun ezia.

328 Oneik ziran aren mintzoak; samiñezko odei baltzak estaldu eban Laerte, te onek, esku biakaz errautsa arturik, bere buru soil gaiñean ixuri eban, antsi ta asperen sakonetan. Bizibizi asaldatu zan Odis'en biotza; gizurenak azgura bizia oartu eban surrean bere aita ikuskaturik, eta jauzi bat egiñez, mosutu eban, esanez:

334 Odis.—Neu naz, oi aita, zu itaunka zagozan ori; ogeigarren urtean gurasoen lurrera itzuli dana. Baiña begoz zure negar, zízpuru ta malkoak. Eta, aldiak estutzen gaitun ezkerro, esango dautzut, senargaiak ii egin dodazala geure etxean, orrela arein irain mingarri ta egintza gaiztoen apendua arturik.

340 Laerte'k erantzun:

341 Laerte.—Nire seme Odis, etxera biurtua, baldin ba' zara, erakustazu ezaugarríren bat, begien aurrekoa, etsitu naiten.

344 Odis asmotsuak erantzun:

345 Odis.—Ikus begiz lenen zure begiak Parsano'n basurde batek bere ortz zuriakaz egin eustan zauria, zuk eta nire ama agurgarriak Autoliko'renera, aitaren aldeko neure aitita laztanaren etxera, onantza etortean egingo eustazala agindutako emoitzak artzera joan nintzanean. Eta, ia, nai ba'dozu, bein ortu ondo landutako ontan opari egin zeustazan zugatzak zenbatuko dautzudaz: neuk, ba, ume nintzala, atzetik jarraika noakizun, eta urrez urren eskatzen neutzuzan; eta, euren artetik igaroterakoan, erakutsi oi zeustazan, euren izenak be esanik. Amairu madariondo izan ziran, amar sagar-ondo ta berrogei ikondo; eta, gaiñera, atsegiñez eskiñi zeustazan berrogei ta amar maatsondolerro, bakotxak aldikada ezbaridineta igalia ekarrenak; maats-mueta guztietakoak dagoz emen, ba, Zeus'ek goitik bialtzen dauskuzan urte-aroak umotu-eraztean.

359 Ola esan eutson; eta Laerte'k dardaraz eukazan belauak eta biotza, Odis'ek zeatz-meatz azaltzen eutsozan zantzuak ezauturik. Bota ebazan beroak bere semearen gaiñean; eta Odis jainkoti eroapentsuak beragana eragin eutson amasa barik aurkitzen zan aitari. Eta Laerte'k, konorteratu arnas artzeko lain izan zanean, itz oneikaz erantzun eutson:

365 Laerte.—Zeus aita! Zuok jainkuok Olinpu zabalean dirauzue oraindik, egia baldin ba'da senargaiak artu ebela euren ausarkeri arriskutsuagaitik merezi izan eben zigorra. Baiña nire biotza bildur da orain itakatar guztiak alkar artu ta etorriko ete yatazan, eta gaiñera bialduko ete dituen mandatariak zefalendarren uri guztietara.

371 Odis asmotsuak erantzun eutson:

372 Odis.—Biotz on, ta etzaitez kezkatu gauza orreikaitik. Goazan etxera, ortu ontatik ur-samar daukat-eta; ara bialdi nebazan Telemako, idizaiña ta txarrizaiña janaria gertatu daiskuen alik ariñen.

376 Itzok oguzirik, basetxe txairora zuzendu ziran. Egoitz egokira elduaz, Telemako, idizaiña ta txarrizaiña aragia pilloka ebagiten eta ardao baltza nastuten aurkitu ebezan.

380 Siziliar mirabeak bertatik ikusi ta orioz igurtzi eban Laerte biotz zabalekoa etxe barruan, mantu eder bat botarik ondoren bere sorbaldetara; eta Atene urreratu zan gero ta giza-artzaiñari len baiño aundiago ta lodiago emoteko eran soin atalak azi-azo eutsozan. Bañutik urten zanean, arriturik geratu

zan bere semea jainko illezkorren antzeko ikusiz, eta itz ari-
ñok zuzendu eutsozan:

388 Odis.—O aita! jainko betierekoren batek obetu
dauz, egi-egiaz, zure arpegiera ta aundiera.

390 Laerte zurrak erantzun:

391 Laerte.—Ai gaur ba'nengo, Zeus aita, Atene, Apol!,
zefalendarren errege nintzanean lez; eta Neriko, onda eraiki-
tako una, an lurrasoaren bazter-erpiñean, artu nebanean lez:
orrela izanik, atzo geure etxean aurkitu izan ba'nintz, izkilu-
tresnas besogaiñak estalduta, zeure ondoan eta senargaiari era-
soka, nik askori ausiko neutsozan helaunak jauregian, eta zure
barruak poza artuko eban ori ikusiz.

397 Orrela ziarduen autuan. Besteak euren lana amaitu
ta jan-edena gertau ebenean, bakotxa jarri zan aurki ta kadere-
tan, saillean, Eta janariak artzen asiaz batera. Doli zaarra eldu
zan bere semeakaz —lanaren lanaz nekaturik etozan—; dei
egitera urten yaken euren ama, siziliar atsoa, azi ebazana, eta
zaarra batez be, zartzarora eldu zanetik, ardura aundiz zaindu
oi cbana. Odis ikusi ta ezagutu ebenekoxe, zur ta lur geratu
ziran aretoan; eta Odis mintzatu yaken itz gozoz, miin laha-
neko ta lcizar:

408 Odis.—Oi zaar! jar zaitez maira, ta bego arrimen
ori, luzaro gagoz ba areto ontan zuen zain, jaten noiz asiko
irrikaz.

411 Ola mintzatu zan. Doli artez-arte joan zan arengana
hesoak zabal-zabal; Odis'en eskua artu, beso-muturrean mun-
egin eta itz ariñok zuzendu eutsozan:

414 adiskide! Gugana, zure etorrera irrikatzen
gengozanokana (naiz-ta itxaropena galduaz joan), biurtu za-
rean ezkerre, jainkoak eurak ekarrira nunbait, agur zuri, zaitez
zori oneko, ta jainkotasunak bete zagiezala era guztitako doe,
laguntza ta mesedez. Esaidazu orain itauntzera noakizunari
buruzko egia, jakin nai dot eta: ba ete daki Penelope zurrak
itzuli zarcanik, ala egoki ete litzateke mezulari bat ari bial-
tzea?

422 Odis asmotsuak erantzun:

423 Odis.—Oi zaar! Ba-daki arek. Bearrezko ete da zuk
diñozuna egitea?

425 Olan itz-egin eutson; eta Doli bere ondo landutako aurkura joan zan jartera. Bardintsu urreratu yakozan Odis ospa aundikoari Doli'ren serneak be: itzcak agurtu, eskuak artu eutsoczan eta curen aitaren ondoan jezarri ziran saillean.

419 Oneik an etxean jan bitartean, Ospea joan can batbategunian barrena iragarten crio izugarria ta senargaien zorigaictoa. Uritarrak, entzun-ala, Odis'en etxera joiazan danak, batzuk alde ontatik eta besteak aretatik, didar, aldarri ta txilioka, Atera ebezan illal^y eta, bakotxak bereak lurra emon eta beste urietakoak oial-ontzietan curen etxeetara eroateko arrantzaleai emonik, guztiak batera erri-batzarrera zuzendu ziran, naigabez beterik. Ara eldu ta batu ziranean, Eupite jagi zan itz-egiteko, eroan-eziña zan ba barruan eukon atsekabea bere seme Antinoo, Odis jaínkotiaak aurrencn ii ebanagaitik. Eta, maiko ixurka, onela sustatu ebazan:

443 Eupite.-Oi adiskideak! Aundia izan zan, ziñez, gizakume orrek akeutarten aurka matazatu eban egintza: giza-seme asko ta gotorrak eroan zituan bere ontzietan, eta itxasoan galdu zituan ontziak eta gizonak; eta, etxeratzean, zefalendarretatik nabarmenenak garbitu ditu. Baiña,ia, goazan bere billa Pilos'era edo eputarrak agintzen deben Elide jaínkoz-kora ak iges-egin baiño lenago, beti-beti asaldaturik ibilli ez gaitzean. Lotsagarria izango da nunbait ondorengoak gauzok jakin ba'legiez; eta, zigor azoko ez ba'genduz geure seme ta anaian iltzailleak, pozgarri ez litzakit bizitzea, ta lenbaitlen ilgo ba'nintz oba, iklakoakaz bato nadin. Baiña goazan bizkor, igesari emon ez dagioen.

456 Orrela esan eutsen, malkotan matraillak; eta errukiz hete zituan akeutarren biotzak oro. Une-une aretan, alan be, Mendote ta bertsolari jaínkozkoa aurkeztu ziran, itxartzean Odis'en etxetik urten ziranak; erdian jarri vakezan, eta izularri ta lurmen geratu ziran ingurukoak. Eta Medonte zurrak era onetan itz-cgin eutsen:

462 Medonte.—Itakarrok, entzun orain neuri; Odis'ek, ba, ez dau jaínko illezkorren naiaren aurka egiteko ori bete. Neuk neure begiz ikusi neban aren urrean aurkitzen can jaínko illezkor bat, oso-osorik Mentor'ren antzekoa zana. Jaínko illezkor au bein agertzen zan Odis'en aurrean, oni gogoa berotuz; eta beste hein, jauregian zear suak artuta, naspilla

ta lau-orria ereiten eban bata-besteen atzetik jausten ziran senargaien artean.

470 Orrela mintzatu zan; eta danak oartu ziran bildur laruak jota. Ondoren Haliterse Mastoricla gizuren zarrak zuzendu eutsen itza, joana ta etortekoa ekizan bakarrik Onek, ha, ondoguraz sustatu zituan, au esanez:

475 Haliterse.—Entzun orain, o itakarrak, dirautzuedana. Zeuen argaltasun errutsuz, adiskideak, jazo ziran onako gauzok: ez zenduen, ez, nire esanik, giza-artzain zan Mentor' enik aintzat artu nai izan, zeuen semeen zorakeriak izteko aolkatzen genbiltzanean; eta oneik, arropuzkeri kaltegarrian uts izugarria egin eben, ondasunak irunsi ta geiago etzala biur-tuko uste eben gizaseme argiaren emaztea irainduz. Eta orain, ai egingo balitz diñotsuedana. Siñest eidazue: ez gaitezan joan; bat-edo-batek idoro ez dagian billa chillan gatxa.

486 Orrela mintzatu yaken. Erdiak baiño geiago zarataka jagi ziran; eta enparauak, aren itzaldia eder izan ez yakenak eta hai Eupite'k egiña, an geratu ziran eta bertatik abiatu ziran izkilluak artzera. Borontze diztirsuz jantziaz bat, talde aundia osotu eben uni edatutik landara. Eta Eupite'k artu eban buruzagitza, bere barne-lañokeriak eraginda: bere semearen eriotza ordainduko ebala, uste eban, eta ez zala errira biur-tuko, gertu egoan ba an bizia emoteko.

495 Au jazoten zala, Atene'k esan eutson Zeus Kronida'ri:

496 Atene.—Gure aita, Kronida, agintzen dabenen artean garaiena! Erantzun egiozu esango dautzudanari: Zein da zeure barruan eratu dozun asmoa? Egiaz aurrera eroango dozu gudu kaltegarria ta craso ilkorra, ala batzuk eta bestetzuk adiskide egingo dozuz?

501 Odeiak pillotzen dituan Zeus'ek erantzun:

502 Zeus.—Ene alaba! Zergaitik jakin nai dozuz eta itanduten dozuz olako gauzak? Zerorrek ez ete zenduan mamindu aurre-asmo ori: Odis'ek, bere lurrera itzultzean, arein apendua artuko ebala? Egizu orain gura dozuna; baiña neuk esango dautzut egoki dana, senargaien zor-ordaiña artu dauan ezkerro, eskein hegiez opariak eta alkarrekiko zintzak jaso, au da, aurrerantzean zintzoak izango dirala alkarrentzat; beuko arek betikoz bere erregetza Itaka'n; aaztu

daitela, alegiñez, semeen eta anaien ilketa; maita begie alkar areik eta oneik, len bezela; eta bego bakea ta aberastasuna ugari be ugari.

512 Onako itzakaz sustatu eban jainkosak berak gura ebana egitera; eta Atene jatxi zan iraduz, bizkor-bizkor Olinpu tontorretik.

514 Laerte'ren etxekoak jan-edanez asetu ziranean. Odis jainkozko eroapentsuak urratu eban ixil-miesa au esateko:

517 Odis.—Beioa bateren bat ikustera: datozeanak onez-kero ur-samar egon ez daitezcan.

519 Orrela adierazo eban. Doli'ren semeetatik bat urten zan, Odis'ek agindua beteaz; atarira urten eta, guzti areik ur-ur ikustean dagoeneko, gizurenari zuzendu eutsozan itz ari-ñok:

523 Doli'ren semea.—Emen daukaguz ur-ur; izkillotu gaitezcan bizkor be bizkor.

525 Orrela esan eban. Jagi ta laurak izkillotu ziran Odis'ekin, Doli'ren sei semeak eta gaiñera, Laerte ta Doli, burusoillak ziran arren, bearrak beartu zituan ba gudariak izaten. Eta borontze dirdaitsuz jantziak izan ziranean, atea edegi ta etxetik urten ziran, Odis aurretik ebela.

531 Une artantxe urreratu yaken Atene, Zeus'en alaba, Mentor'ren antza ta abotsa artu zituna. Odis jainkoti ta jasan-korra poztu zan a ikusiaz eta Telemako, bere seme maiteari esan eutson:

535 Odis.—Telemako! Burrukara zoazan ezkerro, onenak nabarmentzen diran lekura, ez, otoi, iraiñik egin zeure aurretikoen etorkiari, saiatu ta kementsu izanik gaillendu gara gu guztiok, ba, lurraren gaiñean.

539 Telemako zurrak erantzun:

540 Telemako.—Ikusiko dozu, nai ba'dozu, aita maite, dodan gogo sendoaz ez dodala lotsaz itxiko, diñozunez, zure etorkia.

542 Orrela adierazo eban. Eder izan yakon Laerte'ri, ta itzok oguzi zituan:

544 Laerte.—Au bai niretzat eguna, jainko kutunak! Au egun pozgarria niretzat! Nire semeak eta nire billobak ez da-be kidekorik kementsu izaten!

547 Orduan Atene, ontz-begiduna, aren ondoan geldi, itz oneikaz mintzatu yakon.

549 Atene.-Oí Arkesiada, ene acliskiderik mi-ñena! Jaco zeure otoitzak ontz-begidun neskatxari ta Zeus aitari, ta jarraian dardaratu ta bota lantza eskerga.

553 Orlan esanik, Pala Atene'k kemen berroz adoretu eban. Bertatik jaso ebazan bere eskariak Zeus aundiaren alabeari, lantza eskerga dardaratu ta bota eban, eta Eupite zauritu eban borontzezko matrail-oskoletik, zear, onek ezin gelditu-azo eban ha ta alderik alde igaroa izan zan. Eupite lurrera jausi zan zalaparta aundiz, bere izkilluak be durundu egiñik. Odis'ek eta bere seme argiak aurretik ioiazan arerioai eraso eutsen, ezpataz ta ao biko lantzaz zauritzen ebezala. Eta danak U egingo ebezan eta etziran euren etxeetara itzuliko, Zeus'en alaba Atene'k, ikurriña daroanank, jaso ezpaleu bere abotsa ta erri osoa geldiazo, esanik:

564 Atene.—Laga liskar izugarri an, o itakarrak!, bertatik banandu zaitezen odol geiago jarío bage!

566 Orrela mintzatzu zan Arene; eta larri-ikara laruak jota geratu ziran guztiak. Tainkotasunnren abotsa entzun zin ek o x e , izkilluak lurrera iausi ziran eskuetatik; eta itakarrak, bizi naita, urirantza egin eben. Zantzo ikara garria bota eban Odis jainkoti eroapentsuak eta, makurturik, arein atzetik abiatu zan egazkada aundiko arraroa iduri. Kronida'k, balia, tximista galdatau bat erauzi eban, ontz-begidun iainkosaren aurrean, lita alguztidunaren alabearon oñetan jausi zana. Orduan Atene'k, ontz-begidunak, esan cursan Odis'i:

576 Atene.—Laerte'ren serne, Zeus'en leiñuko! Odis, amarruz joril Zagoz geldi ta amaira beite liskar au, guztiontzat negargarri dan burruka au: Zeus Kronida, urriñera dakusana, aserratu ez dakizun.

380 Gisa orretan mintzatu zan Atene: eta Odis'ek, pozarren, bete eban arek esani. Eta ondoren, Pala Atene'k borak, ikurriña daroan Zeus'en alabenk. Nientor'ren itxurea ta abotsa artu zituanak, egin eban, alderdi biak zin-egíñez bakea ndo-azo egiela.

AMAIA

LIBURU ONETAM DATOZAN

IZEN BEREKI NAGUSIENAK

Afrodita, **Zeus** eta Dione'ren alaba, maitasunaren jainkosa.

Agamenon.—Mikena'ko errege, Ateu'ren semea, Troia'ren aurka joan ziran gudarien buru. Uria artuta gero, bere sorterrira itzuli zan; bere emazte Klitemnestra'k illa.

Akaia.—Peloponeso'ko lurraldea, Korinto'ko itxas kolkoan; Iñoizko Elade osoa be adierazten dau.

Akasto.—Duliki'ko erregea; Duliki, barriz, Jonik itxasoko ugarte, gaurko Makri bear bada.

Aikinno.—Feazitarren errege, Arete'ren senar eta Nausikaa'ren aita. Eskeri ugarte, agintzen dau.

Alkmena.—Tebas'ko errege. Anfitrion'en emazte ta Herkule'n ama.

Anfinomo.—Penelope'ren senargeirik atsegingarriena. Telemako'k ii eban.

Anfite.—Autoliko'ren emaztea. Odis'en amaren aldeko amama.

Antikle.—Autoliko'ren alaba. Laerte'ren emazte ta Odís'en ama.

Antifate.—Lestringondarren errege; irudíz beintzat Zerdeña ugarte,an bi-zi ziran erraldoien endakoak ziran lestringonak.

Antiloko.—Gerkar buruzagia, Nestor eta Euridike'ren seme, Akil'en lagun kutuna. Troia'ko burrukan il zan, Memnon, Egu-antzaren semearen eskuz.

Antinoo.—Eupite'ren semea, Penelope'ren senargeietatik nausi ta lotsabakoena. Odis'ek berau ii eban lenengo.

Apol.—Zeus eta Leto'ren seme; argiaren, olerkiaren eta eresiaten jainko. Delos ugarte,an jaio zan eta ementxe eukon bere jauretzea be.

Akiiieu.—Gerkar buruzagia, Peleu eta Tetis'en seme. Hade'n aurkitzen da, baiña ez dago pozik illen egoitzean.

Ares.—Gudako jainko, Zeus eta Hera'ren seme.

Arete.—Errexenor'en alaba, feaziarren errege Alkinoo'ren loba ta emazte, ta Nausikaa'ren ama. Ba-eban aginpiderik bere erresuman.

Argos.—Batzutan uri bat da, Odis'enean; beste batzutan Argolide eritxon lurralde a aierazo nai dau. Peleponeso sortaldekoa; iñoiz baita Peleponeso osoa be.

Artemis.—Zeus eta Leto'ren alaba, Apol'en arreba, eizearen jainkosa. Omer'ek, Nausikaa ta Penelope'ren edertasuna goratzeko, Artemis'en antza daukela diño.

Atene.—Zeus'en alaba, Atenai'ren zaindari, ta oro ar uri guztiena. Emakume txit ederra, lantzaz, buru-oskolez eta ezkutaz jantzia iruditui dana. Odis'i sarri lagun egiten dautso sorterrira biurtu dedin.

Adante.—Kalipso'ren aita. Lurra ta Zerua bereizten dituen zutoiñak berak dauk-nz lepe gainean.

Atreu.--A'amenon eta Menelau'ren aita; auxegaitik deritxe onei Ate-reu-sevneak.

Autoliki.).—Antikle'ren aita, Odis'en amaren aldeko aitita, bi daukaguz *izen* onegaz; bata, gerkar buruzagia. Telamon'en serne, ta bestea, Mkritarren nausi. Oileu'ren sorne. Posidon'ek zigor-aso eban 'ocre zorakeriagaitik, Troia jausi ondoren, etxera etorrela ontzia ondatu-azo eban.

Boote.—Ipar-aldeko izar-mordoa, izar nausi Artur dalarik.

Borea.—Ipar-aldeko aizea, uin aundiak jagi-azo ta ekaitzak dakazana.

Delo.—Egeo itxasoko ugartea, Kikladetatik bat. Ipuñak diñoanez, no-raezean ebillen ugartea, baiña Zeus'ek ainguratu eban. Apol eta Afrodita'ren sorleku izan eiten.

Demeter.—Krono ta Rea'ren alaba, lur-lantzearen eta barzaldiaren lain-Losa; Keres erromatarrentzat.

Demcdoko.—Feazitarren urian bizi zan bertsolari itsua.

Deugalion.—Zeus'en illoba, Minos Kreta'ko erregearen semea, ta Idomeneu'ren aita. Mitolojiari jarraiki, Heleno'ren aita izan zan, eladetar endaren asaba zarra.

Dionixi.—Traziar jatorrizko jainkotasuna; gerkarren ustetan, ardoaren jaínko.

Dodona.—Epiro'ko urja; artaN done boten ondoan Zeus'ek eukan itz ezkutu-tokiz ospetsu.

Duliki.—Jonik itxasoko ugarte, gaurko Makri uste danez.

Fea.—Kirke astia bizi zan ugartea; Sorkalde Uncan, Omer'en ustez.

Egas.—Akaia'ko urja, Pelopenoso'n, Posidon'en bizilekua.

Egu-antz.--Jainkosa, Hiperion'en alaba ta Eguzkí ta Illargiaren aizta. Eguzkiaren aurretik agertzen dan larrosa kolorezko argia, nor bizi egifiik.

Eoli.—Eol, siseen errege bizi san ugartea. Lipari ugarteetatik bat zan, antza.

Eupeu.—Panapeu'ren semer Troia azpiratzeko, gerkar buruzagiak ezkutatatu ziran zurezko zaldia antolatu ebana.

Eriniak.—Aide-lokarrien aurka batez be egin oi ziran gaiztakeriak apentzen ebezan jainkosak.

Eskila—Mesinalo itxas-zintzurrean aurkitzen zan ur-bidutzia, an ingurutik igaroten ziran itxas-gizonak erakarri ta arrapau oi ebazana.

Eskeri.--Feazitarren ugartea, Korfu, bear bada?

Estigiaa—Lur azpiko aintzira; augaitik zin-e^gien jainkoak. Jainkoak bi. raolariak barriz, zati baterako beintzat, alinpu'rik jaurtiak izaten ziran.

Etiopie.—Omer'entzat, Mediterraneu zear. Africa'ko sortaldetik sarkalderako erriak osoturiko lur-ertz edatua.

Eumeu.—Odis'en txarrizaiña, ta onen jopuetatik zintzoenatariko bat.

Eurikle. Mirabea, Laerte'rena lerengo ta Odis'ena gero. Penelope'ren janari ta abarren arduraduna.

Euro.—Sortaldetik datorren aizea.

Faetonte.—Lanno'rekin batera Egu-antzaren buriitik tira dagian zaldia.

Faro.—Egipto'tik aurrez-aurre dagoan ugartea.

Femi.—Bertsolari ospetsua; senargaien aurrean, oneik beartuta, abestu oi ebana.

Fenizia.—Siria itxasaldeko lur-sailla; eskualde ontako biztanleak jakitunak ziran oso itxas-arazoetan eta sal-erosketan batez be; eurok as' matua ei izkuntzetako abedeze be.

Fidon.—Tespilotarren errege, Epiro itxasaldean bizi zana.

Fileti.—Odis'en idizaina; ugazabari zintzotasuna gorde eutson jopuetatik bat.

Gerani.—Pilos'ko errege Nestor'cn izenordea, Herkule'k uria artu ebanean, Nestor, Gereno'ra, Meseniko urna croan ebelako.

Gorgonak.—Gerkar mitolojil:o bidutziak, euroi begira egozanak arri biurtzen ebezanak.

Gortina.—Kreta'ko uria, antxiña bateko aztarrenez jori.

Hade.—Ildakoen egoitza, lurpean edo sartaldean, Okcan'en urez besaldeen dagoana. Hefesto, Zeus eta Hera'ren semea; suaren eta burdin-oien jainkoa, Afrodita'ren senarra.

Helena.—Zeus ta Leda'ren alaba, Menelau'ren emazte. Paris'ek indarrez arrapau eban, eta onek emon eutsan sortzea Troia'ko burrukeari. Gero, Esparta'n bizi izan zan bere senarragaz.

Hermes.—Zeus eta Maia'ren seme, jainkoen mezulari.

Idomeneu.—Ivlino'ren illoba, kretarren buruzagi Troia'ko liskarrean. Gerkar gudal-bruetatik auxa izan zan itxasoz gizonik bat bera be galdu barik bere aberrira itzuli zana.

Iiion.—roia'ren izena; Ilos'tik eratorria, onek bait eban antxiña baten uri au irasi.

Ismaro.—Zikondarren uria, Trazia'n.

Itaka.—Jonik itxasoko ugarte. Odis'en aberria. Leukade'tzat euki izan dan arren. gaur uste danez Tiakri ugarteari dagokio.

Jason.—Tesalder errege-gaia, Argos ontzian urrezko ule-zarpa eskuratzerakolki e'ra joan zana.

Kaiipso.—Ninpa, Atlante'ren alaba, Odis Ogigia ugartean, Zeus'ek agindu eutson arte, atxillo euki ebana.

Kanpo Zoriontsuak.—Lurraren bazter-muturra, gizakumeak zoriontsu bizi diran lekua. An zuzentasuna daroana Radamantis zintzoa, Zeus eta Europa'ren seme Kreta'ko errege Minos'en anaia da.

Karibdis.—Itxasoko bidutzia, Mesina'ko ur-kolkoan andik igaroten ziran ontziak irunsi oi ebazana.

Kefir.—Sartaldetik datorren aizea.

Kirke.—Eguzkiaren eta Perse'ren alaba. Eea ugartean bizi da, sorgiña, Odis'en laguntalde bat txarri biurtu eban.

Kitera.—Lakoni itxasaldeko ugarte bat, Peleponeso'n; Afrodita'ri opa ospetsu.

Kiitemnestra.—Tindaro ta Leda'ren alaba, Helena'ren aizta ta Agamennon'en emazte; au ü egin eban bere maita,e Egisto'k lagunduta. Bere seme Oreste'ren eskuz il zan berau be.

Kreta.—Grezi'ko ugarterik zabalena, Kristo'ren aurreko XVI ta XV'garren gizaldi-kultura aundikoa izan zana.

Lakedemoni.—Peloponeso'ko eskualdea; emen agintzen eban Menelau'k.

Laerte.—Antikle'ren senarra ta Odis'en aita.

Lamo.—Posidon'en seme, lestrigondarren bakaldun.

Leda.—Tindaro'ren emazte ta Kastor, Polux, Helena ta Klitemnestra'ren ama.

Lemnos. Egeo itxasoaren iparraldeko ugarte; emen jausi ei zan Hefes-ro, zerutik bota ebenean.

Lesbos.—Egeu itxasoko uga,stea, Misi itxasaldeari aurrez-aurre, Asia Txikian,

Lestrígonia.—Erraldoi gizajaleak bizi ziran eskualdea.

Malea.—Lakoni'ko lur-rnuturra, Peloponeso'ko ego-sortaldean.

Melanto.—Odis'en auntz-zaiña; agazabarentzat leial izan etzalako, Tele-mako'k crin samingarria emon cursan.

Meneiau.—Lakedemoni'ko errege. Bcr c anai Agamenon'ekin batera, bere emazte 1 lcicna Paris'ek ostu ondoren, Troia'ren aurkako joan-etorria zuzendu eban.

Mente.—Tatitarren errege ta Odis'en ostatari. Tafitarrak, Itaka'ko iparraldean bizi ziran itxas-lapurak ziran geien bat.

Mentor.—Alkimoo'ren seme ra Odis'en adiskide, au urrin zan bitartean jauregiko gauzen ardurea izan ebana.

Mikena.—Argolide'ko uria, Agamenon'en erreñuko uriburu. Urte asko be askotan Elade'ko uririk garrantzitsuena izan tan.

Mínos.—Kreta'ko errege, Zeus eta Europa'ren seme.

Nausikaa.—Alkinoo ta Arete'ren alaba, feazitarren errege. Omer'en poetako einakumerik zoragarrienetariko bat dozu, eskertsu, duin ta gozo.

errege antxiña, Nestor'ren aita.

Neoptoiemo.—Akil eta Deidami'ren teme. Menelau ta Helena'ren alaba Hermionekaz ezkondua.

Nestor.—Pilos errege, Neleu'ren seme; Telemako ikustera joako, au bere airaren albiste billa ibilli zanean.

Okean.—Zeruaren teme ta Tetis'en Omer'en sorpenaren arauz, lurra bcsarkarze dauan ibaia da, ta onetatik jalgiten dira urca itxasoko lirain guztiak.

Odis.—Uiises. Laerte ta Antikle'ren semea, Itaka'ko errege. Odis'ena poemaren aintzindari; beronen bereizgarri beiñenak: naigabe, neke-min eta gorabera guztietan erakusten dauan eroapena, ta, senargeiai eriotza motean, agertu eban bere buruagazko jabetasuna.

Ogigia.—Kalipso bizi dan ugarte. Malta ta Madera ugerteen tartekoa zala iñoiz esan eta idatzi da; baiña olerkariak asmatu-riko tokia izan bear dau.

Olinpu.—Tesali'ko mendia; ementxe bizi ziran jainkoak.

Oreste.—Agamenon eta Klitemnestra'ren semea. Bere airaren sarrasketaz apendua artu eban, bere amari ta onen mátale Egisto'ri eriotza emonik.

Orion.—Iru gauzaki adierazten ditu Omer'ek itz onegaz: 1) Eguantzaren maitale bat, Artemis'ek il ebana; 2) eiztari erraldoia, bere garaiko gizasemerik garaienetariko bat, eta 3) izar-mordoa, Artza beti zela-tan daukona.

PaEo.—Txipre'ko uria

Pala.—Atene'ren izengoitia. Batzuk nai dabenez, jainkotasun baten ize-na da

Parnaso.—Fokide'ko mendi-besanga, Musaen oizko bizitegia.

- Patrokol.—Meneki'ren serle, Akil'en adiskide kutun.
- Peleu.—AkiVen alta, mirmidondarren errege. Orixegaltik esaten yako Akin edo Peieu'ren semea.
- Penelope.—Esparta'ko ikari'ren alaba ta Odis'en emazte, Emazte zintzo, asmotsu ta zurtzat joten dabe, Odis kanpotik zan bitartean, ainbatek beragaz ezkontzea nai izanik be, beti leial eta errime jokatu ebalako,
- Persofone.—Latirarentzat Proserpina. Zeus eta Demeter'en alaba. Hade'k ostua, urtearen lautik iru aregaz emon bear izaren zituan, eta gainera'koa nir-gaiñean. Lurraren, urte-aroen, ereintzaren eta uzraren ugaritasuna nortu ta agert-erazten dau, eta uztaren ugaritasuna nortu ta agert-erazten dau.
- Pilos.—Nestor'en erreinuko uriburua. Nieseni'n, Peloponeso'tik ego-sartal-dera.
- Pisistrato.—Nestor eta Euridike'ren semea, Telemako'ri Esparta'ko joan-etorrian lagun egin eutsona.
- Pito.—Tokide'ko auzune bar, Parnaso oiñean. Delfos'en antxiñako izena, Aporek an eran eban Piton sugeagaitik orrela deitua.
- Polifemo.—Posidon eta Toosa ninfaren semea. Kik, opetariko bat, Sizili' oko ugartean bizi ziran eraldoietarikoak, bekoki erdian begi biribil bategaz.
- Posidon.—Kronos eta Rearen seme, Zeus'en anai, Itxasoaren eta lur-ikaren jainkoa da. Odis'cn aurka diardu beri, onek bere seme Polifemo itsutu izan ebalako.
- Pramni.—Izen onekin ezaguna zan tokiko ardao baltz gotorra; batzuntzat Lesbos ugartean eta beste batzuntzat Asia Txikian.
- Priamo.—Troia'ko errege, Hektor eta Paris'en alta batez be.
- Proteu.—Itxas-jainkotasuna, Idoeta'ren aita. Odis'cnak nai dauanez, it xasotso (foka) artean bizi dan agure zaar bat dozu. Itxura bereziak artzen ditu bere etsaiengandik iges egiteko.
- Radarnantis.—Zeus eta Europa'ren seme, Minos'en anai, Kreta'ko errege.
- Same.—Jonik itxasoko ugartea, Itaka'tik laster, bear bada gaurko Zefalonia.
- Samos.—Egeu itxasoko ugartea, Lidia'ri aurrez aurre, Asia Txikian.
- Sirenak.—MitolojTizakiak, Kirke'ren izarotik urreko ugarte baten bizi ziranak; euren abots zoli gozoz itxasoz ebiltzanak lilluratu oi ebezan. Txori-itxura dabe, emakumezko buruz.
- Sisifo.—Eolo'ren seme ta Glaulco'ren alta; ilkorretatik maltzurrena zala esan oi eben.
- Tafos.—Jonik itxasoko ugartea, gaurko Korfu bear bada.
errege Erigian, Zeus'en seme ta Pelope'ren aita; jain-joen arroztasunari imán egin eutsolako, Zcus'ek beti-betiko zigorra leporatu eutson.
- Tebas.—Odis'nean, uri bi daukaguz izen onegaz: bata Beozia'n eta bestea Egipto'n.
- Telemako.—Odis eta Penelope'ren seme. Beraren izenak «urtin burruka-tzen dana» adi-erazo nai dau, berau ta aita beti erasope bizi izan ziralako, Odis'ena'ren poeman lenengo lau liburuetan agertzen yaku, eta gero aita Sitzultzean, senargaien ilketan adoretzu burrukan dagi. Ez da bere aita baizen maltzurra, baiña seme leial eta biotz-bera.

Tenedos.—Egeu itxasoko ugartea, Troade'ri aurrez-aurre.

Tetis.—Itxas-jainkotasuna, Okcan'en alaba, Pelen 'ren emazte ta Akiren ama.

Tizesia.—Idurizko ugartca, Sizili cdo olakorcn bat.

Txipre.—Mediterranculo ugartca, meatzetan ugari, tupikiz batez be, Fc-rnziazarren uní ta lurralde aberatsa antxiña baten geroago gerkarrak artu ebena, Afrodita jainkoari an emoten yakon gurtzak izan eban garra ntziri k.

Troia.—Troadc eskualdeko uriburua; gaurko Hissarlik ondoan aurkitu zan aren zorua. Bederatzi uri agertu ziran, bata bestearen gaiñ, Gaur uste danez, zazpigarrena izan zan Troia'ko guda zelaia. Omer'ek edesten dauskuna.

Zazintzo.—Jonik itxasoko ugartea, gaurko Zante.

Zeus.—Kronos eta Rearen seme, Hera'ren senarra, ontziaren eta tximisten jainko, jainkoen eta gizakumeen aita. Berak darabiltz gizasemen bizisorabcrak, berak damotso bakotxari zoriona edo zoritxarra. Geroa ezagun dau, eta noizik bein ilkorrai iragarten dautse etorkizun dana.

AURKIBIDEA

<i>I Kantua:</i> Jainkoen batzarra. Atene'k Telemako burutztra emona.	14
<i>II Kantua:</i> Itakarren batzarra. Ba-doa Telemako	26
<i>III Kantua:</i> Pilos'ekoa.... ..	37
<i>IV Kantua:</i> Lakedemoni'koa	50
<i>V Kantua:</i> Odis'en baldusa	72
<i>VI Kantua:</i> Odis, feazitarren lurraldera eltzen da	84
<i>VII Kantua:</i> Alkinoo'ren jauregian sartzten da Odis	93
<i>VIII Kantua:</i> Odis, feazitarren aurrean ...	102
<i>IX Kantua:</i> Alkinoo'ri esanak. Kiklope	11.7
<i>X Kantua:</i> Eol'i, Lestrigondarra ta K:rke'ri buruzkoa.	131
<i>XI Kantua:</i> Illak gogoraztea	146
<i>XII Kantua:</i> Maitederrak, Eskila, Karibdis, Eguzkiaren keialr	162
<i>XIII Kantua:</i> Odis, feazitarren lurraldea itzi, ta Itaka'ra eltzen da	174
<i>XIV Kantua:</i> Odis, Eumco'rekin alkar-izketan	186
<i>XV Kantua:</i> Telernako, Eumeo'ren bordara eltzen da ...	200
<i>XVI Kantua:</i> Telemako'k Odis ezagutzen dau	215
<i>XVII Kantua:</i> Telemako Itaka'ra biurtzen	227
<i>XVIII Kantua:</i> Odis eta Iro ikubilka	243
<i>XIX Kantua:</i> Odis eta Penelope autuan. Eurikle'k eza- gutzen dau Odis	255
<i>XX Kantua:</i> Senargeiak erail aurretik jazo zana ,....,	271
<i>XXI Kantua:</i> Uztaiaren soioa	282
<i>XXII Kantua:</i> Senargaicn ilketa ...	294
<i>XXIII Kantua:</i> Penelope'k Odis ezagutzen dau	307
<i>XXIV Kantua:</i> Bakeak	317
Liburu onetan datozen izen bereki nagusienak	331

